Beasainen

Guda ondorena
La posguerra en Beasain

1937-1945

IV. Liburukia
Volumen IV

Jon Kortazar
Deustuko Unibertsitatean Historian lizentziaduna, 2007. urtetik historia eta arkeologiarekin zerikusia duten ikerketa-lanak burutzen dihardu Aranzadi Zientzia Elkarteko kide bezala. Honez gain, UNED-eko Ikerketa Historikorako Metodo eta Teknika Aurreratuak masterra ere eskuratu du.

Licenciado en Historia por la Universidad de Deusto, desarrolla trabajos de investigación histórica y arqueológica como miembro de la Sociedad de Ciencias Aranzadi desde el año 2007. Paralelamente ha completado su formación mediante la realización de un máster universitario en Métodos y Técnicas Avanzadas de Investigación Histórica (U.N.E.D.).

Babeslea
Patrocinador

Beasaingo Udala

BEASAIN: OROIMEN HISTORIKOA

Guda ondorena BEASAINen 1937-1945

La posguerra en Beasain (1937-1945)

Jon Kortazar Billelabeitia

Beasain 2018

aranzadi

zientzia elkartea

PROIEKTUAREN KOORDINAZIOA / COORDINADOR DEL PROYECTO
Mikel Edeso, Juantxo Agirre-Mauleon

IKERLARI KOLABORATZAILEAK / INVESTIGADORAS COLABORADORAS
Rebeca Martínez (Aranzadiko historialaria / Historiadora de Aranzadi - Archivo Militar de El Ferrol),
Cristina Martín, Marijose Hernández (Antropologia Fisikoko Saila / Departamento de Antropología Física - Aranzadi),
Anais Rodriguez (Artxiboa / Archivo - Aranzadi).

ESKERRAK / AGRADECIMIENTOS
Ikerketa lan honetan parte hartu duten herritar guztiei, bereziki Beasaingo oroimen historikoaren taldeari.

EUSKARAZKO EDIZIOAREN ARDURADUNA / RESPONSABLE DE LA EDICIÓN EN EUSKERA
Andoni Sarriegi

GAZTELANIAZKO EDIZIOAREN ARDURADUNA / RESPONSABLE DE LA EDICIÓN EN CASTELLANO
Karlos Almorza

ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEA. Zorroagagaina 11. Donostia-San Sebastián 20014. Tfnoa.: 943466142. www. aranzadi.eus

Egilea/Autor
Jon Kortazar Billelabeitia

Itzulpena/Traducción
Saretik Hizkuntza Zerbitzuak, UZEI, Logika Itzulpenak.

Maketazioa/Maquetación
TamTam S.L.

Imprimatzen du/Imprime
Leitzaran Grafikak S.L.

ISBN 978-84-947343-3-5 (O.C.)
ISBN 978-84-947343-7-3 (4. libk - Vol. IV)
L.G. / D.L. SS 1120-2018

Aurkibidea

AURKEZPENA 07

1. GUDA ONDORENA BEASAINEN (1937-1945) 11

1.1. Sarrera 12
1.2. Beasaingo demografia eta ekonomia 13
1.3. Botere-guneak guda ondorengo Beasainen 15
1.3.a) Jose Luis Guridiren alkate-aldia. 19
1.3.a.I) Zerbitzuak 30
1.3.b) Martin Esnaola Elizegiren alkate-aldia 33
1.3.b.I) Zerbitzuak 38

1.4. Tropekiko jarrera agintarien aldetik 40
1.4.a) Militarren eta udal-agintarien arteko harremana 40
1.4.b) Francoren bisitaldia Beasaina 47

1.5. Errepresioa 48
1.5.a) Heriotzak 48
1.5.a.I) Epaiketarik gabe hildakoak 48
1.5.a.II) Epaiketa ostean fusilatutakoak 51
1.5.a.III) Aratz-Matxinbentako gerrilariaren heriotza 53
1.5.b) Epaituak, kartzelatuak eta langile-batailoietara eramandakoak 54
1.5.d) Erbestea 67
1.5.e) Umezurtzak eta errepresioaren oroimenaren desitxuraketa 68
1.5.f) Errepresio soziopolitikoa eta kontrol soziala 69
1.5.g) Errepresio soziopolitikoaren ondorioak: familien arteko harremanak eta biktimen oroitza 77
1.5.h) Lan-errepresioa 87
1.5.i) Gosea, errazionamendua eta estraperloa 96
1.5.j) Euskararen egoera 106

2. ERANSKINA (Zerrendak) 113

3. ERANSKINA (Lekukotzak) 155

4. ERANSKINA (Monumentua) 203

5. ITURRIAK ETA BIBLIOGRAFIA 383

Aurkezpena

Nafarroa etorbidea gerra ondoren. Ezkerretik hasita lehen etxea Barrendain da eta hurrengoa Urteaga hotela. Argazkia 1959koa da. (Argazkia: JZG, 21. or.)

Bi izaera batu zaizkit liburu honen hitzaurrea prestatzeko garaian: alde batetik, arlo forentseen ikerketan trebatutako profesionala izatea eta, bestetik, Beasaingo biztanle izatea. Jaio nintzenean, altxamendu militar frankista gertatu zenetik 21 urte igaro ziren, baina haren ondorioak oraindik ere oso agerikoak ziren Beasaingo eta Goierriko bizitzan.

Gure familiak beldurrez eta zuhurtziaz hitz egiten zuen gai haien inguruan. Elementu traumatikoa izan zen; guztiek hitz egiten zuten matxinatuak Beasainen nola sartu ziren, CAF nola militarizatu zuten, eta Beasainen zein ondoko herrian, Ordizian, dinamika kulturalak nola hautsi zituzten.

Honen moduko ikerketak duela urte asko egin behar ziren, batez ere sufrimenduak argitzeko eta biktimak aitortzeko lekukotza baliotsu ugari galdu delako.

Zalantzarik gabe, honako hau Beasaingo historia hobeto ulertzen eta hemen kontatutakoen moduko gertaerak berriro errepika ez daitezen espiritu kritikoa sortzen lagunduko digun ikerketa da.

Francisco Etxeberria Gabilondo
Antropologia Fisikoko zuzendaria
Aranzadi Zientzia Elkartea

GUDA ONDORENA BEASAINEN (1937-1945)

1.

Andre Maria Zeruratuaren parroki eliza, Erretore-etxea eta Seroretxea. (Argazkia: FL/MG, 157. or.)

Guda ondorena BEASAINen: (1937-1945)

1.1 Sarrera

Guda-garaian gertatutakoak ikertu eta gertaera horiek nolabait argitzen saiatu ondoren, orain, Beasainen guda ondorenean aginte berriak izandako jardunaz mintzatuko gara. Izan ere, aurreko kapituluetan argi utzi dugu altxatuak ez zirela ongi etorriak izan Beasainen, ez politikoki (herriaren gehiengoa ezkerrekoa baitzen, eta abertzaleek ere indar handi samarra baitzuten), ez eta militarki ere (borroka gogorra izan baitzen). Beraz, eskuindar altxatuen aldeko aginteak Beasainen, "okupazio-izaera" izan zuen, herritarren gehiengoa erregimen berriaren aurkakoa zen-eta.

Horrela, kapitulu honetan, gutxiengo garailearen agintearen eta gehiengo garaituaren (beraz, politikan eragiteko legezko biderik gabeko gehiengoaren) arteko harremanak nolakoak izan ziren argitzen saiatuko gara. Erregimenarentzat (edozein erregimenentzat) bere agintea "normaltasunaren" itxurarekin zilegiztatzea helburu izanik, Beasainen halakorik lortzea oso zaila izan zitzaien printzipioz. Euren agintearen inguruko herritarren "adostasuna" (adostasun pasiboa gehienetan, hots, kontra modu argian ez egitea) eta euren agintearekiko "jasangarritasuna" lortzeko estrategia ezberdinak aztertuko ditugu: bai indarraren bidez (bortxa, agintekeria), zein beste bide batzuen bidez (eguneroko zerbitzuak ematea).

Lehen arazoa periodizazio kronologikoa dugu. Izan ere, berez, 1936ko Guda 1939an bukatu zen eta azken borrokaldi gogorrak urte horren hasieran izan ziren. Beraz, ikerlan askotan frankismoaz, Estatu frankistaz eta bere egiturez eta horrek herritarrengan izan zituen ondorioez hitz egiten denean, 1939. urtea hartzen da erreferentzia moduan, izan ere, fronteko borroka militarrak bukatuta, 1936ko uztailean altxatu zirenek euren proiektu politikoa burutzeko aukera betea izan zutela ulertzen baita. Baina kontuan izanik altxatuak Beasainen 1936ko uztailaren 27an sartu zirela, 1936ko irail-urrietan Gipuzkoa osoa (Elgeta eta Eibar izan ezik) eta 1937an Hego Euskal Herri osoa kontrolatzen zutela, borroka-frontearen aldetik mehatxu gutxi izan zuen Beasaingo eskuindarren aginteak. Gainera kontuan hartu behar dugu "Francorena izango zen erregimena", bere behin betiko forma hartzen lagunduko zioten neurriak hartzen joan zela: 1936ko irailaren 29an Franco bera izan zen altxatuen zonaldeko "Estatu-zatian" Estatuburu izendatua, 1936ko bukaeran bere aldeko alderdien milizia paramilitarrak "aginte militar bateratu baten menpe" jarri zituen, hau da, altxatuen aldeko Armadaren mende eta 1937an falangistak eta karlistak bateratu egin zituen FET--JONS alderdi bakarrean. Gertakari horiek guztiak gertatu zirenerako, Beasainen jada altxatuen aldekoak ari ziren gobernatzen eta beren funtzionamendu-eredua inposatzen.

Zergatik hasi hori mugatzen 1937tik eta ez beste data batetik? Gure ustez, 1936ko azken hilabeteetan, Beasainen artean, aginte frankistaren egiteko nagusia errepresioa hedatzea izan zen (eta horretan militarrek indar handia izan zuten). Beraz, 1936an frankistek Beasainen izan zuten aginteak, artean lotura handia zuen 1936ko uztailaren 27tik 28ra gertatutako sarraskiarekin. Horregatik, nahiago izan dut hori aurreko kapituluan sailkatzea. Bestalde, kapituluaren beraren barne-mugarri bat ere ezarri dut, hain zuzen ere 1941. urtea; urte horretan alkatetzan aldaketa izan baitzen: Martin Esnaola Elizegik Jose Luis Guridi Aranburu ordeztu baitzuen.

Horrez gain, kontuan izan behar dugu, Beasainek eta bertako herritarrek beren egunerokotasunean, hainbat arazori aurre egin behar izan ziotela eta oso egoera gogorrean egin ere; izan ere, guda ondorengo urteetan gosea izan zen nagusi. Horrez

gain, kontuan hartu behar da, frankismoaren garaian aberastasunaren birbanaketa atzerakoia izan zela, eta horrek, herritar gehienei kaltea ekarri ziela. Are gehiago, frankismoak gizarte-mugikortasunaren "igogailua" zurrundu egin zuen eta herritar gehienek, euren egoera soziala hobetzeko aukerak moztuta ikusi zituzten.

Bestetik, ezin da ahaztu, herritar askok euren eguneroko hizkuntza, euskara, etxetik kanpo erabiltzeko aukera murriztua edo debekatua izan zutela; eta horrez gain hizkuntza horretan mintzatzea "konpondu beharreko akats" gisa ikusten zutela agintariek; herritar askorengan trauma handia sortu zuen (eta kasu batzuetan, zigor fisikoen eragile ere izan zen). Gure hizkuntzarentzat, Errepublika garaian hasitako berreskurapen geldoaren joera, errotik moztua izan zen, eta beraz, aurretik zegoen euskararen kontrako egoera areagotura itzuli zen. Hala ere, Monarkiaren gobernu ezberdinen euskararen kontrako jarrerak eta Francoren euskararen kontrako jarrerak (batez ere lehen urteetan, guk ikertu behar dugun tarte honetan) ezberdintasun bat izan zuten: lehenengoek ez zutela euskara erabat desagerrarazteko berezko helburu garbirik izan, baizik eta espainiera herritarrengan zabaltzekoa eta espainierak hegemonia soziala lortzekoa. Frankismoaren garaian ordea, espainiera "Inperioaren hizkuntza" bezala identifikatu zen, hots, proiektu politikoaren hizkuntza, eta Estatu totalitarioa izaki, herritar guztiek haren politikan parte hartzea eta proiektu politikoa Espainiako azken txokoraino eta azken herritarrarenganaino zabaltzea helburu zuenez, hizkuntzaren arloan ere nabaria izan zen asmo hori. Euskara ez zen soilik hezkuntzatik kanpo gelditu, helburua edozein tokitatik kanpo gelditzea izan zen. Arlo horretan ere, agintarien eta herritarren arteko harremana nolakoa izan zen ikusiko dugu. Izan ere, Beasaingo populazioaren parte euskaldun elebakarra (praktikoki), frankismoaren helburu horrentzako oztopo handia izan zen. Beste alde batetik, Beasaingo euskaldunek euren hizkuntzari eusteko erabili zituzten estrategietan ere sakonduko dugu.

Egoera horren aurrean, nola jardun zezaketen agintari eskuindarrek aurkakoa zuten populazio batekiko, euren errepresioa jasan zuten herritar askoz osatutako populazioarekiko, bere hizkuntza erabili ezin zuen populazioarekiko, horien (edo gutxienez ere batzuen) aldekotasuna edo gutxienez "neutraltasuna" lortzeko? Aurreko kapituluan azaldu ditugu halako estrategia batzuk, hain zuzen ere jaiak eta erritualak sortuz (batez ere gudari edo politikari lotuak). Jai eta ospakizun horiek guda ostean gailurra jo zuten, Franco Estatuburuak, Beasain, eta batez ere CAF fabrika, bisitatu zituenean. Baina argi dagoenez, pertsonak ez du soilik horretatik jaten, eta bestelako moduak ere erabili behar izan zituzten. Beasaingo egunerokotasunean nabari zitezkeen hobekuntzak nola kapitalizatzen saiatu ziren ikusiko dugu.

1.2 Beasaingo demografia eta ekonomia

Guda ondorenean Beasainen demografia jaitsi egin zen. Are gehiago, 1938ko errolda batek, Beasainek berez, 5.215 biztanle (2.294 emakumezko eta 2.921 gizonezko) eta legez, 5.350 biztanle (2.319 emakumezko eta 2.931 gizonezko) zituela dio[1]. 1938ko zergen errolda baten arabera, herrigunean 4.005 pertsona bizi ziren[2].

Datu baikor horiek ez zituen baieztatu 1940ko erroldak. Horren arabera, 1940ko urrian, Beasainen, 5.021 biztanle zeuden berez (horietatik 2.456 emakumezko eta 2.565 gizonezko) eta legez, 5.265 (horietatik 2.559 emakumezko eta 2.706 gizonezko)[3]. Baina Francoren erregimenean, "herritar" kontzeptua aldatu zenez, handik aurrera, "herritar" (*vecino*) eta "biztanle" (*domiciliado*) kontzeptuak ezarri ziren (lehena, adin nagusiko pertsonei erreserbatua zegoen). 1940ko abenduan, berez 4.986 biztanleko eta legez 5.231 biztanleko populazioa zuen Beasainek erroldaren arabera eta 1.466 auzokide emakumezko, 1.373 auzokide gizonezko, 1.141 "finkatutako biztanle" emakumezko eta 1.251 "finkatutako biztanle" gizonezko zeuden (gainera, Arangoiti ospitalean, 23 emakumezko eta 17 gizonezko zeuden)[4].

1943ko Hornikuntzaren Mapa Nazionalaren arabera, 1942an zehar, Beasainen, 78 pertsona jaio eta 57 pertsona hil ziren eta 46 ezkontza izan ziren. Datu horien arabera, Beasainen, beste erroldek ematen zutena baino pertsona gehiago bizi ziren: 5.541, 2.852 emakumezko eta 2.689 gizonezko.

1945eko erroldaren arabera, Beasainen 5.196 pertsona bizi ziren (legez 5.430), horietako 2.621 emakumezkoak izanik (legez 2.708) eta gizonezkoak 2.575 (legez 2.722). Legezko emakumezkoen populazioaren artean 1.566 "herritarrak" ziren eta beste 1.142 "biztanleak"; eta legezko gizonezko populazioaren artean, 1.476 "herritarrak" ziren, eta beste 1.246 "biztanleak"[5].

---

1 Beasaingo Udal Artxiboa. 251. karpeta, 01. dokumentu-sorta.
2 Beasaingo Udal Artxiboa. 1406. karpeta, 04. dokumentu-sorta.
3 Beasaingo Udal Artxiboa. 2065. karpeta, 01. dokumentu-sorta.
4 Beasaingo Udal Artxiboa. 2065. karpeta, 01. dokumentu-sorta.
5 Beasaingo Udal Artxiboa. 2065. karpeta, 04. dokumentu-sorta.

or.

Ikusten dugunaren arabera, 1940 eta 1944 artean Beasaingo populazioa nahiko egonkorra izan zen, gorabeherarik gabea, baina 1945ean igoera txiki bat antzematen da. Joxe Manuel Azurmendi Dorrontsororen arabera, 1940 eta 1945 artean, Beasainen jaiotzak, heriotzak baino gehiago izan ziren urte guztietan: 1940an 95 jaiotza eta 52 heriotza, 1941ean 84 jaiotza eta 64 heriotza, 1942an 88 jaiotza eta 57 heriotza, 1943an 102 jaiotza eta 36 heriotza, 1944an 92 jaiotza eta 49 heriotza eta 1945ean 98 jaiotza eta 50 heriotza[6]. Beraz, datu horiek ontzat ematen baditugu, Beasainen populazioa pixkanaka-pixkanaka haziz joan zela ondorioztatzen dugu eta hazkunde natural hori etengo zuen emigrazio-dinamikarik ez zela izan, ez eta horri ekarpena egin ziezaiokeen inmigrazio-dinamikarik ere (II. Errepublika-garaian ez bezala).

Industriaren zabalkuntza, guda ondorenean nahiko gelditua egon zen. Hala ere, 1937ko urriaren 23an "Industrias Ormaiztegui" deitutako fabrika bati baimena ematea aztertzen hasi zen Udala[7]; hain zuzen ere Zuntzunegi Aseginolatza familiaren lurretan egitekoari; 540 metro karratu, 5.184 pezetan erosita[8]. 1938ko abenduaren 17an, Emilio Hunolt enpresariak (tinta-fabrikaren jabeak, Pablo Hunolt erreketearen eta geroago alkate izan zenaren aitak), egungo Gipuzkoa plazaren parean, orduan suhiltzaileen eraikina zegoen tokiaren ondoan (Arana kalearen amaieran), bere negozioa handitzeko instalazioa egitea eskatu zion Udalari. Udalaren erantzuna, sobrestantearen bidez, Hunoltek erosi nahi zuen eraikinak eta ondoko lursailek, guztira, 12.000 pezeta balio zituztela izan zen. Hala ere, badirudi akordio batera iritsi zirela eta 1939ko urtarrilaren 19an, Udalak, jakinarazi egin zuen Hunoltek bere esker-ona bidali ziola[9]. 1938ko abenduan halaber, Teodoro Erguinek Tren Konpainiari, bere tailerra handitzeko lursail bat eskatu zion eta Konpainiaren eta militarren erantzuna (orduan Tren Konpainia militarizatua baitzegoen) baiezkoa izan zen[10]. Bestetik, Udalak esan zion jabetza-aldaketaren eskritura-tasarik ez zuela ordainduko[11]. 1939ko abenduan *Industrial Ferretera* enpresak bere hedapena eskatu zuen Nafarroa etorbidean eta kasu horretan, Udalak 27,50 pezetako ordainketa egitea eskatu zion enpresari lanak egiten hasi aurretik[12]. 1940ko urrian, Kasimiro Saltsamendi izeneko pertsona batek Kale Nagusiko 25. zenbakian tailer mekaniko bat zabaltzeko baimena eskatu zion Udalari[13]. 1941eko urtarrilaren 25ean, Udalak, Manuel Treku Gorriaran eta Sebastian Lizarraga Goikoetxea deitutako bi pertsonari, Jose Migel Iturriotz kaleko 25. zenbakian produktu kimiko bat sortzeko baimena ematea erabaki zuen[14].

Beste fabrikei dagokienez, aurretik zeuden CAF eta Bernedo fabrikez gain, 1938an, egurraren arloko hiru enpresa zeuden Beasainen (*Esquisabel y Compañía, Esnaola y Apalategui* eta *Aseguinolaza y Compañía*), eta baita paper-fabrika bat ere, Emilio Alvarezena[15]. Gaseosa-fabrika bat ere bazegoen[16]. Egurraren arloko lehenak, *Esquisabel y Compañía* fabrikak ere, handitzeko proiektuak egin zituen, eta 1939ko otsailean, bere fabrika handitzeko aukera izateko, Udalari lursail bat eskatu zion[17]. 1939ko ekainean, *Esnaola y Compañía* enpresak ere zabalkunderako eskaera egin zuen eta Nekola baserrirako bidearen ondoko lursail bat eskatu zuen[18]. Abuztuaren 12an Udalak azken hedapen-eskaera horri baiezkoa eman zion[19]. 1939ko irailean Felix Aseginolatza izan zen Goierri kalean edo (espainieraz Calleja) deiturikoan, aroztegi bat jarri nahi izan zuena eta horretarako, berak ere, Udalari lursail bat uztea eskatu zion. Irailaren 23an, Udalak, lursail hori saltzeko erabakia hartu zuen eta hasierako prezioa "500 bat pezetan" ezarri zuen[20]. Guda ondorengo garai horretan *Manufacturas Olaran* deitutako fabrika ere egiten hasi ziren Beasainen. Olaranen fabrikak 1939ko irailean, bere fatxada berritzea eskatu zuen[21]. Eta bestetik, *Indar* fabrika, edo ofizialki, *Construcciones Electro-Mecánicas* fabrika ere 1940. urtean hasi zen lanean.

Garai horretan, Estatuaren babes-politikak batetik, eta gudak azpiegituren parte bat (adibidez tren-makinen %60) suntsitu izanak mesede egin zion CAFi eta kontratu berriak lortzeko aukera eman zion. Joera hori areagotu egin zen 1941ean RENFE Trenbideen Estatuko Konpainia sortu zenean eta 1943an trenbideak nazionalizatu zirenez, Estatuak enpresa pribatuei eskaerak

---

6 AZURMENDI DORRONTSORO, Jose Manuel: *Beasain. Historia y desarrollo hasta nuestros días*. Donostiako Aurrezki Kutxa. Donostia, 1970, 33. or.
7 Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 23. dokumentu-sorta.
8 Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 22. dokumentu-sorta.
9 Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 13. dokumentu-sorta.
10 Beasaingo Udal Artxiboa. 545. karpeta, 42. dokumentua.
11 Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 22. dokumentu-sorta.
12 Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 13. dokumentu-sorta.
13 Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 20. dokumentu-sorta.
14 Beasaingo Udal Artxiboa. L0044 dokumentu-sorta. 1941. urteari dagozkien aktak.
15 Beasaingo Udal Artxiboa. 498. karpeta, 06. dokumentu-sorta.
16 Beasaingo Udal Artxiboa. 498. karpeta, 06. dokumentu-sorta.
17 Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 13. dokumentu-sorta.
18 Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 13. dokumentu-sorta.
19 Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 13. dokumentu-sorta.
20 Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 13. dokumentu-sorta.
21 Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 13. dokumentu-sorta.

egitea ahalbideratu zuen. Une hartan CAF zabalkuntza betean zegoen Elena Legorbururen arabera: 1940an Irunen zeuden tailer batzuek erosi zituen eta 1941ean Madrilen beste tailer batzuek zabaldu zituen[22].

1.3 Botere-guneak guda osteko Beasainen

Guda osteko Beasainen botere-gune nagusietako bat, noski, Udala izan zen. Udala, esan bezala, eskuindarren mende gelditu zen erabat, eta hori zela eta, Beasaingo bizitza politikoa eurek kontrolatzen zuten. Aurreko kapituluan argi utzi dugu zinegotzi gehienak karlistak zirela. Hori zela-eta, Udalak, Erreketeen Loinazko San Martinen konpainiarekin aktiboki kolaboratu zuela ere ikusi dugu. Hala ere, bazeuden salbuespen batzuk: adibidez, Pedro Arana Gaiztarro, 1922 eta 1923 artean alkate izan zena. Garai hartan, karlistak Beasainen gutxiengoa ziren, monarkiko liberalek ("alfontsotarrek") eta errepublikanoek osatzen zuten koalizioaren aurrean, beraz koalizio horren izenean gobernatu zuen Pedro Aranak. Esana dugu baita ere, bi alderdi horiek, burgesia industrial liberalaren defendatzaileak zirela eta, karlistek aldiz, gizarte tradizionala eta horri lotutako ekoizpen- eta ekonomia-harremanak defendatzen zituztela. Pedro Arana 1936an karlisten eskutik izan zen zinegotzi, baina bere ideia monarkiko-alfontsinoak ez zituen erabat ahaztu eta 1938ko abenduaren 17ko Osoko Bilkuran, Francok Alfontso XIII.a errege-ohiari espainiar herritartasuna eta bere jabetzak itzultzeko erabakia hartu zuela-eta, Beasaingo Udalak Franco zorion zezan mozio bat aurkeztu zuen. Mozioa aho batez onartua izan zen, baina esanguratsua da ekimena, karlista ez zen zinegotzi batena izatea[23]. Francok, bere idazkariaren bidez, Beasaingo Udalari zoriontze horregatik eskerrak eman zizkion, 1939ko urtarrilaren 19an Beasaingo Udalak jakinarazi zuen moduan[24]. Beasaingo Udalaren kolore politiko katolikoa ere argi gelditu zen 1939ko otsailaren 11n hartu zen erabaki baten bidez: Eusebio Aslak proposatu eta onartu egin zen Justizia Ministroa zoriontzeko telegrama bat bidaltzea, Erlijio-konfesio eta Erlijio-elkarteen Lege berriaren onarpena zela-eta[25].

Azken finean, hemen ikusten duguna da, Francoren erregimenean boterera igotzeko bi gakoren arteko lehia edo konbinazioa zegoela; hau da, aurreko eliteak boterera itzultzearen eta Estatu-kolpearekin bat egitearen edo gudan lortutako "merituak" lehenesteko arrazoien artekoa. Kontuan izan behar dugu beste Estatu totalitarioekin gertatu zenaren alderantzizko bidean, Espainian, alderdi bakarra (Falange Española Tradicionalista y de las JONS, 1937an Francok falangistak eta karlistak batuarazi ostean eratua[26]) "goitik" sortua izan zela, 1936ko Guda garaian; ez zen Italian edo Alemanian bezala aurretik sortutako alderdi faxista batek (jada bere ideologia eta bere militanteak definituak zituenak) boterea hartzerik gertatu[27], baizik eta alderdi faxista berak (Falangeak) gidatu ez zuen Estatu-kolpe militar batek eraman zuen boterera; eta horrez gain beste sektore batzuekin (karlistekin, adibidez) batuarazi zuen. Horrez gero, alderdi bakar berri horretan, sektore askok egin zuten bat, bai falangistek edo karlistek (hots, "aurretik" alderdi bateratu hori eratu zuten alderdietakoak izan zirenek) eta besterik gabe, alderdi berrira, hau da "Francoren alderdira", harena zelako gehitu zirenak; bestela esanda, euren klase-interesak zain zitzakeen erregimen baten alderdia zelako batu zirenak.

Horrekin batera, kontuan izan behar dugu, alderdi bakarrarena oso bide garrantzitsua izan zela pertsona berriak Estatuaren administrazioan, eta tokiko administrazioan ere, sartzeko.

Beasainen, ikusten dugun moduan, alderdi bakarrean militatzea meritu gisa zutenak, alderdi berrian "gutxiengoa zenaren" aldetik[28], hots, karlismotik, sartu ziren Udalean (Euskal Herrian eta Gipuzkoan, beste toki batzuekiko salbuespen moduan, karlismoa falangismoa baino garrantzitsuagoa zelako). Kasu honetan, Beasainen, "meritu politikoen" bidez Udalean sartutako zinegotzi gehienak ikusi dugun moduan karlistak izan ziren; horietatik, gehienak, "meritu politikoen" bidez Udalean sartutakoak

---

22 LEGORBURU FAUS, Elena: *"Fabrika haundie". Beasaingo Construcciones y Auxiliar de Ferrocarrilesen historia.* (Beasaingo paperak bildumaren 5. zk.). Beasaingo Udalaren Kultura Batzordea. Beasain, 1996, 130-131. or.

23 Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 22. dokumentu-sorta.

24 Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 13. dokumentu-sorta.

25 Justizia Ministerioak esker ona bidali zion trukean Beasaingo Udalari, honek martxoaren 4ko bilkuran jakinarazi zuenez. Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 13. dokumentu-sorta.

26 Honi buruz gehiago; SAZ CAMPOS, Ismael: *Fascismo y franquismo.* Valentziako Unibertsitatea. Valentzia, 2004, 125-150. or.

27 SANCHEZ RECIO, Glicerio: *Los cuadros politcos intermedios del régimen franquista, 1936-1959. Diversidad de origen e identidad de intereses.* Alacanteko Diputazioa eta Valentziako Generalitatea. Alacant, 1996, 18. or.

28 Ez nago ados Sanchez Reciorekin berak, sortzen ari zen Estatu berrian militarren nagusigoaren aurrean, alde batetik falangistak eta bestetik "beste joerak" zeudela dioenean; hots, falangistak militarrekiko ezberdina zen proiektu propio bat (faxista kasu horretan) izan balute bezala, eta beste fakzioak (karlistak barne) "kontserbadoreak izateagatik (…), xehetasun batzuk kenduta, militarren esanetara aritzeko otzanagoak bailiratekeen" gisa. Karlistek euren proiektu politiko autonomoa zuten (eskuindarra eta horregatik frankismoak eratu zuen koalizioan sartzeko modukoa, falangistek bezala); nire ustez erregimenaren lehen urteetan militarren nagusigoa desafiatu ez bazuten, indar nahikorik ez zutelako izan zen. SANCHEZ RECIO, Glicerio: *Los cuadros politcos intermedios del régimen franquista, 1936-1959. Diversidad de origen e identidad de intereses.* Alacanteko Diputazioa eta Valentziako Generalitatea. Alacant, 1996, 39. or.

or.

(adibidez, Rufo Artolainen edo Frantzisko Ezkiagaren kasuak); baina izan ziren "meritu sozialen" bidez sartutakoak ere, aurreko elite bateko kide zirelako, adibidez Joxe Aranburu, Usurbe elkarteko kide zena.

Bestalde, karlisten gunetik at jarritako denak, "Meritu sozialengatik" boterera igotakoak izan zirela ondorioztatu behar dugu; baita Migel Cerrajeria falangista ere, aurretik negozio pribatu bat baitzuen. Kasu honetan, ez Beasainen, ez Goierrin (ez eta Gipuzkoan, Donostiatik kanpo); 1936ko uztailaren aurretik Falangearen antolakunderik ez egoteak, Cerrajeria alderdi horretan sartzeko (eta 1936-1937 artean Beasaingo Falangeko Buru izateko) arrazoiak, alderdiaren doktrina bera baino, "erregimenaren alderdia" izatean zetzatela pentsatzera eramaten naute[29]. Hau da, Cerrajeriaren aukera politiko horretan, praktikoki, bere aurreko estatus "soziala" bermatzeko aukera zegoela, "politika" ez zela pertsona horren kasuan igogailu bat izan, baizik eta aurretik izandako estatus soziala berresteko tresna bat. Kasu horretan sar ditzakegu halaber Pedro Arana Gaiztarro enpresaria (1922 eta 1923 artean alkate izandakoa) edo Jose Luis Guridi bera.

Beraz, Udal oso politizatua izan zen hasieratik bertatik Beasainen, norabide karlistan politizatua. Hori, Glicerio Sanchez Recio frankismoaren tokiko koadroen ikerlari nagusiak ezarri zuen ereduarekin partzialki bederen kontraesanean dago. Sanchez Recioren arabera[30], lehen urteetan, erregimenak bere tokiko koadroentzat bilatzen zuen profila "apolitikoa (hala ere eskuinaren barruan noski), ordenakoa, jabetzaduna (hots, egoera ekonomiko onekoa), eta eraginkorra" zen[31]. Beasainen, klase ikuspuntutik, gehienak, profil horrekin bat egiten zuten, baina kontuan izan beharra dago agian alkatearen eta Pedro Arana alkate-ohiaren salbuespenarekin, Udal oso politikoaz hitz egiten ari garela, bere 13 kideetatik 10ek aurreko militantzia karlista baitzuten (eta horiei Migel Cerrajeria gehituko diegu, izan ere, bere arrazoiak alde batera utzita, errealitatea baita altxatuek Beasainen sartu bezain laster Falangean izena eman zuela).

Beste alde batetik kontuan hartu behar dugu, Beasaingo Udalean, nolabaiteko "jarraikortasuna" izan zela; hau da, 1936an ezarritako zinegotziek 1949ra arte iraun zutela (1940an izandako zinegotzi baten heriotzaren eta beste hiru zinegotzien ezarritako "kuotarako" soberan zeudelako irten beharraren salbuespenekin); 1936 eta 1949 artean ez zen izendapen berririk egin. Hau da, Udal politizatu horrek indarrean jarraitu zuen 1949. urtera arte (Martin Esnaola alkate-postuan Migel Cerrajeriak ordeztu zuen). Sanchez Recioren marko teorikoari jarraituz, horrek bat egiten du 1939tik aurrera gertatu zen tokiko kargu frankisten "politizazioarekin"; halere, gure kasuan kontuan izan behar dugu Beasainen politizazio hori lehendik (lehen Udala izendatzetik bertatik) zetorrela. Gainera, kontuan hartu behar da Sanchez Recioren arabera tokiko karguen politizazioa azaltzeko arrazoi nagusia: "FET-JONSen ezarpena hedatzea alegia"[32]. Beasainen, karlistek, hasieratik bertatik egin zuten ezarpen hori.

Bai Beasaingo Udalaren eta baita Gipuzkoako herrialdeko agintarien kolore politiko karlista ere, oso markatua gelditu zen, 1938ko ekainean, hilaren 24an (Kristoren Bihotz Sakratuaren eguna, Elizak jarritako jaia), une hartan "Altxatuen Estatuaren" jaiegun ofiziala ez zena (falangisten presioagatik zalantzarik gabe; falangistak ez baitzeuden erlijioari paper politiko handia ematearen alde), Beasainen eta Gipuzkoan jaiegun bezala izendatzean[33]. Halako jaiegun bat izendatzea, altxatuen arteko hegemonia-jokoan falangisten kontrako edo haiekiko aparteko jarrera markatzea izan zen.

Karlismoaren barruan, botere-gune garrantzitsua izan zen erreketeen Loinazko San Martinen konpainia; izan ere, konpainia hartan borrokatu zuten pertsonek, eta batez ere agintaritzan egon zirenek, Beasaingo karlismoaren barruan izen handia izan baitzuten. Nabarmenena 1938. urtearen bukaeratik aurrera tertzioko buru (kapitain) izan zen Epifanio Argiñanok izan zuen.

Baina guda-garaian, tertzio hori herritik kanpo ibili zen eta orduan Beasainen bertan, ardura "militarrak" hartzen zituzten erakunde karlistak Errekete-laguntzailea, eta Guda Batzorde Karlista izan ziren. Lehenaren buru Santiago Muñoz izan zen, eta bigarrenaren buru Frantzisko Ezkiaga Berakoetxea zinegotzia (1937ko martxoan)[34]. Bestalde, erreketeen munduarekin lotuta, German Martin Olmedo

---

[29] Glicerio Sanchez Recioren arabera, alderdi bakarrean halako jende "ez-politizatua" sartu izanak, gerora zaildu egin zituen falangismoak Estatu frankista hegemonitzatzeko asmoak. SANCHEZ RECIO, Glicerio: *Los cuadros politcos intermedios del régimen franquista, 1936-1959. Diversidad de origen e identidad de intereses.* Alacanteko Diputazioa eta Valentziako Generalitatea. Alacant, 1996, 83-84. Eea 98. or.

[30] Kontuan izan behar da Sanchez Reciok bere analisia Espainiari begira egin duela, ez soilik Gipuzkoarako, beraz, "Udal politiko" gehienek (hots, profil politiko markatua zuten zinegotziek betetako Udalek) falangisten nagusigoa zuten Espainian, Beasainen eta Gipuzkoan zuten karlisten nagusigoa izan ordez.

[31] SANCHEZ RECIO, Glicerio: *Los cuadros politcos intermedios del régimen franquista, 1936-1959. Diversidad de origen e identidad de intereses.* Alacanteko Diputazioa eta Valentziako Generalitatea. Alacant, 1996, 37-38. or.

[32] SANCHEZ RECIO, Glicerio: *Los cuadros politcos intermedios del régimen franquista, 1936-1959. Diversidad de origen e identidad de intereses.* Alacanteko Diputazioa eta Valentziako Generalitatea. Alacant, 1996, 44-45. or.

[33] Beasaingo Udal Artxiboa. F008 karpeta, 01. dokumentu-sorta.

[34] Beasaingo Udal Artxiboa. 424D karpeta, 07 dokumentu-sorta.

aipatu behar dugu, "pelaioen" (ume karlisten) instruktore izan zena[35]. Alderdi Karlistari lotutako beste erakunde bat, Langileen Sindikatu Katolikoa zen, 1937ko martxoan Abundio Montejok gidatu zuena[36], baina sindikatu hori, laster, Sindikatu Bertikalean bat eginda agertu zen. 1938an Sindikatu Bertikal horren prentsa eta propaganda idazkari Beasainen, Antonio Hernando Villahoz izan zen[37].

Sindikatu Bertikalaren lehen hauteskundeak, Beasainen 1944an egin ziren eta hauek izan ziren aukeratutako ordezkariak: Nekazarien Anaitasunean edo Hermandadean (Beasaingo Nekazari Katolikoen Sindikatu-ohia bere esku hartu zuen Sindikatu Bertikalaren sekzio honek), sail ekonomikoan Jose Luis Garin zinegotzia izan zen bozkatuena, eta sail sozialean Joakin Gaitan de Aiala[38]. Metalaren arloan, sail ekonomikoan, "enpresa handien" (20 langile baino gehiagoko enpresen artean) ordezkari gisa Alberto Altolagirre izan zen aukeratua, eta "enpresa txikien" ordezkari gisa Jesus Lasa. Sail sozialean, administratiboen azpiatalean Joakin Carrion aukeratu zuten ordezkari, espezialisten azpiatalean Gregorio Lizarralde eta peoien azpiatalean Jose Elortza Carballo[39]. Bestetik, Ostalaritza sailean Frantzisko Azkarate aukeratu zuten; zuraren sailean Frantzisko Otaegi (azpiatal ekonomikoan), Gillermo Elortza eta Kristobal Etxaide (azpiatal sozialean); "Jarduera Anitzen Sailean" Antonio Gorrotxategi (azpiatal ekonomikoan), Mariano Lopez Martinez (azpiatal sozialean, teknikoa), Anjel Ugarte (azpiatal sozialean, administratiboa), Eujenio Ugarte (azpiatal sozialean, espezialista) eta Santiago Muñoz (azpiatala sozialean, esku-langilea); ile-apaindegien sailean Migel Zia; eta merkatarien sailean Jose Urialde (azpiatal ekonomikoan), Anjel Ugarte (azpiatal sozialean, administratiboa), Joakin Lopetegi (azpiatal sozialean, espezialista) eta Jose Gaztañaga (azpiatal sozialean, esku-langilea)[40].

Hala ere, kontuan izan behar dugu 1937ko apiriletik aurrera, Franco jeneralaren aginduz, Alderdi Karlista (ofizialki, *Comunión Tradicionalista* deitzen zena), Falangearekin batu zela, *Falange Española Tradicionalista y de las JONS* alderdia sortuz (eta beraz, ordura arteko karlisten autonomia propioa galduz). Beasainen, Falangeko burua, Migel Cerrajeria Tiffe zinegotzia izan zen, berez, guda aurretik falangista izan ez zena, alderdi faxistaren gorakadarekin batera alderdi horretan sartu zena (aurreko kapituluan aipatu dugu sektore burgesetakoek, gudan Francorekin klase-interesak tarteko kokatu zirenek, Falangea botere-alderdi bihurtzerakoan alderdi faxistan izena ematearen gertakaria, Espainian nahiko orokorra izan zena). Falangeak (alderdi bakar bihurtuak), bere botere esparrua ere eraiki nahi izan zuen, adibidez, 1938ko apirilean, Gipuzkoako Falangeko propaganda-buruak ehun kartel bidali zituen Beasaina, falangisten eta karlisten arteko alderdi-fusioaren urteurrena ospatzeko (fusio hori falangisten onurarako izan zen)[41]. 1938ko uztailean, FET-JONSeko beste karguen barruan, Beasaingo idazkari gisa Seberiano Garijo Sesma (karlismotik zetorren gizon bat, bere anaia Endrike erreketeekin borrokan hil zen), administratzaile bezala Martin Aranburu (karlismotik zetorren beste pertsona bat), gazteriaren eta milizien arduradun gisa Jose Herrera, prentsa eta propagandaren arduradun gisa Antonio Hernando, zuzenbide eta justiziaren arduradun gisa Jose Beriztain (Udal-idazkaria), Sindikatu Bertikalaren arduradun gisa Migel Cerrajeria Tiffe bera, Emakumeen Sailaren buru Resurrekzion Urrestarazu (dokumentu horrek "Eltzoren alarguna" zekarren, baina 1938ko ekaineko beste dokumentu bati esker badakigu nor zen Falangeko Emakumeen Sailaren buru zenaren izena[42]), Erietxeen arduradun gisa Josefa Sagarminaga eta Auxilio Social[43] delako sailaren buru Blanka Salazar[44]. Horrez gain, 1938ko ekaineko beste dokumentu batean, Falangeko Emakumeen Atalaren idazkari Maria Niebes Sierra zela eta diruzain Nikasia Sagarminaga zela dakar[45]. 1938ko abuztuan, Beasaingo Falangean aldaketa bat izan zen; abuztuaren 6an, Frantzisko Ezkiaga Falangeko buru izendatua izan baitzen[46]. Ezkiaga, guda-garaian Guda Batzorde Karlistaren buru izan zen, beraz, karlismoak praktikan ordurako Beasaingo instituzio denak kontrolatzen zituen (beste gauza bat da praktikan karlismoa, bere indarra galtzen joatea edota "Estatua hegemonizatzeko ahalmena" galdu zuen lehen alderdia izatea eta Beasainen –eta Gipuzkoan– izan zuen kontrol hori politikoki ia hutsaren hurrengoa izatea, "gorako eraginik" gabea alegia). Horrek parte handi batean azal dezake karlismotik zetozen gizonak urte luzeetan Beasaingo politikan nagusi izatea: Guridik 1941ean kargua utzi zuenetik 1966an Pablo Hunolt errekete-ohiak utzi zuen arte, Beasaingo alkateak karlistak izan ziren, 1949 eta 1954 urteen arteko Migel Cerrajeriaren agintaldiaren salbuespenarekin. Hurrengo urteetan, FET-

[35] Beasaingo Udal Artxiboa. 424D karpeta, 07 dokumentu-sorta.
[36] Beasaingo Udal Artxiboa. 424D karpeta, 07 dokumentu-sorta.
[37] Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 22 dokumentu-sorta.
[38] Zinegotzi bat eta lurjabe bat Sindikatu Bertikaleko Nekazarien arloko ordezkari izatea oso adierazgarria da sindikatu horren izaera adierazteko.
[39] Beasaingo Udal Artxiboa. A033 karpeta, 01 dokumentu-sorta.
[40] Beasaingo Udal Artxiboa. A033 karpeta, 01. dokumentu-sorta.
[41] Beasaingo Udal Artxiboa. F008 karpeta, 01. dokumentu-sorta.
[42] 1938ko ekaineko dokumentu horren signatura Beasaingo Udal Artxiboa. A034 karpeta, 07. dokumentu-sorta da.
[43] *Auxilio Social* izeneko sailak laguntza soziala kudeatzen zuen (batez ere Jantoki Sozialak) eta Falangearen saila zen.
[44] Beasaingo Udal Artxiboa. 498. karpeta, 06. dokumentu-sorta.
[45] Beasaingo Udal Artxiboa. 2112. karpeta, 59. dokumentu-sorta.
[46] Beasaingo Udal Artxiboa. 498. karpeta, 09. dokumentu-sorta.

or.

JONSeko Tokiko Buruzagitza gehiago aldatu zen, 1941eko urrian Falangeko buru Frantzisko Untzueta zinegotzia (karlismotik zetorren beste gizon bat) baitzen[47], eta idazkaria, 1942an, Ebaristo Herrera Gorrotxategi[48].

Beste kargu garrantzitsu bat, Falangeko Informazio Zerbitzuko buruarena zen eta kargudun horrek, Alderdiarentzat, zinegotzien eta kargu publikoen inguruko (ea benetan "erregimenaren aldekoak" ziren egiaztatzen zuen edo leialtasun-maila neurtzen zuen) edo herritarren inguruko informazioa biltzen zuen. Goierrin, 1940ko urrian FET-JONSen Informazio Zerbitzuaren arduraduna Eduardo Egaña Garikano zen[49].

Horrez gain, Falangearen milizietako eskuadra-buruen artean, 1939an, honako hauek aurkitzen ditugu: Ernesto Poignon, Migel Garin, Gregorio Cerrajeria, Nikolas Ondarrestu, Emilio Poignon, Jose Herrera, Manuel Iturriotz, Eduardo Cortijo, Viktor Saez, Inozentzio Agirre, Felipe Casasempere eta Joan Otalora[50]. Ikusten dugun moduan, horietako batzuk, adibidez, 1934-1936 arteko Udal "errepublikano" eskuindarraren parte izan ziren. Beste batzuk, eskuindar familia ezagunetako kideak ziren. Horra beraz, Beasaingo kasuan, nahiko argi azaltzen zaigun Guda Zibilaren aurreko elite kontserbadorearen eta Falangearen arteko jarraikortasuna. Hori ez zen kasu isolatua izan eta kontuan izan behar dugu Falange alderdia berez, oso ahula izan zela eta ez zuela bere kabuz Estatua hegemonizatzeko indarrik izan. Antonio Cazorlak esaten digun moduan, "alderdi berrian sartutakoak, kasu askotan, edo politikan berriak izan ziren, edo antzinako kontserbadore oportunistak eta jauntxoak izan ziren"; hau da, euren boterea finkatzeko tresna berri gisa alderdi bakarra ontzat hartu zutenak[51].

Falangeak bazuen halaber gazteen erakunde bat "Geziak" (*Flechas, gazteleraz*), umeei instrukzio paramilitarra ematen ziena. Umeek eta gazteek alkandora urdinarekin instrukzio paramilitarrak egin behar izaten zituzten; hori ia-derrigorrezkoa izan zen[52]. Patxi Lasa Imatzen arabera "bertara joaten ez baginen, eraman egiten gintuzten", eta beraren arabera, Eskola Nazionaleko irakasleek bertan politikako klaseak ematen zituzten[53]. Eleuterio Aiestaren arabera, eskolan bertan "laguntzen" zuten "Gezietan" izena ematen: "eskolan, Falangearen uniformea, alkandora urdina eta uhalak ematen zizkiguten"[54]. Antselmo Ruizek ere gogoratzen du halako instrukzio paramilitarra egin behar izate hori: "Behin Azpeitira eraman gintuzten, eta beste behin Arrasatera"[55].

Udal-epaitegian, Udaleko bake-epailea Alberto Sorondo zen (Errepublika garaian, Viktor Bernedo alkate-ohi sozialistaren fabrikan errepresentante izan zena), eta haren idazkari, Joan Mari Barrena, errepresioa zela-eta postua uztera behartua izan ondoren, Dabid Perez izan zen idazkari[56]. Udal-fiskala Frantzisko Azkarate izan zen[57]. Bestetik, Udaltzaingoaren buru Meltxor Garcia jarri zuten[58].

Udalaren gainetik, Beasainen bazegoen Beasaingo komandante militarra ere eta, esan bezala, ordena publikoaren arloan garrantzi handia zuen kargua izan zen. Komandante militarrak Nafarroa etorbideko 31. zenbakian hartu zuen aterpe, bigarren solairuan. Etxe horretako altzariak Udalak ordaindu zituen, alkateak 1938ko apirilaren 23an sinatu zuen dokumentu baten arabera[59]. Joxe Manuel Azurmendiren arabera (gogora dezagun Udaletxean lan egiten zuela Joxe Manuelek idazkaritzako laguntzaile bezala), pertsona horren boterea izugarria zen: "Militarrek alkateak baino gehiago agintzen zuten garai hartan"[60].

Udalaren arabera funtzionatzen zuen beste botere-gune "ez-formal" baina oso eraginkorra, batez ere gose-garaietan, Alondegia izan zen. 1938ko uztailean, alondegiaren arduraduna Frantzisko Eltzo Urrestaratzu zen[61].

Azkenik, botere-egitura "paralelo" bezala, Usurbe Elkartea dugu. Elkarte pribatua zen baina herriko jende boteretsu asko biltzen zen han. 1940an elkarte horrek 35 kide zituen,[62]. Aitor Garmendiaren ustez, "Han Udaleko jendea biltzen zen eta

---

47 Beasaingo Udal Artxiboa. 498. karpeta, 09. dokumentu-sorta; eta Beasaingo Udal Artxiboa. 2362. karpeta, 05. dokumentu-sorta.

48 Beasaingo Udal Artxiboa. 2362. karpeta, 05. dokumentu-sorta.

49 Beasaingo Udal Artxiboa. 424B karpeta, 16. dokumentu-sorta.

50 Beasaingo Udal Artxiboa. 3186. karpeta, 61. dokumentu-sorta. Iturria Udalak CAFi bidalitako dokumentu bat da eta, bertan, pertsona horiek lanera ez agertzeko arrazoia, hain zuzen ere milizien eskuadretako buru izatea aipatzen du zurigarri gisa.

51 CAZORLA SANCHEZ, Antonio: *Miedo y progreso. Los españoles de a pie bajo el franquismo, 1939-1975*. Alianza. Madril, 2016, 97. or.

52 Joxe Apalategi Etxeberriari egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-06-25ean.

53 Patxi Lasa Imatzi egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-06-25ean.

54 Eleuterio Aiesta Kristobalenari egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-06-11n.

55 Alberto Alonso Cacharrok eta Josu Lopez Castañaresek Antselmo Ruizi egindako elkarrizketa. Beasainen, 2013-03-25ean.

56 Beasaingo Udal Artxiboa. 498. karpeta, 06. dokumentu-sorta.

57 Beasaingo Udal Artxiboa. 498. karpeta, 06. dokumentu-sorta.

58 Beasaingo Udal Artxiboa. 498. karpeta, 06. dokumentu-sorta.

59 Beasaingo Udal Artxiboa. 2112. karpeta, 58. dokumentu-sorta.

60 Joxe Manuel Azurmendi Dorrontsorori egindako elkarrizketa. Donostian, 2014-09-10ean.

61 Beasaingo Udal Artxiboa. 498. karpeta, 06. dokumentu-sorta.

62 Gipuzkoako Artxibo Historiko Probintziala (Oñati). 3405. karpeta, 045. espedientea.

eragin handia zuen erakunde hark"[63]. 1940an, Usurbe Elkarteko lehendakari Pedro Arana Gaiztarro alkateordea izan zen, eta lehendakari-ordea ...Pedro Azarola Gorrotxategi ezkertiar zinegotzi-ohia, idazkari Martin Aranburu (baina ez Udaleko arielen arloan laguntzaile zen Martin Aranburu Urteaga, Jose Aranburu zinegotziaren anaia Martin Aranburu Aranburu baizik), Diruzaina Joan Martinez, eta bokalak, Migel Cerrajeria zinegotzi-ohia eta Gregorio Lasa Altuna ezkerreko zinegotzi-ohia. Pedro Aranaren heriotzaren ondoren, lehendakari-postua Pedro Azarolak hartu zuen (1941eko maiatzaren 1eko dokumentu batean agertzen da hori)[64]. Beste bazkideen artean, Udalean zeuden pertsona asko aurkitzen ditugu, adibidez Jose Luis Guridi alkatea, Jose Aranburu, Jerman Zaballos eta Restituto Urteaga zinegotziak, Leonardo Zuntzunegi enpresaria eta lursailen jabea, Serafin Arana enpresaria eta zinegotzi-ohia, Joan Iguain kontratista, Frantzisko Otaegi suhiltzaileen burua edo Feliziano Arizmendi sobrestantea. Baina ikusten dugun bezala, ezkerreko pertsonak ere egon ziren elkarte horretan, eta horietako bi zuzendaritzan. Hori azaltzeko bi faktore ulertu behar ditugu, alde batetik, klase-elkarte bat izatea (ideologikoa baino gehiago; hots, erdi-mailako jendea bereganatzea helburu zuen elkartea), eta bestetik, 1931-1936 bitartean ezkerrekoak izan ziren alderdi batzuetako, oro har, erdi--mailako klaseetan indarra zuten alderdi batzuetako (alderdi errepublikanoetako) pertsona batzuek, euren klase-identitateagatik erregimen berrira moldatzeko modua ikusi zutenak[65]. Adibidez, Falangearen Informazio Zerbitzuaren Gipuzkoako ordezkaritzak 1941eko urrian Gregorio Lasa Altunaz eginiko txostenean "(Guda Zibilean) jardunik ez zuela izan zioen" eta Pedro Azarola Gorrotxategiz "aurretik eskuindarra izan zela eta orain FET-JONSeko kide gehitua" da[66]. Beste hiru kideez, Martin Aranburuz "FET-JONSeko kidea da" esaten du, Joan Martinez Perezez berdina eta gainera "iritzi ona dugu", eta Migel Cerrajeriaz hori bera[67]. Haatik, sozialki, pixkanaka, gudako lehen urteak pasatuta, elkartea zabalduz joan zen, adibidez Aitor Garmendia Goitia bera sartu zen bazkide: "Ni izan nintzen, ingeniari edo mediku edo halakorik izan gabe sartu zen lehenetakoa", beraz, elkartearen baitan nolabaiteko klase-zabalkundea gertatu zela ondorioztatzen dugu. Garmendiaren arabera "ni Udaleko zinegotzi izan zen bati esker, Jose Aranbururi esker sartu nintzen. Oso pertsona ona zen hura"[68].

Herriko elkarte guztiak, hemendik aurrera erregimenaren aldekoek kontrolatuak, edo behintzat, erregimenaren kontra ez zegoen jendeak kontrolatuak izan ziren. Adibidez, Herri Elkarte Kooperatiboan (2. kapituluan esan nezala, kontsumo-kooperatiba baten antzekoa zen), eskuineko pertsonek hartu zuten zuzendaritza. 1939ko martxoaren 1ean eginiko batzarrean aukeratutako zuzendaritza-batzordean; lehendakari Kruz Arizmendi, lehendakari-orde Florentzio Argiñano, kontatzaile Kruz Gomez, idazkari Jose Maria Txurruka, Ordiziako ordezkari moduan Jose Aristrain eta Galo Huguet, Beasaingo ordezkari moduan Martzial Agirre eta Paskual Lopez, Lazkaoko ordezkari moduan Leandro Larrañaga eta Felix Gonzalez, Ataungo ordezkari moduan Eujenio Zaldua eta Ormaiztegiko ordezkari moduan Joan Baztarrika zeuden[69]. Loinatz abesbatzan ere eskuindarrak izan ziren nagusi, adibidez, 1942ko urrian lehendakari Inozentzio Agirre Pagola aurkitzen dugu, 1934 eta 1936 arteko Udal eskuindarreko zinegotzi izan zena[70].

1.3.a) Jose Luis Guridiren alkate-aldia

Jose Luis Guridi 1936ko uztailaren 29tik 1941eko otsailera arte egon zen alkate-karguan, gudako urteetan eta guda osteko lehen urteetan. Gudaren osteko lehen urteak batez ere goseak eta estraperloak markatutako urteak izan ziren. Horrez gain, kontuan izan behar dugu 1937ko uztailaren 7tik aurrera Gipuzkoak (eta Bizkaiak) bere Hitzarmen Ekonomikoa, eta beraz, bere zergak biltzeko gaitasuna galdu zuela, Estatua are gehiago zentralizatuz[71].

Guridiren alkatetzan, kontuan izan behar da kasu batzuetan zinegotziek eurek ere apatia handia erakusten zutela plenoetara agertzeko orduan. Adibidez, 1938ko urtarrilaren 8ko Osoko Bilkurara soilik Guridi alkatea eta Eusebio Asla zinegotzia azaldu

---

63 Aitor Garmendia Goitiari egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-07-16an.

64 Gipuzkoako Artxibo Historiko Probintziala (Oñati). 3405 karpeta, 045 espedientea.

65 Esan beharra dago, eskuineko errepublikanoak, oro har, Francoren alde jarri zirela Herri Frontearen aurrean, kasu honetan klase-interesen lehenespena gertatu zen: 1934-1935 artean Gobernuko presidente izan zen Alejandro Lerrouxen eta bere alderdiko, Alderdi Errepublikano Erradikaleko kide askoren jarrera dugu. Beasainera ekarriz, Migel Cerrajeriaren kasua dugu, hasiera batean errepublikanoa zena (eskuineko Udalaren parte izan zen 1934 eta 1936 artean), eta are nabarmenagoa Arana Gaiztarro anaiena (Serafin Arana 1931n ezkerreko kide bezala aurkeztu zen Udal-hauteskundeetara postua irabazita; Pedro Arana Gaiztarro 1920 eta 1922 artean alkate izan zen "Liberalen eta errepublikanoen" arteko koalizio batean, gero Udal frankistako zinegotzi izan zen).

66 Gipuzkoako Artxibo Historiko Probintziala (Oñati). 3405 karpeta, 045 espedientea.

67 Gipuzkoako Artxibo Historiko Probintziala (Oñati). 3405. karpeta, 045. espedientea.

68 Aitor Garmendia Goitiari egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-07-16an.

69 Beasaingo Udal Artxiboa. 254. karpeta, 06. dokumentu-sorta.

70 Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 19. dokumentu-sorta.

71 Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 12. dokumentu-sorta.

or.

ziren[72]. Urtarrilaren 22ko Udal-bilkuran soilik hiru zinegotzi egon ziren: aipatutako biak eta Martin Esnaola[73]. Hurrengo plenoetan asistentziak gora egin bazuen ere, asko jota sei edo zazpi zinegotzi artean biltzen ziren, gutxi gorabehera Udal-taldea osatzen zutenen erdiak[74]. 1940ko uztailaren 11n, Gipuzkoako Gobernadore Zibilak, Beasaingo Udalean zinegotzi gehiegi zeudela-eta, Restituto Urteaga Otegi, Martin Esnaola Elizegi eta Jose Mendia Lasa Udaletik kanpo uztea erabaki zuen, "euren lanerako gogoa" eskertu ondoren[75]. Hori hala izanik, uztailaren 11ko Udal-bilkuran, Udal-batzorde batzuen aldaketa egitea erabaki zuen Udalak, kargurik gabe gelditu ziren hiruen postuak betetzeko. 1940ko uztailaren 11tik aurrera, Ogasun-batzordea Guridi alkateak, Frantzisko Untzuetak eta Jerman Zaballosek osatu zuten; Azpiegitura eta Uren batzordea Frantzisko Untzuetak, Frantzisko Ezkiagak eta Jose Luis Garinek; eta Hornikuntza eta Azokena Migel Cerrajeriak, Jose Luis Garinek eta Jerman Zaballosek.[76]. Bestetik, 1940ko irailean eta urrian, Jose Luis Guridi alkatea eszedentzian egon zen. Agian horixe, alkatetzatik kanpoko lana, izan zen, 1941ean kargua uzteko izan zen arrazoia[77].

1936. urte-bukaerako egoera dramatikoak, jarraitu egin zuen 1937an. Are gehiago, Udalak laguntza gehiago ematea zaila ikusi zuen "baliabiderik ez zuela-eta", urtarrilaren 28an aitortu zuen bezala. Hori zela-eta, "Ongintzako behin-behineko batzordea" sortu behar izan zuen Udalak[78]. Hala ere, Gipuzkoako Gobernadore Zibilaren ekimenez, Beasaingo erakunde karlistak eta falangistak "plater bakarraren aldeko bilketa" egin behar izan zuten, gosearen aurkako neurri gisa. Beasaingo Udalak, Gobernadoreak ezarri zuen "plater bakarra" biltzeko zailtasunak ere izan zituen, urtarrilaren 28ko Udal-bilkuran aipatu bezala[79] (Rosario Larreak gogoratzen du: "garai haietan plazan jana ematen ziguten eta umezurtzoi (bere aita Joan Andres Otaegi altxatuek, Beasainen sartzerakoan hil egin zuten) esne-botila bat ere bai"[80]. Hala ere, 1937ko otsailaren 18an Beasaingo Udalak Malagako gosea arintzeko sei patata-zaku eta babarrun-zaku bat bidaltzea erabaki zuen[81]. Otsailaren 25ean erabaki hori berretsi egin zuen. Baina beste alde batetik, Beasaingo Udala, parte handi batean beste pertsona batzuen karitatearen mende zegoen, adibidez, uztailaren 25ean, Amurrioko Markesak, Beasaingo Umeen Jantoki Soziala bisitatu ondoren, umeentzako 200 bota-pare ematea erabaki zuen[82]. Irailaren 11n, Beasaingo *Auxilio Social* taldeko arduradunak jada ohartarazi zuen Beasaingo jantoki sozialen egoera oso txarra zela eta Udalak esku-hartze handiagoa izan behar zuela[83]. Beraz oso zaila da halako egoeran, Beasainen gosea pasatzen ari zenean, bildutakoaren parte bat beste hiri batera bidaltzea, baina kontuan izanik orduan Beasain armadak okupatuta zegoela (eta Malagaren konkista, sarraskiz bada ere, altxatuentzat oso garrantzitsua izan zela), erabaki horren atzean Udalaz gaindiko arrazoi politikoa izan zela ondorioztatu behar dugu, agian Beasaingo Udaletik kanpoko erakundeek (Armadak akaso?) harrarazitako erabakia izan zen.

Guridiren garaian, 1936ko abenduaren 18an, Udal-kartzelan preso zeudenak eta beasaindarrak ez zirenak mantentzea Komandantziaren esku uztea adostu zuen Udalak[84]. Hala ere, Armadak Beasaingo Udalari, "Beasain askatzeko" kostuen fakturaren barne pasatu zion "presoak mantentzearen gastua", 1938ko abendura bitartean 10.498 pezetakoa izan zena[85].

Udalak hartutako erabakien artean hurrengoa ere nabarmendu nahi dugu: Antonio Agirre arkitektoari (ez zen Udal-arkitektoa, arkitekto pribatua baizik, garai hartan Beasainek ez baitzuen udal-arkitektorik) eskatu zion, Kale Nagusiko 23. eta 25. zenbakidun etxeak (Katarain familiarena bata, eta Joxe Bixente Iraola alkate-ohiarena bestea) bota eta berregiteko txostena egin zezala. Noski, Udalak ez zuen esan etxe horiek zergatik izan ziren suntsituak baina, jakin badakigu, guda betean suntsituak izan zirela: Beasainen tropa frankistek egindako bonbaketen ondorioz hain zuzen ere[86]. Otsailaren 11n, Udalaren Bilkuran irakurri zen,

---

72 Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 22. dokumentu-sorta.
73 Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 22. dokumentu-sorta.
74 Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 22. dokumentu-sorta.
75 Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 20. dokumentu-sorta.
76 Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 20. dokumentu-sorta.
77 Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 20. dokumentu-sorta.
78 Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 23. dokumentu-sorta.
79 Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 23. dokumentu-sorta.
80 Alberto Alonso Cacharrok eta Josu Lopez Castañaresek Rosario Larreari egindako elkarrizketa. Beasainen, 2012-04-14an.
81 Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 23. dokumentu-sorta. Apirilaren 22an Beasaingo Udalak jakinarazi zuen, Malagako alkatearen esker oneko telegrama bat jaso zuela.
82 Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 23. dokumentu-sorta.
83 Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 23. dokumentu-sorta.
84 Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 23. dokumentu-sorta.
85 Beasaingo Udal Artxiboa. A034 karpeta, 07. dokumentu-sorta.
86 Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 23. dokumentu-sorta; eta IRAOLA, Jose Vicente: "Informe de Jose Vicente Iraola" in BARANDIARAN, Jose Miguel: *La Guerra Civil en Euzkadi* (351-353. or.). Bidasoa-Instituto de Historia Contemporánea. Milafranga (Lapurdi), 2005, 351. or.

Katarain alde zegoela baldin-eta lanaren kostua Udalak bere gain hartzen baldin bazuen[87]. Iraolaren etxea, ordea, 1940ko urrian artean berritu gabe zegoen, izan ere, 1940ko urriaren 14ko Osoko Bilkuran Zaballos zinegotziak esan zuen, "erreta zegoen moduagatik, bertatik pasatzen zirenentzat arriskutsua izan zitekeela"[88]. 1940ko urriaren 26an, Udalak, sobrestanteari, Iraolari bere etxeko hesia botatzeko agindua eman ziezaion agintzea adostu zuen[89]. Arazo horrek are gehiago jarraitu zuen eta, 1941eko martxoan (jada alkate Martin Esnaola zela), Udalak, bilkura batean, Frantzisko Untzuetaren proposamenez, Iraolari etxe horretako balkoiak botatzea agindu zion, antza denez, Iraolak ez zuen-eta bere etxean berritze-lanak egiteko modurik. Udal-bilkurak erabaki zuenez, Iraolak hamabost egunen buruan balkoi horiek botatzen ez bazituen, Udalak botako zituen eta obraren kostua ordainaraziko zion Iraolari[90]. Oso egoera larria eta mingarria zen, Udalak ez baitzuen aitortzen eurak agintean jarri zituzten tropek suntsitu zutela etxe hura eta momentu hartan kalean zebiltzanentzako arriskutsu bihurtzen zuten kalteak eragin zituztela. 1940ko azaroaren 16an, Kale Nagusiko 25. zenbakian, Jose Maria Gorrotxategi izeneko herritar batek "etxe bat egiteko baimena eskatu" zuela jakinarazi zuen Udalak "aurrekoa sute batean suntsitu zela-eta" (sute hori 1936ko uztailaren 27an frankistek bonbardatzean sortua izan zen)[91]. Etxe horiek tropa frankistek suntsitu zituztela, lehen aldiz Frantzisko Untzueta zinegotziak onartu zuen 1942ko ekainaren 19ko bilkuran (jada Martin Esnaola alkate zela), baina zeharka egin zuen aipamena: "indar nazional loriatsuak herrian sartzerakoan, sute baten ondorioz, hiru etxe suntsitu ziren (aditz inpertsonalarekin esateak atentzioa deitzen du) (…) horietako bat berreraikita dago (Gorrotxategirena ziurrenik) eta, beste biak, Katarainena eta Iraolarena "eraiki gabe daude, berriz eraikitzeko esan bazaie ere"[92].

Elizari dagokionez, Florentzio Aspe erretoreak Udalari luzatu zion moduan eta Udalak 1937ko otsailaren 11ko Osoko Bilkuran jakinarazi zuen bezala, "Udalak eta elizak aurreko urteetan etendako harremana" berreskuratzea erabaki zuten. Hala, Udalaren Arangoitiko Egoitzarentzat 200 pezeta eman zituen Florentzio Aspek. Asperen eta Udal frankisten arteko harremana oso estua izan zen. Jakin denez, apirilaren 16an, Florentzio Aspe Beasaingo erretoreak, Migel Conde Armadako apaizari, Udalak harentzako emandako mila pezeta eman zizkion[93]. Orduan diru-kopuru hori handia zen; eta horrek ulertarazten du Aspe erretorearen eta Udal--agintari berrien arteko sintonia handia zela. Are gehiago 1938ko urtarrilaren 22an, Martin Esnaola zinegotziaren proposamenez,

Florentzio Aspe erdian, Mariaren Alabak emakumezko talde erlijiosoarekin batera, 1944ko garizuman. (Argazkia: JZG, 53. or.)

[87] Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 23. dokumentu-sorta.
[88] Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 20. dokumentu-sorta.
[89] Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 20. dokumentu-sorta.
[90] Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 21. dokumentu-sorta.
[91] Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 20. dokumentu-sorta.
[92] Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 23. dokumentu-sorta.
[93] Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 23. dokumentu-sorta.

or.

Udalak, mila pezeta haiek "gudako gastu" gisa jartzea erabaki zuenean[94]. Gainera, 1939ko azaroaren 4ko Udal-bilkuran, Udalak, Asperen ekimenez, Arangoiti Ongintza Etxerako beste apaiz bat ekartzeko dirua (urteko 1.500 pezeta) jartzea onartu zuen[95]. 1941eko otsailaren 22an, Udalak, Elizari 1.000 pezetako subentzioa eman zion, obrak egiteko[96]. Urte horretako irailean (jada alkate Martin Esnaola zela), Beasaingo Udalak Loinazko San Martin jaio zen etxea konpontzeko 2.000 pezeta eman zituen[97].

Florentzio Aspek, aurreko kapituluan esan bezala, guda ondorenean Eliza erregimen berriarekin lerrokatzen egin zuen lana. Guda ondorengo urteetako Eliza, ideologikoki oso markatua egon zen. Aspek, behin sermoi batean ihes egin zutenengatik *"Joan dira, ez dira itzuliko!" ("¡Ya se fueron no volverán!")* esan omen zuen[98]. Beste batean, ordea, *"Satalinen* (sic; Stalinen) ikasleak" ("Discípulos de *Satalín"*) deitu omen zituen Francoren kontra ari zirenak[99]. Asperen eta herriaren parte baten arteko harremanak tentsio handikoak izan bide ziren, izan ere, erregimenaren aurkakoak (bai kartzeletatik edo langile batailoietatik itzultzean) elizkizunetara joaten zirenean, Lazkaoko beneditarren komentura edo Ezkiaga auzoko kaperara joaten ziren, bai meza entzutera eta are gehiago aitortzera[100]. Haietako bat Bernabe Aierdi Beobide jeltzalea zen, bere iloba Ane Barandiaranek esana duenaren arabera[101]. Kontuan izan behar da II. Errepublikaren garaian, Aierdi Beobide Elizarekiko oso gertuko pertsona izan zela, batekoz beste jeltzalea baino gehiago, eta Florentzio Aspe behin baino gehiagotan defendatu zuela (berak insistitu zuen batzokiaren bedeinkapena Aspek egin zezan, Alfontso Ibaibarriagak Lazkaoko beneditarrak ekarri nahi zituenean)[102]. Horrek erakusten du Aspek Beasaingo fededunen sektore handi batean ireki zuen lubakiaren tamaina. Hala ere, hori ez zen soilik Beasainen eta Asperekin gertatu eta, Ordizian ere, antzeko zerbait gertatu zen, Jabier Garcia Bergararen arabera: "guda ondoren jende askok mezatara joateari utzi egin zion; esaterako, nire Ordiziako familiak, gure aitak eta bere anaiek"[103]. Jose Maria San Martinek ere

CAFeko kaperako apaiz Pedro Jimeno auzoko neska batzuekin, 1945ean. Garai hartan besaindar asko joaten ziren CAFeko kaperara mezatara, Jimeno apaizaren jarrera hurbila zela-eta. (Argazkia: FL/MG, 145. or.)

94 Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 22. dokumentu-sorta.

95 Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 13. dokumentu-sorta.

96 Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 21. dokumentu-sorta.

97 Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 21. dokumentu-sorta.

98 Andoni Sarriegi Eskisabeli egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-06-06an.

99 Paulino Aranbururi eskertzen diot datu hau. Testigantza hau ez dago grabatuta.

100 Andoni Sarriegi Eskisabeli egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-06-06an; eta Ane Barandiaran Erauskini eta Xabier Aierdi Aldasorori egindako elkarrizketa. Getarian, 2014-09-12an.

101 Ane Barandiaran Erauskini eta Xabier Aierdi Aldasorori egindako elkarrizketa. Getarian, 2014-09-12an.

102 Markel Olanok Alfontso Ibaibarriagari eta Antonio Zubillagari egindako elkarrizketa. Beasaingo EAJko ordezkari Jose Antonio Imatzek utzia.

103 Jabier Garcia Bergarari egindako elkarrizketa (bi zatitan: Beasainen, 2014-07-03an eta 2014-07-22an).

bere aitak "Elizara joateari utzi" ziola kontatu digu, ez baitzuten bere anaia (Saturnino San Martin) hiltzerik barkatu"[104]. Elizaren eta fededunen arteko zatiketa horren berri eman digu adibidez, Aitor Garmendiak: "Elizan denetako jendea zegoen, baina batzuen aurrean hitz egiteko beldur pixka bat bagenuen"[105]. Garai hartako Elizak ere, izaera are kontserbadoreagorako bira egin zuen: Jose Maria Bujandaren arabera "garai hartan, neskak alde batean eta mutilak bestean jarrarazten gintuzten"[106].

Elizaren presentzia asko handitu zen Beasainen urte horietan, Jesus Lopez Gallegok (ezkerreko familia batetik datorrena bera) nahiko testigantza argigarria ematen digu horretaz: "Erlijioa oso presente zegoen gudaren ondoren. Gure familia, erlijiosoa izan gabe, igandero mezatara joaten zen eta baita prozesioetara eta abarretara ere"[107]. Joan Ramon Imatzek ere esan digu "garai hartan Elizara joatea behartu egiten zutela"[108]. Jose Maria San Martinek, zeinaren aitak Elizara joateari utzi zion, semea (bera) behartu egiten omen zuen joatera. Horrek erakusten du zer nolako presio-giroa zegoen: "nik ez nuen ulertzen aitak zergatik behartzen ninduen ni, bera ez bazihoan. Berak zioen ez zuela barkatzen bere anaia hil izana"[109]. 1936ko Guda-garaia kanpoan igaro zutenentzat harrigarri samarra zen hori eta hala kontatzen digu urte asko Sobietar Batasunean pasatu zituen Rosa Larrañagak: "Gu han (SESBn), marxismo-leninismoan, ateismoan, hezi gintuzten. Hona itzultzean (1956an), zenbait gauzek atentzioa deitu ziguten, mezatara joan behar horrek, adibidez"[110].

Beasaingo Udalak, 1937ko apirilaren 10ean, 1936an urte horretarako aurkeztu zuen aurrekontua emendatzea erabaki zuen eta 214.875,50 pezetan utzi[111]. Udala bera ere ez zegoen herritarrak baino askoz hobeto, diruz nahiko estu baitzebilen. 1938ko martxoaren 12an, Frantzisko Untzueta zinegotziak, Udal-zorra murrizteko, %5eko interesean jaulkitako bonuen interesak %4ra jaisteko kudeaketak egiten hastea proposatu zuen. Hala ere, Migel Cerrajeriak esan zuen, "aurretik" (hau da, 1934-1936 urteen

Loinatz bigarreneko prozesioa. Eliza, guda ondoko urteetan, botere politiko eta sozialaren guneetako bat bilakatu zen. Argazkian Udal-banda Pedro Jose Iguain zuzendari duela. (Argazkia: Joxe Manuel Azurmendi Dorrontsorok utzia)

[104] Jose Maria San Martin Osinalderi egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-07-30ean.
[105] Aitor Garmendia Goitiari egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-07-16an.
[106] Sara Bujanda Olarani eta Jose Maria Bujanda Olarani egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-09-14an.
[107] Jesus Lopez Gallegori egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-06-25ean.
[108] Joan Ramon Imatz Crespori egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-08-05ean.
[109] Jose Maria San Martin Osinalderi egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-07-30ean.
[110] Rosa Larrañaga Agarristari eta Miren Atxaga Larrañagari egindako elkarrizketa. Gasteizen, 2015-05-26an.
[111] Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 23. dokumentu-sorta.

or.

Loinatz bigarreneko prozesioa. Irudi eta estandarte askorekin egin ohi zen. (Argazkia: Joxe Manuel Azurmendi Dorrontsorok utzia)

Erreketeen Loinazko San Martinen konpainia San Martinen meza-erdiko unean belaun bakarra belaunikatuta, 1938ko edo 1939ko Loinatz bigarrenean.
(Argazkia: Joxe Manuel Azurmendi Dorrontsorok utzia)

Loinatz bigarrenean Loinazko San Martindik prozesioa abiatzen. Errekete konpainia eta agintari militarrak nabarmen bistan.
(Argazkia: Joxe Manuel Azurmendi Dorrontsorok utzia)

arteko Manuel Perezen alkate-aldian), halako kudeaketa bat egiten saiatu zela Udala, eta ez zuela egiterik izan, eta zailago ikusten zuela "orain" (1938an), bi seihileko abonuen ordainketa atzeratua izanda[112]. 1938ko martxoaren 24ko Udal-bilkuran, Frantzisko Untzueta zinegotziak zera jakinarazi zuen, Aurrezki Kutxako zuzendariarekin egon zela zorra kitatzeko formulez hitz egiten. Kudeaketa horren ostean, Beasaingo Udalak, 37.500 pezetako kreditu berri bat eskatu zuen. Jose Beriztain Zubiaga idazkariak martxoaren 25ean sinatu zuen dokumentu baten arabera, Udalek Gipuzkoako Aurrezki Kutxari, beren aurrekontuaren seirena eska ziezaioketen kreditutan. Beriztainen arabera, 37.500 pezetek ez zuten aurrekontuaren seirena osatzen[113]. 1938ko uztailaren 30ean sinatutako memoria baten arabera, Beasaingo Udalak, 945.000 pezetako zorra zuela esan zuen, eta zor guztia Aurrezki Kutxaren krediduena edo obligazioena zela (ez funtzionarioekiko obligazioena). Beasaingo Udalak oso modu baikorrean ikusten zuen bere egoera eta, memoria horretan, aurrekontua betetzen ari zela zioen "beti ere parean geldituz, edo soberakin txiki bat izanez", eta "egoera guztiz lasaia ez bada ere, ordainketak hilaren barruan egiten dira" adierazi zuen. Bestetik, zerbitzu guztiak egoera onean zeudela esan zuen, oso modu baikorrean, baina, ikusi dugun bezala, Beasainen populazioaren parte handi bat gosea pasatzen ari zen[114]. Kreditu horiengatik 1939rako aurrekontua handitu egin zen eta 1939ko urtarrilaren 19an Udal-bilkurak jakinarazi zuen bezala, 280.852,54 pezetako aurrekontura iritsi zen (ordura arteko handienera)[115].

Baina ikusi dugun moduan, Beasaingo egoera ekonomikoa ez zen aipatutako 1938ko uztailaren 30eko memoria horrek dioen bezain baikorra. Alde batetik, kontuan izan behar dugu Beasainen gosea zegoela eta jantoki sozialetako zerbitzuan CAFek nahiko laguntza ematen zuela. Bestetik, CAFek berak, 1939ko otsailaren 14an, 1939ko aurrekontua emendatzen lagundu zion Beasaingo Udalari; 25.000 pezeta emanez, eta "behar balitz" 35.000 pezetara iristeko konpromisoa hartuz (egoeraren arabera, 1939ko abenduan beste 10.000 pezeta horiek ordaintzeko hitz eman zion CAFek Udalari)[116]. Hala bada, Beasaingo Udalak

[112] Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 22. dokumentu-sorta.

[113] Beasaingo Udal Artxiboa. F008 karpeta, 01. dokumentu-sorta.

[114] Beasaingo Udal Artxiboa. 151. karpeta, 13. dokumentu-sorta; eta Beasaingo Udal Artxiboa. 065. karpeta, 43. dokumentua.

[115] Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 13. dokumentu-sorta. Aurrekontu honen goraldian, zerikusi txiki bat izan zuen Serafin Arana zinegotzi-ohiak Udalari egin zion dohaintzak, gudan hil zen bere seme Gonzaloren 2.500 bat pezeta eman baitzizkion Udalari 1938ko urrian. Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 22. dokumentu-sorta.

[116] Beasaingo Udal Artxiboa. A086 karpeta, 23. dokumentu-sorta.

or.

eta CAFek, Udalaren krisia "industriaren krisiak eragin zuela" arrazoituz justifikatu zuten. Baina hurrengo urteetan ere CAFek Beasaingo Udalaren aurrekontuak emendatzen jarraitu zuen, eta 1942an adibidez, 8.750 pezeta eman zizkion[117].

Garai hartan langileen soldatek, erlatiboki behera egin zuten, izan ere, prezioen gorakadarekin konparatuta, soldatak bere hartan izoztu ziren eta (gainera Adar bakoitzeko Sindikatu Bertikalak –non enpresariak nagusi ziren- erabakitzen zuen soldatak noiz igo. Enpresa jakin batean ezinezkoa zen soldatak igotzea –hori dela-eta enpresa askok "gehigarrien" bidez konpentsatzea erabaki zuten). Beasaingo kasuan, gainera, CAFek ere zailtasunak izaten zituen ordaintzeko eta 1937ko maiatzaren 8an Udalari esan zion zaila zitzaiola asteko lana larunbatetan ordaintzea eta hurrengo astearteetan ordaindu behar izaten zuela (Udalak aurretik, 1937ko apirilaren 19an CAFi eskaera egin zion ordainketak berriz ere larunbatetan egin zitzan[118]). CAFek, apirilaren 23an Udalari, banketxeen aurrean bitartekaritza-lana egin zezala eskatu zion, CAFi krediduak lortzea errazteko eta hala soldatak larunbatetan ordaindu ahal izateko (CAFen zuzendaritzak banketxeak aipatu zituen oztopo nagusi moduan)[119].

Izan ere, orduan soldatak erabakitzeko modua askoz ere hierarkikoagoa zen. Soldatak Adar Bakoitzeko Sindikatu Bertikalak erabakitzen zituen, eta hori enpresariek kontrolatua zuten (legearen arabera, soldaten gaineko eskuduntza Lan Ministerioaren esku zegoen). Errepublika-garaian jarritako langileen defentsarako tresnak, adibidez "arartekaritza mistoak" desagertu egin ziren, eta jada, dena, Estatuaren Lan Ministerioaren eta bere mende zegoen Sindikatu Bertikalaren bidez kontrolatuta zegoen[120]. Beraz, fabrika bakoitzeko lan-errebindikazioetarako bidea, erabat moztuta ageri zen: Gipuzkoako Sindikatu Bertikalaren lehen zirkularrak esaten zuen bezala "bukatu da klase-borroka (…) langileak eta ugazabak elkar tiranizatzen zebiltzan aroa (…) langileek eta ugazabek euren artean produkzio nazionalaren obra eraikitzen kolaboratu behar dute" (beraz, klase-borrokan, langileak eta ugazabak, biak indar-kokapen parekideetatik abiatuko balira bezala eta biek botere eta ardura berbera izango balute bezala hitz egiten du Sindikatu Bertikalak)[121]. Sindikatu Bertikalak berak esan zuen bere asmoa "lan-arloan diziplina ezartzea" zela. Langileek zuten elkarrizketarako bide bakarra, 1944an (Sindikatu Bertikalean kidetza derrigorrezkoa egin eta bi urte beranduago) sortu zen "Bitartekari Sindikalarena" (*Enlace Sindical*) izan zen[122]. Horrez gain, kontuan hartu behar dugu, askotan, Sindikatu Bertikalak langileen kaleratzea errazten zuela, adibidez, 1938an enpresariei "askapen-datatik" (hots, Francoren armadaren konkista-datatik), plantillan zeuden "zigortzeko moduko langileen" zerrenda pasatzeko hiru hilabete ematen zituela komunikatu zuen[123].

Sistema erabat hierarkiko hartan, pentsatzekoa da Sindikatu Bertikalak zuen erabakimena handia zela, askotan Gobernuaren erabakien bozeramaile baitzen. Horren adibide dugu gure eskualdean gertatutakoa; Beasainen eta Goierriren kasuan, garrantzizkoa izan zen Sindikatu Bertikalaren adar siderometalurgikoak erabakitakoa: 20 bat kilometro inguruan, enpresa siderometalurgiko handieneko soldatak zonalde horretako enpresa txikiagoetarako erreferentzia izatea[124]. CAFek, 1939an 1.400 langile zituen[125]. Hala ere, Beasaingo Sindikatu Bertikala ez zegoen ados Gipuzkoako Sindikatu Bertikalak ezarritako soldaten irizpideekin eta Udalak Gipuzkoako Sindikatu Bertikalari 1939ko urtarrilaren 5ean bidali zion gutun batean, Udalak aipatutako arrazoien artean, zera zioen: Gipuzkoako Sindikatu Bertikalak erabilitako lan-banaketaren irizpideak jarraitzeak, Beasain "industrializatu" gisa jota, industria berriak Beasainen jartzea zaildu egingo zuela (Ordiziaren mesedetan),[126]. Ikusten dugun bezala, erregimen berriaren hierarkizazioa erabatekoa zen, baita lan-arloan ere.

Emaitza, langileen inguruko baldintzak okertzea izan zen, bai soldaten arloan, eta baita lan-baldintzen arloan ere, jada ikusi dugun bezala. Azken arlo horren inguruan esan, erregimenak 48 orduko lan-astera itzultzea ekarri zuela[127].

Soldatekiko berriz, Francoren erregimenak hartu zuen lehen erabakietako bat (Sindikatu Bertikalaren onarpenarekin, hori izan baitzen erregimenaren lan-arloko mintzakide bakarra), soldatak izoztea izan zen: 1939ko soldatak 1936an zeudenen egoerara jaitsi

---

117 Beasaingo Udal Artxiboa. A086 karpeta, 23. dokumentu-sorta.

118 Beasaingo Udal Artxiboa. 2941. karpeta, 21. dokumentu-sorta.

119 Beasaingo Udal Artxiboa. 2941. karpeta, 21. dokumentu-sorta.; eta Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 23. dokumentu-sorta.

120 MOLINERO, Carme eta YSAS, Pere: "Las condiciones de vida y laborales durante el primer franquismo. La subsistencia; ¿un problema político?" in *Historia Ekonomikoaren Elkartearen VII Biltzarra* (aktak), Zaragoza, 2001.

121 Beasaingo Udal Artxiboa. 2367. karpeta, 07. dokumentu-sorta.

122 MOLINERO, Carme eta YSAS, Pere: "Las condiciones de vida y laborales durante el primer franquismo. La subsistencia; ¿un problema político?" in *Historia Ekonomikoaren Elkartearen VII Biltzarra* (aktak), Zaragoza, 2001.

123 MOLINERO, Carme eta YSAS, Pere: "Las condiciones de vida y laborales durante el primer franquismo. La subsistencia; ¿un problema político?" in *Historia Ekonomikoaren Elkartearen VII Biltzarra* (aktak), Zaragoza, 2001.

124 Beasaingo Udal Artxiboa. 2112. karpeta, 53. dokumentu-sorta.

125 Beasaingo Udal Artxiboa. 2112. karpeta, 53. dokumentu-sorta.

126 Beasaingo Udal Artxiboa. 2112. karpeta, 53. dokumentu-sorta.

127 MOLINERO, Carme eta YSAS, Pere: "Las condiciones de vida y laborales durante el primer franquismo. La subsistencia; ¿un problema político?" in *Historia Ekonomikoaren Elkartearen VII Biltzarra* (aktak), Zaragoza, 2001.

zituzten; gudan gertatutako prezioen igoerak (kontuan izan behar da guda-garaiak eskasia-garaiak direla, beraz prezioek gora egin ohi dutela) ezertarako kontuan hartu gabe. Molinero eta Ysas irakasleen arabera, horrek %25 eta %30 arteko jaitsiera praktikoa ekarri zuen[128]. Modu hierarkikoan erabakitako soldata horien konstante bat izan zen garai hartan soldaten igoera prezioen igoeraren azpitik ibiltzea eta langileen egoera erabat okertu zuen. Enpresa askok benetako langile-dramak ekiditeko, igoerak "gehigarrien" bidez (seme-alabak izateagatik, familiako seme bakarra izateagatik, umezurtza izateagatik) estali behar izan zituzten. Hala ere, gehigarriak kontuan hartuta ere, soldatak ikaragarri jaitsi ziren: Sabadellgo Merkataritza Ganbararen (beraz, ez erregimenaren kontrakoen) txosten baten arabera, 1940.eko hamarkadaren bukaeran, langile baten eroste-ahalmena 1936an zenaren %65ekoa zen. Datu horiek, erregimenaren aldeko ekonomistek ere baieztatu zituzten eta, 1940an, Ekonomiako Kontseilu Nazionalarentzat Higinio Paris ekonomialariak idatzitako txosten baten arabera, "enplegatuen eta langileen bizitza-maila, guda-hasieran zenaren %70a baino txikiagoa da (…) populazioaren %80 dago egoera horretan, beste %20a ez, horiek inoiz baino hobeto bizi dira"[129].

Trenbideko langileen egoera (Beasainen garrantzia zuen beste industria bat aipatzearren) ere ez zen askoz hobea izan. 1941ean sortu zen RENFE konpainiak langileak oso gaizki tratatzen zituen, soldatak oso txarrak ziren: egunean 10,50 pezeta 1940ko hamarkadan (aurreko garai errepublikanoan, soldatak itxurazkoak ziren), eta arauak hain gogorrak ziren, ezen lan-istripuen kasuan, ikerketa-garaiaren aldian, langileak kartzelan itxaron behar izaten zuen emaitza[130].

Francoren politika ekonomikoa, esan bezala, erabat interbentzionista izan zen garai horretan. Egia esan, diktadoreak, Espainia espainiar baliabideekin industrializatzeko politika jarraitu zuen, beti ere, irizpide ideologikoak (gehienak falangismoaren arlokoak) erabiliz. Politika horren nolabaiteko zutarria, 1941ean sortutako Industria Institutu Nazionala (*Instituto Nacional de Industria*) izan zen. Institutu hori, Italia faxistan sortutako beste erakunde batean (IRI) inspiratua izan zen[131]. INIren sorkuntza, ekonomiaren kontzeptu militarista batetik gidatua izan zen, izan ere, ez da halabeharra, diktadura militarrak erakunde horren buruzagitzan militarrak jartzea. Horietako bat izan zen Joan Antonio Suances, 1945etik 1951ra Merkataritza Ministro izan zena. Beste bat, Luis Alarcon de Lastra 1939an Merkataritza Ministro izendatua izan zena. Erakunde horren mende egon zen halaber Atzerriko Moneten Institutu Ekonomikoa (hau da, kanpoko dibisen trukaketa, gordetzea eta arautzea markatzen zuena), beraz, kontuan hartu behar dugu INIren mende zegoela Espainiaren kanpo-merkataritza.

Berez, INIren helburuak, teoria aldetik, bi izan ziren; alde batetik Espainiaren industrializazioa azkartzea, eta, bestetik, espainiar kapitalismo autoktono bat ezartzea. Hala ere, bi helburuak ere ez zituen lortu. Industrialtzearen inguruan, kontuan hartu behar da, batez ere INIk sortutako enpresak, askotan, enpresa pribatuek porrot egindako sektoreetan, edota haiek aurre egin ezin zioten erronketan zentratzen zirela. Hau da, INI ez zen kapital pribatua ordeztera zetorren plan baten parte, kapital hori indartzeko plan baten parte baizik. Hala esan zuen Demetrio Carceller ministroak: "INIk enpresa pribatuari handiegi geratzen zaizkion lanak soilik hartuko ditu"[132].

Industrialtze-proiektu ezberdinak hasi zituen INIk, baina haietako gehienek ez zituzten bete euren aurreikuspenak. Izan ere, INIren ekimenez sortu ziren ENCASO, REPSOL, ENDESA, FEFASA, Bazan edo Elcano bezalako enpresak (azken hori izan zen errentagarria izan zen apurretako bat)[133]. Hala ere, kontuan hartu behar da, autarkiaren politikak, nahi ala ez, enpresa horietako askorentzat inputen (tarteko ondasunen) merkatua itxi egin zuela, eta hori zela-eta, autarkiaren osotasunezko helburuak ez ziren bete, batez ere, INI beraren aldetik. Bestetik, jarrita zeuden enpresek, askotan elektrizitate-etendurak izan zituzten, industria-hazkundea ezinezko eginez.

Hala ere, horrek ez du esan nahi langile-klaseen aldeko politika egin zuenik erregimen berriak, are gehiago, errepublika--garaiko sistema baino askoz ere ondasun-banaketaren aurkakoagoa izan zen. Lehenik eta behin, esan beharra dago

---

[128] MOLINERO, Carme eta YSAS, Pere: "Las condiciones de vida y laborales durante el primer franquismo. La subsistencia; ¿un problema político?" in *Historia Ekonomikoaren Elkartearen VII Biltzarra* (aktak), Zaragoza, 2001.

[129] MOLINERO, Carme eta YSAS, Pere: "Las condiciones de vida y laborales durante el primer franquismo. La subsistencia; ¿un problema político?" in *Historia Ekonomikoaren Elkartearen VII Biltzarra* (aktak), Zaragoza, 2001.

[130] CAZORLA SANCHEZ, Antonio: *Miedo y progreso. Los españoles de a pie bajo el franquismo, 1939-1975*. Alianza. Madril, 2016, 136. or.

[131] Honetan badago eztabaida bat, ea autarkia hori Espainia eredu faxistarantz eramateko bidea zen ala ez. Historiagile gehienek hori diote, baina badago kontrako iritzia duenik ere, adibidez, Ricardo Chueca, eta beraren arabera, espainiar autarkia, lehenik eta behin guda-osteko egoerari emandako erantzuna izan zen, nahiz eta gerora, erregimenak hura aldatzeko borondaterik ez izan eta aukera nazionalista gisa saldu. CHUECA, Ricardo: *El fascismo en los comienzos del régimen de Franco. Un estudio sobre FET-JONS*. CIS. Madril, 1983, 85-89 orr. Bestetik, Ismael Saz irakasle valentziarraren arabera, autarkia ez zen beste herrialdeetan egin zen bezala "Mobilizazio faxista" batekin lagundu, beraz ez zuen balio izan populazioa modu faxistan ideologizatzeko. SAZ, Ismael: *Fascismo y franquismo*. Valentziako Unibertsitatea (PUV). Valentzia, 2004.

[132] LORENZO ESPINOSA, Jose Maria: *Dictadura y dividendo. El discreto negocio de la burguesía vasca. (1937-1950)*. Deustuko Unibertsitatea. Bilbo, 1989, 31. orr.

[133] BARCIELA, Carlos; LOPEZ, Maria Inmaculada; MELGAREJO, Joaquin eta MIRANDA, Jose Antonio: *La España de Franco (1939-1975). Economía*. Sintesis. Madril, 2001, 127.-131. or.

or.

interbentzionismo-mota hori arautzailea izan zela, aktiboa edo ekintzailea baino gehiago[134]. Hau da, interbentzionismo mota horrek ez zuen bilatzen orduan indarrean zegoen ordena ekonomikoa aldatzea, baizik eta arauen bidez jada indarrean zeuden enpresak "babestea", eta lehia ugaltzeko aukera zailtzea. Beraz, praktikoki, erregimen frankista "interbentzionista", XIX. mendeko kapital pribatuak nahi izan zuena izan zen, hau da, lehia murriztu eta kapitalaren hedapenerako traba guztiak askatu. Horren adibide bat, zerga-sistema izan zen, Europako atzerakoienetakoa izan baitzen. Zergen bidez, Espainiak bere errenta nazionalaren %14 jasotzen zuen, Britainia Handiak %33 jasotzen zuen bitartean[135]. Historiagile batzuk, Borja De Riquer katalana kasu, Espainian zegoen "paradisu fiskalaz" hitz egitera iritsi dira[136]. Hala ere, dena ez zen erregimenaren politika ekonomikoa, izan ere, Espainiako zerga-bilketa sistema "zaharkitu, desegoki eta bidegabeak" ere ardura izan zuen. Egile horren arabera, Espainiako zerga-sistemak errentaren ordez gastua presionatzen zuen[137]. Beraz, hain diru-sarrera gutxiko sistema batekin, praktikoki Estatuak ez zuen batere dirurik berak aurreikusitako proiektuak aurrera eramateko. Horrekin batera, hurrengo lerroetan ikusiko dugun moduan, Espainian errenta poltsiko pribatuetatik oligarkiaren eskuetara lekualdatu zen.

Interbentzionismo-politika horrek, izan bazuen salbuespen bat: banketxeena. Banketxeentzat, erregimen berria sekulako pagotxa izan zen, besteak beste, pignorazio automatikoa (hau da, zergak indargabetzea edota trukatzea) baimendu zitzaielako Espainiako Banketxearen bitartez[138]. Neurri hori, hasiera batean, kalean zegoen diru-bolumen handia (kontuan izan behar da 1936-1939 bitartean Espainian bi Estatu izan zirela eta bakoitzak bere dirua jaulkitzen zuela) erretiratzeko eta hala inflazioa geldiarazteko zela esanez justifikatu zuen (baina era berean, gudan zehar ateratako diru errepublikanoa legez kanpo utzi zuen[139]). Hala ere, horrek, beste alde batetik Espainiako Banketxeak diru-bolumen likido handia izatera behartu zuen, zergen pignorazioari aurre egiteko, eta horrek, inflazio-tentsio handia sortu zuen. Azkenean, banketxeak garaile atera ziren, 1936 eta 1946 artean, euren errentagarritasuna %20,9 igo baitzen[140]. Datu hori, orain arte ikusi dugunarekin, hots, erregimen berriaren mende errentak oligarkiaren eta burgesiaren eskuetan kontzentratzearekin, erabat koherentea da. Banketxeen aldeko politika horrek beste urrats bat eman zuen 1946an, Banketxeak Arautzeko Legea sortu zenean. Lege horrek, Banketxe Kontseilu Gorena sortu zuen eta banketxe pribatuen ordezkariek sortua izan zen. Horrek esan nahi du, finantza-jarduera arautzeari buruzko aktibitate oro, "banketxe aristokrazia"[141] baten eskuetan gelditu zela. Are gehiago, banketxe berriak sortzea debekatzen zuen legea izan zen. Beste alde batetik, jakin beharra dago Espainiako Banketxea ez zela 1962. urtera arte nazionalizatu[142].

Emaitza bezala, frankismoaren lehen hamarkadetan Espainiaren emaitza ekonomikoak ezin txarragoak izan ziren. Hala, Bigarren Mundu Gudatik atera ziren herrialdeetako asko[143], bai Europa Mendebaldekoak, zein Marshall Planaren laguntzarik izan ez zuten Europa Ekialdekoak, Espainia baino azkarrago hazi ziren. Adibidez, 1940.eko hamarkadan, Espainiaren hazkunde-adierazlea %1,1ekoa izan zen, eta Alemaniako Errepublika Demokratikoa bezalako herrialde suntsitu batena %2,6koa (Grezia bezalako herrialde desindustrializatu batek, garai horretan, %2ko hazkunde-adierazlea izan zuen)[144]. Ekonomialari batzuek kalkulatu duten moduan, 1940.eko hamarkadan, Espainiaren ekoizpen-gaitasuna %15-20 artean txikitu zen.

Lan-harremanen arloari dagokionez. Sindikatu Bertikala, praktikoki langileen antolakunde autonomoaren heriotzaren adierazle bazen ere, tresna asistentzial bezala "Lan Sindikalak" martxan jarri zituen eta, horrela, Francoren erregimenaren aldeko

---

[134] TORTELLA, Gabriel: *El desarrollo de la España contemporánea. Historia económica de los siglos XIX y XX*. Alianza. Madril, 1994.

[135] BARCIELA, Carlos; LOPEZ, Maria Inmaculada; MELGAREJO, Joaquin eta MIRANDA, Jose Antonio: *La España de Franco (1939-1975). Economía*. Sintesis. Madril, 2001, 59. or.

[136] DE RIQUER I PERMANYER, Borja: *La dictadura de Franco*. Crítica eta Marcial Pons argitaletxeak. Sabadell (Bartzelona), 2010, 259. or.

[137] FUENTES QUINTANA, E.: "Los principios de reparto de la carga tributaria en España" in *Revista de Derecho Financiero y de Hacienda Pública*, 41. zk. (161.-298. or.)

[138] LORENZO ESPINOSA, Jose Maria: *Dictadura y dividendo. El discreto negocio de la burguesía vasca. (1937-1950)*. Deustuko Unibertsitatea. Bilbo, 1989, 41. or.; eta BARCIELA, Carlos; LOPEZ, Maria Inmaculada; MELGAREJO, Joaquin eta MIRANDA, Jose Antonio.: *La España de Franco (1939-1975). Economía*. Sintesis. Madril, 2001. Azken ekonomialari hauen arabera, soldatak %25 murriztu ziren aro horretan.

[139] Honen atzean, "kaletik dirua ateratzeaz gain" hainbat arrazoi egon zitezkeen; adibidez Errepublikaren zilegitasuna ezeztatzea, populazio errepublikanoa zigortzea, edo zor publikoaren parte bat (Errepublikak Guda Zibilean eragindakoa) ez aintzatestea. Ordiziako memoria historikoari buruzko lanean, badago testigantza bat horri buruzkoa: gudan lehenik Bizkaian, gero Kantabrian eta gero Bartzelonan ibili zen Maria Luisa Niñoren arabera: "Itzuli ginenean ez genuen bost pezetarik ere, diru gorriak ez baitzuen batere balio. Gose ederra pasatu genuen". ASKOREN ARTEAN: *Ahaztuen mindura. 1936ko gerra eta frankismoa Ordizian*. Ordiziako Udala, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Aranzadi. Ordizia, 2014, 238. eta 139. or.

[140] BARCIELA, Carlos; LOPEZ, Maria Inmaculada; MELGAREJO, Joaquin eta MIRANDA, Jose Antonio.: *La España de Franco (1939-1975). Economía*. Sintesis. Madril, 2001.

[141] MOYA, Carlos: *El poder económico en España (1939-1970). Un análisis sociológico*. Madril. 1975, 104. or.

[142] Banketxeen gaineko informazio gehiago: GARCIA RUIZ, Jose Luis: "Los arreglos interbancarios del franquismo" in *Revista de Historia Económica*, 2. zk. (264.-285. or.), 2002.

[143] Javier Tusellen arabera, industria-suntsipenaren inguruan Espainia Guda Zibiletik atera zen moduak zerikusi handiagoa izan zuen Europako gudetan borrokatu zuten herrialdeetan Lehen Mundu Gudaren ondorengo egoerarekin, Bigarren Mundu Gudaren ondorengoarekin baino. TUSELL, Javier: *Manual de Historia de España. 6. Siglo XX*. Historia 16. Madril, 1990.

[144] CAZORLA SÁNCHEZ, Antonio: *Las políticas de la victoria*. Marcial Pons. Madril, 2000, 74. or.

propaganda-tresna bikain bihurtu zen. Izan ere, hobekuntzarik ez zegoen garai batean (eta are lortzeko ikuspegiak ere urriak ziren garaian), halako zerbait "sindikatuei", hots "erregimenari" esker lortzea; atxikimendua eragiteko modu bat izan zen. Halako lanak "Etxebizitzen Lan Sindikala" (*Obra Sindical del Hogar*), "Hezkuntzako eta Atsedeneko Lan Sindikala" (*Obra Sindical Educación y Descanso*), "Prebisio Sozialerako Lan Sindikala" (*Obra Sindical de Previsión Social*) eta gaixotasunak artatzeko zen "Uztailaren 18ko Lan Sindikala" (*Obra Sindical 18 de Julio*) izan ziren. Hala ere, Lan Sindikal horiek, erregimenaren populismo sozialerako tresna izan ziren arren, ("erregimena txiroez kezkatzen da") esan beharra dago finantzaketa oso urrikoak eta irismen ia ezinezkoak izan zirela, hau da, oso jende gutxirengana iritsi zirela eta ez zirela miseria-errealitate masiboa iraultzeko gai izan[145].

Gai honekin bukatzeko esan, Francoren erregimenak, arlo sozialeko politikaren inguruan oso ondo eraiki zuen mito bat ere izan zela: gizarte-segurantzarena. Praktikoki, gizarte-segurantza hori, aurretik jada bazeuden bi Lan Sindikalen (Uztailaren 18koaren, eta Prebisio Sozialekoaren) batuketa izan zen. Horrenbestez, Sindikatuetako kide guztiak eta euren familiak, Gaixotasunentzako Derrigorrezko Aseguruarekin babestuta gelditu ziren. Hala ere, Aseguru horrek, soilik Sindikatuan izena emanda zeuden langileak eta beren familiak babesten zituen eta sindikatu horrek zuen antolaketa eskasa eta osasun-sarearen hedapen kaxkarra kontuan izanik, praktikan populazioaren gutxiengo bat soilik babestu zuen: 1944an populazioaren %25, eta 1949an populazioaren %30[146]. Bestetik, esan beharra dago ere, prebisio soziala ez zela izan erregimenaren asmakuntza, haren "kezka soziala" frogatuko zukeena, izan ere, aurretik Espainian ere, izan baitziren asegurantza-planak eta etxeak: lehen segurantza publikorako legea 1900eko Lan Istripuen Legea izan zen, 1908an Prebisiorako Institutua sortu zen, 1919an Erretiro Legea eta 1929an Amatasunaren Asegurua[147]. Bestalde, II. Errepublikaren garaian, prebisio sozialaren hazkunde handia gertatu zen, 1932an Istripuen Derrigorrezko Asegurua sortzetik hasi eta Konstituzioan "segurtasun sozialerako eskubidea" aintzatesteraino. Aurretik zeuden asegurantza legeak garatu eta haiek bateratzen ere saiatu ziren[148]. 1936ko uztaileko Lege batek, Segurtasun Sozialaren Ikuskaritza garatzea aipatzen du eta industria ezberdinetan lanak eragindako istripuak identifikatzeko eta haien inguruan epaitzeko eskuduntza zuen[149].

Beraz, ikusi dugun bezala, Francoren erregimenaren aurretik bazegoen jada langileen segurantzarako kezka Espainian, eta are gehiago, Errepublika-garaian aseguruak bateratzeko eta unibertsalizatzeko urratsa ere emana zen, baina proiektu horrek frankismoan, atzerapena izan zuen[150]. Francoren erregimenaren garaian, esan bezala, 1942an onartu eta 1944an ezarri zen Gaixotasunentzako Derrigorrezko Asegurua, baina esan bezala, horrek langile industrialak soilik babesten zituen, ez garai hartan Europarako Estatu gehienetan proiektuan zegoen, eta 1940.eko hamarkada-bukaeran ezarriko zen, Ongizate Estatuak bermatzen zuen unibertsaltasuna. Gainera, Estatuaren ekarpena oso txikia zen eta batez ere aseguratuek (langileek) finantzatutako sistema izan zen. Jeronia Pon adituaren arabera: "segurantza unibertsal bat baino gehiago izan zen lan-kotizazio sistema bat,"[151]. Bestalde, 1940.eko hamarkadan egindako lehen "gizarte segurantzaren" lege hori, geroago lege berrien bidez "bete" behar izan zen, adibidez, 1963ko Gizarte Segurantzaren Oinarrien Legearekin[152]. Hala ere, kontuan izan behar da gizarte-segurantzaren unibertsaltasuna

---

[145] LANERO TABOAS, Daniel: "Las "Políticas sociales" del franquismo: Las obras sindicales" in DEL ARCO BLANCO, Miguel Angel; FUERTES MUÑOZ, Carlos; HERNANDEZ BURGOS, Claudio; eta MARCO, Jorge (ed.): *No sólo miedo. Actitudes políticas y opinión popular bajo la dictadura franquista (1936-1977)* (127.-142. or.), Comares. Granada, 2013, 130.-133. or.

[146] PONS, Jeronia: "Los inicios del seguro social de salud en España, 1923-1949. Del seguro de maternidad al Seguro Obligatorio de Enfermedad" in PONS PONS, Jeronia eta SILVESTRE RODRIGUEZ, Javier: *Los orígenes del Estado de Bienestar en España, 1900-1945: los seguros de accidente, vejez, desempleo y enfermedad* (217.-246. or.). Zaragozako Unibertsitatea. Zaragoza, 2010.

[147] Hala ere, aseguru-plan horiek Europako beste Estatuekiko atzerapenarekin ezarri ziren eta kasu askotan aseguru pribatuak, edo enpresaren aseguruak (adibidez, kasu horietan lehenetakoa izan zelako, 1922an Tolosako Papelera Española enpresak ezarritakoa) izan ziren babes bakarrak. PONS, Jeronia: "Los inicios del seguro social de salud en España, 1923-1949. Del seguro de maternidad al Seguro Obligatorio de Enfermedad" in PONS PONS, Jeronia eta SILVESTRE RODRIGUEZ, Javier: *Los orígenes del Estado de Bienestar en España, 1900-1945: los seguros de accidente, vejez, desempleo y enfermedad* (217.-246. or.). Zaragozako Unibertsitatea. Zaragoza, 2010.

[148] PONS, Jeronia: "Los inicios del seguro social de salud en España, 1923-1949. Del seguro de maternidad al Seguro Obligatorio de Enfermedad" in PONS PONS, Jeronia eta SILVESTRE RODRIGUEZ, Javier: *Los orígenes del Estado de Bienestar en España, 1900-1945: los seguros de accidente, vejez, desempleo y enfermedad* (217.-246. or.). Zaragozako Unibertsitatea. Zaragoza, 2010.

[149] QUINTERO LIMA, Maria Gema: "La Seguridad Social en España. Evolución histórica". Iturri honetan aurki daiteke: http://ocw.uc3m.es/derecho-social-e-internacional-privado/derecho-de-la-seguridad-social/lecturas/evolucionhistorica.pdf

[150] PONS, Jeronia: "Los inicios del seguro social de salud en España, 1923-1949. Del seguro de maternidad al Seguro Obligatorio de Enfermedad" in PONS PONS, Jeronia eta SILVESTRE RODRIGUEZ, Javier: *Los orígenes del Estado de Bienestar en España, 1900-1945: los seguros de accidente, vejez, desempleo y enfermedad* (217.-246. or.). Zaragozako Unibertsitatea. Zaragoza, 2010.

[151] PONS, Jeronia: "Los inicios del seguro social de salud en España, 1923-1949. Del seguro de maternidad al Seguro Obligatorio de Enfermedad" in PONS PONS, Jeronia eta SILVESTRE RODRIGUEZ, Javier: *Los orígenes del Estado de Bienestar en España, 1900-1945: los seguros de accidente, vejez, desempleo y enfermedad* (217.-246. or.). Zaragozako Unibertsitatea. Zaragoza, 2010. Ponsen arabera, gainera, Estatuaren aldetik zegoen finantzazio eskasa ikusita, estatuak asegurantza horren kudeaketa partzialki agerrarazi egin zuen, "Uztailaren 18ko Lan Sindikalak" enpresa pribatuekin eginiko adostasunen bidez.

[152] QUINTERO LIMA, Maria Gema: "La Seguridad Social en España. Evolución histórica". Iturri honetan aurki daiteke: http://ocw.uc3m.es/derecho-social-e-internacional-privado/derecho-de-la-seguridad-social/lecturas/evolucionhistorica.pdf Egile honen arabera, Francoren garaian gainera Lan Mutualitate ezberdinak sortu ahala, gizarte-segurantzaren problematika zaildu egin zen, Gizarte Segurantza Unibertsalaren izpirituaren kontra joz, eta gainera finantzaketa gabezia eraginez. Horrek, gerora 1963ko Gizarte Segurantzaren Oinarrien Legea zaildu egin zuen.

or.

(Gizarte Segurantza eta bestelako mutualitate edota ongintza-planak bereizten dituena) Espainian ez zela lortu 1980ko hamarkada iritsi arte. Bestalde, Francoren erregimenean ezarritako beste akats batzuk, horren finantzaketa eskasa (langileen aldetik finantzatzen zen batik bat; ez Estatuaren aldetik) eta hori inflazioarekin eta bizitza-kostuarekin bat ez etortzea izan ziren.

Beraz, ikusi dugun moduan, Francoren erregimenak, praktikan ekarri zuena, beheko klaseen ekonomia okerragotzea izan zen. Hau batez ere bi arrazoirengatik gertatu zen; alde batetik erregimena babesten zuten klase sozialak, hain zuzen ere herri-klase apalen errebindikazioen kontrakoak zirelako (erregimenak, azken finean, klase apalek babestutako Herri Frontearen politiken aurka egitea leit-motiv gisa hartu zuen Estatu-kolpea izan zuen abiapuntu), eta bestetik, erregimenak berak programatutako politika asko, bai ustelkeriagatik edo bai neurriz kanpoko aurreikuspenak egiteagatik, porrota izan zirelako. Ondorio bezala, 1940ko erregimena, "ekonomia-arloan erregimenak kanpoko presioekiko autonomiarik handiena izan zuena, hau da, berez frankistena izan zena"[153], azken bi mendeetan maila sozialen arteko tartea gehien handitu zuena izan zen.

Beste gauza bat izan zen udal-langileen egoera eta hori Udalak erabakitzen zuen. Beasaingo Udalak, 1937ko urtarrilaren 28an, idazkari-laguntzaile Joxe Manuel Azurmendi Dorrontsororen soldata hileko 75 pezetara igotzea erabaki zuen[154] (1938ko abuztuaren 6an, 50 pezetako igoera izan zuen Azurmendik[155]). 1937ko maiatzaren 8an, Udalak, Udal-praktikante bat eta Astigarretarako beste praktikante bat kontratatzea erabaki zuen, bakoitzari urtean 1.500 pezetako soldata emanez[156]. Horrez gain, 1937ko abuztuan, Udal-langile batzuek (Ignazio Irastortzak, Agustin Cachok, Esteban Peñagarikanok, Joan Ziak, Meltxor Garciak, Martin Aranburuk eta Jose Kerexetak) soldatak igotzea eskatu zioten Udalari, "Bizitza asko garestitu da-eta". Hala ere, 1937ko abuztuaren 26an Udalak esan zuen ezinezkoa zela soldata horiek igotzea[157]. Bestetik, Nekazarien Sindikatu Katolikoak, 1939ko uztailaren 13an baserri-guneetarako beste zaintzaile bat kontratatzea proposatu zuen (Sindikatu horrek eta Udalak erdibana ordainduko zutena), "zaintza gutxi zegoela-eta, egurra, fruituak eta abar eramaten zituztelako"[158]. Nolanahi ere, Udal-langileek, 1939ko abenduan, Asla zinegotziaren proposamen bat ontzat emanda, Gabonetan ordain-sari bat izan zuten[159] (1940ko abenduaren 28an ere, Aslak, aparteko paga bera ordaintzea proposatu zuen, baina kasu honetan, beste zinegotziek iritziak eman ondoren, paga-erdia ordaintzea adostu zuten[160]). 1941etik aurrera, Udal-bandakoei ere, 1936an ordaintzeari utzitako gehigarria ordaintzen hasi zen Udala (1940ko azaroaren 15ean Bandarako batzordeak hartu zuen erabaki hura eta azaroaren 16ko bilkuran Udalak berretsi), bandakoek 1940ko urrian eskatu ondoren[161]. Bilkura horretan bertan, kale-garbitzaileek, udaltzainek eta abere-hiltzaileak ere soldatak igotzea eskatu zuten[162].

Lan-istripuen inguruan emandako okerrerako biraketaren adibide bat dugu honako hau: 1937ko ekainaren 3ko Osoko Bilkuran Felipe Ibarbia izeneko langile batek, Udalarentzat jaietan lanean zebilela izandako lan-istripua zela-eta, baja-egunak ordaintzeko eskatu zion Udalari, eta Udalak, galdutako jaietako egun bakoitzeko soldataren hiru laurdenak soilik emango zizkiola erantzun zion. Udalak, Eusebio Asla zinegotziaren ahotik "oraingo legeria 1931ko legeriaren ezberdina da" esan zuen, eta beraz, kasu hori Gipuzkoako Laneko Ordezkaritzak erabaki behar zuela[163]. Ekainaren 26an Udalak jakinarazi zuen Felipe Ibarbiaren auzi hori "Gobernazio-batzordera" eraman zuela[164]. Azkenean, Udalak 52 pezetako kalte-ordaina eman zion Ibarbiari[165].

1.3.a.I) Zerbitzuak

1938ko Udal-memorian dagoenaren arabera, Beasaingo Udalak "herriko ume guztiei behar den moduko hezkuntza emateko moduko eskola-lokalak daude herrian" (memoria horrek ez du aipatzen eskolara ez joatearen arazoa). Hala ere segituan esaten du Eskola Nazionalak ez daudela "funtzionamendu osoan", eta haur-eskola "suspentsioan dagoela" eta

---

[153] BARCIELA, Carlos; LOPEZ, Maria Inmaculada; MELGAREJO, Joaquin eta MIRANDA, Jose Antonio: *La España de Franco (1939-1975). Economía*. Sintesis. Madril, 2001, 11. or. Egile hauen arabera, 1950eko hamarkadaren osteko politika ekonomikoaren aldaketa, erregimenaren beraren aukera autonomoa baino gehiago izan zen kanpoko presioen edota egoeraren baldintzek sortutako korrontearen emaitza.

[154] Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 23. dokumentu-sorta.

[155] Igoera hori Frantzisko Untzueta zinegotziak proposatu zuen. Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 22. dokumentu-sorta.

[156] Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 23. dokumentu-sorta.

[157] Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 12. dokumentu-sorta.

[158] Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 13. dokumentu-sorta; eta Beasaingo Udal Artxiboa. 501. karpeta, 33. dokumentu-sorta.

[159] Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 13. dokumentu-sorta.

[160] Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 20. dokumentu-sorta.

[161] Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 20. dokumentu-sorta; eta Beasaingo Udal Artxiboa. A087 karpeta, 15. dokumentu-sorta.

[162] Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 20. dokumentu-sorta.

[163] Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 23. dokumentu-sorta.

[164] Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 23. dokumentu-sorta.

[165] Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 23. dokumentu-sorta.

"Karitateko mojek hartu dutela" (eskola horiek Martina Maiz kalekoak ziren). 1936ko irailean zer-nolako inaugurazioa egin zen kontuan hartuta, eskola horiek, publikoak izatetik –hasierako Errepublika-garaiko proiektuaren arabera– erlijiosoak izatera pasatzea, irakasle-faltaren aurrean konponbide praktikoa ematea baino gehiago, Udalaren aldetik hautaketa ideologikoa egin zelakoan gaude). Beasainek zituen lau auzoetatik hirutan ere eskolak zeudela dakar memoriak (Astigarretan, Arriaranen eta Aratz-Matxinbentan; Garinen falta zen eta memoria horrek hara irakasle bat bidaltzea eskatzen zuen[166]). Hiru eskola pribatu zeudela ere aipatzen du memoriak: bi erlijioso eta CAFen eskola[167] (azken horrek 1937-1938 ikasturtean 46 ikasle zituen matrikulatuta, ikasturtea 41ek bukatu bazuten ere[168]).

Heziketaren inguruan, arazo bat umeak eskolara ez joatea zen. Garai hartan, ume askok eskolara joateari utzi egin zion; izan ere, 1937ko maiatzaren 20an, Eusebio Aslak proposatu zuen Udal-bando baten bidez ohartaraztea eskolara ez joatea debekatuta zegoela, eta eskola-orduetan kalean ikusten ziren umeen kontrako zigorrak jartzea ere iradoki zuen. Aslaren proposamen horren atzean arazo handi bat zegoen, hau da eskola-abstinentzia handiaren errealitatea[169]. Izan ere, ume asko adibidez hiltegian lanean ari ziren (ziur aski, familia-beharrek eraginda), 1937ko maiatzaren 20 horretan bertan, Aslak berak hiltegian 14 urtetik beherako umeek lan egitea debekatzen zuen mozio bat aurkeztu baitzuen[170]. Udalak bi proposamenak onartu egin zituen. 1941eko martxoaren 15ean, Frantzisko Untzueta zinegotziak berriz esan zuen, ume asko ez zirela eskolara joaten "hornikuntza-jeneroen ilaran daudenaren aitzakiarekin". Untzuetak proposatu zuen konponbidea, udaltzaingoak ume horiek salatzea, eskolara eramatea eta gurasoei isuna jartzea izan zen[171]; baina horrek ez zuen ezkutatzen Beasainen une hartan bizi zen arazoa: umeak eskolara joaten ez baziren eta horren ordez hornikuntza-jeneroen ilaran bazeuden, Beasainen gose-egoera garbia zegoen eta horregatik gertatzen zen[172]. Hori izan zen Udalak eskolara joaten ez ziren (edo ezin zuten) umeen gurasoak presionatzeko erabili zuen modua, errazionamendu-txartela kentzearekin mehatxatzea. Horren adibidea dugu 1941eko abenduaren 23an, Udalak, Hilario Escobarri bost pezetako isuna jartzea bere alaba Edita Escobar eskolara joaten ez zelako eta "hutsegite horien errepikapena gertatuz gero familia osoari errazionamendu-txartela kentzearekin zigortuko dugu" ohartaraziz mehatxatu zituen Escobartarrak[173]. Horrek orduko Beasaingo bizi-baldintzen inguruan oso argazki argigarria ematen du. Alabaina, hala ere arazoa ez zen bukatu eta, adibidez, 1942ko maiatzean zehar, mutilen eskola publikoan, 34 mutikok 10 asistentzia-falta baino gehiago egin zituzten eta horietatik 14k, 19 falta egin zituzten (praktikoki maiatzeko hilean ez ziren joan eskolara)[174].

Eskola-sarean zegoen eskaintza-falta argiagoa zen auzoetan: 1937ko azaroaren 2an Jose Luis Guridi alkateak ohartarazi zion Donostiako Hezkuntza Ikuskaritzaren bulegoari, Aratz-Matxinbentako auzo-eskolan "duela urtebetez geroztik irakaslerik ez dago"[175] (Jose Garcia Zapicok 1937ko azaroaren 23an hango irakasle izateari utzi zion)[176].

Baina Aratz-Matxinbentako eskolak edo Garingoak baino arazo handiagoak eman zituen, Beasainen bertako umeen eskola publikoak. 1939ko apirilaren 27an, Udal-bilkuran irakurri zenez, eskola horren "egoera anormala" zela-eta, Gipuzkoako Lehen Hezkuntzako Sail Administratiboko buruak, eskola horren jarraipenaren komenigarritasuna bera ere, auzitan jarri zuen. Horretan, Beasaingo Udal frankista bat etorri zen, izan ere, eskola publiko hori "Fronte Popularraren garaian" zabaldu zela esaten baitzuten, "jada bazegoen Karitateko mojek zuzendutako Haurren Eskolari aurre egiteko". "Hala ere, talde bakoitzean 10-15 ume soilik zeuden, gurasoek beren umeek erlijiodun eskola izatea nahi zutelako". Halako kasuan ikus dezakegu Beasaingo eskuindarren Udalak nahiago zuela eskola publiko hori desagertzea. Haurren eskola publikoa irekitzearen "gaitzaren" ardura, *Izquierda Republicana* alderdiaren eta Alderdi Sozialistaren bizkar jartzen zuen Jose Luis Guridik zuzendutako Udal-taldeak[177]. 1939ko maiatzaren 22an, Guridik gutun bat bidali zion Gipuzkoako Hezkuntzako Ikuskatzaile-buruari, Haurren Eskola Publikoa guztiz

[166] Beasaingo Udal Artxiboa. 151. karpeta, 13. dokumentu-sorta; eta Beasaingo Udal Artxiboa. 065. karpeta, 43. dokumentua.

[167] Beasaingo Udal Artxiboa. 151. karpeta, 13. dokumentu-sorta; eta Beasaingo Udal Artxiboa. 065. karpeta, 43. dokumentua.

[168] Beasaingo Udal Artxiboa. 3255. karpeta, 38. dokumentu-sorta.

[169] Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 23. dokumentu-sorta.

[170] Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 23. dokumentu-sorta.

[171] Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 21. dokumentu-sorta; eta Beasaingo Udal Artxiboa. 3190. karpeta, 04. dokumentu-sorta.

[172] Oro har, hau arazo orokortua zen Francoren erregimenean, 1940-41 ikasturtean. Alfabetatze Batzorde Nazionalaren arabera, eskola-adinean zeuden umeen %46,9 soilik joaten zen eskolara. CAZORLA SANCHEZ, Antonio: *Miedo y progreso. Los españoles de a pie bajo el franquismo, 1939-1975*. Alianza. Madril, 2016, 160. or.

[173] Beasaingo Udal Artxiboa. 249. karpeta, 29. dokumentu-sorta. Kontrol-sistema hori, populazioaren gosearekin jokatzea alegia, nahiko arrunta zen frankismoaren pean, Migel Anjel Del Arcoren arabera, 1951ko Udal-hauteskundeetan, botoa ematera joaten ez zirenak txartela kentzearekin mehatxatu zituen erregimenak hedabideen bidez. DEL ARCO BLANCO, Miguel Angel: "Morir de hambre. Autarquía, escasez y enfermedad en al España del primer franquismo" in *Pasado y Memoria. Revista de Historia Contemporánea,* 5. zk. (241.-258. or.), 2006, 252. or.

[174] Beasaingo Udal Artxiboa. 3255. karpeta, 62. dokumentu-sorta.

[175] Beasaingo Udal Artxiboa. 252. karpeta, 20. dokumentu-sorta.

[176] Beasaingo Udal Artxiboa. 3255. karpeta, 25. dokumentu-sorta.

[177] Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 13. dokumentu-sorta; eta Beasaingo Udal Artxiboa. 3255. karpeta, 64. dokumentu-sorta.

or.

kentzea eskatuz[178]. Erabaki horrek Udalaren Lehen Hezkuntzako batzordearen (eta bere bozeramaile Eusebio Aslaren) babesa ere bazuen[179]. Eskolen arazoa ez zen soilik Beasaingo arazoa izan, frankismopean bizi zen gizarte osoarena baino; erregimenak eskola publikorako inbertsioa ikaragarri jaitsiarazi baitzuen: 1931n Estatuaren defentsarako aurrekontua hezkuntza-aurrekontua baino 2,5 aldiz handiagoa bazen, 1941ean 8,5 aldiz handiagoa zen, eta 1955ean (Guda Zibila hasi eta ia hogei urtera), 4,5 aldiz handiagoa[180]. Horrek erakusten du Estatuarentzat hezkuntzak ez zuela inongo lehentasunik.

Hala ere, aurreko kapituluan aipatu izan dugun moduan, irakasle batzuk (hiru gizonezkok eta bi emakumezkok) Beasaindik ihes egin zutela-eta, irakaskuntzako postu batzuek hutsik zeuden[181]. Horietako bi, 1937ko martxoaren 31n bete ziren behin--behinean, Luisa Alonso Frias eta Martin Calvo Sanabria, arrasatearrak biak, behin-behineko irakasle izendatu zituztenean[182]. Antzeko erregimenean izendatu zuten irakasle, 1937ko abenduaren 1ean, Florentino Cillan Apalategi[183] (1940an Gipuzkoako Hezkuntza Ikuskaritzari erantzunez, Beasaingo Udalak "Antonio Cillan" (sic) izeneko pertsona bat "jada Beasainen" maisu bezala ez zegoela, eta bere ordezko gisa Teresa Aguado Baza zegoela komunikatu zuen. Ez dakigu Antonio Cillan hori beste pertsona bat den ala Florentino Cillan aipatzean egindako akatsa den)[184]. Garai hartan, eta hau hezkuntzaren atzerakadaz hitz egiten digun beste datu bat da, eskolako maisu-maistrak oso gaizki ordainduta zeuden eta datu ofizialen arabera, euren eroste-ahalmena 1936an zenaren %20koa besterik ez zen[185].

Hezkuntzarekin jarraituz, Beasainen liburutegien "garbiketa" ere egin zen. Gipuzkoako eta Bizkaiko Gobernadore Zibilak agindu zuen herri guztietan horretarako Batzorde bat eratu behar zela. Jose Maria Arellano Gobernadorearen arabera, Batzorde horren lana "atzeguardian gera daitezkeen iraultzaren haziak" ezabatzea zen, "Armada Espainia salbatzeko egiten ari den lana alferrikakoa izan ez dadin"[186]. Arellanok 1937ko otsailaren 1ean Udal guztietara bidali zuen gutunean dio, "irakaskuntza, Estatuarengandik aparte, baina horren baliabideak profitatuz" bizi izan dela "hitzaren askatasunaren izenean gorrotoa zabalduz"; eta gainera, bereak ez ziren ideiak, "txanpon intelektual faltsu" bezala jotzen zituen[187]. Gobernadorearen agindua izan zen beraz, Udalerri guztietan Alkateak, apaiz batek eta irakasle batek osatutako batzordeak eratzea "Liburutegi publikoetan, eskola publiko zein pribatuetan, erositakoak edota dohaintzaz hartutakoak diren liburuak" aztertzeko eta "Erromako Kongregazioaren Ofizio Santuaren indexean[188] daudenak (…), han egon ez arren moral katolikoaren aurkakoak direnak (…), sozialismoaren, komunismoaren, anarkismoaren edo masoitzaren propaganda egiten dutenak (…) edo aberriaren batasunari erasotzen diotenak" kentzeko helburuarekin[189]. Batzorde hori, Guridi alkateak, Florentzio Aspe erretoreak, eta Alvaro Garcia maisuak osatu zuten, 1937ko otsailaren 5ean[190]. Ez dakigu zein liburu bota edo kendu zituzten, baina jakin badakigu, "egindako lanaren" berri eman ziotela Arellanori, hala eskatzen baitzuen hark bere aginduan[191].

Hori ez zen hezkuntzaren politizazioaren adibide bakarra izan. Izan ere, 1937ko irailean, ikasturte berria hastearekin batera, Gipuzkoako Gobernu Zibilaren Hezkuntzako sailetik galdetegi bat bidali zitzaien Udal guztiei; galdetegi horretan irakasleen egoeraz galdetzeaz gain, ikasturte-hasierako ekitaldiak izaera erlijiosorik izan ote zuen galdetzen zen[192]. Beasaingo Udalak erantzun zuen, ikasturtea hasteko meza eman zela eta Florentzio Aspe erretoreak berak eman zuela[193].

Ordena publikoari dagokionez, gudak iraun zuen artean behintzat, armadak eta alderdi eskuindarren milizia ezberdinek Beasaingo udaltzainen lanari gain hartu zioten. Adibidez, 1937ko apirilaren 10eko Udalaren Osoko Bilkuraren bidez jakin badakigu, CAF fabrika militarizatuta zegoela, gudarako eskuzko bonbak egiten zituztela eta falangistek zaintza-guardia egiten

178 Beasaingo Udal Artxiboa. 3255. karpeta, 64. dokumentu-sorta.
179 Beasaingo Udal Artxiboa. 3255. karpeta, 64. dokumentu-sorta.
180 CAZORLA SANCHEZ, Antonio: Miedo y progreso. Los españoles de a pie bajo el franquismo, 1939-1975. Alianza. Madril, 2016, 158. or.
181 Beasaingo Udal Artxiboa. 3255. karpeta, 06. dokumentu-sorta.
182 Beasaingo Udal Artxiboa. 3255. karpeta, 43. dokumentu-sorta.
183 Beasaingo Udal Artxiboa. 3255. karpeta, 01. dokumentu-sorta. Jeronimo Velamazan berari urtarrilaren 19an jakinarazi zion Udalak bere izendapena: Beasaingo Udal Artxiboa. 3255. karpeta, 24. dokumentu-sorta.
184 Beasaingo Udal Artxiboa. 252. karpeta, 18. dokumentu-sorta.
185 CAZORLA SANCHEZ, Antonio: *Miedo y progreso. Los españoles de a pie bajo el franquismo, 1939-1975*. Alianza. Madril, 2016, 161. or.
186 Beasaingo Udal Artxiboa. 65. karpeta, 42. dokumentua.
187 Beasaingo Udal Artxiboa. 65. karpeta, 42. dokumentua.
188 Ofizio Santuaren Indexa, Eliza Katolikoak baztertzeko gomendatzen zituen liburuen zerrenda zen.
189 Beasaingo Udal Artxiboa. 65. karpeta, 42. dokumentua.
190 Beasaingo Udal Artxiboa. 65. karpeta, 42. dokumentua.
191 Beasaingo Udal Artxiboa. 65. karpeta, 42. dokumentua.
192 Beasaingo Udal Artxiboa. 3186. karpeta, 53. dokumentu-sorta.
193 Beasaingo Udal Artxiboa. 3186. karpeta, 53. dokumentu-sorta.

zutela bertan[194]. Apirilaren 16an, Migel Cerrajeria zinegotzi eta Falangeko buruak esan zuen lan hori falangistek komandante militarrak hala eskatuta egiten zutela[195]. Gainera, egun horretan bertan, Udalak han guardia egiten zuten falangistei moduren batean ordaintzea ere adostu zuen; beraz, horrek erakusten du egoera okupazio militarrekoa izan zela, zerbitzu publiko bat militarrek ezartzen baitzuten euren beharrak asetzeko (eskuzko bonben produkzioa babesteko) eta horren kostua Udalari pasatzen zioten.

Beasaingo Guardia Zibilaren kuartela hutsik zegoen 1936ko uztailaren amaieratik, orduko Guardia Zibilak Errepublikaren alde borrokatu eta hil zituztelako. 1937ko abuztuaren 14an CAF enpresari konponketak egiteko eskaera egitea erabaki zuen Beasaingo Udalak berriz irekitzeko asmoak zeudela-eta (1938ko uztaileko dokumentu batean, 1937ko uztailean gertatutako Anjel Melgosa Markinaren heriotzari buruzkoan, Jose Beriztain Udal-idazkariak esan zuen "garai hartan herri honetan ez zegoen indar publiko hori"[196]). Hala ere, 1937an Udal frankistak, Guardia Zibila berriz Beasainen izateko borondatea erakutsi zuen (egia baita gorputz horretako gehienak altxatuen alde atera zirela, eta beste alde batetik, ideologikoki eskuineko tradizioei lotutako gorputza zela). Hura berrezartzeko ere, Udalak CAFi laguntza eskatu zion (gogora dezagun, lehen kapituluan esan bezala, Beasaina Guardia Zibila ekartzea CAFen ekimena izan zela)[197]. Irailaren 11n Udalak Gobernu Zibilari kuartela ireki eta Guardia Zibilak ahalik azkarren berriro jartzea eskatu zion[198]. Irailaren 25ean Udalak, Frantzisko Untzueta zinegotziaren proposamena onartuta, Gobernu Zibilera gai horri buruz hitz egiteko batzorde bat bidaltzea adostu zuen eta batzorde horretako partaide izan ziren Guridi alkatea, Untzueta eta Frantzisko Ezkiaga bera[199]. 1940ko abenduan, Beasaingo Udalaren erroldaren arabera, bost guardia zibil zeuden Beasainen (Errepublikaren garaian zazpi ziren)[200]. Postuko komandante berria, Beasaingo atxilotuen kontrako kausetan Guardia Zibilak egindako txostenetan agertzen den sinadurak erakusten duen bezala, Jeronimo Paul zen.

Azkenik, Beasaingo osasun publikoa ere mintzagai dugu. 1937ko apirilaren 3an, medikuak apirilaren 1ean eman zuen agindu baten arabera, Beasaingo Udaleko Osoko Bilkurak jakinarazi zuen Beasaingo eskola guztiak itxita gelditzen zirela, astanafarreria zela-eta (medikuaren arabera, 1937ko apirilaren 1erako jada bi ume gaixorik zeuden)[201]. 1938ko abenduan, Udalak, Gipuzkoako Hezkuntzako Ikuskaritzari, Arriaranen difteria kasu bat izan zela jakinarazi zion eta azaroaren 22an ume bat hil zen (Gipuzkoako Hezkuntzako Ikuskaritzak Astigarretan kasuren bat izan zela ere esan zuen, baina Udalak ukatu egin zuen hori). Udalak Ikuskaritzak proposatutako edo iradokitako eskolen behin-behineko itxierari ezezkoa eman zion, Arriaranen difteria kasuak "isolatuak" izan zirela esan baitzuen, ez "izurritea", Ikuskaritzak esan zuen bezala[202].

1.3.b) Martin Esnaola Elizegiren alkate-aldia

Jose Luis Guridi, lehen esan dugun bezala, 1940ko urte-bukaeratik eszedentzian zegoen eta bere postua alkateordeek, Migel Cerrajeriak (gehienetan) edo kasuren batean, Frantzisko Ezkiagak betetzen zuten. Eszedentzia hori, Guridiren arabera, bere lan-aferak zirela-eta (obra-kontratista zen) hartu zuen. Alkatetza 1941eko martxoan utzi zuen. Arrazoi ofizialik aktetan edota dokumentuetan ageri ez bada ere, 1941eko abuztuan bere lurretan jada pabilioi industrial bat egiteko proiektua hasi zuela jakin badakigunez[203], pentsatzekoa da, bere negozioen eta alkate-postuaren denbora-bateraezintasuna izan zela kargua uzteko arrazoi nagusia.

Martxoaren 29an osatu zen Udal berria eta buru Martin Esnaola Elizegi jarri zuten. Martin Esnaola 1936ko uztailean zinegotzi izendatua izan zen, baina 1940ko uztailaren 11n Udala utzi egin behar izan zuen, izan ere, agintarien ustez, ordura arte Beasaingo Udala 12 pertsonez osatuta zegoen eta[204], neurriz gaineko kopurua zenez, hiruk, tartean Esnaolak berak, kargua utzi behar izan zuten. Udal berriko beste zortzi zinegotziak, Migel Cerrajeria, Eusebio Asla, Frantzisko Ezkiaga, Rufo Artolain, Jose Aranburu, Jose Luis Garin, Jerman Zaballos eta Frantzisko Untzueta izan ziren; denak aurreko Udal-taldekoak; beraz jarraipena

[194] Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 23. dokumentu-sorta; eta Beasaingo Udal Artxiboa. 498. karpeta, 09. dokumentu-sorta.
[195] Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 23. dokumentu-sorta.
[196] Espainiako Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia. Gipuzkoa 2439-39 kausa, Anjel Melgosa Markinaren heriotzari dagokiona.
[197] Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 23. dokumentu-sorta.
[198] Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 23 dokumentu-sorta.
[199] Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 23 dokumentu-sorta.
[200] Beasaingo Udal Artxiboa. 2065 karpeta, 01 dokumentu-sorta.
[201] Beasaingo Udal Artxiboa. 252 karpeta, 20 dokumentu-sorta; eta Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 23 dokumentu-sorta.
[202] Beasaingo Udal Artxiboa. 252 karpeta, 19 dokumentu-sorta.
[203] Beasaingo Udal Artxiboa. 065 karpeta, 36 dokumentu-sorta.
[204] 1936an hamahiru kidek osatzen zuten Udal-taldea; baina gogora ezazue egun batzuk lehenago Pedro Arana Gaiztarro hil egin zela.

or.

erabatekoa izan zen. Aurreko Udal-taldetik falta zirenak, dimititutako Jose Luis Guridi, hildako Pedro Arana Gaiztarro, eta 1940an kargua uztera behartuak izan ziren Restituto Urteaga Otegi eta Jose Mendia Lasa izan ziren[205].

Martin Esnaolak kargua 1941eko martxoan hartu zuen eta zortzi urte egin zituen bertan, 1949ra arte. Guk, lan honetan, 1945. urtera arteko epea soilik aztertuko dugu, esan dugunez. Hasiera batean, alkatea eta zinegotziak aipatzen ziren, baina 1942ko martxoaren 20ko aktaren bidez jakin badakigu, egun horretan dagoeneko Migel Cerrajeria Tiffe alkateorde zela, eta 1942ko martxoaren 6ko aktaren arabera, beste alkateorde bat Frantzisko Ezkiaga zela[206]. Hala ere, aldaketa nabarmen bat gertatu zen Guridiren sasoiarekiko, garai honetan zinegotziak askoz ere gehiago joaten ziren bileretara. Bilera batean bederatzitik sei pertsona baino gutxiago egotea arraroa izan zen (halako bilerak ere izan ziren arren), normalena zazpi edo zortzi egotea izan zen.

Berez, Udal horrek karlista izaten jarraitzen zuen, zinegotzi gehienak, aurreko kapituluan zein aurreko orrialdeetan esan bezala ideologia horretakoak baitziren. Baina hala ere, 1936ko Udalarekiko ezberdintasun nabarmen bat bazuen udal berriak, 1936an erregimenaren homogeneotasun ideologikoa ez zen hain handia, eta tokiko boteredunek, eskuineko fakzio ezberdinak ordezkatzen zituzten eta nolabaiteko "norbere politika ideologikoa" egiteko tarte txiki bat bazuten. 1937tik aurrera (batez ere 1937ko apirilean Francok Falangea eta Karlistak batuz alderdi bakarra sortu ondoren), erregimenaren homogeneotasuna geroz eta handiagoa izan zen, eta gainera, karlismoa ez zen izan erregimena osatzen zuten amalgama edo koalizio horretan osagai nagusia. Gipuzkoan (eta Hego Euskal Herriko beste herrialdeetan) karlismotik zetozen militanteek zenbait ardura-kargu izan bazituzten ere, jada erregimenean eragin handiagoa izateko edo erregimena karlismora gerturatzeko itxaropenak galdu egin zituzten eta 1941ean falangismoa zen itxuraz, erregimenaren parterik hegemonikoena.

Udal berriak, hala ere, zenbait ekintza sinboliko egin zituen; adibidez, 1941eko uztailaren 23an, Azpeitiko Loiolako santutegian abuztuaren 1ean egin zen Jesuiten aldeko omenaldian parte hartu zuen, eta bertara, Udal-taldea herriko banderarekin, Udal-bandarekin eta danbolin-joleekin eramatea adostu zuen[207]. Herriko agintari zibilak halako ospakizun erlijioso batera eramatea, karlismoaren puntu kardinal batekin, hots, politikaren izaera konfesionalarekin bat zetorren erabat. Konfesionaltasunaren barruan, jakina, herriko santu Loinazko San Martinek toki berezia zuen: 1942ko irailaren 4an, Frantzisko Ezkiaga alkateordeak zineman San Martinen bizitzari buruzko *Odol japoniarra* filmaren emanaldiari "erakusketa-zerga" ez kobratzea edo, hobeto esanda, (zergak kobratzea derrigorra baitzen), Udalak zerga horren kostu-kopurua enpresariari itzultzea proposatu zuen[208]. Halako formula erabili zuten baita ere Loinaz abesbatzak FET-JONSen egoitzan (Batzoki okupatuan, egungo Kale Nagusian) abestu zuen kontzertu bat zergetatik at gera zedin[209]. Udal berriak kolore erlijiosoa erakusteko aukera gehiago ere izan zituen, adibidez 1943ko maiatzaren 16an, Martin Esnaola alkatea Oñatira joan zen Arantzazuko Amaren aldeko jai batean Beasaingo Udalaren ordezkari gisa parte hartzeko; eta horri jarraiki ekainaren 4ko Udal-bilkuran irailaren 9a (Arantzazuko Ama Birjinaren eguna) jaiegun dekretatu zuen[210]. Beasaingo Udal horren zorroztasun katolikoa argi gelditu zen 1945eko apirilaren 14an egindako bilkura batean, non Francisco Ezquiaga alkateordeak eta Rufo Artolain zinegotziak protesta bat adierazi zuten Beasaingo Kirol Elkarteak ospatutako dantzaldi batean izan zen "Moraltasun falta" zela-eta[211].

Udal-kideen karlismoa gora-behera, Udal berria erregimenarekin erabat konprometitua egon zen. Adibidez, 1941ean Gipuzkoako Gobernadore Zibilak Gipuzkoako herrietan dantzaldi publikoak debekatu zituenean, Martin Esnaolak, 1941eko apirilaren 19rako, FET-JONSen sorreraren urteurren-jairako ("Bateratzearen Jaia"), Bandaren dantzaldia egitea baimendu zuen[212]. Berdin gertatu zen 1941eko urriaren 1ean, "Kaudilloaren festa" ospatu behar zen egunean[213]. 1942ko urriaren 30ean, erregimenaren beste sinbolo bat ohoratu zuen Beasaingo Udalak: "gurutzada nazionalaren aurreneko martiria", edo propaganda frankistaren arabera, "Altxamendu Nazionala" justifikatzeko erabilitako Jose Calvo Sotelo politikariaren heriotza. Frantzisko Untzuetaren proposamen bati jarraiki, Udalak bere batzar-aretoan Calvo Soteloren argazkia jarri baitzuen[214].

Politikaren eragina beste arlo batzuetan ere antzeman zen. Kale-garbitzaileen posturako zegoen hutsunea betetzeko bi pertsona aurkeztu ziren: Jose Zia eta Gillermo Kerexeta Aranburu, baina lehenaren eskaera bertan behera utzi zuen Udalak "behar

[205] Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 21 dokumentu-sorta.
[206] Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 19 dokumentu-sorta.
[207] Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 21. dokumentu-sorta.
[208] Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 19. dokumentu-sorta.
[209] Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 19. dokumentu-sorta.
[210] Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 18. dokumentu-sorta.
[211] Beasaingo Udal Artxiboa. L0045 akten liburua (1942-1946 arteko aktak jasotzen dituena). Dantzaldia Gobernadore Zibilak baimendua izan zen.
[212] Beasaingo Udal Artxiboa. 518. karpeta, 25. dokumentu-sorta.
[213] Beasaingo Udal Artxiboa. 518. karpeta, 25. dokumentu-sorta
[214] Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 19. dokumentu-sorta.

zuen dokumentazioa" aurkeztu ez zuelako. Ziari falta zitzaion dokumentua, "Mugimendu Nazionalarekiko atxikimendua frogatuko zuen FET-JONSen ziurtagiria" zen. Beraz, horrek argi erakusten du funtzionaritzaren parte izateko zer-nolako baldintzapen politikoak zeuden[215]. Postu hori beraz, Kerexetarentzat izan zen. Bake-epaitegiari dagokionez, 1943ko irailaren 23an hasi zen epaitegi horretarako postu berrietarako enplegatuak aukeratzeko prozedura; eta bai epaile nagusi zein ordezko epaile-posturako hiruna izangai aurkeztu ziren. Tolosako epaitegiko idazkariak azaldu zuen, hautagaiak "ezin zitezkeela Fronte Popularrari babesa eman zioten alderdi edo sindikatuetako kide-ohiak izan", eta gomendagarria zela gudan zauritutakoak izatea[216].

1937an euren joera politikoa zela-eta botatako funtzionario batzuk ere (gero azalduko dugu sakonago enplegatu horien kasua), itzultzeko asmoa izan zuten, eta halako postuen zabaltze-aukerak baliatzen saiatu ziren, Udalean izan zuten postua berriro berreskuratzeko. Kandelario Aranburu Muxika idazkaritzako ofizialak, 1941eko azaroaren 11n[217], bere kaleratzearen kontrako errekurtso bat aurkeztua zuela gogorarazi zion Udalari, beraz, errekurtsoa aurkeztua zuelarik, bere kargua "kargu huts" bezala ezin zela hartu esan zuen Aranburuk (Gobernazio Ministerioak 1939ko irailaren 30ean hori esan zuela gogorarazi zuen: "Udalek kargutik kendu edo kaleratutako funtzionarioen postuak ezin dira postu huts bezala hartu kaleratze hori behin betikoa ez denean (…) hau da, kaleratutako funtzionarioek kaleratzea onartu duten arte edota eurek jarritako errekurtsoak atzera bota diren arte")[218]. Hala ere, 1942ko martxoaren 3an, Martin Esnaola alkateak Aranburu Muxikari erantzun zion esanez: "zure idatzia ez dugu kontuan hartuko"[219]. 1941eko irailaren 26an[220], 1937ko martxoan kaleratua izan zen Antonia Bares abere-hiltegiko tripa-garbitzaileak, 1937ko otsaileko eta 1937ko martxoko soldata zor ziola esan zion Udalari (Baresek hilero 200 pezeta kobratzen zituen). 1942ko otsailaren 16an, Martin Esnaola alkateak Bares Tolosari bere eskaerari uko eginez erantzun zion, "1937ko urtarrilaren 12an zu lanpostu horretatik kentzeko erabakia hartu zelako" eta "urtarrilaren 13n komunikatu zitzaizulako", beraz Esnaolaren arabera, Baresek ez zuen 1937ko otsaileko eta martxoko soldata kobratzeko eskubiderik[221].

Beasaingo aurrekontua egoera txarrean zegoela esan dugu lehen. 1941ean Beasaingo Udal-ekonomia kalte zezakeen erabaki bat hartu zuen Gipuzkoako Ogasun Ordezkariak: Gipuzkoako Osasun Institutuari, bai uztailaren lehen hamabostekoan, zein urriko lehen hamabostekoan, aurrekontuaren %1 eman behar zitzaion; eta horrez gain, uztaileko lehen hamabostekoan aurrekontuaren %0,5 eman behar izan zitzaion Tuberkulosiaren Kontrako Partzuergoari[222]. Horrez gain, 1943ko irailaren 17ko bilkuran, Udalak, Gipuzkoako Ogasunaren Ordezkaritzak, "pertsona juridikoen gaineko zerga bereziak" zirela-eta, Udalak hari 15.967,46 pezeta ordaindu behar zizkiola jakinarazi zion[223]. 1944ko txosten baten arabera, Udalak 1943ko likidazioa egin gabe zuenez, "ezin da Udalaren egoera zein den jakin" adierazi zuen[224].

1944an, Emiliano Garmendia Lekuona Tokiko Administrazioaren Kontuhartzailearen aldetik beste kolpe bat etorri zitzaion Beasaingo Udalari; ustelkeriaren itzala hain zuzen. Izan ere, parte-hartze batzuk eta zerga batzuk zirela-eta, kobratzeko eskubidea izanagatik ere, Udalak, 1937an eta 1940an jaso zituen 16.974 pezeta sarreren zerrendan idatzi gabe zituela esan zuen (Udalaren esaldia "ez dira Udalaren diru-sarreren zerrendan ageri" izan zen)[225]. Baina hori ez zen kasu bakarra izan: 1944ko irailaren 11n, Garmendiak idatzi zuen txostenean, horrez gain 1939 eta 1942 artean Gipuzkoako Aldundiak eskola ezberdinetarako subentzioetan eman zituen 22.165 pezeta ere sarreren zerrendan idatzi gabe zeudela esan zuen. 1943an, ordea, Gipuzkoako Aldundiak Arangoiti Ongintza Etxean zeuden gaixoen egonaldien subentzio moduan 7.917 pezeta Udalak sarreretan idatzi gabe utzi zituela zioen Garmendia Lekuonaren txostenak[226]. Garmendia Lekuonaren arabera, diru-funtsen desbideraketa horren erruduna Jose Beriztain Zubiaga idazkaria izan zen. Hori bi arrazoirengatik izan zitekeen: bata, bai Guridiren zein Esnaolaren Udal-taldeetan bera idazkari-karguan egon zelako zerikusia izatea (azken finean kontu guztiak idazkariaren eskuetatik pasatu behar baitzuten), eta bestea, beste errudunen bat edo batzuek estaltzeko modua izatea, Beriztain, 1944ko maiatzaren 21ean hil baitzen[227].

---

[215] Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 21. dokumentu-sorta.
[216] Beasaingo Udal Artxiboa. 060. karpeta, 14. dokumentu-sorta.
[217] Beasaingo Udalari gutun hori idatzi zionean, Kandelario Aranburu Muxika jada Oiartzunen bizi zen.
[218] Beasaingo Udal Artxiboa. 065. karpeta, 11. dokumentu-sorta.
[219] Beasaingo Udal Artxiboa. 065. karpeta, 11. dokumentu-sorta.
[220] Beasaingo Udalari gutun hori idatzi zionean, Antonia Bares Tolosa jada Donostian bizi zen.
[221] Beasaingo Udal Artxiboa. 065. karpeta, 26. dokumentu-sorta.
[222] Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 21. dokumentu-sorta.
[223] Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 18. dokumentu-sorta.
[224] Beasaingo Udal Artxiboa. 2112. karpeta, 52. dokumentu-sorta.
[225] Beasaingo Udal Artxiboa. L0045 akten liburua (1942-1946 arteko aktak jasotzen dituena).
[226] Beasaingo Udal Artxiboa. 146. karpeta, 09. dokumentu-sorta.
[227] Beasaingo Udal Artxiboa. 146. karpeta, 09. dokumentu-sorta.

or.

Horren aurrean, Beasaingo Udaleko Ogasun-batzordeak; Frantzisko Ezkiaga alkateordeak eta Frantzisko Untzueta eta Jerman Zaballos zinegotziek osatutakoak aztertu zuen gaia eta, batzordearen arabera, 39.139 pezeta izan zen desbideratutako kopurua, Emiliano Garmendiak esana baino pixka bat gutxiago. Hala ere esan zuten Aldundiak zuzenean Udaleko kontuetatik pasatu gabe Beasaingo Ongintza Etxeari emandako dirua, "subentzio" bezala hartzearen aldekoak zirela, izan ere, nahiz eta diru hori zuzenean Udaletik ez pasatu, bestelako kasuan Udalak aurre egin beharko ziokeen gastu bat arintzeko balio zuela[228]. Guztira, Ezkiaga, Untzueta eta Zaballosen arabera, 42.331 pezeta itzuli behar zitzaizkion Udalari eta horiek itzultzeko bidea epaile instruktore baten esku uztea gomendatu zuten[229]. Epaile instruktore, Zaballos zinegotzia izendatu zuen udalak 1944ko maiatzaren 26ko bilkuran[230]. Zaballosek 1945eko uztailaren 19an eman zuen bere epaia, eta itzultzeko kopurua 41.557 pezetakoa zela ebatzi zuen eta errudun bakarra Jose Beriztain Zubiaga idazkari-ohia (jada hila) zela adierazi zuen. Hala ere Beriztain "hila zegoenez" eta "ondasunik ez zeukanez", salaketa kriminalera jotzea ezinezkoa zela ikusten zuen Zaballosek[231]. Beraz, Zaballosen ebazpenaren ondorioz, Udala, Zaballosek estimatutako 41.557 pezeta horiek erreklamatu ezinik gelditu zen eta hori dugu ondoriorik garbiena. Dena dela, zalantzarako tarte handia uzten du Zaballosek bere erabakian, bai errudun bakartzat hildako pertsona bat jarrita (beraz bere burua defenditu ezin zuena), eta bai ondorioak hain argiak izanda (41.557 mila pezetako lapurreta), hain azkar "kasua itxita".

Eszeptizismo pixka bat erakutsi zuena alkatea izan zen, 1944ko abuztuaren 19an, Azkoitiko eta Azpeitiko epaitegietan Jose Beriztainek edo haren ondorengoek izan zitzaketen jabegoak aztertzea agindu baitzuen (eta baita Bergarako epaitegian ere, baina kasu horretan epaitegiaren erantzuna soilik dugu, ez alkatearen eskaera)[232]. Horrez gain, Gipuzkoako Aldundiko kontuhartzaileari 1943an eta 1944an Beasaingo Ongintza Etxerako emandako subentzioen zerrenda bat eskatu zion; eta Gipuzkoako Aurrezki Kutxako zuzendariari bertan aurrezki-kartilarik ba al zuen galdetu. Kutxak ezezkoarekin erantzun zion 1944ko irailaren 23an). Beriztainek Debarroan jabetza handiak zituen, adibidez, Abaro baserria (eta haren ondoko lurrak) Bergaran, Mutrikun Leizobe deitutako gaztainadia, Madariaga deitutako sagastia, Erlapat deitutako lursail bat, eta beste lursail bat[233]. Lur horiek, bere aita Isidro Beriztain Andonegirengandik oinordetzan jaso zituen[234]. Horrez gain, Mutrikuko Udaleko idazkariaren arabera, Mutrikun Luis Beriztain deitutako baten oinordekoek (Jose Beriztain ere tartean zela) lau hiri-lursail zituzten Mutrikun, 1944ko abuztuaren 23an esan zuenaren arabera[235].

Alkateak Jose Beriztainen anaia ere deitu zuen harekin gauzak argitzeko, nahiz eta hark, Gasteiztik 1944ko abuztuaren 29an uko egin etortzeari eta "Nire hildako anaiak bere legezko ordezkariak baditu eta (…) haiekin tratatzea egokiagoa litzateke" erantzun[236].

1945ean beste saiakera batekin hasi zen Udala. Udalak, 1945eko maiatzaren 26an, 42.000 pezetan estimatu zuen Udalak jaso ez zuen kopurua. Kasu horretan, Jerman Zaballos zinegotzia izendatu zuen udalak instruktore kopuru horren itzuleraren alde borrokatzeko[237]. Uztailaren 21eko bilkuran eman zituen argitara Zaballosek bere ondorioak: 41.557,95 pezetara heltzen zen iruzurra (beraz, aurreko akordio batekiko, 42.000tik gora ezartzen zuenarekiko, desadostasuna erakutsi zuen): 4.000 Arte eta Lanbide Eskolara joan behar zutenak, 16.974 Estatuan Beasaingo Udalak zituen parte-hartze ezberdinenak, 7.917 Aldundiak Ongintza Etxerako eman zuena, 9.474 Beasaingo Udalak kaudimen-falta zuela-eta Aldundiak Ongintza Etxerako eman zuen laguntzarenak, eta 3.192 probintziako kontribuzioenak. Zaballosen arabera "errudun bakarra Jose Beriztain Zubiaga idazkaria zen" (horretan ez zuen aurreko ondorioekiko desadostasunik adierazten). Hala ere, pertsona hori hila zenez, eta harekiko erantzulerik ez zegoenez, zigorra bertan behera gelditzen zela esan zuen Zaballosek. Udalak Zaballosen ondorioak ontzat eman zituen, eta eginbide berririk ez zabaltzea erabaki zuen[238]. Erabaki hori arraroa izan zen, izan ere, Martin Esnaola alkateak egiaztatu egin baitzuen Beriztainek Bergaran eta Mutrikun zenbait jabetza higiezin bazituela.

Ustelkeria ez zen Beasaingo berezitasuna izan, eta areago, erregimen berriaren marka izan zen, batez ere, elikagaien inguruan gertatu zenarekin: jeneroen falta izugarria zegoen eta merkatu beltzean, hori bai, prezio handiagoetan, nahi beste topa zitekeen. Hori ezin zen gertatu sisteman ondo kokatutako pertsonen laguntzarik gabe[239].

---

228 Beasaingo Udal Artxiboa. 146. karpeta, 09. dokumentu-sorta.

229 Beasaingo Udal Artxiboa. L0045 akten liburua (1942-1946 arteko aktak jasotzen dituena).

230 Beasaingo Udal Artxiboa. 146. karpeta, 09. dokumentu-sorta.

231 Beasaingo Udal Artxiboa. 146. karpeta, 09. dokumentu-sorta.

232 Beasaingo Udal Artxiboa. 146. karpeta, 09. dokumentu-sorta.

233 Azpeitiko Udalak, ordea, 1944ko irailaren 16an esan zuenez, Luis Beriztainek ez zuen inongo jabetzarik Azpeitian.

234 Beasaingo Udal Artxiboa. 146. karpeta, 09. dokumentu-sorta.

235 Beasaingo Udal Artxiboa. 146. karpeta, 09. dokumentu-sorta.

236 Beasaingo Udal Artxiboa. 146. karpeta, 09. dokumentu-sorta.

237 Beasaingo Udal Artxiboa. L0045 akten liburua (1942-1946 arteko aktak jasotzen dituena).

238 Beasaingo Udal Artxiboa. L0045 akten liburua (1942-1946 arteko aktak jasotzen dituena).

239 MOLINERO, Carme eta YSAS, Pere: "Las condiciones de vida y laborales durante el primer franquismo. La subsistencia; ¿un problema político?" in *Historia Ekonomikoaren Elkartearen VII Biltzarra* (aktak), Zaragoza, 2001. Egile hauek azaltzen dutenez, erregimenaren aldeko analista ekonomikoak ere ustelkeriaz jabetzen ziren.

1941eko ekainean, Udalak 1940ko egoeraren laburpen bat egin behar izan zuen. Datu horren arabera, Beasaingo Udalak 303,54 pezetako soberakinarekin itxi zuen 1940. urtea (256.305,64 pezetako diru-sarrerak izan ondoren, 1942ko abuztuan, 1940ko soberakinen datu hori 400 pezetara handitu zuen Udalak[240]), baina bestalde 948.000 pezetako zorra zuen (hau da, orduan Beasaingo edozein obra kostatzen zena baino askoz ere kopuru handiagoa). 1944an, zor hori 1.248.000 pezetara igo zen[241]. Udalak 903.300 pezeta balio zuten lursailak ere bazituen, bai herrian bertan (gehienak) eta baita landagunean ere; eta beste ondasunetan, 600.000 pezetako balioa zuten ondasunak ere bazituen[242]. Hala, 1941. urtearen bukaeran 1942rako egin zuen aurrekontua 325.453,54 pezetakoa izan zen[243] (1942ko maiatzeko dokumentu batek dio, krediduetan, Beasaingo Udalak 747.500 pezeta mailegutan hartuak zituela eta horien interesak 29.900 pezeta jotzen zutela urtean[244]). Baina 1943ko otsailaren 12ko bilkuran jakinarazi zenez, benetan jasotakoa eta gastatutakoa ez zen hori izan; gastuak 330.945,72 pezetakoak izan baitziren eta diru-sarrerak 331.942,84 pezetakoak (beraz, 987,12 pezetako soberakina izan zuen)[245]. 1942ko abenduaren 15ean, 1943rako argitaratu zen aurrekontua, 369.906,50 pezetakoa izan zen[246]. 1943ko abenduaren 19an, Beasaingo Udalak 215.257,82 pezetako soberakina zuela esan zuen[247]. 1944ko aurrekontua asko handitu zen, batez ere gastuak asko handitu zirelako: 471.989,55 pezetako aurrekontua izan zuen Udalak. Hala ere, 1944ko urriaren 18an kontuhartzaileak sinatu zuen txosten batean, aurreko soberakin horiek, likidazioa egin gabeko kontuetatik zetozenez (beraren arabera 1943ko ekitaldia likidatu gabe zegoen) ez ziren benetakoak[248]. Hurrengo beste txosten baten arabera, 1944an, 1943ko likidaziotik 5.000 bat pezeta zituen Udalak ordaintzeke[249]. 1945eko martxoan, Udalak, 20.000 pezetako soberakina iragarri zuen, artean likidatzeke 112.485 pezeta zituen arren. Krediduaren soberakinak eta "ohiz kanpoko diru-sarrerak" kontuan izanda, guztira 132.635 pezeta jotzen zuten[250]. Likidazio horrek, urteetako arazoak ekarri zizkion Beasaingo Udalari eta 1959an ere beste txosten bat egin behar izan zuen[251]. Baina aurreko zorra (eta Beriztainek utzitako zuloa), Beasaingo aurrekontuan koadratzeko, zailtasun handiak izan zituen, adibidez, 1945eko urriaren 6ko bilkuran, udalak, eskatu zuen kreditu batetik falta zitzaiona itzultzeko (5.571 pezeta), ohiko aurrekontutik transferitzea erabaki zuen; eta 1945eko abenduaren 22an, beste 4.440 transferitzea[252]. 1945eko azaroaren 10ean Udalak esan zuen 1941-1945 urteen arteko bosturtekoan, urteko aurrekontua 373.424,37 pezetakoa izan zela[253]. Joxe Manuel Dorrontsororen arabera, 1946ko aurrekontua 562.210,30 pezetakoa izan zen[254].

1942an ondasun higiezinen gaineko Udal-zergak asko handitu ziren 1936koekin konparatuz[255]. Martin Esnaolak 1941eko abenduan Gipuzkoako Aldundiari bidali zion dokumentu baten arabera, baso-lurren gaineko zergetan 23.907,56 ordaindu zituzten beasaindarrek (136.614,61 pezetako oinarri ezargarriaren arabera) eta abeltzaintzakoetan 6.685,72 pezeta (38.203 pezetako oinarri ezargarria izanda). Beraz, guztira, 30.593,08 pezeta, 174.817,61 pezetako oinarri ezargarria izanda. 1936an, ordea, betiere Esnaolaren datuen arabera, baso-lurretan 5.217,66 pezeta ordaintzen zuten (37.269 pezetako oinarri ezargarria izanda) eta abeltzaintzakoetan 9.872,90 pezeta (98.729 pezetako oinarri ezargarria izanda); beraz, guztira, 15.090,56 pezeta, 135.998 pezetako oinarri ezargarria izanda. Hau da, 1936an, zerga horiek %11 jotzen zuten, eta 1942an %17,5 (zergetan bildutakoa %102 handitu zen eta oinarri ezargarria %28,5)[256].

Kontsumoko zergen inguruan, 1942ko maiatzaren 1ean Ordiziako alkateak eta maiatzaren 29an Ordiziako, Lazkaoko, Ataungo, Zaldibiako eta Itsasondoko alkateek; CAFeko ekonomatoan saltzen ziren jeneroekiko Beasaingo Udalak zergak kobratzeko zuen moduaz kexua azaldu zuten (ekonomato horretan kontsumitzen zuten CAFeko langileak denak ez baitziren beasaindarrak, izan ere CAFek ez baitzituen eta ez ditu lurrak soilik Beasainen, eta bestetik, jeneroak ez baitzitzaizkien soilik

[240] Beasaingo Udal Artxiboa. 059. karpeta, 14. dokumentu-sorta.
[241] Beasaingo Udal Artxiboa. A018 karpeta, 22. dokumentu-sorta.
[242] Beasaingo Udal Artxiboa. 073. karpeta, 01. dokumentu-sorta.
[243] Beasaingo Udal Artxiboa. 545. karpeta, 47. dokumentu-sorta; eta Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 21. dokumentu-sorta.
[244] Beasaingo Udal Artxiboa. 059. karpeta, 14. dokumentu-sorta.
[245] Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 18. dokumentu-sorta.
[246] Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 19. dokumentu-sorta.
[247] Beasaingo Udal Artxiboa. L0045 akten liburua (1942-1946 arteko aktak jasotzen dituena).
[248] Beasaingo Udal Artxiboa. 2112. karpeta, 52. dokumentu-sorta.
[249] Beasaingo Udal Artxiboa. A018 karpeta, 22. dokumentu-sorta.
[250] Beasaingo Udal Artxiboa. L0045 akten liburua (1942-1946 arteko aktak jasotzen dituena).
[251] Beasaingo Udal Artxiboa. A017 karpeta, 13. dokumentu-sorta.
[252] Beasaingo Udal Artxiboa. L0045 akten liburua (1942-1946 arteko aktak jasotzen dituena).
[253] Beasaingo Udal Artxiboa. L0045 akten liburua (1942-1946 arteko aktak jasotzen dituena).
[254] AZURMENDI DORRONTSORO, Jose Manuel: *Beasain. Historia y desarrollo hasta nuestros días*. Donostiako Aurrezki Kutxa. Donostia, 1970, 70. or.
[255] Beasaingo Udal Artxiboa. A054 karpeta, 02. dokumentu-sorta.
[256] Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 19. dokumentu-sorta.

or.

ekoizle beasaindarrei erosten). Beasaingo Udalak esan zuen zergak Gipuzkoako arielen gainean ezarritako irizpideen arabera kobratzen zituela, beraz, ezin zuela kobratzeko modua aldatu. Afera horrek, Gipuzkoako goi-agintariak ere esku hartzea ekarri zuen: 1943ko abenduan, Udal ezberdinen arteko bilkura bat egin zen Gobernadore Zibilaren ekimenez eta Beasaingo, Ordiziako zein Lazkaoko Udalek hartu zuten parte[257]. Ekonomato horren gainean beste arazo bat ere agertu zen. 1943ko urriaren 8an, udalak, ekonomato horri "Udalaren egoera kontuan izanik (…) bere zergak ahal bezain azkarren likidatu ditzala" eskatu zion[258]. 1944ko abuztuaren 19an, Gipuzkoako Gobernadore Zibilak bere erabakia eman zuen, CAFeko ekonomatoak, Beasaingo, Ordiziako, Lazkaoko, Ataungo, Olaberriko eta Itsasondoko Udalen artean, herri horietako herrikideak Ekonomatoko kide diren ehunekoaren heinean banatu behar du ordaindu beharreko zergen kopurua. Erabaki hori ez zen Beasaingo Udalaren gustukoa izan (azken finean CAFen ekonomatoa Beasainen baitzegoen)[259]. Hori zela-eta, esan dugun bezala, Beasaingo Udalak Madrilen abokatuak kontratatu zituen. Bestalde, 1945eko azaroaren 10ean, Beasaingo Udala, CAFen zuzendaritzarekin elkartu zen arazo horretaz hitz egiteko. CAFeko zuzendariaren arabera, Beasaingo Udalak, 50.000 pezetako aparteko diru-sarrera kobratu behar zuen[260]. Ekonomatoaren arazoa hain garrantzizkoa zen Udalarentzat, ezen Udalak, 1945eko azaroaren 17rako bilera berezi bat deitu zuela. Batzar horretan, Udalak, CAFeko zuzendariaren proposamena (50.000 pezetakoa) onartu egin zuen eta hein batean horrek, Beasaingo aurrekontuei haize pixka bat eman zien[261].

1.3.b.I) Zerbitzuak

Esnaolaren garaian, Udalaren ideologia kontuan hartuta (zinegotzi gehienak fededunak ziren), hezkuntza pribatu erlijiosoarekiko lehentasuna zutela argi ikusi zen; 1941eko irailaren 20an, Martin Esnaola alkateak, Loinazko San Martin Lasalletarren eskolari "ahal zen bezain laster" 2.000 pezetako laguntza emateko agindu zuen "subentzioa 1940an 1941erako kontuak onartu ostean (epez kanpo) eskatu bazen ere, jada kontuak itxita zeudenean". Subentzio hori, 1942ko irailaren 4an gauzatu zuen Udalak[262]. Hala ere, eskolak, publikoak edo erlijiosoak izan, erlijioaren ideologiarekin bat egitera behartuta zeuden. Halako adibide bat zera izan zen, Loinatz jaietan, Udaletik, eskola guztietako ikasleak, Loinazko San Martinen Basilikara egiten zen prozesioan parte hartzera behartzea[263].

Eskola edo eskolaz kanpoko ikastoki pribatu berriak ere sortu ziren garai horretan. 1942ko apirilaren 11n, Joan Izagirre Peñak, Jose Migel Iturriotz kaleko 1. zk.an "eskola-akademia" bat zabaldu zuen, Udalak horretarako baimena emanda. Izagirreren eskolak *"Colegio San Juan"* izena izan zuen"; eta lehen hezkuntza, kontabilitatea, mekanografia, takigrafia, merkataritza, hizkuntzak, "kultura orokorra", eta oposizioen prestakuntzarako gaiak ere irakatsi zituen[264]. 1945eko ekainean, Joan Izagirre Peñak eskola horren zuzendari-postuan jarraitzen zuen[265].

Osasunaren inguruan, Beasaingo herriarentzat oso erronka gogorra izan zen garai horretako goseak ekarritako gaixotasunen ugalmenari aurre egitea. Adibidez, 1942an tuberkulosiak jotako gaixoen kopurua asko hazi zen Beasainen. 1942ko abenduaren 23ko Udal-bilkuran eztabaidatu zenaren arabera, Beasaingo Ospitalea (Arangoiti egoitza) ez zegoen tuberkulosiz gaixotuak zirenak hartzeko prestatua, nahiz eta Beasainen halako gaixo asko egon[266]. Izan ere, 1942ko urtearen bukaeran, Beasaingo Ospitalearen egoera oso txarra zen. Abenduaren 23ko bilkuran Udalak jakinarazi zuen Ospitalerako aurrekontuan jarritako 30.000 pezeta (gehi pertsonalarentzako jarritako 3.600 pezeta) agian ez zirela nahikoa izango Ospitalea gainezka zegoela-eta (estutasun horrek erakusten du, Beasaingo gaixoen kopurua oso handia zela). Beasaingo Udalak esan zuen ezin ziola aurrekontua handitu Ospitaleari, baina hurrengo urtearen hasieran diru-bilketa bat antolatuko zuela Ospitalearen alde[267]. 1942ko abuztuko datuen arabera, Beasainen 56 "komertzio" (denda, saltoki) eta 45 tailer zeuden guztira[268]. Horrez gain, hiru kontsumo-kooperatiba zeuden Beasainen, Herri Elkarte Kooperatiboa (1920an sortutakoa), CAFeko ekonomatoa (1944ko martxoan handitu egin zen,

[257] Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 18. dokumentu-sorta.
[258] Beasaingo Udal Artxiboa. 081 .karpeta, 18. dokumentu-sorta.
[259] Beasaingo Udal Artxiboa. L0045 akten liburua (1942-1946 arteko aktak jasotzen dituena).
[260] Beasaingo Udal Artxiboa. L0045 akten liburua (1942-1946 arteko aktak jasotzen dituena).
[261] Beasaingo Udal Artxiboa. L0045 akten liburua (1942-1946 arteko aktak jasotzen dituena). Beasaingo Udalaren azaroaren 17ko aktaren arabera, bilera horretan CAFek Beasainen 250 etxebizitza egiteko proiektuaz ere aritu ziren.
[262] Beasaingo Udal Artxiboa. 249. karpeta, 29. dokumentu-sorta.
[263] Beasaingo Udal Artxiboa. 249. karpeta, 34. dokumentu-sorta (1943ko adibidea).
[264] Beasaingo Udal Artxiboa. 3255. karpeta, 55. dokumentu-sorta.
[265] Beasaingo Udal Artxiboa. 3255. karpeta, 55. dokumentu-sorta.
[266] Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 19. dokumentu-sorta.
[267] Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 19. dokumentu-sorta.
[268] Beasaingo Udal Artxiboa. 059. karpeta, 14. dokumentu-sorta.

harategi bat ere jarrita[269]) eta Bernedorena (azken biak 1941ean sortutakoak)[270]. Horrez gain, 1942ko urtarrilean, Beasainen, bost pertsona zeuden arraina saltzeko merkatu-postua zutenak[271]. Hala ere, Beasaingo saltokien inguruan eztabaida piztu zen 1942ko udan. Urte horretako uztailaren 19an, Gipuzkoako Lanaren Ikuskaritzak esan zuenez, Beasainen ez zen errespetatzen saltokiek igandetan eta jaiegunetan jai egiteko zuten betebeharra eta igande eta jaiegun batzuetan saltokiak zabalik egoten ziren. Horrez gain, Lan Ikuskaritzaren arabera, Beasaingo saltoki askok ez zuten ordutegia ere errespetatzen (legez, elikagaien saltokiek, goizez 8:30etik 13:30era arte zabaldu behar zuten, eta arratsaldez 17:00etatik 20:00ak arte; besteek goizez 9etatik 13ak arte, eta arratsaldez 16:00etatik 20:00ak arte)[272]. Ordutegi hori 1944ko abuztuan aldatu egin zen eta, ordutik aurrera, goizez 8:30etik 12:30era zabaldu behar zuten saltokiek, eta arratsaldez, 15:00etatik 20:00etara[273].

Erlijio-datuei dagokienez, 1942ko abuztuan, Tokiko Administrazioaren Institutuak bidalitako galdetegi bat erantzutearen inguruan, Beasainen 5 eliza, 5 kapera eta 2 baseliza eta, noski, Loinazko San Martinen basilika zeudela esaten du Udalak; guztira 10 apaiz zeuden (horiei 4 moja gehitu behar zaizkie, nesken eskola erlijiosoan irakasle bezala aritzen zirenak, eta baita 5 fraide ere, mutilen eskola pribatu erlijiosoan eskolak ematen zituztenak)

1944ko ekainean Udalak egindako beste zerrenda batean (Gipuzkoako Lan-Ikuskaritzaren Ordezkaritzari erantzunez); 37 "langiledun enpresa" kalkulatu zituen Udalak: *CAF, Bernedo, Construcciones Electromecánicas Indar, Construcciones GOM, Construcciones KMK, Construcciones Azpeitia, Tornilleria del Norte eta Fundiciones Echevarria,* mekanika- edota burdingintza-industrian; *Talleres Unzuaran, Luis Suarez, Fausto Perez eta Bernabe Ayerdi*[274] garaje edo mekanika-tailer txiki modukoak[275]; *Quifosa eta Emilio Hunolt e hijos* kimika-industriaren arloan; *Pablo Irizar* kamioien konponketa-garaje moduan; *Esquisabel y Compañía* eta *Oyarbide* y *Compañía* altzari-fabrikak; *Echaide y Compañía* eta *Juan Aramburu y Compañía* aroztegiak; *Manufacturas Olaran* larrugintzakoa; *Usurbe* gozoki-fabrika; *Irastorza y Bereciartua*, *Azkar* eta *Ifarra* garraio-enpresak; *Industrial Ferretera* eta *Martin Esnaola* (alkatearena) burdingintza-arlokoak. Gainerakoak, bestelako langileren bat zuten saltokiak ziren[276]: CAFeko Ekonomatoa, Herriko Ekonomatoa, Eustasio Aiestaranen iturgintza eta tresna elektrikoak saltzeko denda, Bautista Telleriaren ardo-salmentako denda, Dionisio Oiartzabalen farmazia edo botika eta zinema[277].

Enpresa pribatuko soldatei dagokienez, badugu *Construcciones Electro-mecánicas Indar* enpresaren 1942. urteko soldaten erreferentzia. Enpresa horretan, 1942ko apirilean, 7 langilek egiten zuten lan, 1942ko uztailean eta abuztuan 15 langilek, eta 1942ko irailean 17k[278]. Indarren, 1942ko apirilean, langile batek hilean 165 pezeta inguru kobratzen zituen (urtean 1.980 bat pezeta), eta 1942ko uztailetik aurrera, langile bakoitzak hilean 195 pezeta irabazten zituen, urtean 2.348 pezeta[279]. Enpresa horrek, 1942ko azaroan, adibidez, 22 langile zituen, eta guztira, 4.185,25 pezeta ordaindu zituen soldatetan azaro hartan, beraz, langile bakoitzak, 190 bat pezeta kobratzen zituen (hala ere plantilla-igoera zela-eta, kontuan izan behar da, agian langile batzuk sartu berriak zirela eta haiek gutxiago kobratuko zutela; horrek batez bestekoa jaitsi egiten du). 1943a, ordea, soldatentzat urte txarra izan zen enpresa horretan, jaitsi egin baitzituzten: 1943ko otsailean, jaitsiera bat nabarmentzen dugu, 3.048,95 pezeta ordaindu baitzizkien 18 langileri, beraz, 169 pezeta batez beste; eta 1943ko maiatzean, 14 langile zituela, enpresak 2.323,75 pezeta gastatu zituen: 165 pezeta langileko). 1943ko abuztuan, enpresak, 2.451,95 pezeta ordaindu zizkien 14 langileri: 175 pezeta bakoitzari batez beste (kontuan izan behar da enpresa horrek gainera %6 bat kentzen zuela familia--subsidioa ordaintzeko[280] eta beste %2 bat Sindikatu Bertikalaren kuotarena)[281].

Hala ere, datu askoz ere fidagarriagoak eta mailakatuagoak ditugu 1945. urtean[282]. *Construcciones Electro-Mecánicas Indar* berak, 1945eko irailaren 28an, 35 langile zituela esan zuen, horietatik 16 lehen mailako espezialistak, 19 bigarren mailako

[269] Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 17. dokumentu-sorta.

[270] Beasaingo Udal Artxiboa. 065. karpeta, 29. dokumentu-sorta. CAFen ekonomatoak lehenago enpresa horretako langileek sortu zuten "Langile Ekonomatoa" ordeztu zuen.

[271] Beasaingo Udal Artxiboa. 3190. karpeta, 32. dokumentu-sorta.

[272] Beasaingo Udal Artxiboa. 3189. karpeta, 26. dokumentu-sorta.

[273] Beasaingo Udal Artxiboa. 2108. karpeta, 32. dokumentu-sorta.

[274] Mekanika-tailerra izateaz gain, gasolindegia ere bazen.

[275] Horrek ez du esan nahi Beasaingo tailer txiki bakarrak horiek zirenik, baizik eta langileak kontratatzen zituzten tailerrak horiek zirela.

[276] Noski, Beasainen saltoki gehiago bazeuden, baina hauek une hartan langileak kontratatzen zituztenak ziren.

[277] Beasaingo Udal Artxiboa. 059. karpeta, 19. dokumentu-sorta.

[278] Beasaingo Udal Artxiboa. 2362. karpeta, 02 dokumentu-sorta.

[279] Beasaingo Udal Artxiboa. 2362. karpeta, 02 dokumentu-sorta.

[280] 1944ko azaroaren 7an, enpresako jabeetako bati, Jesus Larrañaga Muxikari 550 pezetako zigorra ezarri zioten familia-subsidioa ordaintzerakoan irregulartasunak egin zituela-eta (Beasaingo Udal Artxiboa. 2367 karpeta, 05 dokumentu-sorta).

[281] Beasaingo Udal Artxiboa. 2065. karpeta, 04 dokumentu-sorta. 1943ko soldatak karpeta honetan daude, Beasaingo Udal Artxiboko 2362. karpetan, 02 dokumentu-sortan, egon ordez.

[282] Beasaingo Udal Artxiboa. 2367. karpeta, 06 dokumentu-sorta.

or.

espezialistak, 2 peoiak, 5 hirugarren mailako ofizialak, 1 bigarren mailako ofiziala eta beste bat (Jose Elortza Carballo) bulegaria. Peoiek egunean 14 pezeta kobratzen zuten, bigarren mailako espezialistek (antzinatasunaren arabera) egunean 12,32 eta 15,40 pezeta artean, lehen mailako espezialistek, egunean 13,44 eta 16,80 pezeta artean, hirugarren mailako ofizialek egunean 17,50 pezeta, bigarren mailako ofizialak (Manuel Muxika Urkizuk) egunean 19,75 pezeta, eta Jose Elortza Carballo bulegariak hilean 552 pezeta. Enpresako 35 langileetatik 7 emakumeak ziren. Hala ere, guztiak ez ziren finkoak *Indarren*, 1945eko abuztuko dokumentu baten arabera, 20 langile finko zeuden: (13 espezialista, 2 pintxe, 2 peoi, ikasle 1, ofizial 1 eta bulegari 1; 7 emakume eta 13 gizon). 1946ko otsailean, 24 langile finko zeuden enpresa horretan (14 espezialista, 2 peoi, pintxe 1, ikasle 1, lehen mailako 5 ofizial eta bulegari 1; 7 emakume eta 17 gizon)[283].

Elkarteei dagokienez, garai hartan, Beasaingo elkarteek askoz ere bizitza txikiagoa izan zuten, gudaren eragina eta errepresioa zela-eta (lehen aisialdi-elkarte batzuek ideia aurrerakoiak zituzten eta halako pertsonak bil zitezkeen haietan). Langileen aisialdirako elkarteek aldaketak jasan zituzten, Burdinbideko Langileen Elkartea itxi egin zuten, eta Beasaingo Joko Elkartea (ez dezagun ahaztu kirolak bultzatzen bazituen ere, hasieran ideia liberal edo errepublikanoak zituzten pertsonak batzeko izan zela) "Beasain Kirol Elkarte" bihurtu zen, soilik kiroletako jardunarekin. Azken hori ofizialki 1943ko apirilean, Pazkoa Igandean, inauguratu zen (beraz, guda aurreko Beasaingo Joko-kasino "gorriarekiko" nolabaiteko haustura islatu nahi izan zuen, "elkarte berri" bezala aurkeztuta). "Inaugurazio" horretan, Udal-bandak ere jo zuen[284]. Elkarte horrek, adibidez, futbol-taldea zuen eta urtero Loinatz jaietan txirrindularitza-proba ere antolatzen zuen (1943. urtean korrikako lasterketa bat ere antolatu zuen[285] eta 1945ean proba hori Gipuzkoako Txapelketa izan zen[286]), baina jada ez zen "elkarte soziala". Bere lehendakaria, 1944ko apirilean behintzat, Joan Aiestaran Puiana zen[287]. Hala eta guztiz ere, Beasain Kirol Elkartea, ez zen izan ohitura liberalen "susmoetatik" erabat aske: 1945eko apirilaren 14ko Udal-bilkuran, Frantzisko Ezkiaga eta Rufo Artolain zinegotziek, Udalaren aurrean protesta adierazi zuten Kirol Elkarteak antolatutako dantzaldi batean (Gobernadore Zibilaren baimena zuen hartarako), "moralaren kontrako" dantzak egin zirela-eta[288]. Esan beharra dago baita ere, Beasain Kirol Elkartearen futbol-taldeak, batez ere Frantzisko Eltzoren bidez, lan handia egin zuela joera ezberdineko beasaindarren arteko tirabirak baretzen eta herri-integrazioa bultzatzen, herritarren testigantza ezberdinek adierazten duten moduan[289]. 1941eko irailean, Gobernadore Zibilak, Beasaingo Familia Gurasoen Elkarte Katolikoa (*Asociación Católica de Padres de Familia*) desegin egin zuen, elkarte horrek bere legezko izaera ez zuela luzatu argudiatuta. Martin Esnaola alkateak, erabaki hori, besterik gabe onartu zuen[290]. Baina Beasainen, 1945. urtean, bazen Ekintza Katolikoa (Acción Católica) izeneko taldea, otsailaren 24ko Udal-bilkuran talde horrek Udalari, liburu erlijioso batzuk erosteko laguntza eskatu baitzion[291].

1.4. Tropekiko jarrera agintarien aldetik

1.4.a) Militarren eta udal-agintarien arteko harremana

Kapitulu honetan Gudako kontuak alde batera utzi nahi izan baditugu ere, kontuan izan behar dugu 1939ko apirilera arte guda-egoeran zegoen estatu baten parte izan zela Beasaingo Udala. Horrez gain, 1937ko apirilean Francok karlisten eta falangisten bateratzea (eta bateratzea baino gehiago, alderdi horiek militarren mende jartzea) ezarri arte, Gipuzkoan indar handia izan zuen Gipuzkoako Gudarako Batzorde Karlistak (praktikoki aginte paraleloa izan zen Gipuzkoan). Guda Batzordea zela kontuan izanik, bere lehen helburua gudarako hornikuntza bermatzea izan zen. Hori zela-eta, Beasaingo Udalari (gehiengo karlistak osatua), bere egunerokotasuna baldintzatu egin zion.

Adibidez, 1937ko urtarrilean, Beasaingo Udalak hala jaso zuen, alegia, Gipuzkoako Guda Batzorde Karlistak eskatu zuela Loinazko San Martin Errekete Konpainiaren alde dirua biltzeko antolatutako pilota-partidetan ikuskizunen gaineko zerga kentzea, partidu haiek "onurazkoak zirela-eta". Beasaingo Udalak hala erabaki behar izan zuen[292]; eta apirilaren 22an erabaki horren

[283] Beasaingo Udal Artxiboa. 2367. karpeta, 06. dokumentu-sorta.
[284] Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 18. dokumentu-sorta.
[285] Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 18. dokumentu-sorta.
[286] Beasaingo Udal Artxiboa. L0045 akten liburua (1942-1946 arteko aktak jasotzen dituena).
[287] Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 17. dokumentu-sorta.
[288] Beasaingo Udal Artxiboa. L0045 akten liburua (1942-1946 arteko aktak jasotzen dituena).
[289] Yolanda Begue Redondori eta Roberto Begue Sarasolari egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-06-27an; eta Paulino Aranbururen testigantza. Testigantza hori ez dago grabatua.
[290] Beasaingo Udal Artxiboa. 543. karpeta, 15. dokumentu-sorta.
[291] Beasaingo Udal Artxiboa. L0045 akten liburua (1942-1946 arteko aktak jasotzen dituena).
[292] Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 23. dokumentu-sorta.

ildoan beste urrats bat eman zuen: erreketeen aldeko pilota-partida eta "ikuskizun" denak, zergetatik askeak izatea[293]. Bestetik, 1937ko azaroan, Loinazko San Martin Konpainiako erreketeen aldeko jaialdi bat ere antolatu zuen Beasaingo Udalak, kalejira, meza eta pilota- eta futbol-partidak egitarauaren parte izanez[294]. 1938ko martxoaren 24an, Oriamendi tertzioko buruak Beasaingo Udalari mantak bidaltzea eskertu zion[295]. Halako arretak ez ziren alferrik izan: 1938ko abenduaren 17an Udal-bilkuran irakurri zen moduan, Oriamendi tertzioaren kapitainak Beasaingo Udalari eskertu egin zion soldaduekiko "arreta", eta jarrera hori zela-eta Udala zoriondu egin zuen[296].

Udalak ere zenbait bisitaldi egin zizkion Loinazko San Martin Errekete Konpainiari. Haietako lehenaren berri otsailaren 11ko Osoko Bilkuran eman zuen Beasaingo Udalak; bisitaldiaz gain, 150 pezeta eman zizkion konpainiari[297]. Beste bat 1938ko apirilean egin zuen. Bigarren bisitaldi horren lekuko, Guridi alkateak orduko Loinazko San Martin Konpainiako kapitain Endrike Porrasi bidali zion telegrama bat ere badugu, non Beasaindik Lleidako Llimianarako (han baitzegoen Loinazko San Martin Konpainia) bidaiaren nondik-norakoak ere deskribatzen dituen[298]. Hirugarren berria 1938ko uztailaren 16an eman zuen Udalak eta Jose Mendia Lasa zinegotzia izan zen bisitaldia egin zutenetariko bat. Mendiak azaldu zuenez, Loinazko San Martin Konpainian borrokan zebiltzanek, 1938ko uztailaren 12an, Beasain altxatuek "askatu" (sic) zuteneko bigarren urteurreneko jaian, ahal izanez gero ordezkaritza baten bidez Beasainen presente egotea nahi zuten[299]; baina Joakin Amenabar orduko kapitainak esan zuen ezinezkoa zitzaiela[300]. Udalaren zorionak ez ziren soilik Loinazko San Martinen Konpainiako erreketeentzat izan, 1938ko azaroaren 8an, Alberto Ruiz Moriones Beasaingo plazako komandante izandakoarentzat ere izan ziren berriro zerbitzu militarrera itzuli zelako[301] (Alberto Ruiz Moriones, 1940ko uztailean, Gipuzkoako FET-JONSeko Milizien buru zen baina aurreko kapituluan esana dugu, batetik, 1936ko uztailaren 27 eta 28 artean gertatutako errepresio gogorra nolabait epeldu zuela, baina beste alde batetik, hurrengo egunetako errepresioaren arduradunetako bat izan zela, hurrengo egun horietan ere hilketak izan baitziren, gutxiago izan arren)[302].

Gudan zehar, Beasainek, bidegurutze eta pasabide izaki, artean tropen joan-etorriak ere izan zituen. 1936ko irailean bertan agertu ziren Beasainen Urola eta Deba ibarren kontrako erasoak egingo zituzten tropak. Tropa haien buru Solchaga zen, eta bi multzotan banatu zituen: alde batetik Iruretagoienaren mendeko tropak (Latorre eta Cayuela teniente-koronelekin) eta beste aldetik Los Arcosen mendeko taldea (Diez de Rivera, Perez Salas, Tejero eta Saleta ofizialekin)[303]. Perez Salasen tropak, Montejurra Errekete Tertzioa batez ere (Armada erregularraren mendiko 8. batailoiak lagunduta) Beasaindik Astigarretarantz eta Mandubiarantz abiatu zen eta irailaren 21ean Azkoitia eta Azpeitia hartu zituen, gero handik Soraluze eta Elgoibarrerantz egiteko[304]. 1937ko abenduaren 18an, Udalak jakinarazi zuen, Nafarroako 5. Brigadaren teniente-koronelak esker oneko telegrama bidali zuela "gure atseden-egonaldian zehar herritarren aldetik tratu ona jaso izanagatik"[305].

Bestetik, 1937. urtean zehar gutxienez, Beasaindik hegazkinak ere pasatu ziren. Jabier Garcia Bergara lekukoak badu horren berri: "Ordiziatik Bergararantz hegazkinak pasatzen ziren, altxatuei Bizkaiko frontea hausten laguntzeko. Oso baxu pasatzen ziren herrian, 20 bat metro gainetik edo"[306]. Udan badakigu asko pasatu zirela, 1937ko abuztuaren 21ean, Alberto Ruiz Moriones komandante militarrak Beasaingo Udalari eskatu baitzion "Beasainen gainetik pasatzen ziren hegazkin guztiak kontrolatzea, batez ere gauez pasatzen badira, eta zerbait erortzen uzten badute hura ikustea"[307].

Beasaingo Udalak, errekete beasaindar zaurituen erietxe-aldia ere ordaintzeari ekin zion. Adibidez, 1937ko apirilaren 17an, Felix Mendia Mendia eta Sebastian Zurututza Urkia, San Antonio Abad erietxean sartu zirela jakinarazi zen Beasaingo

[293] Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 23. dokumentu-sorta.
[294] Beasaingo Udal Artxiboa. 3376. karpeta, 06. dokumentu-sorta.
[295] Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 22. dokumentu-sorta.
[296] Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 22. dokumentu-sorta.
[297] Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 23. dokumentu-sorta.
[298] Beasaingo Udal Artxiboa. F008 karpeta, 01. dokumentu-sorta.
[299] Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 22. dokumentu-sorta.
[300] Beasaingo Udal Artxiboa. 498. karpeta, 14. dokumentu-sorta.
[301] Beasaingo Udal Artxiboa. 3190. karpeta, 49. dokumentu-sorta.
[302] Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 20. dokumentu-sorta.
[303] AROSTEGUI, Julio: *Combatientes requetés en la Guerra Civil Española (1936-1939).* La esfera de los libros. Madril, 2013, 173.-174. or.
[304] AROSTEGUI, Julio: *Combatientes requetés en la Guerra Civil Española (1936-1939).* La esfera de los libros. Madril, 2013, 235.-236. or.
[305] Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 23. dokumentu-sorta.
[306] Jabier Garcia Bergarari egindako elkarrizketa (bi zatitan: Beasainen, 2014-07-03an eta 2014-07-22an).
[307] Beasaingo Udal Artxiboa. 2112. karpeta, 30. dokumentu-sorta.

or.

Udal-bilkuran. Bi erreketeen erietxe-aldia Udalak ordaindu zuen[308]. Horrek erakusten du Udalak Lonazko San Martin Errekete Konpainiarekin zuen harremana oso estua zela. Bana horiek ez ziren izan Beasaingo Udalak altxatuen tropei egin behar izan zizkien ordainketa bakarrak: 1938ko abendura arte, guztira 38.677,30 pezetako faktura pasatu zion Armadak Udalari, horietako 15.851 pezeta, "Beasain askatzeagatik" izan ziren, 13.327 "tropen atsedenaldiengatik" eta 10.498 "presoak mantentzeagatik"[309]. Udalak faktura horietako asko partikularrei ordaindu behar izan zizkien, Armadari zerbitzua eman ondoren, Udala gelditzen baitzen zorretan haiekin. Udalak ezin zuen hori dena berak bakarrik ordaindu, izan ere, jada 1938ko urtarrilean (hau da, artean aurreko zifretara, 1938ko abenduan eman zirenetara, heldu gabe zegoenean) CAFi laguntza eskatu zion "Beasaina destinatutako 15.000 Armadako gizonek egin zuten gastua, 30.000 pezeta baino handiagoa dena" ordaintzen laguntzeko[310]. Fakturen aferak zenbait gora-behera eragin zituen Beasaingo Udalaren eta herritarren artean, Udalak ez baitzituen soldaduen gastu guztiak ordaintzen, batez ere haiek Beasaindik kanpo bazeuden (beraz ondoriozta dezakegu, Beasaingo Udalaren aurrekontuarentzat karga handia izan zela soldadu haien gastu guztiei aurre egitea). Adibidez, martxoaren 4ko Udal-bilkuran, Beasaingo bi farmaziek, Sagarminagarenak eta Jauregirenak, Udalari, soldaduei eta erreketeei zegozkien faktura batzuk pasatu zizkiotela jakinarazi zen, baina Udalak esan zuenez "gastu horri aurre egitea ez zegokion Udalari (…) Jose Salsamendi erreketearen kasuan izan ezik, hark bizi duen familiako egoera behartsua da-eta"[311]. 1939ko maiatzaren 11n, Antonio Sagarminagaren alargunak (une horretan Sagarminaga farmaziaren jabe zenak)[312], soldadu haien zerbitzuengatik jaulkitako fakturak Udalak ordaindu behar zituela erreklamatu zuen, Udalak, gehiago ez zituela ordainduko jakinarazi ez omen ziolako. Udalak berriz, ukatu egin zuen halako fakturak ordaindu beharra bere ardura zenik, jada baldintza-aldaketa jakinarazita zegoela-eta[313].

Azkenik, Beasaingo Udalak altxatuen alde hildako soldaduei emandako tratua dugu. 1937ko urtarrilaren 7an, Simon Balerdi Albisu beasaindar soldadua hil ondoren, Beasaingo Udalak zera erabaki zuen: beasaindar soldaduen gorpuak Udalaren diruarekin Beasaina ekartzea (Udal-bilkura horretan Udalak Balerdiren aldeko elizkizuna antolatzea erabaki zuen, baina aurreko kapituluan esan dugun bezala, Balerdiren kasua ez zen halako kasuetan lehena izan)[314]. 1937ko apirilean, Justo Aguado Baza praktikantea eta erreketeetako alfereza hil zenean, bere gorpua hiletaren aurretik Beasainen desfilatuz erabili zuten eta Guridi alkateak berak esku hartu zuen hileta antolatzen[315]. Hala ere, Teruelgo frontean hil ziren Loinazko San Martin Konpainiako zazpi erreketeekin (horietako batzuk beasaindarrak ziren, baino ez denak), Beasaingo Udalak askoz ere harrera apalagoa izan zuen: 1938ko urtarrilaren 22an hartutako erabaki baten arabera, familiakoei dolumina ematera mugatu zen Udala[316]. 1938ko otsailaren 12an, Joan Rezusta Irastortza errekete beasaindarra hil zenean ere, Udala doluminak ematera mugatu zen[317]. Era bertsuan, 1938ko ekainaren 4an, Gontzalo Arana Altolagirre erreketea hil zenean, bere osaba Pedro Arana Gaiztarro zinegotzia zen[318]. Ez dakigu urte horretan zergatik gertatu zen hildako soldaduekiko omenaldien apaltze hori: agian 1938an, guda, guda-hasieran uste zutena baino askoz luzeagoa suertatzen ari zitzaielako eta heriotza-kopuru handia izan zitekeela aurreikusten hasi zirelako eta aurrekontuak gainezka egiteko beldurra zutelako edota 1938. urtearen hasieran Beasaingo Udalean nagusitzen ari zen hoztasun-giroagatik (Bilkuretara zinegotzi gutxi joaten ziren).

Hala ere, 1938ko erdialdera, berriz ere Udala altxatuen alde hildako soldaduen hiletetara berriz joaten hasi zen. Jarrera zahar-berrituaren lehen kasua, 1938ko ekainaren 18an, Iruñean izan zen, Beasaingo plazako komandante militar izandako Antonio Martinez Anozen (Teruelgo frontean hila) hileta dugu eta hileta hartara Beasaingo Udalaren ordezkaritza joan egin zen; kasu horretan hildakoaren kargua jo dezakegu jarrera berriaren "eragiletzat"[319], baina 1938ko uztailaren 2an, Joan Blas Albitsu erreketearen hiletan ere, Udalaren ordezkaritza bat izan zen[320], eta uztailaren 16an adierazi zuenez, baita Endrike Garijoren

[308] Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 23. dokumentu-sorta; Beasaingo Udal Artxiboa. 545. karpeta, 56. dokumentu-sorta.

[309] Beasaingo Udal Artxiboa. A034 karpeta, 07. dokumentu-sorta.

[310] Beasaingo Udal Artxiboa. 3190. karpeta, 48. dokumentu-sorta.

[311] Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 13. dokumentu-sorta.

[312] Izen horrekin aipatzen dute Udal-bikuraren aktan. (Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 13 dokumentu-sorta).

[313] Udalak bere defentsan esan zuen Domingo Jaureguiren farmaziak, baldintza-aldaketaz jabetu zelako, Udalari jada ez zizkiola halako fakturak pasatzen. Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 13. dokumentu-sorta.

[314] Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 23. dokumentu-sorta.

[315] Beasaingo Udal Artxiboa. 498. karpeta, 09. dokumentu-sorta.

[316] Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 22. dokumentu-sorta.

[317] Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 22. dokumentu-sorta.

[318] Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 22. dokumentu-sorta. Gontzalo Arana Altolagirreren aita, Serafin Arana Gaiztarro zen (Pedro Arana zinegotziaren anaia), 1931n zinegotzi errepublikano aukeratua izan zena. 1934ko Udan dimititu ez zuen bakarra izan zen eta 1934ko abuztuaren eta urriaren artean jarduneko alkate ere bai. 1934ko urritik 1936ko otsailera bitartean Manuel Perez alkate eskuindarrarekin zinegotzi-sindiko ere izan zen.

[319] Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 22. dokumentu-sorta.

[320] Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 22. dokumentu-sorta.

hiletara ere[321]. 1938ko abuztuaren 20an jakinarazi zuten Rufino Zufiaurre eta Jose Maria Agirrezabal –azken hori garindarra– erreketeak hil zirela; eta haien hileta "ohiko moduan egin zen" esaldi anbiguoarekin deskribatu zuen Udalak[322].

1939an, berriro ere hildako soldaduen alde adierazpen "apalak" egitera itzuli zen Udala: 1939ko urtarrilaren 19an, Pedro Zaldua Urkiola eta Jose Lahidalga Lopez erreketeak eta Damian Sarasola Etxabe soldadua hil zirenean, Udala, "familiari doluminak bidaltzera" mugatu zen[323]. Guda bukatu ondoren, 1939ko abuztuaren 22an, Beasaingo Udala, doluminak eman zizkion baita ere frontean hartutako gaixotasun baten ondorioz Cuencako erietxean hil zen Pedro Esnaola Arregi erreketearen familiari[324]. Esnaola Arregiren kasuan (Martin Esnaola zinegotziaren eta gero Alkate izango zenaren iloba bera), Udalak hileta antolatuko zuela esan zuen, "baina halako kasuetan" (hau da, frontetik at hildako pertsonentzat) salbuespena izango zela adierazi zuen, "azken finean, frontean gaixotu baitzen"[325].

Batzuetan halako omenaldiak Beasaingoak ez ziren soldaduen alde ere egin ziren, adibidez, Jabier Borja Arteaga lazkaotarraren alde (Arteaga, Lazkaoko Infantadoko Dukearen semea zen). Omenaldia egitea ekainaren 6an onartu zuen, beraz, pentsatzekoa da Arteaga ekainaren 5ean hil zela, Bizkaiko frontean. Arteagaren heriotza zela-eta Beasaingo Udalak ez-ohiko Bilkura bat deitu zuen puntu hori bakarrik tratatzeko, eta Bilkura horretan, Lazkaon egingo zen hiletan (ekainaren 6an bertan), Lazkaora Udal-ordezkaritza bat joatea proposatu zuen Udalak[326]. Baina Teruelgo frontean Infantadoko dukearen beste seme bat, Jaime Arteaga hil zenean, Beasaingo Udala familiari doluminak ematera mugatu zen. Ikusten dugun bezala, 1938tik aurrera gertatutako heriotzetan, haien aldeko omenaldien neurria jaisten hasi zen[327]. 1939ko urtarrilaren 19ko Udal-bilkuran, Joakin Amenabar Kortaxarena Loinazko San Martin Errekete Konpainiako kapitaina hil zenean, Udalak Jaime Arteagarekin egindako gauza bera egin zuen: familiari "sentimendua" helarazi[328]. Beste kasu esanguratsu bat, Beasaingo plazako komandante militar izandako Alberto Ruiz Moriones 1945ean hil zenean izan zen eta, Beasaingo Udalak, bere gorpuarekin desfilea antolatu zuen eta 1945eko uztailaren 6an bere alde egin zen mezatara herritarrak ere gonbidatu zituen[329].

Bestetik, altxatuen aldeko eskuineko zenbait pertsona ezaguni ere omenaldia egin zien Beasaingo Udalak. Aurreko atalean aipatua dugu, eta geroago ere aipatuko dugu zehatzago, 1937ko ekainaren 13an, Emilio Mola jeneralaren aldeko hileta antolatu zuela Udalak[330]. 1938ko azaroan, Udalak, Ramon Franco teniente-koronela (Frantzisko Francoren anaia) hil zela-eta, doluminak ematea erabaki zuen[331]. Jose Antonio Primo de Riverarekin berriz, hura hil eta bigarren urteurrena hurbiltzen ari zela, Elizan haren aldeko hileta-meza bat antolatu zuen Udalak[332]. Kasu horretan, Estatuak egiten zituen ospakizunak kontuan izanik, ospakizun horrek apala ematen du, baina ezin dugu ahaztu Beasaingo udalaren kide gehienak karlistak zirela, ez falangistak, eta falangisten eta karlisten arteko lehia politikoa altxatuen barnean ere, ezkutuan baina pil-pilean zegoela eta ospakizunetan ere hori nabaritu egiten zela[333]. 1939ko otsailean, Beasaingo Udalak Frantzisko Franco bera zoriondu zuen Bartzelona konkistatu zuela-eta, izan ere, 1939ko otsailaren 11ko Udal-bilkuran, Francoren idazkariak eskerrak emanez telegrama bat bidali zuela jakinarazi baitzuen Udalak[334]. Bestetik, 1939ko apirilean, Frantzisko Franco altxatuen Estatuburuari beste zoriontze-telegrama bat bidali zion Beasaingo Udalak, "gudan lortutako garaipena zela-eta"[335]. Askoz ere sona handiagoa izan zuen ordea, 1939ko azaroan, Jose Antonio Primo de Riveraren heriotzaren hirugarren urteurreneko ospakizunak. Egun horretarako, 1939ko azaroaren 20rako, Udal-agintariek, haren aldeko mezatara joatea, herriko milizien desfile militarra antolatzea, eta Eliza-atarian, Primo de Riveraren eta gudan Francoren alde hildako beasaindarren izenak zituen harrizko plaka bat jartzea erabaki zuten (Espainiako Estatuko herri guztietako Eliza atarietan jarri zirenen antzekoa, izenburuan *Caídos por Dios y por España* jartzen zuena)[336]. 1940ko maiatzaren 18an, Ana Arana Gaiztarrok (egun batzuk lehenago hil zen alkateorde Pedro Aranaren eta Serafin Arana

[321] Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 22. dokumentu-sorta.
[322] Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 22. dokumentu-sorta.
[323] Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 13. dokumentu-sorta.
[324] Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 13. dokumentu-sorta.
[325] Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 13. dokumentu-sorta.
[326] Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 23. dokumentu-sorta.
[327] Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 22. dokumentu-sorta.
[328] Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 13. dokumentu-sorta.
[329] Beasaingo Udal Artxiboa. 2112. karpeta, 60. dokumentu-sorta.
[330] Beasaingo Udal Artxiboa. 3186. karpeta, 22. dokumentu-sorta; eta Beasaingo Udal Artxiboa. 498. karpeta, 09. dokumentu-sorta.
[331] Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 22. dokumentu-sorta.
[332] Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 22. dokumentu-sorta.
[333] Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 22. dokumentu-sorta.
[334] Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 13. dokumentu-sorta.
[335] Beasaingo Udal Artxiboa. 3186. karpeta, 62. dokumentu-sorta; eta Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 13. dokumentu-sorta.
[336] Beasaingo Udal Artxiboa. 3186. karpeta, 60. dokumentu-sorta.

or.

zinegotzi-ohiaren arrebak), Eliza-atarian gudan hildako beasaindarren izenak zituen plaka jartzea proposatu zuen gastuak bere gain hartuz eta Udalak onartu egin zuen[337]. Dirudienez, Udalak 1939an hartutako erabakia gauzatzeko ondo etorri zitzaion Ana Aranaren eskaintza. Plaka hori urte askotan zehar egon zen Eliza-atarian eta, urte askotan zehar, urtero, azaroaren 20an, Primo de Riveraren eta gudan Francoren alde hildakoen aldeko meza Elizan eman ondoren, errespontsua errezatzen zuten Eliza-atarian; eskola-umeak ere bertara joanarazten zituzten eta amaieran *Cara al Sol* kantatzen zuten. 1970.eko hamarkadan, lehergailu batek puskatu zuen plaka eta berriro ez zen halakorik jarri. Bestalde, 1940ko azaroaren 16an, udalak, hilerrian "eroritakoei" (altxatuen alde gudan hildakoei) monumentu bat egitea ere adostu zuen eta hura egiteko batzordeko kide izan ziren Guridi alkatea eta Cerrajeria eta Ezkiaga alkateordeak[338]. Halako plakak, jakina, Beasainen guda galdu zutenek ez zituzten ondo ikusten, ez eta plaka horietan agertzen ziren hildako batzuen familiek ere, batez ere "martiri" horiek, boluntarioak ez baizik eta bortxaz eramandakoak zirenean. Hala gertatu zen adibidez Jose Usabiaga Muxikaren kasuan, bera errekete behartuta eraman zuten gudara eta Bizkaiko frontean hil zen. Bere familiak ez zuen ondo ikusi erregimenak bera modu horretan omentzerik eta Arantza Ibaibarriagak dioen moduan "gure aitonari (Pedro Usabiaga, Joseren aitari) min handia ematen zioten halako omenaldiek"[339].

1940ko ekainaren 6an, Gipuzkoako Gobernadore Militarrak, hainbat beasaindar karlista, Armadako "ohorezko teniente" izendatu zituenaren jakinarazpena heldu zitzaiola jakinarazi zuen Udalak. Beasaindar horiek, Jose Intsausti Zufiaurre, Jose Martin Artzelus Amiano, Jose Antonio Peñagarikano Jauregi, Pedro Antonio Etxezarreta Gantzarain, Jose Antonio Sasian Lasa eta Joan Frantzisko Agirre ziren. Horiek izendatzeko ekitaldia, uztailaren 7an, Loinazko San Martinen basilikan egitekotan gelditu zen Udala konpainiaren bandera entregatzeko[340]. Ekitaldi horretara, Gipuzkoako FET-JONSeko milizien komandante eta Beasaingo plazako komandante-ohi zen Alberto Ruiz Moriones, Oriamendi tertzioko komandante zen Gimenez, Oriamendi Tertzioko apaiz zen Jesus Ruiz, Oriamendiko bigarren konpainiako (Izaskun Konpainiako) Carrere kapitaina, eta Oriamendi Tertzioko laugarren konpainiako (Loinazko San Martin Konpainiako) Dabid Gonzalez Romero gonbidatu zituen Udalak[341]. Ekitaldi horretarako Beasaingo Udalak, Tabako Konpainiako Donostiako ordezkaritzari puruak ere eskatu zizkion (aipatu dugu herrian zegoen egoera ekonomikoa nolakoa zen)[342]. Jesus Ruiz hura, 1944an hil zen, Burgosen apaiz zegoela; hildakoan, 1944ko apirilaren 28ko Udal-bilkuran Frantzisko Ezkiaga zinegotziak, Udalak Beasaingo parrokian bere alde emango zen mezatara joatea proposatu zuen eta Udalak onartu egin zuen (egun hartan herriko bandera parrokian jartzea ere erabaki zuen Udalak)[343]. Baina Armadaren presentzia ez zen soilik jai "politikoetara" mugatzen, askotan jai "zibiletara" ere zabaltzen zen (kontuan izanik Estatu berriaren oinarrietako bat Armada bera zela, Armadaren mugagabeko erakuste hori Estatuaren tresna ideologikoa izan zen). 1944an, dakigunez, Loinatz jaietan, San Martinen basilikarako prozesioan, Lazkaon zegoen Armadaren Artilleriako 20. Erregimenduak parte hartu zuen[344].

Banakako erreketeei egindakoak baino areago, kolektibo osoari eginiko omenaldiak ere izan ziren: 1938ko maiatzaren 7ko Udal-bilkuran, Beasaingo Udalak, Oriamendi tertzioko soldaduen emazteen kolektiboak Lasarteko Oriamendi mendian tertzioaren omenez eraikitzekoa zen monumentu baten lehen harria jartzeko ekitaldira gonbidatuta zeudela jakinarazi zuen eta bertara joateko asmoa azaldu zuen[345]. Bestalde, aurreko kapituluan jada aipatu dugu 1939ko Loinatz jaietan Beasaingo Udalak gogo berezia jarri zuela Loinazko San Martin Errekete Konpainia presente egon zedin eta baita lortu ere: Loinazko basilikara urtero egin ohi den prozesioan parte hartu eta omenezko herri-bazkaria egitea erabaki zuen. Horretarako, CAFi erreketeak Terueldik ekartzeko kamioiak eskatu zizkion. Ideia horren sustatzaileak Frantzisko Untzueta eta Frantzisko Ezkiaga zinegotziak izan ziren, hala proposatu baitzuten 1939ko apirilaren 17ko Udal-bilkuran[346]. Prozesio horretan eginiko argazkiak, Martin Esnaola zinegotziak 1939ko abenduan egin zuen proposamen bati jarraiki, Loinazko San Martin Errekete Konpainiako buru zen Epifanio Argiñanori ematea erabaki zuen Udalak[347]. Modu horretako azken omenaldia, 1950etik 1960rako hirigintza-zabalkundean egin

[337] Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 20. dokumentu-sorta.

[338] Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 20. dokumentu-sorta.

[339] Arantza Ibaibarriaga Usabiagari eta Pedro Maria Ibaibarriaga Usabiagari egindako elkarrizketa. Donostian, 2015-11-15ean. Arantza Ibaibarriagaren arabera "osaba Joxeren argazkia gure etxeko sukaldean urteetan eta urteetan egon zen, guk urtero ospatzen genuen Jose deuna". Horren bidez badirudi, familiak "memoriaren berreskuratze-prozesu" bat, arlo pribatuan bada ere, hasi nahi izan zuela.

[340] Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 20. dokumentu-sorta.

[341] Beasaingo Udal Artxiboa. 3762. karpeta, 67. dokumentu-sorta; eta Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 20. dokumentu-sorta.

[342] Beasaingo Udal Artxiboa. 3762. karpeta, 67. dokumentu-sorta

[343] Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 17. dokumentu-sorta.

[344] Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 17. dokumentu-sorta.

[345] Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 22. dokumentu-sorta.

[346] Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 13. dokumentu-sorta.

[347] Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 13. dokumentu-sorta. Akta horretan, Argiñano, erreketeen buru izan arren, jada teniente bezala agertzen da, ez kapitain bezala.

zen kale bati "Tercio Oriamendi" jartzea izan zen (Loinazko San Martin Konpainia tertzio horretako parte izan zen)[348]. Gaur egun oraindik, frankismoaren ezaugarriak kentzeko lege eta dekretuak gorabehera, kale horrek "Oriamendi kalea" du izentzat[349].

Altxatuen aldeko soldaduen familiek, txiroak baziren, subsidio bat eskatzeko eskubidea ere izan zuten. 1937an, 25 soldaduren familiei eman zieten subsidio hori, nahiz eta 25 horietatik biren familiei ordaintzeari utzi (soldaduak etxera itzultzean) eta beste bi, berriz, Ramon Zabaleta Gerriko eta Bizente Lasa Mendia, garai hartarako jada hilak ziren[350]. Hala ere, subsidio hori ez zitzaien eman eskatu zuten guztiei, bost soldaduren familiei ukatu egin zitzaien (Joan Iraeta Goikoetxea, Jose Maria Mendizabal Etxezarreta, Atanasio Ezkai Arribas, Rufino Mora Risueño eta Justo Gotxikoa Fernandezen familiei), soldaduok, altxatuekin ibili aurretik gorriekin ibiliak izan zirelako[351]. 1938an beste bost familia subsidio hori jasotzen hasi ziren eta lauk jasotzeari utzi egin zioten (lau kasuetan ere familiakoren bat lanean hasi zelako). Horrenbestez, 26 familiek jasotzen zuten subsidioa 1938ko irailaren 10eko dokumentu baten arabera[352]. Urtebete geroago 19 familiek jasotzen zuten subsidio hori, nahiz eta batzuen kasuan (Adibidez Andres Txintxurretaren senide eskatzailearen kasuan), sei hilabete baino gehiago kobratzen aritzeagatik zerrendatik kendua izan[353]. Subsidio hori, zauritutako soldaduek ere jaso zezaketen, adibidez, 1941ean sei pertsona zeuden gudan altxatuen alde borrokatzean zaurituak izan zirenak eta subsidioa jasotzen ari zirenak. Tratamendua berdina izan zen Dibisio Urdinean borrokatu eta elbarritutako Jaime Lopez de Parizaren kasuan ere.

Horrez gain, Beasaingo Udalak berak, frontean zeuden tropa altxatuei laguntzeko zerga berezi bat ezarri zuen 1937ko ekainaren 14an (hala ere, bandoak duen itxurak, beste nonbaiten inprimatua eta hainbat herritan banatua izan zela ematen du). Zergak tabakoaren, ikuskizunen, tabernetako edarien, ostatuen eta perfumeen gain jarri ziren, eta %6 eta %10 artean kobratzen ziren[354]. Gainera, 1937ko uztailaren 31ko bando baten arabera, Beasaingo Udalak, diru-bilketa antolatu zuen armadarako dirua biltzeko[355]. Bestalde, 1937ko martxoan esan bezala, Jose Luis Guridi alkateak, 1937ko maiatzaren 13an, errazionamendutik herritarrei janariaren parte bat deskontatzea erabaki zuen, herrira bideratu behar zenaren zati bat frontera bideratzeko: astelehenak "postrerik gabeko egun" izendatu zituen, eta ostiralak "plater bakarreko egun"[356]. Ez zen izan Udala Francoren Armada diruz lagundu zuen erakunde beasaindar bakarra eta, CAFek adibidez, gudan zehar 356.887 pezeta bildu zituen Francoren armadarentzako (eta oro har, gudan Francoren armadak zituen beharren alde), enpresak 1939ko maiatzaren 27ko dokumentu batean adierazi zuenaren arabera[357].

Hirugarren kapituluan esan bezala, Beasaingo Udalak Beasainen okupazioa, "ospakizun-arrazoi" bezala hartu zuen; hori zela-eta, 1937ko uztailaren 15ean, 1937ko eta 1938ko uztailaren 27ak jaiegun bezala deklaratzea erabaki zuen[358]. Ospakizun horretan, Franco altxatuen burua, Moriones komandantea eta Nafarroako Aldundia zoriondu zituzten (bat indar erregularren ordezkari izateagatik eta bestea erreketeen ordezkari izateagatik). Aurkeztutako mozioak, uztailaren 27a "gure herriaren historian grabatutako eguna izatea nahi dugu" jartzen zuen, eta horretarako, uztailaren 27a urtero jaiegun moduan ospatzea, Beasaingo lantegiei egun hori jaieguna zela jakinaraztea, eta herritarrei balkoietan Espainiako bandera jartzeko "gonbita" egitea proposatu zuen[359]. Horrez gain, egun hori ospatzeko 10etan Elizan meza eman zen eta horren ondoren, Nafarroa Etorbidean (mozioaren arabera, "bertatik sartu ziren nafarrak (erreketeak) gure herria askatzera"), agintarien aurreko desfilea egin zen, eguna Arangoiti Ongintza Etxean egin zen herri-bazkari batekin bukatuz (Udal-bandak ere jai horretan parte hartu zuen)[360]. Lantegien aldetik, CAFek baiezkoa erantzun zion Udalak proposatutakoari, uztailaren 27an jai eginez eta "Aberriaren

[348] Mila Mendiak gogoratzen duenez: "ni txikitan joan nintzen kale horretara bizitzera. Une hartan uste nuen izen inozente bat zela, baina gero konturatu nintzen izen hori ez zela hain inozentea". Mila Mendia Aramendiri egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-07-02an.

[349] 1979an hautatutako lehenengo udal hautetsiak (Joan Lasa Jauregi alkate zela), kale-izenen berrizendapenak egin eta izenak euskaraz jarri zituen. Kale horren izena aldatzeko proposamenak izan ziren "Oriamendi" izena behin betiko kenduz, baina "izen-aldaketak endredoak zekartzala-eta", azkenean "Tercio de" hitzak kendu eta, "Oriamendi kalea" izena utzi zuten. Izendapen berriaren aldeko argudiorik errepikatuena "Oriamendi Gipuzkoako mendia dela" izan zen eta "Tercio" kontzeptua kenduta bere konnotazio militar-karlistak galdu egiten zituela. Hala ere, argudio zalantzagarria da, Oriamendi, Gipuzkoan dauden mendi guztien artean ez baita esangura bereziko mendia, beraz, izen hori mantentzea aurreko izenagatik da eta gaur egun, oraindik, frankismoko ikurrak kentzeko aginduak eta legeak ere izan arren, ikur frankistaren hondar hori hor dago Beasainen.

[350] Beasaingo Udal Artxiboa. A075 karpeta, 06. dokumentu-sorta.

[351] Beasaingo Udal Artxiboa. A075 karpeta, 06. dokumentu-sorta.

[352] Beasaingo Udal Artxiboa. A075 karpeta, 04. dokumentu-sorta. Ekaineko beste dokumentu baten arabera, 28 familiek jasotzen zuten subsidioa.

[353] Beasaingo Udal Artxiboa. A075 karpeta, 03. dokumentu-sorta. 1939ko apiriletik aurrera, guda jada bukatuta, zerrenda horren bitartez zaila zen borrokalari-ohiak eta haien sendikoak bereiztea, borrokalari-ohi asko jada herrian zeudelako eta laguntza eurek zuzenean eskatzen zutelako.

[354] Beasaingo Udal Artxiboa. 2112. karpeta, 34. dokumentu-sorta.

[355] Beasaingo Udal Artxiboa. 2112. karpeta, 35. dokumentu-sorta.

[356] Beasaingo Udal Artxiboa. A083 karpeta, 07. dokumentu-sorta.

[357] Beasaingo Udal Artxiboa. 525. karpeta, 46. dokumentu-sorta.

[358] Beasaingo Udal Artxiboa. 543. karpeta, 48. dokumentu-sorta; eta Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 23. dokumentu-sorta.

[359] Beasaingo Udal Artxiboa. 3762. karpeta, 13. dokumentu-sorta.

[360] Beasaingo Udal Artxiboa. 3762. karpeta, 13. dokumentu-sorta.

or.

eta Armada Nazionalaren aldeko jai guztietan laguntzeko gogoa" erakutsi zuen[361]. Beasainen okupazioa, hurrengo urteetan ere ospatua izan zen.

Armadak ere, herritar batzuei euren ondasunak errekisatu zizkien, bere probetxurako. Adibidez kamioiak kendu zizkieten Antonio Gorrotxategi Garmendiari, Kandido Arratibel Etxeberriari eta Joan Goikoetxea Izagirreri (azken bi hauek ataundarrak ziren, baina Beasainen aurkeztu zuten kexua). Kamioiok, Donostian, armadaren autoen parkean zeuden, eta kamioien jabeek itzultzeko eskatu zuten, familia aurrera ateratzeko lanerako behar zituztela-eta[362]. Beste alde batetik, Martin Jauregi Etxezarretak 1936an txahal bat armadaren betebeharretarako hil behar izan zuela-eta, 335 pezetako kalte-ordaina eskatu zuen 1937ko urriaren 6an[363].

Tropekin zerikusi handirik izan ez bazuen ere, gudarekin zerikusia izan zuen gertakari bat, Beasaingo Udalak, 1937ko urtarrilaren 21ean gaitzetsi zuen, hain zuzen ere, hil haren 4an Bilbon izan zen Larrinaga kartzelako eskuindar presoen aurkako herritarren erasoa; eraso hartan, Jose Orueta, "Beasainen sustraiak zituena" hil baitzuten. Orueta CAFeko zuzendari izan zenaren semea zen.

Hala ere, altxatuen aldeko tropekiko Udalak beti erakutsi zuen jarrera hori, badirudi Beasaingo herritarrek ez zutela partekatzen, eta nolabait, "erresistentzia pasibora" ere emanak izan zirela. Adibidez, 1938ko uztailaren 1ean, Beasaingo Guardia Zibilaren komandante berriak esan zuen, tropek herrigunea zeharkatu behar zutenean, errepidean pasatzerakoan, herritarrak "batzuetan utzikeriagatik, eta besteetan asmo txarrez", geldi ibiltzen zirela, tropen abiada motelduz. Guardia Zibilaren komandanteak, halako herritarrentzat zigorrak jartzea eskatu zuen[364].

Baina Beasaingo Udal frankistak Estatu berriarekin zuen konpromisoa, 1936ko Gudaz harago ere joan zen. 1941eko irailaren 19an Dibisio Urdinarentzat 100 pezeta eman zituen Beasaingo Udalak[365], eta gainera, 1941eko azaroaren 19an, beste 150 pezeta ematea erabaki zuen[366]. Dibisio Urdineko soldaduak zeramatzan trena Beasaindik pasatzerakoan ere, Beasaingo Udal-bandak jo zuen eta horregatik Udalak Bandari 200 pezeta eman zizkion[367]. Beasainen ongi-etorria egin zitzaion Sobiet Batasunetik itzuli zen boluntario falangisten trenari (1942ko maiatzean; dokumentu ezberdinek, maiatzaren 13a larunbata eta maiatzaren 24a igandea aipatzen dituzte; goizez, iritsi zen trena Beasaina), baina ez zen izan herriak egindako bat-bateko ongi-etorria, baizik eta politikoki prestatutako ongi-etorria; hain zuzen ere, aurreko egunean, Gipuzkoako Gobernadore Zibilak telefonema bat bidali zion Beasaingo alkateari, iritsiera-ordua jakinaraziz eta, horrez gain, "Ongi-etorri beroa prestatzeko (…) eta horretarako baliabide guztiak aktibatzeko" agindu zion (hor, eskoletako ume guztiak –eskola publikoetakoak, mutikoen eta neskatoen eskoletakoak– harrera egitera behartu zituzten eta bertara joateko agindu zieten)[368]. 1942an beste diru-bilketa bat izan zen, azaroan antolatua. Kasu horretan, Udalak dirua jarri zutenen zerrenda publiko egin zuen, beraz pentsatzen dugu, zeharka bada ere, dirua ematen ez zutenen edo emateko asmorik ez zutenen kontrako presio-neurria ere izan zela. Abenduan, diru-bilketa horretan 1.281,50 pezeta jaso zirela egin zen publiko. Gehien jarri zutenak, enpresariak izan ziren, QUIFOSAko jabe Pablo Hunolt Aranak 50 pezeta jarri zituen, Industrial Ferretera enpresak 100 pezeta, eta Bernedo-eneko fabrikak 200 pezeta. Halako dohaintza handiaren atzean (gogora dezagun Viktor Bernedo kartzelan preso zegoela), fabrika hori erregimen berriarekin "adiskidetzeko" edo behintzat "etsaigoa baretzeko" modu bezala ikus daiteke[369] (1943ko urtarrilaren 15ean Gipuzkoako Gobernari Zibilak galdetu egin zuen diru-bilketa hori egina zen ala ez eta Udalak baietz erantzun zion, beraz, horregatik ondoriozta dezakegu, Beasaingo Udalak, kasu horretan, Gipuzkoako agintariek baino "grina handiagoa" erakutsi zuela erregimenari laguntzeko[370]).

Dibisio Urdinarekin borrokatu zuten beasaindar batzuk ere izan ziren; guk lauren kasuak ezagutzen ditugu: Feliziano Torquemada[371], Jesus Arguiñano[372], Jose Estevez eta Jaime Lopez de Parizarenak[373] hain zuzen ere (bestalde, II. Mundu Gudari eta Alemania naziarekiko harremanei buruz, bitxikeria moduan, Jabier Garcia Bergarak kontatu diguna plazara dezakegu:

[361] Beasaingo Udal Artxiboa. 2941. karpeta, 40. dokumentu-sorta.
[362] Beasaingo Udal Artxiboa. 080. karpeta, 12. dokumentu-sorta.
[363] Beasaingo Udal Artxiboa. 080. karpeta, 12. dokumentu-sorta.
[364] Beasaingo Udal Artxiboa. 3762. karpeta, 79. dokumentu-sorta.
[365] Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 21. dokumentu-sorta.
[366] Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 21. dokumentu-sorta.
[367] Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 21 dokumentu-sorta.
[368] Beasaingo Udal Artxiboa. 3189 karpeta, 25 dokumentu-sorta.
[369] Beasaingo Udal Artxiboa. 063 karpeta, 18 dokumentu-sorta.
[370] Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 18 dokumentu-sorta.
[371] Beasaingo Udal Artxiboa. 1171 karpeta, 01 dokumentu-sorta.
[372] Felipe Ibarbia Alustizari eta Maria Karmen Ibarbia Sarriegiri egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-06-19an.
[373] Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 18 dokumentu-sorta; eta Joxe Etxeberria Apalategiri egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-06-25ean. Joxe Apalategik Jesus Argiñano eta Jaime Lopez de Pariza aipatzen ditu.

alemaniarrak, Idiazabalen nonbait, Eitzagarate (Etzegarate) aldean, neurketak egiten ibili zirela[374]). Gainera, Lopez de Pariza zauritua izan zen, eta 1943an zehar, Udalari izter ortopediko bat erosteko laguntza eskatu zion. Horrek, bere familiaren eta Udalaren arteko eztabaida txiki bat sortu zuen, izan ere, Udalak, lehen une batean izter ortopedikoa erosteko 500 pezetarekin laguntzea erabaki zuen, baina Jaime Lopez de Parizaren aita Adolfo Lopez de Parizak laguntza hori ez zuen onartu, izan ere, Lopez de Parizaren arabera, Udalak ez zuen izter ortopediko hori osorik ordaindu nahi, eta Udalaren arabera, berriz, ordainketa hori ez zuen sekula hala egitea agindu.

Guda amaituta ere, Beasainen bertan "gudaren hondarrak" ikusten ziren. Horietako bat, Defentsa Pasiboa zen. Horrek argi uzten du erregimenaren militarizazioa, eta bake-garaian ere "badaezpadako gorputz zibil mobilizagarriak" antolatuta edukitzea. 1942an, Beasaingo Defentsa Pasiboko buru, Martin Esnaola alkatea zen, idazkaria Joan Urkola (Bernedo-eneko ingeniaria) eta zuzendaritzako kide iraunkorrak Frantzisko Untzueta (FET-JONSeko burua), Hilario Urteaga Otegi (medikua eta osasun-ikuskaria), Frantzisko Otaegi Ugarte, Gontzalo Arizmendi (aparejadorea), eta Jose Otegi Zatarain. Behin-behineko zuzendaritzaren parte izan ziren halaber, Rikardo Ardura Goñi (Sindikatu Bertikalekoa), Frantzisko Castro Yañez (CAFeko ingeniaria eta Morionesen suhia), Jose Maria Egoskozabal Frances (CAFeko ingeniaria), Mariano Lopez Martinez (Quifosako ingeniaria) eta Meltxor Garcia Josa (udaltzainburua)[375].

Defentsa Pasiboaren eginbeharra "gudarako baliagarri izan zitezkeen zeregin zibilak" aztertzea zen, adibidez, ezbeharren aurrean egin beharreko ebakuazioa. Gipuzkoako Gobernadoreak, Gipuzkoako "Defentsa Pasiborako Batzordearen" bidez, 1944ko maiatzaren 15a bezalako data berantiar batean jakinarazi zion Beasaingo alkateari "zonalde horretan babeslekuak eraikitzeko arduradun, Jose Antonio Elizalde Cordoba arkitektoa" izendatua zutela. Elizalde ekainaren 15ean etorri zen Beasaina "babeslekuak egiteko toki posibleak ikuskatzeko"[376]. Bestalde Defentsa Pasiboaren lana suteen aurkako planak (ebakuazioa eta prebentzioa) aurreikusten ere zentratzen zen, baina betiere ikuspuntu militar batetik: 1945eko azaroaren 1eko ebakuazio-gidoian, "hiri-populazioarekin" batera (Beasainen 4.000 pertsona kalkulatu zuten), populazio horretan "mobilizagarri" zirenen zenbatekoa ere kalkulatu zuten (%40 estimatu zuten) eta "industrian militar bihurgarri" zena ere bai (%20), beraz, gainerako %40a, 1.600 pertsona, ebakuatzeko kalkuluak egin ziren)[377].

Azpiatal honetan, azkeneko kapitulua Francoren alde borrokan hildako pertsonekin zer gertatu zen izango da. Haietako batzuk Beasainen hilobiratuak izan ziren, baina beste batzuk, ordea, borroka-frontean bertan (euren gorputzak aurkitu ezinik) gelditu ziren. Gorpu horiek ateratzea, Gipuzkoan, 1941eko urrian, debekatu egin zuen Donostiako fiskaltzak[378]. Iñaki Egaña historiagileak jakinarazi digunez, Beasainen hildakoetako bat, Justo Aguado Baza, Erorien Harana (*Valle de los Caídos*) delakora eraman zuten eta han ehortzita dagoke[379].

1.4.b) Francoren bisitaldia Beasaina

Francoren diktadura-garaian, tokiko agintari zein fakzio guztien artean, helburu bat zegoen: beren pertsonaiak "boterearen erdigunetik bertatik" goraipatuak eta aintzatetsiak izatea, eta hala, fakzioen edota tokiko agintarien artean, nolabaiteko "hegemonia" lortzea (fakzioei dagokienez, berekiko nolabaiteko mendekotasun hori Francok oso ondo baliatu zuen fakzio guztien autonomia deuseztatzeko). Izan ere, halako sistema hierarkiko batean, non boterearen baliabide eta herskari guztiak goitik behera antolatuak diren, "erdigunekoen aintzatespena lortzeak" berebiziko garrantzia zuen eta du.

Beasainen ere izan zen Francoren bisitaldia, 1939. urtean, haren trena bertatik pasatzea baino indartsuagoa izan zena. 1943ko irailaren 10ean, arratsaldean, Franco Beasaina etorri zen, CAF enpresak gonbidatuta (beraz, pentsatzekoa da enpresa horrek eragin handia zuela Espainiako ekonomian, eta zeharka, politikan). CAFek, harrera egitera, Beasaingo Udala gonbidatu zuen, eta honek, gainera, Udal-bandari, fabrikaren aurreko bidegurutzean arratsaldeko 4etatik aurrera jotzeko agindu zion (diktadorea lau eta erdietan iristea aurreikusita zegoen)[380]. Franco Iruñetik etorri zen Beasaina. Ikusten dugun moduan, tokiko agintari guztiak inplikatu ziren harrera horretan; eta esanguratsua bada ere, diktadorea Beasaina ez zuen Udalak ekarri, enpresa batek baino. Horrek argi eta garbi erakusten du Estatu berriaren izaera, praktikan kapital pribatu handiaren aldeko apustua egin baitzuen.

---

[374] Jabier Garcia Bergarari egindako elkarrizketa (bi zatitan: Beasainen, 2014-07-03an eta 2014-07-22an).

[375] Beasaingo Udal Artxiboa. 2362. karpeta, 05. dokumentu-sorta.

[376] Beasaingo Udal Artxiboa. A020 karpeta, 01. dokumentu-sorta; eta Beasaingo Udal Artxiboa. A020 karpeta, 02. dokumentu-sorta.

[377] Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 22. dokumentu-sorta; eta Beasaingo Udal Artxiboa. A020 karpeta, 02. dokumentu-sorta.

[378] Beasaingo Udal Artxiboa. 3762. karpeta, 86. dokumentu-sorta.

[379] Iñaki Egañari eskertzen diot datu hau.

[380] Beasaingo Udal Artxiboa. 3189. karpeta, 18. dokumentu-sorta.

Francoren autoa CAFeko sarrerara iristen 1943an. (Argazkia: Kutxaren *Gure Gipuzkoa* argazki-bildumakoa).

1.5 Errepresioa

1.5.a) Heriotzak

1.5.a.I) Epaiketarik gabe hildakoak

1936ko lehen aste eta hilabeteak pasatuta, Beasainen hil zuten jendearen kopuruak behera egin zuen baina hilketek jarraitu egin zuten, bai Beasainen eta baita Beasaindik kanpo ere. Aipatu dugunez Jose Maria Igartua Lastra Mutiloan eta Hilario Igartua Polo Iruñerako bidean hil zituzten. Beasaingo kartzelan egondako Gregorio Begue ere hil zuten, 1936ko irailean Iruñea inguruan, eta 1936ko urrian Viktoriano Oñatibia Donostian, Beasaindik eramanda. 1936ko azaroan, Getarian, Antonio Zubiaga hil zuten.

Hortik aurrera hildako denak, printzipioz, "sarraskiaren logika beasaindarretik" at hildako pertsonak dira, hau da, 1936ko uztailaren 27 eta 28 artean gertatu zen sarraskia eragin zuen amorruaren gurpila itxuraz pasatua zenean. Hemen, geroago hildako denak, 1936az geroztik hildakoak, "logika" horretatik kanpo ezartzen ditugu. Hamar hildako ditugu kasu horretan eta, horietako bost, inolako epaiketarik gabe hildakoak; beste bost epaiketa baten ondoren fusilatuak. Azken bost horietatik, hiru, gudan borrokan ari zirela atxilotutako beasaindarrak izan ziren, eta, beste bi, gudatik at preso hartu ondoren hildakoak.

Epaiketarik egin gabe hildakoak eta epaiketa egin ondoren hildakoak bereiztea, oso garrantzitsua dela deritzogu. Aurreko kapituluan esan bezala, prozedura honek, alde batetik hilketaren izaera aldatzen du: ez da berdina epaiketa baten ostean hiltzea, epaiketa horretan defentsarako bermeak oso eskasak edo ezdeusak izanda ere; heriotza-zigorra ofizialki ezarri eta jakinaraztea eta hildakoaren heriotza egiaztatuta eta erregistroan idatzita jartzea, hau da gutxieneko arauak jarraituta egitea, edota horrelako araurik gabe, hilketa guztiz arau eta ardura gabea egitea. Beraz, azken mota hori, tiroz hil arren, ez da fusilamendua, erailketa garbia baizik. Horrek ez du esan nahi fusilamendu "ofizialak", bortizkeria "urdinaren" (hots, altxatuen aldeko bortizkeriaren kasuan) legezkoak zirenik, izan ere, kontuan izan behar da, alde horrek, bere erakundeek eta bere lurraldearen gaineko "bortizkeriaren monopolioak" eta aginteak, legez kanpoko ekintza batean izan zuten abiapuntua: Herri-borondateak botoen bidez ezarritako Errepublikaren aurkako Estatu-kolpe batean. Beste alde batetik, badago beste ezberdintasun bat: ezberdintasun kronologikoa (nahiz eta beasaindarren kasuan guztiz ez bete: epaiketarik gabe hildako bostetik lauren heriotza-datak ezagutzen ditugu; eta lau horietatik bi, Domingo Martinez eta Joan Velazquez, hain zuzen, 1938an eta 1939an hil zituzten). Izan ere, 1937ko udaberrira arte, altxatuek, batez ere erailketak egiten zituzten euren etsaien kontra eta fusilamendu bidezko (hots, epaiketa

bidezko) heriotzak, 1937ko udaberriaren ostean hasi ziren egiten[381]. Hau, lehen esan dugun bezala, lehen hilabete horietan, altxatuen Estatu-alderdiak bortizkeria masiboaren bidez bere erregimenaren egonkortasuna finkatu nahi izan zuelako izan bide zen; hau da bortizkeria masiboa tresna politiko bezala erabiltzeagatik.

Izan ere, gudaren erretagoardian, batez ere gudako lehen hilabeteetan, errepresioa oso bortitza izan zen. Lehen hilabete haietan, errepresioak eragindako hildakoen kopurua, gudako fronteek eragindako hildakoen kopurua baino handiagoa izan zen[382]. Horrek badu bere logika, esaterako, historiagile batzuen arabera, Jabier Rodrigo Sanchezen arabera adibidez, errepresio hori argi eta garbi erregimen berriaren oinarri izan zen eta bata eta bestea bereiztezinak ziren. Hau da, 1936ko Guda eta, batez ere hemen gertatu zen errepresioa, erregimen berria egonkortzeko tresna izan zen, edota agian tresna baino gehiago, bere oinarrizko osagarria. Rodrigoren terminoak erabiltzearren "Francoren bortizkeria inbertsio bat izan zen (…) bere agintaldi osoan zehar mozkinak emango zizkiona (…) Ez zen bortizkeria irrazionala, arrazionala baizik, beharrizanei eta helburuei lotutakoa (…) Bortizkeria erregimenaren ohiko komunikazio-kanala izan zen."[383]. Eta aurrerago dioen moduan: "Bortizkeriaren helburua ez zen soilik atzeguardia kontrolatzea izan, harago zihoan (…) horrek bortizkeria ez zuen "alferrikako" bihurtzen, kontrakoa baizik (…) Bortizkeria ez baitzen orainaldirako tresna bat, etorkizunerakoa ere bazen"[384].

Lehen aipatu dugun Jabier Rodrigoren arabera, Francoren bortizkeriak erregimena beste diktadura totalitarioen artean (izan ere, 1940.eko hamarkadaren zati handi batean zehar, erregimen hori, totalitarioa izan zenaz ez dago zalantzarik) paradigmatiko egin zen, ez baitzen beste erregimen faxistarik izan bake-garaietan (hau da, 1939ko apiriletik aurrera) hainbeste bortizkeria erabili zuenik. Baina aldi berean, 1936ko Gudaren bidez boterera igo zen erregimen faxista, bakarra izan zen; beraz, errepresioaren jarraipen bat izan zen, 1936ko Gudan zehar eta hura bukatuta ere, erregimenaren ezartze-prozesutik bereiztezina izan zen[385].

Beraz, gudaren hasieran izan zen erretagoardiako errepresiorik bortitzena. Guk, Beasaingo kasu honetan, errepresio hori, uztailaren 27ko eta 28ko sarraskian kontzentratzen dela azpimarratzen dugu, baina horrek ez du esan nahi hor gelditu zenik. Bortizkeriak aurrera egin zuen, baita beasaindarren kontra ere. Esan bezala, hamar beasaindar hil zituzten 1937tik aurrera eta, horietako bost, epaiketarik gabe. Epaiketarik gabe hildako bostak, kronologikoki, hauek izan ziren: 1937ko urtarrilaren 26an hildako Jose Migel Muxika Esnaola (Beasain, 12 urte) Beasainen hila, 1937ko martxoaren 13an Jose Manuel Landa Elortza (Beasain, 19 urte) Iruñean hila, 1938ko apirilaren 5ean Domingo Martinez Sanchez (Erriberri, Nafarroa, 62 urte) Iruñean hila, 1939ko martxoaren 28an, Joan Velazquez Garcia (Cañizal, Zamora, 57 urte) Beasainen hila eta Fermin Odaturra, baina azken honen inguruko beste daturik ez dugu.

Horietako lehena, Jose Migel Muxika Esnaola, 12 urteko mutiko bat zen, beraz Beasainen eraildako pertsonarik gazteena (Miren Gordobil alde batera utziz, pertsona hori bi urterekin hil baitzen 1936ko uztailaren 24an, baina esan dugu gure ustez ez zela gudarekin zerikusia izan zuen pertsona izan, uztailaren 24an artean tropa altxatuak ez baitziren Beasaina iritsiak). Muxikaren inguruko daturik ez dugu aurkitu Beasaingo erroldan, baina heriotza-erregistroaren arabera, Beasaingo Arangoiti Ospitalean bizi zen. Erregistroaren arabera, 1937ko urtarrilaren 26an Beasaingo FET-JONSen egoitzan "garezurra hautsita" hil zen (Iñaki Egañak "jipoi bat jasota" hil zela bildu du), beraz, kasu hau, aurreko kapituluan aipatu dugun Jose Maria Igartua Lastraren kasuarekin batera, agintari frankistek euren ardura onartutako kasu apurrenetako bat izan zen[386]. Erregistroa hurrengo egunean, urtarrilaren 27an egin zen. Pedro Jose Iguain Telleria, Bandako zuzendaria eta Nikolas Rodrigo Barcenal deitutako pertsona bat lekuko zirela[387]. Jose Migel Muxikaren heriotza, nahiz eta Udal-epaitegiak publikoki adierazi FET-JONSen egoitzan gertatu zela (beraz eskandalagarria zatekeen), guk dakigunez ez zuen Beasaingo Falangean ondoriorik izan, Migel Cerrajeriak 1937. urte osoan zehar Tokiko Buru izaten jarraitu baitzuen beste urte eta erdi osatu arte.

---

[381] ESPINOSA MAESTRE, Francisco: *Guerra y represión en el Sur de España. Entre la historia y la memoria*. Valentziako Unibertsitatea. Valentzia, 2012, 34. or.

[382] BAHAMONDE, Antonio: *Un año con Queipo. Memorias de un nacionalista*. La Espuela de Plata, 2005; in RODRIGO, Javier: *Hasta la raíz. Violencia durante la Guerra Civil y la dictadura franquista*. Alianza argitaletxea. Madril, 2008, 25. or.

[383] RODRIGO, Javier: *Hasta la raíz. Violencia durante la Guerra Civil y la dictadura franquista*. Alianza argitaletxea. Madril, 2008, 26-28. or.

[384] Alde batera utziko ditugu Vichyko erregimena eta Kroaziako Estatu Independentea (NDH) bezalako salbuespenak, horiek "kanpotik etorritako guda" batek (III. Reicheko Alemaniaren inbasioak hain zuzen) jarri baitzituen boterean, ez erkideen arteko guda batek (kasu horretan, guda mota hori, zilegitasunik gabeko erregimen horiek ezarri ostean etorri zen, Erresistentziaren ondorioz). Gure ustez, Francoren erregimenak NDHren erregimenarekin antzekotasun handiak izan arren (elementu faxisten eta nazional-katolikoen bilbaketa, liderren kultua, kanpo-potentziekiko mendekotasuna, bortizkeria masiboa), kontuan izan behar da kroaziar faxisten bortizkeria, eta beraz "nazioaren garbiketarako ahalegina" batez ere (nahiz eta ez bakarrik), etsai etnikoaren -Kroaziako serbiarren edota judutarren- aurka zuzendu zela; Francoren erregimenarena ordea, etsai ideologikoaren kontra –1936ko Gudan, hau da, erregimenaren zilegiztatze nagusian, etsai izan zirenen aurka-. Hori, bi erregimenen artean izandako auto-pertzepzio eta izaera ideologiko arloko ezberdintasun batzuen adierazgarri da.

[385] RODRIGO, Javier: *Hasta la raíz. Violencia durante la Guerra Civil y la dictadura franquista*. Alianza argitaletxea. Madril, 2008, 28. or.

[386] Beasaingo Bake Epaitegia. Erregistro Zibila, "Jose Miguel Mugica Esnaola"; eta EGAÑA, Iñaki: *1936. Guerra Civil en Euskal Herria. (IV lib., La Guerra en Gipuzkoa)*. Aise liburuak. Andoain, 1999, 208. or.

[387] Beasaingo Bake Epaitegia. Erregistro Zibila, "Jose Miguel Mugica Esnaola".

or.

Hurrengo biak Jose Manuel Landa Elortza eta Domingo Martinez Sanchez izan ziren; gure datuen arabera, Iruñean hilak. Nafarroako hiriburura eraman zituztenez, pentsa daiteke euren heriotzak 1936ko irailaren 22an gertatutako Gregorio Begueren heriotzarekin eskema bera partekatu ahal izan zutela, hau da, Beasaindik Iruñera eraman zituztela han hiltzeko. Baina guk ez dugu daturik Landa Elortza eta Martinez Sanchez Beasaingo kartzelan egon zirenaz, 1937an eta 1938an Beasaingo kartzelan egon ziren pertsonen zerrendan ez dira agertzen[388]. Jose Manuel Landa, 1937ko martxoaren 12an fusilatua izan zen Iñaki Egañaren arabera[389]. Domingo Martinez, CAFeko idazkariaren inguruan, iluntasun handiagoa dago. Alde batetik, Iñaki Egañak ez du esaten Iruñean fusilatua izan zela besterik[390]. Bestetik, Euzko Deya egunkariak, 1937ko martxoaren 21eko Beasaini buruzko kronikan jada fusilatutzat ematen du[391], Eusko Jaurlaritzak ordea ez du datarik ematen. Datarik ez du ematen, baina bere lanbidea (CAFeko idazkaria) eta fusilatze-tokia (Iruñea), aipatzen ditu, 1939an Eusko Jaurlaritzak egindako *Euzkadi bajo el régimen de Franco* txostenaren *La represión en Guipúzcoa* azpi-txostenak[392].

Zerrenda horretako laugarrena, Joan Velazquez Garcia, Cañizalen jaiotako irundarra, Beasainen hil zuten, 1939ko martxoaren 28an. Erregistroaren arabera, Velazquez Garcia trenbideko langilea zen eta hori bera biltzen du Iñaki Egañak[393]. Antza denez, ez zen CAFeko enplegatua trenbideko langilea baizik, berez irundarra baitzen, bere kontrako guda-kontseiluan agertzen den moduan[394]. Erregistro Zibilaren arabera, goizeko 10etan hil zuten Joan Velazquez, eta arrazoia, erregistroaren arabera, Jose Migel Muxikaren heriotzaren bera zen: "garezurraren haustura": Horrek esan nahi du, ziurrenik, jipoi bat jasota hil zela Velazquez ere. Esan beharra dago hil aurretik, Velazquez, guda-kontseilu batek epaitua izan zela. Kontseilu hartan, Velazquez, ezkerraren aldeko boto-emailea zela eta Ipar Euskal Herrira alde egin zuela azaldu zuten, baina gero Iruna itzuli zela (eginbideak 1937ko azaroan hasi ziren). Hala ere, zenbait "aringarri" zirela-eta (Fronte Popularraren alde armekin ez zen ibili, bere fabrikan bala batzuk egiteko beruna urtzearen aurka agertu zen, eta eskuineko pertsona bat, Makario Etxauz defendatu zuen), 1938ko apirilaren 21ean bere aurkako kausa bukatzea erabaki zuen epaitegi militarrak, aske utziz[395]. Beraz, litekeena da heriotza honek nolabaiteko harreman politikoa izatea, heriotzaren kausa zehatza eta hiltzaileak nortzuk izan ziren demostratzerik izan ez badugu ere. Velazquez Garciaren heriotza hurrengo egunean izan zen erregistratua, 1939ko martxoaren 29an[396].

Fermin Odaturrari buruz dugun datu bakarra, Iñaki Egañak bere liburuan ematen diguna da. Egañaren ustez, Odaturra, Donostiako Banketxeko langilea zen, eta politikoki EAJko kidea. Bere ustez, lankide batek salatu zuen, inbidia tarteko, salatzailea banketxetik iruzur egiteagatik kanporatua izan baitzen. Egañaren arabera, Donostian fusilatu zuten Odaturra[397]. Ikusten dugunez, Odaturrari buruz Egañak ematen dituen datuak, beste batzuek Viktoriano Oñatibiari buruz ematen dituztenak dira (Bankuko langilea, jeltzalea, lankide batek –oñatiar bat batzuen arabera, Arregi abizenduna beste batzuen arabera– salatua…)[398]. Bestetik, Iñaki Egañak Viktoriano Oñatibiaz ematen duen datu bakarra fusilatzearen datua eta tokia da: 1936ko azaroaren 17a (Joxe Manuel Azurmendiren arabera, urriaren 23a izan zen data)[399].

Kasu zalantzagarria da, ordea, 1937ko ekainean hildako Anjel Melgosa Markina gaztearen heriotza errepresioa zela-eta hil izana. Beasaingo erregistroan, bere heriotza, 1937ko ekainaren 27an Donostian gertatu zela azaltzen da (hala ere, heriotza hori argitzeko kausan, lekuko batek, Alfontso Martosek, heriotza Beasainen izan zela deklaratu zuen). Iñaki Egañak, bere liburuan "1937ko ekainaren 28an Donostian fusilatua" izan zela diosku, baina datu hori okerra da[400]. Jose Luis Guridi alkateak, ekainaren 24an Donostiako San Antonio Abad erietxeko zuzendariari gutun bat bidali zion, esanez, mesedez har zezala "zauritu" hori, "auto batek jota" zaurituta baitago"[401]. Beste alde batetik, Ferrolgo Espainiako Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarrean, Anjel

[388] Beasaingo Udal Artxiboa. 2112. karpeta, 63. dokumentu-sorta.

[389] EGAÑA, Iñaki: *1936. Guerra Civil en Euskal Herria. (IV. lib., La Guerra en Gipuzkoa).* Aise liburuak. Andoain, 1999, 207. or.

[390] EGAÑA, Iñaki: *1936. Guerra Civil en Euskal Herria. (IV. lib., La Guerra en Gipuzkoa).* Aise liburuak. Andoain, 1999, 207. or.

[391] *Euzko Deya,* 1937-03-21ekoa.

[392] *Euzkadi bajo el régimen de Franco: La represión en Guipúzcoa.* Eusko Jaurlaritzaren Artxiboa, Sancho de Beurko funtsa, 13. kutxa, 5. dokumentu-sorta, 5:1 zk.dun dokumentua.

[393] Beasaingo Bake Epaitegia. Erregistro Zibila, "Juan Velazquez Garcia"; eta EGAÑA, Iñaki: *1936. Guerra Civil en Euskal Herria. (IV. lib., La Guerra en Gipuzkoa).* Aise liburuak. Andoain, 1999, 207. or.

[394] Espainiako Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia. Gipuzkoa 12827-38 kausa, Segundo Lozares Escolarri dagokiona.

[395] Espainiako Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia. Gipuzkoa 420-38 kausa, Joan Velazquez Garciari dagokiona.

[396] Beasaingo Bake-Epaitegia. Erregistro Zibila, "Juan Velazquez Garcia".

[397] EGAÑA, Iñaki: *1936. Guerra Civil en Euskal Herria.* (IV lib., *La Guerra en Gipuzkoa*). Aise liburuak. Andoain, 1999, 208. or.

[398] IRAOLA, Jose Vicente: "Informe de Jose Vicente Iraola" in BARANDIARAN, Jose Miguel: *La Guerra Civil en Euzkadi* (351-353. or.). Bidasoa-Instituto de Historia Contemporánea. Milafranga (Lapurdi), 2005, 353. or.; Joxe Manuel Azurmendi Dorrontsorori egindako elkarrizketa. Donostian, 2014-09-10an; eta Milagros Aranburu Muxikari egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-08-05ean.

[399] EGAÑA, Iñaki: *1936. Guerra Civil en Euskal Herria.* (IV lib., *La Guerra en Gipuzkoa*). Aise liburuak. Andoain, 1999, 207. or.

[400] EGAÑA, Iñaki: 1936. *Guerra Civil en Euskal Herria.* (IV lib., *La Guerra en Gipuzkoa*). Aise liburuak. Andoain, 1999, 207. or.

[401] Beasaingo Udal Artxiboa. 545 karpeta, 56 dokumentu-sorta.

Melgosa Markinaren heriotzagatik zabaldutako diligentzien kausa gordeta dago, eta kausa horretan azaltzen da, ekainaren 24an Donostiako San Antonio Abad erietxean sartu zela, eta ekainaren 25ean hil zela. Ekainaren 27an Rikardo Cardenal Sanchez eta Felipe Pino Askartza medikuek, Melgosa Markinaren heriotza baieztatu zuten, bere lesioen zerrenda eginda eta auto batek zapaldua izan zela baieztatuz (beraz horrek Iñaki Egañaren hipotesia gezurtatu egiten du, ekainaren 28an fusilatua izan zela baitio)[402]. Irailean hasi ziren Melgosaren heriotza argitzeko eginbideak, Donostiako epaitegi batean. 1938ko abuztuaren 30ean, ikerketek emaitza eman zuten: Melgosaren heriotza eragin zuen autoak M-38.905 matrikula zuen, eta Artilleria Astuneko teniente batek gidatzen zuen. Teniente hori Jabier Maritxalar Bruguera zen, eta 1938ko urriaren 21ean, Sorian kapitain bezala zebilen (urriaren 21ean Donostiako Artilleria Astuneko unitatearen teniente-koronelak Donostiako 4. zk.dun Epaitegi Militarrari bidali zion dokumentuaren arabera; hala ere, Maritxalarrekin batera zihoan alfereza nor zen ez zegoen jakiterik). 1938ko urriaren 31n, Jabier Maritxalarren kontrako eginbideez gain, Beasaingo bi herritarrei buruzko eginbideak ere egin ziren, Isidoro Cuñado eta Eujenio Calvoren inguruan hain zuzen ere, horiek lekuko bezala agertuz (Cuñado eta Calvo, Melgosaren lagunak ziren, Melgosa autoak harrapatzerakoan berarekin zeudenak). 1938ko azaroaren 10ean, Maritxalarrek bere deklarazioan esan zuen berarekin batera zihoan alfereza, Alfontso Martos Zabalburu zela, eta heriotza Beasainen izan zela "ezkerrerako bihurgune batean (egungo Iturriotz kalean, planoak ere azaltzen dira) "errepidearen ondoan horma baten atzetik umeak bata bestearen atzetik korrika atera zirenean". Maritxalarren arabera, lehenik, Beasainen artatu zuten Melgosa, CAFen, baina hango medikuak Donostiara eramateko esan omen zien. 1938ko azaroaren 13an, Alfontso Martosek esan zuen heriotza Beasainen izan zela eta euren autoak orduko 40 kilometroko abiadura zeramala, ume batzuk korrika errepidera atera zirela "horma baten atzetik (…) beraz, errepidera agertu aurretik ezin izan genituen ikusi". Martosen arabera, Maritxalarrek autoa biratu zuen, "baina umeetako bat harrapatu zuen (…) hori saihesteko ahalegina egin zuen arren". Martosek gaineratu zuen segituan kamioi batean Melgosa Donostiako erietxera eraman zutela[403]. Isidoro Cuñadok eta Eujenio Calvok ere esan zuten, errepidera (Ezkiabaso aldetik) korrika atera zirela, autoa zetorrenaz konturatu gabe. Azkenean, 1938ko abenduaren 5ean Pedro Gual epaile instruktoreak gertatutakoa "zoritxarreko gertaera" izan zela ondorioztatu zuen eta Maritxalarrek ez zuela errurik esan zuen. Beraz, azkenean, Maritxalar zigorrik gabe gelditu zen[404].

Bai militarren zein Melgosarekin batera zeuden lagunen adierazpenek bat egiten dutenez, frogatutzat eman dezakegu gertaera hori istripua izan zela, ez erailketa. Nahiz eta onartu epaileek Melgosaren heriotza ekarri zuen autoz harrapatzea eta horren erantzule zen Jabier Maritxalar tenientea, "zena zelako" modu "leunegian" epaitu zutela pentsatzeko aukerarik badagoen (hipotesi bezala ari gara, halakorik ez baitugu frogatu); kasu hori ez zen erailketa izan.

1.5.a.II) Epaiketa ostean fusilatutakoak

Bost izan ziren Beasainen, guk dakigunez, epaiketa ostean hil zituzten pertsonak. Horietako hiruz jada mintzatu gara; frontean hil zituzten Lazaro Cebrian Blanco, Valerio Polo Carrascal eta Jose Ibarbia Untzueta. Bereziki krudela izan zen Valerio Poloren kasua, izan ere, bera epaitu eta exekutatu ostean, 1938an beste kausa bat zabaldu baitzioten. Horrez gain, frontetik kanpo beste bi beasaindar izan ziren epaiketa ostean hilak, hauek biak Felix Gaztañaga (1939an) eta Jesus Larrañaga (1942an) izan ziren.

Felix Gaztañaga Urrutia Tolosan bizi zen 1936an. Iñaki Egañak dioenez, "latorrigilea" zen lanbidez[405]. Ferrolgo Artxibo Militarean agertzen den kausaren arabera, "iturgina" zen, 26 urte zituen eta Gazteria Sozialistetako kidea zen (eskuindar lekuko batzuen arabera, "Gazteria Sozialistako burua" zen. 1934ko iraultzan Tolosan izan ziren gertakarien inguruan ere kondenatua izan zen. Bazuen anaia bat, Luis Gaztañaga, Tolosako Eusko Abertzale Ekintzako buru zena). Tolosan, 1936ko apirilean PSOEk, UGTk eta Gazteria Sozialistak, Tolosako Batzorde Iraultzailea sortu zuten eta, praktikoki, 1936ko uztail-abuztuetan Tolosako agintaritza izan zen Batzorde hori (Tolosako Herri Frontearen Batzordea, errepublikanoak, sozialistak eta abertzaleak biltzen zituena, ez zen guda hasi eta egun batzuk pasatu arte sortu). Mikel Errazkinen arabera, Batzorde Sozialista Iraultzaileak "Fronte Popularraren Batzordearen jarduera iradoki eta gidatzen zuen"; eta armak ere lortu zituen Tolosa defendatzeko, Guardia Zibilari berari ere aurre eginez[406]. Batzorde Sozialista Iraultzaile horrek agindu zuen Tolosan 200 eskuindar atxilotzea, Tolosako PSOEren Herriko Etxean sartuz lehenbizi, eta geroago, beste indarren adostasunez, kartzelara eramanez. Akusazioaren arabera,

[402] Espainiako Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia. Gipuzkoa 2439-39. kausa, Anjel Melgosa Markinaren heriotzari dagokiona.

[403] Espainiako Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia. Gipuzkoa 2439-39. kausa, Anjel Melgosa Markinaren heriotzari dagokiona.

[404] Espainiako Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia. Gipuzkoa 2439-39. kausa, Anjel Melgosa Markinaren heriotzari dagokiona.

[405] EGAÑA, Iñaki: *1936. Guerra Civil en Euskal Herria.* (IV. lib., *La Guerra en Gipuzkoa*). Aise liburuak. Andoain, 1999, 208. or.

[406] ERRAZKIN AGIRREZABALA, Mikel: *Los nombres de la memoria, Tolosa 1936-1945* (I lib., *La represión y la vulneración de los derechos humanos durante la Guerra Civil y el Primer Franquismo*). Tolosako Udala eta Aranzadi. Tolosa, 2013, 56-57. or.

or.

Felix Gaztañaga zen kartzela zaintzearen arduradunetako bat[407]. Gaztañagaren kontrako kausaren arabera, 1937ko urriaren 21ean izan zen atxilotua –Asturiasen– eta Santoñako kartzelan sartu zuten; 1938ko urtarrilean Bilboko Eskolapioen komentuko kartzelara pasatu zuten eta 1938ko urriaren 28an sartu zuten Donostiako Ondarretako presondegian. Bere aurkako epaiketa 1939ko urtarrilaren 20an hasi zen, Felipe Cubas artilleriako kapitaina epaile zela. Gaztañagari 1936ko uztailaren 31n Tolosako kartzelatik atxilotuta 13 karlista atera eta Donostiara eramaten parte hartzea[408], eta abuztuaren 5ean Tolosako preso eskuindar bati, Jabier Fernandez de Eskideri, fusilatzeko mehatxua egitea leporatu zioten. Akusazioaren arabera "frogatua" zegoen lekuko batek esandakoa: Gaztañaga Urrutiak bost minutu ematen zizkiola eskuindarrek armak non gordetzen zituzten esateko, bestela fusilatu egingo zuela esanez. Beste eskuindar preso batek, Eusebio Larretak, Gaztañaga "presondegiko buru" zela esan zuen[409]. Geroago, Felix Gaztañaga gudan ibili zen, Rusia batailoiaren parte zela, "Gijoneraino borrokatu zuen" eta han atxilotu zuten. Mikel Errazkinen ikerketa-lanaren arabera, ordea, heriotza horiek Batzorde Sozialista Iraultzaileko lehendakari Andres Subtilek eta idazkari Frantzisko Garcia Labidek agindu zituzten; ez Felix Gaztañagak. Errazkinen arabera, heriotza horiek, aurreko egunetan altxatuek Beasainen egindako sarraskiaren mendeku-dinamika batean ulertu behar dira, altxatuen sarraskiak, iraultzaileen aldetik "bat-bateko justizia" egitea (beraz, Estatu errepublikanoaren arauak errespetatu gabeko justizia) bultzatu zuten-eta[410]. Gaztañagarengana itzuliz, 1939ko maiatzaren 9an eman zen epaiaren arabera, heriotza-zigorrera kondenatu zuten, fiskalak 30 urteko kartzela-zigorra eskatu bazuen ere eta "epaituak erantzukizun pertsonal handia izan zuela adierazi zuten"[411]. 1939ko azaroaren 13an izan zen exekutatua, Donostian, eta Polloeko hilerrian identifikatu gabeko hobi batean lurperatua. Mikel Errazkinen arabera, Tolosako orduko behin-behineko alkate Rafael Ariztiak kommutazioa eskatu zion Francori, baina hark muzin egin zion heriotza-zigorra aldatzeari[412].

Jesus Larrañagaren exekuzioa 1942ko urtarrilean izan zen. Jose Antonio Egidoren arabera, 1936ko Gudaren bukaeran, "Espainiako Alderdi Komunista barnealdean antolatzeko ardura eman zioten". Egidoren arabera, Larrañaga azken hilabete horietan (PCEko zuzendari gehienak jada erbestera joanak ziren); "Alderdi Komunistako zuzendari nagusi izan zen praktikoki"[413]. 1939an, gudaren azken egunetan, Alacanteko portuan atxilotu zuten baina bere atxilotzaileek ez zuten bere identitatea ezagutu eta Albacete inguruko kontzentrazio eremu batean sartu zuten. Hala ere, susmoren bat bazuten faxistek, eta hori zela-eta, espioiak bidaltzen zituzten kontzentrazio-eremura presoz mozorrotuta, Larrañaga nor zen antzemateko[414].

Larrañagak erbesteko ibilaldi bat hasi zuen; Ipar Euskal Herrian, Dominikar Errepublikan (Dominikar Alderdi Komunista sortzen lagundu zuen) eta Kuban egon zen. Hala ere, 1941ean, Espainiar Estatuaren barnealdera itzultzeko agindua jaso zuen, Espainia barneko erakunde komunista birsortzeko egitekoarekin. Erabaki hori zehatz-mehatz nola hartu zuen, ez dakigu, kontuan izanik, guda ondorengo lehen urteetan Alderdi Komunista zuzendaritza-zentro bakar bat gabe, eta hierarkia argirik gabe gelditu zela. Egido Siguenzaren arabera, PCEren Latin Amerikarako arduradun Bizente Uribe Galdeanok (euskalduna hura ere) hartu zuen erabakia. Uriberen eta *Goierri*ren arteko harremanak txarrak omen ziren. Migel Amilibiaren arabera, Santiago Carrillo izan zen horren erantzulea. Bai Amilibiak berak zein Larrañagaren familiak, erabaki hori, halako zuzendari ezagun bat berriz Espainiara bidaltzea, Rosa Larrañagaren hitzetan, "hiltegira bideratzea" izan zen, "urte batzuk geroago Grimaurekin egin zuten moduan". Amilibiaren ustez erabaki horren atzean "Larrañaga paretik kentzea egon zen, Euskal Alderdi Komunista bat, PCEri federatua (Kataluniako PSUCen antzeko harreman mota izango zuena) sortzea ezinezko gerta zedin"[415].

Maiatzean Portugalera iritsi zen Larrañaga beste komunista talde batekin (tartean beste euskaldun bat zegoen, Imanol Asarta hernaniarra). Han Portugalgo Alderdi Komunistako militante baten etxean hartu zuten ostatu. Baina Espainiar Estatuan izan ziren erorketa batzuk medio, 1941eko urrian atxilotuak izan ziren eta Valença do Minho hiriko muga-pasabidean portugaldar poliziak DGSren eskuetan utzi zituen. Madrilgo Porlier kartzelan kartzelatu zituzten.

---

[407] Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia. Gipuzkoa 14346-38 kausa, Felix Gaztañaga Urrutiari dagokiona.

[408] Jabier Fernandez de Eskide, Eusebio Larreta eta Migel Lumbreras lekukoek, egun hartan eskuindar preso izandakoek, hori deklaratu zuten epaiketan.

[409] Espainiako Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia. Gipuzkoa 14346-38 kausa, Felix Gaztañaga Urrutiari dagokiona.

[410] ERRAZKIN AGIRREZABALA, Mikel: *Los nombres de la memoria, Tolosa 1936-1945* (I lib., *La represión y la vulneración de los derechos humanos durante la Guerra Civil y el Primer Franquismo*). Tolosako Udala eta Aranzadi. Tolosa, 2013, 57.-59. or.

[411] Espainiako Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia. Gipuzkoa 14346-38 kausa, Felix Gaztañaga Urrutiari dagokiona.

[412] ERRAZKIN AGIRREZABALA, Mikel: *Los nombres de la memoria, Tolosa 1936-1945* (II lib., *Listado de personas represaliadas y participantes durante la Guerra Civil*). Tolosako Udala eta Aranzadi. Tolosa, 2013, 146. or.

[413] EGIDO SIGÜENZA, Jose Antonio: *Jesus Larrañaga*. (Beasaingo Paperak bildumako 2. zk.). Beasaingo Udalaren Kultura Batzordea. Beasain, 1993, 105. or.

[414] Rosa Larrañaga Agarristari eta Miren Atxaga Larrañagari egindako elkarrizketa. Gasteizen, 2015-05-26an; eta EGIDO SIGÜENZA, Jose Antonio: *Jesus Larrañaga*. (Beasaingo Paperak bildumako 2. zk.). Beasaingo Udalaren Kultura Batzordea. Beasain, 1993, 125.-126. or. Egidok Zapirain aipatzen du ihesari buruzko beste datu bat emateko: "Pixa egiten paratu zenaren itxurak egin zituen Larrañagak ihes egiteko".

[415] Rosa Larrañaga Agarristari eta Miren Atxaga Larrañagari egindako elkarrizketa. Gasteizen, 2015-05-26an; eta EGIDO SIGÜENZA, Jose Antonio: *Jesus Larrañaga*. (Beasaingo Paperak bildumako 2. zk.). Beasaingo Udalaren Kultura Batzordea. Beasain, 1993, 132. or.

1942ko urtarrilaren 19an, Aymar koronela buru zuen epaitegi militarrak Larrañaga, Asarta eta beste bost komunista heriotzara kondenatu zituen. Esan beharra dago, Larrañagaren inguruan izan ziren ikerketetan, epaitegi frankistak ez zuela frogatzerik izan hura 1936ko uztailaren bukaeran Donostian ezkertiarrek Ondarretako kartzelaren kontra egin zuten erasoa antolatzearen arduraduna izan zenik eta "susmagarri" soil moduan gelditu zitzaiela. Aipatu behar dugu halaber, epaiketa horretan Larrañagaren kontra deklaratu zutenetako bat Migel Ibañez de Opakua Lartzabal izan zela, infanteriako komandantea eta Beasainen altxatuek hil zuten Luis Ibañez de Opakuaren (mikeletea) anaia. Ibañez de Opakuak, Larrañagari Hondarribian bera eta Roldan izeneko almirante bat atxilotzea leporatu zion, baina hori ere ez zen frogatua izan[416]. Beraz, dirudienez, kasu honetan ere, fusilatzea erabat politikoa izan zen, akusatua politikari komunista moduan izan zen fusilatua, ez egindako delitu zehatzengatik. Urtarrilaren 21ean izan ziren exekutatutak Larrañaga eta bere bost burkideak (batek azken unean indultua jaso zuen).

Jesus Larrañagaren heriotza, SESBen zegoen bere familiari ez zitzaion behar bezala jakinarazi. Jose Antonio Egidoren arabera, PCEk *Goierri*en kartak ere ezkutatu egin zizkion familiari. Rosa Larrañaga eta Miren Atxaga oso kritiko agertu dira orduko PCEren zuzendaritzarekin "guk informazio bakarra Espainiako Alderdi Komunistaren aldetik jasotzen genuen, baina ez ziguten askorik ematen. Ez gintuzten ondo tratatu, baztertu egin gintuzten. Aitaren heriotza jakinarazi besterik ez ziguten egin". Agian hori izan daiteke Larrañagaren alabak eta Atxagak PCEn sekula militatu ez izanaren arrazoia: "gu komunistak izan gara beti, baina espainiar komunistekin sekula ez dugu tratu handiegirik izan, ez Errusian ginenean, ez hemen"[417].

Exekutatutakoen artean, bereziki krudela izan zen Valerio Poloren kasua, izan ere, bera epaitu eta exekutatu ostean, 1938an beste kausa bat zabaldu zioten. Kausa horren dokumentuetan agertzen da, 1938ko apirilaren 26an alkateak sinatu zuen txosten baten arabera "ez zekiela Valerio Poloren bizitokia zein zen". Kausa horrek bere bidea egin zuen (Santandertik Bilbora eraman zuten, eta 1938ko urrian, kausa Gipuzkoara aldatzeko akordioa ere hartu zuten epaitegiek), harik eta 1940ko uztailean errebeldian deklaratua izan zen arte[418]. Hori muturreko kasu bat izan zen, baina izan zen bigarren kasu bat ere, non jada hildako pertsona baten inguruko ikerketak egin ziren: Karlos Gonzalez Garzon Guardia Zibileko kaboaren edo kaporalaren inguruan (hau, Valerio Polo ez bezala, ez zen exekutatua izan, baizik eta gudan hil zen). Gonzalezen kasuan, Felipe Buenoren kausaren barruan, Ataungo Kaxetako zubia botatzerakoan zer-nolako zerikusia izan zuen jakin nahi izan zuten agintariek (agindua berak edo Ordiziako postuko buru zen Anjel Latorrek eman ote zuen, hain zuzen ere)[419].

1.5.a.III) Aratz-Matxinbentako gerrillariaren heriotza

Beasaingo historian orain arte ezezaguna edo ia ezezaguna den pasarte bat jakin izan dugu Xanti Lasa Aranbururen ahotik. Berak esanaren arabera, "gure baserri Endrioko beste bizitzakoek kontatu didate, orain eurak hilda daude". Lasa Aranbururen arabera, guda pasatu eta urte batzuetara (zoritxarrez ez du datarik adierazi), Aratz-Matxinbentan bere amonak, "aitaren amak, karlista zenak", bi gerrillari ikusi zituen, eta ordena publikoko indar armatuei parte eman zien (ez digu adierazi salaketa formala izan zen edo "jakinarazi" besterik ez zuen egin). Beraz, poliziak bi gerrillari horiek harrapatu eta Matxinbentan bertan hil zituen, "ez dakit zehazki non". Xanti Lasaren arabera, "hori ez da gozoa gure familiarentzat, baina esan eta jakin beharra dago Aratz-Matxinbentan hildako bi pertsona daudela". Gerrillari horiek ez ziren herrikoak, "asturiarrak-edo izango ziren"[420].

Guk honen inguruan aurkitu dugun gauza bakarra, 1938ko ekainaren 16an Beasaingo Bake Epaitegian dagoen ezezagun baten heriotzaren erregistroa da. Erregistro horren arabera, ezezagun hori, aurreko egunean, 1938ko ekainaren 15ean hil zen. Erregistroaren arabera, hildakoak 1,85 zentimetro neurtzen zituen eta "25 eta 30 urte artean zituenaren itxura" zuen. Dokumentuak dio "arratsaldeko lauetan", "herritik kanpo", "balek egindako zauriez" hil zela; eta Aratz-Matxinbentako hilerrian lurperatzea agintzen zuen (erregistroaren lekuko bakarra, orduko mediku titularra, Hilario Urteaga Otegi izan zen)[421]. Egia esan, deskribapenak (gizon gaztea), hiltzeko moduak (bortizki) eta lurperatze-tokiak (Aratz-Matxinbenta) bat egiten dute Xanti Lasa Aranburuk emandako testigantzarekin; baina hori ez da froga zehatz eta eztabaidaezina eta are gehiago, desadostasun bat ere badago: data horretan gizon bakarraren heriotza erregistratu zen eta Lasa Aranbururen testigantzak bi gerrillari aipatzen ditu[422].

---

[416] Espainiako Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia. Gipuzkoa 4135-42 kausa, Jesus Larrañaga Txurrukari dagokiona.

[417] Rosa Larrañaga Agarristari eta Miren Atxaga Larrañagari egindako elkarrizketa. Gasteizen, 2015-05-26an; eta EGIDO SIGÜENZA, Jose Antonio: *Jesus Larrañaga*. (Beasaingo Paperak bildumako 2. zk.). Beasaingo Udalaren Kultura Batzordea. Beasain, 1993, 134. eta 142. or.

[418] Espainiako Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia. Gipuzkoa 11946-38 kausa, Valerio Polo Carrascali dagokiona

[419] Espainiako Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia. Gipuzkoa 3088-38 kausa, Felipe Bueno Arizmendiri dagokiona.

[420] Xanti Lasa Aranburuari egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-08-05ean.

[421] Beasaingo Bake-Epaitegia. Erregistro Zibila, 1938-06-16koa.

[422] Xanti Lasa Aranburuari egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-08-05ean.

or.

1.5.b) Epaituak, kartzelatuak eta langile-batailoietara eramandakoak

Halere, gudako errepresioa ez zen soilik heriotzetara mugatu. Kartzeletan, kontzentrazio-eremuetan, lan-batailoietan eta abar izandako pertsonen kopurua ere oso handia da. Jabier Rodrigoren arabera, *gudaren ondoren*, gutxienez 300.000 preso pasatu ziren kartzeletatik. Kontzentrazio-eremuetan guztira, 500.000 preso egon ziren; orotara 180 eremu eraiki ziren (180 horietatik 104 "egonkorrak" izan ziren)[423]. Halako eremuak zabaldu izanak erakusten du zeinen masiboa izan zen jazarpena Francoren Espainian.


Bilbao-4-6-39
Sta Mª Luisa Fernandez
Estimada Mª Luisa: Transcurridos dos meses que recibí su atenta del 5 de abril y no pudiendo contestarle por encontrarme muy ocupado en mi tarea como V. bien sabe y no pudiendo hacerlo hasta hoy y creo me perdonará mi tardanza. De José le digo que sigue en Rioseco aquí le mando su dirección Campo de Concentración el Canal Medina de Rioseco Valladolid y su hermano está en el mismo sitio ahora que sus señas son Galería 1ª Sala 5 y se encuentra muy bien

También le digo que me extraña mucho el con[illegible] de Celarcedino de [illegible]; en fin el sabrá lo que hace pues el colchón era de él, pero ami me ha parecido muy mal lo que ha hecho con Vds, y de escribir me parece que con todos hace igual pues tampoco ami me ha escrito. Los recuerdos que me decía para mi casa ya los he reiterado la que me ha contestado mi hermana que [illegible] cumpla con Vds cuando le escriba.
Debo de manifestarle que creo me perdonará el nuevo trato de la primera carta mía; y a la segunda también le conteste pero por lo visto no ha recibido. Sin mas con gratos recuerdos para toda la familia y V. reciba el afectuoso saludo de Cecilio

Preso beasaindar batek, Zezilio Sarriegik, kartzelatik idatzitako gutuna (Asturiasen baserrian hartu zituzten familiako Maria Luisa Fernandezi).
(Gutuna: Andoni Sarriegi Eskisabelek utzia)

Lehen aipatu dugu, 1936ko abuztu partean Beasaingo kartzelan sartu zituzten presoak, irail-urri aldera aske utzi zituztela (baina horietako bi, Gregorio Begue eta Viktoriano Oñatibia, fusilatu egin zituztela ere esan dugu). Hala ere, horrek ez du esan nahi Beasaingo Udal-kartzela hutsik geratu zenik. Izan ere, hurrengo urteetan ere presoz bete zen eta presoetako asko preso politikoak izan ziren. 1937 eta 1938 artean, herriko kartzelan 43 preso egon zirela baieztatzen digun dokumentu bat ere badugu gure eskuetan[424]. Horien artean Julian Onesimo (bere seme Ignazio eraila izan zen), Telesforo Gomez Artze sozialista ezaguna (1934ko greban parte hartu zuena) eta Endrike Zubizarreta Zabalo jeltzalea ditugu[425]. Preso horiek denak epailearen aurrean jarri zituzten, beraz, pentsatzekoa da euren kontra karguak izan zirela, frankistentzako epailearen aurrera eramateko modukoak (ez ziren izan soilik borroka bat zela-eta kartzelatuak; gerora guda-kontseilua egin baitzitzaien). 1939ko otsailean, Beasaingo alkateak sinatutako dokumentu baten arabera, 1936ko abuztuaren eta 1938ko azaroaren artean atxilotutako preso politikoen gastua, 11.023,05 pezetakoa izan zen[426]. Guridiren arabera, preso batzuek kartzelan zeudela lan egiten zuten.

Onesimo, 1938ko maiatzaren 6an sartu zuten Beasaingo kartzelan[427] eta 1938ko uztailaren 12an irten zen bertatik[428]; baina antza denez, aurretik ere hainbat aldiz izan zen atxilotua, "tropak Beasainen sartu zirenean ere bai" (orduko Falangeko buru Migel Cerrajeriak esan zuen Iruñera eramana ere izan zela, eta 1938ko sententzian ere hala azaltzen da, San Kristobalen ere egon zela[429]); beraz, pentsa dezakegu, hasierako hilabeteetan Beasaingo kartzelan izan zen 20 pertsonako talde harekin egon zela[430]. Julian Onesimoren kontrako guda-kontseiluaren arabera, 1937ko irailean atxilotu zutela kontuan hartuta, 1938ko abuztuan "behin-behineko espetxealdiaz" zigortua izan zen[431], eta 1938ko azaroaren 26an, Rafael Barrio Salamanca epaile militarrak urtebeteko kartzela-zigorra ezarri zion Onesimori. Puntu honetan datuak apur bat nahastu egiten dira: bere kontrako kausaren arabera, 1937tik atxilotuta egon zenez, eta "ezarritako zigorra betea zuenez", 1938ko abenduaren 3an askatua izan

[423] RODRIGO, Javier: *Hasta la raíz. Violencia durante la Guerra Civil y la dictadura franquista.* Alianza argitaletxea. Madril, 2008, 27. eta 112. or.
[424] Beasaingo Udal Artxiboa. 2112. karpeta, 63. dokumentu-sorta.
[425] Beasaingo Udal Artxiboa. 2112. karpeta, 63. dokumentu-sorta; eta Beasaingo Udal Artxiboa. 3762. karpeta, 74. dokumentu-sorta.
[426] Beasaingo Udal Artxiboa. 545. karpeta, 43. dokumentu-sorta.
[427] Beasaingo Udalaren arabera: Beasaingo Udal Artxiboa. 2112. karpeta, 63. dokumentu-sorta.
[428] Beasaingo Udal Artxiboa. 2112. karpeta, 63. dokumentu-sorta.
[429] Espainiako Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia, Gipuzkoa 2458-38 kausa, Julian Onesimo Palaciosi dagokiona.
[430] Espainiako Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia, Gipuzkoa 2458-38 kausa, Julian Onesimo Palaciosi dagokiona.
[431] Espainiako Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia, Gipuzkoa 2458-38 kausa, Julian Onesimo Palaciosi dagokiona.

zen (kartzelako zuzendaritzak 1938ko abenduaren 3an Guardia Zibilari aske geratzear zegoen Julian Onesimo zaintzeko eskatu zion)[432]; baina bere biloba Ramon Perez Onesimoren arabera, bertan, Ondarretan, preso zegoela hil zen[433]. Julian Onesimoren kontrako kausan, pertsona hori 1939ko otsailaren 4an berriro Nikanor Porres epailearen aurrean agertu zela azaltzen da. Porresek bere aurkako behin betiko epaia jakinaraztera zihoala aipatu zion eta behin betiko askatasuna eman zion (dokumentuan, Julian Onesimo beraren sinadura azaltzen da)[434]. Beraz, litekeena da, geroago berriz ere atxilotua izatea (1939ko apirilean beste eginbide batzuek hasita agertzen da[435]), edo, kasu batzuetan gertatzen den moduan, "oroimenaren nahasketa" kasu batean aurkitu izana (guk ez dugu Julian Onesimoren kartzela-fitxarik aurkitu, atxilotua Ondarretan preso egon zen arren). Julian Onesimoren beste seme bat, Aurelio ere, Langileen Batailoietan ibili zen[436].

Hala ere, gehienetan, frontean atxilotu zituzten presoek pasatu zuten okerren eta horietako gehienek kartzela-zigor gogorrak jaso zituzten; asko, kontzentrazio-eremuetara edota lan-batailoietara bidaliak izan ziren. Izan ere, kontzentrazio-eremuen sarea, batez ere, gudan preso hartutako soldadu errepublikanoak atxilotuta edukitzeko muntatu zen; sare horren zabalkundea, batez ere 1937ko udan egin zen (nahiz eta lehenengo kontzentrazio-eremuak 1936an sortuak izan)[437]. Halako kasua da, esaterako, Anjel Ruiz de Apodakarena, zeina frontean atxilotu ondoren, Teruelgo probintziako Calamocha herrian zegoen kontzentrazio-eremura eraman zuten, "1940. urte inguruan atera zen handik"[438].

Lamata familiak ere halako kasu bat izan zuen. Familia horretako bi seme Tomas eta Frantzisko preso hartu zituzten, biak izan baitziren Eusko Gudarosteko kide. Frantzisko Lamata, Kantabrian izan zen atxilotua eta hainbat kartzelatan egon behar izan zuen: Kantabrian, Bilbon eta Cadizen. Familia horretako arreba baten, Luziaren, senarra, Timoteo Alonso ere, preso egina izan zen eta langile-batailoian ibili zen Asturiasen. Bera preso zegoela jaio zen haren semea, gure proiektu honetan lekuko izan den Jose Maria Alonso Lamata: "ez zioten seme jaioberria ikustera etortzen ere utzi, amak joan behar izan zuen Asturiasera hura ikustera"[439]. Antzeko kasu bat, gertatu zitzaien Alfontso Ibaibarriagari eta bere emazte Kristina Usabiagari. Lehena Kantabria eta Asturias artean harrapatu eta Santoñan preso zegoela, Kristina Usabiagak joan behar izan zuen haraino jaio berri zen Arantza Ibaibarriaga alabarekin[440].

Halako sufrikarioa pairatu zuen beste familia bat, Aranburu Aranburu familia izan zen, txistulariena. Familia hori, EAJko kide historiko Santiago Aranburu Otamendiren anaia batena zen (esan dugun moduan, Beasaingo kartzelan ere sartu zuten Santiago, altxatuek herria okupatu eta gutxira). Santiagoren Iloba haietako lauk "Endrikek, Luisek, Martinek eta orain gogoratzen ez dudan beste batek", abertzaleekin borrokatu zuten (bosgarren anaiak, Ramonek, "Txanbok", karlistekin borrokatu behar izan zuen). Santiagoren biloba Xanti Lasa Aranbururen arabera, laurek bukatu zuten Langile Batailoietan[441].

Gudariez gain, Eusko Jaurlaritzaren gerra-industriarako lan egin zutenak ere jazarriak eta atxilotuak izan ziren. Hori, besteren artean, Jose eta Zezilio Sarriegi Aldanondo anaien kasua izan zen, Bizkaitik Asturiasera industriarekin atzera eginda, Asturiasen atxilotuak izan ziren. Epaileak, "eskuineko bi pertsonen abalak" eskatu zizkieten beren buruak abalatzeko. Haiek jakitun ziren Jose Luis Guridi alkate zela. Orduan, bata Jose Luis Guridi eta bestea Santi-eneko Santiago Aranburu izendatu zituzten abalatzeko. Kasuaren epaileak "Guridi ezin da izan; atestatua berak sinatu du-eta" erantzun zien eta harrituta gelditu ziren. Proposatu zuten beste abalgilea Santiago Aramburu izan zen. Beasaindar horri Eusko Jaurlaritzaren kontrolpeko Bilbon zegoela, bi anaiek, Jose Ibarbiak lagunduta, ez zeukan nortasun-dokumentua lortzen lagundu zioten eta, hark, "esker onez", ziurtagiri bat sinatu zieten. Andoni Sarriegiren arabera, Zezilio Sarriegiren aurkako prozesuan, "akusazio faltsuak zeuden (…) sinatu zuen batek gero ez zegoela ziur, etab., esan baitzuen". Aranbururen agiriak arindu arren, Zezilio Sarriegi sei urte eta egun bateko kartzela-zigorraz zigortu zuten eta 30 hilabete egin zituen Bilbon, Larrinagan, gero Langile Batailoira, Zornotzara, bidali eta han beste hilabete batzuk egin zituen Estatuarentzako lanean, kobratu gabe. 1940ko azaroaren 29an irten zen behin-behineko askatasunarekin. Jose Sarriegi ordea, kartzela batetik bestera erabili zuten hilabete batzuez (Cardeñako San Pedroko kontzentrazio-eremuan ere egon zen) eta gero aske gelditu zen. Etxera itzultzean, ordea, beasaindar eskuindar batzuek bere kontrako salaketa berri bat prestatu zuten eta Ondarretako kartzelan beste 6 bat hilabetez egon ondoren, epaitu eta libre atera zen[442].

---

[432] Espainiako Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia, Gipuzkoa 2458-38 kausa, Julian Onesimo Palaciosi dagokiona.
[433] Ramon Perez Onesimori egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-07-30ean.
[434] Espainiako Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia, Gipuzkoa 2458-38 kausa, Julian Onesimo Palaciosi dagokiona.
[435] Espainiako Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia, Gipuzkoa 2458-38 kausa, Julian Onesimo Palaciosi dagokiona.
[436] Ramon Perez Onesimori egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-07-30ean.
[437] RODRIGO, Javier: *Hasta la raíz. Violencia durante la Guerra Civil y la dictadura franquista*. Alianza argitaletxea. Madril, 2008, 112. or.
[438] Pako Ruiz de Apodaka Galartzari egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-06-18an.
[439] Amaia Alonso Garateri, Jose Maria Alonso Lamatari, Sara Alonso Lamatari eta Angel Lamata Villahozi egindako elkarrizketa. Donostian, 2014-07-17an.
[440] Arantza Ibaibarriaga Usabiagari eta Pedro Maria Ibaibarriaga Usabiagari egindako elkarrizketa. Donostian, 2015-11-15ean.
[441] Xanti Lasa Aranbururi egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-08-05ean.
[442] Andoni Sarriegi Eskisabeli egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-06-06an.

or.

TRIBUNAL PERMANENTE DE JUSTICIA MILITAR
DE
GUIPÚZCOA

DON ANTONIO USANDIZAGA MARTINEZ, TENIENTE PROVISIONAL DE INFANTERIA, SECRETARIO RELATOR DE ESTE CONSEJO DE GUERRA.

CERTIFICO: Que el procesado en sumarisimo de urgencia nº **Sin Nº JOSE SARRIEGUI ALDANONDO** ha sido puesto en libertad.

Y para que conste y surta los efectos oportunos expido el presente en San Sebastian a **once de Mayo de mil novecientos cuarenta.**

Tribunal Permanente de Justicia Militar de Guipúzcoa

Antonio Usandizaga

Jose Sarriegi, Donostiako bigarren epaiketaren ondoren, behin betiko aske gelditu zela dioen agiria. (Agiria: Andoni Sarriegi Eskisabelek utzia)

Bestetik, Roman Unanue medikua, Beasainen egon zena ere, heriotzara kondenatu zuten, bere alaba Sara Unanue Lobetok esan digunaren arabera. “Por nacionalista, separatista y gran propagandista” kondenatu zuten[443].

Beste alde batetik, baditugu zenbait kasu, txostenak bata bestearen aurka ibilitakoak. Horietako bat izan zen Rafael Poloren kasua. Bere alaba Alizia Poloren arabera “dokumentu askotan agertzen ez zenez, ezin genuen frogatu kartzelan bost urte baino gehiago egin zituela”[444]. Dokumentu ofizialen arabera, Rafael Polo 1940ko martxoaren 21ean (Donostiako Probintziako Espetxearen, hots Ondarretako Espetxearen arabera)[445] gelditu zen libre edo 1941eko martxoaren 26an, Bilboko Guda Entzutegiaren arabera)[446]; Bizkaiko Gobernu Militarrak 1941eko apirilaren 21ean bere kontrako akusazioak sobreseitzea erabaki zuen. Hor, agian, urte bateko dokumentu gabeko “kartzela-aldi estra” dugu, inon agertzen ez dena.

Kartzelara joandako beste batzuen kasuak ere baditugu. Aipatzekoa da Pedro Aiesta jeltzalearena, Bilbon atxilotua izan eta Logroñon kartzela-zigorra jasandakoa[447]. Gasteizen ordea, preso egon zirenen artean, Jesus Ibarbia Untzueta jeltzalea, Jose Ibarbia fusilatuaren anaia[448] eta Jose Maria Lozares Escolar ditugu. Azken honen kasuan, ELAko Beasaingo tokiko lehendakari izateagatik atxilotu zuten. Bere alaba Maria Pilar Lozares Sarasketaren arabera, “bera ehizera joan zen, eta itzultzerakoan, ELAko lehendakari egin zutela enteratu zen, berak jakin gabe”[449]. Hala ere, gure dokumentuen arabera, 1935eko urritik gutxienez, Jose Maria Lozares ELAko Beasaingo lehendakari zen[450]. Litekeena da, hasiera batean, Lozares lehendakari aukeratzean, halako inguruabarrek zerikusia izatea (kontuan izan behar da 1935eko urrian, 1934ko gertakariak zirela-eta, Beasaingo ELAko figura nagusia, Jose Ibarbia, kartzelan zegoela), baina 1935etik 1936ra postuan mantentzeak Lozaresen konpromisoa ere erakusten du. Lozares Gasteizen sartu zuten preso, bere alabak esaten digunaren arabera “bai, preso eduki zuten, eta gure amaren arabera, hasieran heriotza-zigorra jarri zioten eta gero konmutatu egin zioten”. Egunez, Alde Zaharrera joan behar izaten zuen lanera, “bi soldaduk eskoltatua. Aita lanera sartzen zenean, eskoltak Alde Zaharrean zehar ibiltzen ziren. Behin berandu zetozela-eta, aitak joan behar izan zuen euren bila, bestela istiluren batean sar zitezkeen”: Lozares Escolar, halere, ez zen hain bakarrik egon, bere emaztea Gasteizko jatetxe batean, “La Marina” jatetxean hasi zen lanean; “bertako jabeak preso politikoen emazteak kontratatzen baitzituen”. Bestalde, Maria Pilar Lozaresen arabera, abertzale batzuek, egunero janaria botatzen zioten ziegako leihora, eta fardela botatzerakoan keinu bat egiten zuten. Nire aitak sekula ere ez zien aurpegirik ikusi”[451].

Jose Maria Lozares Escolar beasaindarra, kartzela-zigorraz zigortua.
(Argazkia: Maria Pilar Lozares Sarasketak utzia)

[443] Sara Unanue Lobetori egindako elkarrizketa. Donostian, 2014-10-01ean.

[444] Alizia Polo eta Mikel Apaolatzari eginiko elkarrizketa. Beasainen, 2014-07-30ean.

[445] Gipuzkoako Artxibo Historiko Probintziala (Oñati). 2782. karpeta, 050. espedientea.

[446] Aranzadi Zientzia Elkartearen Artxiboa. Rafael Polo Carrascali dagokion espedientea.

[447] Eleuterio Aiesta Kristobalenari egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-06-11n.

[448] Felipe Ibarbia Alustizari eta Maria Karmen Ibarbia Sarriegiri egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-06-19an; eta Maria Pilar Lozaresi egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-07-03an.

[449] Maria Pilar Lozaresi egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-07-03an.

[450] Beasaingo Udal Artxiboa. 059. karpeta, 57. dokumentua.

[451] Maria Pilar Lozaresi egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-07-03an. Maria Pilar Lozares Sarasketaren amaren familiaren aldean ere (familia hori andoaindarra zen), sufrimendu handia bizi izan zuten; osaba bat, Viktor Sarasketa Derion fusilatu zuten, torturatu ondoren. Beste bat, Sekundino, larri zauritua izan zen eta Santanderko erietxean zegoela, tropa frankistek erietxea asaltatu zuten. Ihes egiteko leihotik jauzi egin zuen, eta lurrean, zauritua zegoela, frankistek bertan erematatu zuten. Hirugarren anaia, Antonio gudan desagertu zen, eta laugarren anaia, Pedro, kartzelaz kartzela erabili zuten eta tuberkulosia gaixotasunaz kutsatu zen.

or.

Fronteetara, askotan, Beasaingo erreketeak joaten ziren errepublikaren aldekoak atxilotzera. Halako kasua izan zen, Inaxio Imatzena, zeina Epifanio Argiñanok eta "apaiz batek" lagunduta atxilotu zuten, Santoñan[452]. Antza denez, Joan Ramon Imatzen arabera, frankistak, Imatz fusilatzear egon ziren, "baina italiarrek haiek euren presoak zirela esan zuten eta horregatik ez zuten fusilatu".

Esan bezala, atxilotu gehienak, edo Beasaingo kartzelatik edo frontetik eraman zituzten kartzela frankistetara, kontzentrazio--eremuetara edota Langile Batailoietara. Hala ere, izan ziren salbuespen batzuk. Horietako bat, Viktor Bernedo alkate-ohiarena izan zen. Bilbon atxilotua zuten, baina bere adin nagusia zela-eta ez zen frontean ibili. Bernedori, atxilotua izan ondoren, heriotza-zigorra ezarri zioten, baina gero aldatu egin zioten bizi osoko kartzela-zigorragatik. Segovia eta Bilboko kartzeletan egon zen eta, 1944an, hil baino pixka bat lehenago, askatu egin zuten, jada oso gaixo zegoela. Hala kontatu digu Joxe Manuel Azurmendi Dorrontsorok, orduan udaletxean lan egin zuenak: "Ez da egia Viktor Bernedo alkate-ohia kartzelan hil zutela. Nik neuk egin nuen bitartekaritza kartzelatik atera zezaten"[453].

Ondoko herriei dagokienez, Nikomedes Zurututza lazkaotarra, Beasainen sustraiak zituena, Santoñan atxilotua izan zen eta ondoren kontzentrazio-eremu batean ere egon zen[454]. Bestela, badugu gerora Beasainen sustraiak egin zituen Eduardo Gamarra donostiarraren kasua ere. Pertsona hori, Gipuzkoa konkistatu ostean, Katalunian errefuxiatu zen, ahalik eta 1938an Seu d'Urgell herrian alistatu zen arte. "Atxilotu zuten arte Pirinio inguruan ibili zen, Frantziako muga zaintzen. 1940an atera zen kartzelatik"[455].

Frankismoaren garaian, kartzelen egoera, oso gaitza izan zen. Gehienetan, kartzelak, kontzentrazio-eremuak bezalaxe (gero ikusiko dugun moduan), gainezka zeuden eta ez zuten inolako gutxieneko zerbitzurik ere. Kartzelak ere, arbitrarietatearen zonaldea ziren, han gehiegikeriak eta bidegabekeriak egunerokoak izan ziren; presoentzako zen janaria funtzionarioek desbideratzetik hasi eta jipoiak eman eta erailketa batzuk egiterainokoak (hori, gehienetan, kanpoko familiekiko informazioa oso txikia izaten zenean gertatzen zen). Batez ere emakumeak izaten ziren okerren pasatzen zutenak, askotan bortxaketak egiten ziren, edota euren umeak lapurtu egiten zizkieten (batzuetan, ama hil ostean)[456].

Presoen kopuruak, beste erakunde errepresiboekin gertatu zen bezala, 1939an jo zuen goia eta 270.719 preso izan ziren, Espainiako Estatitika Urtekariaren arabera. 1940an 233.373 ziren presoak, eta hortik aurrera jaisten joan ziren kopuruak: 1941ean 159.392 ziren. Hala ere, estatistika horiek ez dira oso zehatzak: ez dituzte guda ondoren sartutako presoak kontuan hartzen, soilik gudan zehar preso egindakoetatik artean kartzelan gelditzen zirenak zenbatzen dituzte; kartzeletan amekin zeuden umeak ere ez dituzte zenbatzen[457]. Gainera, Ricard Vinyesek esaten duen moduan, ez zuten emakumezko- eta gizonezko-kopururik bereizten; hau da, ez zen inolako estatistika fidagarririk egin[458].


Bandaj 5 noviembre 1938

Sr. D. Cecilio Sarriegui

Apreciable Cecilio: Ricardo nos dió a todos mi nuevo estado pero que su ocurrencia nos agradó mucho, por saber de Ud; despues de transcurrir unos cuantos dias por deseo expreso de esta familia, que muy de veras les recuerdan, le pongo yo estas cuatro letras deseando que lleguen a sus manos rebosando tanta salud como gracias a Dios todos nosotros disfrutamos.

El mismo dia que recibimos noticias de Ud nos mandaban una carta devuelta de su hermano José no sabiendo nosotros por lo tanto de su paradero; asi que si Ud tiene oportunidad avísele o

da su direccion ya que él estará pensando en la de contestación que hemos procedido siendo todo lo contrario como queda dicho.

Cuando hemos sabido la pena que Ud le han señalado nos hemos alegrado lo indecible, yo francamente por mi parte todos los dias rezaba que Dios les diese luz a los que representan la justicia y lo he conseguido ya que lo que Ud puede permitar entre rejas será tanto como dure esta contienda luego alguna pida muy de veras que pronto esto se termina para que cada uno vuelva a su hogar y viva la vida digna que a todos nos está reservada. Confio en que pronto esto se termine y vengan por esta a pasar un rato recordando aquellos trágicos tiempos que quera Dios no vuelvan...

Toda la familia estamos bien gracias a Dios. De nuevo le digo que rece mucho ya que me parece que Ud está llegado a Dios.

Con muchisimos recuerdos de todos en particular muy afectuosos de mis padres y mi hermana que dejan en olvido los suyos ~~Ud Luis Fernandez~~

Asturiasko Maria Luisa Fernandezek preso zegoen Zezilio Sarriegiri idatzitako gutuna. (Gutuna: Andoni Sarriegi Eskisabelek utzia)

[452] Joan Ramon Imatz Crespori egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-08-05ean.

[453] Joxe Manuel Azurmendi Dorrontsorori egindako elkarrizketa. Donostian, 2014-09-10ean.

[454] Maria Ixabel Irizar Aranbururi eta Teresa Irizar Aranbururi egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-07-09an.

[455] Amaia Gamarrari egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-08-01ean.

[456] Kartzelen inguruko bibliografia: RODRIGO, Javier: *Hasta la raíz. Violencia durante la Guerra Civil y la dictadura franquista*. Alianza argitaletxea. Madril, 2008, 161. eta hurrengo or.; VINYES, Ricard: *Irredentas. Las presas políticas y sus hijos en las cárceles de Franco. Temas de Hoy*. Madril, 2002.

[457] RODRIGO, Javier: *Hasta la raíz. Violencia durante la Guerra Civil y la dictadura franquista*. Alianza argitaletxea. Madril, 2008, 165. or.

[458] VINYES, Ricard: Irredentas. *Las presas políticas y sus hijos en las cárceles de Franco*. Temas de Hoy. Madril, 2002.

Guztira, guk topatu dugunaren arabera, 95 beasaindar izan ziren guda-kontseiluetan epaituak. Gehienak, sozialistak ziren, Alderdi Sozialistan, UGTn edo bietan militatzen zutenak, edo horiekiko aldekotasuna izan zuten 95tik 38k. Gainera, beste hiru, zalantzarekin bada ere, talde horretan jar ditzakegu, 41 eginez. Hamazortzi *Izquierda Republicana*koak ziren, baina horietatik zazpik, alderdi errepublikanoarekin eta sindikatu sozialistarekin militantzia bikoitza zuten[459] (hemeretzigarren bat, Felipe Bueno Arizmendi "errepublikanoa" zen, baina afiliaziorik gabe). Horrez gain, beste bi pertsona "ezkerrekoak, definitu gabekoak" ziren; beraz, ezker erreformistaren esparruko kolore-doinu guztien artean, 62 beasaindar auzipetu aurkitzen ditugu. Hirugarren sektorea, abertzaleena dugu, eta EAJko edota ELAko 13 kidek eta aldekoa zen beste batek osatzen dute, 14 guztira. Ezker iraultzailearen bolumena, aldiz, oso txikia da: sei anarkista eta komunista bakarra (Jesus Larrañaga). Beste guztiak, afiliazio gabekoak, afiliazio ezezagunekoak, edo afiliazio definiturik gabekoak dira (adibidez, deklarazio eta txostenetan informazio kontraesankorra dago emanda).

Alfontso Ibaibarriagak Zezilio (Koikili) Sarriegiri kartzelara bidalitako postala. (Postala: Andoni Sarriegi Eskisabelek utzia)

Gure datuen arabera, 10ek heriotza-zigorra jaso zuten eta, esan bezala, horietatik 5 exekutatuak izan ziren. Beste 5 ez zituzten exekutatu: Bonifazio Apalategi Zurututza, Viktor Bernedo Zubiaurre, Balentin Gomez Artze, Santiago Juanes Duque eta Antonio Lorenzo Sanchez[460]. Azken 5 horietatik, 2 sozialista (Viktor Bernedo eta Balentin Gomez), abertzale 1 (Bonifazio Apalategi), anarkista 1 (Antonio Lorenzo) eta UGT eta *Izquierda Republicana*ren arteko militantzia bikoitza zuen pertsona 1 (Santiago Juanes) aurkitzen ditugu. Viktor Bernedo izan ezik, beste laurak milizianoak edo gudariak izandakoak dira.

Bonifazio Apalategi, jeltzalea, Olaberrian jaioa zen, 1909an (28 urte zituen kondenatu zutenean) eta Beasainen bizi zen familiarekin Ugartemendin. Gudari alistatu aurretik, Beasainen armekin ibili zen, altxatuak bertan sar zitezen galarazten saiatuz. Altxatuak Beasainen sartzerakoan, Azkoitirako eta Azpeitirako norabidean egin zuen ihes eta, azken herri horretan, gudari gisa alistatu zen; bere lehen borroka Mandubiko frontean izan zen. Han zauritua izan zen, eta alta jasotzerakoan, Amaiur

[459] UGT soilik kontatuz (PSOEkoak bakarrik zirenak kanpoan utziz), 95etik 42 sindikatu horretako militanteak edo aldekoak zirela esan dezakegu.

[460] Beasainekin nolabaiteko lotura zuen Esteban Asensio Areitzaga ere heriotza zigorraz kondenatua izan zen, baina gero aldatu egin zioten..

or.

batailoian sartu zen, eta beste fronte batzuen artean, Bizkargikoan eta Otxandiokoan borrokatu zuen. Bilbo ebakuatzerakoan, Kantabriarantz egin zuen, eta Santoñan atxilotua izan zen 1937ko abuztuaren 26an. Epaiketako epaia 1937ko irailaren 21ean heldu zitzaion eta heriotzara kondenatu zuten. Hala ere, egun batzuen buruan, urriaren 4an, aldatu egin zioten zigorra eta 30 urteko kartzela-zigorra ezarri zioten. 1943ko martxoaren 4an beste aldaketa bat egin zioten eta murrizketa berriarekin sei urteko kartzela-zigorra ezarri[461].

Balentin Gomez Artze, sozialista, Ordizian jaio zen 1911n, beraz 26 urte zituen kondena jaso zuenean. Postari gisa egiten zuen lan. Aurretik, 1934ko iraultza zela-eta ere, epaitua eta kondenatua izan zen. Beasainen armak hartzeaz gain, Beasaingo Defentsa Batzordeko kide ere izan zen. Horrez gain, batzuek, Donostian, Loiolako kuarteletan gertatu ziren borroketan parte hartzeaz akusatu zuten. Altxatuek Beasain hartzerakoan, Azpeitirako bidea hartu zuen eta handik Hernanira joan zen eta, Hernanin ere, armekin guardia egin zuen herri hura defendatzeko. Armadako kide gisa alistatua izan zen, eta bera ere Kantabrian atxilotu zuten 1937ko abuztuan. Beasaina itzultzeko salbokonduktua eman zioten, baina heltzerakoan, 1937ko irailaren 9an, berriro atxilotua izan zen. Hasiera batean, 1938ko maiatzaren 26an heriotza-zigorra ezarri zioten, baina 1939ko urriaren 1ean, 30 urteko zigorraz aldatu zioten, eta 1943ko urtarrilaren 18an, ostera aldatu eta 14 urteko zigorra ezarri zioten. 1943ko maiatzaren 14an atera zen kartzelatik, behin-behineko askatasunarekin[462].

Santiago Juanes Duque, politikoki *Izquierda Republicana*ko kidea eta sindikalgintzan UGTko kidea ere, Defentsa Batzordeko kide izan zen. Valladolideko Trigueros del Valle herrian jaio zen eta 26 urte zituen atxilotua izan zenean. Mekaniko gisa egiten zuen lan eta UGTko kide zen, baina politikoki, sozialista izan ordez, *Izquierda Republicana* alderdikoa zen. Herriko zenbait lekuko eskuindarrek Beasaingo Defentsa Batzordeko kide gisa atxiloketa batzuk egiteko agintzea leporatu zioten, berak hori ez zela egia esan zuen arren. Gudan Rusia batailoiko kide izan zen eta 1937ko uztailaren 26an Santanderren atxilotua izan zen. Bere aurkako heriotza-epaia 1937ko urriaren 22an izan zen diktatua, baina epai hori 1939an berrikusia izan zen. Santoñako eta Ondarretako kartzeletan egon zen bere kartzela-aldian[463].

Eta zerrenda hori bukatzeko, Antonio Lorenzo Sanchez anarkista dugu. Antonio Lorenzok 21 urte zituen atxilotua izan zenean. Hala ere, horrek ez du esan nahi Beasaingo defentsan paper garrantzitsurik jokatu ez zuenik, izan ere, armen bila Eibarrera joan zenetako bat izan zen. Gipuzkoan, Donostian, Zarautzen eta Deban borrokatu zuen, eta geroago, Bilbon *Malatesta* batailoiko kide egin zen. Asturiasen ere borrokatu zuen, euskaldunek Asturiasera egindako espedizioan. 1937ko uztailaren 26an Santanderren atxilotua izan zen. Bere aurkako akusazioan, urte horretako urtarrilaren 4an Bilboko Larrinaga kartzelaren aurkako erasoan parte hartzea egotzi zioten, baina bera gai izan zen orduan gaixo zegoela eta etxean egon zela frogatzeko. 1937ko azaroaren 30ean eginiko epaiketan heriotza-zigorra ezarri zioten, baina 1939ko abenduaren 18an, epaia berrikusi ondoren, hasieran epaileak bere kausaren sobreseimendua diktatu zuen. Hala ere, auditorearen kontrako iritzia zela-eta, bere egoera lauso gelditu zen eta kartzelan jarraitu zuen 1942. urtera arte. Bere presoaldian Santoñako, Bilboko, Burgosko, Santanderko eta Donostiako kartzeletan egon zen[464].

Ezberdina eta tragikoagoa izan zen Viktor Bernedoren kasua. Aurreko kapituluan azaldu dugun bezala, Viktor Bernedo, heriotza-zigorra ere aldatu zioten arren, 1944ko urte-bukaeran soilik irten ahal izan zen, jada gaixotasuna oso garatua zuenean eta praktikoki etxean hiltzera iritsi zen. 74 urte zituen hil zenean.

Beste seiri bizi arteko kartzela-zigorra (30 urteko zigorraren baliokide zena) jarri zieten: Frantzisko Escot Kintanari, Eujenio Etura Berasategiri, Roman Iglesias De la Rocari, Frantzisko Lamata Huergori, Konstantino Maiz Maizi, eta Rufino Sarasola Lasari[465]. Talde horretan, bi sozialista zeuden (Frantzisko Lamata eta Roman Iglesias), bi abertzale (Konstantino Maiz eta Rufino Sarasola), errepublikano bat (Eujenio Etura, UGTn ere militantzia zuena) eta anarkista bat (Jose Escot). Aipatu beharra dago halako kondena izan zuela hasieran Ignazio Cortesek ere, Defentsa Batzordeko kideak, baina bere aurkako epaia, Donostian 1940ko uztailaren 13an eman zena, epaitegiko auditoreak leungarriak kontuan hartu ondoren, urte horretako abuztuaren 10ean sei urteko kartzelaldian utzi zuen[466].

---

[461] Espainiako Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia. Santander 29-37 kausa, Bonifazio Apalategi Zurututzari dagokiona.

[462] Espainiako Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia. Gipuzkoa 41-38 kausa, Balentin Gomez Artzeri dagokiona

[463] Espainiako Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia. Gipuzkoa 11988-38 kausa, Santiago Gomez Duque dagokiona.

[464] Espainiako Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia. Santander 172-37 kausa, Bizkaia 11895-38 kausa, eta Gipuzkoa 3468-40 kausa, Antonio Lorenzo Sanchezi dagozkionak.

[465] Bizi arteko zigorra jaso zuten halaber Olaztin bizi ziren, baina 1936ko uztailean Beasain defendatzen lagundu zuten Jesus Garcia Atuñedo eta Jose Garcia Atuñedo anaiek. Espainiako Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia, Santander 268-38 kausa, Jose Garcia Atuñedori dagokiona.

[466] Espainiako Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia. Gipuzkoa 3044-40 kausa, Ignazio Cortes Ceballosi dagokiona

Zigor hori jaso zutenek kondena betetzeko egindako kartzelako egonaldia, bost urte ingurukoa izan zen (Jose Escoten kartzela-aldiaren bukaera jakiterik ez dugu izan; badakigu ordea, Santoñan atxilotua izan zela 1937ko abuztu-bukaeran, eta 1937ko irailaren 21ean jarri ziotela kondena[467]). Luzeena, gure datuen arabera, Frantzisko Lamatarena, izan zen, eta hura 1943ko abuztuaren 26an atera zen kartzelatik, 1943ko apirilaren 5ean zigorra berrikusia izan eta azkenean sei urtera zigortua izanda. Lamata Santoñan izan zen atxilotua, 1937ko abuztuaren 26an, eta urte horretako irailean eman zioten epaia[468]. Urtebete lehenago irten zen kartzelatik Eujenio Etura. Santanderren atxilotua izan zen lehenengo, baina Beasaina etortzeko salbokonduktu bat lortu zuen eta, herrira iristean, 1937ko irailaren 13an, berriro atxilotu zuten herrian. Eturari zigor-jaitsiera 1942ko otsailaren 25ean heldu zitzaion eta hamabi urteko zigorra ezarri zioten, baina hortik gutxira, apirilaren 23an aske gelditu zen[469]. 1937an epaia jasota, 1940an atera ziren Roman Iglesias, Konstantino Maiz eta Rufino Sarasola. Konstantino Maiz Bizkaian atxilotua izan zen, 1937ko ekainean eta bera izan zen hiru horietan epaia jasotzen lehena, 1937ko uztailaren 27an. 1940ko abuztuaren 31n atera zen kartzelatik, presoaldi arinarekin eta kondena 1943ko maiatzaren 10ean baliogabetu zioten[470]. Roman Iglesias eta Rufino Sarasola, biak, 1937ko abuztuaren 26an izan ziren atxilotuak: Santanderren lehena eta Santoñan bigarrena (Sarasola 1937ko irailaren 21ean kondenatu zuten[471] eta Iglesias 1937ko urriaren 7an). Biak 1940an irten ziren, baina oso modu ezberdinean, izan ere, Roman Iglesiasen kondena 1940ko urtarrilaren 4an baliogabetua izan zen, "delitu-zantzurik aurkitu ez zutelako"[472]. Rufino Sarasolarena, ordea, guztiz kontrako kasua izan zen. Santanderren eta Cadizen (Puerto de Santa Marian) igarotako kartzela-odisea baten ostean, familiak hura askatzeko ahalegin ekonomikoak egin ondoren, Roberto Begue Sarasolak esaten duen moduan "Beasaingo zenbait pertsona pisuduni; Aslari, Ezkiagari eta Untzuetari, dirua ordaindu behar izan zitzaien aldeko txostenen bat idatz zezaten"[473]; horren ondoren, kartzelatik ateratzea lortu zuen eta Nafarroako Lakuntzan jarri zen bizitzen. Beraz, ikusten dugun moduan, errepresioa, edo "errepresioaren inguruko kudeaketa" boterean zeuden pertsona batzuentzat diru-iturri ere izan zen; mesede baten trukeko ordainketa moduan edo xantaia moduan egiten bazen ere. Ordizian, antzeko kasu bat gertatu zen, Ramon Perez EAEko afiliatua kartzelan zegoela. Haren anaia bat (Francoren aldean borrokatu zuena) "portaera oneko ziurtagiriak" lortzen saiatu zen eta halakoa sinatu zuenetariko bat, Ordiziako FET-JONSeko Tokiko Buru Luzio Lekuona izan zen, baina baldintza bezala jarri zuen, Ramon Perezek, ebanista edo arotz onaren fama zuenak, bere aroztegian lan egin zezala[474]. Hori ez zen kasu guztiz isolatua izan eta Antonio Cazorlak kontatzen digun moduan, askotan jauntxoak izaten ziren (bai zuzeneko errepresioan, zein estraperloan), estatu-agintarien gainetik agin zezaketenak[475].

Rufino Sarasola. (Argazkia: Karlos Begue Aliendek utzia)

Hala ere, ez zen hor bukatu Rufino Sarasolaren sufrikarioa. Beasaina etortzen zen bakoitzean, "Beasaingo frankista batzuk, zigorra aldatzearren dirua jaso zutenak eta abar, osabaren

[467] Espainiako Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia. Santander 59-37 kausa, Jose Escot Kintanari dagokiona.

[468] Espainiako Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia. Santander 171-37 kausa, Frantzisko Lamata Huergori dagokiona.

[469] Espainiako Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia. Gipuzkoa 2110-38 kausa, Anjel Zufiaurre Caminori eta Eujenio Etura Berasategiri dagokiena.

[470] Espainiako Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia. Gipuzkoa 31-37 kausa, Konstantino Maiz Maizi dagokiona.

[471] Bere familiaren arabera, Rufino Sarasola ez zen izan bizi osoko kartzela-zigorraz kondenatua, baizik eta heriotza-zigorra ezarri zioten. Yolanda Begue Redondori eta Roberto Begue Sarasolari egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-06-27an.

[472] Espainiako Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia. Gipuzkoa 16440-39 kausa, Roman Iglesias De la Rosari dagokiona.

[473] Yolanda Begue Redondori eta Roberto Begue Sarasolari egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-06-27an.

[474] ASKOREN ARTEAN: *Ahaztuen mindura. 1936ko gerra eta frankismoa Ordizian*. Ordiziako Udala, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Aranzadi. Ordizia, 2014, 198. eta 199. or.

[475] CAZORLA SANCHEZ, Antonio: *Miedo y progreso. Los españoles de a pie bajo en franquismo, 1939-1975*. Alianza Editorial. Madril, 2016.

or.

atzetik ibiltzen ziren, probokatzen eta abar"[476]. Egoera horrek bukaera tragikoa izan zuen eta 1948ko Loinatz jaietan: Roberto Begueri hitza emanda, "barraketara joan nintzen osaba Rufinorekin eta biok noriara igo ginen. Bat-batean osabak pertsona bat, Santiago Muñoz Novillo[477], ikusi zuen Guardia Zibileko tenientearekin batera", Sarasola atxilotzeko asmoz zebiltzanak, antza denez. "Osabak ikusi zituenean, noriatik behera bere burua bota zuen…, ni heltzen saiatu nintzen, eta bere zapata eskuan nuela gelditu nintzen"[478]. Beraz, Sarasola bere buruaz beste egitera bultzatua izan zen. Roberto Beguek kontatzen duen moduan, "Muñoz, guardia zibilari "hori mozkortuta egongo zuan" esaten entzun nion, eta haren erantzuna "hi hago isilik, hik ez duk ezer ikusi!" izan zen. Urte batzuk geroago berdina errepikatu zuen, osaba mozkorra zegoela, nire aurrean, taberna batean. Heldu egin behar izan zidaten, bestela botila buruan hautsiko nion"[479].

Zigor handi samarra -10 urtetik gorakoa- jarri zieten halaber, hamaika beasaindarri, tartean Seberiano Azpeitia Artzelus alkateorde-ohiari eta, Seberianok, 14 urte eta 8 hilabeteko zigorra izan zuen[480]. Hamaika pertsonako taldetxo horretan, gehienak sozialistak ziren (hiru Alderdi Sozialistan afiliatuak eta beste bietatik bat UGTko kide soilik). Hiru errepublikanoak ziren (bik UGTn ere militantzia zuten, hirugarrena Seberiano Azpeitia zen), beste bat abertzalea, eta beste bik ez zuten afiliazio politikorik. Bestetik, guda-kontseiluak jasandako beste hamalau beasaindarrek, tartean lehen aipatutako Ignazio Cortesek, hamar urtetik beherako kartzela zigorra jaso zuten (*Izquierda Republicana*ko seik –tartean UGTko militantzia ere bazuten bik-, hiru sozialistek, bi jeltzalek, afiliazio gabeko batek, eta afiliazioa jakiterik izan ez dugun beste bik).

Guda-kontseilua jaso zuten 95etatik, 35 aske geratu ziren; horien artean, errugabetuak, kausa sobreseitua izan zutenak, kausa artxibatua izan zutenak, eta epaiketara iritsi aurretik, fiskalak edo instruktoreak delitu-zantzurik aurkitu ez eta aske gelditutakoak kontatu ditugu. Hala ere, horrek ez du esan nahi kartzela-zigorrik jasan ez zutenik, izan ere, horietako gehienak, epaiketa aurretik kartzelan egon ziren (eta gehienetan instrukzio-aldiak urtebete edo bi irauten zuen eta presoa kartzelan egoten zen). Kasu batzuetan, gainera, nahiko luzea izan zitekeen aldi hori: adibidez Ignazio Andiak[481], lau urte pasatu zituen kartzelan, eta beste hainbeste Manuel Gorrotxategik[482]; eta hiruna urte Jabier Jauregik[483], Servando Paredesek[484], Rafael Polok[485]… eta abarrek. Bi urte pasatuta, behin-behineko askatasunarekin soilik irten ziren adibidez Joan Aranburu Bustintza[486] eta Juan Aranburu Irizar[487]. Prozesuaren geldotasuna argitzeko, badugu adibidez, Felipe Bueno Arizmendiren kasua, zeina 1937an atxilotua izan eta, agian kartzelatik lehenago irten ahal izan zuen arren, bere kausaren sobreseimendua ez zen 1944ko urtarrilaren 25a arte iritsi[488].

Guztira 127 beasaindar pasatu ziren kartzeletatik edo kontzentrazio-eremuetatik[489] (esan bezala 95 izan ziren guda-kontseilua izan zutenak, beraz, besteak, epairik eta epaiketa gabe, edo epaiketa zibila izanda eraman zituztela antzeman genezake). Hemengo soziologia politikoa eginez, guda-kausa jasan zutenen antzekoa denaz jabetuko gara: 127tatik, 50, UGTkoak edo PSOEkoak (militanteak edo aldeko joeradunak) dira. Beste hemeretzi *Izquierda Republicana*koak dira, horietatik bostek UGTn ere militantzia zuten[490]. Beste bederatzi, "ezkertiar" bezala definitzen dira, gehiago zehaztu gabe. Beraz, 127tatik, 78 ditugu ezker erreformistakoak direnak. Abertzaleen artean, 15 kontatu ditugu. Lau anarkista ere kontatu ditugu.

Kontzentrazio-eremuak gudaren hasieratik jarri ziren, atxiloketa masiboetan atxilotuak sartzeko, lehena Tetuango (Maroko) Mogote deitutako gunean zabaldu zen, 1936ko abuztuan (hil horretan, gune hartan, 36 preso hil zituzten, ihesaldi saiakera batengatik)[491]. Batzuen arabera, zalantzan jarri beharko litzateke halako kontzentrazio-eremuak hartakotzat hartzea (batez ere 1937an kontzentrazio-eremuen zentralizatze-erakundea sortu aurrekoak), baina Rodrigoren arabera "egon badagoen, irizpide-

[476] Yolanda Begue Redondori eta Roberto Begue Sarasolari egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-06-27an.

[477] Santiago Muñoz hori errekete izandakoa zen. Frantzisko Ezkiaga zinegotzi eta Batzorde Txostengileko buruaren inprimategian egiten zuen lan. Muñoz izan zen, aurreko kapituluan esan bezala, erregimeneko manifestazioetara joaten ez zirenak "hil egin behar zirela" esan zuena.

[478] Yolanda Begue Redondori eta Roberto Begue Sarasolari egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-06-27an.

[479] Yolanda Begue Redondori eta Roberto Begue Sarasolari egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-06-27an.

[480] Espainiako Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia. Gipuzkoa 4215-42 kausa, Seberiano Azpeitia Artzelusi dagokiona.

[481] Espainiako Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia. Gipuzkoa 3418-40 kausa, Ignazio Andia Bonillari dagokiona.

[482] Espainiako Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia. Gipuzkoa 3079-39 kausa, Manuel Gorrotxategi Urrebazori dagokiona..

[483] Espainiako Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia. Gipuzkoa 3651-39 kausa Jabier Jauregi Biaini dagokiona.

[484] Espainiako Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia. Santander 172-37; Bizkaia 20883-39 eta Gipuzkoa 3546-40 kausak, Servando Paredes Barredori dagozkionak.

[485] Espainiako Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia. Gipuzkoa 15515-39 kausa, Rafael Polo Carrascali dagokiona.

[486] Espainiako Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia. Gipuzkoa 2309-40 kausa, Joan Aranburu Bustintzari dagokiona.

[487] Espainiako Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia. Bizkaia 2532-37 eta Gipuzkoa 16148-39 kausa, Joan Aranburu Irizarri dagokiona.

[488] Espainiako Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia. Gipuzkoa 3088-38 kausa, Felipe Bueno Arizmendiri dagokiona.

[489] Zerrenda honetan eta estatistika honetan, heriotza-zigorra jaso zuten 10ak ez ditugu kontatu.

[490] Guztira, 127tik 39 ditugu UGTkoak.

[491] RODRIGO, Javier: *Hasta la raíz. Violencia durante la Guerra Civil y la dictadura franquista*. Alianza argitaletxea. Madril, 2008, 69.-70. or.

-aniztasunaren" gainetik, hala direla esan beharra dugu; berak ematen duen definizioarekin, hots, "Estatuaren edo estatu paralelo baten unitate, administratibo errepresiboa, beharrizanen arabera moldagarria dena" definizioan sartzen delako; izan ere, Francoren eremuak Gudaren beharrizanetarako sortu ziren, eta horri erantzun zioten, eta hori hala gertatu zen 1937ko "instituzionalizatzearen" ondorengo eremuekin eta 1936an sortutako eremu "irregularrekin"[492]. Beraz, halako data oso goiztiar batean, kontzentrazio-eremu bat zabaldu behar izateak (kartzelak atxilotu-kopurua sartzeko txiki gelditu zirelako), errepresioa hasieratik oso masiboa izan zela adierazten du. Kontzentrazio-eremuak, lehen unean 1936ko Altxamenduaren eta Gudaren ondorioz sortutako "beharrei" lotuta bazeuden ere (atxilotutako soldadu errepublikanoak eta horiek babesten zituen populazio zibilaren parte bat sartzeko); laster handitu eta denboran luzatu zen horien egitekoa eta azken kontzentrazio-eremua, Miranda Ebrokoa, 1947an itxi zen[493].

Jabier Rodrigo ikerlariaren arabera, kontzentrazio-eremuen izaera, "behin-behinekoa eta prebentziozkoa izan zen"; hau da, beren helburua behin-behinekoa zen eta berez Guda bukatu arteko iraupena izan behar zuten (nahiz eta horren inguruan eztabaida ideologiko batzuk egon frankismoaren goi-hierarkien artean ere)[494] eta beste alde batetik, "prebentziozkoak" izan behar zuten, "iragate-prozesuan" zeuden presoak jasotzen zituztelako. Preso horiek, gehienetan militarrak (Armada errepublikanoko soldaduak) ziren, baina esan dugunez, pertsona zibilak ere bazeuden tartean; eta kasu batean zein bestean, justizia zibil edo militarretik pasatu gabeak ziren. Bestela esanda, inolako zigorrik ez zuten presoak izaten ziren, beraz teknikoki, legeriatik kanpo ezarritako espazioa izan zen (hori, kontuan hartu gabe Francoren Estatua berez legez kanpokoa zela, aurretik zetorren legeria demokratikoaren arma bidezko haustura zelako. Halere, altxatuen estatu paralelo horren "legeriatik" kanpo ere ezarri ziren kontzentrazio-eremuak)[495]. Kontuan izan behar da bertan zeudenak ez zirela "guda-presotzat" hartzen, baizik eta "Estatuaren kontrako matxinada" egin zuten edo lagundu zuten presotzat; hau da, 1929an Espainiak sinatu zuen Genevako Hitzarmenetik at gelditzen zen, eta irregulartasun-izaera are handiagoa zen[496]. Rodrigok oso definizio polita erabiltzen du hori azaltzeko: kontzentrazio-eremuak "linbo" bat ziren; bai presoaren zigor-ibilbidean tarteko eta ez behin betiko etapa zirelako, eta baita legez zehaztu gabeko eremua zirelako ere[497]. Kasu horretan, egile horrek beste lan batean aipatua duen moduan, gehiago izan ziren Francoren guda egiteko moduaren adierazle ("kosta ahala kosta guda irabaziko dugu", "espainiarren herena hil behar badugu ere"), gerora ezarriko zuen sistemaren edo sistema-proiektu ezberdinen adierazle baino[498]. Kontzentrazio eremuen, helburua, Jabier Rodrigoren arabera, presoak umiliatzea, haien potentzial politikoa (Francoren erregimenaren kontrakoa) ezabatzea; eta batez ere, preso haien lan-indarra (esklabo moduan) "Espainia berriaren" alde erabiltzea izan zen, hau da, preso haiek erabiltzea. Horregatik, Jabier Rodrigoren arabera, ezin da esan Espainiako kontzentrazio-eremuak nazien araberako garbiketa-eremuak bezalakoak izan zirenik, helburua ez baitzen aurkariak masiboki hiltzea (nahiz eta hilketak suertatu ziren Espainiako kontzentrazio-eremuetan ere, eta pentsatzekoa da, halako arbitrarietate eta legegabekeria-testuinguru batean, boteredunek -eremuetako agintariek- euren agintea nahieran erabiltzeko edozer gauza egin ahal izan zutela)[499].

Rodrigoren arabera, kontzentrazio-eremuen sarea, batez ere 1937tik aurrera hedatu zen, eta garai horretan, "Iparraldeko Frontea" (Gipuzkoa, Bizkaia, Kantabria eta Asturias) garaitu ondoren, altxatuen armadak preso asko egin zituelako, eta baita ere, lehen komentatu bezala, 1936ko "arauz kanpoko erabateko bortizkeriaren" fasea pasatuta, altxatuak, euren Estatua zentralizatuz eta "lege-itxurako erakundeez betetzen" ari zirelako, estrategia errepresibo berri baten beharra zuten[500]; gainera, Rodrigoren arabera, guda luzea izango zenaz orduan jabetu ziren (1936an artean epe laburreko garaipenaren esperantza zuten, Madrileranzko aurrerapena azkarra izan zelako). Baina 1936ko irailean Gipuzkoa eta Gaztela-Mantxa gehiena konkistatu ondoren, 1937ko otsailean Malaga konkistatu arte Armada frankistak ez zuen aurrerapenik izan. Agian gudaren bukaeraren inguruko pertzepzio horrek kontzentrazio-eremuak tresna sistematiko bezala erabiltzeaz "konbentzitu" zituen frankistak (guda

---

492 RODRIGO, Javier: *Los campos de concentración franquistas. Entre la historia y la memoria*. Siete Mares argitaletxea. Madril, 2003, 36. or.

493 RODRIGO, Javier: *Hasta la raíz. Violencia durante la Guerra Civil y la dictadura franquista*. Alianza argitaletxea. Madril, 2008, 112. or.

494 Jabier Rodrigo Sanchezen arabera, Europaren historia ikertuz, kontzentrazio-eremuen sistemaren jatorria, gehiago dago guda-testuinguruari lotuta (horren beharrizanetatik sortutako sistema bat zatekeen), sistema hori abian jartzen duen boterearen izaerari (totalitarioa ala ez) baino. Hau da, ez da soilik Estatu totalitarioek erabilitako sistema, baina bai gudan dauden "Estatuek edota estatu paraleloek" erabilitakoa (hau da, botere finko eta antolatu baten existentzia aurresuposatzen du, mugimendu gerrillariak edota subertsiboak kanpoan utziz). Beste gauza bat da sistemaren jarraipena, guda-testuingurutik at doana edo hura gainditzen duena. RODRIGO, Javier: *Los campos de concentración franquistas. Entre la historia y la memoria*. Siete Mares argitaletxea. Madril, 2003, 22.-27. eta 29.-30. or.

495 RODRIGO, Javier: *Hasta la raíz. Violencia durante la Guerra Civil y la dictadura franquista*. Alianza argitaletxea. Madril, 2008, 112.-113. or.

496 RODRIGO, Javier: *Los campos de concentración franquistas. Entre la historia y la memoria*. Siete Mares argitaletxea. Madril, 2003, 57. or.

497 RODRIGO, Javier: *Los campos de concentración franquistas. Entre la historia y la memoria*. Siete Mares argitaletxea. Madril, 2003, 175-176. or. Kasu honetan, Jabier Rodrigok "linbo-egoera" horretan hirugarren arlo bat gehitzen du, "linbo historiografikoarena". Horrekin bat, historia-zientzian halako eremuen inguruko ezagutza txikiari egiten dio erreferentzia, alegia, Francoren gurari batekin bat datorrela salatzen du; diktadoreak berak ere eremu horien izantza ezkutatu egin nahi izan baitzuen.

498 RODRIGO, Javier: *Los campos de concentración franquistas. Entre la historia y la memoria*. Siete Mares argitaletxea. Madril, 2003, 31. or.

499 RODRIGO, Javier: *Los campos de concentración franquistas. Entre la historia y la memoria*. Siete Mares argitaletxea. Madril, 2003, 159. or.

500 RODRIGO, Javier: *Hasta la raíz. Violencia durante la Guerra Civil y la dictadura franquista*. Alianza argitaletxea. Madril, 2008, 27. or.

or.

luze batek kanpoan izan zezakeen oihartzuna ere kontuan hartzekoa zen-eta)[501]. Beste arrazoi bat, jakina, altxatuen para-estatuaren antolakuntzaren hobekuntza zatekeen: 1936an ez zegoen halako zentralizazio sistematiko bat egiteko baliabiderik (eta orduan bestetik, frankistek uste zuten aurrerapen azkar bat lortzeko hobe zela presoak zuzenean trumilka hiltzea), 1937an, frontea egonkortuta, ordea, bai[502]. Horren inguruan Gabriel Jacksonek beste ñabardura bat ezarri digu: geografiaren araberakoa, bere ustez, Penintsularen Iparraldean kontzentrazio-esparruak ugaldu egin ziren, Hegoaldean, berriz, errepresio hiltzaile masiboa (Jabier Rodrigok ikuspegi hau berresten du, esanez, errepresioa "arrazionalizatzearen" proposamenak Iparraldeko Frontean ari ziren agintariengandik etorri zirela. Rodrigoren hitzetan "1936an, Hegoaldean harrapatuak ziren presoentzat, kontzentrazio-eremu batean sartuak izatea agian "ongarria" zitekeen, arau orokorra presoa hiltzea zelako")[503].

Beraz, kontzentrazio-esparruetatik, gudan Errepublikaren zilegitasunaren alde borrokatzen ari zirela atxilotutako preso ia guztiak pasatu ziren, batez ere 1937ko uda-udazkenetan, Hego Euskal Herria, Kantabria eta Asturias beren esku erori zirenez geroztik. Halaber, pentsatzekoa da aurretik aipatutako 95eko beasaindarren kopuru hori (guk euren datuak topatu ditugu) baino kopuru askoz ere handiagoa pasatu izana halako esparruetatik (gudari edo miliziano ibilitakoak batez ere). Sare hori, 1937ko uztailean, orduan sortu zen Presoen Kontzentrazio Eremuen Ikuskaritzaren (*Inspección de Campos de Concentración de Prisioneros*) mende gelditu zen[504]. Erakunde horren sorrerarekin batera, errepresioaren sistematizazioa etorri zen, Jabier Rodrigoren arabera[505]. Sistematizazio horrek, Rodrigoren arabera, Francoren eskuetan agintea kontzentratzen lagundu zuen[506]; eta baita kontzentrazio-eremuen kopurua eta bertako presoen kopurua handitzen ere: Rodrigoren kalkuluen arabera, erakunde hori sortu aurretik, 12.000 preso zeuden kontzentrazio-eremuetan[507].

Hala ere, esan beharra dago, errepresioaren sistematizatze horrek beste arazo batekin egin zuela topo, errepresioaren beraren neurriarekin. Hain handia izan zen Francoren (para-)estatuaren errepresio-grina, ezen kontzentrazio eremuek ezin izaten zutela irentsi "behin-behineko atxilotuen" (hala ziren sistemaren arabera) kopurua, eta egunez egun hazten eta hazten joan zen. Horregatik, esparru berriak sortu behar izan zituzten, aipatutako 180ko kopurura iristeraino. Lehengo lerrokadetan esan dugu kontzentrazio-eremuetan batez ere gudako presoak zeudela: beraz, Francoren Armadak konkista berriak egin ahala, lur horien inguruan sortzen ziren gehienetan kontzentrazio-esparruak. Horrek azaltzen du 1936ko lehen kontzentrazio-esparruak zergatik sortu ziren Espainiako Hegoaldean, eta sistematizazioarekin batera, 1937an zergatik sortu ziren Hego Euskal Herrian eta Espainiako Iparraldearen inguruan, hain justu Espainiaren Iparraldeko Frontea zeritzonean garaipena orduan lortu zutelako. 1938tik aurrera, Espainiako Ekialdean (Aragoin, Katalunian, Gaztela-Mantxan eta abar) sortu ziren esparru berriak. 1938ko datu batzuk eman besterik ez dago: Arabako Murgia herriko kontzentrazio-eremuak, bere gaitasunaren %253ko preso-kopurua hartu zuen eta Kantabriako Santoñakoak, bere gaitasunaren %233,33. Eremu gehienek, beren gaitasunaren %140 eta %230 arteko kopuruak hartu zituzten. Zifrak 1939an jo zuen goia eta urte hartan 277.103 preso egon ziren kontzentrazio-eremuetan, eta hori, Langile Batailoiak kontuan hartu gabe[508] -esan bezala, guztira 500.000 bat pasatu ziren halako esparruetatik-.

Lehen esan den moduan, Kontzentrazio-eremuak, berez "behin-behineko" guneak ziren. Hala ere, haietan preso zeudenak, hurrengo fase batera pasatu aurretik egoten ziren han. Hurrengo fase hori, Presoak Sailkatzeko Batzorde batek (esparru bakoitzean bat zegoen) markatzen zuen, presoa zein zen aztertu eta aldekoa "*afecto*" edo berreskuragarria baldin bazen, altxatuen Armadara bidaltzen zuten. Zalantzazkoa edo aurkakoa "*desafecto*" bazen, Langile Batailoi batera bidaltzen zuten, eta "krimen politikoak" (askotan, alderdi politiko batean edo sindikatu batean militatzea edo "behar ez zen" egunkaria irakurtzea izan zitekeen halako delitua) egindakoa bazen, justizia militarraren aurrera bidaltzen zuten (han urtetako kartzela edo exekuzioa jasotzen zituen zigortzat). Hala ere, sailkapen- eta ebakuazio-sistema horrek ere, huts egin zuen aurretik esandakoagatik: errepresio-bolumena irensteko gai izan ez zelako. 1939an preso-kopurua handitu ahala, askotan, presoak sailkapen-batzordetik pasatu gabe "ebakuatzen" zituzten langile-batailoietara, eremu berrietara, soldaduskako diziplina-batailoietara edo zigorra

[501] RODRIGO, Javier: *Los campos de concentración franquistas. Entre la historia y la memoria*. Siete Mares argitaletxea. Madril, 2003, 42.-43.; 47. eta 54. or.

[502] RODRIGO, Javier: *Los campos de concentración franquistas. Entre la historia y la memoria*. Siete Mares argitaletxea. Madril, 2003, 45.-47. or.

[503] JACKSON, Gabriel: *La república española y la Guerra Civil 1931-1939*. Critica. Bartzelona, 1967, 248. or.; RODRIGO, Javier: *Los campos de concentración franquistas. Entre la historia y la memoria*. Siete Mares argitaletxea. Madril, 2003, 53. or.

[504] Jabier Rodrigoren arabera, erakunde hori 1934an Alemania nazian sortu zen Kontzentrazio Eremuen Ikuskaritzan (*Inspektion der Konzentrationslager*) inspiratua izan zitekeen. RODRIGO, Javier: *Los campos de concentración franquistas. Entre la historia y la memoria*. Siete Mares argitaletxea. Madril, 2003, 81. or.

[505] RODRIGO, Javier: *Hasta la raíz. Violencia durante la Guerra Civil y la dictadura franquista*. Alianza argitaletxea. Madril, 2008, 117-118. or.

[506] RODRIGO, Javier: *Los campos de concentración franquistas. Entre la historia y la memoria*. Siete Mares argitaletxea. Madril, 2003, 68. or.

[507] RODRIGO, Javier: *Los campos de concentración franquistas. Entre la historia y la memoria*. Siete Mares argitaletxea. Madril, 2003, 82-83. or.

[508] RODRIGO, Javier: *Hasta la raíz. Violencia durante la Guerra Civil y la dictadura franquista*. Alianza argitaletxea. Madril, 2008, 125. or.

euren herrian betetzera[509]. Gainera, kontzentrazio-eremuak gune militarrak ziren, araudiaren arabera, presoek uniformea jantzi behar zuten han eta justizia militarra zegoen indarrean eremuaren barnean[510].

Jabier Rodrigoren arabera, 1938tik aurrera kontzentrazio-eremuetan baldintzak are gehiago okertu ziren, eta bertako agintarien aldetik, haien erabilera ideologiko-totalitarioa handitzen joan zen. Garai horretan, Jabier Rodrigoren arabera, zenbait eremutan, San Pedro Cardeñan esaterako (hainbat beasaindar preso bertan egon ziren) nazien Gestapoko agenteak agertu ziren. Baina datu horretaz harago, 1938an eta 1939an, agintari falangista batzuek, Ramon Serrano Suñerrek adibidez, kontzentrazio-eremuak etorkizunean falangistek zuten Estatu-proiektu totalitarioaren (zer esanik ez, Italia eta Alemania ispilu zituenaren) ernamuin bihurtu nahi izan zituen[511]; hau da, guda-beharrizanetatik harago zihoan erakundea izatea nahi zuen, presoekin Espainia osoan jarri nahi zuen sistema totalitarioaren ispilu eta osagarri izango zen proiektua burutu nahi izan zuen: bestela esanda, faxismoak helburu zuen "komunitate nazional harmoniko-hierarkikoa", nazioaren ideiarekin uztartua, eraikitzeko piezetako bat bihurtu nahi izan zituen esparruak, preso "etsaiak" "komunitate" horrentzat irabaziak sortzeko tresna gisa hartuta. Halere, azkenean beste kontzepzioa nagusitu zen, eremuak gudarako tresna funtzional gisa hartzearena (batez ere Gudaren bukaeran kontzentrazio-eremuek presoen kopuru handia zurgatu zutelako)[512] eta, esparruek, gudaren beharretarako gune izaten jarraitu zuten. Horren adibiderik garbiena zera da, esparruak 1936ko Gudarekin batera desagertzen hasi izana. Hala ere, halako proiektuek izan zuten nolabaiteko ondorio bat, eremuetan "hezkuntza politikoa" handitu egin zen: hau da, presoak ideologikoki "kausarentzat irabazteko ahaleginak" (hitzaldiak, erritual politikoak, ereserkiak abestea eta abar) ugaritu egin ziren[513]. Ikusten den bezala, 1936ko Guda bukatzearekin batera kontzentrazio-esparruak desagertzen hasi aurretik (1939an esparru gehienak itxi egin ziren eta Presoen Kontzentrazio Eremuen Ikuskaritza 1942an desagertu zen; esan bezala azken esparrua 1947an itxi zen), kontzentrazio-esparruek fase ezberdinak izan zituzten; errepresioaren marko orokorrarekin batera. Kontzentrazio-esparruen historia ezin da errepresio urdinaren markotik banandu: hasierako behin-behineko kontzentrazio-esparruak eta Serrano Suñerren kontzentrazio-esparru "ideologizatuak" kronologikoki trukaezinak dira, bakoitza errepresioaren estrategiaren fase batean murgiltzen zen (1936an lehentasuna Estatu-kolpe militarra finkatzea eta etsaiei –benetakoei, potentzialei, edo imajinatutakoei- beldurra eragitea zen; 1938an altxatuak guda irabazten ari zirela Estatuaren proiektua egikaritzen has zitezkeen).

Kontzentrazio-eremu guztiak ez ziren guztiz berdinak. Adibidez, 1938tik aurrera, altxatuen Estatuak, Brigada Internazionaletako kide guztiak San Pedro Cardeñan sartzea erabaki zuen eta hori propaganda bezala "atzerritarrentzako eremu" bezala publizitatu zuen (hala ere, ez zen guztiz egia esparru horretan atzerritarrak soilik zeudela)[514]. Eremu batzuk, Villaltakoa kasu, atzerritarren esku zeuden, kasu horretan italiar boluntario faxisten esku[515]. Bazeuden eremu probisionalak ere ("bizitza" laburrekoak) eta baita "egonkorrak" ere. Bazeuden baita presoak nahiko erregulartasunez hiltzen zituzten eremuak, adibidez Castuera[516] edo Albatera[517]. Hala ere, kontzentrazio-eremu guztietan, bizi-baldintza okerrak eta higiene-falta nabariak izan ziren (ur-falta, garbitasun-falta, eta abar…)[518].

Baina badugu beste aldaki bat ere gai horretan, hain zuzen ere langile-batailoietatik pasatutako presoena. Guztira 70 beasaindar pasatu ziren langile-batailoietatik: Deustun, Burgosko San Pedro Cardeñan, Burgosko Valdenocedan, Algecirasen… Ofizialki, langile-batailoietan egiten zen aldia, kartzela-aldiaren kondena arintzeko modu bat zen. Baina aginteak ere nolabaiteko jukutria krudelak erabiltzen zituen presoekin. Horietako nabarmenena, presoari kausa "sobreseitu" ostean, aske gelditu behar zuenean, "aske gelditu bai, baina langile-batailoi batean geraraztea" zen, "kausa behin betiko ebazten zen artean". Hamar beasaindar egon ziren modu horretan langile-batailoietara eramanak. Guda-kontseilua jasan zuten 23 beasaindar izan ziren guztira langile-batailoietara eramanak, beraz, beste 13, epaiaren aurretik (epaiaren zain) edo kartzela-zigorra jaso ondoren eramanak izan zirela ateratzen dugu. Beraz, kopuru handi bat, batere epairik gabe, "kondena erredimitzeko" ziren langile-batailoietan ibili zen.

---

[509] RODRIGO, Javier: *Hasta la raíz. Violencia durante la Guerra Civil y la dictadura franquista*. Alianza argitaletxea. Madril, 2008, 127. or.

[510] RODRIGO, Javier: *Los campos de concentración franquistas. Entre la historia y la memoria*. Siete Mares argitaletxea. Madril, 2003, 71. or.

[511] Hala ere, beste lan batean, Jabier Rodrigok, espainiar kontzentrazio-eremuen fase ezberdinen arteko bereizketan, 1938. urtea ez du mugarritzat hartua. Hauek ziratekeen faseak: 1936: hasiera; 1937-1939: zentralizatzea; 1939-1942: Gudaren jarraipena garbiketaren bidez; eta 1942-1947: mantenimendua eta itxiera. RODRIGO, Javier: *Los campos de concentración franquistas. Entre la historia y la memoria*. Siete Mares argitaletxea. Madril, 2003, 36.-38. or.

[512] RODRIGO, Javier: *Los campos de concentración franquistas. Entre la historia y la memoria*. Siete Mares argitaletxea. Madril, 2003, 92.-93. or.

[513] RODRIGO, Javier: *Los campos de concentración franquistas. Entre la historia y la memoria*. Siete Mares argitaletxea. Madril, 2003, 32. or.; eta RODRIGO, Javier: *Hasta la raíz. Violencia durante la Guerra Civil y la dictadura franquista*. Alianza argitaletxea. Madril, 2008, 122-125. or.

[514] RODRIGO, Javier: *Los campos de concentración franquistas. Entre la historia y la memoria*. Siete Mares argitaletxea. Madril, 2003, 88-91. eta 98-102. or. Javier Rodrigoren arabera, Errepublikarren alde aritu ziren brigadista atzerritarrek bai lortu zuten guda preso bezala izendatuak izatea (azken finean, beste Estatu baten herritarrak ziren), espainiar borrokalariek lortu ez zutelarik.

[515] RODRIGO, Javier: *Los campos de concentración franquistas. Entre la historia y la memoria*. Siete Mares argitaletxea. Madril, 2003, 111. or.

[516] RODRIGO, Javier: *Los campos de concentración franquistas. Entre la historia y la memoria*. Siete Mares argitaletxea. Madril, 2003, 101. or.

[517] RODRIGO, Javier: *Los campos de concentración franquistas. Entre la historia y la memoria*. Siete Mares argitaletxea. Madril, 2003, 158. or.

[518] RODRIGO, Javier: *Los campos de concentración franquistas. Entre la historia y la memoria*. Siete Mares argitaletxea. Madril, 2003, 97. or.

or.

Langile Batailoiak 1937ko maiatzean hasi ziren sortzen[519], eta 1942ra arte iraun zuten (izen horrekin; hala ere, horrek ez du esan nahi behartutako lana desagertu zenik, beste formula batzuk erabili ziren horrekin jarraitzeko). Langile Batailoietara, lehen esan bezala, preso asko kontzentrazio-eremuetatik eramanak izaten ziren (batailoi batzuk eremuetan bertan antolatu zituzten, San Pedro Cardeñan adibidez); halako gehienak, kontzentrazio-eremuetako sailkatze-batzordeek "*dudoso*" (zalantzazko) bezala markatuak izan ziren. Rodrigoren arabera, 1937an 30.000 bat preso eraman zituzten kontzentrazio-eremuetatik Langile Batailoietara. Hala ere zifra handituz joan zen eta 1938ko apirilean 40.000 ziren[520] eta 1939an 90.000 gisa horretako presoak. Guztira 101 Langile Batailoi izan ziren[521].

Kontuan izan behar da, kontzentrazio-eremuetara bidalitakoek ez zutela kontrako zigorrik euren gain, beraz handik zuzenean Langile Batailoietara bidalitakoak existitzen ez zen zigor bat "ordaintzen" aritu ziren, aurreko lerroetan esan bezala. Beraz, berriz ere legezkotasunik eza aurkitzen dugu hor, erakundeen mozorropean izan arren eta, preso horiei, zuzenean euren bizitzako urteak eta hilabeteak lapurtu zitzaizkien. Langile Batailoiak sortzeko, erregimen berriak ironia edo iseka izan zitekeen legezko trikimailu bat erabili zuen: 1937ko maiatzean, 281. dekretuaren bidez, presoei "lan egiteko eskubidea" eman zieten[522]. Langile Batailoi horiek sortzeko dekretuan bertan jarri zen haien sorrera "FET-JONS alderdiaren doktrina nazionalsindikalistaren arabera, espainiar guztiei zor zaien lan egiteko eskubidea preso gorriei ere eman behar zaielako". Baina praktikan, Langile Batailoien sorrerarekin eskuratu zutena, guda-ahaleginerako lanesku oso merkea edo esklaboa izan zen, ez inolako erredentzioa. Langile Batailoiak, kontzentrazio-eremuak bezala, 1936ko Gudak sortutako "larrialdiei" emandako irtenbide bat izan ziren: alde batetik Guda irabaztea eta bestetik errepresioaren bidez, ideologia edo pentsaera "arriskutsuak" ezabatzea. Hala, bataren eta bestearen erabateko jarraikortasuna edo bien txertaketa izan zen. Bestetik, atxilotua (galtzailea) umiliatuz, eta zigorra ordainaraziz, halako erredentzio batean sartu zen, hau da, "eurek suntsitutakoa berreraikitzera behartzen zituzten", edota beste modu batera esanda, Espainiaren aurkako bidetik Espainiarako bidea, sufrikarioz beteta, egiten zuten; hala, presoei "Benetako Espainia" Francorena zela erakusten zieten eta "benetako espainiar bezala bizitzeko hezten zituzten". Kontuan izan behar da berez han zeuden preso askok ez zutela zigor ofizialik eurengan eta eurek egindako huts bakarra Errepublikaren alde lerratzea izan zela; Rodrigoren hitzetan "Espainia suntsitzea" zen akusazioa eta ez hainbeste "berreraikitzen" edo eraikitzen ari ziren "errepidea, trenbidea edo herria suntsitu izana"[523]. Horrek guztiak noski, umiliazio-kuota oso altua zuen. Modu horretan, Langile Batailoiek hasieratik bazuten kontzentrazio-eremuetan 1938an ezarri zen ezaugarri hori: karga ideologikoa, langile atxilotua "berriro hezkuntza politikoa" eman beharreko subjektu bezala tratatzeko asmoa[524]. Gainera, Batailoi horietan, espioitza-zerbitzuak zeuden presoen inguruko informazioa lortzeko prest (ez da hain arraroa, bertan zigortuak zeudenak "Estatu berriaren" kontrakoak izateagatik zigortuta zeudela jakinda eta Batailoien –eta frankismoaren beste erakunde errepresiboen- helburuetako bat "mehatxu" ideologiko hori eta presoaren izaera politikoa suntsitzea zela jakinik)[525].

Langile Batailoiak, gehienetan, frontetik urrun jartzen zituzten lanean, han preso zeudenak Errepublikaren aldera pasa ez zitezen[526]. Eta jakina, modu guztietako lanak egiten zituzten (errepideak, gotorlekuak, eraikinak, meatzetako lana, basoak botatzea eta abar), miseriazko soldata baten truke. Jabier Rodrigoren arabera, 0,50 pezeta kobratzen zuten eguneko[527]. Esan bezala, Langile Batailoiak 1942an desagertu ziren, baina baziren beste sistema berri batzuk halako lanekin jarraitzeko, adibidez; Zigor Kolonia Militarizatuen Zerbitzua (*Servicio de Colonias Penitenciarias Militarizadas*), 1939an sortua; hark enpresei (askotan enpresa hori Estatua bera bazen ere) presoak kontratatzeko aukera ematen zien[528]; edo Eskualde Suntsituen Zuzendaritza Nagusiaren mende egindako behartutako lana.

Arlo horrekin bukatzeko; ezin dugu ahaztu Beasaingo Batzorde Txostengilearen lana zein izan zen. Batzorde horren buru, Frantzisko Ezkiagak jardun zuen eta, idazkari moduan, batzuetan Eusebio Asla eta besteetan Frantzisko Untzueta aritu ziren. Batzorde horrek, Beasaingo herritarrei buruzko txostenak egin zituen, adibidez, guda-kontseilua jasan zuten herritarrena, eta hala, haien etorkizunaren gain botere handia zuen. Pertsona horiek, batzuetan euren txostena epaiketaren instrukzioan

[519] RODRIGO, Javier: *Los campos de concentración franquistas. Entre la historia y la memoria.* Siete Mares argitaletxea. Madril, 2003, 69. or.
[520] RODRIGO, Javier: *Hasta la raíz. Violencia durante la Guerra Civil y la dictadura franquista.* Alianza argitaletxea. Madril, 2008, 117. or.
[521] RODRIGO, Javier: *Hasta la raíz. Violencia durante la Guerra Civil y la dictadura franquista.* Alianza argitaletxea. Madril, 2008, 116., 120., 125. eta 146. or.
[522] RODRIGO, Javier: *Hasta la raíz. Violencia durante la Guerra Civil y la dictadura franquista.* Alianza argitaletxea. Madril, 2008, 117. or.; eta RODRIGO, Javier: *Los campos de concentración franquistas. Entre la historia y la memoria.* Siete Mares argitaletxea. Madril, 2003, 69. or.
[523] RODRIGO, Javier: *Hasta la raíz. Violencia durante la Guerra Civil y la dictadura franquista.* Alianza argitaletxea. Madril, 2008, 141-142. eta 147. or.
[524] RODRIGO, Javier: *Hasta la raíz. Violencia durante la Guerra Civil y la dictadura franquista.* Alianza argitaletxea. Madril, 2008, 145. or.
[525] RODRIGO, Javier: *Los campos de concentración franquistas. Entre la historia y la memoria.* Siete Mares argitaletxea. Madril, 2003, 110. or.
[526] RODRIGO, Javier: *Hasta la raíz. Violencia durante la Guerra Civil y la dictadura franquista.* Alianza argitaletxea. Madril, 2008, 143. or.
[527] RODRIGO, Javier: *Hasta la raíz. Violencia durante la Guerra Civil y la dictadura franquista.* Alianza argitaletxea. Madril, 2008, 146. or.
[528] RODRIGO, Javier: *Hasta la raíz. Violencia durante la Guerra Civil y la dictadura franquista.* Alianza argitaletxea. Madril, 2008, 172. or.

kontuan hartzea lortzen zuten (izan ere halako epaiketetan, akusatuak egin edo esandakoak baino pisu handiagoa zuen akusazioaren izaerak; hots, afiliazio politikoa, hauteskundeetako botoa, Beasainen izandako portaera politikoak –bere ideien alde nabarmendu zen ala ez, ekitaldi publikoetan parte hartu ohi zuen ala ez- bere izaera erlijiosoa, "portaera publikoa" eta abar) baina gehien-gehienetan txosten horiek alkateak idatzi eta sinatu beharreko txostenen oinarri izaten ziren (egia da, batzuetan alkateak, hasierako Batzorde txostengilearen txostena leundu egiten zuela). Hala ere pertsona horiek, ez zuten soilik guda-kontseiluetarako edo epaiketetarako jarduten, baizik eta edozein pertsona kartzelan egotera edo langile-batailoian aritzera zigortua zenean ere eskatzen zitzaien txostena; edo askotan, altxamenduarekiko eta erregimenarekiko inolako hutsik egin gabe ere, edozein epaitegik edozein pertsonaren txostena eska zezakeen. Adibidez, Irungo trenbideko agintaritza militarizatuak, Beasaingo trenbideko langile guztiei buruzko txostenak eskatu zituen. Gure datuen arabera, 442 beasaindar izan ziren eskrutinio horren mende jarriak. Batzorde horren txostenak askotan kontraesankorrak ere izan ziren eta, adibidez, Mikel Apaolatzak aipatzen du bere familiako Valerio Poloren kasuan, txosten batzuetan, Donostiara han borrokatzeko joan eta han borrokatzeaz akusatzen zutela, eta beste batzuetan, Beasainen, altxatuak sartzea galarazteko armekin jardun izana[529] (bi gauzak egitea ezinezkoa zen, egun berdinetan gertatu baitziren gertakariok). Bestetik, Roberto Beguek kontatu digunez, bere osaba Rufino Sarasolaren kasuan (dokumentuen arabera, bizi osoko kartzela-zigorra ezarri zioten[530], baina bere familiaren arabera, heriotza-zigorra ezarri zioten[531]) "Ezkiagari, Aslari eta Untzuetari diru-kopuru bat ordaindu behar izan zitzaien, aldeko txostena idatz zezaten. Hori ez zen berme judizial ofiziala izan"[532]. Rufino Sarasola 1940an atera zen kartzelatik eta Lakuntzan bizitzen jarri zen, baina ikusi dugun bezala, horrek ez zion Beasaingo zenbait pertsonaren aldetiko jazarpena bukatzea ekarri.

Egia esan, tokiko "indarren" parte-hartze errepresiboa ez zen izan soilik Beasaingo gertakaria. Jabier Rodrigo ikerlariak kontatzen digunez, kontzentrazio-eremuetan, askotan, "sailkatzen laguntzeko", presoaren herriko agintari frankisten edota erakundeen laguntza eskatzen zuten[533].

1.5.d) Erbestea

Izan ziren halaber, erbestera joan edo kanpoan errefuxiatu behar izan zuten beasaindarrak ere. Halako lehen errefuxiatu-oldea, 1936. urtearen bukaeran Gipuzkoatik Bizkaira joandakoa izan zen eta gipuzkoar errefuxiatu askok, Bizkaian topatu behar izan zuen aterpea; Amaia Gamarrak dioenez, "gipuzkoarrok orduan Bizkaian elkartasun handia jaso genuen"[534]. Pako Ruiz de Apodakaren familia izan zen horietako bat. Bere amaren familia (Galartzatarrak) "Gernika ondoko herri batean errefuxiatu ziren". Bere beste izeba batek Bakion errefuxiatu behar izan zuen "gorra zen eta frankistak Bakion sartzerakoan ez zuen entzun besoa altxatzeko agindua; horren ondorioz, besoa altxatu ez zuelako, hura fusilatzekotan egon ziren"[535].

Errefuxiatu asko Frantziar Estatura joan ziren. Horietako bat izan zen, adibidez, Jesus Lopez Gallego. Lopez Gallego, bere familiarekin, amarekin eta bi arrebekin lehendabizi Parisera joan zen "senitartekoak baikenituen (…) eta han Alderdi Komunistak jakinarazi zigun gure bi anaiak hil egin zirela". Gero Villefranche izeneko herri batean egon zen, errefuxiatuentzako kanpaleku batean. Eta handik Euzko Jaurlaritzak Katalunian errefuxiatuentzako zuen kanpaleku batera joan ziren, Lloret del Marrera, eta han egon ziren frankistak sartu ziren arte. Lopez Gallegoren arabera "Oso ondo egon ginen bi kanpalekuetan". Frankistak sartu zirenean, berriz, Frantziar Estatura joan behar izan zuten berriro, "kostaldeko herri batean, Portboutik gertu bizi zen komunista baten etxera joan ginen. Komunista asko pasatu ziren etxe hartatik". Jesus Lopezek, frankistak sartu zireneko ihesaldia nolakoa izan zen ere kontatu digu: "banuen lehengusina bat politikan oso sartua zegoena. Behin hark pistola bat botatzeko esan zidan. Nik, bota ordez, ezkutatu egin nuen; eta faxistak sartu zirenean galdetu egin zidan "zer egin duzu pistola harekin?". Nik non ezkutatu nuen adierazi nion, pistola hartu genuen eta kamioi bat errekisatu genuen alde egiteko". Lopez Gallegoren familiak, hildako anaiengatik pentsio bat kobratu zuen "Alderdi Komunistaren bitartekaritzari esker". Hego Euskal Herrira itzuli zirenean, komeriak izan zituzten, "mugan frankistek dirua kentzen baitzieten itzultzen ziren errefuxiatuei. Baina gure amak dirua ezkutatzea lortu zuen"[536].

---

[529] Alizia Polo eta Mikel Apaolatzari eginiko elkarrizketa. Beasainen, 2014-07-30ean.

[530] Espainiako Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia. Santander 29-37 kausa, Rufino Sarasola Lasari dagokiona.

[531] Yolanda Begue Redondori eta Roberto Begue Sarasolari egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-06-27an.

[532] Yolanda Begue Redondori eta Roberto Begue Sarasolari egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-06-27an.

[533] RODRIGO, Javier: *Los campos de concentración franquistas. Entre la historia y la memoria.* Siete Mares argitaletxea. Madril, 2003, 67. or.

[534] Amaia Gamarrari egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-08-01ean.

[535] Pako Ruiz de Apodaka Galartzari egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-06-18an.

[536] Jesus Lopez Gallegori egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-06-25ean.

or.

Beste ihes-puntu bat Venezuela izan zen. Hara joan zen, adibidez, Faustino Aranburu Muxika gudaria; bere arreba Milagros Aranburuk kontatzen duen moduan "urte asko pasatu genituen hartaz ezer jakin gabe[537]. Lazkaoko fraide beneditar bati esker egin genuen kontaktua". Bertara joan zen halaber, Alfontso Ibaibarriaga, 1949an, baina dirudienez joate hori emigrazio ekonomikoagatik izan zen, nahiz eta politikoki Beasaingo agintariek bera jazarri ere egiten zuten (kontzentrazio-eremu batean egon zen eta aske utzia izan zenean ere, Francok Gipuzkoa bisitatzen zuen bakoitzean atxilotu egiten zuten. Behin bere familian komentatu omen zuten "eskerrak aita aurten Venezuelan dagoen eta ez duten eramango"[538]). Ibaibarriaga 1950.eko hamarkadan itzuli zen Beasaina[539]. Venezuelan aterpea topatu zuen beste familia bat, Beasainen sustraiak dituen Miren Edurne Alegria Aierdirena izan zen eta beraren arabera "guda ostean, gurasoek Venezuelara joan behar izan zuten"[540]; bera han jaioa da (hala ere, badirudi, kasu honetan ere, politikak zerikusia izan zuela eta emigrazioa bi arrazoiengatik izan zela).

Izan ziren Sobietar Batasunera joandakoak ere; Jesus Larrañagaren alaba Rosa Larrañaga eta iloba Miren Atxaga, adibidez. Miren Atxagaren arabera "ez ginen batera joan Sobiet Batasunera, ni 1937an irten nintzen Sestaotik", eta Rosa Larrañaga beranduago irten zen, 1938an. Hango tratua "oso ona" izan zen, "oso tratu ona genuen bai hango zaintzaileekin eta bai beste umeekin. Arreta handia eskaini ziguten (…) errusieraz ere azkar ikasi genuen". Bi lehengusinak, 1941. urtera arte, II. Mundu Guda hasi arte, Leningradon (egun, San Petersburgo) egon ziren; baina guda hark banatu egin zituen; orduan kolonietako ume guztien lekualdaketa egin baitzen: Miren Atxaga, Volga eskualdeko Panukhino herrira eraman zuten, eta Rosa Larrañaga Uzbekistanera, Samarkanda ondoko Gogan herrira. Gudaren hasierak umeen bizitza-kalitatea asko okertu zuen "herrialde osoarena bezalaxe. Pentsa, frontean milioika soldadu hil zirela". Hala ere, guda bukatutakoan, Sobietar Batasunean jarraitu zuten eta han ikasi zuten "hango hezkuntza-sistema oso ona zen, ez zuen hemengoarekin zerikusirik (…) karrera ikasteko aukera ere izan zuten". Rosa Larrañagak tipografia ikasi zuen "eta gero Pravda egunkarian aritu nintzen lanean"; Miren Atxagak berriz, "bi karrera, Medikuntza eta Farmazia" egin zituen. "Itzuli ginenean, Arabako landagunean mediku izan nintzen eta 14 herritako pertsonak artatu behar izan nituen. Arabako lehen emakume medikua izan nintzen. SESBen ikasi izan ez banu, ez nuen aukera hori izango". Bi lehengusinak 1956an itzuli ziren Euskal Herrira, Soraluzera. "Estatu Espainiarreko lurra zapaldu orduko, CIAk galdeketa egin zigun Madrilen". Galdeketa horren ostean, gehiago ere etorri ziren; behin Gasteizen bizi zirela "Gasteizen bazegoen polizia ezagun bat, Apodaka. Sekulako galdeketak egiten zizkigun hark"[541].

1.5.e) Umezurtzak eta errepresioaren oroimenaren desitxuraketa

Bestalde, gudarekin lotuta edo horren ondorio izan zen Beasainen geldítutako umezurtz-kopurua. 1937ko urtarrilaren 18an, Beasainen "Umezurtzak Biltzeko Udal Batzordea" antolatu zen, Guridi alkatea, Aspe apaiza, Urteaga medikua eta Domingo Garcia irakaslea batzordekide zirela[542]. Batzorde hori, 1936ko abenduaren 30ean Francoren aldeko Estatuak emandako agindu baten ondoren sortu zen (Gipuzkoako aldizkari ofizialean 1937ko urtarrilaren 11n agertu zen agindua). Batzordearen helburua, umezurtzen zerrenda "ahalik eta lasterren osatzea" zen, hartara "Batzordearen helburuak bete daitezen (…) Gobernu Nazionalaren obra jarraituz". Hala ere, helburu horiek zeintzuk ziren lehen bilera horietan ez zituzten zehazten (umezurtzak eurentzako toki batera eramatea, elikatzea, edo familiakorik izanez gero, haiei laguntza ematea). Urtarrilaren 20an egindako zerrenda baten arabera, 25 "umezurtz txiro" kontatu zituzten Beasainen, denak "aitaren aldetik umezurtzak edo alargunen seme-alabak"; asko jota "oraingo gertaerak direla eta umezurtz geldítutakoak" zirela aipatu zuten behin. Hala ere ez zuten kontatu zergatik zeuden umezurtz: askoren aitak altxatuek hil zituztelako alegia[543]. Batzorde horrek, ume horiek Arangoiti Ongintza Etxeak (Ospitaleak) har zitzan proposatu zuen "une honetan, zaharren eta umeen artean, 25 pertsona ditu jasoak (…) eta gehiago jasotzeko gaitasuna ere izan badu-eta". Gainera, etxe horrentzako Udal-laguntzaren aurrekontua 10.000 pezetatik 15.000 pezetara handitzea proposatu zuten[544]. Beraz, ez zuten aurreikusi "ongintzako erakunde berriak sortzea". Arangoiti Ongintza Etxeko jantoki sozialak 90 umeri jaten ematen ziela esaten du Batzordearen dokumentu horrek, eta baita "gertaera horiek (guda eta errepresioa) direla-eta, gizon

[537] Milagros Aranburu Muxikari egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-08-05ean.

[538] Arantza Ibaibarriaga Usabiagari eta Pedro Maria Ibaibarriaga Usabiagari egindako elkarrizketa. Donostian, 2015-11-15ean.

[539] Arantza Ibaibarriaga Usabiagari eta Pedro Maria Ibaibarriaga Usabiagari egindako elkarrizketa. Donostian, 2015-11-15ean; eta Markel Olanok Alfontso Ibaibarriagari eta Antonio Zubillagari egindako elkarrizketa. Beasaingo EAJko ordezkari Jose Antonio Imatzek utzia.

[540] Edurne Alegria Aierdiri egindako elkarrizketa. Getarian, 2014-09-12an.

[541] Rosa Larrañaga Agarristari eta Miren Atxaga Larrañagari egindako elkarrizketa. Gasteizen, 2015-05-26an.

[542] Beasaingo Udal Artxiboa. 3255. karpeta, 02. dokumentu-sorta.

[543] Beasaingo Udal Artxiboa. 3255. karpeta, 02. dokumentu-sorta. Horien artean; Ramon Crespo Alustiza eta Gonzaleztarretako baten (Joan Gonzalez eta Luis Gonzalez izan ziren hilak) bost seme-alaba, Jose Luis Igartuaren lau seme-alaba (beste bi seme hil egin zizkieten), Gregorio Begueren eta Ebaristo Mendiaren hiruna, Joan Otaegi eta Pedro Larrearen bina eta Joan Migel Garmendiaren alaba bat aurkitzen ditugu.

[544] Beasaingo Udal Artxiboa. 3255. karpeta, 02. dokumentu-sorta.

askok herritik ihes egin dutenez, familia asko orain goseak jota" daudela ere[545]. 1938ko uztailaren 30eko txosten baten arabera, Arangoiti Ospitalearen zerbitzuak Aldundiaren kargu ziren eta eraikinaren mantenimendua Udalaren kargu[546].

"Errepresaliatu "gorrien" umezurtzen lehen aitortza, guk dakigunez, 1944an egin zen, Nikasia Azarola Gorrotxategik, Gregorio Begueren alargunak, bere seme-alaba Arturo Begue eta Maria Katalina Begue Azarola, Gipuzkoako umezurtzen Errolda Nazionalean sartzea eskatu zuenean. 1944ko martxoaren 20an, Gipuzkoako Gobernu Zibilak, bi umezurtz horiek onartu egin zituen erroldan "Gudaren eta Iraultzaren ondorioz umezurtz" gisa geldituak (ez zuten idatzi nork hil zuen Maria Catalina Begueren eta Arturo Begueren aita). 1944ko martxoaren 21ean bizirik zeuden Agripina Poloren lau seme-alabak, Jose Luis Igartua Polo, Jose Maria Igartua Polo, Maria Begoña Igartua Polo eta Pedro Igartua Polo izan ziren zerrenda horretan sartuak (ume horiei, aitaz gain, euren bi anaia hil zizkietela gogoratu behar dugu). Martxoaren 28an, Joana Alustiza Murgiondok (Ramon Crespo Igartzaren alargunak) eskatu zuen bere alaba Maria Dolores Crespo Alustiza eta seme Jose Maria Crespo Alustiza errolda horretan sar zitzaten. 1944ko ekainaren 15ean, Dolores Belasko Rey izeneko emakume batek (gudan hildako Emilio Zarate Seguinoren alargunak) bere alabak, Julia Zarate Belasko eta Maria Karmen Zarate Belasko ere erroldan sartzea eskatu zuen. 1944ko abuztuaren 5ean, Anjela Hernandez Fernandezen txanda izan zen eta bere alaba Josefa Gonzalez Hernandez ere umezurtz bezala onartua izan zedila eskatu zuen. 1944ko urriaren 11n, Josefa Mendizabal Elortza izeneko emakume batek bere bi seme Antonio Basurto Mendizabal eta Alejandro Basurto Mendizabal inskribatu zituen errolda horretan[547]. 1945ean Katalina Agirre zegamarrak (Beasainen eraildako Pedro Larrea Ormazabalen alargunak) bere alaba Maria Rosario Larrea Agirre eta seme Joan Larrea Agirre zerrenda horretan sar zitzaten eskatu zuen[548]. 1945eko ekainean, Frantziska Izagirre Ormazabal izeneko emakume batek, bere seme Tomas Perez Izagirre zerrenda horretan sartzea eskatu zuen[549]. Ekainean halaber, Encarnacion Garmendia Lasak (1937an, 19 urterekin Iruñean eraildako Jose Manuel Landa Elortzaren alarguna) bere seme-alaba Emilio Landa Garmendia eta Ana Maria Landa Garmendia zerrenda horretan sartzea eskatu zuen. 1936ko eta 1945eko dokumentu batzuen arabera, ume horiengatik hilean 75 eta 90 pezeta artean jasotzen zuten laguntza-kontzeptu gisa.

Errepresio politikoko beste ekintza bat, politikoki kontra zeuden pertsonak ekonomikoki zigortzea izan zen. Horixe gertatu zitzaion, adibidez, 1940ko uztailean Joan Alberdi Beldarrain harakinari. Harakin horri, zortzi egunez (uztailaren 29tik abuztuaren 5era) harategia ixteko eta 500 pezetako isuna ordaintzeko zigorra ezarri zioten "Gurutzada Santuan borrokatu zuen jendearekiko erakutsi zuen tratua zela-eta"[550].

Errepresio politikoaren atala ixteko, memoriaren "desitxuraketaz" ere hitz egin behar dugu. 1942ko maiatzean, Beasaingo Udalak sinatutako dokumentu baten arabera (Gipuzkoako Gobernari Zibilaren inkesta bati emandako erantzuna zen), "iraultza eta guda zirela-eta" Beasainen inor ez zela hil esan zuten; eta soilik "kanpainan" 32 beasaindar (denak altxatuen aldekoak) hil zirela dio dokumentuak, 14 "boluntarioak" eta 18 erregularrak. Beasainen altxatuek errepresioan 1936ko uztailaren 27an eta 28an hildakoak desagerrarazten saiatu zen Udala (eta gudan hildako gudari edo soldadu errepublikano beasaindarrak ere bai; baina larriagoa da herrian gertatu izan zirenak, ondo ezagunak zirenak, ahanztea)[551]. Horrez gain "Errepublikaren azken hauteskundeetan" (1936ko otsailekoetan, suposatzen dugu; nazionalistek 562 boto, "tradizionalistek eta eskuindarrek" 498 boto, eta "Marxistek eta errepublikanoek" 472 boto lortu zituztela dio Udalak dokumentu horretan. Ondo ezaguna da Beasainen hauteskunde horiek Fronte Popularrak irabazi zituela[552].

1.5.f) Errepresio soziopolitikoa eta kontrol soziala

Garai horietan, erregimen berriaren aldeko jaiek zekarten ifrentzua, jaiekin bat egiten ez zuten pertsonen "markaketa" egitea izan zen. Aurreko kapituluan aipatu dugu zer-nolako funtzioak betetzen zituzten jaiek: hain zuzen ere, haien eginkizunetako bat "espazio publikoaren" edota jendearen "ohitura-oroimenen" okupazioa egitea izan zen. Horrekin batera, jendeari erregimenaren

[545] Beasaingo Udal Artxiboa. 3255. karpeta, 02. dokumentu-sorta.

[546] Beasaingo Udal Artxiboa. 151. karpeta, 13. dokumentu-sorta; eta Beasaingo Udal Artxiboa. 065. karpeta, 43. dokumentua.

[547] Beasaingo Udal Artxiboa. A082 karpeta, 06. dokumentu-sorta.

[548] Beasaingo Udal Artxiboa. A076 karpeta, 06. dokumentu-sorta. Dokumentuan, okerbidez "Catalina Larrea Aguirre" jartzen du, baina Aguirre bere eraildako senarraren eta bere seme-alaben abizena zen, ez berea. IRIGORAS, Angel: *Herri zapalkuntzaren lekuko batzuk. 1936-2006 Lehen orain eta beti: Eskubide berdinak pertsona guztientzat*. Erroteta. Bizkaia, 2006, 100. or.

[549] Beasaingo Udal Artxiboa. A076 karpeta, 06. dokumentu-sorta. Gure zerrendetan ez da agertzen Perez abizeneko hildako beasaindarrik; agian gudaren ostean Beasaina bizitzera etorritako familiaren bat izan zitekeen.

[550] Beasaingo Udal Artxiboa. 3762. karpeta, 69. dokumentu-sorta.

[551] Beasaingo Udal Artxiboa. 545. karpeta, 47. dokumentu-sorta.

[552] Beasaingo Udal Artxiboa. 545. karpeta, 47. dokumentu-sorta.

or.

aldeko datetan, edota erregimenaren aldeko ospakizunetan *erregimenak nahi bezala* parte hartzeko "aukera" ematen zitzaion, edo iradokizuna egiten zitzaion; hots "armada zibil" bateko parte egiten zen herritarra (ez dezagun ahaztu erregimen totalitario batez ari garela). Horretaz aurreko kapituluan aritu gara eta, orain, beste arlo batez arituko gara: herritarrak parte hartzera behartzeko edo herritarren parte hartzea lortzeko neurriez eta parte hartzen ez zutenak markatzeko neurriez.

Eskoletan adibidez, bai eskola nazional publikoetan zein pribatuetan, eskola-eguna hasi aurretik Espainiako ereserkia jotzen zen eta ikasleek besoa altxatuta zutela (agur faxista eginez) abestu beharra zuten. Arau hori ez zen "sinbolikoa", ez eta eskolek "garaiko giroarekin bat eginez" "berariaz" hartutako erabakia ere, baizik eta Estatuak goitik behera ezarritako neurria zen. Horren lekuko dugu 1938ko abenduaren 13an Gipuzkoako Hezkuntza Ikuskaritzako Buruak herri guztietara bidalitako gutuna (baita Beasaina ere), "probintzia honetan, eskola nazional zein pribatu batzuetan bandera jaso eta jaisteko ekitaldia, ereserki nazionalaren kantuaz lagundua, behar den gorentasunez betetzeko agindua ez dela betetzen"; eta herri ezberdinetako alkateei esan zien zortzi egunen buruan esan behar zutela zein eskoletan ez zen ekitaldi hori "behar zen bezala" betetzen. Jose Luis Guridi alkatearen erantzunean, Beasainen eskola denetan (nazionaletan, pribatuetan zein auzoetakoetan) betebehar hori betetzen zela erantzun zion[553]. Eta hala zen, Pedro Maria Ibaibarriagaren arabera, "eskolan *Cara al Sol, Isabel y Fernando, Espíritu de Iberia* eta bestelako abestiak abestu behar izaten genituen"[554]. Maria Pilar Lozaresek ere hori berresten du[555]. Eskola pribatuetan ere betetzen zen jardun hori: Felipe Ibarbia Alustizak Lasalletarren eskolan *Cara al Sol* abestia kantatzen zutela baieztatu digu[556]. Irizar Aranburu ahizpek ere hala dioskue: "guri mojetan, eskolan sartzerakoan, ereserkiren bat abestuarazten ziguten"[557]. (Hori gogoan ez daukala dioen bakarra Patxi Lasa Imatz dugu. Patxik dio "eskolan ez ziguten *Cara al Sol* abestuarazten, baina bai Falangera eramaten, eta han bai abestu behar izaten genuela". Lasa Imatzen arabera, Eskola Nazionaletako maisuek Falangearen egoitzan "Politikako klaseak" ematen zituzten)[558]. Bestetik, Eleuterio Aiestaren arabera, eskolan bertan "alkandora urdina eta uhaleria (Falangeko

1941eko Beasaingo Karmeldarren eskolako neska-taldea. Beheko lerroan, eskuinetik hirugarrena Sara Unanue da. (Argazkia: Sara Unanue Lobetok utzia)

[553] Beasaingo Udal Artxiboa. 3255. karpeta, 26. dokumentu-sorta.

[554] Arantza Ibaibarriaga Usabiagari eta Pedro Maria Ibaibarriaga Usabiagari egindako elkarrizketa. Donostian, 2015-11-15ean.

[555] Maria Pilar Lozaresi egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-07-03an.

[556] Felipe Ibarbia Alustizari eta Maria Karmen Ibarbia Sarriegiri egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-06-19an.

[557] Maria Ixabel Irizar Aranbururi eta Teresa Irizar Aranbururi egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-07-09an.

[558] Patxi Lasa Imatzi egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-06-25ean. Maria Pilar Lozaresek esan zuenaren arabera, "guk ez genekien hori zer zen ere". (Maria Pilar Lozaresi egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-07-03an).

uniformea) ematen ziguten eta hura jantzi behar izaten genuen"[559]. Beraz, ez dakigu bete ezean zein zigor ezartzen zitzaion eskolari edota maisuei (Guridiren arabera, Beasainen agindua bete egiten baitzen), baina agindu horien betebeharraz ideia bat ematen du horrek. Eskoletan halako sinboloek zuten garrantziaren inguruko adibide bat ematen digu Udalak 1941eko martxoaren 15eko Osoko Bilkuran, Eskola Nazionaletan, bandera berriak jartzeko aginduz, lehengoak "gastatuta" omen zeudela-eta[560].

1939ko irailaren 10ean, Frantzisko Franco diktadorea Beasainen egon zen. Aurreko egun batean, irailaren 8an, Udalak, eskola guztiei (publikoei zein pribatuei), ume guztiak biltzeko eta aurretik esandako puntu batera eramateko agindua eman zien eta puntu horretan, diktadorea pasatzerakoan, haren aldeko leloak abestu behar zituzten. Irailaren 12an, neskak Italiako Atzerri Ministro zen Galeazzo Ciano txalotzera behartu zituzten[561] (Jabier Garcia Bergara lekukoaren arabera, Cianorekin batera, Francoren Kanpo Arazoetarako Ministroa, Ramon Serrano Suñer, pasatu zen Beasaindik)[562]. Halakorik ez zen gertatu Errepublika garaian, Errepublikako lehendakaria, Nizeto Alcala Zamora, etorri zenean. Orduan ere beasaindar asko bildu ziren, baina orduko Udalak ez zuen inor behartu bertara joatera, eta Alcala Zamoraren kolore politiko bertsukoa izanik ere, erakunde publiko bezala, ez zen ongi-etorriaren antolatzaile izan (Zentro Errepublikanoa izan zen).

Eskolako umeak soilik ez ziren izan askotan halako jaietan "parte-hartzera" bultzatu zituzten bakarrak. 1941eko irailaren 30ean, Martin Esnaola alkateak, idatzi baten bidez, hurrengo egunean ospatu behar zen "Kaudilloaren Festarako"; CAFeko langileak ere parte-hartzera "bultzatu" zituen eta oso modu bitxian: dantzaldia antolatu zuen eta "CAFen lanik egiten ez bazen, dantzaldia arratsaldez izango zen (…) CAFen lan eginez gero, dantzaldia gaueko 9etatik 11etara izango zen". Noski, hori CAFeko langileek "Kaudilloaren Festan" parte har zezaten aurreikusia zegoen[563] (ez zen lehenengo aldia CAFek erregimen frankistarekin lotutako ekitaldiren batean parte hartzen zuena, 1941eko uztailaren 18a ere ospatu zuen enpresak)[564].

Ikur batzuek erakustearen derrigortasuna ere ezarrita zegoen garai hartan. Emilio Molaren hileta 1937ko ekainaren 13an antolatu zen Beasainen. Aurreko kapituluan esan dugun moduan, Udalak milizien kontzentrazioa egin zuen hileta hori ohore handiz ospatzeko. Horrez gain, 10etatik aurrera Beasaingo denda guztiak itxita egon behar zutela agindu zuen Udalak (meza 11etan

Falangista eta errekete-talde bat Beasainen, botere berriaren ordezkariak. Atzean, Espainiako banderadun balkoia duen etxea, orduko alkate Jose Luis Guridirena. Guridi bera falangisten eta erreketeen erdian zutik. (Argazkia: FL/MG, 125. or.)

[559] Eleuterio Aiesta Kristobalenari egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-06-11n).

[560] Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 21. dokumentu-sorta).

[561] Beasaingo Udal Artxiboa. 3255. karpeta, 47. dokumentu-sorta. Ez dakigu Cianoren kasuan zergatik behartu zituzten neskak bakarrik eta ez mutilak (aginduan ez du jartzen Cianori ongi etorri egitera mutilak behartu zituztenik).

[562] Jabier Garcia Bergarari egindako elkarrizketa (bi zatitan: Beasainen 2014-07-03an eta 2014-07-22an).

[563] Beasaingo Udal Artxiboa. 518. karpeta, 25. dokumentu-sorta

[564] Beasaingo Udal Artxiboa. 2941. karpeta, 23. dokumentu-sorta.

or.

hasi zen); eta Udaletxeko balkoian zegoen Espainiako banderari xingola beltza jarri zion[565]. Hala ere, oraingoan ospakizuna bera baino beste gauza bat zaigu interesgarriagoa: Udalak, ofizialki herritarrak hiletara joateko gonbidatu zituela, eta horrez gain, balkoietan Espainiako bandera jar zezaten agindu ziela[566]. Gauza bera egin zuten 1937ko uztailaren 27an Beasain altxatuek hartu zutela ospatzeko ezarri zuten egunean[567]. Hori baieztatzen duten herri-testigantzak ere baditugu, adibidez, Pako Ruiz de Apodakaren esanetan: "garai haietan gure amonak Espainiako bandera jarri behar izaten zuen, beldur handia zuen-eta"[568]. Eta halako desfileak eta abarrak nahiko maiz egiten ziren Eleuterio Aiestak esana duen moduan.

Jai ofizialetan Espainiako bandera leihoan edo balkoian ez jartzeak ondorioak ekar zitzakeen. Ez dakigu zer-nolako zigorrak izan ziren, edota soilik ohartarazpen bat izan zen, baina badakigu 1938ko ekainaren 14an, Emilio Mola hil zeneko urteurrena ospatu zen egunean, Espainiako bandera jarri ez zuten bizilagunen zerrenda bat egin zuela Udalak. Etxe gehienak, soilik atariko zenbakiaren eta oinaren arabera zerrendatzen ziren, baina tartean bazeuden etxe-izen batzuk ere[569]. Berdina gerta zitekeen desfile batean agur faxista egin ezean ere: Milagros Aranburu Muxikak gogoratzen du behin militar batzuek ume bati errieta egin ziotela pasatzean banderari agurrik egin ez ziolako[570]. Behin, Francoren bisitaldi batean, Eleuterio Aiestak kontatzen duenaren arabera, ume batek besoa ez zuela altxatu-eta, falangista batek erdaraz "eta hik zergatik ez duk besorik altxatu?" oihu egiten ziola kolpea eman zion buruan[571]. Aurreko kapituluan azaldua dugu halaber, Joan Andres Otaegi eraildakoaren alargunari, Bizenta Agirreri, ilea mozteko mehatxua egin ziotela tropei agur ez egiteagatik[572].

Espainiako ereserkiarekin eta ikur ofizialekin ere ezkutuko demak egoten ziren agintarien (edo haiek ordezkatzen zituzten sektoreen) eta herritar batzuen edota sektore neutroagoen artean. Adibidez, Elizan, herriko festetan edo urriaren 12an gertatzen ziren halakoak, Udaleko ordezkariek, Udala bertara joaten zenean, organistak Espainiako ereserkia jo zezatela nahi izaten zuten; eta jada 1950. eta 1960.eko hamarkadetan apaizen aldetik horren aurkako erresistentzia pixka bat jartzen hasi zen (Elizan politika "zibileko" elementuak sartzea zelako, baina benetako arrazoia Elizaren eta erregimenaren arteko erabateko identifikazioa jada lausotzen hasia zela). Ixabel Irizarrek aipatzen duenez, bere aita, Joan Migel Irizar, Loinatz abesbatzako zuzendari gisa, Guardia Zibilak, urriaren 12an urtero Espainiako ereserkia jotzera behartzen zuen, berak hala nahi ez bazuen ere[573]. Halakoak, herriko festetan ere gertatzen ziren, baita ere "Guda pasatu eta 30 urte beranduago ere", Aitor Garmendiaren esanetan. Garmendiaren arabera, mezerdikoan Espainiako ereserkia jo behar izaten zen, eta une batean, apaizak eta organistak uko egiten hasi ziren. Garmendiak esaten duenez, "orduan agintariak Udal-bandarekin etortzen hasi ziren, eta Banda kanpoan uzten zuten; mezerdia iristean, norbaitek barrutik ateak ireki eta Espainiako ereserkia jotzen zuten, barruan entzun zedin. Umekeria bat zen hori"[574]. Hori, Vatikanoko II. Kontzilioaren ondoren gertatu zen, Pablo Hunolt alkate eta On Segundo Dorrontsoro erretore zirela. Udala meza nagusira joan zen egun batean, organoarekin ez zuten ereserkirik jo mezerdian eta alkateak kontuak eskatu zizkion erretoreari. Erretoreak, Vatikanoko II. Kontzilioaren erabakiak eskuan izanik (1965ean amaitu zen Kontzilio hori), "orain arte jo da baina hemendik aurrera ez da joko" esan zion eta alkateak, horren ondorioz esan zuen "aktan jasota gera dadila, Espainiako ereserkia mezerdikoan jotzen ez den bitartean Udala ez dela joango elizara". Horren ondoren hasi ziren banda eraman eta kanpoan jotzen. San Martinen ere, Loinatz bigarreneko mezan banda militarrak urte askotan zehar jo zuen Espainiako ereserkia mezerdikoan.

1941eko abenduan ere antzeko adibide bat dugu. Abenduko lehen egunetan, Martin Esnaola alkateak, dendetan eta tabernetan, 1941eko abenduaren 10ean, ospatu beharreko Gazteriaren Frontearen (FET-JONSen gazteriaren) egunean erakunde horren entseina ez zeraman edonori, dendetan edo tabernetan sartzen ez uzteko agindua eman zuen[575].

Beste adibide bat 1942ko azaro-abenduetan izan genuen: Udalak Dibisio Urdinaren aldeko diru-bilketa herrikoia egiteko deia egin zuen, baina diru-emaileen zerrendak publiko egin zituen "aitormen" modura. Horren atzean, dirurik eman ez zutenei presio egiteko sistema zegoen. Diru-kopururik handiena eman zuena, 200 pezeta, Bernedoren fabrika izan zen, hain zuzen ere bere

[565] Beasaingo Udal Artxiboa. 3186. karpeta, 22. dokumentu-sorta.
[566] Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 23. dokumentu-sorta.
[567] Beasaingo Udal Artxiboa. 3762. karpeta, 13. dokumentu-sorta.
[568] Pako Ruiz de Apodaka Galartzari egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-06-18an.
[569] Beasaingo Udal Artxiboa. 2112. karpeta, 59. dokumentu-sorta.
[570] Milagros Aranburu Muxikari egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-07-05ean.
[571] Eleuterio Aiesta Kristobalenari egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-06-11n.
[572] Lourdes Martinez Otaegiri eta Pello Martinez Otaegiri egindako elkarrizketa. Ordizian, 2014-12-17an.
[573] Maria Ixabel Irizar Aranbururi eta Teresa Irizar Aranbururi egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-07-09an.
[574] Aitor Garmendia Goitiari egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-07-16an.
[575] Beasaingo Udal Artxiboa. 3762. karpeta, 84. dokumentu-sorta.

Loinatz bigarreneko prozesioa 1944-05-22an. Guardia Zibilak eta militarrak begira. Banda militarra prozesioan. Eliza erregimenaren propagandaren subjektu zein objektu bihurtu zen urte haietan. (Argazkia: JZG, 17. or.)

or.

jabeetako bat, Beasainen alkate sozialista izan zena (militar altxatuek kargutik kendua) eta konmutatutako heriotza-zigorra pairatu zuen Viktor Bernedo izanda. Beraz, argi dago presio handia sortu zutela herritarrengan eta bereziki gerraren galtzaileengan[576].

Erregimen berriaren ikurrak adieraztea derrigorrezkoa bazen, eta agintariak ikur horiek aireratzeaz kezkatzen baziren ere, aurkakoez ere kezkatzen ziren, hau da, aurkakoek ikurrik edota kolorerik erakuts ez zezaten. Asmo jazartzaile horiekin kaltetuetako bat, Zeferino Azarola Beasaingo tabernaria izan zen. 1943ko abuztuaren 21ean, Gipuzkoako Gobernadore Zibilak, Beasaingo alkateari, Azarolari bere tabernako "koloreak aldarazteko" agintzea eskatu zion, kolore haiek "modu txarrez interpretatuak" izan ez zitezen (koloreak berdea eta zuria ziren). Gainera, alkateak, 1943ko abuztuaren 25ean eman zuen lehen erantzunetik ulertzen da, Azarolak aurreko kartel bat ere aldatu behar izan zuela; eta hori, Gobernadorearentzat, "aurrekari bat zen", beste arrazoi bat Azarolaren tabernako koloreei zentzu ezkutu bat topatzeko. Alkateak azkenik esan zuen, Azarolaren tabernako koloreak "ezin dira nahita ere bandera nazionalistarenak (sic; ikurrinarenak) izan, kolore gorria falta delako" eta "ez dut uste berdea eta zuria asmo txarrez erabili dituenik", hala ere, "zentzu txarrik izan ez dadin, koloreak aldatzeko eskatuko diot" agindu zuen"[577].

Horrez gain, kontrako iritziak, edo erregimenaren kontrako iritzitzat ("bakea apurtzen zutenak") har zitezkeenak azaltzea erabat zigortua zegoen, iritzi horiek askotan, zeharo kontrakoak izan gabe, hau da, erregimena bera auzitan jarri gabe, kexa--izaerakoak edota atsekabezkoak soilik izanda ere. Teresa Irizarren arabera, bere aitari, Loinatz abesbatzako zuzendari izan zen Joan Migel Irizarri, behin 25 pezetako isuna jarri zioten bere anaia (Antonio Irizar, lazkaotarra) gudan hil zutela kontatzeagatik, salatari batek entzun eta parte eman zuelako[578].

Aurreko kapituluan jai ofizialak erregimen berriak nola eta zertarako ospatzen zituen azaldu dugu. Kapitulu honetan, jaiei buruzko beste arlo batez hitz egingo dugu: jai "zibilen" edo ez-politizatuen mugaketaz. Izan ere, garai hartako botereak, botere totalitarioa izaki, esan dugun moduan bizitzaren arlo guztiak kontrolatzeko beharra eta helburua zituen. Modu horretan, bere kontroletik kanpo joan zitezkeen herri-adierazpenak, "apolitikoak" izanda ere, galarazten edo gauza ez zitezen saiatzen zen. Jaiei dagokienez, dantzaldiak eta soinu-jotzeak, Beasaingo herrigunera mugatu zituen, auzoetan erabat debekatuz: hori erakusten du 1939ko abenduaren 23an Salbatore auzoko tabernako Joana Garmendia Aizpuruak igandetan eta jai-egunetan, arratsaldeko 3etatik 7etara Salbatoren soinu-jole batekin dantzaldiak egiteko baimena eskatu zuenean jasotako erantzunak. 1940ko urtarrilaren 23an erantzun zion Udalak: urtarrilaren 18ko Udal-bilkuran dantzaldiak eta soinu-jotze publikoak herrigunetik at ez baimentzeko erabakia hartu zuela[579]. 1941eko uztailaren 4an, eskaera berdina (Salbatoren dantza egin ahal izatea) ukatu zitzaion Fermin Aizpurua Mendizabal deitutako pertsona bati "lehenago bere emazteak (Joana Garmendia Aizpuruak dirudienez) eskatu zuela eta uko egin zitzaiola" argudiatuta[580].

Martin Esnaola alkateak, Arriarango auzoari dagokionez beste gorabehera batzuk ere izan zituen. Hasiera batean, 1941eko martxoaren 28an, Frantzisko Intsausti deitutako baten tabernan "baimenik gabeko mota guztietako dantzak" egiten zirela adierazi zuten[581]. Hala ere, apirilean, beste erabaki bat hartu zuten: igandeetan "tarteak errespetatuz" eta "otoitz egiteko orduak errespetatuz" soinua jotzeko baimena ematea; baina betiere "dantza libreak dantzatzeko, eta ez heldutako dantzak dantzatzeko" (hor, garai bateko karlismoaren kristautasun eta moralitate publikoaren inguruko ikuspegi hertsia zegoen). Apirilaren 26an Gobernadore Zibilak onartu egin zuen Udalaren erabakia[582].

Gipuzkoako Gobernu Zibila urrats bat harago joan zen 1940ko uztailaren 24an. Gipuzkoako herri batean (aginduan ez da esaten non) dantzaldi bat ospatzen ari zirela, kamioi batek, ospakizunean parte hartzen ari ziren pertsona batzuk zapaldu zituela-eta, dantzaldi guztiak (bai herriguneetan zein bentetan (erromeria-lekuetan)) debekatu egin zituen. Badirudi hasiera batean (agian Bandarekin izandako tirabirak zirela-eta, horiek baretzeko-edo) Beasainen hurrengo hilabetean ere dantzaldiak egin zirela, abuztuan Beasaingo Udalari berriz gogorarazi behar izan baitzion agindu hori. Beasaingo Udalak, abuztuaren 28an, Gipuzkoako Gobernadoreari bidalitako eskutitzean azaldu zion, dantzaldiak Loinatz jaietan soilik egin zirela, edo salbuespen bezala, uztailean eta abuztuan "Espainiako plazan" (egun Bideluze plaza) edo Nafarroa etorbidean, "errepidetik urruti dauden tokietan": Bestalde, "oso aparte dauden baserri batzuetan", igandeetan, "baserritarrek, euren kabuz, dantza egitera biltzeko

[576] Beasaingo Udal Artxiboa. 063. karpeta, 18. dokumentu-sorta.
[577] Beasaingo Udal Artxiboa. 3189. karpeta, 17. dokumentu-sorta.
[578] Maria Ixabel Irizar Aranbururi eta Teresa Irizar Aranbururi egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-07-09an.
[579] Beasaingo Udal Artxiboa. 066. karpeta, 47. dokumentu-sorta; eta Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 20. dokumentu-sorta.
[580] Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 21. dokumentu-sorta.
[581] Beasaingo Udal Artxiboa. 3762. karpeta, 75. dokumentu-sorta.
[582] Beasaingo Udal Artxiboa. 3190. karpeta, 05. dokumentu-sorta.

ohitura dutela" dio (kasu horretan Udalak zerikusirik ez duela iradokitzen du alkateak)[583]. Gipuzkoako Gobernu Zibiletik agindu hori heldu baino pixka bat lehenago, 1940ko uztailaren 8an, Beasaingo Udalak, kontrol sozialerako beste neurri bat hartu zuen aisialdiaren arloan: gaueko 10etatik aurrera tabernetan abestea "edo hitz beltzak esatea" debekatu zuen "auzokideei enbarazu egiten ziela-eta"[584]. Jarritako arrazoia hori bazen ere, praktikan, herriaren bat-bateko adierazpide kolektiboak erraz zitzaketen "giro-baldintzak" ezabatzeko asmoa zegoen horren atzean. Salbuespenen artean, bazeuden jai "politikoetarako" eta zibiletarako" salbuespenak ere. Lehenen artean, 1941eko apirilaren 18an, hurrengo egunerako, apirilaren 19rako, Bateratzearen festa zela-eta (hau da, 1937ko apirilaren 19an falangistek eta karlistek alderdi bakarrean bat egin eta FET-JONS alderdi bakarraren sortzea ospatzen zen) dantzaldia egiteko baimena eman zen[585]; eta baita urriaren 1ean ere, "Kaudilloaren Festa" egin behar zen egunean dantzaldia egiteko baimena ere[586]. Bigarrenen artean, 1941eko azaroaren 19ko bilkuran, 1941eko azaroaren 22rako, Zezilia Deunaren (Musikako zaindariaren) egunerako, Udalak Bandari Loinazko San Martinen plazan jotzeko baimena eman zuen[587].

Dantzaldiekin eta halakoekin kontuz ibiltzeko aroa izan zen hura. 1941eko irailaren 30ean, Beasaingo Udalak, Joan Mendizabali 75 pezetako isuna jarri zion eta 50ekoa Gillermo Sarasolari, gauez errepidean bi aulki jarri zituztelako eta haiekin jolasean ibili zirelako. 1945eko maiatzaren 24an beste hiru zigor ezarri zituen "kaleko eskandalua" tarteko: Polo Iglesias, Luis Otegi eta Luziano Gonzalez 25na pezetako isunaz zigortu zituen maiatzaren 5ean "kalean eskandalua sortzearren"; arau-hauste beragatik Luis Uranga Larrañaga eta Felipe Garmendia Aiestaran 50na pezetako isunaz zigortuak izan ziren maiatzaren 21ean; eta Felix Garmendia ordiziarra 50 pezetako isunaz zigortua izan zen, apirilaren 30eko gauean goizeko 3etan kalean trikitixa jotzeagatik.

Dantzaldien kontrako neurriak 1942tik aurrera pixka bat arintzen hasi zirela ematen du eta 1942ko uztailaren 10eko Udal--bilkuran, Frantzisko Untzueta zinegotziak, Udal-bandak uztailetik urrira bitartean, Loinazko San Martinen plazan, Geltokiko plazan (egun Barrendain plaza) eta Espainiako plazan (egun Bideluze plaza) txandaka, ostegun eta jaiegunetan. Bandak musika jo zezan proposatu zuen eta Udal-taldeak onartu egin zuen (euria izanez gero, Merkatu plazan joko zukeen Bandak)[588]. 1942ko abuztuaren 14an, jada Salbatoreko Fermin Aizpuruari "eguraldi ona zen igandeetan" Salbatoren dantzaldiak egiteko baimena ere eman zitzaion[589] (hala ere, Aizpuruak dantzaldi bat bere lurretan egitea eskatu zuenean, Udalak irailaren 4an eskaera horri ezetza eman zion "herri eta auzoetako plazetatik at dantzaldiak egitearen kontra" zegoela argudiatuta)[590]. Dena dela, irekitze hori ez zen erabatekoa izan: 1942ko ekainean, Aizpuruak Arriaranen jotzeko baimena eskatu zuenean, ezezkoarekin erantzun zion Udalak[591].

Alde "gorri-separatistako" (hots, ezkertiarrak edo abertzaleak), "pertsona ezagunak" hiltzen zirenean, Gobernadore Zibilak, 1943ko martxoaren 9an idatzitako dokumentu batean, Udalei, Beasaingoari barne, "adi" egoteko esan zien, herrian zer eskela agertzen ziren edota zer elkarrizketa izaten ziren, edo herritarrek egun horietan keinu subertsiborik egiten ote zuten, etab., antzeman zezaten[592]. Kontrol soziala, beraz, halako muturreraino heltzen zen.

Bestetik, herrietatik irtetea are zailagoa zen eta salbokonduktu baten (mugitzeko baimenaren) beharra izaten zen. Salbokonduktu horiek ematea, askotan diru-iturri zen probintzia bakoitzeko Gobernu Zibilarentzat eta Udalentzat. 1939ko uztailaren 27an, Gipuzkoako Gobernadore Zibilak Beasaingo Udalari (eta Gipuzkoako Udal guztiei) bidali zien idatzi batean, Gobernazio Ministerioak (egun, Barne Ministerioa), 1939ko uztailaren 27ko idatzi batean "kontzeptu horretan lortutako diru-sarrerak Gobernu Zibilari" jakinarazi behar zitzaizkiola" gogorarazi zien[593]. Gipuzkoako Gobernadore Zibilaren idatzi baten bidez, jakin badakigu, herritarrek salbokonduktuak formalki, inprimaki baten bidez eskatu behar zituztela, eta Udalak, eskatzaileen eta emandako salbokonduktuen zerrenda hilero bete eta Gobernu Zibilari bidali behar zizkiola. Horrela, Gobernu Zibilak eta beraren bidez, poliziak,

583 Beasaingo Udal Artxiboa. 3186. karpeta, 65. dokumentu-sorta.

584 Beasaingo Udal Artxiboa. 3762. karpeta, 68. dokumentu-sorta. Agustin Cacho kale-garbitzaileari eta Iganzio Irastortza gauzainari agindu zien Udalak zerbitzu hori betetzea.

585 Beasaingo Udal Artxiboa. 518. karpeta, 25. dokumentu-sorta

586 Beasaingo Udal Artxiboa. 518. karpeta, 25. dokumentu-sorta

587 Beasaingo Udal Artxiboa. 543. karpeta, 41. dokumentu-sorta; eta Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 21. dokumentu-sorta. Hau 1942an ere errepikatu zen (Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 19. dokumentu-sorta; eta Beasaingo Udal Artxiboa. 543. karpeta, 40. dokumentu-sorta); eta baita 1943an (Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 18. dokumentu-sorta; eta Beasaingo Udal Artxiboa. 543. karpeta, 39. dokumentu-sorta) eta 1944an ere (Beasaingo Udal Artxiboa. 543. karpeta, 38. dokumentu-sorta.).

588 Beasaingo Udal Artxiboa. 543. karpeta, 40. dokumentu-sorta; eta Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 19. dokumentu-sorta.

589 Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 19. dokumentu-sorta.

590 Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 19. dokumentu-sorta.

591 Beasaingo Udal Artxiboa. 066. karpeta, 60. dokumentu-sorta

592 Beasaingo Udal Artxiboa. 3189. karpeta, 16. dokumentu-sorta.

593 Beasaingo Udal Artxiboa. A083 karpeta, 08. dokumentu-sorta.

or.



GOBIERNO CIVIL
DE GUIPÚZCOA

REGISTRADO AL N.º 1465

SALVOCONDUCTO

a favor de la vecina de esta villa
D.ª María Esquisabel Baranbiaran
de 30 años de edad
para que sin impedimento alguno marche a
Vizcaya
con el fin de asuntos particulares

Hace el viaje por ferrocarril o carretera.
Suplico a las Autoridades no sujetas a mi jurisdicción le den facilidades para la realización de este viaje.

BEASAIN 16 de Agosto de 1947

EL ALCALDE,
El Secretario

Nota.-Este Salvoconducto es valedero para un mes.
Este documento será nulo si carece de número de registro.

Mod.

Edozein irteeratan salbokonduktua eramatea beharrezkoa zen. Irudian Maria Dolores Eskisabeli Bilbora joateko baimena ematen zion salbokonduktua. (Agiria: Andoni Sarriegi Eskisabelek utzia).

jakin bazekiten nor zen herri bakoitzetik irten behar zuena (aukerarik baldin bazuten, askotan, tokiko agintari frankistek, salbokonduktua emateari uko egiten zioten). Salbokonduktua zinegotziren batek sinatu behar zuen, beraz, erregimeneko pertsonak ez zirenek askoz ere zailagoa zuten hori lortzea. Askotan, harreman pertsonala izateak lagun zezakeen horretan. Gehienetan Jose Aranburu eta Rufo Artolain zinegotziak ziren normalean herritarrei salbokonduktuak ematerakoan eskuzabalen aritu zirenak. Hau diosku adibidez, Eleuterio Aiestak: "Jose Aranburuk on handia egin zuen hemen, salbokonduktuak ematen eta abar"[594]. Jabier Garcia Bergara ere bat dator: "gehienetan, salbokonduktuak Jose Aranburuk edota Rufo Artolainek ematen zituzten"[595]. Joan Unanua Artolainek esaten duenez, biek sinatzen zituzten salbokonduktuak, "bat bakarrik sinatzen ausartzen ez zelako". Unanuaren arabera, "azkenean, aitonari (Rufo Artolaini) salbokonduktu horiek sinatzeko ahalmena kendu egin zioten. Botere hori ez zioten Udaletik kendu, kuarteletik baizik"[596]. Egia esan, halako jendea ezagutzea, zenbait pertsonarentzat, lagungarri izaten zen, frankismoa bezalako erregimen injustu eta arbitrario batean "lagun zezakeen norbait" topatzea zelako askotan estualdi batetik irteteko bide bakarra. Baina beste alde batetik, halako mekanismoak eta horiek zekartzaten pentsaerak, Antonio Cazorlak esaten digun moduan, "garai horietan pertsonek soilik familian edo "mesedean" izan zezaketen konfiantza; horiek izan baitziren soilik, aldi baterako bazen ere, sufrikarioa arindu zezaketen laguntzaile bakarrak (…) Lan bat lortzea, administrazio-izapide bat erraztea… askotan erregimenaren barneko pertsona egokia "ezagutzearen" mende zeuden. Eta "mesedea" jasotzearen ifrentzua, agian gehiago behar edo merezi zuen beste bat bere eskubiderik gabe uztea zen"[597].

Nor non zegoen kontrolatzea oso serio hartzen zuen erregimen berriak. Gipuzkoako Gobernu Zibileko Ordena Publikoko Idazkaritzak, Beasaingo Udalari, 1940ko maiatzaren 26an, Guda Zibilean zehar Beasaina bizitzera etorritako pertsonak zerrendatzea eskatu zion, haiek ere kontrolatu ahal izateko. Izan ere, 1936ko uztailaren 18an toki ezberdinetan bizi ziren pertsonen gaineko jarraipen osoa egin zuten (non lan egiten zuten, norekin bizi ziren eta abar)[598]. Guztira, Beasainen, egoera horretan zeuden 85 pertsona zerrendatu zituen Beasaingo Udalak 1940ko ekainaren 12an[599].

Tropen aldeko diru-bilketa ere aipatu dugu lehen. Hala ere, Estatuaren aldeko diru-bilketa "zibilak" ere egin ziren. Diru-bilketa horiek, modu "boluntarioan" antolatu arren (*Censo de Prestación Personal a favor del Estado* izena zuten gazteleraz), praktikan,

[594] Eleuterio Aiesta Kristobalenari egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-06-11n.

[595] Jabier Garcia Bergarari egindako elkarrizketa (bi zatitan: Beasainen, 2014-07-03an eta 2014-07-22an). Jabier Garcia Bergarak kontrako adibidea ere jartzen digu, adibidez, Udaleko kontuhartzaile Bautista Telleriak behin bere aitonari ez ziola salbokonduktorik eman nahi izan.

[596] Joan Unanua Artolaini egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-09-05ean.

[597] CAZORLA SANCHEZ, Antonio: *Miedo y progreso. Los españoles de a pie bajo en franquismo, 1939-1975*. Alianza Editorial. Madril, 2016, 21.-22. or.

[598] Beasaingo Udal Artxiboa. 066. karpeta, 51. dokumentu-sorta.

[599] Beasaingo Udal Artxiboa. 066. karpeta, 51. dokumentu-sorta.



Gobierno Civil de Guipúzcoa

SECRETARÍA GENERAL

Negociado 52

Núm. 190

Sírvase hacer entrega de los documentos que se citan al margen, a D CECILIO SARRIELI ALDANONDO, vecino de esa localidad, dando cuenta a este Gobierno Civil de haberlo verificado.

San Sebastián 31 de Julio de 1942

EL GOBERNADOR CIVIL,
P.D.

Notificación multa 25 pesetas por viajar sin el correspondiente salvoconducto.

Al contestar cítese el Negociado y el Número, indicados en el membrete.

Sr. Alcalde de BEASAIN



1.436. EXCMO. SR.:

Tengo el honor de poner en conocimiento de V.E. haberse recibido en esta Alcaldía su atenta comunicación de la Secretaría General, Negociado 52, Núm. 890, de 31 del pasado mes de julio, juntamente con otra para D. Cecilio Sarriegui Aldanondo, vecino de esta Villa, notificándole la imposición de una multa de VEINTICINCO PESETAS; habiéndose entregado con esta fecha al interesado dicha comunicación, devolviéndose la duplicada firmada por el mismo.

DIOS guarde a V.E. muchos años.
BEASAIN, 7 de agosto de 1.942.
EL ALCALDE,

EXCMO. SR. GOBERNADOR CIVIL DE GUIPUZCOA.

SAN SEBASTIAN.-

Salbokondukturik gabe herritik ateratzeak zigorra ekar zezakeen. Irudiotan, Zezilio Sarriegiri ezarritako zigorra, salbokondukturik gabe bidaiatzeagatik. (Agiriak: Andoni Sarriegi Eskisabelek utziak)

beharrezkoa zen, 1939ko abuztuaren 12an, Jose Luis Guridik sinatutako bandoan agertzen den bezala ("derrigorrezkoa" –*obligatorio*- hitza agertzen da). Prestazio horretan parte hartzeko, egun zehatz batean izena eman behar zuten "18 eta 50 urte arteko beasaindar gizonezkoek": abuztuaren 17 eta 18an CAFen lan egiten zutenek, 19an Bernedo-enean lan egiten zutenek, 20an Beasaingo baserritarrek, 21 eta 22an beste industrietan lan egiten zutenek, 23an Astigarretakoek eta Aratz-Matxinbentakoek eta 24an Arriarangoek eta Garingoek. Izenik ez ematea "50 eta 1.000 pezeta arteko zigorraz zigortuko" zela ohartarazi zuen bandoak[600].

1.5.g) Errepresio soziopolitikoaren ondorioak: familien arteko harremanak eta biktimen oroitza

Halako kontrol sozialak, garaituen familietan eragina izan zuen eta politikaren mundutik aterarazi egin zituen. Gehienak ez ziren politikan sartu, eta sartuta zeudenak, ahazten saiatu ziren. Izan ere, diktaduraren errepresio mota ezberdinen (zuzenekoak –heriotzak zein kartzelatzeak–, soziopolitikoak eta ekonomikoak) helburuetako bat populazioa politikatik aldentzea edo soilik beren politikan sartzea izan zen[601]. Hori ondo azaldu zuen oposizioko Unibertsitateko irakasle batek 1961ean (testigantza berantiarra izan arren oso ondo azaltzen du guda ondorenean orokortutako sentimendua): "Espainiarrei erregimena gustatzen zaien galdetuz gero, %80k ezetz erantzungo luke. Baina erregimen hori aldatu nahi duten galdetuz gero, %80k ere ezetz erantzungo luke"[602]. Antonio Cazorlak berak errepresaliatu baten ahotik jaso zuen moduan: "diktadura-garaian, ahaztea

[600] Beasaingo Udal Artxiboa. F010 karpeta, 01. dokumentu-sorta; eta Beasaingo Udal Artxiboa. 249. karpeta, 30. dokumentu-sorta.

[601] CAZORLA SANCHEZ, Antonio: *Miedo y progreso. Los españoles de a pie bajo en franquismo, 1939-1975.* Alianza Editorial. Madril, 2016, 20.-21. or.

[602] FUERTES MUÑOZ, Carlos: "La representación de las actitudes políticas de los españoles en la prensa extranjera (1960-1975) in DEL ARCO BLANCO, Miguel Angel; FUERTES MUÑOZ, Carlos; HERNANDEZ BURGOS, Claudio; eta MARCO, Jorge (ed.): *No sólo miedo. Actitudes políticas y opinión popular bajo la dictadura franquista (1936-1977)* (111.-126. or.), Comares. Granada, 2013, 121. or. Bildutako adierazpen horiek, irakasleak Belgikako egunkari bati egin zizkion (*Le Soir*, 1961-06-17koa).

or.

gogoratzea baino hobea zen"[603]. Adibidez, Jesus Lopez Gallegoren arabera, bere familian "ez zen politikaz hitzik egiten"[604]. Mila Mendiak dionaren arabera "berez nabaritzen genuen askatasun-falta (…) gure aitak beldur handia zuen"[605]. Joan Ramon Imatzen arabera ere hala zen: "gure amonek ez zuten gudari buruz hitzik ere egiten"[606]. Berdina esaten digu Pako Ruiz de Apodaka ordiziarrak: "Guda Zibila tabua zen, ez zen hartaz hitzik ere egiten. Agian zaharren artean bai, baina gazteen artean ez"[607] (agian zaharren artean hitz egiteko modu hori, izaera politiko bati baino gehiago zegoen bizitutako bizipenei lotuta). Jabier Garcia Bergarak, zeinaren aitak eta lau osabek[608] gudan borrokatu zuten, bere etxean giro bera zegoela esana du: "gure aitak ez zuen sekula Guda Zibilaz hitz egiten"[609]. Sara Alonso Lamatak ere berdina dio, baina kasu horretan, "auto-laguntzazko" arrazoiren bat atzean bazegoela iradokitzen du: "Ez, ez zen hitzik egiten. Egia da, agian horrek momenturen batean lagundu egin zuela egoera hartan aurrera egiten, gertatutakoa egundokoa izan baitzen"[610]. Beldurra, noski beste faktore bat izan zen; adibidez, Lozares familian gertatutakoa dugu horren adibide: Maria Pilar Lozaresek esaten duenez "amak aitaren dokumentu batzuk gordetzen zituen, kartzela aldikoak-edo. Ez zizkion inori ere ikusten uzten, beldurra-edo izango zuen. Nik behintzat paper haiek ez nituen ikusi. Aita (Jose Maria Lozares Escolar) hil zenean, amak paper haiek apurtu egin zituen. Dokumentu haiek puskatzea sekulako askapena izan zen amarentzat"[611].

Halako errepresio "sozialak" ekarri zuen beste ondorio bat ere, prestigio- eta desprestigio-harremana: izan ere, erakundeak herritarrekiko alde batera eginak zeuden eta beste aldea bitartean erabat erreprimituta zegoen. Horrek instituzioek baztertua bizitzea ere esan nahi zuen. Izan ere, guda galdu zuen aldea, erabat desprestigiatuta eta baztertuta egon zen; askotan mespretxuz edo bortxaz tratatzen zituzten. Alizia Polok esana duen moduan "orduko Udala ez zen gaur egungoaren modukoa, etorri eta eskaera bat egiteko"[612]. Andoni Sarriegik dio halako "agintekeria", elizan ezkontzeko momentura ere iritsi zela. Lehen aipatu dugun Florentzio Aspe erretoreak, bere aita eta ama (Zezilio Sarriegi eta Mª Dolores Eskisabel) ezkontzeko joatean, derrigorrez berak ezkondu nahi izan zituen; aitak hori ezin zuen jasan eta bestalde laguna zuen apaiz batek ezkontzea nahi zuen. Beraz, aitak gotzaindegira jo behar izan zuen eskubide horren berme-bila, eta gotzaindegitik emandako erantzunari esker lortu zuen nahi zuten apaizarekin ezkontzea eta Aspek ez zuen horren aurka egiterik izan. Sarriegik kontatua du halaber, bere amandreari (Joxepa Maria Aldanondori) beste apaiz batekin gertatua ere[613]. Beraz, Beasainen bi alde oso zehatz zeuden: "irabazleak" (erregimenaren aldekoak) eta "galtzaileak" (erregimenaren kontrakoak) eta bien arteko harremana nahiko pipertuta zegoen, azken hauek, "galtzaile" deitzen zien Estatu baten eta bere administrazioaren mendean bizi behar zutelako. Bestalde, "irabazleen" aldetik, askok "galtzaileekin tratatu behar izate hori" endredo bezala hartzen zuten (gogora dezagun Francoren altxamendu militarraren helburuetako bat "Errepublika eta haren ildoa ezabatzea" izan zela). Hala kontatu digu, adibidez, Isabel Peñagarikano Dorrontsorok: "Guda ostean ezinikusi handia zegoen Beasainen. Erregimenekoek eurak zuzenak zirela eta besteok okerrak ginela uste zuten"[614]. Antselmo Ruizek ere hala dio: "gudaren ondoren, gorrien emazteak eta seme-alabak oso gaizki tratatu zituzten hemen"[615]. Roberto Beguek ere hori berresten digu: "bai, gudaren ondoren bi aldeen artean oso tarte handia zegoen". Roberto Begueren arabera "frankistak herrian zehar probokatzen ibiltzen ziren"[616]. Xanti Lasak ere esan digu: "guda ondoren gure aitonak (Santiago Aramburu Otamendik) gutxiespena jaso zuen, abertzalea zen-eta"[617]. Mila Mendiak, bere aita zenak (Florentzio Mendiak, derrigortuta "irabazleekin" gudan ibili behar izan zuenak, eta bere aita Ebaristo Mendia altxatuek berek Beasainen hil ziotenak) nola pasatu behar izan zuen kontatu digu: "guda pasatu ondoren, aitona hil zutenekin

[603] CAZORLA SANCHEZ, Antonio: *Miedo y progreso. Los españoles de a pie bajo en franquismo, 1939-1975*. Alianza Editorial. Madril, 2016, 67. or.

[604] Jesus Lopez Gallegori egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-06-25ean.

[605] Mila Mendia Aramendiri egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-07-02an.

[606] Joan Ramon Imatz Crespori egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-08-05ean.

[607] Alizia Polo eta Mikel Apaolatzari eginiko elkarrizketa. Beasainen, 2014-07-30ean.

[608] Familia hau ordiziarra zen berez, Garcia Bergararen aita guda ostean ezkontzerakoan etorri zen Beasainera bizitzera.

[609] Jabier Garcia Bergarari egindako elkarrizketa (bi zatitan: Beasainen, 2014-07-03an eta 2014-07-22an).

[610] Amaia Alonso Garateri, Jose Maria Alonso Lamatari, Sara Alonso Lamatari eta Anjel Lamata Villahozi egindako elkarrizketa. Donostian, 2014-07-17an.

[611] Maria Pilar Lozaresi egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-07-03ean.

[612] Alizia Polo eta Mikel Apaolatzari eginiko elkarrizketa. Beasainen, 2014-07-30ean.

[613] Andoni Sarriegi Eskisabeli egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-06-06an. Sarriegiren arabera, apaiz batek, On Pedro Mokoroak, gerra garaian, behin, bere amandreari (Joxepa Maria Aldanondori) aitortza bukatzean, bere semeez (Zezilio eta Jose Sarriegiz) non ziren edo zerbait ba al zekien galdetu zion eta hark ezer ez zekiela erantzun ondoren, esan zion: "haiek ere gogorra egin zuten gorriekin alde eginda". Eta, Sarriegiren amandreak, Joxepa Maria Aldanondok, hitzetik hortzera erantzun zion: "Jauna, haiek ez zuten gorriekin alde egin. Haiek, hemen, lanean zebiltzan eta bakean bizi ziren, baina, hilko ez bazituzten ihes egin behar izan zuten, Jesukristok Herodesengandik Egiptora ihes egin behar izan zuen bezalaxe". Kasu horretan iheslarien erruduntasuna bilatzen zuen apaizak, legez ezarritakoaren aurka armaz altxatu eta herritarrak eraso zituztenen aipamenik ere egin gabe.

[614] Frantziska Peñagarikano Dorrontsorori eta Isabel Peñagarikano Dorrontsorori egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-07-09an.

[615] Alberto Alonso Cacharrok eta Josu Lopez Castañaresek Antselmo Ruizi egindako elkarrizketa. Beasainen, 2013-03-25ean.

[616] Yolanda Begue Redondori eta Roberto Begue Sarasolari egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-06-27an.

[617] Xanti Lasa Aranbururi egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-08-05ean.

itxurak egiten ibili behar izaten zuen gure familiak". Mendiak zehazki pertsona bat aipatzen du: "Epifanio Argiñano gure aitarekin asko sartzen zen"[618].

Milagros Aranburuk ere esaten du: "Epifanio Argiñano eta Eusebio Asla gaiztoak ziren, Guridi alkatea baino gaiztoagoak"[619]. Pertsona horrengan insistitu zuten Ibarbia familiakoek ere: "Argiñanotarrak gurekin gaizki portatu ziren (…) Beste bat Santiago Muñoz izan zen, Ezkiagaren inprimategian lan egiten zuena. Horrek, frankisten manifestazioetara joaten ez zena hil beharra zegoela esaten zuen"[620]. Jabier Garcia Bergarak irabazleen aldekoen nolabaiteko inpunitate-sentimendua salatzen du: "guda bukatu ondoren, Rafael Oiarbide izeneko harakin bat gauero pasatzen zen Zaldizurreta baserriaren ondotik (baserri horretakoak jeltzaleak ziren) abertzaleen aurkako abestiak abestuz"[621]. Antzeko pentsaera zuten Lamata familian ere (eraildako Viktoria Huergo Toferen familian), Anjel Lamata Villahozek kontatzen duen moduan: "gudaren ondoren, Beasainen denok genekien nor zen "gureetakoa" eta nor zen "haietakoa"; nor zen "ezkerrekoa" eta nor "eskuinekoa""[622]. Amaia Gamarrak ere dio: "gudaren ondoren, pertsona batzuek, ez dut aipatuko izenik, gure amari bizitza zail egin zioten"[623]. Zenbait kasutan, adin txikikoengana ere iristen zen bi aldeetakoen talka hori: Jabier Garcia Bergarak kontatzen du "normalean erregimenaren aldeko familia bateko seme batek jo egin ohi ninduen"[624].

Umeen arteko borrokek islatzen zuten tentsio politikoaz, Garcia Bergaraz gain, Antselmo Ruizek ere ematen digu horren berri: "Ostegun arratsaldeetan, eskolan jai genuenez, umeok Senperera, futbol-zelaira joaten ginen. Behin "pelaioak" (guda aurretik karlisten gazteei deitzen zieten hala, guda ondoren FET-JONSeko gazteei, ofizialki *Flechas* ("Geziak") deitu zirenei) aurkitu genituen han instrukzioa egiten eta borroka bat izan zen"[625]. Ezkerreko familietako beasaindarrek Beasaindik kanpo ere jasan behar izaten zituzten halako isekak eta irainak; adibidez, Ramon Perez Onesimok kontatzen duenez: "ni soldaduskan postutik aldarazi ninduten, "gorrien familiakoa" nintzelako"[626].

Are gehiago, Beasaindik kanpo, errekete batzuek Beasainen egindakoaz harrotu egiten ziren. Hori izan zen adibidez, Timoteo Alonso eta Luzia Lamata bikoteak Nafarroako San Adrian herrian (Timoteo Alonso kartzelatik irten ondoren San Adrianen bizi izan ziren urte batzuez) bizitako egoera bat. Behin soroan ari zirela, auzokide batek, "zuek Beasaingoak zarete, ezta?" eta beasaindarrek baietz erantzun zioten. Halakoan auzokideak "guk han emakume bat hil genuen" esan zuen (Viktoria Huergo Tofe, Luzia Lamataren ama hil zuten). Zur eta lur geratu ziren. Euren ondorengoek esaten duten moduan, "ez dakit auzokideak, hil zuten emakume hori Luzia Lamataren ama zela bazekienik ere, baina ez dugu uste gure gurasoek auzokide horren hitzak gogoratzen zituztenik ere"[627].

Ondoko herrietan, gauza bera gertatzen zen, adibidez Ordizian. Pako Ruiz de Apodakak esana duen bezala: "Ordizian gerra ondoren, gizaseme denek zekiten nor zein aldetakoa zen"[628]. Yolanda Beguek ere Ordiziari buruz gauza bera dio: "Nire amari (Tomasa Redondori) txistua botatzen zioten eskuindarrek Ordizian". Hala ere gauza dramatikoago bat ikusi zuen, Tomasaren neba, Fausto Redondo, Asturiasen Goierriko erreketeek frontean eraila (ikus aurreko kapitulua) izan zenaren eraztun bat erakutsi zuten taberna batean Ordiziako eskuindarrek "guda-trofeoa bailitzan"[629]. Baita Olaberrian ere; Bujanda Olaran neba-arreben arabera: "Guri bizitza oso zail egin ziguten erregimenaren aldekoek Olaberrian"[630]. Horrez gain, legearen erabilera alderdikoia egiten zela salatzen du Yolanda Beguek: "Nire amonak denda bat zuen, eta legez beharrezkoa zen prezioak erakustea. Behin txarteltxo bat erori zitzaiola-eta, salaketa jaso zuen eta 3.000 pezetako isuna jarri zioten amonari. Ez genuen ordaindu nahi, baina amona kartzelan sartu zuten eta azkenean ordaindu egin behar izan genuen. Etxezarreta deitutako Ordiziako gizon batek 1.000 pezeta eman zizkigun"[631]. Ordizian giroa askoz ere okerragoa izan zitekeen Beasainen baino, Tomasa Redondok berak Ordiziako memoria historikoa ikertu duen taldeari esan zion bezala "gu, Ordiziako neskak, Beasaina joaten ginen mutilekin

[618] Mila Mendia Aramendiri egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-07-02an.
[619] Milagros Aranburu Muxikari egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-08-05ean.
[620] Felipe Ibarbia Alustizari eta Maria Karmen Ibarbia Sarriegiri egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-06-19an.
[621] Jabier Garcia Bergarari egindako elkarrizketa (bi zatitan: Beasainen, 2014-07-03an eta 2014-07-22an).
[622] Amaia Alonso Garateri, Jose Maria Alonso Lamatari, Sara Alonso Lamatari eta Anjel Lamata Villahozi egindako elkarrizketa. Donostian, 2014-07-17an.
[623] Amaia Gamarrari egindako elkarrizketa. Beasainen 2014-08-01ean. Gamarrak ordea, Untzueta familia aipatzen du salbuespen gisa.
[624] Jabier Garcia Bergarari egindako elkarrizketa (bi zatitan: Beasainen, 2014-07-03an eta 2014-07-22an).
[625] Alberto Alonso Cacharrok eta Josu Lopez Castañaresek Antselmo Ruizi egindako elkarrizketa. Beasainen, 2013-03-25ean.
[626] Ramon Perez Onesimori egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-07-30ean.
[627] Amaia Alonso Garateri, Jose Maria Alonso Lamatari, Sara Alonso Lamatari eta Anjel Lamata Villahozi egindako elkarrizketa. Donostian, 2014-07-17an.
[628] Pako Ruiz de Apodaka Galartzari egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-06-18an.
[629] Yolanda Begue Redondori eta Roberto Begue Sarasolari egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-06-27an.
[630] Sara Bujanda Olarani eta Jose Maria Bujanda Olarani egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-09-14an.
[631] Yolanda Begue Redondori eta Roberto Begue Sarasolari egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-06-27an.

dantzatzera; Ordiziako mutilak aberatsak (irabazleen aldekoak) ziren, eta ez zuten neska pobreekin (galtzaileen alabekin) dantzatu nahi izaten"[632]. Familia horretaz aparte, Ordiziako beste familia ezagun batzuekiko ere halako herra egon zen, adibidez, Iturriotz familiaren kontrakoa (Patxi Iturriotz, Patxi Zabale, Ordiziako alkate izan zen guda aurretik EAJren partetik). Bere alaba Miren Iturriotz Jauregiren arabera, guda-garaian desfileak egiten zituzten "frankistek herriren bat hartzen zuten bakoitzean. Urdaneta kaletik pasatzean herriko eskuindar batzuek gure etxera etxafuegoak botatzen zituzten eta guk leihatilak itxi behar izaten genituen"[633]. Halakoak pairatu behar izan zituen beste familia bat Niño-Alonso familia izan zen: "Ez genuen ezer eta gainera kalean barre egiten ziguten *gorriak* eta *errusiarrak* deituz"[634]. Goierritik kanpo ere, halako ezinikusi-giroa nagusitu zen Gipuzkoan, adibidez Azpeitian, hango herritar Begoña Errastiren arabera, espioia deitzea edota erregimenaren kontrakoei salaketen bidez eta abarrez bizitza zailtzea oso normala izan zen. Herri horretan beste bi pertsonak, Kontxi eta Miren Odriozola Uzkudun ahizpek, abertzaleen familia batean hazitakoek, guda ondoren abertzaleek eta karlistek euren artean hitzik ez zutela egiten esaten zuten "umeen artean ondo konpontzen ginen arren"[635].

Olaberrian, "FET-JONSeko herriko burua "*jefe local*" eta Alustiza apaiza aipatzen dituzte jazartzaile gisa; baina, oro har, orokorra izan zela esaten dute, adibidez, Olaberrian, taberna eduki zutenean "gaueko 11etatik aurrera irekita edukitzea debekatuta zegoen, baina erregimenaren aldekoak gaueko 11ak zertxobait gutxitan etortzen ziren, guri irekita edukiarazteko eta horrela guk gero isuna jasotzeko" (ikusten den moduan eskema hori, hau da, isunen inguruko araua kontrako ideologia zuten herritarrak propio zigortzeko erabiltzea, Ordizian bezalaxe erabiltzen zuten). Sara Bujandaren arabera "nik Jaunartzea goizeko zazpietan egin behar izan nuen, beste umeengandik aparte, fusilatu baten alaba nintzelako". Jose Maria Bujandaren arabera "Beasainen tratua hobea izan zen, hemen nahiko ondo tratatu gintuzten"[636]. Ane Barandiaran Erauskinek Lazkaoz ere irudi bera ematen digu: "Lazkaon bi aldeen artean gorroto handia egon zen"[637].

Iritzi horren kontrako salbuespenak ere bazeuden. Bide horretan Eleuterio Aiesta Kristobalenaren iritzia ere badugu. Beraren arabera, "gudaren ondoren, harremanak normalak izan ziren, ez zen tirabira pertsonal handirik bizi izan"[638]. Beste kasu batzuetan, Aiestak berak bortizkeria-eszena askoren berri eman digu, eskolan, desfile militarretan, eta abar; beraz ondorioztatzen dugu, beraren arabera, "eremu formaletan" (hau da, bortizkeria erabil zezakeena "paper ofizialean" zegoenean; desfileko militarra/herritarra, polizia/herritarra, irakaslea/ikaslea) izaten zela dio batez ere bortizkeria hori, hau da erregimenaren aldekoa edo funtzionarioa "zegokion paperean" zegoenean, ez hainbeste, herritarren arteko harreman "ez-formaletan". Aiestaren testigantza gutxieneko iritzi bat den arren, hori garrantzitsua da jabe gaitezen. Halako beste iritzi bat Arantza Ugarte Azkaraterena da; beraren arabera "ez zen pike handirik egon, baina aitari (Zesareo Ugarte medikuari) plaza kendu zioten"[639]. Xanti Lasa Aranburuk, bere aitona Santiago Aramburuk "gutxiespena" jaso zuela dioskun arren, bere familian, beste batzuek, gudari joandako familiakoek "errepresalia handirik ez zuten izan, izan ere, euren anaia batek, Ramon Modesto Aranburuk, "Txanbok", erreketeekin gudara joan behar izan baitzuen"[640].

Urteak pasatu ahala, "galtzaileetako batzuek" nolabaiteko ospea lortu zuten arren, gehienen kasuan hesi hori, "galtzaile" izanarena, mantendu egin zen. Halakoaren adibide ona ematen digu Ixabel Irizarrek, familia abertzale batetik zetozela kontuan izanda, bere aita Joan Migel Irizar, Loinatz abesbatzako zuzendaria (baina gudari jeltzale batzuen anaia, eta ikusi dugunez, bera ere isunaz zigortua) izanik: "gure aitak nolabaiteko ospea bazuenez (agintariek eta erregimenaren aldekoek) errespetatu egiten gintuzten, hori bai, nor bere lekuan egonda"[641].

"Galtzaile" izateak, aginte-organo ezberdinen aldetik nolabaiteko bortxa jarraikia jasotzea ere bazekarren, hau da, agintariek "markatutako" pertsonei emandako tratua behin eta berriz bortxazkoa izatea. Batez ere ideologikoki aktiboak izanaren gaineko ustea euren gain zuten pertsonek sufritu behar izan zuten halako "etengabeko bortizkeria". Horietako bat, Inaxio Imatz izan zen,

---

[632] ASKOREN ARTEAN: *Ahaztuen mindura. 1936ko gerra eta frankismoa Ordizian*. Ordiziako Udala, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Aranzadi. Ordizia, 2014, 150. eta 153. or.

[633] ASKOREN ARTEAN: *Ahaztuen mindura. 1936ko gerra eta frankismoa Ordizian*. Ordiziako Udala, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Aranzadi. Ordizia, 2014, 137. or.

[634] ASKOREN ARTEAN: *Ahaztuen mindura. 1936ko gerra eta frankismoa Ordizian*. Ordiziako Udala, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Aranzadi. Ordizia, 2014, 238. eta 239. or.

[635] BUCES CABELLO, Javier: *Azpeitia 1936-1945* (I. lib., *Giza Eskubideen zapalketa eta errepresioa Guda Zibilean eta lehen frankismoko garaian*). Azpeitiko Udala, Eusko Jaurlaritza eta Aranzadi. Azpeitia, 2016, 187. eta 192.-194. or.

[636] Sara Bujanda Olarani eta Jose Maria Bujanda Olarani egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-09-14an.

[637] Ane Barandiaran Erauskini eta Xabier Aierdi Aldasorori egindako elkarrizketa. Getarian, 2014-09-12an.

[638] Eleuterio Aiesta Kristobalenari egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-06-11n.

[639] Arantza Ugarte Alustizari eta Maria Rosario Ugarte Sukiari egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-08-05ean.

[640] Xanti Lasa Aranbururi egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-08-05ean.

[641] Maria Ixabel Irizar Aranbururi eta Teresa Irizar Aranbururi egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-07-09an.

bere biloba Joan Ramon Imatzek kontatzen duen moduan, "Franco Donostiara etortzen zen bakoitzean, aitona Inaxio kartzelara sartzen zuten egun batzuetarako"[642]. Halako beste bat Pablo Aguado anarkista zen (ordiziarra izatez, baina guda ondoren Beasainen bizitzen jarri zena). Andoni Sarriegik dioskunez, Beasainen, "jeltzaleen artean, Donostian edo Gipuzkoan ospakizun handiren bat edo inguruan bestelako gertakariren bat izaten zen bakoitzean, beti, Jesus Ibarbia, Alfontso Ibaibarriaga eta Zezilio Sarriegi (bere aita) Guardia Zibilen kuartelera deitzen zituzten; 1966. urtera arte behintzat (azkenekoz urte horretan Segurako euskal jaien ondoren)"[643]. Francoren bisitaldiez gainera, bazeuden halaber kuartelera "arrunta zena baino maiztasun handiagoz" deitzen zituztenak: Antselmo Garmendia kasu. Aitor Garmendiaren arabera "edozein aitzakiarekin deitzen zuten kuartelera, edozein baimen eskatuta, eta bizpahiru orduz izaten zuten han". Garmendia Goitiaren arabera, bere aitak kontatuta, "halako bisitaldietan ez zuten jotzen baina mespretxu handiz tratatzen zuten"[644]. Beasainen bertan, badakigu eraildako Ignazio Onesimo Matuteren anaia Aurelio Onesimo ere kartzelara eramaten zutela Franco Donostiara etortzen zen bakoitzean[645]. Xanti Lasak ere kontatzen du "Franco etortzen zen bakoitzean, Beasaingo batzuk kartzelara eramaten zituztela"[646]. Beste kasu bat, Joxe Aierdi zarauztarrarena izan zen, Bernabe Aierdiren familiakoa zen eta Ondarretako kartzelara eraman ohi zuten.[647] Xabier Aierdik kontatu digunaren arabera, Joxe Aierdi, aske utzi ondoren ere, "Franco Donostiara zetorren bakoitzean kartzelan sartzen zuten"[648].

Kasu batzuetan, aske utzitako jendeak bigarren salaketa bat ere izan zuen. Andoni Sarriegik bere osaba Jose Sarriegiri gertatutakoa kontatu digu. Sarriegik dioenaren arabera, Jose Sarriegi aske utzi eta etxera etorri zenean, Beasainen, eskuindar batzuek "hori horrela utzi behar al duzue?" esaten hasi ziren, eta bigarren salaketa bat jarri zuten. Jose Sarriegi 1939ko abenduaren 11n atxilotu zuten berriro, sei hilabete pasatu zituen Ondarretako kartzelan salaketa horren erruz eta 1940ko maiatzean burutu zen epaiketan libre atera zen. Epaiketara Fermin Perez bakarrik azaldu zen arren, Andoni Sarriegik dioskunez "Sacristan deiturako guardia zibil batek osabari berari atxilotuta kuartelera eraman zutenean aitortu zionez, hura prestatu zutenak, Rufo Artolain eta Eujenio Lasa izan ziren, Florentzio Gallego, Silberio Oria gauzaina eta Fermin Perez lekukotzat erabiliz". Jose Sarriegik, aske gelditu ondoren, bi prestatzaileei aurre egin zien esanez, "nik zer egin dizuet zuei zuek niri hau egiteko?" eta haiek "Guk ezer ez! Guk ez diagu ezer egin!". Sarriegik orduan "Zuek bai, zuek. Nik badakit salaketa nortzuk prestatu zenuten eta nortzuk sinatu zuten!". Batek esan bide zion, "Bai, epaileak esango du" eta Jose Sarriegik: "Ez epaileak ez du esaten, baina jakin egiten da. Nirerik ez duzue jakin egin ez dudalako, baina egiten duenarena jakin egiten da". Andoniren arabera, hori entzuterakoan, prestatzaileek bizkarra eman eta alde egin zuten eta aurrerantzean ez ziren ausartu Jose Sarriegiri aurrez aurre begiratzen[649]. Jose Sarriegi ez zen izan aske gelditu ondoren bigarren zigor bat pairatu zuen bakarra. Alfontso Ibaibarriagari ere berdina gertatu zitzaion. Ibaibarriaga, bigarren atxiloketa hori jasateko, bere seme-alaben arabera, "ez dakigu nork salatu zuen herrian", (agian Jose Sarriegiren kasuarekin izan zezakeen antzik, biek oso harreman estua izan zuten-eta), "Langile Batailoian aritu zen, Zaragoza eta Cariñena artean trenbide bat egiten"[650].

Hala ere, gudaren eta guda-ondorenaren "kaleko bortizkeria sozial" horren adibiderik tragikoena, Rufino Sarasolarena dugu. Sarasola 1934an greban parte hartu eta 1935ean epaitu eta kartzelatua izan zen, gudan gudari ibili zen, hiru heriotza-kondena izan zituen, eta geroago, El Dueso eta Puerto de Santa Mariako kartzeletan egon zen; azkenean, libre geldituta, Lakuntzan (Nafarroan) jarri zen bizitzen. Hala ere, tarteka Beasaina etortzen zen. Herria bisitatzen zuenean, "frankisten aldetik probokazioak jasan behar izaten zituela" kontatu digu bere iloba Roberto Begue Sarasolak. Kontuan izan behar da gizon horrek aurretik hiru heriotza-kondena izan zituela eta beldurrez bizitzera behartuta zegoela; beraz, asmo txarreko pertsonen probokazioentzako jomuga erraza izan zen. Horietako azkena ondo gogoratzen du Roberto Beguek: "1948ko Beasaingo festak ziren eta noria batean geunden biok. Behera begiratu eta Guardia Zibileko teniente bat ikusi genuen, Santiago Muñozekin batera eta Muñozek gu seinalatzen gintuen. Nire osabak orduan, noria goian zegoela, bere burua bertatik bota zuen. Ni eusten saiatu nintzen eta eskuan bere zapata nuela gelditu nintzen. Osaba erortzerakoan hil zen. Gogoan dut baita Muñozek tenienteari esana: "hau

[642] Joan Ramon Imatz Crespori egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-08-05ean.

[643] Andoni Sarriegi Eskisabeli egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-06-06an. Ibaibarriagari buruz, Arantza Ibaibarriaga Usabiagari eta Pedro Maria Ibaibarriaga Usabiagari egindako elkarrizketa. Donostian, 2015-11-15ean.

[644] Aitor Garmendia Goitiari egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-07-16an.

[645] Ramon Perez Onesimori egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-07-30ean.

[646] Xanti Lasa Aranbururi egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-08-05ean. Hala ere, Xanti Lasak diosku bere aitona, jeltzalea zena "ez zutela eramaten, baina beste batzuk bai".

[647] 1940. urtearen ondoren, bere seme Xabier Aierdi Aldasoro Beasaina etorri zen bizitzera. (Ane Barandiaran Erauskini eta Xabier Aierdi Aldasorori egindako elkarrizketa. Getarian, 2014-09-12an).

[648] Ane Barandiaran Erauskini eta Xabier Aierdi Aldasorori egindako elkarrizketa. Getarian, 2014-09-12an.

[649] Andoni Sarriegi Eskisabeli egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-06-06an.

[650] Arantza Ibaibarriaga Usabiagari eta Pedro Maria Ibaibarriaga Usabiagari egindako elkarrizketa. Donostian, 2015-11-15ean.

mozkortuta egongo zen" eta guardia zibilak erantzun: "hi hago isilik, hik ez duk ezer ikusi!""[651]. Kasu horretan ere, biktimak bere aurkako desprestigioa pairatu zuen, ez soilik momentu horretan Muñozek esan zuenagatik, baizik-eta "urte batzuen buruan ere hura errepikatzen" zuelako. Behin, taberna batean "hire osaba mozkorra zuan" esan zidan eta nik botila bat hartu nuen buruan hausteko eta eutsi egin behar izan zidaten"[652].

Garaituen familiek modu ezberdinez erantzun izan zioten egoera horri. Erreakzio ezberdinak izan ziren. Izan ere, egia da politikak gizarte bat osatzen zuela, baina herri osoaren gizartea –zeinaren zati etsai politikoak ere baziren– gizarte politikoaren alboan eta bera ukituz zegoen, tangente bat balitz bezala. Batzuek, nahiz eta argi izan zein aldetakoak ziren eta nola sufritu zuten, nolabait ere, bi aldeak ez gotortzera jo zuten; bai arrazoi "etikoak" ("ezin da arrangurarik izan soilik hura beste ideia batzuetakoa delako") edota "praktikoak" zirelako ("aurrera egin behar da"; batez ere kontuan izan behar da familia horiek galtzaileen familiak zirela, beraz oso zail zutela agintarien aldetik konpentsazioren bat edota aitormenen bat jasotzea). Adibidez, Anjel Lamata Villahozen kasuan; "guk argi genuen ezkerrekoak ginela, baina pike gabe hezi gintuzten, egia esan nik garaileen umeekin jokatzen nuen futbolean. Hala ere egia da ni 1945ean jaio nintzela" (beraz ez zituen guda ondorengo urterik latzenak bizi izan)[653]. Bere lehengusina Sara Alonso Lamataren arabera "agian gudari buruz gehiegi ez hitz egiteak, nolabait, egoerari aurre egiten lagundu zigun"[654]. Maria Pilar Lozaresek era hala zioen: "guri, familian, gizaki guztiak errespetatzen irakatsi ziguten, edozein alderditakoak baziren ere"[655]. Maria Rosario Ugarte Sukiak ere bat egiten du: "gu batere arrenkurarik gabe hezi gintuzten"[656].

Beste batzuek beste modu batean erantzun zioten, batez ere euren senitartekoen hiltzaileen aldetik probokazio ezberdinak jaso zituztenek. Adibidez, hori izan zen Bujanda Olaran familiaren kasua. Horiek, euren aita CAFen bahitu zuen taldearen buru zen Epifanio Argiñanori aurre egin zioten behin baino gehiagotan, batez ere Olaberritik Beasaina bizitzera etorri zirenean eta Beasainen taberna jarri zutenean. Hori baieztatzen digu Eleuterio Aiestak adibidez: "sekulako eztabaidak izaten zituen Bujanda familiaren tabernan, batez ere Sara Bujandarekin, horrek aurre egiten baitzion. Argiñanok noski dena ukatzen zuen, bere konpainian bortxaketarik ez zuela baimentzen ere esaten zuen, fusilamenduak saihestu egin zituela…"[657]. Gudan, frontean Asturiasen eraildako Teodomiro Gonzalezen alaba Pepi Gonzalez ere askotan oldartzen omen zitzaion Epifanio Argiñanori[658]. Beste kasu bat izan zen Zaldizurreta baserrian gertatu zena; han esan dugunez, egunero harakin karlista bat (Rafael Oiarbide) pasatzen zen abertzaleen kontrako abestiak kantatzen. Jabier Garcia Bergararen arabera "egunen batean, norbaitek jipoia eman zion Oiarbideri"[659]. Beasainen familiakoak izan dituen Edurne Alegria Aierdik honela kontatzen digu: "gure etxean oso garbi genuen Euskal Herrian guda bat izan zela eta gu euskaldunak ginela"[660]. Hala ere, kontutan izan behar da Alegria Aierdi Venezuelan jaiotakoa dela eta han ez zegoen noski Euskal Herrian zegoen presiorik.

Guda-bukaeran, horietako batzuk antza denez, egindakoaz damutu egin ziren. Horietako bat Epifanio Argiñano izan zen. Bere kasua paradigmatikoa da, izan ere, urteak pasatuta bere buruaz beste egin zuen, trenari bere burua botata[661]. Askotan sartzen omen zen Bujanda familiaren tabernara, lehen urteetan eztabaidatzera, azken urteetan aldiz, antza denez, barkamena eskatzera. Sara Bujandaren arabera "askotan etortzen zen, eta guk ezin genuen bota; hori bai, sukaldera pasatzen uztea ez zitzaigun bururatu ere egiten. Berak hori egiten zuen "Zuen amarekin egon nahi dut!", baina guk ez genion pasatzen uzten. Behin, Beasaingo festen bezperan gure tabernan egon zen, eta gero bere burua trenari bota zion. Gero jakin izan dugu bi etxe

[651] Yolanda Begue Redondori eta Roberto Begue Sarasolari egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-06-27an.

[652] Yolanda Begue Redondori eta Roberto Begue Sarasolari egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-06-27an.

[653] Amaia Alonso Garateri, Jose Maria Alonso Lamatari, Sara Alonso Lamatari eta Anjel Lamata Villahozi egindako elkarrizketa. Donostian, 2014-07-17an.

[654] Amaia Alonso Garateri, Jose Maria Alonso Lamatari, Sara Alonso Lamatari eta Anjel Lamata Villahozi egindako elkarrizketa. Donostian, 2014-07-17an.

[655] Maria Pilar Lozaresi egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-07-03an.

[656] Arantza Ugarte Azkarateri eta Maria Rosario Ugarte Sukiari egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-08-05ean.

[657] Eleuterio Aiesta Kristobalenari egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-06-11n.

[658] Jabier Garcia Bergarari egindako elkarrizketa (bi zatitan: Beasainen, 2014-07-03an eta 2014-07-22an).

[659] Jabier Garcia Bergarari egindako elkarrizketa (bi zatitan: Beasainen, 2014-07-03an eta 2014-07-22an).

[660] Edurne Alegria Aierdiri egindako elkarrizketa. Getarian, 2014-09-12an.

[661] Ikusten dugun bezala, elkarrizketatu gehienek oso modu ezberdinean ikusten zituzten alderdi berekoak izan arren "izaera ezberdinekoak" zirenak: alde batetik Argiñano edo Santiago Muñoz bezalako probokatzaileen" edo "gaizkileen"; eta bestetik "haien aldekoak izan arren jendea laguntzen saiatu ziren" Jose Aranburu edo Frantzisko Eltzo bezalakoen arteko bereizketa nabaria da. Kasu honetan, herritarrek garrantzia handiagoa ematen diote agintariaren izaera pertsonalari politikoari baino. Adibidez, Epifanio Argiñanok bere buruaz beste egitea behin baino gehiagotan aipatzea, moduren batean, pertsona horrekiko "zigor sinbolikoa" aipatzea izan daiteke. Ana Cabana ikerlariaren arabera, halako oroitzapenak sortzea, izuaren garaian, identitate politikoaren bidez ezinezkoa zenean "komunitatea babesteko" modu bat izan zitekeen. CABANA IGLESIA, Ana: "Sobrellevar la vida. Memoria de resistencia y resistencias de la memoria al franquismo" in DEL ARCO BLANCO, Miguel Angel; FUERTES MUÑOZ, Carlos; HERNANDEZ BURGOS, Claudio eta MARCO, Jorge (ed.): *No sólo miedo. Actitudes políticas y opinión popular bajo la dictadura de Franco (1936-1977)* (97-108. or.), Comares. Granada, 2013, 100-104. or.

gehiagotan ere egon zela antzeko aldartean"[662]. Testigantza gehienek diote hori gertatu baino lehenago barkamena eskatuz ibili zela. Ibaibarriaga Usabiaga neba-arreben arabera "azken urteetan gure gurasoen eta izeba-osaben inguruan ibiltzen zen barkamen eske (…) Behin osaba bati belauniko jarri zitzaion eta barkamena eskatu zion "zure familiari egindako minagatik"[663]. Arantza Ugarte Azkarateren arabera, bere aitarekin (Zesareo Ugarterekin) topo egiten zuen bakoitzean belauniko jarri eta barkamena eskatzen omen zion Argiñanok[664]. Kontzientziak gainezka eginda bere buruaz beste egin zuen beste bat, Ibarbia lehengusu-lehengusinen arabera, Santiago Muñoz izan zen, errekete izan zena eta Ezkiagaren inprimategian lan egiten zuena[665]. Ez dakigu zer izan zen Argiñanoren kontzientzia txarra piztu zuena, baina kontuan izan behar da erreketeen kapitain izan zela gudan zehar eta, Felipe Ibarbiaren arabera, "guda bukatu zenean CAFeko zuzendari izan behar zuela esaten ibili zen (…) azkenean postari eta CAFeko zaindari edo guarda bezala aritu zen"[666].

Hala ere askoz okerrago izan zuten guda galdu zutenek. Antonio Cazorla historiagile andaluziarrak esaten duen moduan, "ezkerraren alde egin zuten milioika pertsonek, euren ideiak, euren lexikoak, euren iraganak eta euren etorkizunerako itxaropenak, diktaduraren errealitate gogorrarekin bat egitera behartuta ikusi zituzten. Askatasunerako itxaropen osoa, bakean bizitzen uzteaz trukatzera behartuak izan ziren"[667].

Kasu batzuetan, egin ziren halako integrazio sozialerako saiakera batzuk ere, bi aldeen artean interes komunak edota "beasaindartasuna" nagusitzeko asmoekin. Horrela jarduteko, hainbat arrazoi izan zitezkeen: adibidez, errukia, edota errepresio bortitz eta orokortuarekiko nolabaiteko zalantzak adieraztea, edota erregimenaren propagandak jomugan jarritako kolektiboko ("gorri-separatisten") pertsona jakinen inguruan, kontsiderazio pertsonalak ("azken finean, hori pertsona ona da, ideia okerrekotakoa izan arren"), erregimenaren propagandak esandakoaren ("gorri-separatistak aberriaren kontrako arriskua dira") gainetik ezartzea. Jakina, horrek bazuen beste arrisku bat: integrazio hori "ahanzturaren" truke egitea, edo benetako azterketa kritiko bat ahaztuta egin izana, hau da "galtzaileari", integrazioa lortzeko, "guda ondo egina izan zela" edota "orain dugun agintea zuzena da" onarraraztea, praktikan bere ideiak edo bere arrazoi politikoak aurrera eramatea eragozten zuen erregimen bat onartu behar izatea. Ezin gara nahastu: izan ere, erregimen frankista, 1936ko Gudaren garaipenean oinarrituta zegoen erregimen bat izanagatik, "irabazleen" eta "galtzaileen" bikoiztasuna betikotzen zuen erregimena zen; beraz, "integrazio" hori, bi plano oso ezberdinetan zeuden subjektuen arteko integrazio desorekatua izan zen. Halaber, halako keinuek eragin sozial oso murritza izan zuten eta, eragin politikorik, ordea, bat ere ez. Halakoak aipatzen ditu adibidez, fusilatu baten (Joan Andres Otaegiren) biloba den Lourdes Martinez Otaegik: "Egia da Beasainen jende batek nire amona (Bixenta Agirre) lagundu zuela"[668].

Halako jarrera izan zuten erregimenaren aldeko pertsonen artean, askok Jose Aranburu zinegotzia edo Frantzisko Eltzo arielen arduradun zena aipatzen dituzte. Mila Mendiaren arabera, "Eltzok aita defendatu egin zuen askotan"[669]. Paulino Aranburuk dioenez[670], "Frantzisko Eltzo izan zen herria batzeko lan handia egin zuena, batez ere futbolaren bidez, futbol-taldearen bidez". Hori Roberto Beguek ere kontatu digu: "Eskuinaren aldetik, Pako Eltzo saiatu zen, futbola tarteko, bi aldeak elkarrengana hurbiltzen"[671]. Baten batek, Amaia Gamarrak kasu, Frantzisko Untzueta ere talde horretan sartu du, baina salbuespena da[672]. Bestalde, Joan Unanuak, bere aitona Rufo Artolain aipatzen du: "gure aitonak zenbait kudeaketa egin zituen jendea CAFen berriz sartu zedin"[673], iritzi horrekin beste batzuek oso ados ez badaude ere[674].

Batzuetan "galtzaileen" aldetik zetozen pertsonek ere, batez ere jarduteko posizio bat lortuz gero, eragin hori espazio berriak irabazteko erabil zezaketen. Halako kasua gertatu zen, gerra-ostean urte batzuk pasa ostean, nekazaritza-elkartearen

---

662 Sara Bujanda Olarani eta Jose Maria Bujanda Olarani egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-09-14an. Sara Bujandaren arabera "horietako bat, ziur aski, Agripina Poloren etxea izan zen",

663 Arantza Ibaibarriaga Usabiagari eta Pedro Maria Ibaibarriaga Usabiagari egindako elkarrizketa. Donostian, 2015-11-15ean.

664 Arantza Ugarte Alustizari eta Maria Rosario Ugarte Sukiari egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-08-05ean.

665 Felipe Ibarbia Alustizari eta Maria Karmen Ibarbia Sarriegiri egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-06-19an.

666 Felipe Ibarbia Alustizari eta Maria Karmen Ibarbia Sarriegiri egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-06-19an.

667 CAZORLA SANCHEZ, Antonio: *Miedo y progreso. Los españoles de a pie bajo en franquismo, 1939-1975*. Alianza Editorial. Madril, 2016, 20.-21. or.

668 Lourdes Martinez Otaegiri eta Pello Martinez Otaegiri eginiko elkarrizketa. Ordizian, 2014-12-17an.

669 Mila Mendia Aramendiri egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-07-02an. Lehen esan dugu, Mila Mendiaren aita Florentzio Mendia askotan erregimenaren aldekoek mespretxatu egiten zutela kalean.

670 Paulino Aranbururen testigantza. Testigantza hori ez dago grabatuta.

671 Frantzisko Eltzo Urrestaratzu Realean atezain gisa jokatzera iritsi zen, 1930-31 denboraldian. Reala hirugarren gelditu zen denboraldi hartan.

672 Amaia Gamarrari egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-08-01ean.

673 Joan Unanua Artolaini egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-09-05ean.

674 Adibidez, Patxi Lasa Imatzen, Andoni Sarriegiren eta Alfontso Ibaibarriaga Badiolaren testigantzak ditugu (Patxi Lasa Imatzi egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-06-25ean; Andoni Sarriegi Eskisabeli egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-06-06an; eta Markel Olanok Alfontso Ibaibarriagari eta Antonio Zubillagari egindako elkarrizketa. Beasaingo EAJko ordezkari Jose Antonio Imatzek utzia).

or.

1944ko legearen arabera eraberritu behar izan ziren Nekazaritzako Sindikatuak Hermandadeak eratuz. Gerra ondorengo Hermandadeko zuzendaritzatalde bat: goian ezkerretik eskuinera: Ugartemendiko Joan Apalategi, Loitzeneko Martin Sarriegi, Untsaingo Joan Bautista Gantzarain, Aranburugoiko Joan Lazkano eta Ugartemendialdekoko Frantzisko Imatz; eta behean ezkerretik eskuinera: Antzizarko Antselmo Garmendia, Usategiko Felipe Ibarbia, Zaldizurretako Andres Zufiaurre eta Zelaiederko Frantzisko Sarriegi. (Argazkia: Mari Karmen Ibarbiak utzia)

kooperatiban. Aitor Garmendiak esaten duen moduan "gure aitona nekazari-elkarteko buru izan zen, eta berak beti zioen, hara lanera joan behar zela, ez politikaz hitz egitera, politika atearen beste aldean utzi behar zela"[675] (beraz, bi aldeetako pertsonen artean ezberdintasunik egin gabe).

Erresistentzia-kasuak oso urriak izan ziren; izan ere kontuan hartu behar dugu errepresioaren helburuetako bat, jendea politikatik urruntzea izan zela. Eta helburu hori ondo bete zuen errepresioak, populazioaren zati handienak (bai Euskal Herrian, zein Espainian) 1960.eko hamarkadaren erdialdera arte, politika urrutitik ikustea lortu zuen, mesfidantzaz, ""kaltea soilik ekar zezakeen" zerbait bailitzan. Oposizio politiko aktiboan ari zirenak gutxiengoa ziren[676], bai Beasainen, zein Euskal Herrian, zein Espainian. Espainiako egoera orokorraren inguruan, Antonio Cazorlak berak esana da, "miseria-egoera orokorra bazen ere, langileek gehienetan ez zuten bilatzen erregimenarekin talka aurrez aurre egiterik, eta ez soilik Guda Zibilaren oroitzapenaren beldurra zela-eta (…) Orduko pertsona arrunt baten sentimenduak kontuan hartu behar dira (…) protestarako gutxieneko tresnak ez zeuden gizarte batean (…) Langile gehienentzat, helburu nagusia bizirautea eta beren familia babestea ziren (…) Horrek azaltzen du zergatik protesta gehienek ez zuten bilatzen erregimenarekin talka egiterik, baizik eta haren diskurtso moralari kontraesanak bilatzea".

Beste alde batetik, kontuan izan behar da erregimenak, hasieran erregimena etorkizunera begira "sendotzeko" (hots, jendeari politika egiteko tentazioa epe luze baterako kentzeko) egin zuen "bortizkeriaren aldeko inbertsioaz" gain[677], erregimenak "bakearen" inguruan egin zuen "propaganda-inbertsioa". Izan ere, jendea, jasandakoa jasanda, batez ere bake-gose zen. Gudak ekarri zuen errepresioa ahaztu nahi izan zuen. Horri lotuta, Bigarren Mundu Gudan ez sartzea erregimenarentzat propaganda-tresna handia izan zen; egia ez izan arren (Francok Bigarren Mundu Gudan Ardatzaren alde sartu nahi izan zuen eta horixe planteatu zion Hitlerri Hendaian), azkenean, frustrazio hori "Indargune bihurtu zuen", eta bakearen berme gisa

[675] Aitor Garmendia Goitiari egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-07-16an.

[676] CAZORLA SANCHEZ, Antonio: *Miedo y progreso. Los españoles de a pie bajo el franquismo, 1939-1975*. Alianza. Madril, 2016, 71.-72. or.

[677] RODRIGO, Javier: *Hasta la raíz. Violencia durante la Guerra Civil y la dictadura franquista*. Alianza argitaletxea. Madril, 2008, 111. or.

aurkezteko aukera eman zion, horrela erregimenaren etsaiak "bakearen etsai" gisa jarriz[678]. Bestalde, kontuan izan behar dugu Guda Zibila luzatu ahala, geroz eta jende gehiagorengan "buka dadila, edozelako emaitzarekin, baina buka dadila behingoz" zioen sentimendua nagusitzen hasi zela[679], eta diktadoreak ondo jakin zuen Guda Zibil berri batekiko beldur hori bere alde erabiltzen. Egia esan, Francoren bakea oso diskriminatzailea izan zen, baina jende askok ez zuen hori beste zerbaitegatik aldatzen saiatzeko adorerik, are gutxiago Guda Zibil berri baten prezioarekin.

Bazeuden halako kasu batzuk, baina gehienetan erresistentzia pasibo eta indibidualera mugatzen ziren; adibidez, irrati debekatuetako berriak entzuteko (Sara Unanueren arabera, "irrati bat izateko baimena eskatu beharra zegoen"[680]), edo II. Mundu Gudan alemaniarren porrotez poztea (poz hori sobera azaleratu gabe), edo pribatuan sendotze ideologikorako ekintza familiar pribatuak egitea. Jesus Lopez Gallegoren arabera, "fabrikan (CAFen) bazegoen maisu bat irrati txiki bat zuena eta handik berri klandestinoak entzuten zituen"[681]. Kasu hori bera zen Bernabe Aierdi jeltzalearena, bere iloba Xabier Aierdi Aldasorok kontatzen duenaren arabera; gainera, Aierdik salaketa bat ere izan zuen, Londres Irratia entzuten zuela-eta[682]. Beste batzuek, ordea, Pirenaica Irratia entzuten zuten, adibidez, Roman Unanueren familian[683]. Birsendotze ideologikoaren kasuei zegokienez; gehienetan, kasu pribatuak ziren; hala kontatzen digu adibidez, Pako Ruiz de Apodakak: "Gure etxean, eta oro har galtzaileen etxeetan, irratian Espainiako ereserkia jartzen zutenean, irratia itzali egiten genuen"[684]. II. Mundu Gudaren nondik-norakoek Beasaingo erregimenaren kontrako jendearengan izan zuen eraginari buruzko adibide bat Antselmo Ruizek eman digu: "Ni Bilbon soldaduska egiten nengoen. Gogoratzen dut AEBtako Armada Frantzian lurreratu zenaren berria irratian entzun genuenekoa; sekulako poza hartu genuen eta "Gutxi falta da! Gutxi falta da!" esaten genuen"[685]. Ixabel Irizarrek beste adibide bat eman digu: "Behin, lehengusuak bisitatzera Iparraldera, Donibane Lohizunera, joan ginen. Han Jose Antonio Agirre lehendakariaren hilobia bisitatu genuen"[686].

Erresistentzia politikoa, berriz, beranduago agertu zen. EAJri dagokionez, Ibaibarriagak berak egin izan zituen saiakera batzuk, baina bere hitzen arabera, askotan "bildu (…), isilpeko propaganda banatu (…) eta mendira joan" egiten zuten; beraz, gehiago zen "komunitatea mantentzeko" (isilpean behintzat) lana "eraso politikorako" (helburu batzuekin, estrategia zehatz batekin) egiteko baino. Guda ondoren, Miren Barandiaranen arabera, abertzale asko Pakoren fondan ibiltzen ziren, eta batzuetan Senpereko futbol-zelaian ere batzen ziren[687], Antonio Zubillagak hori baieztatzen du, baina Alai tabernan (Bujandatarrena) ere ibiltzen zirela dio eta "taberna horiek salaketa asko izaten zituzten"[688]. Ibaibarriagak dioenez, berak Goierriko jeltzale ezberdinen arteko lotura-lana ere egiten zuen: "Ordizian aldizkariak jasotzen nituen, Boni Apalategiren tabernan, Txindoki tabernan. Gero nik banatzen nituen: Lazkaoko Joana Izagirreri, Ataungo Markos Bidegorrietari, Idiazabalgo arotz bati eta abarri ematen nizkien". Garai haietako Beasaingo jeltzale batzuen izenak ere aipatzen dizkigu Ibaibarriagak: "Sarriegi anaiak, Joxe eta Zezilio; Ezkiatxiki baserriko hiru anaiak; Joxe, Rufino[689] eta Antonio Sarasola; (…) Boni Apalategi eta bere anaia Joan; Benito Muxika eta bere anaia Ramon… sail bat baginen" (Ibaibarriagak elkarrizketa horretan aipatzen ez badu ere, jeltzaleekin ibiltzen zen beste bat Jesus Ibarbia zen, gudan fusilatutako Jose Ibarbiaren anaia. Bestalde, elkarrizketa horretan Ibaibarriagarekin mintzakide izan zen Antonio Zubillaga ere talde horretan zegoen[690]. Antza denez herrian nahiko ezagunak ziren, "denok batera tabernan sartzen ginenean, Ezkiagak, Untzuetak eta horiek tragoa bukatu gabe alde egin behar izaten zuten". Igandeko dantzaldiak ere aprobetxatzen omen zituen Ibaibarriagak propaganda egiteko: "galtzetan sartzen nituen aldizkariak, eta dantza egiten hasterakoan, beti erortzen ziren lurrera bat edo bi"[691].

---

678 CAZORLA SANCHEZ, Antonio: *Miedo y progreso. Los españoles de a pie bajo el franquismo, 1939-1975*. Alianza. Madril, 2016.

679 HERNANDEZ BURGOS, Claudio: "Mucho más que egoísmo y miedo: Las actitudes de los españoles durante la Guerra Civil (1936-1939)" in DEL ARCO BLANCO, Miguel Angel; FUERTES MUÑOZ, Carlos; HERNANDEZ BURGOS, Claudio eta MARCO, Jorge (ed.): *No sólo miedo. Actitudes políticas y opinión popular bajo la dictadura de Franco (1936-1977)* (33-46. or.), Comares. Granada, 2013, 38. eta 46. or.

680 Sara Unanue Lobetori egindako elkarrizketa. Donostian, 2014-10-01ean.

681 Jesus Lopez Gallegori egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-06-25ean.

682 Ane Barandiaran Erauskini eta Xabier Aierdi Aldasorori egindako elkarrizketa. Getarian, 2014-09-12an. Horien iloba Miren Edurne Alegriaren arabera, "Beasainen, Bernabe Aierdiren etxean, isil-gordeka hitz egiten zen politikaz". (Edurne Alegria Aierdiri egindako elkarrizketa. Getarian, 2014-09-12an).

683 Sara Unanue Lobetori egindako elkarrizketa. Donostian, 2014-10-01ean.

684 Pako Ruiz de Apodaka Galartzari egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-06-18an.

685 Alberto Alonso Cacharrok eta Josu Lopez Castañaresek Antselmo Ruizi egindako elkarrizketa. Beasainen, 2013-03-25ean.

686 Maria Ixabel Irizar Aranbururi eta Teresa Irizar Aranbururi egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-07-09an.

687 BARANDIARAN CONTRERAS, Miren: *Euzko Alderdi Jeltzalea Beasainen. 100 urteko historia*. Beasaingo EAJ-PNV. Itxaropena argitaletxea. Zarautz, 1995, 110.-111. or.

688 Markel Olanok Alfontso Ibaibarriagari eta Antonio Zubillagari egindako elkarrizketa. Beasaingo EAJko ordezkari Jose Antonio Imatzek utzia.

689 Rufino Sarasola, aipatu dugunean, 1948an bere buruaz beste egitera bultzatua izan zela esan dugu. Beraz, pentsa genezake, jeltzaleak urte hori baino lehenago elkartzen hasiak zirela.

690 Andoni Sarriegi Eskisabeli egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-06-06an.

691 Markel Olanok Alfontso Ibaibarriagari eta Antonio Zubillagari egindako elkarrizketa. Beasaingo EAJko ordezkari Jose Antonio Imatzek utzia.

or.

Hala ere, EAJk eta ELAk momentu puntual batzuetan izan zuten desafio zabalak egiteko modurik eta Miren Barandiaranek esaten digun bezala: 1947ko eta 1951ko grebek Beasainen ere oihartzuna izan zuten: 1947ko maiatzaren 1ekoak gutxiago, CAFen soilik izan baitzuen oihartzuna (erregimenak, erantzun bezala, ogia banatzeari utzi zion), baina 1951ekoak gehiago: bi eguneko greba izan zen (maiatzaren 23an eta 24an) eta Beasainen eragin handia izan zuen[692]. Hala ere, ez Barandiaranek ez Ibaibarriagak, ez dute esaten greba horiek Beasainen kanpoko giroaren errepika huts izan ziren edota grebetan, haiek antolatzen edo nolabaiteko papera jokatzen, beasaindarrik ibili zenik.

Alfontso Ibaibarriagak berak esan zuen "Franco hil zenean hasi zen hemen (Beasainen) gauza pixka bat mugitzen"; hau da, ordura arte ekintzak nahiko bakanak izan zirela ondorioztatzen dugu. Ibaibarriagak berak esan zuen halaber: "ordurako gazte abertzale asko ETAri begira zeuden"[693]. Hots, Ibaibarriagaren arabera, 1960.eko hamarkadan ezker abertzale berria indartsu sartu zen Beasainen.

Beste mugimendu batzuk ere antolatzen hasi ziren Beasainen, adibidez, Alderdi Komunista, Eduardo Gamarra donostiarrak berpiztu zuen Beasainen lanera etorri zenean (berpiztu edo aktibatu, II. Errepublika garaian presentzia handirik ez baitzuen izan gure herrian). Bere alaba Amaia Gamarrak kontatzen digun moduan "CAFen bazegoen Alderdi Komunistaren zelula bat". Zelula hori, 1940.eko hamarkadaren erdialdean edo bukaeran sortua izan behar zuen, ezen, Gamarraren arabera "gure aita 1945ean etorri zen Beasaina lanera (…) eta 1948an atxilotu egin zuten"[694]. Komunistek ere, batez ere propaganda-ekintzak egiten zituzten, adibidez "CAFerako bidean ikurrina bat eta bandera errepublikano bat jartzen zituzten". Eduardo Gamarra ere prestigio handiko pertsona zen Beasainen eta bere atxiloketa gertatu zenean, CAFen dirua bildu zen presoentzat. Are gehiago, Beasaingo bi pertsona garrantzitsuk, *Indar*eko jabe ziren Larrañagak eta Ormazabalek 10.000 pezetako bermea jarri zuten Gamarra baldintzapeko askatasunean kartzelatik atera zedin[695].

Bestalde, ezin izan dugu Beasainen guda ostean Errepublika garaian herrian garrantzitsuena izan zen Alderdi Sozialistaren oposizio-jarduerarik aurkitu baina ezin dezakegu esan egon ez zelako ez dugula aurkitu, guk arrastoa aurkitzerik izan ez dugulako baizik. Esan beharra dago, ordea, Gipuzkoan, Donostian eta Tolosan behintzat, izan zirela oposizioko mugimendu sozialistak. Jose Fernandez Irurita tolosarraren arabera "1940. edo 1941. urtean ni klandestinitatean sartu nintzen. Alderdi Sozialistaren eta UGTren batzorde bana sortu genituen (…) Atxilotuak izan ginen eta niri heriotza-zigorra ezarri zidaten; sei urte egin nituen kartzelan"[696]. Manuel Blazquezen arabera, Tolosan, bi kide sozialistak Zelestino Corcuerak eta Migel Gomezek, batez ere presoen familientzako dirua biltzen zuten[697]. Beraz, argi dago sozialistek Gipuzkoan beren antolaketa izan zutela guda-ondoren eta horrek nolabaiteko jarduera izan zutela adierazten du, baina ez dugu jakiterik izan jarduera hori Beasaina iritsi zen.

Beasainen guda-ondoren, jarduera mantentzeko gai ez izana (kasua hori izatekotan) izan daiteke, gerora, Francoren diktaduraren ondoren Beasainen PSOEk hegemonia galtzeko izandako arrazoietako bat. Hala ere, nire ustez arrazoi horri ez zaio erabateko pisurik eman behar, izan ere, Tolosan ikusi dugu jarduera mantentzeko gai izan zirela, eta herri horretan ere gero behera egin zuen PSOEren pisuak. Beste arrazoi bat, 1960.eko hamarkadaren ondoren izandako aldaketa soziologiko eta ideologikoa izan daiteke; baina hori ikertzea ez da lan honen xedea.

Hala ere, askotan, frankismoa bezalako giro despolitizatu batean, oposizioko alderdiak zailtasun handiak zituzten mobilizatzeko, bai kontrako errepresioagatik, eta baita, lehen esan bezala, errepresioak eta pobreziak populazioarengan izan zuten eraginagatik ere: hau da jendearen despolitizazioagatik. Antonio Cazorlak jasotzen duenez, Gipuzkoan, 1950ean, Alderdi Komunistak Koreako Gudaren inguruan eskuorri batzuk bota zituenean, jendeak jaso ere ez zituen egin, "Munduko Futbol Txapelketaz interesatuago zegoelako". Adibide hori oso argigarria da oposizioko politikak jendearengan pizten zuen interes eskasaren inguruan, ezen jende arrunta, politikagatik borrokatzera baino gehiago bere arazo pribatuak, askotxo zirenak, konpontzera emana zen[698].

---

692 BARANDIARAN CONTRERAS, Miren: *Euzko Alderdi Jeltzalea Beasainen. 100 urteko historia*. Beasaingo EAJ-PNV. Itxaropena argitaletxea. Zarautz, 1995, 111-112 or.

693 Markel Olanok Alfontso Ibaibarriagari eta Antonio Zubillagari egindako elkarrizketa. Beasaingo EAJko ordezkari Jose Antonio Imazek utzia.

694 Amaia Gamarrari egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-08-01ean. Gamarraren arabera, Eduardo Gamarrarekin batera "lazkaotar bat ere atxilotu zuten".

695 Amaia Gamarrari egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-08-01ean.

696 FERNANDEZ IRURITA, Jose: "Testimonio: Jose Fernandez Irurita" in BARRUSO BARES, Pedro; BLAZQUEZ BRIMEZ, Manuel; eta VILLANUEVA TELLERIA, Jose Mari: *Cien años de socialismo en Tolosa 1891-1991* (69.-92. or.). Tolosako Elkarte Sozialista. Tolosa, 1991, 92. or.

697 BLAZQUEZ BRIMEZ, Manuel: "Primer centenario 1891-1991. Agrupación Socialista de Tolosa" in BARRUSO BARES, Pedro; BLAZQUEZ BRIMEZ, Manuel; eta VILLANUEVA TELLERIA, Jose Mari: *Cien años de socialismo en Tolosa 1891-1991* (11-20. or.). Tolosako Elkarte Sozialista. Tolosa, 1991, 19. or.

698 FET-JONSeko Gipuzkoako Probintzia-buruzagitza: *Parte mensual de actividades, correspondiente al mes de junio de 1950*. Archivo General de la Administrari, Alcala de Henares, Presidencia sekzioa, 266 kutxa, 1950; in CAZORLA SANCHEZ, Antonio: *Miedo y progreso. Los españoles de a pie bajo el franquismo, 1939-1975*. Alianza. Madril, 2016, 104. or.

1.5.h) Lan-errepresioa

Aurreko kapituluan esan bezala, Udalak funtzionario ezkertiar edota abertzaleen kontrako jazarpena hasi zuen. 1936ko azaroan, Udalak lau funtzionario postutik kanpo utzi nahi izan zituen: Frantzisko Donazar Zabaleta gauzaina, Joan Aranburu Irizar arielen administratzailea, Kandelario Aranburu Muxika idazkaritzako ofiziala[699] eta Segundo Lozares Escolar udaltzaina[700]. Horien behin betiko kanporatzea 1937ko urtarrilaren 12an egin zen, izan ere, data horretan, Udal-bilkurak erabaki zuen, Gipuzkoako eta Bizkaiko Gobernadore Zibilaren agindu baten ostean kanporaketa hori behin betiko egitea[701]. Hori, 1936ko abenduaren 5ean Administrazioan garbiketa egitea ahalbideratzen zuen legeko dekretu batek babesten zuen erabakia izan zen eta dekretu horrek, "Mugimendu Nazionalaren kontrako langile guztiak zerbitzutik kentzea" agintzen zuen[702]. Beraz, hemen ere, erregimeneko agintariek, euren kideek ezarritako legeak ere (berez legez kanpokoak zirenak, zilegitasunik gabekoak ziren-eta), urratu edo behintzat interpretazioari dagokionez "behartu" egin zituzten, haien kanporatzea lege horren aurretik eginda. 1938ko ekaineko dokumentu baten arabera, Joan Aranbururen postuan, arielen arduradun Frantzisko Eltzo Urrestaratzu jarri zuten eta Kandelario Aranbururen postuan Antonio Aiestaran Irastortza[703]. Gainera, bosgarren funtzionario bat ere kaleratu zuten, kasu horretan herritik ihes egin ez zuena, Antonia Bares Tolosa Udal Abere-hiltegiko tripa-garbitzailea hain zuzen ere. Bares Tolosaren "delitua" ez zen ihes egin izana (ez baitzuen egin) baizik eta "joera erabat ezkertiarra" izatea eta "UGTko kidea" izatea[704]. Beraz kasu horretan, Beasaingo Udalak, Gipuzkoako Gobernadore Zibilak ezarritako legeari beste urrats lotzaileago bat aplikatu zion, agindu horretan ezartzen ziren irizpideak hautsi ez zituen pertsona bat bere ideologia zela-eta kaleratuta.

Alta, Emilio Muñoz Novillo idazkaritzako laguntzailea, hori ere bere postua utzi zuena, Falangeko bolondres bezala aritzen zen eta ez zuten lanpostutik bota, baizik eta "suspentsioan" jarraitu zuen[705]. 1937ko urtarrilaren 21ean, Bandako danbolin-jole Viktoriano Telleria jarri zuen auzitan Beasaingo Udalak. Udalaren arabera, Telleria Idiazabalen bizi zenez gero, hango Udalari filiazioa eskatzea erabaki zuen[706]. Urtarrilaren 28an, Udal-bilkuran esan zen Idiazabalgo Udalak erantzun zuela eta Telleria gudaren aurretik abertzalea zela. Hori zela-eta, lanean, soldata etetea erabaki zuen Udalak[707]. Telleriak 1939ko urrian soilik lortu zuen bere postura itzultzea, zigortuta egon zen bi urteetako soldata jasotzeko eskubiderik gabe[708]. Viktoriano Telleriaren kasua argigarria izan zen eta beraren bitartez garbi ikusten da Udal berria bere garbiketa-saiakeretan hain urrun joan zela, ezen "pertsonala osorik garbitzeko", iraganeko militantziarengatik ere pertsona bat zigortzea erabaki zuela. Hau da, Udalak "galtzaileei", Udalari lotutako etorkizun profesionalean utzi zien tartea, oso txikia edo ezdeusa izan zen.

Udal frankistak are prozedura ankerragoa ere hasi zuen eta, otsailaren 25ean jakinarazi zuen bezala, "zortzi eguneko epea" ireki zuen "martxoaren 4ra artekoa, herritarrei, 108. Dekretuaren arabera, funtzionarioen inguruko salaketak jartzeko aukera emateko"[709]. Mekanismo horrek arrakasta izan zuen; bi salaketa izan baitziren: alde batetik Joan Zia izeneko kale-garbitzaile batek (askotan okerbidez "Jose Zia" bezala aipatua dena) Agustin Cacho kale-garbitzailearen kontra jarri zuen salaketa sozialista omen zelako. Bigarren salaketa larriagoa izan zen; lau zinegotzik sinatu baitzuten: Frantzisko Ezkiagak, Frantzisko Untzuetak, Martin Esnaolak eta Jerman Zaballosek. Salatua epaitegiko idazkari Joan Maria Barrena (Zentro Errepublikanoko kide izan zena, eta 1934an eskuina nagusi zen parlamentuari 1933ko gertaera batzuk zirela-eta monarkikoak amnistiatzearen kontrako protesta bat luzatu ziona), Esteban Peñagarikano aguazila edo udaltzaina (ezkerrekoa izatea leporatuta), Pedro Goena Urkia albaitaria (ezkerrekoa izatea eta Herri Fronteari botoa ematea leporatuta) eta Jose Antonio Aduritz abere-hiltzailea

---

[699] 1940an Udalak idazkaritzarako ofizial berri bat izendatzeko lehiaketa deitu zuenean, Kandelario Aranburu Muxikak errekurtso bat jarri zuen lehiaketa horren kontra. Hala ere, Udalak ez zion jaramonik egin (1940-10-14ko Udalaren Osoko Bilkura, Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 20. dokumentu-sorta).

[700] Beasaingo Udal Artxiboa. 151. karpeta, 11. dokumentu-sorta.

[701] Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 23. dokumentu-sorta.

[702] MOLINERO, Carme eta YSAS, Pere: "Las condiciones de vida y laborales durante el primer franquismo. La subsistencia; ¿un problema político?" in *Historia Ekonomikoaren Elkartearen VII Biltzarra* (aktak), Zaragoza, 2001.

[703] Beasaingo Udal Artxiboa. 3186. karpeta, 57. dokumentu-sorta.

[704] Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 23. dokumentu-sorta. Hala ere ez zuten kargutik kendu Jose Antonio Aduritz Isasa abere-hiltzailea, aurreko kapituluan azaldutako txosten baten arabera (1936ko azaroaren 24ko txostena); Beasaingo Udal Artxiboa. 151. karpeta, 11. dokumentu-sorta "independentea baina euskal abertzaleen aldeko joerakoa" zela azaltzen bazuen ere. Agian kargutik ez kentzeko arrazoia, berez inongo elkarte edota alderdiren kide ez izatea izan zen (Antonia Bares UGTko kidea zen). Laster ikusiko dugun bezala, ordea, salaketa bat jaso zuen bere aurka.

[705] Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 23. dokumentu-sorta. Guridik zuzendutako Udalak apirilaren 3an suspentsio hori kendu egin zion; aurreko Udalak kalean "Gora faxismoa!" oihukatzeagatik jarritako zigorra "bidegabekotzat" jo zuelako.

[706] Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 23. dokumentu-sorta.

[707] Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 23. dokumentu-sorta.

[708] Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 13. dokumentu-sorta. Honek, eta "euskal nazionalistekiko sinpatia izateak" –Udal frankistak esan bezala–, pentsarazten digu Viktoriano Telleria gogoz kontra joan zela gudara.

[709] Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 23. dokumentu-sorta.

or.

(EAEkoa izatea eta Herri Frontearen aldeko botoa ematea leporatuta; gogora dezagun urtarrileko bilkuran ez zutela bota, Antonia Bares Tolosa tripa-garbitzailea bezala), Agustin Cacho kale-garbitzailea (ezkertiarra izatea eta Herri Frontearen aldeko botoa eman izana leporatuta), Feliziano Arizmendi sobrestantea ("filiaziorik gabekoa" zela aitortu arren Herri Frontearen aldeko botoa eman izana leporatzen zioten) eta Pedro Jose Iguain bandako burua (abertzalea izatea leporatuta)[710].

Esan beharra dago 1936ko azaroaren 24an sinatutako beste txosten baten arabera, gizon horiek "filiaziorik gabekoak, baina erabat espainiar eskuinekotzat" definituak izan zirela (hau da, oro har, ezarritako erregimen berriarekin ados zeudela); Jose Antonio Aduritz Isasa izan ezik, zeina "abertzaleen aldeko joerakoa" zela esaten zen[711]. Oraingoan aldiz, horien aurkako salaketa egin zuten Udaleko zinegotzi batzuek eta, gainera, horien aurkako salaketa oso zehatzak eginez (botoa Herri Fronteari ematea eta alderdi jakin bateko kideak izatea). Hori, hiru hilabete eta aste batean egindako aldaketa izan zen, eta beraz, jakinda pertsona horiek ez zutela tarte horretan euren ideologia aldatu (gainera euren interes pertsonalen kontra arrisku pertsonala ekar ziezaiekeen edozein aldaketak), beraz, sinatzaileen iritzi ezberdintasunak soilik jo ditzakegu arrazoitzat. Azaroaren 24ko txostena, "Udalak" izenpetua zen, beraz, suposatzen dugu Jose Luis Guridi alkateak txosten hura egiten parte hartu zuela edo txosten hura ikuskatu zuela behintzat. Salaketa berri hori, beste alde batetik, lau zinegotziren partetik etorri zen eta lau zinegotziok karlista ezagunak ziren (Guridik profil "apolitikoagoa", "lausoagoa" edo "teknikoagoa" zuen, obra-kontratista baitzen). Azken salaketa horietan, agian pertsona "susmagarrien" kontra gogorrago jotzeko iritzia gailendu zen, aurreko txostenean, agian (hipotesi bezala soilik hitz egin genezake) Udalaren barneko egonkortasunari eta Udalaren funtzionamenduari lehentasuna eman ondoren[712]. Kasu horren inguruan, sei funtzionario salatuek deskargu-helegitea aurkeztu zuten eta helegite horiek 1937ko martxoaren 11ko Udal-bilkuran irakurri ziren[713]. Helegite horretan, salatutako funtzionario gehienek (Aduritzek, Arizmendik, Iguainek[714], Cachok, Goenak edo Peñagarikanok) inongo alderditan ez zeudela afiliatuta esan zuten[715], eta Aduritzek eta Arizmendik 1936ko otsailean eskuinari botoa eman ziotela (Peñagarikanok eta Barrenak ez zutela botorik eman esan zuten, eta Goenak eta Cachok boto zuria eman zutela)[716]. Iguainek ez zuen bere botoaren nolakotasunaren berririk eman[717].

Kasu horietan, prozedura berdina jarraitu zen; lehenik Udalaren martxoaren 4ko bilkuran (orduan bukatu zen salaketak jartzeko epea), Guridi alkateak eta Jose Beriztain Zubiaga idazkariak, espedientearen irekiera sinatu zuten eta, horren ostean, espedientea salatutako pertsonei bidali zieten, beren buruak defenda zitzaten (martxoaren 11 arteko epea zuten horretarako eta egun horretan Udalaren batzar bat egin zen espedienteak baloratzeko). Akusatuek deskargu-helegitea aurkeztu ostean, Udalak, martxoaren 13rako erabakia hartzeko beste Bilkura bat deitu zuen.

Euren deskargurako, akusatu gehienek inongo elkarteko kide izatea, edota 1936ko otsaileko hauteskundeetan eskuinaren aurkako hautagaitzen (Fronte Popularraren edo EAJren) aldeko bozka eman izana ukatu egin zuten. Hala egin zuten Feliziano Arizmendik (martxoaren 9an)[718], Jose Antonio Aduritzek (martxoaren 11n)[719], Agustin Cachok (martxoaren 11n)[720] eta Esteban Peñagarikanok (martxoaren 11n)[721]. Askoz ere bitxiagoa izan zen Pedro Jose Iguainen kasua. Honek bere defentsan hainbat lekuko aurkeztu zituen, tartean Jose Luis Guridi alkatea bera, berak zuzentzen zuen Udal-bandako musikari batzuk, horien artean salaketa sinatu zuen zinegotziren bat edo beste ere tartean zirela, Frantzisko Ezkiaga eta Martin Esnaola kasu[722]. Hor ikus daiteke erregimen frankistan tokiko boterea izan zuen jende baten joko bikoitza edo azpijokoa, alde batetik (ezkutuan)

[710] Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 23. dokumentu-sorta.

[711] Beasaingo Udal Artxiboa. 151. karpeta, 11. dokumentu-sorta. Dokumentu horretan Joan Maria Barrenaren inguruko definiziorik ez zen eman; dokumentu horretan Udal-langileak soilik zerrendatu ziren eta Barrena ez zen haietakoa.

[712] Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 23. dokumentu-sorta.

[713] Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 23. dokumentu-sorta.

[714] Pedro Jose Iguaini eta Feliziano Arizmendiri ez zieten kide izatea leporatu, baina ukatu egin zuten, euren politikotasuna azpimarratzeko.

[715] Ikusiko dugun moduan, Joan Maria Barrenak, salaketa hori ukatu ordez ñabartu egin zuen, Elkarte Errepublikanoko zuzendaritzako kide zela ukatu ezin zuenez, hura "alderdikoia ez zen elkartea" izan zela esanda.

[716] Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 23. dokumentu-sorta; Beasaingo Udal Artxiboa. 0424D karpeta, 04. dokumentua; Beasaingo Udal Artxiboa. 0424B karpeta, 20. dokumentua eta Beasaingo Udal Artxiboa. 0424D karpeta, 22. dokumentua; eta Beasaingo Udal Artxiboa. 0424E karpeta, 20. dokumentua.

[717] Beasaingo Udal Artxiboa. 0424D karpeta, 07. dokumentua.

[718] Beasaingo Udal Artxiboa. 0424B karpeta, 08. dokumentua. Hala ere, Arizmendik onartu zuen "Lau hautagaietatik hiru eskuindarrei botoa eman banien ere, laugarrenari ez nion botoa eman, gustukoa ez nuelako; eta haren ordez Mariano Anso errepublikanoari eman nion botoa, gure eskualdearen interesen defendatzaile sutsua zelako".

[719] Beasaingo Udal Artxiboa. 0424A karpeta, 02. dokumentua.

[720] Beasaingo Udal Artxiboa. 0424B karpeta, 22. dokumentua. Gogoratu behar dugu Agustin Cachok bi salaketa izan zituela bere kontra: bata Udalarena (Herri Frontearen aldeko botoa ematea eta ezkertiarra izatea) eta bestea lankide batena (Alderdi Sozialistako kide izatea).

[721] Beasaingo Udal Artxiboa. 0424E karpeta, 20. dokumentua.

[722] Beasaingo Udal Artxiboa. 0424D karpeta, 07. dokumentua.

garbiketa-salaketa bat sinatu Udalean, eta bestetik, (publikoan) salatuaren alde jokatu. Ez dakigu zein izan daitekeen hala jokatzeko arrazoia, baina litekeena da pertsona horiek Pedro Jose Iguainen eurekiko menpekotasuna sortzea[723].

Euren inplikazio politikoak guztiz ukatzerik izan ez zutenak (nahiz eta 1936ko hauteskundeetan Herri Fronteari botoa eman izana ukatu) Pedro Goena eta Joan Maria Barrena izan ziren. Joan Maria Barrena Elkarte Errepublikanoko zuzendaritzako kide izan zen, eta berak esan zuenez, "Elkarte hori besterik gabe Errepublikanoa zenean izan zen hori, *Izquierda Republicana*rekin lerratu zenean, utzi egin nion". Bestalde, Alderdi Errepublikano Erradikalarekiko –Lerrouxen alderdiarekiko– aldekotasuna deklaratu zuen Barrenak (alderdi hori, nahiz eta errepublikanoa izan, eskuinarekin lerratu zen erabat 1933tik aurrera)[724]. Goenak, nahiz eta "espainolista eta euskal antinazionalista" zela esan eta "inongo elkarteko kide ez zela izan" esan; ezin izan zuen ukatu 1931ko Udal-hauteskundeetan ezkerraren interbentore izan zenik, baina hori "alkatetzarako hautagaia nire koinatu Jazinto Urteaga zelako egin nuen" adierazi zuen[725].

Martxoaren 13an, Erretoreari, Beasaingo Guda Batzorde Karlistari, Falangeari eta Komandante Militarrari (Alberto Ruiz Morionesi) salatutako guztiei buruzko txostenak eskatzea erabaki zuen Udalak (antza denez, Jose Luis Guridik Gipuzkoako eta Bizkaiko Gobernadore Zibilari eskatu zion aholkua, eta hark hala jokatzea aholkatu omen zion)[726]. Florentzio Aspe erretoreak ere txosten batzuk idatzi zituen, baina haiek erlijioaren gaira mugatu ziren. Ruiz Moriones komandante militarraren doinua nahiko ezberdina izan zen akusatuen arabera eta batzuen kasuan "barea" izan zen. Adibidez, Aduritzi buruz "nazionalisten aldekoa zela esaten da herrian, baina egia den gauza bakarra, eskuinari botoa eman ziola, eta gainera erlijio-eginkizunetan ondo betetzen dituena da"; esaten zuen[727]. Arizmendiz ordea "familia errepublikano zahar batean jaioa izaki, tradizio hori jarraitu zuela (…) baina ezertan nabarmendu gabe eta erlijio-eginkizunak betetzen zituela"[728]. Agustin Cachoz "ideia ezkertiarretakoa, baina nabarmendu gabekoa" eta "familiako aita ona zela, baina erlijio-kontuetan hotza" zela esaten zuen[729]; eta Pedro Jose Iguainez "abertzalea dela esan izan da, baina askotan Zirkulu Karlistatik pasatzen da (…) eta katoliko ona da"[730]. Barrenarekin eta Goenarekin, ordea, bestelako doinua erabili zuen. Lehenaz, "Elkarte Errepublikanoko zuzendaritzako parte izan da, erlijio-betebeharretan hotza eta moralki oso txarra, bere emaztearengandik bananduta dago eta beste batekin dabil" esan zuen[731]; eta bigarrenaz "beti izan da ezkertiarren aldekoa eta errepublikanoen aldeko boto-emailea, harroa bazen ere, ez nabarmentzea lortu zuen arren", baina "Armadaren betebeharrerako abere-hilketa lanetan, bere jarrera txarra izan zela zioen eta horregatik 5.000 pezetako isuna jaso zuela"[732]. Peñagarikanori buruzko txostena bi aldetakoa zen, alde batetik "jarrera moral ona" zuela esan zuen, baina bestetik "politikaz kezkarik ez bazuen ere, agintzen zuenaren alde botoa ematen zuenetakoa zela, baina azken hauteskundeetan eskuineko hautagaitzaren boto-papera hartzeari uko egin ziola"[733].

Hala ere, ez dugu Falangearen edota Guda Batzorde Karlistaren txostenen berririk. Ez dakigu zein zen arrazoia, baina kontuan izan behar dugu Guda Batzorde Karlistako lehendakaria Frantzisko Ezkiaga zinegotzia –salatzaileetako bat– zela, eta bestetik, Beasainen Falangeak berezko kiderik ia ez bazuen ere, une hartan (beste gauza bat izan zen, 1937ko apiriletik aurrera alderdi bakarrean karlistak eta falangekoak bildu ondoren, alderdi horretan sartu zen kide berrien kopurua, asko karlismotik sartu ziren), Falangeko burua Migel Cerrajeria Tiffe zinegotzia zela. Beraz, biak zinegotziak, eta agian, txostena egin baino lehenago Udaleko bilkuraren batean bertan egin zuten deklarazioa.

Azkenik, martxoaren 20an erabaki zuen Udalak zazpiekiko ebazpena, eta martxoaren 22an jakinarazi zien. Zazpietan zigortuenak Pedro Goena Urkia eta Joan Maria Barrena izan ziren. Lehena, 1900etik zuen lanpostutik[734] kaleratua izan zen; (Udalak "ezkerrekoa, errepublikanoen boto-emailea eta Armadarekiko bere lan profesionala gaizki betetzeagatik zigortua izan

[723] Pedro Jose Iguain herrian oso pertsona ezaguna zenez, hainbat lekuko "boteretsuk" bere alde egitea lortu zuen: alkateaz gain, Migel Cerrajeriak eta Jose Mendia zinegotziek (horiek ez zuten bere aurkako salaketarik sinatu), Joan Peñagarikano Olaberriko alkateak, Santiago Muñoz Errekete laguntzarako buruak edo German Martin Olmedo "pelaioen" (gazte karlisten) instruktoreak sinatu zuten bere alde.

[724] Beasaingo Udal Artxiboa. 0424B karpeta, 20. dokumentua. Barrenak gainera, esan zuen, "Batzorde Gorriak" (Beasaingo Defentsa Batzordeak), bere lanpostutik kendu egin zuela. Defentsa Batzordeak Udal-epaile moduan Joakin Etxeberria Muxika jarri zuen.

[725] Beasaingo Udal Artxiboa. 0424D karpeta, 04. dokumentua. Pedro Goena bere emazte Dominika Urteagaren bidez zegoen Jazinto Urteagarekin senidetua, azken bi horiek neba-arrebak baitziren.

[726] Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 23. dokumentu-sorta. Martxoaren 16an, adierazten den moduan, Pedro Jose Iguainek, espedientea irekitzeagatik, behin-behinekotasunez betetzen zuen idazkaritza-kargua utzi egin behar izan zuen.

[727] Beasaingo Udal Artxiboa. 0424A karpeta, 02. dokumentua.

[728] Beasaingo Udal Artxiboa. 0424B karpeta, 08. dokumentua.

[729] Beasaingo Udal Artxiboa. 0424B karpeta, 22. dokumentua.

[730] Beasaingo Udal Artxiboa. 0424D karpeta, 07. dokumentua.

[731] Beasaingo Udal Artxiboa. 0424B karpeta, 20. dokumentua.

[732] Beasaingo Udal Artxiboa. 0424D karpeta, 04. dokumentua

[733] Beasaingo Udal Artxiboa. 0424E karpeta, 20. dokumentua.

[734] Beasaingo Udal Artxiboa. 065. karpeta, 21. dokumentua.

or.

zela" adierazi zuen)[735] eta bigarrenari (ez zen Udal-funtzionarioa) Udaletik jasotzen zuen aparteko paga kentzea erabaki zuen. Barrenaren kasuan, Udalak plus hori kentzea lana galtzeko erabakigarria izan zen, izan ere, 1938ko uztailean, Udal-epaitegiko behin-behineko idazkari moduan Daniel Perez ari zen (ez dugu horren data zehatzik eta gure iturria, Udaleko pertsonaren batek –agian Jose Beriztain Zubiaga idazkariak– eskuz idatzitako eskema bat da eta, eskema hori, Beasaingo kargu batzuk zerrendatzen dituena, badirudi Gipuzkoako eta Bizkaiko almanaka baten egileen eskaerei erantzun aurretik egindako zirriborroa dela)[736]. Bi kasuetan esan genezake, agian ezkerrarekin lotura "organikoa" izatea (txikia izan arren) ukatu ezin izanak, bere moralaren inguruko erlijio-kontsiderazioek eta Morionesen txosten erasokorrak, pisu handia izan zutela erabakian[737]. Gainera, Pedro Goenari, frontea hornitzeko abereak hiltzearen inguruko lan bat egitea ukatu izanak, kalte egin zion ziurrenik[738].

Beste funtzionarioen kasuan, Arizmendi hiru hilabeteko lan eta soldata gabe egotera zigortu zuten (nahiz eta martxoaren 22ko dokumentu batean alkateak "eskuineko errepublikanoa eta familiako aita bikain" bezala definitu[739]). Aduritz (hartaz Udalak, bere helegiteak "bere kontrako salaketak guztiz ez zituela deuseztatzen, batzokira joaten zela, baina "frogatu du azken hauteskundeetan eskuinaren aldeko botoa eman zuela" zioen[740]) eta Cacho bi hilabetez zigortu zuten (bere inguruan "Joan Ziaren salaketa zegoen Alderdi Sozialistakoa zela salatuz eta euren arteko liskarrengatik izan zela" ebatzi zuen Udalak; baina hala ere, zigortu egin zuen)[741], Iguain hilabete bateko zigorraz eta Peñagarikano bost eguneko zigorraz[742]. Kasu horretan, denei inolako elkarteren kide ez izateak lagundu egin zien. Beste interpretazio posible bat zatekeen salatuen kokapena zein zen jakitea. Izan ere, adibidez, Feliziano Arizmendiren kasuan, bere lana "espezializazio handikoa zen" (hau da, ordezteko zaila) eta bere lanagatik Guridi alkatearekin aurretik ere nolabaiteko harremana izango zuen. Bitxikeria gertatu zen Agustin Cachoren kasuan, Udalaren trakeskeria zela tarteko, bere kontrako zigorra hasieran eskatua baino arinagoa izan zen: Udalak bi hilabeteko soldata kentzeko zigorra erabaki zuen, baina berari bidalitako jakinarazpenean hilabete bakarreko zigorra azaltzen zen. Cachok ekainean maiatzeko hilabetea ordaindu ez ziotenean, kexua agertu zuen eta Udalak arrazoia eman besterik ez zuen izan, eta hilabete hori ordaindu egin zion[743]. Cachoren eta Joan Ziaren arteko ika-mikak ez ziren hor gelditu, izan ere, beranduago Ziak Cachoz alkatearen begikortasuna dela-eta jarri beharreko isunetatik libratu zela komentatu baitzuen[744].

1937ko apirilaren 22an, botatakoen aldaketen berri eman zuten. Antonia Bares tripa-garbitzailearen postua, behin-behinean Maria Luisa Herrerak hartu zuela ageri da Udal-bilkurako aktan (halere, 1940ko abuztuan Udalak tripa-garbitzailearen posturako beste lehiaketa baten deia egin zuen)[745], eta albaitari-postuari dagokionez, Pedro Goenaren tokia, Udal-albaitariaren postua, Albaitari Militarrak hartu zuen[746]. Hala ere, uztailaren 1ean, albaitari militarrak esan zuen postua utzi egin behar zuela, Armadarekiko betebeharrak (Armadaren aldeko abere-hilketa) bukatu zituela-eta; eta beraz, Beasaingo Udalari Ordiziako Udalarekin bat etortzea "aholkatu" omen zion[747]. Garai batean, Jose Riera egon zen albaitari-lanak egiten, bere herriko postua libratu zen arte (1939ko martxoaren 4an jakinarazi zuen udalak Rierak postua utzi behar zuela)[748]. 1939ko otsailaren 11n jakinarazi zuen Udalak Beasaingo udal-albaitariaren postua Eujenio Lekuona Imatz ordiziarrak lortu zuela (behin-behinekotasunean)[749] (hala ere, 1940ko martxoan, Gipuzkoako Abeltzaintza Zerbitzuko buruak, albaitari-ikuskari postua falta zela esan zion Beasaingo Udalari. Postu horrek, urtean 2.800 pezetako soldata izan behar zuen[750]. 1940ko irailaren 7an, albaitari-postua Manuel Oñatibia Aurela izeneko

[735] Beasaingo Udal Artxiboa. 0424D karpeta, 04. dokumentua.

[736] Beasaingo Udal Artxiboa. 252. karpeta, 19. dokumentu-sorta.

[737] Beasaingo Udal Artxiboa. 0424B karpeta, 20. dokumentua. Gainera, Barrenarena izan zen Florentzio Aspek txostenik egin gabeko kasu bakarra, agian horrek bere Elizarekiko urruntasuna azaltzen du. Aspek Goenaren inguruan egin zuen txostena ere ez zen oso gozoa izan.

[738] Lanpostua galdu eta gutxira hil zen Pedro Goena Urkia, 1938ko ekainaren 4ko Udal Bilkuran jada bere alarguna zen Dominika Urteagaren idatzi bat irakurri baitzen, Urteagak Goenak Udalarentzako egindako lanarengatik pentsio bat eskatu zuen (maiatzaren 31n egin zuen idatzia). Udalak ekainaren 14an onartu egin zuen Dominika Urteagaren kalte-ordainaren eskaera. Izan ere, Urteagak bere helegitean esan zuen guda-kontseilu batean kondenatuak izan gabe, lanetik botatako funtzionarioek eskubide pasiboak gorde egiten zituztela. Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 22. dokumentua; eta Beasaingo Udal Artxiboa. 065. karpeta, 21. dokumentua.

[739] Beasaingo Udal Artxiboa. 0424B karpeta, 08. dokumentua.

[740] Beasaingo Udal Artxiboa. 0424A karpeta, 02. dokumentua.

[741] Beasaingo Udal Artxiboa. 0424B karpeta, 22. dokumentua.

[742] Isabel Peñagarikano alabak ere berretsi digu "espedientea ireki ziotela, baina gerora lanean berriz hartu zutela (Frantziska Peñagarikano Dorrontsorori eta Isabel Peñagarikano Dorrontsorori egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-07-09an).

[743] Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 23. dokumentu-sorta.

[744] Beasaingo Udal Artxiboa. F008 karpeta, 01. dokumentu-sorta.

[745] Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 20. dokumentu-sorta

[746] Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 23. dokumentu-sorta; eta Beasaingo Udal Artxiboa. 3186. karpeta, 57. dokumentu-sorta.

[747] Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 23. dokumentu-sorta.

[748] Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 13. dokumentu-sorta.

[749] Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 13. dokumentu-sorta.

[750] Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 20. dokumentu-sorta.

bati eman ziola jakinarazi zion Udalak Gipuzkoako Gobernu Zibilari, eta baita Lekuona berari ere. Dirudienez, ordezte hori egiteko Oñatibia funtzionarioa hartu zuten[751].

Beste alde batetik, altxatuen alde gudan ibilitakoek ere hainbat onura izan zituzten, baita lana izateko ere, adibidez "Gudan zauritua" izan zen Frantzisko Oiartzabal Alkaiaga aguazil edo udaltzain izendatu zuen Udalak 1938ko azaroaren 5ean[752]. Idazkari-laguntzaile lanetan, Kandelario Aranburu botata eta Emilio Muñoz Novillo gudan zela, Joxe Manuel Azurmendi Dorrontsoro sartu zen, oso gazterik sartu gainera. Berak ematen digu arrazoia: "garai hartan, Beasainen gelditzen zirenen artean, bi hizkuntzetan, euskaraz eta erdaraz aritzeko pertsona apurrenetakoa nintzelako (…) Kontuan izan behar dugu Beasaingo populazioaren zati handi bat, baserritarrena batez ere, euskaldun elebakarra zela"[753] (nahiz eta orduko agintarien helburua erdara bultzatzea izan, populazioaren zati batekin hitz egiteko euskara ezinbestekoa zitzaien agintariei). Jakin badakigu ere, aldi batez, bi emakume, Adoracion Montejo eta Maria Kerexeta ibili zirela idazkari lanak egiten ere, 1938ko azaroaren 5eko Udal-bilkuran, 75na pezetako saria ematea adostu baitzuen Udalak[754]. Joan Maria Barrenaren postuan, hau da, Udal-epaitegiko idazkari moduan, David Perez agertzen da 1938ko uztailean Gipuzkoa eta Bizkaiko almanaka baterako Udaleko pertsona batek egindako zirriborro baten arabera[755]. Udalak garbiketa horri 1938ko uztailaren 30ean sinatutako memoria batean egin zion erreferentzia, baina kaleratuen artean, soilik Pedro Goena albaitaria eta Antonia Bares tripa-garbitzailea aipatuz (agian besteak, ihes egin zutenez gero, ez zituzten "garbitutzat" hartzen, baizik eta "berez lana galdutakotzat"; ihes egiteko zioak politikoak eta militarrak izan ziren arren)[756]. Memoria horretan azaltzen denez, "botatakoak ordezten dituztenak, plaza izan edo behin-behinekotasunean izan, Mugimendu Nazionalari erabat atxikiak dira"[757].

Funtzionario batzuk saiatu izan ziren, emaitzarik gabe saiatu ere, halako bidegabekeriei aurre egiten. Hori izan zen Kandelario Aranbururen eta Antonia Baresen kasua (biak 1941ean), nahiz eta bien eskaerak izaera ezberdinekoak izan. Baresek, Udalari 1937ko otsaileko eta martxoko ordainketak egitea eskatu zion, Udalak ez baitzizkion ordaindu[758]. Aranburuk, Gobernuaren aurrean bere kaleratzearen kontrako helegite bat aurkezteaz gain, Udalari gogorarazi zion helegite hori ezerezean gelditu arte, bere kargua ezin zitekeela "kargu huts" bezala hartu, beraz Udalak, ezin zuela bere kargurako inongo lehiaketa publikorik deitu, ez eta bere kargua jabetzan beste edonori eman[759]. Alferrik izan zen, bien helegiteak Udalak ukatu egin baitzituen (Kandelario Aranburuk beste errekurtso bat ere jarri zuen 1942an, baina Udalak hura ere ez zuen kontuan hartu[760]; eta baita Antonia Bares Tolosak ere, bi hilabete horiek eskatuz, 1941ko otsailean. Otsailaren 13an Udalak ordainketa ezeztatu egin zion, berriro[761]). Kandelario Aranbururen kasuak, nolabait, bide gehiago egin zuen, hasieran Udalak bere helegiteari ukoarekin erantzun arren, 1942ko martxoaren 6an Gobernazio Ministerioak arrazoia eman ziola jakinarazi baitzuen Udalak[762]. Horren ondorioz, Udalak 1939ko martxoaren 12ko Aginduaren arabera, Aranbururen garbiketa zuritu beharra zuen (garbiketarekin aurrera egitekotan). 1942ko martxoaren 20an Udalak bere kasua aztertzeko epaimahai bat izendatu zuen, Migel Cerrajeria Tiffe alkateordeak eta Eusebio Asla Lapart zinegotziak osatutakoa[763]. 1944ko uztailaren 21eko bilkuran, Aslak eta Cerrajeriak Aranbururen kontrako espedientea hasteko erabakia hartu zutela jakinarazi zuten. Alta, bien arteko ika-mika laster sortu zen, 1944ko uztailaren 29an, Eusebio Aslak, Migel Cerrajeriak espedientearen hasiera ez zuela sinatu nahi eta "bere betebeharrarekiko grina falta zuela salatu zuen"[764]. Kasu kuriosoa izan zen hori, alegia, errepresaliatu baten inguruan agintarien (beraz, jazarpena egitearen arduradunen) artean ika-mika sortzearena, jakina, errepresaliak aplikatzeko moduarekin zerikusia zuen sortu zen ika-mikak. 1944ko abuztuaren 19an, Beasaingo Udalak Kandelario Aranburu Muxika behin betiko kargutik kentzea erabaki zuen[765]; eta 1945eko urte-hasieran Gobernazio Ministerioak erabaki hori ontzat eman zuen[766].

---

751 Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 20. dokumentu-sorta

752 Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 22. dokumentu-sorta.

753 Joxe Manuel Azurmendi Dorrontsorori egindako elkarrizketa. Donostian, 2014-09-10ean.

754 Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 22. dokumentu-sorta.

755 Beasaingo Udal Artxiboa. 498. karpeta, 06. dokumentu-sorta. Dokumentu hori eskuz idatzitako zirriborroa da, agian Jose Beriztain idazkariak egindakoa.

756 Memoria horretan aipatzen dira halaber "zigor txikiak jaso zituzten funtzionarioak" (izenik aipatu gabe). Beasaingo Udal Artxiboa. 151. karpeta, 13. dokumentu-sorta; eta Beasaingo Udal Artxiboa. 065. karpeta, 43. dokumentua.

757 Beasaingo Udal Artxiboa. 151. karpeta, 13. dokumentu-sorta; eta Beasaingo Udal Artxiboa. 065. karpeta, 43. dokumentua.

758 Beasaingo Udal Artxiboa. 065. karpeta, 26. dokumentu-sorta.

759 Beasaingo Udal Artxiboa. 065. karpeta, 11. dokumentu-sorta.

760 Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 19. dokumentu-sorta.

761 Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 19. dokumentu-sorta.

762 Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 19. dokumentu-sorta.

763 Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 19. dokumentu-sorta.

764 Beasaingo Udal Artxiboa. L0045 akten liburua (1942-1946 arteko aktak jasotzen dituena).

765 Beasaingo Udal Artxiboa. L0045 akten liburua (1942-1946 arteko aktak jasotzen dituena).

766 Beasaingo Udal Artxiboa. L0045 akten liburua (1942-1946 arteko aktak jasotzen dituena).

or.

Lanaren gaineko errepresioak eta garbiketak, berandu arte jarraitu zuten. 1943ko martxoaren 24ko Udal-bilkuran, Udalak, 1943ko martxoaren 6ko Gobernazio Ministerioaren aginduaz eztabaidatu zuen. Agindu horren arabera, 1936ko uztailaren aurretik zeuden Udal-idazkari, kontuhartzaile, diruzain edo musika-bandako zuzendariek, edota data horren ondoren data horren "aurretik lortutako merituak zirela-eta izendatutakoek" (hau da, kargua garbiketaren bidez edo arrazoi politikoen bidez lortu ez zutenek) lanpostu horiek beren jarrera politikoarekin zuritu beharra zuten. Horrek zuzenean mehatxatzen zituen Jose Beriztain Zubiaga idazkaria eta Bautista Telleria Aiestaran diruzaina. Udalaren jokabidea zera izan zen, 1937ko martxoan garbiketa hasi zuen (horren ondorioz Pedro Goena albaitaria kargutik kanporatua izan zen eta Joan Maria Barrenari, epaitegiko idazkari gisa, Udalaren plusa kendu zitzaion, kargua uztera behartuz, eta beste bost langileri bestelako zigorrak jarri zitzaizkien; gainera Antonia Bares Tolosa salaketarik gabe kanporatua izan zen, eta baita herritik ihes egin zuten beste lau langile ere) eta Beriztainen eta Telleriaren kontrako salaketarik ez zen izan, beraz "orduan, Mugimenduarekiko (Estatu-kolpearekiko) jarrera zalantzatia" izan zuten funtzionarioekiko soilik egin zen halako garbiketa. Gauzak hala, Udalak jada Beriztain eta Telleria "garbiketatik pasatutakotzat" izendatu zituen Udalak, beraz, postutik ez kentzea, izan zen bere erabakia[767]. Horrez gain, Telleriak, 1936ko uztailaren 19an "gorrien jazarpena zela-eta "herritik ihes egin behar izan zuela eta 1936ko abuztuaren 8an Beasaingo komandante militarrari bere atxikimendua erakutsi ziola esan zuen 1943ko martxoaren 15eko dokumentu batean. Beriztainek, 1936ko uztailaren 27an bertan (tropa altxatuak Beasainen sartu ziren egunean) "Mugimendu Nazionalarekiko atxikimendua erakutsi zuela" adierazi zuen egun berean sinatutako beste dokumentu batean. Biek "gaztetatik alderdi tradizionalistako kide" zirela esan zuten. Horrenbestez, Antonio Aiestaran Irastortza idazkaritzako ofizialak (eginkizun hori une hartan ezin zuen idazkariak, Jose Beriztainek, bete, berari buruzko afera zelako), ez bataren eta ez bestearen aurkako espedienterik ez zela zabaldu berretsi zuen, beraz, "garbiketa-prozesutik iragantzat" eman zituen biak[768]. Hala ere, 1944ko otsailean, Gobernadore Zibilak paper berriak eskatu zizkion Bautista Telleriari eta bere garbiketa-espedientea hamar egunen buruan entregatzen ez bazuen, Diruzainen Zerrenda Nazionaletik kendu egingo zutela ohartarazi zion. Garbiketa-espediente hori, Bautista Telleriaren erregimenarekiko atxikimendua azaltzen zena, Jose Beriztain Zubiagak idatzi eta sinatu zuen 1944ko martxoaren 3an; zehatz-mehatz, Telleriaren kontra aurretik espedienterik ez zela egin eta Telleria erregimenaren aldekoa zela esaten zuen espediente horrek[769].

Bestetik, kontuan izan behar da guda aurretik Beasainen mediku izan zen (eta gudan Armada Nazionalak bere alde mediku izatera eraman zuen) Zesareo Ugartek plaza galdu zuela. Ugarteren izenik ez da ageri gerra ondorengo plantilletan. Bere familian ere hala diote: "guda ondoren gure aitak plaza galdu zuen" dio bere alaba Arantza Ugarte Azkaratek[770].

Horrez gain, herritik joandakoek berriz lana aurkitzeko oso zail izan zuten, baita enpresa pribatuetan ere. Enpresa pribatuetan ere, erregimen frankistaren agintariek garbiketarako legeak ezarri zituzten, adibidez, 1936an, iritsi zen horietako bat eta haren arabera, Fronte Popularraren garaian (1936ko otsailaren 16tik aurrera) "sindikatuen inposizioz egindako langile-plantilla handitzeen ondorioz lanean sartutakoak" kaleratzea ahalbidetzen zuen (beraz, frankismoak hor ere langileen kontra egin zuen). Beste lege bat 1937ko abuztuaren 17koa izan zen eta enpresariak "Mugimendu Nazionalaren aurkakoak" kaleratzeko baimentzen zituen[771]. Adibidez, Milagros Aranburu Muxikak kontatu digu hori: "guda ondoren, lanpostu denak frankistentzat izan ziren, besteentzat ez zegoen ezer"[772]. Berdina esan digu Isabel Peñagarikanok: "Lanaren inguruan errepresio handia izan zen. Francoren kontra egin zutenak oso gaizki ibili ziren lana topatzeko. Batzuetan enpresak subentzionatu ere egiten zituzten langileak kanpotik ekartzeko"[773]. Izan ere, kontuan hartu behar da Sindikatu Bertikalak esaten zuena gora-behera, enpresa pribatuaren garbiketa-legeak enpresadunaren esku uzten zuela nor kaleratu eta nor ez, beraz, praktikan Sindikatu Bertikala horien tresna bilakatu zen. Pixkanaka-pixkanaka lanera sartzea lortu zuten, baina zailtasun askoren truke; hori esaten digu adibidez, Pako Ruiz de Apodakak: "*Azkenean*, gure aitak CAFen sartzea lortu zuen"[774]. Patxi Lasa Imatzek ere badiosku: "gure aita (Jose Luis Lasa Telleria), herrira itzuli zenean, baratzean lanean ari zela, CAFen lan egiten zuten Udaleko bi zinegotzi (…) Artolain eta beste bat[775], gerturatu zitzaizkion eta esan zioten "gorriekin ibili zaretenak CAFen sartzerik ez duzuela izango erabaki dugu". Berak erantzun zien "beno, nik topatuko dut lana non edo non". Egun batzuetara, CAFeko zuzendari zen Antonio Sierrak, bilera batean erabaki zuen, lehengo langileak,

[767] Beasaingo Udal Artxiboa. A089 karpeta, 16. dokumentu-sorta; eta Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 18. dokumentu-sorta.

[768] Beasaingo Udal Artxiboa. A089 karpeta, 16. dokumentu-sorta. Alabaina, hortik gutxira, 1944ko maiatzaren 21ean, Jose Beriztain Zubiaga hil egin zen (Beasaingo Udal Artxiboa. L0045 akten liburua (1942-1946 arteko aktak jasotzen dituena).

[769] Beasaingo Udal Artxiboa. A089 karpeta, 16. dokumentu-sorta.

[770] Arantza Ugarte Azkarateri eta Maria Rosario Ugarte Sukiari egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-08-05ean.

[771] MOLINERO, Carme eta YSAS, Pere: "Las condiciones de vida y laborales durante el primer franquismo. La subsistencia; ¿un problema político?" in *Historia Ekonomikoaren Elkartearen VII Biltzarra* (aktak), Zaragoza, 2001.

[772] Milagros Aranburu Muxikari egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-08-05ean.

[773] Frantziska Peñagarikano Dorrontsorori eta Isabel Peñagarikano Dorrontsorori egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-07-09an.

[774] Pako Ruiz de Apodaka Galartzari egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-06-18an

[775] Beste hori Eusebio Asla zen, ez baitago (Artolainez gain) orduan CAFen lan egiten zuen beste zinegotzirik.

R. nº 884.- 11385.
RED NACIONAL DE LOS FERROCARRILES ESPAÑOLES
ZONA NORTE
DIRECCIÓN
DEPURACION DE PERSONAL
MADRID

Madrid, a ..... de -5 DIC. 1941 ..... de 19.....

Sr. D. José Peñagaricano Sarriegui
Encendedor.- Tracción.

Muy Sr. mío: En virtud de las facultades que al efecto me han sido delegadas, pongo en su conocimiento que el Consejo de Administración de esta Red Nacional de FF. CC., vista la propuesta del Sr. Juez Instructor, aprobada por la Dirección, en el expediente incoado con arreglo a lo dispuesto en el artículo 3.º del Decreto de 1.º de Septiembre de 1939 y en el de 25 de Septiembre de 1941, ha acordado la readmisión de Vd. al servicio de la Red (Zona Norte), a partir de la fecha en que fué movilizado, como consecuencia de la aprobación favorable acordada por la Autoridad Militar, que queda confirmada y, por tanto, readmitido sin imposición de sanción alguna, visto el resultado de dicho expediente en relación con los antecedentes y conducta de usted.

De Vd. atento s. s. q. e. s. m.,

P. El Delegado para la Depuración,

1940. hamarkadako lehen urteetan, kaleratutako langile batzuk lanerako berriro onartzen hasi ziren. Irudian, Jose Peñagarikano Sarriegi berronartzeko karta.
(Argazkia: Frantziska Peñagarikano Dorrontsorok eta Isabel Peñagarikano Dorrontsorok utzia)

gorriekin ibili izan arren, berriz ere lanera sartzea, berak esperientziadun langileak behar zituela-eta. Orduan gure aitak CAFen zinegotzi horiek topatu zituen eta "ikusten duzue, esan nizuen nik, lana non edo non topatuko nuela!" esan zien"[776]. Antzeko bertsioa eman zuen Alfontso Ibaibarriagak, Rufo Artolainek Jose Luis Lasari esan omen zionaz "ez zarete bat ere sartuko" (erdaraz egiten du aipua Ibaibarriagak, bai Lasa zein Artolain euskaldunak ziren arren; bestalde Ibaibarriagak ez du Patxi Lasak zeharka iradokitako Eusebio Asla aipatzen), beraz, Patxi Lasarena baieztatu egiten du; baina handik zortzi egunera, Antonio Sierrak "bareenak behintzat" lanera sartzeko eskatu zuen[777]. Ibaibarriagak dioenez "Orduan sartu ginen gu denok"; nahiz eta "Tolosako Guda Batzorde Karlistaren zigilua beharrezkoa izan"[778]. Xanti Lasa Aranburuk ere diosku bere aitona (Santiago Aranburu Otamendi, jeltzalea) "CAFen Sierrari esker sartu zen, Sierrak CAF ondo joateko esperientziadun langileak nahi zituen-eta"[779]. Hala ere, Ibaibarriagaren arabera, erregimenaren kontrakoak lanik gabe uzteko asmoaren "burmuina" ez zen Rufo Artolain izan, FET-JONSeko buru Migel Cerrajeria eta Guda Batzorde Karlistako buru Frantzisko Ezkiaga baizik. Azken horren ahoan jartzen du Ibaibarriagak "guda erabatekoa da ezta? Ba erabatekoa izan dadila!" esaldia[780]. Ez dator baieztapen horiekin bat Joan Unanua Artolain lekukoa eta, beraren arabera, "gure aitonak kudeaketak egin zituen CAFen jendea sar zedin"[781]. Maria Pilar Lozaresen aitak, Jose Maria Lozaresek, momentu batean CAFen sartzea lortu zuen "baina krisialdi bat izan zenean, kalera joaten lehenetakoa izan zen"[782]. Hori ez zen bakarrik gerra "gorrien alde" egin zutenekin gertatzen, guda ondoren, erregimenarekin konprometitzen ez

[776] Patxi Lasa Imatzi egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-06-25ean.

[777] CAFen gertatutako egoera hori, enpresariak aginte politikoari aurre egitea eta "langileen alde" egitea, ez zen izan gertakari orokorra, ez eta Euskal Herrian ere. Adibidez, Antonio Cazorlak bildua duen moduan, 1953ko Bilboko greban, Euskalduna ontziolan, 2.000 langileetatik 1.900 bota egin zituzten eta gainera euren antzinatasun-eskubideak ere kendu egin zizkieten, berronartzea banan-banan eskatuaraziz. Bestetik, Cazorlak bere lanean dio "Euskal Herrian eta Katalunian badago mito bat, egiazkoa ez dena, eta esaten du bertako enpresariek langileak babestu egin zituztela Espainia frankistaren aurrean; egia esan, hango enpresariek ere, poltsikoa edo langile-mobilizaziorik eza lehenetsi zituzten euskal edo katalan aberriaren aurretik". Bat nator Cazorlarekin azken ondorio horretan (baita CAFen kasuan ere, azken finean Antonio Sierrak langileak berronartzeko erabakia hartu bazuen, behar zituelako eta negoziorako ona zuelako egin zuen, ez hainbeste langileekiko zuen sinpatiagatik); baina ez dut onartzen erabiltzen duen terminologia, nik ez baitut "mito" hori oinarritzat duen libururik ezagutzen (frankismoari buruzko historiografia abertzaleak, batez ere ezker abertzalekoak, enpresariak erregimenaren gaizkide bezala aurkeztu izan ditu). Cazorlaren terminologia are arranditsuago bihurtzen da "langile horien kontrako jardun gupidagabearen arduradunak konpainia euskaldun-euskaldunak (*vasquísimas*) izan ziren, ez Sindikatu Bertikal espainiarra" dioenean. Ez dut zalantzan jarriko Euskalduna konpainia euskal herritarra zenik, baina ez Cazorlak iradokitzen duen moduan: konpainia hura ez zegoen abertzaleen edo euskaltzaleen esku, burgesia handi espainolistaren (eta frankistaren) esku baizik. CAZORLA SANCHEZ, Antonio: *Miedo y progreso. Los españoles de a pie bajo el franquismo, 1939-1975*. Alianza. Madril, 2016, 145.-146. or.

[778] Markel Olanok Alfontso Ibaibarriagari eta Antonio Zubillagari egindako elkarrizketa. Beasaingo EAJko ordezkari Jose Antonio Imatzek utzia.

[779] Xanti Lasa Aranbururi egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-08-05ean.

[780] Markel Olanok Alfontso Ibaibarriagari eta Antonio Zubillagari egindako elkarrizketa. Beasaingo EAJko ordezkari Jose Antonio Imatzek utzia.

[781] Joan Unanua Artolaini egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-09-05ean.

[782] Maria Pilar Lozaresi egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-07-03an.

or.

zirenek, edo erregimenaren aurkako keinuren bat egin zutenek ere, zailtasunak izan zituzten. Antselmo Ruizi emango diogu hitza. "Behin Falangearen egoitzara eraman gintuzten eta han alkandora urdina eta txapel gorria eman zizkiguten. Gutako batek, Anjel Sanchezek, joateari uko egin zion, eta hark gero, lana topatzeko zailtasunak izan zituen"[783].

Ez zen hala gertatu guda altxatuen aldean egin zutenekin. 1939ko abuztuaren 38an, Beasaingo Udalak Osoko Bilkura deitu zuen, bi gairekin, horietako bat beren borrokalari-ohiak, *"ex-combatienteak"*, (altxatuen aldean borrokatu zutenak) birkokatzeko gaia izan zen. Frantzisko Untzuetak, "borrokalari-ohi" zirelako horiek berehala birkokatzea proposatu zuen; eta horretarako, hartu gabe zeuden bi gauzainen postuetan birkokatzeko, Esteban Peñagarikano Artazkotz aguazila edo udaltzaina eta Jose Kerexeta Gogortza kale-garbitzailea jubilatzea proposatu zuen[784]. Udalak proposamen horri baiezkoa eman zion, eta altxatuen alde guda egin zutenen zerrenda bat egitea adostu zuen, geroago lanpostu horiek onartuko zituzketen galdetzeko. Modu berean, Untzuetak, Udaletxean behin-behinekotasunez lanean ari ziren langile "borrokari-ohiak", Antonio Aiestaran Irastortza idazkaritzako ofiziala eta Frantzisko Eltzo Urrestaratzu arielen arduraduna, funtzionario egitea proposatu zuen. Hala ere, Udalak, batez ere idazkari zen Jose Beriztainen ahotik, Untzuetari esan zion Udalak ez zuela langileak funtzionario egiteko eskuduntzarik, asko jota ere behin-behineko soilik izendatu ahal zituela[785]. 1940ko otsailaren 3ko Udal-bilkuran irakurri zen Gipuzkoako "Borrokalari Ohien Probintziako Ordezkariak" Beasaingo Udalari, arkitekto- edo aparejadore-posturik ez zuenez, aparejadore postu batentzako deia egiteko egindako eskaera[786]. Halako adibide batek erakusten du garbi Francoren aldeko *"borrokari-ohiek"* zer-nolako boterea zuten administrazioaren gainean eta horrelako postu batzuk eurentzat gordetzea ez ezik, beren neurrira egindako postu berrien deiak egitea ere eskatzen baitzuten (nahiz eta otsailaren 18ko Udal-bilkuran, Beasaingo Udalak, halako plaza bat sortzeari uko egin)[787].

Izan ere, 1940ko abuztuaren 17an, Udalak, beste deialdi bat egin zuen, arielen arduraduna (Frantzisko Eltzo Urrestaratzu behin-behinekoa) eta idazkaritzako ofiziala (Antonio Aiestaran Irastortza behin-behinekoa) izendatzeko eta bakoitzak 3.000 pezeta kobratuko zituen. Bi postuak, gudan Francoren alde borroka egin zuten pertsonentzat gordeta egon behar zuten. Bestetik, kale-garbitzaileen, gauzainen eta udaltzainen "berrantolaketa" ere premiazkotzat ikusten zuen Udalak[788]. Aurreko idazkaritza-ofizialak, Kandelario Aranburu Muxikak, lehiaketa hori bertan behera uztea eskatu zuen, berak bere kaleratzearen aurkako helegitea jarria zuela-eta, baina alferrik, urriaren 14ko Osoko Bilkuran, Udalak esan zuen kaleratze hura guztiz legezkoa izan zela[789]. Eta ez hori bakarrik, 1940ko urriaren 24an Udalak jakinarazi zuen bezala, Gipuzkoako FET-JONSeko buruak, Udal-lanpostuetako hutsune guztiak betetzerakoan, postu horiek betetzeko kontratatutako langile berri denak alderdi bakarreko kideak izan zitezela agindu zuen[790]. Erabaki horrek Beasainen izan zuen eragina eta 1941eko uztailean, kale-garbitzaile posturako bi hautagaik euren eskaera aurkeztu zutenean, horietako bati, Jose Ziari, eskaera atzera bota zitzaion, FET-JONSek "erregimenarekiko atxikimendua adierazten zuen ziurtagiria" ez ziola sinatu-eta[791].

Lanaz gain, beste toki batzuetan ere bereizkeria jaso zuten herritik joan zirenek. 1937ko abenduaren 18an, Udalak, Udal-bandari jakinarazpen bat bidali zion "herri honetan falta direnak" bandan ez onartzeko esanez[792]. Jakina, neurri hori, guda zela-eta herritik alde egin zuten ezkertiarren eta abertzaleen kontrako neurria zen. Hiru egun beranduago, abenduaren 21ean, Jose Luis Guridi alkateak, Bandari zuzenean jakinarazi zion, Bandak ezin zituela altxatuak Beasainen sartzerakoan ihes egindakoak onartu, horiek lehenik Udalari eta alkateari baimena eskatzen ez bazioten[793]. Hala ere, hurrengo hilabeteetan, ezkertiarrek bandan sartzeko ahaleginak egin zituzten: 1938ko urtarrilaren 8an, Udaleko Bilkurara, Julio Juanes Duque izeneko pertsona batek urtarrilaren 3an idatzitako idatzia heldu zen, Bandan musikari bezala parte hartu nahi zuela esanez[794] (pertsona hau ezkerreko familia ezagun bateko kidea zen, UGTkoa, 1937ko urriaren 22an heriotza-zigorrera kondenatua). Urtarrilaren 22an Udalak, eskaera hori "oraingoz bertan behera" uztea erabaki zuen[795]. (Urtarrilaren 3an bertan, Anjel Serrano Varonak eskaera

[783] Alberto Alonso Cacharrok eta Josu Lopez Castañaresek Antselmo Ruizi egindako elkarrizketa. Beasainen, 2013-03-25ean.
[784] Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 13. dokumentu-sorta.
[785] Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 13. dokumentu-sorta.
[786] Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 20. dokumentu-sorta.
[787] Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 20. dokumentu-sorta.
[788] Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 20. dokumentu-sorta.
[789] Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 20. dokumentu-sorta.
[790] Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 20. dokumentu-sorta.
[791] Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 21. dokumentu-sorta.
[792] Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 23. dokumentu-sorta.
[793] Beasaingo Udal Artxiboa. 543. karpeta, 44. dokumentu-sorta.
[794] Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 22. dokumentu-sorta; eta Beasaingo Udal Artxiboa. 498. karpeta, 07. dokumentu-sorta.
[795] Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 22. dokumentu-sorta.

berdina egin zuen[796]. Kasu honetan ez dakigu Udalak zer erabaki zuen). Hala ere, badirudi pertsona batzuk onartuak izan zirela, eta hori izan zela 1939ko abuztuan Udalak jarrera itxiagoa izateko arrazoia; Frantzisko Untzueta zinegotziak esan zuen bezala, Udal-bandan "Mugimendu Nazional loriatsua gertatu zenean herritik ihes egin zuten batzuk onartzen ari da Udal-banda" eta, bere ustez, hori ezin zen baimendu, beraz, hori ekiditeko neurri gogorragoak hartu behar ziren. Udalak, halako pertsona gehiago sartzea galaraztea proposatu zuen, eta aldi berean, "Bandako zuzendariari" (Pedro Jose Iguaini, 1937an zigortua izan zen berari) halako pertsonak ez onartzeko orduan zorroztasun handiagoz jokatzea eskatu zion[797].

Jakina denez, erregimen frankistaren helburuetako bat klase-borroka dekretuz ezabatzea izan zen eta hala langileek subjektu kolektibo gisa euren interesak defendatzeko modurik ez zuten izan. Frankismoaren lehen urteetan, Estatuak forma faxista ezagunak zituela, faxismoaren eredua jarraitu zuen hainbat arlotan eta, horietako bat, korporatibismoa izan zen; hau da "ekoizle" guztiak, euren ekoizpen-sektorearen (eta ez klasearen) alde antolarazi zituen, ekoizpen-adarretako "sindikatu bertikalean": frankismoaren sindikatu bertikalak (*Central Nacional-Sindicalista* deituak) langileak eta enpresariak batera biltzen zituen, azken horien onurarako; langileek berezkoak zituzten erakundeak (ordura arteko UGT, ELA edo CNT) legez kanpo utzita. Hala, lan-arloko aldarrikapenak eta grebak desagerraraztea bilatu zuen erregimenak. Baina asmoak asmo, lan-gatazkak murriztea eta langile-aldarrikapenak asko zailtzea lortu bazuen ere, ezin izan zuen guztiz galarazi langileak bat-batean euren interesen alde nola edo hala egiterik (noski, ez modu irekian, baina bai tokian tokiko bat-bateko protesten bidez); eta, beste alde batetik, erregimenak egiten zuen propaganda harmonizistak ez zuen errealitatean isladarik izan, langileen errenta murriztu egin zen-eta[798]. Beasainen ere badugu halako kasuren bat: 1937ko urtarrilaren 21ean egin zen Udal-Bilkuran jakinarazi zen, garbiketako langile batzuk ez zeudela pozik euren baldintzekin eta euren kontra jarritako zigor batzuekin, eta Udalak, Martin Esnaola zinegotzia "bitartekari" izendatu behar izan zuen haiekin hitz egiteko[799].

Horrez gain, 1937ko urtarrilaren 28an, Gipuzkoako eta Bizkaiko Gobernadore Zibilaren urtarrilaren 12ko agindu bati jarraituz, Beasaingo Udalak, Beasainen lan-kokapenerako oinarriak aurkeztu zituen. Kokapen-batzorde bat sortu zen, langabezian zeuden langileentzako lana topatzeko. Kokapen-batzorde horiek Lan Ministerioaren ekimenez sortu ziren (kokapen-bulego horiek lan-poltsak ordeztu behar zituzten, eta Lan Ministerio frankistaren arabera, "duinagoak" izan behar zuten; haien sortze--dekretua halako erretolika kristauz betea atera zen[800]) eta bertan izena emandako langile bakoitzari "kartilla" bat ematen zitzaion. Hala ere, nahiz eta "duintasuna" aipatu, Lan Ministerioaren oinarrietan "onenen" eta "txarrenen" bereizketa egiten zen. Beste alde batetik, langileari eskaintzen zitzaion lana txarra bazen ere, "Aberriarentzako zerbitzu" bezala hartzen zen, beraz, langileak onartu egin behar zuen ("bere herrian lan egin nahi izatea berarengandik atera behar dugu" aipatzen zen)[801]. Lan Ministerioaren argibide horietan, kokapen-bulegoak "Erregimen Nazional-Sindikalista" eraikitzeko pieza zirela esaten zen, beraz, Udal eta Aldundi guztiek halako bulegoak antolatzeko "berehalako premia" zutela[802].

Beasainen, Kokapen-batzorde horretan, alkatea, Frantzisko Ezkiaga zinegotzia (ugazaba zena, inprimategi bat zuen) eta Eusebio Asla zinegotzia (CAFeko enplegatua zena) izan ziren izendatuak, Martin Esnaolak proposatuta (Migel Cerrajeriak bertan falangista bat sartzea proposatu zuen, baina proposamen hori ukatua izan zen)[803]. Ordizian ordea, Luzio Lekuona zinegotzi eta Ordiziako Falangeko burua izan zen Kokapen-batzordearen buru. Beraz, ikusten dugun moduan, langabetuen kokapenerako batzordeetan ere erregimenarekin erabat identifikatutako pertsonak egon ziren eta horiek ziren langabeen zerrendan nor sartu eta nor ez erabakitzen zutenak (beraz, kontrol sozialerako eta diskriminazio politikorako atea zabalik zegoen)[804]. 1937ko martxoaren 15ean, Beasaingo eta Ordiziako Udalek (Ordizian batzordea, Felipe Imatz alkateak, Luzio Lekuona zinegotziak eta Indalezio Etxezortu idazkariak osatzen zuten) itun bat sinatu zuten CAF enpresarekin (Rikardo Ardura idazkariak, eta Antonio Bru CAFeko Sindikatu Bertikalaren buruak ordezkatua)[805] langile berriak kokatzeko. Itun horren arabera, Beasainek, kokatu behar ziren langileen lehen %10a jarri behar zuen; eta horrez gain, beste %90etik, %55 Beasain eta inguruarentzat izango

[796] Beasaingo Udal Artxiboa. 252. karpeta, 19. dokumentu-sorta.

[797] Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 13. dokumentu-sorta.

[798] Propaganda harmonizista horren zutabeetako bat "erregimenak lan-diziplinaren truke lanpostuaren ziurtasuna bermatzea" izan zen; baina ikusi dugunez ez zen egia, izan ere, enpresariak nahikoa zuen arrazoi politikoak argudiatzea lan-plantilla murrizteko eta, horrez gain, 1936ko otsailaren eta uztailaren artean egindako aurrerapen sozialak automatikoki deuseztatu zituen erregimenak. MOLINERO, Carme eta YSAS, Pere: "Las condiciones de vida y laborales durante el primer franquismo. La subsistencia; ¿un problema político?" in *Historia Ekonomikoaren Elkartearen VII Biltzarra* (aktak), Zaragoza, 2001.

[799] Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 23. dokumentu-sorta.

[800] Beasaingo Udal Artxiboa. 3762. karpeta, 78. dokumentu-sorta.

[801] Beasaingo Udal Artxiboa. 3762. karpeta, 78. dokumentu-sorta.

[802] Beasaingo Udal Artxiboa. 3762. karpeta, 78. dokumentu-sorta.

[803] Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 23. dokumentu-sorta.

[804] ASKOREN ARTEAN: *Ahaztuen mindura. 1936ko gerra eta frankismoa Ordizian*. Ordiziako Udala, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Aranzadi. Ordizia, 2014, 120. or.

[805] Beasaingo Udal Artxiboa. 2941. karpeta, 72. dokumentu-sorta.

or.

ziren (horren barruan %10 Lazkao eta Ataunentzat), beste %35 Ordizia eta bere zonaldearentzat izanik. Horrez gain, sektore bakoitzak langabeturik izan ezean, bere kuota ezin bete izanez gero, beste sektoreari lehentasuna ematea adostu zuten; eta Lazkaok eta Ataunek beren %10 hori bete ezinean, ehuneko horren soberakinarekiko lehentasuna Beasainek izango zuen[806]. Beasaingo Udalak CAFi bidali zion langabeen zerrenda baten arabera, 1938ko uztailean, 36 langile industrial zeuden Beasaingo langabetuen poltsan izena emanda[807]. Elena Legorbururen arabera, horren bidez, CAFek bertako jendearekiko "konpromisoa" erakutsi zuen. Legorbururen arabera, akordio hori sinatu zenean, 1938an, CAFen jada 1.172 pertsonak egiten zuten lan; 1936ko abuztuan, CAFek 1936ko uztailaren 18ko etenaren ondoren lanera itzuli zenean, 633 langile soilik izan zituen (hurrengo urtean, 1939an, kopurua berriro igo egin zen, 1.357 langile izan arte)[808].

Legorbururen arabera, alde batetik Francok, bere erregimenaren lehen urteetan, autarkia ezarri zuenez, Espainiako Estatuan egoitza zuten enpresei beste herrialdeetako enpresen lehia kendu zien, eta horrela, CAFek merkatu itxia izatea lortu zuen; baina beste alde batetik, kanpoko merkatua ixterakoan "inputak", hau da, tarteko objektuak lortzeko zaildu egin zitzaion egoera. Bestetik, ikusiko dugun bezala, lehen urteetan elektrizitate-etendurak behin eta berriz izaten ziren, CAFi (eta Beasaingo beste enpresei) kalteak ekarriz[809].

1.5.i) Gosea, errazionamendua eta estraperloa

Francoren erregimenaren lehen urteetan izan zen egoera beltzenetako bat, populazioaren bizi-kalitatea erortzea izan zen. Gudaren beharrek eta horren ondorio latz guztiek (uztak eta azpiegiturak suntsitzeak, baliabideak gudara destinatu behar izateak eta abarrek), bazuten ekoizpena jaistearekin zerikusia, baina erru nagusia Franco jeneralaren politika okerren bizkar jarri beharra dago. Batez ere, orduko elikadura- eta hornikuntza-politikek bi ondorio larri utzi zituzten: gosea larritzea eta merkatu beltza eta ustelkeria zabaltzea. Guda ondoko beasaindarren oroitzapen nagusia hura da: Beasainen zegoen gose handia.

Gosea guda ondoko Espainiako argazki petoa izan zen, ekonomiaren atzerakada eta errentaren birbanaketaren murrizketa oso modu larrian gertatu ziren, erregimenaren propagandak, "aurrerapen ekonomikoaren" mitoa –batez ere erregimenaren azken hamarkadako garapenkeriari lotutako irudia– gogotik zabaldu eta populazioaren parte bati, egungo garaira arte ere sinetsarazi dion arren, gaur egun arte erregimenak bere buruaz eraikitako mitorik arrakastatsuenetakoa bihurtuz[810]. Gudaren ondoko miseriaz irudi garbi bat emateko modu egokia da beste Estatuekin konparatzea: adibidez, Antonio Cazorlaren arabera, 1930ean Espainiako batez besteko errenta, Italiakoa baino %13 txikiagoa zen, 1950ean ordea, aldea %40ra handitu zen (eta Italiak mundu-guda pairatu zuen)[811]. Hala ere, egile beraren arabera, "erregimenak zorte handia izan zuen, guda osteko gosea nazioartean ez zen oso ezaguna izan Bigarren Mundu Gudarekin bat etorri zelako (…) Bestalde, erregimenaren propagandak hura ahantzarazi egin zuen: ez historia-liburuetan, ez eskoletan (…) ez zen aipatzen. Egungo espainiarrentzat ere tragedia hau edo bere benetako neurria, ezezaguna da"[812]. Cazorlak dioenez, 200.000 bat pertsona hil ziren gosea zela-eta[813]. Migel Anjel Del Arco ikerlariak, britainiar kontsulen dokumentazioan oinarrituta (*Foreign Office*ren barneko dokumentazioa, hau da, publiko egiteko idatzi ez zena, baizik eta Gobernuaren barne-azterketak egiteko; hots, objektibitate-fidagarritasun handia duen dokumentazioa da, ez baita arrazoi politikoak tarteko publikoari berariazko inpresioa emateko egina) antzeko ondorioetara heltzen da: "frankismo garaian, espainiar gehienek, XX. mendean artean ezagutu gabeko pairamenak jasan zituzten"[814]. Del Arcok, gosearen inguruan, lehen aipatu dugun Jabier Rodrigok bortizkeriaren inguruan ateratakoaren ("bortizkeria etorkizunerako inbertsio gisa") antzeko ondorioa atera zuen: "beheko klaseak bizirautera mugatzera kondenatu zirenetik, erregimenaren jarraipena bermatua zegoen. Horrela, lehen frankismoko baldintza sozioekonomiko txarrak, erregimenaren biziraupenerako baldintza bihurtu ziren"[815]. Lehen ere aipatu dugun

---

[806] "Beasainen ingurua" Lazkaok, Ataunek, Idiazabalek, Ormaiztegik eta Segurak osatzen zuten. "Ordiziaren ingurua", aldiz, Itsasondok, Legorretak, Zaldibiak, Aramak eta Altzagak. Beasaingo Udal Artxiboa. 2941. karpeta, 21. dokumentu-sorta; eta Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 23. dokumentu-sorta.

[807] Beasaingo Udal Artxiboa. 2941. karpeta, 41. dokumentu-sorta.

[808] LEGORBURU FAUS, Elena: *"Fabrika haundie". Beasaingo Construcciones y Auxiliar de Ferrocarrilesen historia*. (Beasaingo paperak bildumaren 5. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1996, 126. or.

[809] LEGORBURU FAUS, Elena: *"Fabrika haundie". Beasaingo Construcciones y Auxiliar de Ferrocarrilesen historia*. (Beasaingo paperak bildumaren 5. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1996, 127-128. or.

[810] Carme Molinero eta Pere Ysas irakasleen arabera, mito horren iraupena azaltzeko, kontuan hartu behar da historiagileek orain arte arreta eskasa eskaini diotela arazo horri eta baita guda-osteko "egunerokotasuna" ikertzeari ere. MOLINERO, Carme eta YSAS, Pere: "Las condiciones de vida y laborales durante el primer franquismo. La subsistencia; ¿un problema político?" in *Historia Ekonomikoaren Elkartearen VII Biltzarra* (aktak), Zaragoza, 2001.

[811] CAZORLA SANCHEZ, Antonio: *Miedo y progreso. Los españoles de a pie bajo el franquismo, 1939-1975*. Alianza. Madril, 2016, 22. or.

[812] CAZORLA SANCHEZ, Antonio: *Miedo y progreso. Los españoles de a pie bajo el franquismo, 1939-1975*. Alianza. Madril, 2016, 109. or.

[813] CAZORLA SANCHEZ, Antonio: *Miedo y progreso. Los españoles de a pie bajo el franquismo, 1939-1975*. Alianza. Madril, 2016, 30. eta 113. or.

[814] DEL ARCO BLANCO, Miguel Angel: "Morir de hambre. Autarquía escasez y enfermedad en al España del primer franquismo" in *Pasado y Memoria. Revista de Historia Contemporánea,* 5. zk. (241.-258. or.), 2006.

[815] DEL ARCO BLANCO, Miguel Angel: "Morir de hambre. Autarquía escasez y enfermedad en al España del primer franquismo" in *Pasado y Memoria. Revista de Historia Contemporánea,* 5. zk. (241-258. or.), 2006, 257.-258. or.

pasadizo bat errepikatuko dugu hemen, adierazgarria baita: erregimenak gosearekin "jokatu" egiten zuen, adibidez, 1951n "Udal--hauteskundeetan bozkatzera joaten ez zenari errazionamendu-txartela kentzearen" mehatxua egin zuenean[816]. Gosea, dudarik gabe, tragedia masiboa izan zen: esan bezala hildakoak ehunka milaka kontatu zirelako eta beste hainbat hilzorian gelditu zirelako[817]. 1940.eko hamarkadako gosearen ahanztura honetan oinarritzen da gaur egun, batez ere eskuinekoek, errepikatzen duten mitoan: "Francoren erregimenaren mirari ekonomikoan".

Egia esan, Francoren Espainiak, guda aurreko ekoizpen-maila lortzeko 1950.eko hamarkadari itxaron behar izan zion; Bigarren Mundu Guda pairatu zuten herriek (hura denboran hurbilagoa zen eta suntsiketa handiagoa eragin zuen), 1947-1948etan lortu zuten 1939ko ekoizpen-maila berrezartzea[818]. Are gehiago, gosea gehien sufritu zuten zonaldeetan, Espainiako hegoaldean (Andaluzian batik bat), 1950.eko hamarkadan, adierazle ekonomikoek hobera egin zuten garaian, artean populazioaren parte handi bat, gosea jasaten ari zen. Cazorlaren arabera, 1950ean, Andaluzian artean, 132.682 baserritar zeuden lurrik gabe, 1940an baino gehiago[819]. Gosea beste arlo batetik ikertu dute Jose Cañabate eta Jose Migel Martinez Carrion ikerlariek: garai horretako jendearen altuera txikitzearen datuetatik. Bi ikerlarien arabera, hazkundean izan ziren disfuntzionaltasunek, garai hartako azpinutrizioarekin izan zuten lotura: egia bada ere nekazaritza-guneetan berez hazkundea industria-guneetan baino txikiagoa izan ohi dela (batez ere osasun-sarearen garapen txikiagoagatik eta nutrizio txarragoagatik), frankismo-garaian joera hori handitu egin zen, batez ere nekazaritza-eskualdeetan (1950.eko hamarkadan, industria-guneetan berreskurapen apur bat antzeman zen baina nekazaritza-guneek artean goseak jarraitzen zuten; horrenbestez, bien arteko batez besteko garaieraren tartea handitu egin zen)[820].

Izan ere, Estatu berri hori erabat injustua izan zen beheko klaseentzako, baita nekazaritzarentzako ere. Nekazaritzan izan zituen emaitzak, industrian izanak bezalaxe, Fronte Popularraren aroarekin eta Errepublikarekin konparatuz, apalagoak izan ziren. Bestetik, lurren banaketari heldu gabe halako arazoa konpontzeko frankismoak erabili zuen beste politika bat "kolonizatze-politika" izan zen. Baina horretan ere, industriarekin gertatu zen bezala, plan asko arranditsuegiak izan ziren errealitatearentzako. Izan ere, 1939an sortutako Kolonizaziorako Institutu Nazionalak (*Instituto Nacional de Colonización*) 1950erako soilik 25.000 nekazari birkokatu zituen eta 1.000 etxebizitza berri baino gutxiago egin zituen. Institutu hori 149.000 bat hektareaz jabetu zen, baina horietako 24.400 soilik ziren ureztagarriak[821]. Konparaziorako, Fronte Popularraren bost hilabeteetan (1936ko otsailetik uztailera), 250.000 hektarea banatu ziren nekazarien artean[822]. Kontuan izan behar dugu, Errepublika-garaian Nekazaritzako Erreformaren aroan birbanatutako lurrak, frankismoak lurjabe pribatuen eskuetara itzuli zituela. 1938an, "itzultze" hori, edo nekazaritzako kontrarreforma hori gauzatzeko erakunde ofizial bat sortu zuen, Nekazaritza Berreskuratzeko Zerbitzua, baina egia esan, horrek izapideak burutu aurretik, erregimenak *manu militari* desjabetu zituen nekazariak: kalkulatzen denez, "itzulitako" 6,3 milioi hektareatatik, milioi eta erdi soilik itzuli ziren "legez", institutu horretako buru zen Anjel Zorrilla Dorrontsorok ere aitortu behar izan zuenez.[823]

Adibidez, Jesus Lopez Gallegok hala gogoratzen ditu gudaren ondoko urteak: "gose handia zegoen herrian"[824]. Peñagarikano Dorrontsoro ahizpek ere Beasainen gosea orokortua izan zela diote[825]. Arantza Ugarte Azkarateren arabera, "Guda osteko garaia, miseria handiko garaia izan zen"[826]. Antselmo Ruizek ere gauza bera esaten digu: "amek sekulako komeriak egin zituzten gu elikatzeko!"[827]. Jose Maria Alonso Lamatak eta Sara Alonso Lamatak, agian testigantzarik krudelena eman digute Beasainen izan zen goseaz, euren aitaren testigantza. Aita, Timoteo Alonso, Asturiasen zegoen Langile Batailoian preso, eta Alonso Lamata neba-arrebek kontatzen dutenaren arabera, hara joatea eskatu zion bere familiari, han gose gutxiago zegoela-eta[828].

---

816 DEL ARCO BLANCO, Miguel Angel: "Morir de hambre. Autarquía escasez y enfermedad en al España del primer franquismo" in *Pasado y Memoria. Revista de Historia Contemporánea,* 5. zk. (241-258. or.), 2006, 252. or.

817 Espainia bisitatu zuten atzerritarrek, Hegoaldea batez ere, "goseak jota hilzorian" topatutako jendeari buruzko berriak behin eta berriz ematen dituzte. Ikus DEL ARCO BLANCO, Miguel Angel: "Morir de hambre. Autarquía escasez y enfermedad en al España del primer franquismo" in *Pasado y Memoria. Revista de Historia Contemporánea*, 5. zk. (241.-258. or.), 2006.

818 CAZORLA SANCHEZ, Antonio: *Miedo y progreso. Los españoles de a pie bajo el franquismo, 1939-1975*. Alianza. Madril, 2016, 116. or.

819 CAZORLA SANCHEZ, Antonio: *Miedo y progreso. Los españoles de a pie bajo el franquismo, 1939-1975*. Alianza. Madril, 2016, 130. or.

820 CAÑABATE CABEZUELOS, Jose; eta MARTINEZ CARRION, Jose Miguel: "Crisis nutricional y pobreza bajo la dictadura franquista" in *XIV Congreso Internacional de Historia Agraria* (aktak). Badajoz, 2013.

821 BARCIELA, Carlos; LOPEZ, Maria Inmaculada; MELGAREJO, Joaquin eta MIRANDA, Jose Antonio: *La España de Franco (1939-1975). Economía*. Síntesis. Madril, 2001, 104. or.

822 CAZORLA SÁNCHEZ, Antonio: *Las políticas de la victoria*. Marcial Pons. Madril, 2000, 77. or.

823 BARCIELA, Carlos; LOPEZ, Maria Inmaculada; MELGAREJO, Joaquin eta MIRANDA, Jose Antonio: *La España de Franco (1939-1975). Economía*. Sintesis. Madril, 2001, 99. or

824 Jesus Lopez Gallegori egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-06-25ean.

825 Frantziska Peñagarikano Dorrontsorori eta Isabel Peñagarikano Dorrontsorori egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-07-09an.

826 Arantza Ugarte Azkarateri eta Maria Rosario Ugarte Sukiari egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-08-05ean.

827 Alberto Alonso Cacharrok eta Josu Lopez Castañaresek Antselmo Ruizi egindako elkarrizketa. Beasainen, 2013-03-25ean.

828 Amaia Alonso Garateri, Jose Maria Alonso Lamatari, Sara Alonso Lamatari eta Anjel Lamata Villahozi egindako elkarrizketa. Donostian, 2014-07-17an.

or.

Beste batzuk, adibidez, Irizar Aranburu familiak, euren familian "gose-gosea baino estualdia izan zela" esaten dute (kontuan izan behar dugu Irizar Aranburu ahizpak guda ostean jaiotakoak direla, eta euren haurtzaroa ez zela hain zuzen guda osteko urteetakoa izan; hala ere, Irizar Aranburu ahizpek esaten dutenez, askotan euren gurasoek edo aiton-amonek "zuek benetako gosea zer den ez dakizue!" esan izan zieten)[829]. Normalean, gose gutxiago pasatzea ez zegoen hainbeste lotuta diru asko izateari, baizik eta jana eskuratzeko modua izateari, hots, familiak baserria izateari. Aitor Garmendiak hala esaten digu: "guk baserria genuenez, pixka bat hobeto pasatu genituen garai hartako komeriak"[830]. Milagros Aranburu Muxikak ere berdin diosku: "guk baserria genuen, beraz, baserritarrek elkarri laguntzen ziotenez, hainbesterako goserik ez genuen pasatu"[831]. Antzeko testigantza ematen digute Ibaibarriaga Usabiaga neba-arrebek: "gure aitonak bazituen lur batzuk Olaberrian, eta haiei esker zer edo zer lor genezakeen"[832]. Arantza Ibaibarriagak ere hala dio: "gu baino okerragoak pasatutakoak baziren Beasainen"[833]. Felipe Ibarbia Alustizak, aita Usategi baserrikoa zuenak ere hala esan digu: "gu estu ibili ginen, baina okerragoak pasatutakoak izan ziren"[834]. Mutiloan bizi zen Bernardina Aldasorok ere hori esaten digu "gure etxean irina egiten genuenez, ez genuen hainbesterako goserik pasatu, baina kalean bai, kalean gorriak ikusi zituzten"[835]. Halako iritzia du halaber Joan Unanua Artolainek ere eta bere aitona zinegotzia zen (beraz, agintean zeuden familiek, ere, nolabait, euren bizitza-kalitatearen jaitsiera izan zuten, nahiz eta, gero ikusiko dugun moduan, sistemak batez ere aldekoei mesede egin)[836]. Beste batzuek, adibidez CAFeko langileek, enpresa horren ekonomatoaren babesa zuten. Hori gertatzen zen Lamata familiako kide batzuekin, Anjel Lamata Villahozek esaten digun moduan, "gure aita (Frantzisko Lamata) CAFeko ekonomatorako kartilla bazuenez, gure familian ez zuten hainbesteko goserik pasatu urte haietan"[837]. Oro har, gose gorria pasatu, edo "estutasuna" izan, denak datoz bat bizitza-kalitatearen erorketa nabarmena eta orokortua izan zela. Gainera, batzuetan, gosea politikoki ere erabili zen, adibidez, hori esaten digute Martinez Otaegi neba-arrebek euren amari gertatzen zitzaionaz: "*Auxilio Social* taldearen jantoki sozialean, *Cara al Sol* abestera behartzen zituzten umeak. Gure ama, hura ez abesteko berandu iristen zen, eta orduan mehatxuak jasan behar izaten zituen"[838]. Joan Ramon Imaz Crespok ere testigantza hori baieztatu egin digu: "*Cara al Sol* abesten ez bazenuen, ez zenuen jantoki sozialean jaterik"[839]. Ordizian ere gauza bera gertatzen zen, Yolanda Redondoren arabera: "Nire ama, bere auzokide karlista batekin joaten zen *Auxilio Social*eko jantoki sozialera eta horri esker uzten zioten sartzen. Baina *Cara al Sol* abesten ez zuenez, ez zioten postrerik ematen eta iraindu egiten zuten"[840]. Jantokiko janaria ez omen zen oso ona, Rosario Larreak esaten duenaren arabera: "Han oso ondo ez genuen jaten, hangoa ezin zen jan ere egin"[841].

Auxilio Social erakundea aipatu dugunez, hitz batzuk esan beharrean gaude horri buruz. Erakunde hori, erregimen frankistak "Alemania nazian zegoen Neguko Laguntza taldea imitatuz" sortu zuen[842]. Erakunde hori, Falangeko Emakumeen Atalak (*Sección Femenina*) kudeatzen zuen eta, bere izenak esaten duen moduan, behartsuei "laguntzea" helburutzat zuenez, horretarako, batez ere eta bere ekintzen ikur gisa, jantoki sozialen sare bat zabaldu zuen, baina "bere baliabideak ia beti oso mugatuak ziren" eta emandako laguntza ez zen nahikoa izaten"[843].

Ekonomian izan zen interbentzionismoak, nekazaritzan bere jarraipena izan zuen, eta kasu horretan, batez ere, "kartillen sistema" eta "errekisen sistema" erabili ziren. Kontuan hartu behar da hori erregimenaren aukera politiko bat izan zela, eta ez kanpotik edota inguruabarrek ezarritako berehalako erantzun bat; nahiz eta frankismoak, askotan, egoera kaxkarra sistema horren hutsei baino gehiago kanpoko konspirazioei eta egoerei leporatu (nazioartean Espainiarekin salerosketarik ez egin nahia, Guda Zibila, etab.). Autarkiak, Miguel Angel Del Arcoren arabera, goiko klaseak babestu eta faboritismoa ugaldu zuen[844].

---

829 Maria Ixabel Irizar Aranbururi eta Teresa Irizar Aranbururi egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-07-09an.

830 Aitor Garmendia Goitiari egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-07-16an.

831 Milagros Aranburu Muxikari egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-08-05ean.

832 Arantza Ibaibarriaga Usabiagari eta Pedro Maria Ibaibarriaga Usabiagari egindako elkarrizketa. Donostian, 2015-11-15ean.

833 Arantza Ibaibarriaga Usabiagari eta Pedro Maria Ibaibarriaga Usabiagari egindako elkarrizketa. Donostian, 2015-11-15ean.

834 Felipe Ibarbia Alustizari eta Maria Karmen Ibarbia Sarriegiri egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-06-19an.

835 Bernardina Aldasoro Ormazabali egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-10-30ean.

836 Joan Unanua Artolaini egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-09-05ean. Erregimenak beren aldekoak lehenesten zituenaz, adibidez; DEL ARCO BLANCO, Miguel Anjel: "Morir de hambre. Autarquía escasez y enfermedad en al España del primer franquismo" in *Pasado y Memoria. Revista de Historia Contemporánea,* 5. zk. (241.-258. or.), 2006, 246. or.

837 Amaia Alonso Garateri, Jose Maria Alonso Lamatari, Sara Alonso Lamatari eta Anjel Lamata Villahozi egindako elkarrizketa. Donostian, 2014-07-17an.

838 Lourdes Martinez Otaegiri eta Pello Martinez Otaegiri eginiko elkarrizketa. Ordizian, 2014-12-17an.

839 Joan Ramon Imatz Crespori egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-08-05ean.

840 Yolanda Begue Redondori eta Roberto Begue Sarasolari egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-06-27an.

841 Alberto Alonso Cacharrok eta Josu Lopez Castañaresek Rosario Larreari egindako elkarrizketa. Beasainen, 2012-04-14an.

842 CAZORLA SANCHEZ, Antonio: *Miedo y progreso. Los españoles de a pie bajo el franquismo, 1939-1975*. Alianza. Madril, 2016, 121. or.

843 CAZORLA SANCHEZ, Antonio: *Miedo y progreso. Los españoles de a pie bajo el franquismo, 1939-1975*. Alianza. Madril, 2016, 121-123. or.

844 DEL ARCO BLANCO, Miguel Angel: "Morir de hambre. Autarquía escasez y enfermedad en al España del primer franquismo" in *Pasado y Memoria. Revista de Historia Contemporánea,* 5. zk. (241.-258. or.), 2006, 243. or.

Garaiko interbentzionismo politikoaren arabera, Hornikuntza Batzorde ezberdinek ekoizleen uztaren parte bat jasotzen zuten (ekoizleek, zati txiki bat zuten euren salmentarako, gehienez 200 kilo gari urtean pertsonako eta beste 120 kilo gari urtean langileentzat; eta 36 kilo egoskari edo lekale urtean "nahiz eta Gariaren Zerbitzu Nazionaleko probintzia-ordezkariak kopuru horiek aldatu ahal izango dituen"[845]) eta gero izendatutakoa "sarean" jarri behar zuten (adibidez, 1943ko maiatzean Horniketa eta Garraiorako Batzordearen zirkular baten arabera, Beasaingo abeltzainek, deklaratutako behien %22 entregatu behar zizkioten salmenta bidez Estatuari eta salmenta horretarako behiak Udalak izendatutako tokiko batzorde batek aukeratzen zituen)[846].

Bestetik herritarrek errazionamendu-kartilla bat zuten, eta kartilla hori aurkeztuz saltokietan edo alondegietan elikagai-kopuru bat erosteko eskubidea zuten. Hasiera batean (sistema 1939an jarri zen indarrean), kartilla horiek kolektiboak ziren eta familiako bat banatzen zen, baina 1941etik aurrera, norbanakoen kartillak atera ziren (Gipuzkoako Hornikuntza Batzordeak 1941eko urriaren 29an eman zuen aldaketa markatzen zuen agindua)[847]. Norbanakoen kartilla horiek 1939ko errolda erabiliz egin ziren (beraz, edozein pertsonak, erroldatuta zegoen herrian jaso behar zuen bere errazionamenduko errazioa). Modu berean, norbanako bakoitzaren datu ezberdinekin fitxategi bat egitea proposatu zuen Gipuzkoako Hornikuntza Batzordeak, horrela, pertsona bakoitza kategoria ezberdin batean sailkatzeko. Errazionamenduan hiru kategoria ezberdin jarri zituzten eta, bakoitzean, kopuru ezberdina jasotzen zen. Hau da 1942ko irailaren 30ean Beasaingo herritarren sailkapena kategoriaren arabera:

ZENBAT PERTSONAKO UNITATEA	LEHEN KATEGORIA	BIGARREN KATEGORIA	HIRUGARREN KATEGORIA	GUZTIRA
Pertsona 1	1	12	20	33
2 pertsona	18	126	100	244
3 pertsona	33	180	330	543
4 pertsona	32	176	628	836
5 pertsona	25	195	855	1.075
6 pertsona	48	96	480	624
7 pertsona	35	35	546	616
8 pertsona	48	16	384	448
9 pertsona	36	36	198	270
10 pertsona		30	250	280
11 pertsona	11	11	165	187
12 pertsona			48	48
13 pertsona			26	26
14 pertsona			14	14

Iturria: Beasaingo Udal Artxiboa. A070 karpeta, 04. dokumentu-sorta[848].

Sailkapen hori, teorian, errentaren araberakoa zen: errenta gehien, edo familia-karga gutxien zutenak lehen kategorian sartzen zituzten eta jaki gutxiago ematen zieten kategoria horretako hornikuntzan. Baina praktikan, sailkapena ideologikoa izaten zen: adibidez, Francoren alde borrokatu zutenak eta euren familiak hirugarren kategorian (elikagai gehien jasotzen zuten kategorian) sartzen zituzten. Beasainen ere, pertsona batzuek hori baieztatu digute: sailkapena ideologikoa izaten zela; adibidez Xanti Lasa Aranburuk: "gure amaren familian, errazionamendua, guda irabazi zutenen familietan baino gutxiago jasotzen zuten"[849]. Jabier Garcia Bergararen arabera, "errazionamendua eraginen arabera izaten zen (…) erregimenaren aldeko batzuek onurak izaten zituzten"[850].

Pertsona askok kategoriaz aldatzeko bereak eta bi egiten zituen eta 1941eko azaroan, Gipuzkoako Gobernadore Zibilak, 1941eko uztailaren 1etik aurrera emandako kategoria-aldaketak egitea debekatzera iritsi zen[851].

[845] Beasaingo Udal Artxiboa. A072. karpeta, 10. dokumentu-sorta.

[846] Beasaingo Udal Artxiboa. A070. karpeta, 05. dokumentu-sorta.

[847] Beasaingo Udal Artxiboa. A070 karpeta, 02. dokumentu-sorta.

[848] Nahiz eta dokumentu honek kategoria bakoitzean zeuden pertsonak "familiaka" edo "unitateka" sailkatu, azkenean, kartilla bakoitza pertsona batena zen (normalean familia bereko kideak denak kategoria berean egoten ziren). Hots, guztira 3 kideko familietako 330 pertsona bazeuden 3. kategorian, horrek esan nahi zuen hiru kideko 110 "familia" zeudela 3. kategorian.

[849] Xanti Lasa Aranbururi egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-08-05ean.

[850] Jabier Garcia Bergarari egindako elkarrizketa (bi zatitan: Beasainen, 2014-07-03an eta 2014-07-22an).

[851] Beasaingo Udal Artxiboa. A070 karpeta, 02. dokumentu-sorta.

or.

Hala ere, kartillaren bidezko sistema hori ez zen nahikoa izan behar guztiak betetzeko. Beasaingo testigantza ezberdinek hori dioskue, ematen ziren jeneroak gutxiegi zirela eta gainera nahiko garestiak eta askotan txarrak. Adibidez, Maria Karmen Ibarbia Sarriegik eta Felipe Ibarbia Alustizak esaten duten moduan, "ogia oso zorrotz errazionatua zegoen garai haietan"[852]. Pedro Maria Ibaibarriagak ere esaten du: "ogia Ataundik edo Lazkaotik merkatu beltzean ekarri behar zen, bestela bertan ez zegoen nahikorik"[853]. Milagros Aranburu Muxikaren arabera, "ogia oso errazionatua zegoen" eta "oso garestia zela" ere badio[854]. Rosario Larrearen arabera "ematen zuten ogia oso txarra zen"[855]. Jesus Lopez Gallegok beste oinarrizko jenero baten eskasia aipatzen du: olioarena hain zuzen ere[856]. Rosario Larrea ere bat dator horrekin: "olioa egiteko seboa eta koipea ematen zizkiguten. Garai hartan nik bila joan behar izaten nuen". Larrearen arabera, "garai hartan, arrautza frijituak jan zitzakeenari inbidia genion, hori luxua zen-eta"[857]. Halako iritzia dute arazo hori ikertu duten bi historiagilek, Molinerok eta Ysasek: "Hornikuntza Batzordeak sekula ez zuen banatu beharreko kopurua banatu"[858]. Batzuen arabera, eskasia horren arrazoiak, lehengaiak Francok Espainiako gudan aliatu izan zituen (eta Espainiak guda-ondorena bizi zuela eurak Bigarren Mundu Gudan borrokan ari ziren) Italiari eta Alemaniari lehengaiak esportatzean zetzan. Hala azaltzen du, adibidez, Ordiziako Txomin Eskisabelek: "hemengo guztia eramaten zuten Mundu Gerrarako eta hemen ez zuten ezer uzten. Etxeetan ez zegoen janaririk"[859].

Molinero eta Ysasen arabera, batez ere 1940a eta 1941a izan ziren hornikuntzaren urterik txarrenak[860]. Hori baieztatzen du halaber ordiziar batek ere, Pedro Balerdik: *"En el año cuareintaiuno* (sic; berrogeita batgarren urtean), hor izan zen urte bat edo urte eta erdi bat oso txarra eta gero pixka bat *mejorau* (sic; hobetu) zen, eta atzera *cuarentaicuatron* (sic; berrogeita lauan) edo hola, oso txarra berriz ere"[861]. Beste batek, Maritxu Etxeberriak hori berresten du: *"cuarenta y uno* (sic; berrogeita bat) eta *cuarenta y dos* (sic; berrogeita bi) urteak txarrak izan ziren eta orduan janariarekin gaizki ibili ginen"[862]. Antton Garcia ere bat dator horrekin: "1941ean ez zegoen ezer"[863].

Oso argigarria da Sara Unanue Lobetok emandako erantzuna, "gure aitak (Roman Unanue medikuak) ez zuen gaizki irabazten, baina ez zegoen janaririk, dirua non gastaturik ez zegoen. Gabiriara joan ginenean, han hobeto egon ginen, han jana bazegoelako, askotan han, aitak janetan kobratzen zuen"[864]. Unanuek, hala bizitzearen, eta beraz, diruaren "truke-balio praktikoaren" galeraz anekdota bat kontatu digu: behin, jada Gabirian bizi ginela, nire neba txikiak gurasoen diru bileteekin kutxa bat topatu zuen eta balkoitik behera botatzen hasi zen. Nebak ez zekien paper horiek zer ziren, izan ere, garai hartan, balio praktikoa asko galdua baitzuten (Sara Unanuek esaten du dirua bere horretan baino askoz gehiago baloratzen zela elikagaia)[865].

Kontsumoaz ari garela; datuek ez dute erregimena batere toki onean uzten: Cañabate eta Martinez Carrionen arabera, 1930ean batez besteko kalorien kontsumoa eguneko 2.760 kilokalorietakoa bazen, 1949an 2.300ekoa zen (eta hori jada gose-urteak pasatuta), 1930eko mailak berriro ez ziren lortu 1961a arte. Guda ostean, tokirik txiroenetan, eguneko 1.600 kilokaloria kontsumitzen ziren[866]. Jakina, azpikontsumo horrek gaixotasunak agertzea ekarri zuen[867]. Atzerriko diplomatikoak ere

---

[852] Felipe Ibarbia Alustizari eta Maria Karmen Ibarbia Sarriegiri egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-06-19an.

[853] Arantza Ibaibarriaga Usabiagari eta Pedro Maria Ibaibarriaga Usabiagari egindako elkarrizketa. Donostian, 2015-11-15ean.

[854] Milagros Aranburu Muxikari egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-08-05ean.

[855] Alberto Alonso Cacharrok eta Josu Lopez Castañaresek Rosario Larreari egindako elkarrizketa. Beasainen, 2012-04-14an.

[856] Jesus Lopez Gallegori egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-06-25ean.

[857] Alberto Alonso Cacharrok eta Josu Lopez Castañaresek Rosario Larreari egindako elkarrizketa. Beasainen, 2012-04-14an.

[858] MOLINERO, Carme eta YSAS, Pere: "Las condiciones de vida y laborales durante el primer franquismo. La subsistencia; ¿un problema político?" in *Historia Ekonomikoaren Elkartearen VII Biltzarra* (aktak), Zaragoza, 2001.

[859] ASKOREN ARTEAN: *Ahaztuen mindura. 1936ko gerra eta frankismoa Ordizian.* Ordiziako Udala, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Aranzadi. Ordizia, 2014, 147. or.

[860] MOLINERO, Carme eta YSAS, Pere: "Las condiciones de vida y laborales durante el primer franquismo. La subsistencia; ¿un problema político?" in *Historia Ekonomikoaren Elkartearen VII Biltzarra* (aktak), Zaragoza, 2001.

[861] GARMENDIA, Larraitz eta ETXABE, Karmele: *Ordiziako euskara: garai bateko bizimodua eta gaurko hizkuntza-egoera*. Ordiziako Udala eta Hitzaro Euskara Elkartea. Oñati, 2004, 128. or.

[862] GARMENDIA, Larraitz eta ETXABE, Karmele: *Ordiziako euskara: garai bateko bizimodua eta gaurko hizkuntza-egoera.* Ordiziako Udala eta Hitzaro Euskara Elkartea. Oñati, 2004, 137. or.

[863] ASKOREN ARTEAN: *Ahaztuen mindura. 1936ko gerra eta frankismoa Ordizian*. Ordiziako Udala, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Aranzadi. Ordizia, 2014, 224. or.

[864] Sara Unanue Lobetori egindako elkarrizketa. Donostian, 2014-10-01ean.

[865] Sara Unanue Lobetori egindako elkarrizketa. Donostian, 2014-10-01ean.

[866] CAÑABATE CABEZUELOS, Jose; eta MARTINEZ CARRION, Jose Miguel: "Crisis nutricional y pobreza bajo la dictadura franquista" in *XIV Congreso Internacional de Historia Agraria* (aktak). Badajoz, 2013, 12. or.

[867] DEL ARCO BLANCO, Miguel Angel: "Morir de hambre. Autarquía escasez y enfermedad en al España del primer franquismo" in *Pasado y Memoria. Revista de Historia Contemporánea,* 5. zk. (241-258. or.), 2006, 253-256. or. Del Arcok gainera beste arlo bat azpimarratzen digu: gaixotasun horien aurkako erregimenaren erantzun-falta edota egoeraren aurreko axolagabekeria.


COMISARIA GENERAL DE ABASTECIMIENTOS Y TRANSPORTES
TARJETA DE ABASTECIMIENTO
DATOS DEL TITULAR
ANTONIO (Nombre) SARRIEGUI (Primer apellido) ESQUISABEL (Segundo apellido)
Sexo: V Nacimiento: día 13 mes Agosto año 1946 Años cumplidos
Estado civil: -- Profesión: --
Lugar de nacimiento: Municipio de Beasain Provincia de Guipúzcoa
Nombre del padre: Cecilio Id. de la madre: Mª Dolores
Para los extranjeros: nacionalidad
Domicilio: calle o plaza de C. Lazcano núm. 8 piso 1º
Beasain a 19 de Agosto de 1946
Serie SS Número 169757
Municipio Beasain Guipúzcoa a 6 de Diciembre de 1948
Firma del interesado (1) (Provincia) (Sello) El Delegado de Abastecimientos,
ES COPIA
(1) Por los menores de 14 años o incapacitados firmará la persona a cuyo cuidado se encuentren. Sin la firma del titular o su representante o huella dactilar, si no sabe firmar, esta tarjeta es nula.
...ese cuidadosamente este documento y los cupones que tiene por ser todo ello indispensable para obtener y ...nes de cupones de racionamiento.

COMISARIA GENERAL DE ABASTECIMIENTOS Y TRANSPORTES
TARJETA DE ABASTECIMIENTO
DATOS DEL TITULAR
MARIA Dolores (Nombre) ESQUISABEL (Primer apellido) BARANDI ARAN (Segundo apellido)
Sexo: H Nacimiento: día 18 mes Octubre año 1915 Años cumplidos 29
Estado civil: S. Profesión: Labores
Lugar de nacimiento: Municipio de Atáun Provincia de Guipúzcoa
Nombre del padre: Diego Id. de la madre: Josefa
Para los extranjeros: nacionalidad
Domicilio: calle o plaza de C. Lazcano núm. 8 piso 1º
Beasain a 1 de Enero de 1945
Serie SS Número 167111
Municipio Beasain Guipúzcoa a 6 de Diciembre de 1948
Firma del interesado (1) (Provincia) (Sello) El Delegado de Abastecimientos,
Mª Dolores Esquisabel
ES COPIA
(1) Por los menores de 14 años o incapacitados firmará la persona a cuyo cuidado se encuentren. Sin la firma del titular o su representante o huella dactilar, si no sabe firmar, esta tarjeta es nula.
...se cuidadosamente este documento y los cupones que tiene por ser todo ello indispensable para obtener y ...nes de cupones de racionamiento.

Garai hartan erabiltzen ziren hornikuntza-txartelen adibide bi, Andoni Sarriegirena (ezkerrean) eta Maria Dolores Eskisabelena (eskuinean), 1946koak.
(Agiriak: Andoni Sarriegi Eskisabelek utziak)

baziren horretaz jabetuak, 1948ko britainiar enbaxadaren kalkulu batzuen arabera, 1947an Espainiaren azpielikadura, egunean %15 eta %20 artekoa zen[868].

1943an kartilla berriak egiteko kanpaina hasi zen, alde batetik, bi urtetik beherako umeek kartilla bereziak izango zituztelako. Beste guztiei zegokienez, berriz, norbanakoen kartillak 1943ko maiatzaren 22rako jada banatze-bulegoetan egon behar zuten, eta herritarrek bertatik hartu beharko zituzten, maiatzaren 22tik 29ra. Aldi berean Hornikuntza Batzordeko ordezkariek, banaketa hori modu "ordenatuan" egiten ari zela zaindu behar zuten, zenbat kartilla zein bulegotan uzten ziren eta nori ematen zitzaizkien, eta bestelako datuak bilduz (banaketa-bulegoetako arduradunek, kartillak entregatu ondoren, hartzaileen datuak Hornikuntza Batzordeari eman behar zizkioten)- 1943ko ekainaren 26rako kartillak entregatzearen prozesu hori bukatuta egon behar zuen, ekainaren 28an kartilla horiek erabiltzen hasteko[869]. Bestetik, 1944an, 1945eko urtarrilaren 1etik aurrera indarrean jarri beharreko "hornikuntza-txartelak" ere prestatzen hasi ziren, norbanako bakoitzarentzat eta transferiezinak zirenak. Horiek, errazionamendu-kupoiekin batera, lehen azaldutako norbanakoen kartilla osatzen zuten. Txartel horiek ere saltokien bidez banatu ziren eta 1944ko urriaren 1etik aurrera, bakoitzak erroldatuta zegoen herriko saltokietan jaso behar zituen[870]. Halako eredu interbentzionista batek, ekoizpenaren eta salerosketaren gaineko kontrola zuen.

Sistema interbentzionista horrek porrot egin zuen: Antonio Cazorlaren arabera, sistema horren porrota ez zegoen berez errazionamenduan bertan (Bigarren Mundu Gudan hainbat Estatuk jarri zuten martxan halako sistema bat, eraginkortasun handiz aplikatuz eta arrakasta izanez), Espainian izan zen aplikazioan izan zen arazoa; batez ere, agintari frankistek garai hartako txiroekiko zuten axolagabekerian eta ustelkerian[871]. Migel Anjel Del Arcoren arabera, arrazoia, Francoren Estatuaren "arrazoi politikoan" zegoen; hots, Estatuak herritarrak elikatzea baino nahiago zuen bere politika autarkiko eta porrot egindakoarekin jarraitzea, nahiz eta herritarren egoera kaxkarraz jabetua izan. Del Arcok arrazoi "funtzionalista" bat ematen digu: "frankismoa, sortu zenerako sortu zen, klase aberatsen nagusigo sozial eta ekonomikoa indartzeko. "Klase-eraginkortasun" hori, oso altua izan zen"[872]. Antzera pentsatzen dute Carme Molinerok eta Pere Ysasek ere eta, horien arabera, "erregimenaren pertsonal politikoaren zati handi bat, batez ere tokiko agintariak, arazoaz jabetuak ziren". Hala ere, bi egile horien arabera, "arazo hori konpontzeko neurririk ez zen hartu, egoeraren erantzuleak, –adibidez soldata baxuak– erregimen frankistaren beste politika batzuen emaitza zirelako eta politika horiek erregimenak bere proiektuaren oinarritzat zituelako: jabeen nagusitasuna eta autarkia"[873]. Are gogorragoa da Michael Richards historialariaren epaia: beraren arabera, gosea nahita sortu zuen erregimenak, kontrakoa zen populazio bat otzantzeko[874]. Batera edo bestera, argi dagoena da populazioarentzat miseria gorriko urteak izan zirela eta miseria hori Estatuaren politikek eragin zutela.

---

[868] *Foreign Office,* PRO/FO371/73342 txostena (1948-03-08) in DEL ARCO BLANCO, Miguel Angel: "Morir de hambre. Autarquía escasez y enfermedad en al España del primer franquismo" in *Pasado y Memoria. Revista de Historia Contemporánea,* 5. zk. (241-258. or.), 2006, 251. or.

[869] Beasaingo Udal Artxiboa. A070 karpeta, 05. dokumentu-sorta.

[870] Beasaingo Udal Artxiboa. A070 karpeta, 06. dokumentu-sorta.

[871] CAZORLA SANCHEZ, Antonio: *Miedo y progreso. Los españoles de a pie bajo el franquismo, 1939-1975*. Alianza. Madril, 2016, 113.-114. or.

[872] DEL ARCO BLANCO, Miguel Angel: "Morir de hambre. Autarquía escasez y enfermedad en al España del primer franquismo" in P*asado y Memoria. Revista de Historia Contemporánea*, 5. zk. (241-258. or.), 2006, 256. or.

[873] MOLINERO, Carme eta YSAS, Pere: "Las condiciones de vida y laborales durante el primer franquismo. La subsistencia; ¿un problema político?" in *Historia Ekonomikoaren Elkartearen VII Biltzarra* (aktak), Zaragoza, 2001.

[874] RICHARDS, Michael: *Un tiempo de silencio. La guerra civil y la cultura de la represión en la España de Franco, 1936-1945*. Critica. Bartzelona, 1999.

or.

COMISARIA GENERAL DE ABASTECIMIENTOS Y TRANSPORTES

TARJETA DE ABASTECIMIENTO

DATOS DEL TITULAR

Mª ISABEL (Nombre) | PEÑAGARICANO (Primer apellido) | DORRONSORO (Segundo apellido)

Sexo: H. Nacimiento: día 1 mes Septiembre año 1933 | Años cumplidos 15

Estado civil: S. Profesión: escolar

Lugar de nacimiento: Municipio de Beasain; Provincia de Guipúzcoa

Nombre del padre: José Id. de la madre: Catalina

Para los extranjeros: nacionalidad

Domicilio: calle o plaza de Avda. de Navarra núm. piso 45

Beasain a 1 de Enero de 19

Serie SS Número 168867

Municipio Beasain Guipúzcoa a 6 de Diciembre de 19 48

Firma del interesado (1) (Provincia) (Sello) El Delegado de Abastecimientos,

ES COPIA

Consérvese cuidadosamente este documento y los cupones que tiene por ser todo ello indispensable para obtener y usar colecciones de cupones de racionamiento.

(1) Por los menores de 14 años o incapacitados firmará la persona a cuyo cuidado se encuentren.-Sin la huella dactilar, si no sabe firmar.

Beste hornikuntza-txartel bat. Kasu honetan Isabel Peñagarikanorena, 1948. urtekoa. (Agiria: Frantziska Peñagarikano Dorrontsorok eta Isabel Peñagarikano Dorrontsorok utzia).

Udalak hornikuntza kontuetan izan zuen beste fronte bat, 1942ko maiatzean eta ekainean salatu bezala, CAFeko ekonomatoa izan zen, zergak ordaintzen ez zituelako eta zorrak likidatzen ez zituelako[875]. Fronte horrek irekita jarraitu zuen 1944an ere, izan ere, urte horretako otsailaren 11ko bilkuran, Udalak jakinarazi zuenez, fabrikak ez zien erantzunik ematen Udalak eginiko jakinarazpenei, beraz, Udala arazo horren aurrean gehiago tematu beharrean zegoen[876]. Ikusten dugun moduan, agintariek ekoizpen- eta salmenta-sistema erabat kontrolatu nahi zuten. 1941eko ekainaren 24an, adibidez, herriko Kontsumo Ekonomatoak berari saltzea zegokion kopurua handitzea eskatu zion Udalari "garen 224 bazkideetatik, 70i soilik eman baitiezaiekegu errazionamendua". Ekonomatoko arduradun zen Jose Aseginolatza Azurmendik argudiatzen zuenez, bazkide askok ekonomikoki ezin zuten ekonomatotik kanpo errazionamendurik ordaindu, beraz kupoa handitzea eskatzen zuen "gutxienez ere 125 bazkideri jana emateko moduan izan arte" (hau da, %66 bat handitzea). Aseginolatzak, "Kooperatiba Elkartea disolbatzeko zurrumurruak daudenez gero (…) zorigaitzeko gertakizun horren ondoren, elkarte horren kupoa Ekonomatora pasatzea proposatzen zuen", "elkarte hartako kide asko honetakoak ere badira-eta"[877]. Hala ere, uztailaren 7an, Udalak eskaera horri baiezkoa ematea ezinezkoa zela erantzun zion, "dagoeneko saltoki bakoitzarentzako kupoak ezarrita daudelako"[878].

Halako interbentzionismoak, askotan ekoizleek euren jeneroak non saltzerik ez izatea eta kontsumitzaileek jeneroak non erosterik ez izatea zekarren (dirua zuten kasuetan, izan ere soldatak, ikusi dugun bezala, erlatiboki asko jaitsi ziren). Iruzurra nahiko zabaldua zegoen Beasainen 1942an eta, herritar askok, kartilla guztiz arautua eta eguneratua izan arren, jakiak lortzerik ez zutela-eta kexua aurkeztu baitzuten. Egoera horren aurrean, Udalak, saltokietan kartilla aurkeztu gabe errazionamenduko jenerorik ez banatzeko, kartillako kupoiak saltzaileak berak ebakitzeko eta kartillarekin joaten zirenen eta eskatzen zituzten jeneroen zerrendak egiteko betebeharra zutela gogorarazi zien, eta halaber zerrenda, hori, errazionamendu-jeneroen banaketa egin eta hurrengo egunean entregatzeko[879].

Honen guztiaren ondorioz merkatu "beltzaren" agerpena dugu. Merkatu "beltzean" jarduteko arrazoiak ezberdinak izan ziren, kasu batzuetan ekoizle txikiek modu desesperatuan erosleak behar zituztelako, edota kontsumitzaileek jeneroak behar zituztelako (errazionamenduko kartillarekin iristen ez bazitzaizkien). Hori zela-eta bide "ez-arautuetan" ere salerosketak egiten ziren. Baina bazeuden baita ere euren jeneroak ezkutatu eta eskasia eraginda prezio handiagoan ezkutuan edo merkatu beltzean saltzeko

875 Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 19. dokumentu-sorta.
876 Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 17. dokumentu-sorta.
877 Beasaingo Udal Artxiboa. 171. karpeta, 19. dokumentu-sorta.
878 Beasaingo Udal Artxiboa. 171. karpeta, 19. dokumentu-sorta.
879 Beasaingo Udal Artxiboa. 3190. karpeta, 33. dokumentu-sorta.

Garai haietan eskasia hain handia izan zen, ezen errazionamendu-txartelak edozertarako erabiltzen zirela. Irudian, Jose Sarriegi Aldanondoren erretzaile-txartela. (Agiriia: Andoni Sarriegi Eskisabelek utzia).

(zaila da kalkulatzea zenbatean, hiriz hiri eta dataz data aldatu egiten baitziren; baina oro har, prezio ofizialak bikoiztu edo hirukoiztu egiten zituzten[880]) desbideratzen zituzten ekoizle handiak[881]. Hala ere, esan beharra dago merkatu beltza garai haietan beharrak sortutako zerbait izan zela eta, jende askok, baita Beasainen ere, jotzen zuela halako bideetara behar zuena lortzeko (kasu askotan eguneroko ogia adibidez). Praktikan, estraperloak, "beheko" jendearentzat bat-bateko irtenbidea esan nahi bazuen ere, luzera klase edukitzaileen aldeko errentak handitzea ekarri zuen[882]. Rafael Abellak bildu zuen testigantza baten arabera, enpresari batek honela esan zion merkatu beltzaz: "Hau Jainkoaren oparia da, Guda Zibilean sufritutakoak konpentsatzen dituena"[883].

Ikusi dugun bezala, estraperloan, bai beheko zein goiko klaseek parte hartu zutela esan beharra dugu. Kapitulu honetan hainbatetan aipatu dugun moduan, herritarren xede nagusia bizirautea izan zen eta, halako egoeran, ez ziren gutxi izan merkatu beltzera jo zutenak, baita Beasainen ere. Herritar askok merkatu beltzera joan behar izan zuten, errazionamenduan ez zituzten jeneroak bilatzera (bazegoen halaber, merkatu beltzera joan ordez, baserriko jeneroak ezkutatzen zituenik ere, adibidez Ordizian, Oianguren baserrian[884]. Tasa horiei izkin egiteko beste modu bat agintarien "konplizitatea" zen, adibidez, Azpeitiko Inaxia Bereziartuak kontatzen duenaren arabera, "Azpeitian bazegoen guardia zibil bat, oso ezaguna, etxe guztietan ardoa ematen ziotena, gero arazorik ez izateko[885]). Hainbat pertsonek baieztatu digute hori. Horietako bat, Pedro Maria Ibaibarriaga izan da, ezen bere familia ogia-bila Lazkaora eta Atauna (errotetara) joaten zela esan digu[886]. Beste batzuk urrutirago joaten ziren, adibidez, Jesus Lopez Gallegok gogoratzen du patata-bila Sakanara joaten zela, Lizarrustin gora (han Guardia Zibilaren kontrola egoten zen eta, askotan, jeneroak kendu egiten zituzten, baina Lopez Gallegoren arabera "Niri sekula ez zidaten ezer harrapatu")[887]. Rosario Larreak ere diosku, bere aita-ordeak (bere aita biologikoa, Juan Andres Otaegi Berasategi altxatuek Beasainen sartzerakoan hil zuten) Nafarroara patata-bila joan behar izaten zuela", "Beasainen ez baitzegoen batere"[888]. Patxi

[880] MOLINERO, Carme eta YSAS, Pere: "Las condiciones de vida y laborales durante el primer franquismo. La subsistencia; ¿un problema político?" in *Historia Ekonomikoaren Elkartearen VII Biltzarra* (aktak), Zaragoza, 2001.

[881] CAZORLA SANCHEZ, Antonio: *Miedo y progreso. Los españoles de a pie bajo el franquismo, 1939-1975.* Alianza. Madril, 2016. Cazorlaren arabera, oso tipikoa zen "saltokietan jeneroak pilatzen zirenean, jendeak jenero horiek ezin erosi izana". Horrela ere, merkatu beltzera desbideratzea erraza zen, batez ere jenero batzuek banatzekoak baziren eta merkatarien eskuetan bukatzen bazuten. Ordizian, adibidez, Antton Garcia herritarrak dioenez, bertako denden jabe batzuek ("Goenagatarrek, aizto-dendako jabeek") "Andaluziatik olioa estraperloan ekartzen zuten". ASKOREN ARTEAN: *Ahaztuen mindura. 1936ko gerra eta frankismoa Ordizian.* Ordiziako Udala, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Aranzadi. Ordizia, 2014, 224. or.

[882] DEL ARCO BLANCO, Miguel Angel: "Morir de hambre. Autarquía escasez y enfermedad en al España del primer franquismo" in *Pasado y Memoria. Revista de Historia Contemporánea,* 5. zk. (241-258. or.), 2006, 251. or.

[883] ABELLA, Rafael: *Por el Imperio hacia Dios*. Planeta. Bartzelona, 1978, 82 or.

[884] ASKOREN ARTEAN: *Ahaztuen mindura. 1936ko gerra eta frankismoa Ordizian*. Ordiziako Udala, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Aranzadi. Ordizia, 2014, 164. or.

[885] BUCES CABELLO, Javier: *Azpeitia 1936-1945 (I. lib., Giza Eskubideen zapalketa eta errepresioa Guda Zibilean eta lehen frankismoko garaian)*. Azpeitiko Udala, Eusko Jaurlaritza eta Aranzadi. Azpeitia, 2016, 183. or.

[886] Arantza Ibaibarriaga Usabiagari eta Pedro Maria Ibaibarriaga Usabiagari egindako elkarrizketa. Donostian, 2015-11-15ean.

[887] Jesus Lopez Gallegori egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-06-25ean.

[888] Alberto Alonso Cacharrok eta Josu Lopez Castañaresek Rosario Larreari egindako elkarrizketa. Beasainen, 2012-04-14an.

or.

Lasa Imatzen aita ere Nafarroara joaten zen eta, berak kontatuaren arabera, "hamalau urterekin ni ere joaten hasi nintzen"[889]. Guztiek ez zuten zorterik izaten, izan ere agintariek eta ordena publikoko indarrek kanpotik ekartzen ziren jakiak kendu egiten zituzten. Hala kontatzen digute Peñagarikano Dorrontsoro ahizpek: "behin gure amak Nafarroatik janari-saski bat ekarri zuela-eta, Beasaingo eskuindar batek, Beasainen oso ezaguna zen batek, kendu egin zion". Ez dakigu pertsona horrek deklaratu ote zuen errekisatutako saskia edo bere onerako erabili ote zuen, halakoak ere gertatu ohi ziren-eta[890].

Estraperloa ingurko herrietan ere egiten zen, adibidez, Ordizian. Gainera, Ordiziak, merkatua handia zuen eta horrek ere aukerak ematen zizkion merkatu beltzeko jeneroak saltzeko, agintariak hainbat arau jartzen saiatzen ziren arren[891]. Ordiziar batzuek, adibidez Benito Arin, diotenez, Murumendira joaten zen patata ereitera[892] (Murumendi Beasain da, beraz, pentsatzekoa da beasaindar asko ere joaten zirela). Beste batzuek ere kontatzen dute Nafarroara joan izan zirela "patata- eta indaba- (babarrun) bila"[893], edo areago olio-bila[894], edo baita ere Legorretara eta Ikaztegietara[895]. Tolosan ere gosea pasatu zuten bertakoek eta han ere merkatu beltzera jo zuten. Han, Nafarroara joaten zen jende gehiena "babarrunen, pataten, olioaren eta bestelako premiazko beharrezko gauzen bila", Tomas Alonsok esaten duenez. Beste batek, Andres Gaztañagak "Estraperloa? Ahal zenarekin!" esaten du "Batzuk Nafarroara joaten ginen eta handik patatak, azenarioak eta abar ekartzen genituen"[896]. Kronologiari dagokionez, bat egiten dute 1941-1942 urteak okerrentzat jotzen: hango lekuko batek, Xabier Garikanok, esaten zuen bezala, "izua, hemen, gudarekin 1936an hasi zen, baina benetan txarrak, 1940., 1941. eta 1942. urteak izan ziren, oso gogorrak, e!"[897].

Udaletik ere izan ziren herritar batzuen aurkako salaketa batzuk. 1939an, Melchor Garcia Udaltzainburuak eta Martin Aramburu langileak, Tomasa Torres deitutako herritar arranduna salatu zuten, Beasaingo Alondegian Ormaiztegin saltzekoa zen arraina pisatzerakoan iruzur egin omen zuelako. Tomasa Torresen iruzur hori frogatu egin zen eta, Udalak, kasu horretan isun bat jarriz zigortu zuen: isuna zortzi pezetakoa izan zen, Torresek desbideratutakoak balio zuenaren boskoitza[898].

Janaria lortzeko beste modu bat mesedeak egitea izan zen. Hori kontatzen du adibidez, Antselmo Ruizek: "behin baserritar bati kotxea konpondu genion, eta hark esker onez haragia eman zigun"[899]. Hala ere, halako mesedeak egitea eta trukean jana lortzea noizbehinkakoa zen eta, jende gehienak, errazionamenduan ematen ez zenaz hornitzeko edo emandako jenero txarraren ordez hobea lortzeko, merkatu beltzera jo behar izaten zuen. Bitartekari batzuk aberastu egin ziren merkatu beltzaren kontura. Izan ere, garaiko politikaren logikaz kanpoko ezaugarri bat, finkatutako prezioen inkoherentzia zen; hots, askotan ekoizleak merkatariari saldu beharreko jeneroaren prezioa, merkatariak merkatuan saltzeko ezar zezakeena baino altuagoa izan zitekeen[900]. Horrela, nahiko arrunta zen pertsona askok merkatu beltzera jotzea, merkatariek eta haien atzetik edonork bertan jeneroak topa zitzakeelako. Merkatu ofizialean jeneroak ezin aurkitu ahal izate hori, Gipuzkoan ere gertatu zen, 1939an britainiar enbaxadoreak esan zuenez[901].

Hornikuntza eta Garraio Zerbitzuak ez zuen soilik ekoitzitakoa kontrolatzen, baizik eta prezioak ere finkatu egiten zituen (edo finkatzeko irizpideak eman). Beasainen, Udalak 1941eko irailean sinatutako dokumentu baten arabera, hauek ziren artikuluen "gehiegizko prezioak": Lekak, kiloa 1,50 pezeta; aza txikiak, kiloa 0,75 pezeta; aza ertainak, kiloa 1,15 pezeta; aza handiak,

---

[889] Patxi Lasa Imatzi egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-06-25ean.

[890] Frantziska Peñagarikano Dorrontsorori eta Isabel Peñagarikano Dorrontsorori egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-07-09an. Peñagarikano Dorrontsoro ahizpek ez zuten pertsona horren izenik eman nahi izan "Beasainen oso ezaguna izan zen-eta".

[891] ASKOREN ARTEAN: *Ahaztuen mindura. 1936ko gerra eta frankismoa Ordizian*. Ordiziako Udala, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Aranzadi. Ordizia, 2014, 122. or.

[892] GARMENDIA, Larraitz eta ETXABE, Karmele: *Ordiziako euskara: garai bateko bizimodua eta gaurko hizkuntza-egoera*. Ordiziako Udala eta Hitzaro Euskara Elkartea. Oñati, 2004, 124. or.

[893] GARMENDIA, Larraitz eta ETXABE, Karmele: *Ordiziako euskara: garai bateko bizimodua eta gaurko hizkuntza-egoera*. Ordiziako Udala eta Hitzaro Euskara Elkartea. Oñati, 2004, 128. or.

[894] ASKOREN ARTEAN: *Ahaztuen mindura. 1936ko gerra eta frankismoa Ordizian*. Ordiziako Udala, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Aranzadi. Ordizia, 2014, 143. eta 156. or. Hala ibiltzen zen ordiziar batek, Agustin Garcia Garciak (aita Benito Garcia gudan hil zioten) esan zuen "Etxarrira ez ginen joaten, han hil baitzintzaketen" (guda hasieran lau ordiziar hil zituzten Etxarri aldean). Ikusten den moduan, beldurrak artean jarraitu egiten zuen guda ostean.

[895] GARMENDIA, Larraitz eta ETXABE, Karmele: *Ordiziako euskara: garai bateko bizimodua eta gaurko hizkuntza-egoera*. Ordiziako Udala eta Hitzaro Euskara Elkartea. Oñati, 2004, 133. , 141., 160. eta 170. or.

[896] ERRAZKIN AGIRREZABALA, Mikel: *Los nombres de la memoria, Tolosa 1936-1945* (I lib., *La represión y la vulneración de los derechos humanos durante la Guerra Civil y el Primer Franquismo*). Tolosako Udala eta Aranzadi. Tolosa, 2013, 248. or.

[897] ERRAZKIN AGIRREZABALA, Mikel: *Los nombres de la memoria, Tolosa 1936-1945* (I lib., *La represión y la vulneración de los derechos humanos durante la Guerra Civil y el Primer Franquismo*). Tolosako Udala eta Aranzadi. Tolosa, 2013, 242. or.

[898] Beasaingo Udal Artxiboa. A119 karpeta, 24. dokumentu-sorta.

[899] Alberto Alonso Cacharrok eta Josu Lopez Castañaresek Antselmo Ruizi egindako elkarrizketa. Beasainen, 2013-03-25ean.

[900] DEL ARCO BLANCO, Miguel Angel: "Morir de hambre. Autarquía escasez y enfermedad en al España del primer franquismo" in *Pasado y Memoria. Revista de Historia Contemporánea,* 5. zk. (241-258. or.), 2006, 245. or.

[901] *Foreign Office*, PRO/FO371/23168 txostena (1939-10-09), 85-92, or., in DEL ARCO BLANCO, Miguel Angel: "Morir de hambre. Autarquía escasez y enfermedad en al España del primer franquismo" in *Pasado y Memoria. Revista de Historia Contemporánea,* 5. zk. (241-258. or.), 2006, 248. or.

kiloa 1,50 pezeta; kipula txikien dozena 2 pezeta; kipula handien kiloa 3 pezeta; letxuga txikia 0,25 pezeta, letxuga handia 0,40 pezeta; zerba-dozena 0,60 pezeta; eta tomate-kiloa pezeta 1[902]. Hornikuntza eta Garraiorako Tokiko Ordezkari gisa, 1945eko maiatzetik aurrera, Antonio Aiestaran Irastortza (Udaleko idazkaritza-ofiziala, eta une horretan idazkari kargua hutsik zegoenez, idazkari bezala aritzen zena), izan zen izendatua. Horrek, bere urteko soldata 7.000 pezetara igotzea ekarri zuen[903].

Iruzurra ez zen soilik "behetik" egiten, "goitik" ere egiten zen. 1941eko azaroan, Beasaingo Udalak, Hornikuntza Batzordeak errekisatutako jeneroak jasotzen zituzten saltokiei zerrenda bat egitea eta Udalari bidaltzea agindu zien, jeneroak parekidetasunez banatzen ez zirelako kexuak zeuden herrian-eta. Horrez gain, Untzueta eta Zaballos zinegotziak izendatu zituzten auzi hori ikertzeko asmoz[904]. Bilkura horretan bertan, Alondegiko arduradunari (hau da, Frantzisko Eltzo Urrestaratzuri) esnearen hornikuntzan hartzaileek aurkeztutako "mediku-ziurtagiriak" Udalari pasatzeko agindu zioten, Udalak azter zitzan[905].

Aurreko lerrokada horretan Udalak iruzurra ikertzeko neurri batzuk hartu zituela esan badugu ere, dirudienez, ez zuen beti hala jokatu eta, Beasainen bertan, estraperloaren eta merkatu beltzaren kontura aberastutako jendea izan zen. Jabier Garcia Bergarak dio "Beasainen, estraperloarekin jende batek dirua egin zuela"[906]. Arantza Ugarte Azkarate ere bat dator baieztapen horrekin[907]. Ibaibarriaga Usabiaga neba-arreben arabera, Jose Osinalde izeneko pertsona batek egin zuen dirua Beasainen[908]. Baina agian, horren aldeko baieztapenik zehatzena Joxe Manuel Azurmendi Dorrontsorok ematen digu. Joxe Manuel Azurmendi orduan Udaleko langilea zen, idazkaritzako administrari laguntzailea hain zuzen ere, beraz, ondo ezagutzen zuen garai hartako tokiko erakundearen funtzionamendua. Beraren arabera, pertsonaren batzuk, euren kokapena baliatuz aberastu egin ziren; bera ez ordea: "garai hartan ez nuen ogi onik jan". "Aberasteko aukera" hori ez zuela probestu-eta, herrian baten batek "hi tuntuna haiz!" esan omen zion; beraz, hortik ondorioztatzen dugu erakundeetan ibili zen jendeak estraperloaren inguruan modu irregularrean etekina ateratzea praktika arrunta izan zela. Berak ere esaten digu halakoak ezagutu zituela, "ez dut izenik eman nahi, baina halakoak izan ziren"[909].

Bestalde ezin zen berdina izan zigortzeko modua: Estatuak "beheko estraperloa" gogor zigortzen zuen, ez hain gogor ordea "goikoa"[910] (Karlos Barcielaren arabera, Tasen Fiskaltzaren arauak hobeto betetzen zituzten nekazari txikiek, lurjabe handiek baino[911]). Egon ziren sareak kontuan hartuta, eta guda ondoko errepresioaren neurria kontuan hartuta (lehenago esan dugu 1939ko apirilaren 1etik aurrera, gutxienez 50.000 fusilatu kalkulatu izan direla), erregimenak soilik funtzionario bakar bat fusilatu zuen estraperloa zela-eta (eta gainera, kasu horretan ematen du benetako arrazoiak beste batzuk izan zirela[912]). Erregimenaren goi-mailako pertsonak (Jeneralak eta Gobernadore Zibilak barne, estraperloaren negozioetan sartuta agertzen ziren[913].

Beasaingo Udalak, errazionamenduan ematen zuenaren diru-sarreren parte bat, Estatuari eman behar izaten zion. 1940ko irailean Beasaingo Udalak sinatutako dokumentu baten arabera, 1940ko maiatzean, 3.035 pezeta entregatu zizkion kontzeptu horregatik Estatuari, ekainean 1.573, uztailean 3.382 eta abuztuan 2.569[914].

---

902 Beasaingo Udal Artxiboa. 3190. karpeta, 07. dokumentu-sorta.

903 Beasaingo Udal Artxiboa. 146. karpeta, 28. dokumentu-sorta.

904 Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 21. dokumentu-sorta. Antzekoa gertatzen zen Tolosan, garai horiek bizi izan zituen Kristina Arrutik kontatzen duenez: "Tolosan bizpahiru gizonek nahi beste olio zuten eta besteok errazionamendura joan behar izaten genuen eta, kartillan olioa tokatzen zitzaigula jarri arren, sekula ez zuten behar adina ematen". ERRAZKIN AGIRREZABALA, Mikel: *Los nombres de la memoria, Tolosa 1936-1945* (I lib., *La represión y la vulneración de los derechos humanos durante la Guerra Civil y el Primer Franquismo*). Tolosako Udala eta Aranzadi. Tolosa, 2013, 245. or.

905 Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 21. dokumentu-sorta.

906 Jabier Garcia Bergarari egindako elkarrizketa (bi zatitan: Beasainen, 2014-07-03an eta 2014-07-22an).

907 Arantza Ugarte Azkarateri eta Maria Rosario Ugarte Sukiari egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-08-05ean.

908 Arantza Ibaibarriaga Usabiagari eta Pedro Maria Ibaibarriaga Usabiagari egindako elkarrizketa. Donostian, 2015-11-15ean.

909 Joxe Manuel Azurmendi Dorrontsorori egindako elkarrizketa. Donostian, 2014-09-10ean.

910 MARTI GOMEZ, Jose: *La España del Estraperlo*. Planeta. Bartzelona, 1995. 244-246. or.; eta CAZORLA SANCHEZ, Antonio: "La vuelta a la historia: caciquismo y franquismo" in *Historia Social* aldizkaria, 30 zk. (119-122. or.)

911 BARCIELA LOPEZ, Carlos: "El mercado negro de productos agrarios en la posguerra, 1939-1953" in FONTANA, Josep (ed.): *España bajo el franquismo* (192-205. or.). Tolosako adibide bat ematen digu Andres Gaztañagak: "Tolosan garai batean, guda ostean bi jatetxe ere bazeuden, baina guk (nekazari umilek), bakoitzak olio litro bina eman behar genuen". ERRAZKIN AGIRREZABALA, Mikel: *Los nombres de la memoria, Tolosa 1936-1945* (I lib., *La represión y la vulneración de los derechos humanos durante la Guerra Civil y el Primer Franquismo*). Tolosako Udala eta Aranzadi. Tolosa, 2013, 2488. or.

912 Funtzionario hori, Jose Perez Cabo, antza denez, falangista erradikalen konspirazio batean sartua zegoen. CAZORLA SÁNCHEZ, Antonio: *Las políticas de la victoria*. Marcial Pons. Madril, 2000, 86-87. or. Bestalde, Glicerio Sanchezen arabera, agintarien ustelkeriaren kontrako zigorrak askotan "alderdiaren interesei" zegozkienean egiten ziren (hau da, "ustela" politikoki apartatzea komeni zenean). SANCHEZ RECIO, Glicerio: *Los cuadros politcos intermedios del régimen franquista, 1936-1959. Diversidad de origen e identidad de intereses*. Alacanteko Diputazioa eta Valentziako Generalitatea. Alacant, 1996, 90-91. or.

913 BARCIELA LOPEZ, Carlos: "El mercado negro de productos agrarios en la posguerra, 1939-1953" in FONTANA, Josep (ed.): *España bajo el franquismo* (192-205. or.). Critica. Bartzelona, 1986, 192. or.; eta CAZORLA SÁNCHEZ, Antonio: *Las políticas de la victoria*. Marcial Pons. Madril, 2000, 82-86. or.

914 Beasaingo Udal Artxiboa. 3186 karpeta, 50 dokumentu-sorta.

or.

1.5.j) Euskararen egoera

Zer esanik ez, gudaren ostean euskararen egoerak Beasainen okerrera egin zuen. Kasu honetan, Estatuaren politika izan zen, Espainian, ahal bezain laster, nazio homogeneo bat sortzea eta, horretarako, hizkuntza-homegeneotasuna ere ezartzea. Estatuaren agintariak politika horren aldeko politika ezarri zuten Hego Euskal Herrian, eta, nola ez? Gipuzkoan ere bai.

Halako "hizkuntza bakarraren politika" Frantzisko Francok berak, altxatuen zonaldeko Estatuburu izendatu eta hurrengo egunean (1936ko urriaren 1ean) irrati bidezko hitzaldi batean argi utzi zuen: "Eskualde bakoitzaren izaera errespetatua izango da, baina batasun nazionalak erabatekoa izan behar du: hizkuntza bakarra, espainiera, eta izaera bakarra, espainiarra"[915].

Gipuzkoan lehen unetik izan zen euskararen aurkako errepresioa, goi-aginteetatik bultzatutakoa. 1937ko maiatzean Alfontso Velarde Gobernadore Militarrak honako agindu hau eman zuen: "Gazteleraz hitz egin! Inorentzat ez da ezkutukoa Espainiako eskualde ezberdinen artean ezberdintasunak izan direla (…) baina nire betebeharra da une honetan elkarbizitzarako ezberdintasun horiek apaltzea (…) ama Espainiaren semeek, eskualde ezberdinetako anaiek, ama besarkatuz, amarekiko maitasuna ager dezaten. Maitasun horren frogarik handienetako bat (…) hizkuntza komuna erabiltzea da, batez ere gaztelera bezain hizkuntza ederra gurea denean"[916]. Hots, euskara *politizatu* egiten zen; Espainia berriaren kontrako elementu bihurtzen baitzen; agindu ofizial batean hori jasota zegoen. Gipuzkoako FET-JONSeko Propaganda Ordezkaritza ere olatu errepresibo honi batu zitzaion, 1937ko abenduan bidali zuen ohar baten bidez: "Gure Aberriarentzako (Espainiaz ari dira) duin izateko, gure lehen betebeharra, Espainia Berriaren balioetan heztea eta gauza denen gainetik patriotak izatea da. Beraz, arlo guztietan (…) osorik espainiar ditugun ohiturak goratu behar ditugu, eta batez ere, gure espainiar hizkuntza bikainaren edertasuna hedatu. Hori espainiar on ororentzat eta bere burua benetako patriotatzat duenarentzat, betebeharra da. Espainiarra bazara, hitz egin ezazu espainieraz. Espainiarra bazara, zure betebeharra espainiar guztiek hitz egiten duten moduan hitz egitea da"[917]. Ohar horren gogortasuna erabatekoa izan zen; alderdi bakarrak euskara bere "espainiar" izatearen kontzeptutik kanpo uzten zuen, beraz, Estatu berriarentzat oztopo edo anormaltasun bat bezala hartzen zen, hau da, ezabatu beharreko subjektu. Eta bestetik, euskaraz hitz egitea "patriota" izatearen kontzeptuarekin bateraezintzat jotzen zen; eta hori ez zen gauza makala altxatuak "espainiar patriotismoaren" izenean, eta "anti-Espainiaren aurkako borrokaren" izenean halako errepresioa gauzatzen ari ziren garaietan. Hala ere, eszeptikoentzat, "debeku" hitza garbi azaltzen da 1937ko maiatzaren 29an Donostiako Falangeko Tokiko Buruak bidali zuen zirkularrean: "Espainiera ez diren hizkuntzak eta dialektoak hitz egitearen *debekua* apurtzen duen oro salatua izango da"[918]. Hilabete bat lehenago, 1937ko apirilean, Donostiako "Guardia Zibikoak" (eskuindar hiritar bolondresez osatutako indar parapoliziala, Guda Zibilaren garaian altxatuek euren kontrolpeko hiri bakoitzean antolatu zutenaren antzekoa), "gobernadore militarraren aginduz, hiritarrek bide publikoan espainiera ez diren hizkuntzak eta hizkerak erabiltzeko debekua betearazteko zirkularra" atera zuen. Zirkular horrek Guardia Zibiko horiei hiritarren elkarrizketak zelatatzea (guardiak uniforme gabe jantzita zihoazela) agintzen zien, "*debeku* hori jakinarazita, espainiera ez zen beste hizkuntza batean hitz egiten tematzen ziren herritarrak salatzeko eta behar izanez gero, atxilotzeko"[919].

Izan ere, garai horretan, artikulu asko ateratzen ziren euskara doktrina falangistaren kontrakotzat jotzen zutenak. Jakina da, alderdi faxistaren asmoetako bat "Inperio espainiarra" birsortzea zela, "nazioaren indar guztia lan horretan jarriz". Beraz, "nazioaren batasun osoa" behar zen, indar guztiak lan horretan jartzeko. Gipuzkoan, komunikabide falangistetan (*Unidad* egunkarian, eta *Domingo* astekarian) maiz atera ziren euskararen kontrako artikuluak 1937an zehar: adibidez, 1937ko martxoaren 19an, *Unidad* egunkarian, "Inperioa egiteko denok espainiera hitz egin behar dugu" esaten zen[920], 1937ko apirilaren 13an, *La Voz de España* egunkarian zekarren artikulu batean, euskara "Inperioarentzat arriskutsu" bezala definitzen zen[921], eta 1937ko azaroaren 22an "Iraultza falangista iraintzen duen hizkuntzatzat" hartzen zen euskara[922]. Inperioa sortzea, Falangearen nagusitasun politikoa, bere proiektuaren hegemonia eta euskararen desagerpena; hirurak bat.

Horiez gain, erregimen berriaren lehen urte horietan, zenbait lege eta dekretu atera ziren euskararen erabileraren kontra. 1938ko maiatzaren 8an, euskarazko izen propioak euskaraz jartzearen kontrako debekua ezarri zen "sentimendu erregionalistaren

[915] TORREALDAI, Joan Mari: *El libro negro del euskera*. Ttarttalo. Donostia, 1998, 86-87. or.
[916] *Unidad*, 1937-04-15koa.
[917] *Diario Vasco*, 1937-12-22koa.
[918] TORREALDAI, Joan Mari: *El libro negro del euskera*. Ttarttalo. Donostia, 1998, 104-106. or.
[919] TORREALDAI, Joan Mari: *El libro negro del euskera*. Ttarttalo. Donostia, 1998, 93-95. or.
[920] *Unidad*, 1937-03-19koa.
[921] *La Voz de España*, 1937-04-13koa.
[922] *Unidad*, 1937-11-22koa. Halako arrtikuluen bilduma bat: TORREALDAI, Joan Mari: *El libro negro del euskera*. Ttarttalo. Donostia, 1998.

muturreko goraipamen lizuntzat" jota. Izenok, "adibidez, Iñaki, Kepa eta Koldobika Aberriaren batasunaren kontrakoak dira" esaten zuen aginduak[923]. Bi aste geroago, maiatzaren 21ean, euskarazko titulu sozialak debekatu ziren, baita elkarteen estatutuak euskaraz idaztea eta batzarrak euskaraz egitea ere[924]. 1938ko abuztuaren 17an Erregistro Zibilean "gaztelera ez den beste hizkuntza edo hizkera batean egindako inskripzioak baliogabetzat" jo zituen lege batek[925]. 1939an, apirilaren 15ean, hotel eta ostatuen izenak euskaraz jartzea debekatu zuten[926]. 1940ko maiatzaren 17an denden eta merkataritza-jarduera ezberdinen izenak eta iragarkiak euskaraz jartzea galarazi zuten[927]. Eta azkenik, 1940ko maiatzaren 29an, industria-konpainien izenak eta markak espainieraz besteko hizkuntzetan ezartzea debekatu zuten[928].

Ikusten dugunez, euskararen erabilera debekatzeko legerik gehienak, lehen urteetan eman ziren, oldarraldi falangista arorik indartsuenean zegoenean. Hala ere, ez dugu pentsatu behar falangismoak erregimenaren barruan izan zuen gainbeherak, euskararekiko berehalako tolerantzia ekarri zuenik: adibidez, 1944ko notaritzako arautegian (1944-II-2ko dekretua, 1948. artikulua), eskriturak "soilik espainieraz" egin behar zirela agintzen da, eta 1945ean, itsasontziei euskarazko izena jartzea ere debekatu egin zuten (Industria eta Merkataritzaren Ministerioaren 1945-I-15eko agindua). 1945eko uztailaren 14an, Lehen Hezkuntzako Zuzendari Nagusi Romualdo Toledok, Udal-eskoletan "batez ere euskal eta katalan probintzietan" soilik espainieraz hitz egin behar zela agindu zuen[929].

Kontuan izan behar da, nolabait ere, Euskal Herriko eta batez ere Gipuzkoako hainbat herritan (Beasainen ere bai, nahiz eta kasurik esanguratsuena ez izan), populazioaren parte handi bat artean euskaldun elebakarra zela, beraz, ezinezkoa izan zuela erregimenak nahi zuen uniformizazioa nahi bezain azkar burutzea. Baina horrek ez du esan nahi erregimenaren euskara desagerrarazteko planak sistematikoak izan ez zirenik. Beasainen, adibidez, herriko erakunde denak erdalduntze-lanera emanak izan ziren. Horri gainera, euskarak pairatu zuen desprestigio-kanpaina bortitza gehitu behar zaio, kalean euskaraz egiten zuenari barre eta iseka egitea bezalako jarrerekin. Halakoak aipatzen dizkigu adibidez, Patxi Lasa Imatzek: "euskaraz egiten genuenoi askotan "*casero burro, no vale ni un duro*" ("baserritar astakiloa, durorik balio ez duena") esaten ziguten"[930]. Jesus Lopez Gallegok ere esaten digu: "kalean euskaraz egiten zuenari fraideek barre egiten zioten"[931]. Xabier Aierdik, Goierrin sustraiak zituen zarauztarrak, "askotan, jende artean euskaraz hitz egiten entzuten zizunak "*¡habla en cristiano!*" batekin erantzuten zizun!". Xabier Aierdiren arabera, "askok garai haietan "edukazio txarrekotzat" ere hartzen zuten euskaraz egitea eta atentzioa deitzeko indarrez sentitzen ziren"[932].

Andoni Sarriegik halako kasu batzuk bildu ditu Elizaren arloan. Adibidez, Eliza erdalduntzen joateko pertsona garrantzitsua izan zen Florentzio Aspe erretorea. Errepublika garaian, San Ignazio egun batean, sermoia hastean hala esan zuen: "Batzuek euskaraz egiten dudalako kritikatzen naute, beste batzuek ordea, erdaraz egiteagatik, nolanahi ere, nire ama-hizkuntzan egingo dut". Hori espainieraz esan eta espainieraz hasi zuen sermoia, nahiz eta bere ama-hizkuntza euskara izan. Une hartan, batez ere koruan zeuden gazteak hasita, euskaldun asko Elizatik irteten hasi ziren eta On Florentziok hizkuntza aldatu eta euskaraz egiteari ekin zion[933]. Altxatuak herrian sartu zirenez geroztik, Aspek espainieraz jardun zuen elizan eta oro har beste apaizek ere bai. Inoiz edo behin, dirua eskatu behar zutenean soilik egin ohi zituzten hitzen batzuk euskaraz, baina hori gerora. Hala ere kontuan hartu, mezak latinez ematen zirela garai hartan eta, espainieraz, sermoiak, meza-amaierako Agur Mariak, bederatziurrenak, hitzaldiak eta antzekoak egiten zirela. Asperen jarrera Elizaren goi-mailako agintariekin bat etorri zen arren, kontuan izan behar da apaiz guztiek ez zutela bat egiten elizaren goi-agintarien nahiekin. Sarriegiren arabera, 1943ko uztailaren 4ko meza berri batean, apaiz berriaren lagun batek, sermoia egin behar zuenak, euskaraz egitea debekatu ziotelako, hauxe esan zuen euskaraz sermoia hastean: "Jainkoak hala nahirik eta agintariek hala agindurik, erdaraz egin beharko dut" eta sermoia espainieraz egin zuen[934].

---

[923] BOE, 1938-05-08koa (564. zk., 7190. or.).

[924] BOE, 1938-05-21ekoa (577. zk., 7435.-7436. or.).

[925] BOE, 1938-08-17koa (48. zk., 750. or.).

[926] BOE, 1939-04-15ekoa (105. zk.).

[927] BOE, 1940-05-17koa (138. zk., 3370. or.).

[928] BOE, 1940-05-29koa (150. zk., 3643.-3645. or.).

[929] TORREALDAI, Joan Mari: *El libro negro del euskera*. Ttarttalo. Donostia, 1998, 160-161. or.

[930] Patxi Lasa Imatzi egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-06-25ean.

[931] Jesus Lopez Gallegori egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-06-25ean.

[932] Ane Barandiaran Erauskini eta Xabier Aierdi Aldasorori egindako elkarrizketa. Getarian, 2014-09-12an.

[933] SARRIEGI ESKISABEL, Andoni: "Euskara Beasainen azken mendeetan" in SIADECO: *Euskara Beasainen* (7.-18. or.). Beasaingo Udaleko Euskara Zerbitzua. Beasain, 1990, 14. or.

[934] Andoni Sarriegi Eskisabeli egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-06-06an). Andoni Sarriegik guri kontatu digunez, gertaera hori etxean jaso zuen.

or.

Sarriegirena ez da testigantza bakarra, Arantza Ibaibarriagak ere esaten digu: "orduan, Elizan, erdaraz eta latinez egiten zen"[935]. Elizak halaber, umeak bataiatzerakoan, euskal izenak jartzeko zailtasunak jartzen zituen, adibidez, Roman Unanue medikuak bere bigarren umeari, Aitor izena onartzen ez ziotenez, "Oscar Aitor" izena jarri nahi izan zionean ere, oztopo handiak jarri zizkion apaizak (azkenean lortu zuen, agian Unanue prestigio eta maila handiko pertsona -medikua- zelako)[936]. Aitor Garmendiak ere antzeko pasarte bat kontatzen digu "niri *Aitor* izenetik *Viktor* izenera aldatu nahi izan zidaten behin baino gehiagotan"[937]. Elizaren inguruan, ondoko herrian, Ordizian, giroa pixka bat lasaiagoa izan zen, han apaizak "denetarik ziren, baina euskararen kontra-kontrakorik ez". Goierrin, apaizen artean euskaltzaleen gunea Lazkaoko beneditarrena izan zen[938].

Euskararen kontrako beste gune bat eskola izan zen. Egia esan, lehen ere esan dugu monarkia konstituzionalaren garaian ere erdalduntzeko tresna bihurtua izan zela eskola; baina gerra ondorengo garai horretan askoz ere indartsuagoa izan zen, erdalduntzeko lan hori. Eskola publikoan, noski, Errepublika garaian euskararen alde eman ziren urrats apurrak erabat ezabatuak izan ziren, izan ere, Estatuaren ideologia uniformizatzailearen tresna bihurtu baitzen eskola. Eskola publikoaren inguruko testigantza, adibidez, Maria Pilar Lozaresek ematen digu: "eskola publikoan ez zen euskararik egiten, eta mojetan ere, ez dut uste"[939]. Joan Ramon Imatzek ere berdina esaten du: "garai horretan guk ez genuen eskolan euskaraz ezer ere eman"[940]. Xabier Aierdiren arabera; "guk, Francoren aurretik, eskolan euskaraz egiten genuen, Franco agintean jarri ondoren, ordea, ez"[941].

Baina euskararen kontrako jarrera hori ez zen eskola publikora mugatzen, eskola pribatuan ere ikus zitezkeen halako jarrerak. Lasalletarren Loinazko San Martin ikastetxean, adibidez, Felipe Ibarbiaren arabera "euskaraz egiten bagenuen zigorra jasotzen genuen eta, bostetan irten ordez, zazpietan irteten ginen"[942]. Mila Mendiak ere esan digu "mojetan ez genuen euskaraz ezer ematen"[943]. Ondoko herrian, Ordizian, eskolako giroa ere nahiko antzekoa zen euskararekiko, han ere hezkuntza osoa erdaraz ematen baitzen[944].

Lehen urteetan, euskaraz hitz egiteagatik zigor fisikoak ere jasan behar izan zituzten ikasleek. Eleuterio Aiestak kontatu digunez, eskola publikoan, bere aurrean, euskaraz hitz bat egitearren jotzen zituzten ikasleak, baita eskolan hasterakoan erdaraz ez zekitenak ere. "Nik, zortea izan nuen, kalekoa nintzenez erdaraz banekien-eta. Baina baserrietatik-eta etortzen zirenek, normalean ez zekiten erdaraz, ez eta "sí" esaten ere, eta horiek ere jo egiten zituzten. Nik behin esan behar izan nion irakasleari: "Ez al zara konturatzen hauek erdaraz ez dakitela?""[945]. Antzeko egoera bat (zigor-fisikoei ez baizik isunei dagokiena) deskribatzen digu Jose Maria Bujanda Olaranek Olaberrian: "guk zortea genuen erdaraz jakiteagatik, libratzeko modua genuen"[946].

Hori bai, esan beharra dago, eskolan urteak pasatu ahala, euskarak erabat baztertuta jarraitzen bazuen ere, zigor fisikoak gutxitu egin zirela (batez ere 1950.eko hamarkadan sartu ondoren) baina isekek eta barreek berdin jarraitu zuten. Elkarrizketatu gazteenek, hau da, euren haurtzaroa eta, beraz, eskola-aroa gudaren ondoren egin zutenek, datu hori baieztatzen dute, euskararen bazterketa aipatuz, baina zigor fisikoez jada ez dute hitz egiten. Hori esan digute adibidez Ibaibarriaga Usabiaga neba-arrebek: "guk zigor fisikorik ez genuen ikusi"[947]. Irizar Aranburu ahizpek ere berdin dioskue: "guk, gure garaian, mojetan, ez genuen zigor handirik izaten, giroa erabat erdalduna zen arren. Hori bai, eskolara sartzean himnoren bat abestuarazten ziguten"[948].

Ondoko herri txikietan ere halakoxe errepresioa zegoen, adibidez, Olaberrian. Han, Bujanda Olaran neba-arreben arabera, giroa Beasaingo modukoa zen. Sara Bujandak esan digunez "sermoia erdaraz, meza erdaraz, eskola erdaraz, dena erdaraz!"

---

[935] Arantza Ibaibarriaga Usabiagari eta Pedro Maria Ibaibarriaga Usabiagari egindako elkarrizketa. Donostian, 2015-11-15ean.

[936] Sara Unanue Lobetori egindako elkarrizketa. Donostian, 2014-10-01ean.

[937] Aitor Garmendia Goitiari egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-07-16an.

[938] GARMENDIA, Larraitz eta ETXABE, Karmele: *Ordiziako euskara: garai bateko bizimodua eta gaurko hizkuntza-egoera*. Ordiziako Udala eta Hitzaro Euskara Elkartea. Oñati, 2004, 35. eta 91. or.

[939] Maria Pilar Lozaresi egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-07-03an.

[940] Joan Ramon Imatz Crespori egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-08-05ean.

[941] Ane Barandiaran Erauskini eta Xabier Aierdi Aldasorori egindako elkarrizketa. Getarian, 2014-09-12an.

[942] Felipe Ibarbia Alustizari eta Maria Karmen Ibarbia Sarriegiri egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-06-19an.

[943] Mila Mendia Aramendiri egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-07-02an.

[944] GARMENDIA, Larraitz eta ETXABE, Karmele: *Ordiziako euskara: garai bateko bizimodua eta gaurko hizkuntza-egoera*. Ordiziako Udala eta Hitzaro Euskara Elkartea. Oñati, 2004, 33., 91.-92. eta 147. or.

[945] Eleuterio Aiesta Kristobalenari egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-06-11n.

[946] Sara Bujanda Olarani eta Jose Maria Bujanda Olarani egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-09-14an.

[947] Arantza Ibaibarriaga Usabiagari eta Pedro Maria Ibaibarriaga Usabiagari egindako elkarrizketa. Donostian, 2015-11-15ean. Hala ere, biek esan zigutenez "gure aiton-amonen garaian halako zigorrak izaten ziren. Gure amona Itsasokoa zen, eta han, euskaraz egiten zuenari zigor-eraztuna jartzen zitzaion orduan". Euren amonak, ziurrenik monarkia konstituzionalaren garaiak bizituko zituen, beraz argi dago, eskolan euskararen kontrako errepresioa Franco baino askoz lehenagokoa dela, nahiz eta Francok are larriago bihurtu zuen.

[948] Maria Ixabel Irizar Aranbururi eta Teresa Irizar Aranbururi egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-07-09an.

1940.eko hamarkadan hasi zen Gabon egunez kalera kantari irteten Olentzeroren taldea. Garai hartako *Luistar* eta *Mariaren* alabetako gazteek osatua zen.
(Argazkia: Joxe Manuel Azurmendi Dorrontsorok utzia)

egiten zen[949]. Bere neba Jose Maria Bujanda Olaranen arabera, Olaberriko irakasle batek "Segoviatik etorri zen batek (…) euskaraz entzunez gero, eskolatik kanpora bidali eta hamar pezetako isuna jartzen zigun"[950]. Lazkaon, Ane Barandiaran Erauskinen arabera "etxean euskaraz egin arren, kalean erdara soilik entzuten zen"[951]. Mutiloan eta Zumarragan bizi izan zen Bernardina Aldasorok ere, zigorrak aipatu dizkigu: "Maisu-maistrek zigortu egiten gintuzten euskaraz aritzeagatik"[952].

Beste batzuen arabera, ordea, herri txikietan, agian zegoen euskaldun kopuruagatik, artean herritarren arteko bat-bateko elkarrizketa gehienak euskaraz izaten ziren herritarrak zeharo euskaldunak zirelako; eta horrek, euskaraz natural egitera bultzatzen zituen herritarrak, debekuei edo debekatzaileen asmoei zailtasunak jarriz. Hala azaltzen digute, adibidez, Sara Unanuek eta Bernardina Aldasorok. Lehenaren kasuan, Roman Unanue medikuaren alaba izaki, eta mediku hori 1942an Beasaindik Gabiriara lekualdatua izatean (Sara Unanuek sei urte zituenean), berak bere hitzekin dioenez: "Gabirian ikasi nuen euskaraz"[953]. Bernardina Aldasororen arabera, jaio zen herritik, Mutiloatik, gero bizi izan zen herrira, Zumarragara, joan zen eta, hala dio: "Mutiloan euskaraz hitz egin nezakeen, baina Zumarragan ez"[954].

Euskararen kontrako giro hori Gipuzkoa osoan orokorra izan zen. Ordizian bertan, adibidez, hango lekuko batek, Joxe Mari Agirre Zuloagak "zigorrak eta Guardia Zibilaren oztopoak" aipatzen ditu[955]. Hala, batzuetan, euskaltzaletasunaren kontrako zigorrek erregimenaren aldekoak ere kolpa zitzaketen; Hernanin adibidez, Antonio Zubeldia erreketea erakunde horretatik kanporatu egin zuten, jai batean *Gora euskaldunak! (¡Vivan los vascos!)* oihukatzeagatik[956]. Herri horretan ere gauza bitxia gertatu zen 1943an, hilerriko hobi baten ondoan, ehunka gorpu gordetzen zituen hobi komunaren ondoan hain zuzen, ikurrinaren

[949] Sara Bujanda Olarani eta Jose Maria Bujanda Olarani egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-09-14an.

[950] Sara Bujanda Olarani eta Jose Maria Bujanda Olarani egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-09-14an.

[951] Ane Barandiaran Erauskini eta Xabier Aierdi Aldasorori egindako elkarrizketa. Getarian, 2014-09-12an.

[952] Bernardina Aldasoro Ormazabali egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-10-30ean.

[953] Sara Unanue Lobetori egindako elkarrizketa. Donostian, 2014-10-01ean.

[954] Bernardina Aldasoro Ormazabali egindako elkarrizketa. Beasainean, 2014-10-30ean.

[955] GARMENDIA, Larraitz eta ETXABE, Karmele: *Ordiziako euskara: garai bateko bizimodua eta gaurko hizkuntza-egoera.* Ordiziako Udala eta Hitzaro Euskara Elkartea. Oñati, 2004, 98. or.

[956] AIZPURU, Mikel (zuz.); APAOLAZA, Urko; GOMEZ, Jesus Mari; eta ODRIOZOLA, Jon: *1936ko udazkena Gipuzkoan. Hernaniko fusilatzeak.* Alberdania eta Hernaniko Udala. Hernani, 2007, 244. or.

or.

koloreak zituen lore-koroa bat agertu zen eta ondoan *"Arerio maltzurrak zuek bazterrean utzi arren, eusko gogoan toki berezia daukazue"* hitzak agertu ziren. Hori zela-eta, agintariek hilerriko zaintzaile zen Joan Goia atxilotu egin zuten eta hitz horiek itzultzeko eskatu zioten. Goiak erantzun zien erregimen berriak erabakita euskaraz ikasteko eskolarik ez zegoenez, ez zekiela euskararik. Erantzun horrek bi urteko kartzela ekarri zion Goiari[957]. Azpeitia bezalako herri oso euskaldunera ere iritsi zen erdalduntze behartua: Inaxio Larrañaga herritarrak bertako memoria historikoaren proiektuan azaldu duenez, "Eskolan dena erdaraz izaten zen. Maristek *Guipúzcoa debe todo lo que es a España* leloa jarri zuten ikasgelan"[958]. Han ere, eskolan, eta abar, ikasgaiak eta dotrina erdaraz eman behar izan ziren[959]. Tolosaldean ere antzekoak gertatu ziren, bertan zegoen Joan Jose Usabiaga (Joan Iturralde) sakramentino beasaindarrak kontatzen duen moduan: "Tolosako elizetan jada ez da euskaraz predikurik egiten. Behin, frantziskotar batek euskaraz egin zuen 11 sinestunen aurrean eta soilik euskara kritikatzeko izan zen!"[960]. Mikel Errazkinen arabera, Gipuzkoako Gobernadore Zibilak, 1937an, Tolosan Udal-arkitekto izateko lehiaketa publikoan jarritako euskara jakiteko derrigorrezko baldintza ezabatu egin zuen[961]. Tolosan, bertako herritarrak gehien hunkitu zituen kulturaren aurkako gertakaria, liburuak erretzea izan zen: etxeetatik, dendetatik eta liburutegietatik hartu zituzten liburuak (tartean asko euskarazkoak; Ixaka Lopez Mendizabal idazle eta politikari abertzalearen etxea erabat hustu zuten, adibidez) eta Plaza Zaharrean erre zituzten (erretako liburu guztiak ez ziren euskarazkoak, tartean liburu "laikoak" edo marxistak ere bazeuden; baina euskarazkoak ere erre zituzten eta kasu horretan hizkuntzarekiko herragatik –euskara liburuetan, "kultura-hizkuntza gisa", gazteleraren pare agertzearekiko herra- zegoelako)[962].

Euskal Herriko hiri handietan, arazoa askoz ere okerragoa zen, bai hiri handiek zuten garrantzi politikoa zela-eta Estatuaren ideologia askoz ere modu zorrotzagoan ezartzen zelako eta baita bertako euskaldun-kopurua ere urriagoa zenez, euskaldunentzako nolabaiteko "babes soziala" ere txikiagoa zelako. Gasteizen adibidez, Miren Atxagak eta Rosa Larrañaga, Sobietar Batasuneko erbestetik itzuli ondoren (beraz, 1950.eko hamarkadaren bukaeran edo 1960.eko hamarkadan) artean euskararen kontrako erasoak entzuten zituzten; Rosa Larrañagak dioenez, behin emakume karlista batek, bere amari "amatxo!" deitzen entzun zion eta "hemen ez da amatxorik, hemen *madre* esaten da!" oihu egin zion[963]. Rosa Larrañagak kontatu digu halaber, behin bere ama Gasteizko denda batetik bota egin zutela euskaraz aritzeagatik, "eta egun batzuetan etxetik irten gabe egon zela, beldurragatik"[964].

Hala ere, aurkitu dugu halako euskararen kontrako jarreran nolabaiteko salbuespen bat (ia-ia bitxikeriatzat jo dezakeguna): 1938ko azaroaren 26an, Tolosako eta Beasaingo Udalek, orduko Hezkuntza Ministroak, Hezkuntzako Institutu Nazionalean euskarazko katedra sortuko zuela esan zuela-eta, zoriontzeko erabakia hartu zuten[965]. Bistan da asmo horiek berehala tiraderan gorde zirela, eta ziurrenik euskararen irakaskuntza "ikerketarako objektu" bezala hartzetik planteatzen zela, ez "euskararen hedapena" edo "mantentzea" helburu zuen politikaren aldetik.

Zuzenean euskararen kontra ez, baina nolabait ere "euskal giroaren" kontrako jarreratzat har dezakegu (ez dakigu halakoetan euskaltzaleak edo abertzaleak biltzen zirelako ote zen) 1938ko maiatzaren 20an, Beasaingo komandante militarrak Beasainen eta bere inguruan idi-probak eta ahari-jokoak debekatu izana[966].

Emaitza bezala, euskara guztiz desagertu zen Beasaingo kaletik. Hori azaltzen diguten testigantza asko aurkitu ditugu;

---

[957] AIZPURU, Mikel (zuz.); APAOLAZA, Urko; GOMEZ, Jesus Mari; eta ODRIOZOLA, Jon: *1936ko udazkena Gipuzkoan. Hernaniko fusilatzeak*. Alberdania eta Hernaniko Udala. Hernani, 2007, 263. or. Esan beharra dago koroa hori utzi zuena eta hitz horiek marraztu zituena Elbira Zipitria euskaltzale ezaguna izan zela.

[958] BUCES CABELLO, Javier: *Azpeitia 1936-1945* (I. lib., *Giza Eskubideen zapalketa eta errepresioa Guda Zibilean eta lehen frankismoko garaian*). Azpeitiko Udala, Eusko Jaurlaritza eta Aranzadi. Azpeitia, 2016, 190. or.

[959] BUCES CABELLO, Javier: *Azpeitia 1936-1945 (I. lib., Giza Eskubideen zapalketa eta errepresioa Guda Zibilean eta lehen frankismoko garaian*). Azpeitiko Udala, Eusko Jaurlaritza eta Aranzadi. Azpeitia, 2016, 183. eta 198. or. Herritar batek, Inaxia Bereziartuak, dio: "nire anaia, Jaunartzea egin zezan, erdaraz ikastera behartu zuten, Jaunartzea erdaraz egin behar baitzen. Hala ere aitak, apaiz batekin, Don Lorentzorekin hitz egin zuen euskaraz egin zezan". Beraz, hemen ikusten den moduan, halako "harremanak" izatea, eta ahalegin pertsonala garrantzitsuak izan ziren, euskarak nola edo hala iraun zezan.

[960] ERRAZKIN AGIRREZABALA, Mikel: *Los nombres de la memoria, Tolosa 1936-1945* (I lib., *La represión y la vulneración de los derechos humanos durante la Guerra Civil y el Primer Franquismo*). Tolosako Udala eta Aranzadi. Tolosa, 2013, 290. or.

[961] ERRAZKIN AGIRREZABALA, Mikel: *Los nombres de la memoria, Tolosa 1936-1945* (I lib., *La represión y la vulneración de los derechos humanos durante la Guerra Civil y el Primer Franquismo*). Tolosako Udala eta Aranzadi. Tolosa, 2013, 290. or.

[962] ERRAZKIN AGIRREZABALA, Mikel eta SAIZAR AROSTEGI, Joxemi: *1936ko gerrako oroitzapenak Tolosaldean eta Leitzaldean*. Galtzaundi Euskara Taldea eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza. Tolosa, 2008, 78. or. Erretze hori agindu zuena, Eladio Espartza lesakarra izan zen, *Diario de Navarra* egunkariaren zuzendariordea, eta geroago Arabako Gobernadore Zibil izendatua. Espartzak *Diario de Navarra*n idatzitako kronika batean (*Diario de Navarra*, 1936-08-12koa), "su garbitzaile" deitu zion liburuak erre zituen suari. Ironikoki, Espartza aurretik euskarazko lanak argitaratutakoa zen eta, diktaduran, Euskaltzain ere izan zen; horrek ez zion galarazi guda-garaian eta geroago ere euskara jomugan jartzerik.

[963] Rosa Larrañaga Agarristari eta Miren Atxaga Larrañagari egindako elkarrizketa. Gasteizen, 2015-05-26an.

[964] Rosa Larrañaga Agarristari eta Miren Atxaga Larrañagari egindako elkarrizketa. Gasteizen, 2015-05-26an.

[965] Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 22. dokumentu-sorta.

[966] Beasaingo Udal Artxiboa. 3762. karpeta, 80. dokumentu-sorta.

ez soilik euskaldunenak, baizik eta beasaindar erdaldunak ere jabetu ziren euskararen kontrako errepresioaz, orain ikusiko dugun moduan. Ibaibarriaga Usabiaga neba-arrebek hori aipatzen digute: "Francoren garaian kalean euskaraz ez zen tutik ere egiten"[967]. Milagros Aranburu Muxikaren arabera, "orduan, kalean euskaraz hitz egitea erabat debekatua zegoen"[968]. Eta esan bezala, erdaraz aritzen zirenak ere jabetu ziren euskaldunek euren hizkuntzan aritzeko aukerarik ez zutela, adibidez, Jesus Lopez Gallego: "Euskara oso zapaldua zegoen. Nik banituen lagunak euskaldunak zirenak, baina kalean ez zitzaien bururatu ere egiten euskaraz hitzik egiterik"[969]. Frantziska Peñagarikano Dorrontsororen arabera, "guda ostean hemen ez zegoen euskaraz egiterik"[970].

Euskarak gainera, nolabaiteko desprestigio ideologikoa jaso zuen: hau da, guda galdu zutenekin, hots, erregimenaren etsai ideologikoekin, "aberriaren etsaiekin" identifikatua zen hizkuntza zen. Pello Martinez Otaegik dioen moduan "euskaraz egiten zutenak iraindu egiten zituzten "los rojos" (sic; "gorriak") deituz"[971]. Milagros Aranburu Muxikak dioenez "(guda ostean nagusitu zirenak) jende oso txarra zen, euskarari erabateko herra zioena"[972]. Isabel Peñagarikano Dorrontsororen arabera, "gure osabak beti esaten zuen, haiek (hau da, erregimenaren aldekoek, guda irabazi zutenek) guri euskaraz hasiz gero, guri zerbait eskatzeko izango zela"[973]; hots, jende horrek (agintariek, boterean zegoen jendeak edo "ospea" zuenak) ez zuen normalean euskaraz egiten, jatorriz euskaldunak izan arren. Aitor Gamendiak ere gauza berdina esan digu: "*Zenbait jenderekin* ez zegoen euskaraz egiterik"[974].

Beasainen ez dugu ezagutzen ikastola sortu aurretik, euskararen aldeko ekintza "antolaturik" (orduan, halako ekintzak klandestinoak izan behar zuten). Bai ordea Ordizian, han Alegiako fraide batek, "aita Jonek", euskarazko ezkutuko antzerki-talde bat antolatu zuen, Fernando Garate ordiziarrak kontatzen duenaren arabera[975].

Halako baldintzetan, euskararen babestoki bakarra etxea izan zen. Askok kontatu digute halako jarraipen bat izan zuela gure hizkuntzak etxeetan. Adibidez, Ibaibarriaga Usabiaga familiaren etxean, kontatu digutenez; "aitak beti esaten zuen, etxearen sarrera barrurantz igarotzerakoan, hizkuntza bakarra zegoela bertan: euskara. Kalean bakoitzak ahal zuena egin beharko zuela, baina etxean, euskaraz"[976]. Patxi Lasa Imatzen arabera, "orduan euskara etxeetan egiten zen, etxeetan bakarrik"[977]. Baina, noski, horrek bazuen nolabaiteko ifrentzua, izan ere, etxea euskararen babesleku bakar bilakatzeak, euskarari hiztun berriak lortzea galarazi egiten zion. Horrela kontatu digu Pako Ruiz de Apodaka ordiziarrak: "Euskaldunak ez ginen etxeetan, euskararekiko kontaktu guztia galdu genuen"[978]. Guraso euskaldunak eta seme-alaba erdaldunak bizi izan ziren etxe batzuetan, egun oso arraroa den konbinazioa (egun, hemen azaldu dugun kasua baino ohikoagoa da alderantzizko kasua, familia erdaldunetan euskaraz hazitako seme-alabak aurkitzea). Euskararen galera progresiboa familia euskaldunetan ere gertatu zen, Lourdes Martinez Otaegik esaten digun moduan: "gure etxean aiton-amonek euskaraz bazekiten, baina osaba-izebek jada ez"[979]. Hori gertatu zen oso abertzaleak ziren familietan ere, Irizar Aranburu familiaren etxean kasu. Ixabel Irizarrek dioskun moduan "gure etxean asko saiatzen ziren gurasoak guk euskaraz egin genezan, aita *Zeruko Argia* aldizkariaren harpidedun zen, Umandi gramatika ere erosi zuen, eta baita *Xabiertxo* ere"[980]. Hala ere, hori nonbait gutxiegi zen kanpotik zetorren uholde erdaltzaileari aurre egiteko eta hala esan digu bere ahizpa Teresa Irizarrek: "Etxekoa ez zen nahikoa euskarari eusteko eta gu pixkanaka erdi-galtzen hasi ginen. Gero, kontzientzia hartzearekin batera berreskuratu genuen"[981]. Halako batzuetan, guraso euskaldunek, batez ere familia antifrankistetan, nolabaiteko "etekin tristea" ateratzen zioten seme-alaben hizkuntza-galerari; Eleuterio Aiesta Kristobalenak kontatu digunez, "politikaz hitz egin behar zutenean, gurasoak euskaraz hasten ziren, guk ikasi ez eta ulertzen ez genuelako" (familia jeltzale batean hazitakoa da Aiesta Kristobalena)[982].

---

967 Arantza Ibaibarriaga Usabiagari eta Pedro Maria Ibaibarriaga Usabiagari egindako elkarrizketa. Donostian, 2015-11-15ean.

968 Milagros Aranburu Muxikari egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-08-05ean.

969 Jesus Lopez Gallegori egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-06-25ean.

970 Frantziska Peñagarikano Dorrontsorori eta Isabel Peñagarikano Dorrontsorori egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-07-09an.

971 Lourdes Martinez Otaegiri eta Pello Martinez Otaegiri eginiko elkarrizketa. Ordizian, 2014-12-17an.

972 Milagros Aranburu Muxikari egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-08-05ean.

973 Frantziska Peñagarikano Dorrontsorori eta Isabel Peñagarikano Dorrontsorori egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-07-09an.

974 Aitor Garmendia Goitiari egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-07-16an.

975 GARMENDIA, Larraitz eta ETXABE, Karmele: Ordiziako euskara: garai bateko bizimodua eta gaurko hizkuntza-egoera. Ordiziako Udala eta Hitzaro Euskara Elkartea. Oñati, 2004, 35. eta 91. or.

976 Arantza Ibaibarriaga Usabiagari eta Pedro Maria Ibaibarriaga Usabiagari egindako elkarrizketa. Donostian, 2015-11-15ean.

977 Patxi Lasa Imatzi egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-06-25ean.

978 Pako Ruiz de Apodaka Galartzari egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-06-18an.

979 Lourdes Martinez Otaegiri eta Pello Martinez Otaegiri eginiko elkarrizketa. Ordizian, 2014-12-17an.

980 Maria Ixabel Irizar Aranbururi eta Teresa Irizar Aranbururi egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-07-09an.

981 Maria Ixabel Irizar Aranbururi eta Teresa Irizar Aranbururi egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-07-09an.

982 Eleuterio Aiesta Kristobalenari egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-06-11n.

or.

Beraz, etxea zen euskararentzako babesgunerik nagusiena, bai Beasainen eta baita inguruko herrietan ere, adibidez, Ordizian. Garai hura bizi izan zuten Ordiziako euskaldunek ere aipatzen dute gurasoen jarrera (Beasainen Ibaibarriaga-Usabiaga edo Irizar-Aranburu familietan ikusi bezala) erabakigarria izan zitekeela[983]. Ordizian, gainera, bazegoen beste gune bat euskararen babesleku gisa funtziona zezakeena, eta ez soilik ordiziarrentzat, goierritar guztientzat baizik: Ordiziako feria. Izan ere, feria horrek jendearen arteko harreman-gune bezala funtzionatzen zuen (eta du), eta han saltzen zuten gehienak baserrikoak izateagatik (beraz, euskaldunak), harreman horiek euskaraz gertatzeko aukera handiagoa zegoen[984].

Hala ere, esan bezala, halako babesguneak ez ziren nahikoa Estatuaren politika oso bati aurre egiteko. Halako euskararen kontrako politikak Beasainen bertan ere euskara galzorian utzi zuten. Andoni Sarriegiren arabera, 1960.eko hamarkadan, euskara ia desagertze bidean zen Beasaingo kalean; 1966ko inkesta batek, Beasain bezalako herri batean, populazioaren %70ak erdaraz bakarrik zekienaren emaitza eman zuen, eta beste %14,6k "erdaraz ondo eta euskaraz gaizki". Euskara ondo zekitenak %15,4 bakarrik ziren eta euskaldun elebakarrak %0,5 besterik ez. Oso datu beltzak ziren euskararen iraupenerako, eta joera horrek aurrera segitu izan balu, 1975erako (diktadorearen heriotza-urtea eta trantsizioa hasi zen unerako), euskararen patua itzulezina izan zitekeen. Sarriegiren arabera, 1965ean ikastola sortzeak eta handik gutxira gaueskolako helduen euskalduntze-alfabetatze eskolak hasteak, lortu zuten Beasainen euskarari bizitasun apur bat ematea eta berreskuratze-bidean, pixka bat bederen, jartzea[985]. Ondoko herrian, Ordizian, antzeko zerbait gertatu zen, herri horretako euskararen bilakaera ikertzen duen liburuaren arabera, 1968an Jakintza Ikastola sortzean euskarari bultzada handia eman zitzaion[986].

[983] GARMENDIA, Larraitz eta ETXABE, Karmele: *Ordiziako euskara: garai bateko bizimodua eta gaurko hizkuntza-egoera.* Ordiziako Udala eta Hitzaro Euskara Elkartea. Oñati, 2004, 91-98. or.

[984] GARMENDIA, Larraitz eta ETXABE, Karmele: Ordiziako euskara: garai bateko bizimodua eta gaurko hizkuntza-egoera. Ordiziako Udala eta Hitzaro Euskara Elkartea. Oñati, 2004, 105. or.

[985] SARRIEGI ESKISABEL, Andoni: "Euskara Beasainen azken mendeetan" in SIADECO: Euskara Beasainen (7-18. or.). Beasaingo Udaleko Euskara Zerbitzua. Beasain, 1990, 16.-17. or.

[986] GARMENDIA, Larraitz eta ETXABE, Karmele: Ordiziako euskara: garai bateko bizimodua eta gaurko hizkuntza-egoera. Ordiziako Udala eta Hitzaro Euskara Elkartea. Oñati, 2004, 33. or.

Eranskina
Zerrendak

2.

Eraildakoen oroitzapen-monumentua. (Argazkia: Andoni Sarriegi Eskisabelek utzia)

FUSILATUAK ETA ERAILAK

BEASAINEN 1936-07-27/28ETAN MATXINATUTAKO MILITAR FAXISTEK ERAILDAKOEN ZERRENDA ETA DATUAK

ZK.	DEITURAK ETA IZENA	ADINA	HILDAKO EGUNA	JAIOTERRIA	BIZILEKUA
01	Agurruza Martínez, Jaime	28	1936-07-28	Iruñea (Nafarroa).	Iruñea (Nafarroa).
02	Alvarez García, Angel	37	1936-07-28	Trobajo del Cerecedo (Leon).	Beasain
03	Alvarez Tellechea, Angel	45	1936-07-28	Cintruenigo (Naf.).	Beasain
04	Arámburu Irastorza, Blas	73	1936-07-28	Gaintza	Beasain
05	Arrizabalaga Ariztimuño, Pedro Martín	40	1936-07-28	Zegama	Beasain
06	Beñarán Garín, Alejo	54	1936-07-28	Urretxu	Beasain
07	Vergara Lozares, Marcelo	18	1936-07-28	Beasain	Beasain
08	Chocarro Martínez, Francisco	30	1936-07-28	Berbintzana (Naf.).	Beasain
09	Crespo Igarza, Ramón	40	1936-07-28	Villanueva de la Peña (Cantabria).	Beasain
10	Felipe Sánchez, Claro	32	1936-07-28	San Esteban de los Catos (Avila).	Beasain
11	García Díez, Domiciano	16	1936-07-28	Burgos	Beasain
12	García Hernández, Antonio		1936-07-28		Beasain
13	Garmendia Mendía, Juan Miguel	37	1936-07-28	Beasain	Beasain
14	González Farro, Juan		1936-07-28		Beasain
15	González Hernández, Luis	50	1936-07-28	Salamanca	Beasain
16	Huergo Tofé, Victoria	54	1936-07-28	Logroño (Errioxa).	Beasain
17	Ibáñez de Opacua Larzábal, Luis	33	1936-07-28	Irun	Beasain
18	Igartua Polo, Isidro	20	1936-07-27	Begoña (Bizkaia).	Beasain
19	Insausti Baztarrica, José Ignacio	34	1936-07-28	Beasain	Beasain
20	Insausti Berasategui, José Ignacio	72	1936-07-28	Olaberria	Beasain
29	Sarasola Echave, Damián		Beasain	1939-02		Gaixotasunez (litekeena).	America-23.	1169-02.
30	Urteaga Elzo, Javier[4]		Beasain	1937-05-04	Amorebieta-Etxano (Bizkaia).		San Martin de Loinaz. Erreketea edo Nafarroako 1. banderakoa.	0543-48, 1169-02 eta FPEV.
31	Usabiaga Múgica, José	22 (1915-01-02)	Beasain	1937-06-14 (edo 13).	Lemoa edo Galdakao (Bizkaia).		San Martin de Loinaz. Erreketea.	0543-48, 1169-02 eta FPEV.
32	Zabaleta Guerrico, Ramón		Beasain	1937-06-19	Huesca		Galicia-19 (infanteria).	1169-02 eta 1170-01.
33	Zaldua Urquiola, Pedro	20 (1918-02-05)	Beasain	1938-12-23	Katalunia		San Martin de Loinaz. Erreketea (kaboa/kaporala).	0543-48, 1169-02 eta 1170-01 eta FPEV.
34	Zufiaurre Jaúregui, Rufino		Beasain	1938-08-16			Flandes-5 (mendikoa).	1169-02.

OHARRAK:
Signatura gehienak Beasaingo Udal Artxiboko karpetei dagozkie, adibidez "1169-02", 1169 karpetako 02 paper-sortari dagokio. Beasaingo Udal Artxiboko 0525-46 signatura dutenak CAFeko langileak ziren.
FPEV signatura dutenak Fundacion Popular de Estudios Vascos erakundearen webgunekoak dira, non Gipuzkoako karlisten fitxak dauden. Lotura honetan aurki daitezke: http://www.fpev.es/index.php/fichas-de-la-junta-carlista

[1] Pertsona honen informazioa, FPEVek bildu du, baina Manuel Sanchez Vazquezi dagokion fitxan.
[2] Pertsona hau San Ignacio Errekete konpainia azpeitiarrekoa zen eta ez Beasaingo San Martin de Loinaz konpainiakoa, Aratz-Matxinbentakoa baitzen.
[3] Ez dugu pertsona honen inguruko beste informaziorik. 1170 karpetako 01 dokumentu-sortako dokumentu batean "hildako" gisa agertzen da, baina ez dakigu non, nola edo noiz hil zen, litekeena da gudan hil izana ere.
[4] Bai soldadu eta bai errekete gisa azaltzen da, baina ezin dugu zehaztu zeinetakoa izan zen, edo agian bietan ibili zen. Berari buruzko informazioa Martin Urteaga Eltzo anaiaren errekete fitxatik lortu dugu.

1936AN ALTXATUEN ALDE GUDAN DESAGERTUTAKO BEASAINDARRA

ZK.	ABIZENAK ETA IZENA	ADINA	SORTERRIA	HERIOTZA-DATA	HERIOTZA--TOKIA	HERIOTZAREN ARRAZOIA	BATAILOIA	SIGNATURA
01	González Martínez, Bonifacio [1]		Villaldemiro (Burgos)	(gertatzekotan 1936-10-01 aurretik).	Oiartzun		Guardia Zibila.	1169-01.

OHARRAK:
Signatura Beasaingo Udal Artxiboko karpetari dagokio, adibidez "1169-01", 1169 karpetako 01 paper-sortari dagokio.

[1] Pertsona hau desagertu egin zen, eta dirudienez hil ere bai; baina, azken gertaera hori ez dugu guztiz zehazterik izan.

1936KO GUDAN ALTXATUEN ALDE HILAK, BEASAINEKIN ZERIKUSIA ZUTENAK

ZK.	ABIZENAK ETA IZENA	ADINA	SORTERRIA	HERIOTZA--DATA	HERIOTZA--TOKIA	HERIOTZAREN ARRAZOIA	BATAILOIA	SIGNATURA
01	Amenábar Cortajarena, Joaquín	29 (1909-12-28)	Andoain (Legorretan bizi zena).	1938-12-28	Katalunia (Santa Maria Meya-Tremp ingurua).		San Martin de Loinaz. Erreketea (kapitaina).	0543-48, 1169-02, Arostegui eta FPEV.
02	Apaolaza Eleícegui, José		Donostia	1939-01-05	Kataluniako frontea (Artesa Segre ingurua).		San Martin de Loinaz. Erreketea (behin-behineko alfereza).	1169-02 eta Arostegui.
03	Aparicio Aldanondo, Miguel		Zumarraga	1937-03-31	Aretxabaleta?		San Martin de Loinaz. Erreketea (kaboa edo kaporala).	0543-48 eta 1169-02.
04	Arcarazo Areso, Andrés		Lazkao	1938-01-10	Teruelgo frontea.		San Martin de Loinaz. Erreketea.	0543-48, 1169-02.
05	Arteaga, Francisco de Borja		Lazkao? Madril?	1937-06-05	Bizkaia	Bala-zauria.	Zalditeria (alfereza) (Infantadoko dukearen semea).	Arostegui; 081-23 eta 1169-01.
06	Arteaga, Jaime		Lazkao? Madril?	1938-01	Teruelgo frontea.		Soldadua, erregularra. (Infantadoko dukearen semea)	081-22.
07	Ayerbe Zurutuza, Bernardo	28 (1909-11-28)	Ataun	1938-01-06	Teruel		San Martin de Loinaz. Erreketea (sarjentua).	0543-48, 1169-02 eta FPEV.
08	César García, Manuel		Cádiz	1938-01-07			San Martin de Loinaz. Erreketea.	1169-02.
09	Elizondo Michelena, Alejandro		Elizondo (Nafarroa).	1938-01-09	Cellako erietxea.		San Martin de Loinaz. Erreketea.	1169-02.
10	Gabilondo Aguirregomezcorta, Antonio		Elgoibar	1938-01-01			San Martin de Loinaz. Erreketea.	1169-02.
11	Garmendia Apalategui, Francisco		Zaldibia	1939-01-13				0525-46.
12	Gimenez Porras, Enrique ("Jimenez" gisa ere agertzen da)[1]	36 (1902-01-02)	Palma (Mallorca).	1938-01-11	Teruelgo frontean.		San Martin de Loinaz. Erreketea (zalditeriako kapitaina).	0543-48, 1169-02 eta FPEV.
13	Ibañez Orcajo ("Arcajo" edo "Areajo" gisa ere azaltzen da), Jesús[2]	42 (1894-07-08)	Burgos (Donostian bizi zena).	1937-04-06	Donostiako erietxean (Aretxabaletan zauritua).	1937-03-31n perirrektoan zauritua.	San Martin de Loinaz. Erreketea (kapitaina).	0543-48, 1169-02 eta FPEV.
14	Insausti Usabiaga, José	19 (1918-03-14)	Lazkao	1938-01-09 (edo 3).	Zaragozako erietxean.	1938-01-02an Teruelen zauritua.	San Martin de Loinaz. Erreketea.	0543-48, 1169-02 eta FPEV.
15	Izaguirre, Miguel		Ataun	1938-01	Santa Eulalia erietxea.	Larriki zauritua izan zen.	San Martin Loinaz Erreketea.	1169-01.
16	Izaguirre Alsema, Ezequiel	27-28 (1910ean jaioa)	Ataun	1938-01-12	Teruelgo frontean.	1938-01-07an zauritua.	San Martin de Loinaz. Erreketea.	0543-48, 1169-02 eta FPEV.

17	Jaúregui Beguiristain, Tomás		Ataun	1938-01-12	Teruelgo frontean.		San Martin de Loinaz. Erreketea (kaboa edo kaporala).	0543-48 eta 1169-02.
18	Larrañaga Irízar, Sabino		Lazkao	1938-12-30				0525-46.
19	López de Echezarreta Vélez de Mendizábal, Luis	19 edo 20 (1908)	Ordizia	1938-07-08			Bailen-24 Infanteriakoa erregimendua.	0525-46 eta Ordizia.
20	Murua Aizpúrua, Vicente	20 (1916-10-27)	Ordizia	1937-05-12	Durangoko frontean (333-A kota).	Bala batek jo eta segituan hila.	Urdaneta erreketea.	0525-46 FPEV eta Ordizia.
21	Murua Zurutuza, Francisco	20 (1916-12-10)	Lazkao	1937-07-03	Gasteizko erietxean.	Amorebietako frontean zauritua.	San Martin de Loinaz. Erreketea.	1169-02 eta FPEV.
22	Odriozola Munduate, Juan Antonio ("Jose Antonio" gisa ere agertzen da)		Olaberria	1937-12-31	Teruelgo frontean.		San Martin de Loinaz. Erreketea (alfereza).	0543-48, 1169-02.
23	Olangua Martínez, Auxencio	18 (1918 12-17)	Artazu (Nafarroa) (Ordizian bizi).	1937-06-14	Berrizko erietxean.	1937-06-13an Bizkaiko frontean sabelean zauritua.	Urdaneta erreketea.	0525-46 FPEV eta Ordizia.
24	Olano Iparraguirre, José		Lazkao	1938-04-04				0525-46.
25	Oyarzábal Olano, Ignacio		Olaberria	1936-10-04				0525-46.
26	Prado Alvarez, Manuel[3]		Novalto	1939-01-11	Kataluniako frontean.		San Martin de Loinaz. Erreketea (kaboa/ kaporala).	0543-48, 1169-02.
27	Rodríguez Carrajo, Nicanor		Galizia	1938-01-07			San Martin de Loinaz Erreketea (Bizkaiko tertziotik 1937ko abenduan pasatua).	1169-02 eta FPEV.
28	Sánchez Vázquez, Manuel	17 (1920-09-03)	Muskiz	1938-05-28 (edo 29an)			San Martin de Loinaz. Erreketea (Bizkaiko tertziotik 1937ko abenduan pasatua).	1169-02 eta FPEV.
29	Urdangarín Munduate, José Antonio[4]		Ataun	1937-06-03 (edo 04an)	Gasteizko erietxean.	Egun berean Amorebietako frontean toraxean zauritua.	San Martin de Loinaz. Erreketea (kaboa).	1169-02 eta FPEV.

OHARRAK:

Signatura gehienak Beasaingo Udal Artxiboko karpetei dagozkie, adibidez "1169-02", 1169 karpetako 02 paper-sortari dagokio. Beasaingo Udal Artxiboko 0525-46 signatura dutenak CAFeko langileak ziren.

"Ordizia" signatura dutenak Ordiziako Oroimen Historikoari buruzko liburuan azaltzen dira (ASKOREN ARTEAN: *Ahaztuen mindura. 1936ko gerra eta frankismoa Ordizian.* Ordiziako Udala, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Aranzadi. Ordizia, 2014).

"Arostegui" signatura dutenen informazioa, Julio Arostegui historialariak erreketeei buruz eginiko liburuan azaltzen da (AROSTEGUI, Julio: *Combatientes requetés en la Guerra Civil Española (1936-1939).* La esfera de los libros Madril, 2013.).

FPEV signatura dutenak Fundacion Popular de Estudios Vascos erakundearen webgunekoak dira, non Gipuzkoako karlisten fitxak dauden. Lotura honetan aurki daitezke: http://www.fpev.es/index.php/fichas-de-la-junta-carlista

[1] Pertsona hau Beasainen hilobiratua izan zen beasaindarra ez izan arren.
[2] Pertsona honek Beasaingo erreketeak entrenatu zituen; gerra aurretik ere bai.
[3] Pertsona hau Beasainen hilobiratua izan zen beasaindarra ez izan arren.
[4] Pertsona honen izena, 1169-02 signaturako dokumentuan, okerbidez "Juan Francisco" jartzen du, "Jose Antonio"-ren ordez.

BEASAINGO UDAL-TALDE FRANKISTETAKO KIDEAK (1936-1945)

BEASAINGO LEHEN UDAL-TALDE FRANKISTA (1936-07-29)

Udal-talde hau 1936ko uztailaren 29an izendatu zuen Alberto Ruiz Moriones komandante militarrak (Pablo Cayuelaren albokoak). Dokumentuetan agertzen denez, lehen Udal-talde frankistak bere lehen osoko bilkura, 1936ko abuztuaren 16an egin zuen. Hauek izan ziren bildutako kideak:

-Guridi Arámburu, Jose Luis (alkatea)
-Cerrajería Tiffe, Miguel (alkateordea)
-Arana Gaiztarro, Pedro[1] (alkateordea)
-Urteaga Otegui, Restituto[2] (zinegotzi-sindikoa)
-Arámburu Arámburu, José (zinegotzia)
-Artolain Gaztañategui, Rufo (zinegotzia)
-Asla Lapart, Eusebio (zinegotzia)
-Esnaola Elícegui, Martín (zinegotzia)
-Ezquiaga Beracoechea, Francisco[3] (zinegotzia)
-Garín Insausti, José Luis (zinegotzia)
-Mendía Lasa, José (zinegotzia)
-Unzueta Jaúregui, Francisco (zinegotzia)
-Zaballos Imaz, Germán (zinegotzia)

Udal-talde honek 1941ko martxoaren 29a arte iraun zuen, orduan beste Udal-talde batez ordeztua izan baitzen. Aipatu beharra dago 1941ko otsailaren 8an Jose Luis Guridi Aramburu alkateak dimititu egin zuela eta Gobernadoreak martxoaren 29an beste Udal bat izendatu arte, behin-behineko alkate gisa Miguel Cerrajería Tiffe aritu zela. Miguel Cerrajeríak, behin-behineko kargu hori otsailaren 22an eginiko osoko bilkuran hartu zuen.

BEASAINGO BIGARREN UDAL-TALDE FRANKISTAKO KIDEAK (1941-03-29)

Udal-talde berri hau 1941eko martxoaren 29an izan zen izendatua. Ikusten den bezala, Udal-talde hau aurreko Udal-taldea osatzen zuten kideez osatua zegoen:

-Esnaola Elícegui, Martín (alkatea)
-Arámburu Arámburu, José (zinegotzia)
-Artolain Gaztañategui, Rufo (zinegotzia)
-Asla Lapart, Eusebio (zinegotzia)
-Cerrajería Tiffe, Miguel (zinegotzia)
-Ezquiaga Beracoechea, Francisco (zinegotzia)
-Garín Insausti, José Luis (zinegotzia)
-Unzueta Jaúregui, Francisco (zinegotzia)
-Zaballos Imaz, Germán (zinegotzia)

Gure informazioen arabera, gure ikerketak barnebiltzen duen epean, 1945 artekoan, ez zuen aldaketarik izan. 1949ko maiatzaren 1a arte iraun zuen nonbait, data horretan, alkate postuan Miguel Cerrajería Tiffek Martín Esnaola ordeztu baitzuen.

[1] Pedro Arana Gaiztarro 1940ko otsailaren 12an hil zen.
[2] Restituto Urteaga Otegui aurreko Udal-taldeko zinegotzi izan zen.
[3] Francisco Ezquiaga Beracoechea 1940ko apirilaren 6an alkateorde izendatu zuten, urte horretako otsailaren 12an hildako Pedro Arana Gaiztarro ordeztuz.

BEASAINGO UDALEKO BATZORDE TXOSTENGILEA

1936-07-29an Alberto Ruiz Morionesek (Komandante militarrak) izendatu zuen Udalak, batzorde txostengile bat sortu zuen agintari militar eta zibil frankistek herritarrez eskatutako informazioa emateko. Batzorde horrek egindako txostenak Jose Luis Guridi alkateari pasatzen zizkion, eta alkateak oniritzitakoa bidaltzen zuen eskatutako lekura.

Batzorde horretako kide izan ziren ondorengo zinegotziak:

-Francisco Ezquiaga Beracoechea, batzordeburu.

-Francisco Unzueta Jauregui batzordeko kide eta idazkari gehienetan.

-Eusebio Asla Lapart batzordeko kide eta idazkari batzuetan.

Ondo dokumentatuta dago hiru zinegotzi hauek batzorde txostengileko partaide izan zirela. Dokumentuetan ez da aurkitu beste zinegotzien izenik. Oraingoz, beraz, ez dakigu hiru zinegotzi horiez gain, beste zinegotziren batzuek batzorde horretan parte hartu zuten ala ez.

Zinegotzi horiek egindako eta sinatutako txostenak Beasaingo Udal Artxiboan aurki daitezke: A088 karpetaren 01 dokumentu-sortan, 073 karpetaren 23 dokumentu-sortan eta 1169 karpetaren 02 dokumentu-sortan.

Sinatutako txostenez gainera, garai bereko txosten ugari daude batzordeko kideek sinatu gabe; baina txostenen oinean, *"el presidente"* eta *"el secretario"* agertzen da ia denetan. Ulertu behar da sinatu gabe egon arren, batzordeko kargudunek alkateari pasatutako txostenak direla.

Oharra: Francisco Ezquiaga Beracoecheak, batzorde txostengileko buru izateaz gainera, Beasaingo Falangeko buru gisa sinatuak ditu A088 karpetaren 01 dokumentu-sortan eta 1169 karpetaren 02 dokumentu-sortan dauden txosten batzuk.

2012-11-10ean, fusilatuen familiartekoen eta herritarren segizioa udaletxetik monumentura bidean Nafarroa etorbidearen hasieran. (Argazkia: Andoni Sarriegi Eskisabelek utzia)

Fusilatuen familiartekoak eta herritarrak oroigarrian loreak jartzen 2014-07-27an.
(Argazkia: Andoni Sarriegi Eskisabelek utzia)

ATXILOTUTAKO BEASAINDAR ESKUINDARRAK

GERRA-HASIERAN BEASAINEN PRESO EDUKITAKO ESKUINDARREN ZERRENDA

Estatu-kolpea eman zutenean, Beasainen, gobernuan zegoen Fronte Popularreko Udalak eta Beasaingo Defentsa Batzordeak, prebentzioagatik, beasaindar eskuindar batzuk atxilotzea erabaki zuen (haietako asko Zirkulu Tradizionalistako kideak ziren). Preso horiek Beasaingo Udaletxeko kartzelan eduki zituzten egun batzuez, eta uztailaren 27an Armada altxatua Beasainen sartu baino egun batzuk lehenago[1] askatu zituzten, Defentsa Batzordeko buru zen Ignacio Cortés Ceballosen bitartekaritza-lanari esker.

Zerrenda honen berri, Beasaingo lehenengo Udal frankistak 1940ko maiatzaren 25ean egindako dokumentu batek ematen digu.

-Aguado Baza, Justo (gero frontean hil zen)
-Arámburu Urteaga, Martín
-Arguiñano Arzoz, Epifanio
-Artolain Gaztañategui, Rufo
-Asla Lapart, Eusebio
-Chinchurreta Amundarain, Pablo (1940ko maiatzaren 25a baino lehen hila)
-Ezquiaga Beracoechea, Francisco
-Gallego Saez, Florencio
-Gaytan de Ayala Belarroa, Joaquín
-Hernando Villahoz, Antonio
-Inchausti Dorronsoro, Daniel (Bilbon bizi zen ataundarra, Ataunen atxilotua)
-Jaúregui Amiano, Juan
-Martín Olmedo, Germán
-Mateos Navazo, Ismael
-Mendía Lasa, José
-Montejo Zárate, Enrique
-Pérez Martínez, Fermín
-Quintas Fernández, Miguel (1940ko maiatzaren 25a baino lehen hila)
-Zubiaga Imaz, Luis (zornotzarra, Olaberrian atxilotua)

GERRA-HASIERAN BEASAINEN ETXEAN ZAINTZAPEAN EDUKITAKO ESKUINDARREN ZERRENDA

Estatu-kolpearen aldeko susmagarri zirenen artean, batzuei, Udaletxeko kartzelara eraman ordez, etxeko zaintza egin zitzaien. Zehazki honako hauei:

-Arrieta Ayestarán, Micaela
-Esnaola Gorostidi, Martín
-Iraola Corta, Cándido
-Montejo Zárate, Abundio
-Montejo Zárate, Fermin
-Unzueta Jaúregui, Francisco

ERREPUBLIKARREN KARTZELETAN ETA LANGILE-BATAILOIETAN EGONAK

Zerrenda honetan agertzen diren Beasaingo eskuindarrak, gudan Francoren tropen alde borrokan ari zirela Errepublikaren indarrek Beasaindik kanpo atxilotu zituzten.

-Grimalt Lopez, Manuel: Falangekoa. Atxilotu ostean Alacanteko presondegian egona.

-Grimalt Lopez, Vicente: Falangekoa. Guardia Zibila. Donostian desarmatua eta atxilotua. Bilboko langile-batailoietan egon zen 1937 arte.

[1] Iturri batzuen arabera, atxilotu horiek Armada Altxatua Beasainen sartu baino egun batzuek lehenago askatu zituzten eta beste batzuen arabera Armada Altxatua sartu baino ordu batzuek lehenago.

Eranskina
Lekukotzak

3.

Fusilatuen familiartekoak oroigarrian lore-eskaintza egiten 2016-07-27an.
(Argazkia: Andoni Sarriegi Eskisabelek utzia)

Aierdi Aldasoro XABIER eta Barandiaran Erauskin ANE

(Zumaia, 1924-12-19) (Lazkao, 1926-07)

Beasaingo *Bernabe Aierdi Beobideren* ilobak. Barandiaran Erauskin, gainera, lazkaotarra da.

Getarian 2014ko irailaren 12an egindako elkarrizketa (euskaraz).

"Donostia matxinatuen esku erori eta hurrengo egunean, Zarauztik alde egin behar izan genuen, Bilbora. Aitak jada han lana aurkitua zuen". **(Xabier Aierdik)**

"Nik uda Lazkaon pasatu nuen. Lazkaotik soldaduak pasatzen ikusi nituen. Soldaduren batek gure amari esan zion baratzean zegoela, hartu eta derrigortuta ekarri zutela". **(Ane Barandiaranek)**

"Soldaduak gure etxera sartu ziren miaketa egitera". **(Ane Barandiaranek)**

"Lazkaon bertan ere tiroketa batzuk izan ziren. Halakoren bat altxatuek euren artean ere izan zuten". **(Ane Barandiaranek)**

"Emakume batzuei ilea moztu zieten". **(Ane Barandiaranek)**

"Ni "Habana" itsasontzian joan nintzen, beste lau mila umerekin batera, Ingalaterrara". **(Xabier Aierdik)**

"Gero Bordele ondoan zegoen ume-kolonia batean egon nintzen bizitzen eta geroago Angelura (Lapurdi) etorri ginen". **(Xabier Aierdik)**

"Hendaian alemaniarrak sartzerakoan, osaba Bernabe Aierdirekin Beasainera joan ginen, 1940ko ekainaren 29an". **(Xabier Aierdik)**

"Itzultzerakoan, nire aita Ondarretako kartzelan sartu zuten aldi baterako". **(Xabier Aierdik)**

"Hori bai, Franco inguru hauetara etortzen zen bakoitzean, aita kartzelara eramaten zuten". **(Xabier Aierdik)**

"Bi osaba izan nituen kartzelan, nazionalistak zirela-eta". **(Ane Barandiaranek)**

"Gure osaba (Bernabe Aierdi Beobide) norbaitek salatu zuen, "Londresko BBC irratia" entzuten zuelako". **(Xabier Aierdik)**

"Gure osaba mezatara Lazkaora joaten zen, Beasaina joan ordez". **(Ane Barandiaranek)**

"Lazkaon, gudaren ondoren, aldekoen eta kontrakoen artean gorroto handia egon zen". **(Ane Barandiaran)**

"Gerra ondoren, gerra-garaian baino gose gehiago pasatu genuen". **(Xabier Aierdik)**

"Goserik ez pasatzeko, pataten eta abarren bila joan behar izaten zen". **(Ane Barandiaranek)**

"Guk euskaraz egiten genuenean, noizbait norbait agertzen zen "¡Habla en cristiano!" esanez". **(Xabier Aierdik)**

"Behin Donostiatik trenean gentozela, euskaraz ari ginen eta andre batek esan zigun "edukazioa izateko"; berak euskaraz ez zuela ulertzen-eta. Halako harrokeria bat bazuten". **(Xabier Aierdik)**

"Guk eskolan, Francoren aurretik, dena euskaraz egiten genuen. Gero Francoren armada sartu ondoren, maisuak aldatu zituzten eta dena erdaraz". **(Xabier Aierdik)**

"Lazkaon kalean euskaraz hitz egiten zen, baina eskolan, dena erdaraz. Ez dakigu zergatik izaten zen, agian beneditarrekin harreman handia zegoelako-edo". **(Ane Barandiaranek)**

Aiesta Kristobalena ELEUTERIO
(Beasain, 1925-09-17)

1936ko uztailaren 27ko tropen Beasaingo sarrera bizi izan zuen.

Beasainen, 2014ko ekainaren 11n egindako elkarrizketa (gaztelaniaz).

"Nire osaba (Eleuterio Aiesta Muxika) *CAFen istripu batean hil zen".*

"Nire aitak (Joan Jose Aiesta Muxika) EAJn parte hartu zuen, Beasainen EAJ sortu zutenetako bat izan zen".

"Guk, frankistak sartu zirenean, tiroak entzun genituen, eta gure etxeko jabearen (Joan Kruz Olanoren) pisura igo ginen. Koltxoiak jarri genituen leihoetan".

"Guri Elizara joateko esan ziguten, herria bonbardatu egingo zutela-eta. Han enteratu ginen jendea atxilotu zutela".

"Han egon zen Roman Unanue medikua gaixoak zaintzen, eta gaixo bat "UHP! UHP!" abesten aritu zen. Isilarazi egin behar izan zuten".

"Militar batek esan zigun "¿tenéis hambre?" guk baietz eta ogi-koskor bat eman zigun".

"Lazkaibarko (Malkaskoko) zubian bonba bat erori omen zela esan zuten".

"Lasalleko fraideen eskola erietxe bezala egokitu zuten. Nire ama hor ibili zen bolondres moduan".

"Pedro Aiesta lehengusua Bilbon atxilotu zuten".

"Nire lehengusua, Pedro Aiesta, kartzelan egon zen, Logroñon. Joxe Aranburuk eman zigun salbokonduktua, bisitan joan ahal izateko".

"Errazionamendu-garaian, seietan jaitsi behar izaten nuen ekonomatora. Hilabetean behin behintzat joan behar izaten nuen".

"Gogoratzen dut Don Adolfo maisuak sekulako jipoiak ematen zituela. Beste maisu bat bazegoen, Chueca, lasaiagoa zena".

"Euskaraz ezin zen hitzik ere egin. Baserritarrek, adibidez ez zekiten erdaraz "bai" esaten ere, eta irakasleek jo eta jo egiten zituzten. Nik behin esan nion irakasleari, "baina ez al duzu ikusten ez dakitela erdaraz eta kolpeka ez diozula erakutsiko?"."

"Eskolan korreaia eta alkandora urdina ematen ziguten".

"Frankistek hiri bat hartzean, beti desfilatzera atera behar izaten genuen".

"Franco zetorrenean, denak besoa altxatuta egon behar izaten genuen. Gogoratzen dut nire ondoan zegoenak ez zuela besoa jaso eta falangista batek sekulako kolpea eman ziola "¿Y tú por qué no levantas el brazo?" esanez".

"Epifanio Argiñanok behin, olaberritar familia batekin, taberna zuen familia batekin, batez ere Sara Bujandarekin, sekulakoak izan zituen. Uste dut Argiñanok familia horren aitaren fusilamenduarekin zer edo zer izan zuela. Sekulako eztabaidak izaten zituen! Argiñanok noski, dena ukatzen zuen: berak bere konpainian bortxaketak ez zituela baimentzen eta fusilamenduen aurrean saihesten saiatu zela eta abar… baina azkenean Argiñanok bere buruaz beste egin zuen".

"Gurasoek, politikaz hitz egin behar zutenean, euskaraz egiten zuten, guk ez ulertzeko moduan, gu ez baikinen euskaraz haziak izan".

Aldasoro Ormazabal BERNARDINA
(Mutiloa, 1923-06-14)

Lino Larrearen **ihesaren testigantza jaso zuen.**

Beasainen, 2014ko urriaren 30ean egindako elkarrizketa (euskaraz).

"Ni Mutiloan jaio nintzen, baina gero Zumarragako Eitzagara joan nintzen bizitzera. Orain bi urte etorri naiz Beasainera bizitzera".

"Lino Larrea ezagutzen dut, nire izeba batekin, Katalina Larrearekin, ezkonduta zegoen-eta".

"Etxean zegoela atxilotu zuten, eta hilerrira eraman zuten. Han kondenatu zituzten eta tiroak botatzen hasi zirenean, bere anaia hil zuten. Izebak eta biok etxean topatu genuen".

"Bazter batean geratu zen, geldi. Berari ez zioten buruan azken tirorik eman (tiro de gracia). Gero, tiroak bukatzerakoan, mugitu egin zen eta bazter batetik ihes egin zuen. Uste dut denbora asko ez zela egon han itxurak egiten".

"Pedro Larrea, Linoren anaia, hil egin zuten. Zegaman jaio zen eta hemen ezkondu zen. Bi alaba zituen".

"Beasaingo bat (Igartuatarren aita) Mutiloara eraman zuten, eta hura Mutiloako Sagasti baserriaren kontra hil zuten, Uhaldeko terrenoetan".

"Gure etxean, Mutiloan irina egiten genuenez, ez genuen goserik pasatu, baina kalean bai pasatzen zuten".

"Mutiloan euskaraz hitz egin ahal izaten nuen, baina Zumarragan eskolan ez".

"Maisu-maistrek zigortu egiten gintuzten euskaraz egiteagatik".

Alegria Aierdi EDURNE
(Caracas, Venezuela, 1949-10-28)

Bernabe Aierdi Beobide
beasaindarraren iloba.

Getarian, 2014ko irailaren 12an egindako elkarrizketa (euskaraz).

"Ni Venezuelan jaio nintzen".

"Egia esan, Bernabe Aierdik gasolindegian hildakoak lurperatzen ibili zen pertsona bat ikusi zuela-edo, nik ez dakit, hori ez dut entzun, geroago irakurri egin nuen".

"Nire ama (Margari Aierdi Aldasoro) Angelun (Lapurdin) egon zen Eusko Jaurlaritzaren eremu batean. Zarautzera itzuli zirenean, dena kendu zietenaz konturatu ziren".

"Osaba (Bernabe Aierdi) poliziak nahiko bijilatua izan zen, abertzalea zen-eta".

"Guda ostean askotan joaten ginen Beasainera, amak harreman handia zuelako Beasaingo jendearekin. Gogoratzen dut isilpeka hitz egiten zutela politikaz".

"Guk oso garbi izan dugu gure etxean hemen guda bat izan zela eta gu euskaldunak ginela/garela".

"Hala ere, ezin dut esan nik Beasainekin harreman handia izan nuenik, niretzat Beasain osaba-izebak bizi ziren herria zen".

"Etxean, gure amak ahalegin handia egin zuen guk euskara ez galtzeko. Kanpoan ez zen hitz egiten."

"Gogoratzen dut, azterketa batzuk egin behar nituela Madrilen, eta nik, izena jartzerakoan "Miren Edurne" jartzen nuen. Beti izan naiz horrela, ni Venezuelan jaio bainintzen. Hiru aldiz suspenditu zidaten horregatik".

or.

Apalategi Etxeberria JOXE

(Olaberria, 1920-10-16)

Beasainen 1936ko uztailaren 27ko tropen sarrera bizi izan zuen.

Beasainen 2014ko ekainaren 25ean egindako elkarrizketa (gaztelaniaz nagusiki, euskara ere tartekatu arren).

"Hemen frankistak oso gaizki hartuak izan ziren. Eurek uste zuten oso erraz hartuko zutela Beasain".

"Hona ere kanpoko jendea etorri zen Beasain defendatzera".

"Kanoi bat erabili zuten frankistek eta obusak bota zituzten. Olaberritik botatzen zituzten eta bat gure etxean erori zen, gaur egungo Nafarroa etorbidean".

"Nafarrak begitan hartu zituen hemengo jendeak. Noski, etorri zirenak, denak ez ziren nafarrak izan".

"Gabiriako autobus bat zegoen tinta-fabrikaren ondoan. Autobus horrek Ormaiztegiko eta Gabiriako jendea zekarren. Erre egin nahi zuten eta batek (Ugartek) esan zien hura ezin zela han erre, eztanda egingo zuela eta. Ugarte ere berekin eraman zuten hiltzeko. Esaten zenez, lehen saiakera autobusean bertan hiltzea izan zen".

"Beñaran oso maitatua zen herrian, zaldi zuri batean ibiltzen zen. Bera monarkikoa zela esaten zen, baina Errepublikari zin egin zionez, Errepublika defendatu behar zuela esan zuen".

"Bere anaia bat Aurrezki Kutxako zuzendari izan zen".

"Beñaran hil aurretik torturatu egin omen zuten. Biboteko ileak eta azkazalak erauzi bide zizkioten. Zapatarira eraman eta han torturatu zuten".

"Guk fusilatuen tiroak entzun genituen".

"Esaten da baten bat, ferrobiarioren bat-edo, Zapatari etxetik alde egiten saiatu zela".

"Oriamendi Tertzioak batzokia izandako etxean errekrutatzen zituen soldaduak. Askok ez zekiten nora zihoazen, asko baserritarrak ziren".

"Ibañez bat zen buru han, kapitaina zena. Iruñetik etorritako bat izan zen, jada militarra zena".

"Ibañezek oso fama txarra hartu zuen bere soldaduen artean. Nik entzuna dut bere heriotza bere soldaduek eragin zutela".

"Argiñano gudan teniente egin zuten. Oso harroxko etortzen zen Beasaina".

"Hemen "flechas" taldea Falangeko gazteria agertu zen gudaren ondoren, eta gazteei (mutilei) alkandora urdina eman eta hezkuntza militarra ematen zieten".

"Jesus Argiñanok Dibisio Urdinean borrokatu zuen, Ez dakit beste beasaindarrik ibili zen han, Salbatoreko bat edo agian, Pariza bat ere baietz uste dut".

Aranburu Muxika MILAGROS
(Beasain, 1922-02-10)

1936ko uztailaren 27an Beasainen tropak sartu zirenekoa bizi izan zuen.

Beasainen 2014ko abuztuaren 5ean egindako elkarrizketa (gaztelaniaz).

"Gogoratzen dut Errepublika-garaian nola kendu zuten bandera monarkikoa, erre egin zuten eta errepublikanoa jarri".

"Guda aurretik, beno, soberakinik gabe baina nahiko ondo bizi ginen".

"Frankistak sartu zirenean, oso gaizki portatu ziren".

"Bazegoen guardia zibil bat oso maitatua zena herriaren aldetik (Beñaran). Hura monarkikoa omen zen, baina errepublikari zin egin zion. Guda hastean, botatzen zuen tiro bat, etsaien hildako bat zen".

"Beñaran oso elegantea zen, beti zaldi baten gainean ibiltzen zen".

"Beñaran "traidore" bezala tratatu zuten, torturatu egin zuten".

"Gillermo Ugarte aita "pepitenetakoa" hil egin zuten, eta nahiko jende hil zuten. Gaztelatik etorri zen bat ere gogoratzen dut "Farro" (Juan Gonzalez Farro) izeneko bat, seme-alaba asko zituena, lehengo zinemaren ondoan (Iturriotz kalean) bizi zena".

"Kalera irten zen edonor, hil egin zuten".

"Nire aita (Maximino Aranburu) hiru anaiak eta koinatua atxilotu egin zituzten, eskoletan eduki zituzten, orain Udaletxearen erdiko aldea den tokian. Horietako batzuk Iruñera eraman zituzten. Aitari eta nebei janaria eraman behar izaten genien. Tratua nahiko normala zen; nik uste dut gure aita ez zutela maltratatu, baina Iruñera eraman zituztenak bai".

"Emakume askori ilea moztu eta errizino-olioa eman zieten edateko. Atzeko kalekoak ziren. Haiek jada ez daude bizirik. Bati "Migeleta" deitzen zioten".

"Nire aitarekin eta anaiekin atxilotuta egon ziren batzuk, Viktoriano Oñatibia eta Gregorio Begue adibidez; gero Iruñera eraman zituzten, eta han, "askatasuna" emango zietela-eta, biak fusilatu zituzten".

"Gudaren ondoren agintzen jarri zirenak, nahiko jende txarrak izan ziren. Moriones teniente koronelak moztu egin zituen hainbat gauza. Berak ere ezin zuen sinetsi "¿Qué pasa en este pueblo, que la gente buena está toda presa?" esaten zuen. Gero Beasainen bizitzen gelditu zen".

"Batzuk besteak baino okerragoak ziren, Asla, edo Epifanio Argiñano, Guridi alkatea bera baino okerragoak ziren".

"Militarrak askotan pasatzen ziren, eta "¡A la bandera se le saluda!" esaten zuten".

"Gerraren ondoren lanpostu guztiak frankistek hartu zituzten, besteentzako ez zegoen ezer. Asko sufritu zen herri honetan".

"Gure ama baserrikoa zen, eta baserritarren artean elkar laguntzen zuten. Horri esker ez genuen goserik pasa".

"Estraperloko ogia oso garestia zen".

"Frankistak oso jende txarra ziren, "euskaldunekiko" berezko herra zuten".

"Orduan euskara kalean hitz egitea debekatuta zegoen".

or.

Azurmendi Dorrontsoro JOXE MANUEL

(Beasain, 1922-01-02)

1936ko uztailaren 27an tropen Beasaingo sarrera bizi izan zuen eta herriko testigantza asko jaso ditu.

Donostian, 2014ko irailaren 10ean egindako elkarrizketa (gaztelaniaz)

"Nire aitari barre egiten zioten CAFen erdaraz ez zekielako. Orduan, bere gurari nagusia, nik erdaraz ondo egiten ikastea izan zen".

"Beñaranen heriotza oso ezaguna izan zen. Gizon hura euskalduna zen, Urretxun jaiotakoa, zaldi zurian ibiltzen zen eta guk "Arratsalde on!" esaten genion, eta berak "Arratsalde on!" erantzun. Kapitain mailara igo zutenean Eibarrera eraman zuten. Afrikako gudan ibilita zegoen".

"Hala ere Beasain oso ondo ezagutu zuen eta guda hastean Beasaina etorri zen. Errepublikako indarren buru edo izango zen".

"Beñaran jendeak monarkiko eta eskuindartzat zuen, baina oso pertsona ontzat ere bai".

"Askok nahi zuten, alde batera edo bestera Beñaran mugitzea. Berak askotan hitz egin zuen Carrasco Gobernadore militarrarekin".

"Matxinatuak sartu zirenean, 14-16 urteko mutikoak hartu eta Armadan sartuko gintuztenaren zurrumurrua zabaldu zen. Orduan Usurbe aldera ihes egin behar izan genuen. Basartegoikoa baserrian egon behar izan genuen".

"Matxinatutako indarrak Olaberritik eta Ihurretik sartu ziren. Goizeko seietatik arratsaldeko ordubietara izan ziren tiroketak".

"Iraolatarren etxean (Joxe Bixente Iraola alkate-ohiaren etxea) obus bat erortzen ikusi genuen".

"Antza denez Guardia Zibilak (errepublikanoak) Eskoletan gorde ziren".

"Baeza kapitainak torturatu zuen Beñaran. Zaplazteko bat eman zion Beñarani "traidore!" deituz. Nire ezagun batek kontatu zidan nola ikusi zuen Beñaran torturatzen ari zirela; zirrikitu batetik ikusi zuen. Beñaran txapelokerrari muin ematen saiatu omen zen, baina Baezak ez omen zion utzi eta orduan berriz jo omen zuen".

"Beñaranek suizidatzeko modua izan zuen, fusilatzera zihoazenei fusil bana eman baitzieten, baina berak ezetz esan zuen, bera hil egin beharko zutela".

"Matias-enean eduki zituzten, baina baten bat hilerrian ere hil zuten. Dolarean hil zituztela ere entzun izan dut eta Beñaran bera iturri baten ondoan fusilatu zutela".

"Amari entzun nion, bere lehengusu bat hilerrira joan zela eta zapatila bat topatu zuela. Entzun dut pila batean jarrita zeudela".

"Viktoriano Oñatibia oso laguna nuen. Bankuko kobratzailea zen, eta Lizarrako fabrika baten ordezkaria ere bai. Nazionalista zen. Ez dakit zergatik hil zuten, inon ez nuen irakurtzerik izan. Hura eskoletan eduki zuten preso, beste askorekin batera. Donostian hil zuten 1936ko urriaren 23an".

"Nik ikusi nuen nola atera zuten Igartuatarren aita, Liernira eraman zuten, Mutiloara, eta han hil zuten. Seme bat San Kristobalen hil zuten. Zubiaga izeneko falangista bat uste dut izan zela bera hiltzeko arduraduna".

"Fusilameduen gaua igaro eta gutxira, Beasaingo Udalak Lizarrako Udalari gutun bat bidali zion "Lizarrak Beasaini egindako zerbitzua" eskertuz".

“Nik ez dut Elizaren kontra hitzik egin nahi, baina Elizak ez zuen jarrera onik izan”.

“Gudaren ondoren beldur handia zegoen”.

“Nik Udaletxean lan egiten nuen eta lanaren poltsa nik eramaten nuen. Gudaren ondoren ia ez zegoen lanik eta zailtasunak izan ziren. Politika zela-eta, norbait kanpoan ere utzi zuten”.

“Gudaren ondoren gertatzen zen batzuk atentzioa deitzen zizutela “beste honekin edo harekin” hitz egiteagatik”.

“Viktor Bernedo Zubiaurre alkate-ohia kartzelatik irtetean, nik neuk hartu nuen parte, bere suhiak eskatuta eta bitartekaritza egin genuen kartzelatik atera zezaten”.

“Nik Udaletxean lan egiten nuen eta batzuek esan zidaten “hi tuntuna al haiz?” egoera hura aberasteko baliatu ez nuelako. Baziren batzuk aberastu zirenak ere, inguruabar horiek aprobetxatuz. Nik ez nuen ogi onik jan garai hartan”.

“1941ean Hornikuntzen Udal-mapa osatu behar zen, baserriekin zerikusia zuten gauzak biltzeko eta abar… Aratz-Matxinbentatik Mariaratsera. Ni nintzen Udaletxean euskaraz zekien bakarra, beraz, niri agindu zidaten mapa hura osatzeko lana”.

or.

Begue Sarasola ROBERTO eta Begue Redondo YOLANDA

(Beasain, 1933-04-29) (Ordizia, 1960-04-23)

Gregorio Begue Aguado **beasaindar eraildakoaren familiakoak. Gainera, Yolanda Begue Benito Redondo eraildako ordiziarraren familiakoa ere bada.**

Beasainen 2014ko ekainaren 27an egindako elkarrizketa (gaztelaniaz).

"Nire aita forjatzailea edo forjaria zen CAFen". **(Roberto Begue Sarasolak)**

"Nire aita eta bere lankideak sindikatu batean afiliatuta zeuden". **(Roberto Begue Sarasolak)**

"Nire osaba Rufino Sarasola Lasa batzokiko kide egin zen gerra aurretik". **(Roberto Begue Sarasolak)**

"Nire amaren baserria, Ezkiatxiki, soldaduek hartu zuten CAF zaintzeko. Hori bai, soldadu haiek gurekin behintzat ondo portatu ziren". **(Roberto Begue Sarasolak)**

"Nik uste dut fusilamendu askotan inbidiak tarteko izan zirela". **(Roberto Begue Sarasolak)**

"Nire osaba Gregorio Begue Sarasola RENFEko makinista zen. Errepublika garaian makinistei arma bat eman zieten. Frankistaren batek arma bat zuela-eta salatu zuen, horregatik eraman zuten". **(Roberto Begue Sarasolak)**

"Atxilotuta Iruñera eraman zuten eta ez zen itzuli". **(Roberto Begue Sarasolak)**

"Iritziz errepublikanoa omen zen, beti entzun dut nik hori." **(Yolanda Begue Redondok)**

"Susmoak baditugu, auzokide bat, Argiñano bat, izan zela eta beste batez ere bai, baina zehatz-mehatz ez dakigu". **(Roberto Begue Sarasolak)**

"Iruñean antza denez "aske" utzi zuten, eta aske utzi ondoren "Ihes-legea" delakoa aplikatu eta bertan hil zuten, untxi bat bezala". **(Roberto Begue Sarasolak)**

"Bere emaztea eskuz egindako galtzerdiak eta janaria bidaltzen aritzen zen Gregorio Begueri, kartzelan egondako batek esan arte gehiago ez bidaltzeko, hil egin zutela-eta". **(Roberto Begue Sarasolak)**

"Gure familiakoek asko borrokatu zuten gure familian eraildakoen gorpuak berreskuratzeko" **(Yolanda Begue Redondok)**

"Aita (Arturo Begue) behin Falangearen egoitzan sartu zen, bere aita nork hil zuen frogatzeko. Ez dakit zer ikusi zuen han, baina ez zen itzuli. Eta ez zuen berriz horretaz hitzik egin nahi izan, ez dakit zer ikusi zuen, baina zerbait izugarria izan behar zuen". **(Yolanda Begue Redondok).**

"Nire aitaren (Arturo Begue) eta nire amaren (Tomasa Redondo, ordiziarra) arteko lotura, nik uste dut biei gertatu zitzaienagatik sortu zela pixka bat". **(Yolanda Begue Redondo)**

"Nire aitona, Benito Redondo, inbidiagatik hil zuten. Toki ezezagun batean lurperatu zuten. Behin batek esan zigun Altsasun ikusi zuela enterratuta, beste hiru ordiziarrekin batera, baina hura ez genuen berriz ikusi". **(Yolanda Begue Redondok)**

"Nire osaba Fausto Redondo errekete batzuek hil zuten Asturiasen". **(Yolanda Begue Redondok).**

"Nire osaba Fausto Redondo hil zutenean, eraztuna kendu zioten. Ordizian eskuindar batzuei eraztuna erakutsi zieten "gudako trofeo" bezala. Orduan enteratu ziren etxean Fausto hilda zegoela. Ordiziakoak eta Beasaingoak izan ziren hil zituztenak, ez dakit Argiñano-edo tartean izan zenik". **(Yolanda Begue Redondok).**

"Nire amona Udaletxetik deitu zuten. Norbaitek ez joateko esan zion, hil egingo zutela-eta. Horregatik salbatu zen. Donostiara joan behar izan zuen hilabete batzuk pasatzera. Bueltan, Ordizian etxea arpilatuta topatu zuten". **(Yolanda Begue Redondok)**

"Frantzisko Untzueta, zinegotzi izan zenak, batzokiko pianoa eraman zuen. Untzueta hori Tolosako RENFEko faktorea zen, eta hiltzera zihoala, bagoi oso bat lapurtu zuela konfesatu zuen". **(Roberto Begue Sarasolak)**.

"Beasainen lagunen artean-eta bereizketa handia zegoen bi taldeen artean. Pako Elzo izan zen, eskuinaren aldetik, futbola tarteko, bi aldeen arteko distantzia pixka bat laburtu zuena". **(Roberto Begue Sarasolak)**

"Nire amari txistua botatzen zioten eskuindarrek Ordizian". **(Yolanda Begue Redondok)**

"Hirutan heriotzara kondenatu zuten Rufino Sarasola; bitan Santoñan eta behin Cadizen. Bizkaian atxilotua izan zen eta kontzentrazio-eremu batean egon zen. Epaiketa militarrak egin zizkioten, Amaiurko tenientea zen-eta. Informe onak emateko, ordaindu egin behar izan genuen, Ezkiagari, Untzuetari eta Aslari; "aldeko informeak" egin zitzaten. Ez zen diru-berme ofiziala izan. Horrekin lortu genuen heriotza-zigorrak konmutatzea, eta gero kalera irten zen. Uste dut horretarako ere dirua ordaindu behar izan zela. Irten zenean, Lakuntzara joan zen lanera". **(Roberto Begue Sarasolak)**

"Rufino Sarasola jada Lakuntzan bizi zen. Beasaina etortzen zen bakoitzean jendea zuen bere atzetik, salatariak-eta, herrira etorri zenaren partea ematen zuten". **(Roberto Begue Sarasolak)**

"Egia esan, frankista asko, bai bere heriotza-zigorra konmutatzeko dirua jaso zutenak, zein beste batzuk, nire osabaren atzetik zebiltzan, probokatzen eta abar". **(Roberto Begue Sarasolak)**

"1948ko Beasaingo jaietan, nire osaba Rufino Sarasola nirekin batera norian zebilen eta bertatik bere burua bota zuen. Ni eusten saiatu nintzen eta zapatilarekin gelditu nintzen. Behean pertsona bat, Santiago Muñoz, ikusi nuen Guardia Zibilen tenientearekin batera. Muñozek esan zion: "mozkorra egongo zen", eta Guardia Zibilen tenienteak, Rufino Sarasola atxilotzeko agindua zuenak, erantzun zion: "Hi hago isilik, hik ez duk ezer ikusi". **(Roberto Begue Sarasolak)**

"Urte batzuk pasatuta, niri esan zidan Muñoz horrek "zure osaba mozkorra zegoen orduan". Botila bat hartu nuen eta gelditu egin behar izan ninduten, bestela botila buruan hautsiko nion". **(Roberto Begue Sarasolak)**

"Nire izeba Joakina Sanchezi ilea moztu eta errizino-olioa eman zioten". **(Roberto Begue Sarasolak)**

"Nire ama, Falangeko jantoki sozialetara joaterakoan, bere auzokide karlista batekin joaten zen; amak zioen berari esker jan ahal izan zuela. Baina Cara al Sol *abesten ez zuenez, ez zioten postrea ematen eta iraindu egiten zuten".* **(Yolanda Begue Sarasolak)**

"Behin nire amonari eta amari Ordizian 3.000 pezetako isuna jarri zieten, prezioa jartzen zuen txarteltxo bat erori egin zela-eta. Ez genuen ordaindu nahi, baina amona kartzelan sartu zuten eta azkenean ordaindu egin behar izan genuen. Ordiziako Etxezarreta deitutako pertsona batek, 1.000 pezeta eman zizkigun". **(Yolanda Begue Redondok).**

or.

Beola Olaziregi IÑAKO
(Donostia, 1965-01-24)

Beasainen 1936ko uztailaren 27an eraila izan zen *Jaime Agurruza Martinezen* familiakoa.

Beasainen 2014ko uztailaren 3an egindako elkarrizketa (euskaraz)

"Jaime Agurruza berez nazionalista zen. Gure aitonaren eta amonaren familian, aitona, amona eta osaba Jaime nazionalistak ziren, Centro Vascora joaten ziren eta Arturo Kanpion asko miresten zuten. Lizarrako Estatutuaren proiektua defendatzen zuten".

"Gure aitona (Serafin Beola) ezkutatu egin zen eta Jaime Agurruzarekin harremana galdu egin zuen. Egun batzuetara, Jaime etxera etorri zen eta "alistatu egin naute" esan zion, lehengusu batek esan ziola-eta. Aitonak ihes egiteko esan zion, baina hor Jaimek ez zion aholkua jarraitu. Hor inkognita bat dago niretzat. Ez dakit zergatik, agian ez zekielako Iruñetik nora irten. Baina bera familiak alistatu zuen".

"Altsasun sekulako errepresioa egon zen. Errekete batzuk ihes egin zuten populazio zibilarekin. Baina Jaimek ez zuen ihes egin. Ez dakit zergatik".

"Ihes nola egin zezakeen? Nik uste dut ihes egiten saiatzekotan zibilez egingo zuela".

"Jaime hil zutenean, aitonari eta amonari "lo han matado los vuestros" esan zieten "lo han matado vuestras ideas". Aitonak erantzun zien: "ideiek ez dute hiltzen", baina familia karlista-tradizionalistak lehen momentutik esan zuen "gorriek hila" izan behar zuela Jaimek".

"Aitonari familia karlistak agindu zion "zuenek hil dute-eta", Beasaina Jaimeren gorpuaren bila etortzeko. Epaile militar baten baimena lortu zuen, Iruñeko familia karlistak bazituen-eta horretarako kontaktuak".

"Hilerri zaharrean, zulo batetik atera zuen Jaimeren gorpua. Beste bi soldadurekin batera aritu zen gau oso batean gorpua ateratzen. Baina aitonak hortik aurrera ez zuen ezer esan nahi izaten".

"Momentu honetan Jaime Agurruzaren gorpuzkinak Iruñeko hilerrian daude. Jaime Agurruza "caídos por Dios y por España" izeneko oroigarrian agertzen da, gorriek hil izan balute bezala. Data faltsutu egin zuten, 1938ko uztailaren 27an hil zela (ez 1936ko uztailaren 27an) esan eta jarri zuten. Domina bat ere eman zioten familia karlistari. Hori memoria faltsutzea da".

"Nire aitonari (Serafin Beolari) denetik kendu zioten, idazteko makina bat ere bai, aitonak ez zekien zertarako, idazten ere ez zekiten-eta".

Bujanda Olaran SARA eta JOSE MARIA

(Lazkao, 1929-12-30) (Lazkao, 1932-04-15)

Euren aita, olaberritarra, Beasainen bahitua eta Ataunen eraila izan zen.

Beasainen 2014ko irailaren 18an egindako elkarrizketa (euskaraz).

"Nire aitak CAFen lan egiten zuen. Orduan jende asko bota zuten lanetik eta Vianara (Nafarroara) joan behar izan genuen bizitzera. Berriz CAFen hartu zutenean, berriz etorri ginen hona eta Olaberrian jarri ginen bizitzen". **(Sarak)**

"Aita CAFen sindikatu bateko delegatua zen". **(Biek)**

"Olaberrian nafarrak (erreketeak) sartu zirenean, gu ez geunden etxean, umeak Etxeberrigoikoa baserrian geunden, amaren ahizparen baserrian. Zortzi bat iheslari pasatu ziren, guk pasatzen ikusi genituen". **(Biek)**

"Guk ez dugu txikitako argazkirik. Denak militarrek erre zituzten gure etxera sartu zirenean". **(Sarak)**

"Etxean gauza asko lapurtu zizkiguten militarrek". **(Sarak)**

"Gure aitak "fabrika haundian" lan egiten zuen. Delegatu sindikala zen. Baten batek horregatik inbidia edo gorrotoa izango zion". **(Biek)**

"San Andres izeneko batek esan zuen aita makinan lanean ari zela, pelotoi bat etorri zitzaiola bila. Aitak "Itxaron pixka bat, txamarra hartu beharrean nago" esan zien eta soldadu batek "Para el viaje que vas a hacer no te hace falta chaqueta" erantzun zion". **(Jose Marik)**

"Ataungo batek eraman zuen txamarra etxera, erlojuarekin". **(Jose Marik)**

"Ataunen hil zuten, Lizarrustira igotzeko bidean, igotzen hasi eta kilometro bat edo kilometro eta erdira; Ataungo Aiako bat lanean ari zen basoan, kamioi bat etortzen entzun zuen eta harritu egin zen. Bi lagun ikusi zituen jaisten, horietako bat gure aita. Lizarrustira begira jarri, hil, bide-bazterrean utzi eta alde egin zuten. Orduan pertsona hura Aiako apaizarengana joan zen bi gorputz zeudela esatera, eta apaiza eta bera joan ziren haiei lur ematera, Ataungo Aian, baina ez dakigu zehazki non. Apaiz hori gero desterratu egin zuten". **(Jose Marik)**

"Ama fabrika haundira joan zen ea gure aita non zegoen galdezka, eta han galdetu zuen aitarengatik, eta batek erantzun zion: "Ez ibili haren bila, hura dagoen tokian ondo dago-eta!". Hura Argiñano zen, orduan CAFen guarda moduan lan egiten zuena. Gero ez zigun aurpegirik sekula eman. Gizon hura gaiztoa zen, hildakoen ondorengoa den edonork esango dizue. Susmoa badaukagu bera izan zela aita salatu zuena". **(Biek)**

"Gure lehengusina bat, Vianatik etxera etorri zen amari laguntzera. Okupazioko indarrek ilea moztu zioten, "¡Arriba España!" bati indarrez ez erantzuteagatik. 19 urte zituen. Gure amak esaten zion burua zapi batez tapatzeko, eta berak ezetz, moztu ziotenen lotsarako zela". **(Jose Marik)**

"Behin gure ama eta lehengusina hori Argiñano horrengana joan ziren aitagatik galdetzera, eta berak hau esan zien: "para los que los han llevado por ahí, lo mejor es rezar un Padrenuestro". **(Jose Marik)**

"Olaberrian, gure tabernarako esnea saltzen zigun bati esan zioten: "taberna horretakoei esnea saltzeari utzi behar diozu, bestela beste zer edo zer gertatuko zaizu", eta saltzailea ausarta zenez hala erantzun zion: "gaur gauean nik neronek eramango diet esnea". **(Jose Marik)**

or.

"Lazkaomendiko eskolaren paretan kontra Beñaran kapitaina hil zuten". **(Jose Marik)**

"Gerran zehar eskopetak kentzen zizkieten baserritarrei. Guk ganbaran gorde genituen". **(Jose Marik)**

"Gure amak, Beasaina etorri zenean, taberna jarri zuen. Baina bizitza oso zail egin zioten erregimenekoek Olaberrian". **(Sarak)**

"Alustiza, Olaberriko apaiza, oso gaiztoa zen, eta bertako "Mugimenduko herriko buruzagia "Jefe Local" delakoa ere bai. Horrek bandera espainola jarrarazten zion gure amari, bestela Guardia Zibilaren kuartelera joan behar". **(Biek)**

"Taberna 11etan itxi behar genuen, bestela isuna zegoen. Askotan beste tabernakoak, frankistak, gure tabernara etortzen ziren hamaikak hamar gutxiagotan, gero luzatu eta gure kontrako isuna eragiteko". **(Jose Marik)**

"Nik ezin izan nuen komunioa besteekin batera egin, goizeko zazpietan egin behar izan nuen, fusilatu baten alaba nintzelako". **(Sarak)**

"Behin Argiñano hura etorri zen, askotan sartzen zen gu iraintzera: "¡Los Bujanda no me quieren!" esaten zuen. Guk ezin genuen bota. Behin sukaldera sartzen saiatu zen, eta anaia Jose Marik esan zion "Hi tabernatik ezin haugu bota, baina sukaldean ez haiz sartuko!". "Amarekin hitz egin nahi dut!" esaten zuen, eta Jose Marik ezetz eta kanpora joan zen. Beasaingo festa batzuen bezperan izan zen. Gau horretan bere burua bota zion trenari. Gurekin egon aurretik beste bi etxetan ere izan zen". **(Biek)**

"Beste bi etxetan ere egon zen, horietako bat, ziur aski, Agripinaren etxea (Igartuatarrena) izango zen". **(Sarak)**.

"Gerraren ostean, sermoia erdaraz, meza erdaraz, dotrina erdaraz". **(Sarak)**

"Guk bageneukan irakasle bat, Segoviatik etorri zena, eta espainieraz "¡Buenos dias!" esan ordez "¡Arriba España!" esaten zuen. Haren aurrean euskaraz hitz egiten bazen, hamar zentimoko isuna jartzen zuen. Bai eskolan zein eskolatik kanpo". **(Jose Marik)**

"Guk behintzat erdaraz zer edo zer bagenekien, eta beno, molda gintezkeen, baina bazeuden baserritarrak euskara besterik ez zekitenak". **(Jose Marik)**

Gamarra Larrauri AMAIA
(Beasain, 1956-09-08)

Eduardo Gamarra **gudari eta militante komunistaren alaba.**

Beasainen 2014ko abuztuaren 1ean egindako elkarrizketa (gaztelaniaz).

"Frankistak sartu zirenean, nire aiton-amonak bai, Beasainen zeuden, baina ama Donostian zegoen".

"Donostia hartu aurretik, abuztuan, mairuen beldurrez Bizkaira joan zen, Durangora".

"Durangoko bonbardaketa ikusi zuen eta handik Bilbora egin zuen. Bilbotik Bretainiara joan zen errefuxiatu moduan".

"Nire aita gudara eraman zuten Oriamendi mendira. Ume bat zen. Nire izebak joan behar izan zuen Jesus Larrañagarengana nire aita ume bat zela eta gudara ez eramateko esatera. Aitak sekula ez zion hori barkatu izebari, berak gudara joan nahi zuen-eta".

"Frankistek Donostia hartu zutenean, aitak Donostiatik ihes egin zuen, eta Frantziatik, Kataluniara joan ziren, Katalunian errefuxiatuta egon ziren, Jaurlaritza eta Generalitaten arteko hitzarmen bat zela bide Granollersen egon ziren".

"Nire aita Errepublikaren Armadan sartu zen, karabinero bezala Generalitaten gorputz baten. Kuartela Seu d'Urgell herrian zuten".

"Atxilotua izan zen eta militarren kontzentrazio-esparru batean egon zen. 1940an irten zen".

"Beste hiru katalanekin batera atxilotu zuten. Hiru haiekin beti mantendu zuen adiskidetasuna".

"Garai hartan elkartasun handia jaso genuen. Gipuzkoarrok Bizkaian elkartasun handia jaso genuen. Nire amak Bretainian ere elkartasun handia jaso zuen. Katalanek ere ondo hartu gintuzten eta guk katalanei asko eskertu beharko genieke hori. Beste herrien elkartasuna ezin dugu sekula ere ahantzi".

"Nire semeari erakutsi nizkion nire aita gudan ibili zen tokiak. Ezin dugu hori ahantzi".

"Nire aita 1945ean etorri zen Beasainera. CAFen egiten zuen lan. Han Alderdi Komunistaren taldetxo bat zegoen eta CAFerako bidean Errepublikaren bandera eta ikurrina jartzen zituzten. 1948an atxilotu egin zuten, San Joan egunean. Etxean atxilotu zuten, bi guardia zibilek. Horietako bat Guardia Zibiletik irten egin zen eta Beasaingo herritar gisa bizi izan zen. Lazkaoko bat ere atxilotu zuten. Lagun batek ihes egitea lortu zuen eta Capbretonera joan zen bizitzera".

"Atxilotu osteko lehen Gabonetan, fabrikako bat joan zitzaion diru-kopuru batekin. Fabrikan bildu zuten diru hura presoentzat".

"Nire aita preso zegoenean, hiru bilbotar gerrillari atxilotu eta fusilatu egin zituzten. Kartzelan gose-greba egin zuten".

"Kartzelatik baldintzapeko askatasunean irteteko 10.000 pezetako bermea jarri behar izan zuen. Berme hori Indar fabrikako nagusi ziren Larrañaga eta Ormazabaldarrek ordaindu zuten".

"Pertsona batzuek nire amari bizitza oso zail egin zioten. Ez dut aipatuko nortzuk, familia bizirik dago-eta. Untzuetatarrak ez, ordea, horiek hobeak ziren. Nire aita atxilotu zutenean, Untzueta nire amarengana joan zen esatera, bera joango zela Guardia Zibilekin hitz egitera".

"Gonzalezek lege bat atera zuen Armada errepublikanoan egon zen jendearentzat pentsioa kobratzeko. Hala ere 18 urte egon behar izan zuen aitak pentsioa kobratu gabe eta bere atxilo-aldiko lagun katalanei esker lortu zuen azkenean".

"Nik hori dela-eta, katalanekin adiskidetasun handia mantendu dut beti".

or.

Garcia Bergara JABIER
(Beasain, 1941-02-27)

Herriko hainbat testigantza jaso dituen gizona.

Beasainen 2014ko uztailaren 3an eta 2014ko uztailaren 22an egindako elkarrizketa (bi partetan; gaztelaniaz).

"Frankistak Beasainen sartu aurretik, Beasainen emakume batzuk sartu ziren, hiru zehazki, eta Beasaingo agintariak engainatu egin nahi izan zituzten, Beasainen ez zirela sartuko esanez. Beasainen ez zen defentsarik prestatu".

"Nire izeba Dionisia Bergarak esan zuen, Estanda enpresaren gainean zegoen menditik jaitsi zirela "nafarrak". Hortik Antzizarrera jaitsi ziren. Sorobideeta bidea hartu zuten, bide estrategikoa. Orduan, nire izebak eta familiak etxea itxita utzi zuten, balkoietan izara zuriak jarrita utzi ondoren".

"Sorobideetatik gora igo ziren nire senitartekoak eta soldadu errepublikano batzuekin egin zuten topo. Haiek esku-bonbak zituzten. Ziur aski, haiek erreketeei geltokitik bota zizkieten gero".

"Senpereko Altuna baserri ingurutik Molaren tropei balak bota zizkieten. Gero Molaren tropek baserri horretako jabeari, Sarriegi bati, bi arma ekartzeko eskatu zioten, bestela fusilatu egingo zutela. Kostata topatu zituen arma haiek".

"Guardia Zibilek Udaletxeko dorretik botatzen zituzten tiroak erreketeen kontra. Cortes bertan zegoen".

"Gau batean eibartar milizianoak etorri ziren, kamoi batean".

"Eibartarrek eskopeta nahiko onak zituzten. Nik ezagutzen dut halako eskopetaren bat topatu zuenik".

"Miliziano batzuk, duela gutxi arte Loinatz taberna izan denaren gainetik tiratzen zuten. Erreketeek Kale Nagusian hondatuta zegoen etxe batetik. Oso hurbileko tiroketa izan zen".

"Geltokiko etxetik milizianoek etxeko bonbak bota zizkieten erreketei, eta gero joan egin ziren. Erreketeak etxe horretan sartu zirenean, han bizi ziren senar-emazteak, zaharrak zirenak, hil egin zituzten".

"Ramon Crespo hil zutenean, bere emazte Joana Alustizak ezin izan zuen etxearen errenta ordaindu. Jose Luis Guridiren etxean bizi zen eta handik joan egin behar izan zuen. Gure etxe azpian bizitzen jarri ziren, Andre Mari kalean".

"Nire amonak kontatu zidan Matias-eneko torturatuen garrasiak entzun egiten zirela".

"Beñaran Nafarroa etorbidean zegoen mortari batekin. Mortaria lehertu zenean, ezkaratz edo atari batean atxilotu zuten".

"Beñarani hankak zerra batekin moztu zizkioten, azkazalak aliketaz atera eta bibotea eta genitalak erre zizkioten. Matias-enean izan zen hori. Nik susmatzen dut Guardia Zibil guztiei hori egin zietela. Haiek hilerriaren atzeko aldean erre zituzten".

"Nik entzun izan dut hiru pila egin zituztela hildakoekin, hiru zulotan"

"Nire amari entzun izan nion beste emakume bat ere hil zutela, Ezkiaga auzoan, kulatakadak emanda".

"Fusilatuen emazteei ilea zerora moztu zieten, errizino-olioa eman zieten eta musika-bandarekin kalejiran atera-arazi zituzten herrian zehar. Horiek Cresporen, Uribe-Etxebarriaren eta Mendiaren alargunak izan ziren, ziur; baina fusilatu guztien alargunekin berdin egin zutela uste dut".

"Behin Agapito Oiarbide joan zen Rufo Artolain zinegotzi karlistarengana esanez, ea Bergararekin zer egin behar zen, eta Artolainek esan zion, "Bergara ez ukitu! Herri honetan odol asko isuri dugu!". Gero Oiarbide horrek bere burua bota zuen".

“Gure auzokidea, Anastasio Elgea, Guridiren langilea zen. Bera eta Guridi hilerrian egon ziren, jendea fusilatu zutenean. Anastasiok zioen, hildakoak erail eta gero, hanketan soka bat lotu eta horrela arrastaka eraman zituztela zulo komunetara”.

“Behin Elizan, urte batzuen ondoren, Jose Luis Guridi topatu genuen. Beroki urdin batekin zegoen. Bertan zegoen Muñoz, inprimategikoa ere. “Zer moduz zaude?” galdetu genion eta berak erantzun, “hemen barruan (bularrean) min handia dut, fusilamenduetan presente egotera behartu nindutenetik”.

“Frontea Bergaran zegoen artean, hiltegian animalia asko hil zituzten armada frankista elikatzeko”.

“Ordiziatik Bergararantz, Beasainen gainean 20 metrora, hegazkinak oso baxu pasatzen ziren, Bizkaiko frontea txikitzera joaten ziren”.

“Goierrin apaiz batzuek, atxilotu beharreko pertsonen zerrendak zituztela kontatzen zen”.

“Behin Pablo Cayuelak errieta egin zien beasaindar batzuei “ezkerrekoen eta komunisten herria” zela-eta. Fernando Labordek esan zidan hori”.

“Viktoriana Gomez batek esan zidan behin, 1936an, Elizan eskuineko preso-ohi bat egon zela santu bakoitzari helduta”.

“Aguado batek, erregimenekoak, gestionatzen zuen bonben produkzioa Beasainen militarizatutako fabriketan”.

“Beasainen, frontean zeuden matxinatuen soldaduentzako arropa josi zuten eta jarduera horren buru emakume falangista batzuk izan ziren”.

“Epifanio Argiñano eta Pepi Gonzalezen artean Urbietako zubian istilu bat izan zen behin. Gonzalezek Argiñanori leporatu zion bere aita hiltzearen errudun izatea (Teodomiro Gonzalez Asturiasen hil zuten). Argiñanok burua jaitsi omen zuen”.

“Nire aitonak sekula ez zidan gudari buruzko ezer kontatu”.

“Nire amonak esan zuen frankistek ez zutela guda egin erlijiogatik, politikagatik baizik. Ez zituzten zibilak errespetatu”.

“Erregimeneko baten semeak normalean jo egiten ninduen, burua plazako burdinen kontra zanpatzen zidan”.

“Gudan borrokatu zutenetako askok, gudaren ondoren Elizara joateari utzi egin zioten, Elizaren portaera zela-eta. Adibidez, nire Ordiziako familiak, nire aitak eta bere anaiek joateari utzi egin zioten”.

“Alemaniarrak Idiazabalen, Etzegaraten, neurriak hartzen eta estudioak egiten ibili ziren”.

“Beasainen errazionamendua norbere eraginen araberakoa izan zen”.

“Estraperloarekin jende batek dirua egin zuen hemen, Beasainen”.

or.

Garmendia Goitia AITOR

(Beasain, 1934-06-18)

Beasainen sartu ziren tropek bere familiaren etxea okupatu zuten.

Beasainen, 2014ko uztailaren 16an egindako elkarrizketa (euskaraz).

"Gure auzoan, Antzizarren, tunelean, formazioan ibiltzen ziren karlista beasaindarrak, entrenatzen. Haietako askok gero herrian pisua izan zuten".

"Gure aitaren baserria (Antzizar) izan zen eurek hartu zuten lehena. Salaketa jarri ziguten izen gogorrekin. Nik orduan urtebete nuen".

"Etxea hartu zuten errekete horiek, gehienak nafarrak ziren, baina ez euskaldunak. Gure etxea hustu egin zuten; maindireak eta abar eraman egin zituzten. Ordurako alde eginda geunden".

"Beasainen sartu zirenean, amonak ni besoetan ninduela ihes egin zuen, Antzizartik eta Loinaztik aiton-amonen baserrira joan ginen, Gudugarretara. Amonari tiro batzuk bota zizkioten".

"Emakumeei emandako tratua oso txarra izan zen. Emakumeei ilea mozten zieten eta errizino-olioa edanarazten zieten. Nik ez nuen ikusi, baina denek komentatzen zuten. Hori bai, izenik ez dakit, ez zidaten halakorik kontatu".

"Nire aita kartzelan eduki zuten Beasainen eta bertan Azkoitiko frontean hiltzen zuten frankista bakoitzagatik hogei fusilatuko zituztela esan zien soldadu batek. Bi hilabete inguru egin zituen".

Askatzerakoan "ponte la chaqueta" esan zioten. Berak uste zuen fusilatzera eramango zutela. Irteterakoan "que no te veamos en la calle ni en ningún sitio" egin zioten mehatxu. Etxera bidean zihoala, Karolaren etxe parean, emakume bat, Anjeles, irten zitzaion eta "zargalduta zaude!" esan zion. "Zer esan dizute?" galdetu zion eta berak "kalean ez nautela ikusi nahi". Orduan handik ez joateko eta atzetik joateko esan zion eta trenbide aldetik Igartzako errotara joatea aholkatu zion. Gauzak horrela, ihes egin behar izan zuen, Olaberria aldera, aitak esaten zuen emakume hark bizia salbatu ziola".

"Behin lapikoa lapurtu zioten amonari erreketeek. Nire aitonak esan zuen "deje eso, que con la comida de la familia no juega ni Dios!" Orduan erreketeak apuntatu egin zuen armarekin eta aitonak "A ver quién tiene más cojones si tú apuntando o yo esperando". Eta erreketeak apal-apal utzi omen zuen lapikoa bertan.

"Apaizen artean ere denetik zegoen. Batzuen aurrean hizketa egiteko beldur pixka bat bagenuen".

"Apaiz batek, sermoi batean esan zuen "supongo que aquí no habrá ningún rojo, ningún separatista!". Ni eta beste bat zerbait esatera joan ginen, baina CAFeko maisu batek geldiarazi gintuen "egon zaitezte, hor ez diagu ezer irabaziko eta galtzeko asko izango diagu" esanez.

"Gerra pasa eta 30 bat urtera, artean Franco agintean zela, Vatikanoko II. Kontzilioa egin zuen Elizak. Frankismo garaian, ordura arte, Udalekoak Meza Nagusira joaten zirenean, organoa jotzen zutenetako batek, mezerdikoan Espainiako ereserkia jotzen zuen organoan. Hunolt alkate zela, egun batean pertsona hori ez zen joan eta beste organo-joleek ez zuten jo nahi izan. Orduan, Hunolt alkateak, Erretoreari (On Segundo Dorronsorori) deitu eta ereserkia zergatik ez zen jo galdetu zion. Erretoreak esan zion ordura arte jo zela baina ordutik aurrera ez zela joko, ez hori eta ez beste ezer, izan ere Vatikanoko II. Kontzilioaren ondorengo erabakien arabera, mezerdia isiltasun eta gogoeta-giro osoan igaro behar zela eta hala aginduta zegoela. Hunolt alkateak handik aurrera, Udal-banda eramaten zuen segizioan elizara eta banda eliza-atarian gelditzen zen, eta mezerdia iristean, frankista batek ateak ireki eta bandak eliza-atarian Espainiako ereserkia jotzen zuen. Umekeria zen. Ni ere gonbidatu ninduten Espainiako ereserkia organoarekin jotzera baina nik ez nuen sekula jo".

Ibaibarriaga Usabiaga ARANTZA eta PEDRO MARIA

(Beasain, 1941-07-16) (Beasain 1943-02-27)

Alfontso Ibaibarriaga Usabiaga **gudari eta militante abertzalearen seme-alabak. (Elkarrizketan Martin Dorronsororen esaldiren bat tartekatzen da).**

Donostian 2015eko irailaren 15ean egindako elkarrizketa (euskaraz).

"Bai aita, Alfontso Ibaibarriaga, zein aitona, Pedro Usabiaga, oso ezagunak ziren jeltzaleen artean". **(Biek)**

"Beasainen Errepublikazaleek indar handia zuten. EAJri kosta egin zitzaion indarra hartzea. Beasainen sozialistak eta CNTkoak indartsuak ziren, nahiz eta gero, EAJ ere gorantz etorri zen". **(Pedro Marik)**

"Aitak (Alfontso Ibaibarriagak) oso harreman ona zuen sozialistekin eta anarkistekin. Anarkistak oso kultuak zirela esaten zuen, haiekin asko ikasi zuela". **(Pedro Mari Ibaibarrigak)**

"Errepublika-garaian konpetentzia zegoen Batzokiaren eta Trenbideko Joko-Elkartearen artean, gazteak nork erakarriko. Gazte gehienak Trenbidekora, "ferrobiariara" joaten ziren, han dantza libreagoa zen-eta. Gure ama (Kristina Usabiaga Muxika) ere hara joaten zen eta aitona (Pedro Usabiaga) atean gelditzen zen, alaba non zebilen begira". **(Pedro Marik)**

"Karlista-talde bat zain egon zen Beasainen, matxinatuak noiz sartuko". **(Arantzak)**

"Aitak (Alfontso Ibaibarriagak) eta aitonak (Pedro Usabiagak) alde egin behar izan zuten, bestela hil egingo zituzten. Aitaren herrira, Ondarroara, joan ziren". **(Pedro Marik)**

"Beasainen kanposantuan hil zituzten". **(Arantzak)**

"Gure baserria, Andramendi, hilerriaren atzean zegoen eta dago. Gure amak esaten zuen, han, hilerriaren atzean hil zituztela, hilerritik kanpo, leihoa ireki eta gorpuak erortzen ikusi zituela". **(Martin Dorronsorok)**

"Gure amak zioen, Beñaran, "¡Viva la República!" esanaz hil zela". **(Arantzak)**

"Joxe Usabiaga ez zen erreketeek behartuta eraman zuten bakarra, talde bat eraman zuten. Haren koinatu bat ere eraman zuten. Pentsatzen dugu batzuk gainean egon zirela horretarako". **(Arantzak).**

"Gure aita (Alfontso Ibaibarriaga) armamentua egiten ibili zen gudan. Kantabria eta Asturias artean harrapatu zuten". **(Pedro Marik)**

"Aita Santoñan egon zen preso. Han zegoela seme bat jaio zitzaien, eta amak (Kristina Usabiaga) hara joan behar izan zuen, umea erakustera. Hura 1937an jaio zen". **(Biek)**

"Osaba (Joxe Usabiaga Muxika) behartuta eraman zuten errekete. Hark maisu-estudioak egin zituen, Donostian ikasten zuen, eta Realean fitxatzeko egon zen, baina aitonak (Pedro Usabiagak) ez zion utzi. Hura Beasainen kamuflatuta ibili zen, Zesareo Ugarte medikuak antolatutako kanpaina-erizaindegian erizain ibili zen, Ugarte laguna zuelako. Baina norbait konturatu egin zen eta salatu egin zuen, eta Oriamendi tertzioan errekete eraman zuten. Hala ere, bera ez zen frontean hil, frontetik etxerako bidean baizik". **(Pedro Marik)**

"Aita etxera itzulita, berriz atxilotu eta Langile Batailoira eraman zuten. Torrubian egon zen, trenbide berria, Cariñena eta Zaragoza artekoa, egiten". **(Biek)**

"Langile Batailoian, janaria oso txarra zuten". **(Arantzak)**

or.

"Eliza-atarian "caídos por Dios y por España" jartzen zuen plaka bat zegoen, eta bertan osabaren (Joxe Usabiagaren) izena zegoen. Urtero Falangekoek han omenaldia egiten zuten. Aitonari min handia egiten zion horrek. Trauma handia izan zen hori". **(Arantzak)**

"Urte batzuk geroago Beasaingo karlista bat belauniko jarri zen nire osaba baten aurrean eta barkamena eskatu zion, "zure familiari eginiko minagatik". Karlista horrek gero bere buruaz beste egin zuen, Argiñano zen". **(Arantzak)**

"Gizon hori (Epifanio Argiñano), azken urteetan gure gurasoen eta osaben inguruan eta besteen inguruan ibiltzen zen barkamen--eske". **(Pedro Marik)**

"Askatu ostean, Venezuelara joan zen aita eta urte batzuek han egin zituen". **(Biek)**

"Franco Donostiara zetorren bakoitzean kartzelara eramaten zituzten. Behin, Venezuelan zegoela, poz apur bat izan nuen "aita aurten ez dute eramango, Venezuelan dago-eta". 1951. urtea-edo izango zen". **(Arantzak)**

"Gurekin oso gaiztoa zen batek, agian jakinda ni nor nintzen, kontzientzia txarragatik-edo, bere dendara behar nuenaren bila joateko eskaintza egin zidan. Hark ere bere burua bota zuela esaten zen". **(Arantzak)**

"Kalean, Francoren garaian ez zen euskaraz tutik ere egiten". **(Biek)**

"Etxea zen euskara defendatzeko modu bakarra. Gure aitak esaten zuen "etxe honetako atetik barrura hizkuntza bakarra dago, euskara". **(Pedro Marik)**

"Mojetan, irakasle bakarra zen euskalduna, besteak erdaldunak. Bertako maisuak kanpora bidaltzen zituzten". **(Arantzak)**.

"Ogia estraperloan lortu behar zen, Ataundik edo Lazkaoko errotatik". **(Pedro Marik)**

"Gure osaba batek, Iraolak, pasteleroa zenez, hark ba beno, zerbait lortu ahal izaten zigun, opil txikiak eta abar". **(Pedro Marik)**

"Aitonak lursail batzuk zituen Olaberrian, eta han zer edo zer lortzen zuen, beharrak arintzeko". **(Biek)**

Ibarbia Sarriegi MARIA KARMEN (Beasain, 1941-04-25) eta Ibarbia Alustiza FELIPE (Beasain, 1932-03-18)

Jose Ibarbia Untzueta **fusilatuaren ilobak.**

Beasainen 2014ko ekainaren 19an egindako elkarrizketa (euskaraz).

"Errepublika ezarri zenean, batzuk beldur pixka bat izan zuten, fraideen kontra egingo zutela-edo, eta gurutzeak kenduko zituztela-eta". **(Mari Karmen Ibarbia Sarriegik)**

"Beñaran kapitainak Errepublikaren alde zin egin zuen. Frankistak sartu zirenean, kuartelean bertan (Ezkiaga auzoan) fusilatu zuten". **(Felipe Ibarbia Alustizak)**

"Etxe batzuk erre egin zituzten". **(Biek)**

"Uste dugu fusilamendu gehienak kanposantuan izan zirela". **(Biek)**

"Uste dugu hilerri barruan enterratu zituztela". **(Biek)**

"Gure etxetik, Usategitik, entzuten ziren torturen garraisiak". **(Mari Karmen Ibarbia Sarriegik)**

"Gure familiak hemendik alde egin zuen, baserri batera, San Martindik gora zegoen baserri batera. Gogoratzen dut bazkaltzen ari ginela. Eta gogoratzen dut nik arrozesnea nuela postrerako". **(Felipe Ibarbia Alustizak)**

"Nire aita (Jose Manuel Ibarbia Untzueta) mobilizatu egin zuten, Bernedo-enean zebilen lanean eta hura militarizatu egin zuten". **(Felipe Ibarbia Alustizak)**

"Nire aita (Eusebio Ibarbia Untzueta) Beasaingo kartzelan eduki zuten denboraldi batean. Batzokia zaintzen egon zen eta norbaitek ikusi eta salatu egin zuen. Hilabete pare bat inguru egon zen. Mantak eta janaria etxetik eraman behar izaten ziren". **(Mari Karmen Ibarbia Sarriegik)**

"Usategi baserrian, jaio nintzen baserrian, aitona behin belar-pilan ezkutatu zen. Erreketeek susmatu egin zuten norbait bazebilela han eta aitona belar-pilan sartu zen. Erreketeak belar-pila baionetekin zulatzen aritu ziren, baina ez zuten harrapatu. Hori bai, janaria eraman eta lapurtu egin zuten". **(Mari Karmen Ibarbia Sarriegik)**

"Gure etxean, Nafarroa etorbidean ere ateak apurtu eta koltxoia eraman zuten". **(Felipe Ibarbia Alustizak)**

"Nafarrak (erreketeak) nahiko harro sartu ziren". **(Biek)**

"Gure baserriaren beste bizitzan, Usategin, bi heriotza gertatu ziren. Osabak, mendian edo soroan-edo, granada bat topatu zuen eta etxera eraman zuen. Baserrira iritsi eta etxeko ama-alabei (Joana Martina Alustiza Goitiari eta Maria Ramona Lakarra Alustizari) eman zien. Haiek, zer zen oso ondo jakin ez eta espoleta askatu eta granadak eztanda egin eta ama-alabak hil egin ziren. Osaba bera, sukaldean zegoelako libratu zen "Zer egin dut? Zer egin dut?" oihuka atera zen handik. Gure aiton-amonek eztanda entzun eta kea ateratzen ikusi zuten". **(Mari Karmen Ibarbia Sarriegik)**

"Ni eta osaba bat, orduan mahatsa biltzen ari ginen, eskailera batekin. Danbateko horrek biok lurrera bota gintuen". **(Felipe Ibarbia Sarriegik)**

or.

"Gure osaba (Joxe Ibarbia Untzueta) arotza zen eta ELAko ordezkari bezala jarduten zuen. Tropak sartu zirenean alde egin zuen. Bizkaian atxilotua izan zen, handik Kantabriara eraman zuten, eta han beste hamalaurekin batera fusilatu zuten, Santoñan. Berarekin batera komunistak eta abar, ideologia guztietakoak fusilatu zituzten". **(Biek)**

"Ajuriagerra ere han hartu zuten preso, baina Alderdikoek (EAJkoek) trukatu edo kanjeatu egin zuten". **(Felipe Ibarbia Alustizak)**

"Gure amona enteratu zen semea preso zegoela eta Udaletxera joan zen galdetzera, bere anaia bat zinegotzi baitzegoen (Frantzisko Untzueta). Eta hark Ibarbia Santoñan ez zegoela zioen, azkenean erantzun zion "si hay que empezar a dar vidas por la Patria, empezaremos por la familia". Amonak hitza ukatu zion anaia hari". **(Mari Karmen Ibarbia Sarriegik)**

"Gutunetan, osabak (Joxe Ibarbiak) esan zuen lasai zegoela, Jauna hartu zuela eta agur esan zien familiako guztiei. Gero kapilauak ere idatzi zuen, kristau baten moduan hil zela eta abar". **(Mari Karmen Ibarbia Sarriegik)**

"Gure aitak (Eusebio Ibarbia) kapilauarekin hitz egin zuen, eta hark aitari esan zion "No entiendo cómo les tachan de rojos a unas personas que han muerto gritando "¡Viva Cristo rey!". **(Mari Karmen Ibarbia Sarriegik)**

"Beste osaba bat (Jesus Ibarbia Untzueta) Gasteizen preso egon zen, Bilbon izan zen atxilotua. Haren beste anaia bat, Anjel Ibarbia Untzueta, Francoren alde mobilizatu zuten, behartuta. Zazpi urte ibili behar izan zuen armadan". **(Biek)**

"Gure aitari gauzak zailak jarri zizkioten, edozertarako baimenak-eta zaildu egiten zizkioten". **(Mari Karmen Ibarbia Sarriegik)**

"Agintari frankisten artean, jendea asko lagundu zuena Joxe Aranburu "Santineko okina" izan zen. Hark salbokonduktuak eta abar ematen zituen". **(Felipe Ibarbia Alustizak)**

"Argiñanotarrak okerrago portatu ziren. Denak ez, baina euren artean, batzuk, Jesus Argiñano, Dibisio Urdinean egon zena eta Epifanio, erreketeen tenientea, eta haien arreba Felisa… oso gaiztoak ziren". **(Biek)**

"Santiago Muñoz, Ezkiagaren inprimategian lan egiten zuena, oso gaiztoa zen. Hark esaten zuen desfileetara joaten ez zena hil egin behar zela. Hark ere bere buruaz beste egin zuen, balkoitik bere burua botata". **(Felipe Ibarbia Alustizak)**

"Beldur handia zegoen agintariekiko. Behin bati, Frantzisko Ezkiagaren etxean kafea zerbitzatzen ari zela, tanta bat erori eta sekulako beldurrarekin itzuli zen etxera". **(Felipe Ibarbia Alustizak)**

"Ines Manso izeneko emakume bati ilea moztu zioten zerora eta errizino-olioa eman zioten, eta dena zeriola Beasaingo kaleetan zehar erabili zuten. Baina bera ausarta izan zen, eta tente joan zen, "nirekin ezin duzue!" esanez. Porteriako Lamata bati ere gauza bera egin zioten". **(Biek)**

"Gure ume-garaian, eskolan, euskaraz egiten bagenuen, zigortuta gelditzen ginen. Astean bizpahiru egunetan gelditu behar izaten genuen, bostetan irten ordez, zazpietan irteten ginen (La Salle eskolan). Egunero besoa jaso behar izaten genuen eta Cara al Sol *abestu".* **(Felipe Ibarbia Alustizak).**

Imatz Crespo JOAN RAMON
(Beasain, 1959-12-25)

1936ko uztailaren 27an Beasainen eraildako *Ramon Crespo Igartzaren* biloba.

Beasainen 2014ko abuztuaren 5ean egindako elkarrizketa (gaztelaniaz)

"Nire aitonari "Pajareroa" deitzen zioten txoriak asko maite zituelako. Artista zen, edozein txori harrapatzeko gai zen. Ez dakit zein zen bere ofizioa. Jatorriz Santanderkoa zen".

"Frankistak Beasainen sartu zirenean, denak Elizara joateko agindu zuten. Baina nire aitonari (Ramon Crespo Igartzari) alaba falta zitzaion, idazkariaren etxean lan egiten baitzuen. Aitonak amonari esan zion Elizara joateko, bera alabaren bila zihoala eta gero joango zirela Elizara. Orduan atxilotu zuten".

"Gizon karlista bat (Izagirre) bere defentsan atera zen, ez dakit balkoian zegoelako-edo. Karlista horrek esan omen zuen "pertsona hau ona da, utz ezazue bakean. Orduan biak fusilatu zituzten".

"Nire beste aitona (Inaxio Imatz) Santoñan atxilotu zuten italiarrek. Beasaingo jendea joan zen zerrenda batekin hara eurak atxilotzera. Tartean apaiz bat eta Argiñano bat…, gero suizidatu egin zen azken hori, hala uste dut. Italiarrek esan zuten, ordea, haiek euren presoak zirela eta ez zituztela berehala fusilatuko".

"Gure amonek ez zuten gudaz ezer kontatu nahi izaten, ez zuten gogoratu nahi".

"Franco Donostiara zetorren bakoitzean, nire aitona Inaxio Imatz kuartelera atxilotuta eramaten zuten".

*"**Cara al Sol** abesten ez bazenuen, ezin zenuen jantoki sozialetan jan".*

"Estraperloa zela-eta hortik zehar ibili behar zen janariak lortzeko. Nire aitona Inaxio Imatzen auzokidea treneko makinista zen. Biak behin Agurainera joan ziren patata-bila tren-makinan. Bueltan, bi Guardia Zibilekin topo egin zuten, eta Altsasura eramateko eskatu zieten. Guardia Zibilek zaku-patata ikusi eta aitonak "hau nirea da!" esan zien baina konfiskatu egin zioten. Orduan makinistak esan zion "badakit non ezkutatu duten zakua, orain nik ardoa edatera eramango ditut eta zu sartu hor". Aitona orduan han sartu zen, gela hartan, kristala puskatuta eta orduan konturatu zen, han, txistorra, txorizoa eta abar ere bazeudela. Zaku-patata erdia hustu eta txorizoz eta abarrez bete ondoren gorde egin zuen. Makinista harritu egin zen eta "joder, jakin izan banu ez nizun ezer esango!" esan zion. Beasainen biltegi batean deskargatu zuten zakua, eta, makinistak, sarraila hautsita gauez hartu zuen".

or.

Irizar Aranburu IXABEL eta TERESA

(Beasain, 1952-07-03) (Beasain, 1956-05-17)

Antonio Irizar Zurutuza **hildako gudari lazkaotarraren ilobak.**

Beasainen 2014ko uztailaren 9an egindako elkarrizketa (euskaraz).

"Antonio Irizar kaputxinoetan zegoen eta meza emateko zegoen, uste dugunez Zangozan. Baina gaixotu egin zen eta atseden hartzeko etxera ekarri behar izan zuten". **(Teresak)**

"Beste batzuen arabera, oso goiz bukatu zituen ikasketak eta artean goizegi zuen meza emateko. Agian musika-zaletasuna tarteko, hemen musika-eskolan ibiltzeko etorri zen, Mezatan zegoela guda piztu zen". **(Ixabelek)**

"Bere anaia bat, Martin Irizar Zurutuza ere kaputxinoa zen. Gure aita (Joan Migel Irizar) ere Altsasun zegoen horretarako. Berak zioen guda izan ez balitz (14-15 urte zituen) gu ez ginela jaioko, berak han jarraituko zuelako. Baina etxera bidali zuten, bere anaia "gorriekin" joan zelako" **(Teresak).**

"Antonio Irizar, etxean, komentutik etorrita zegoela guda piztu zen. Bera beste beasaindar batzuekin batera mendira joan zen, Murumendira. Besteetako bat Maximo Aranburu omen zen. Eta Urangatarretako bat ere han zen". **(Ixabelek)**

"Antonio Irizar Olaetan hil zuten 1937ko apirilaren 3 eta 4 artean. Amaiur Batailoiko kidea zen. Kapitaina bere lehengusua zen, Bonifazio Apalategi, gero Ordizian Txindoki taberna izan zuena. Bonifazio heriotzara kondenatua izan zen". **(Ixabelek)**

"Hil zen gauean, zaintza zuen. Eta horretan tiroz hil zuten. Badirudi nahiko gertutik egin ziotela tiro." **(Ixabelek)**

"Osaba Nikomedes Irizar Zurutuza Santoñan preso sartu zuten eta langileen batailoian ibili zen". **(Teresak)**

"Gure aitak (Joan Migel Irizarrek) 25 pezetako isuna ordaindu behar izan zuen, bere anaia hil ziotela kontatzen salatari batek entzun eta salatu zuelako". **(Teresak)**

"Gure aita (Joan Migel Irizar) Loinatz koralaren zuzendari izan zen. Urriaren 12an gaizki pasatzen zuen, Guardia Zibilak Espainiako ereserkia jotzea nahi izaten zutelako eta berak ez zuen nahi izaten". **(Ixabelek)**

"Behin erreferendum batean parterik hartu ez zuelako kuartelera deitu zuten". **(Teresak)**.

"Gure familia oso ezaguna zenez, agintariek errespetatu beste biderik ez zuten izaten, baina jakinda bakoitza non zegoen". **(Ixabelek)**

"Gure aitaren familian gose-gosea ez dakit, baina estualdiak pasatu zituzten. Agian gose handirik ez, gure amona sukaldaria zen eta oso trebea izan zen. Gure aitak beti esan izan zuen "Gosea? Isildu zaitezte, zuek ez dakizue gosea zer den!". **(Biek)**

"Gure aitak etxean asko egiten zuen guk euskaraz egin genezan. Umandiren gramatika ere erosi zuen, Xabiertxo ere bai, eta Zeruko Argiaren harpidedun zen". **(Ixabelek)**

"Erdararen erabateko presentzia horrek euskara erdi-galtzera eraman gintuen. Kontzientzia hartu genuenean berreskuratu egin genuen. Etxeko euskal giroarekin soilik oso zaila zen euskaldun irautea". **(Teresak)**

Alonso Garate AMAIA, Alonso Lamata JOSE MARIA, Alonso Lamata SARA eta Lamata Villahoz ANJEL

(Beasain, 1976-04-18) • (Beasain, 1941-01-31) • (Beasain, 1946-02-06) • (Beasain, 1945-02-21)

Beasainen 1936ko uztailaren 27an eraila izan zen *Victoria Huergo Toferen* senitartekoak.

Donostian 2014ko uztailaren 17an egindako elkarrizketa (gaztelaniaz).

"Nire aita (Frantzisko Lamata) sozialista zen, eta Beasaingo sozialismoa zuzentzen zuenetako bat. Politena tabernaren (gaurko Basakana) gainean zegoen sozialisten egoitza. Nire aitak esaten zidan han ordu asko pasatzen zituela". **(Anjel Lamata Villahozek)**

"Familian bertsio ezberdinak entzun ditugu Viktoria Huergoren hilketaz. Niri kontatu zidaten baratzera joan zitzaizkiola, "toque de queda" bat errespetatu ez zuelako". **(Amaia Alonso Garatek)**

"Nire bertsioa herrian entzun nuen. Tinta-fabrikaren ondoan auto bat erretzen ari ziren eta Viktoriak esan zien autoa han ez erretzeko, sute bat sor zezaketela-eta. Viktoria preso hartu zuten. Gero Ugarte batek esan zien ea nora zeramaten emakume hura, eta orduan, Ugarte ere preso hartu zuten". **(Anjel Lamata Villahozek).**

"Gure etxean gutxi hitz egiten zen horretaz. Bagenekien amona (Viktoria Huergo) fusilatu egin zutela eta baratzean aurkitu zutela". **(Sara Alonso Lamatak)**

"Beste bertsio baten arabera, gure amona, Viktoria Huergo, kalean harrapatu zuten, bere ahizpari tipula batzuk zeramazkionean. Uribe-Etxebarria batek, inprenta zuenak, esan zien "nora zoazte hamaika umeren ama den emakume horrekin?", eta bera ere eraman egin zuten". **(Jose Mari Alonso Lamatak)**

"Agian Viktoria Huergo ere, Matias-enean egon zen, beste senide batzuek hori diote-eta" **(Anjel Lamata Villahozek).**

"Ikusten da hamaika seme-alaben ama bat hil zutela, hortik aurrera, ikusten den bezala, bertsio asko daude gertakariaz". **(Amaia Alonso Garatek)**

"Ez dakigu non lurperatu zuten, baina legenda beltz asko dago". **(Amaia Alonso Garatek)**

"Madrileko "La Voz" egunkarian jartzen duen gertaeraren deskripzioa ez zait gustatu, Viktoria Huergo han zegoela-eta, arropak puskatzen zituela gauean-eta... beno agian gaixotasunen bat izango zuen, baina ez dakit zein puntutaraino den egia hori; baina bi seme hil zizkiotela ez da egia, gudan ibili ziren-eta. Beraz, hori adierazi zuena ez zegoen guztiaz ondo informatua. Errua gure gain botatzea besterik ez du lortu horrek". **(Amaia Alonso Garate eta Anjel Lamata Villahozek)**

"Viktoria Huergoren bi seme, Frantzisko Lamata Huergo eta Tomas Lamata Huergo, gudan ibili ziren eta gero kartzelan egon ziren. Nire aita Frantzisko Lamata Ormaiztegiko zubia botatzen aritu zen, Santanderren edo Santoñan atxilotu zuten. Santoñan, Bilbon eta Cadizen egon zen preso. Tomas Lamata eta Timoteo Alonso Hernando (Viktoria Huergoren suhia) ere, preso egon ziren. Timoteo Alonso Tolosan alistatu zen gorriekin. Berak zioen gudan ez zuela inor hil"." **(Denek).**

"Timoteo Alonso Hernando Asturiasen ibili zen langile-batailoian, aireportu militarra egiten. Gero Luzia Lamata Huergorekin ezkondu zen". **(Jose Mari Alonsok eta Amaia Alonsok)**

"Timoteo langile-batailoian (Asturiasen) preso zegoela, nire aita (Jose Mari Alonso Lamata) jaio zen. Timoteo Alonso egun hartan ez zen lanera joan eta ilea moztu zioten". **(Sara Alonso Lamatak).**

or.

"Timoteo Alonso eta Luzia Lamata, San Adrianen, Nafarroan, bizi izan ziren gudaren ondoren. Han soroan lanean ari zen beste bikote batekin topo egin zuten, euren adin bera zuten. "Zuek Beasaingoak zarete, ezta?" galdetu zieten. Haiek baietz. "Guk han emakume bat fusilatu genuen" esan zieten. Gure gurasoak zur eta lur gelditu ziren. Hori aitak, hiltzear zegoela esan zigun. Hori bai, San Adriango haien izenik ez zigun esan. Uste dut, ez zietela ezta emakume hura euren ama zenik ere esan". **(Sara Alonso Lamatak eta Jose Mari Alonso Lamatak).**

"Egia da, bagenekiela nor zen "euretakoa" edo "eskuinekoa" eta nor zen "gureetakoa" edo "ezkerrekoa", baina azkenean denok elkarrekin ibiltzen ginen. Nik "haien" familietako semeekin jolas egin dut. Gu ez gintuzten ezberdintasun horretan hazi. Ez dut halako pikerik ikusi, baina egia da ni 1945ean jaio nintzela, eta ez guda ondoren berehala". **(Anjel Lamata Villahozek).**

"Egia da gudari buruz hitzik ez egiteak, modu batean, aurrera egitea ahalbideratu zuela, gertatutakoa izugarria baitzen". **(Sara Alonso Lamatak).**

"Nire izeba batek, Feli Alonso Lamatak, esaten du, orain ulertzen duela amonaren isiltasuna". **(Amaia Alonso Garatek)**

"Oso harro gaude Amaia Alonsok gure familiaren historia gogorarazteko egin duen lanaz". **(Sara Alonso Lamatak)**

"Niretzat hau aukera bat da, nire familiaren historia gogoratzea beharrezkoa baita". **(Amaia Alonso Garatek)**

Larrañaga Agarrista ROSA eta Atxaga Larrañaga MIREN

(Donostia, 1934-07-26) (Donostia, 1925-01-12)

1942an fusilatua izan zen *Jesus Larrañaga* zuzendari komunistaren alaba eta iloba.

Gasteizen 2015eko maiatzaren 26an egindako elkarrizketa.

"Nire aitaz oso oroitzapen gutxi ditut. Ni lau urterekin, 1938an, Bartzelonatik SESBera (Sobiet Batasunera) joan nintzen". **(Rosa Larrañaga Agarristak)**

"Nire aita Oriokoa zen, pilotaria, baina fundamentu gutxiko gizona. Nire ama beasaindarra zen (Maria Josefa Larrañaga), apartatu egin ziren. Artzai Onaren ondoko etxe batera joan ginen bizitzera, amona han etxe batean atezaina zelako". **(Miren Atxaga Larrañagak)**

"Gu sekula ez gara Beasainen bizi izan, gurasoetako bat (baten aita eta bestearen ama) beasaindarrak izan arren". **(Biek)**

"Jesusen ama oso erlijiosoa zen. Lau seme-alabetatik bi jesuita ziren. Eta Jesus Larrañaga hortxe-hortxe ibili zen, horretarako ikasi zuen". **(Miren Atxaga Larrañagak)**

"Dolores Ibarruri gure etxera etortzen zen askotan, guk ohea uzten genion". **(Miren Atxaga Larrañagak)**

"Jesus ia beti kartzelan egon zen. Askotan bisitatu genuen han. Atxilotzen zuten poliziek ere errespetu handia zioten. Hori bai, askotan enteratu egiten zen eta etxearen atzeko aldetik, Urbieta kaletik ihes egiten zuen" **(Miren Atxaga Larrañagak).**

"Alderdi Komunista oso indartsua zen Pasaian. Jesusek eragin handia zuen han, arrantzaleek asko maite zuten". **(Miren Atxaga Larrañagak).**

"Ziur aski Jesus Larrañagak 1934ko greban eraginik izango zuen, denetan sartua zegoen-eta". **(Miren Atxaga Larrañagak).**

"Jesus Larrañaga Errusian egon zen eta oso pozik etorri zen handik, maiteminduta". **(Biek)**

"Gipuzkoako Alderdi Komunista ez zen oso handia. Batez ere Donostialdean zuen indarrik handiena". **(Miren Atxaga Larrañagak)**

"Jesus Larrañagarentzat euskara oso garrantzitsua zen". **(Rosa Larrañaga Agarristak)**

"Mitinetan euskaraz zein erdaraz hitz egiten zuen, baina gehiago euskaraz". **(Rosa Larrañaga Agarristak)**

"Jesusez gain, Urondo, Astigarribia, Cuenca eta Zapirain anaiak ziren beste buruzagi komunista gipuzkoarrak. Agustin Zapirain Bilbon hil zen". **(Biek)**

"1936an, Eibarren, Larrañaga batailoia sortu zuen, gazte komunistez osatua". **(Miren Atxaga Larrañagak)**

"Jesus Larrañaga Donostian Gudako komisario izan zen. Gero Bilbora joan ginen eta han bizi izan ginen ni Sobietar Batasunera joan nintzen arte (1937 arte)". **(Miren Atxaga Larrañagak)**

"Jesusek Gipuzkoan Guda Komisario bezala ardura handiak izan zituen, gudaren arduradun nagusia izan zen errepublikanoen aldean". **(Biek)**

"Komandante bat (Leon Carrasco Gobernadore Zibila) fusilatzeko zeudela, bere emaztea Jesus Larrañagarengana joan zen, bitartekaritza egin zezan eskatuz, baina joan zenerako, jada fusilatua zuten". **(Miren Atxaga Larrañagak)**

*"Amilibiak Jesus asko errespetatzen zuen. Euren gorabeherak izango zituzten, hori bai. Amilibia hori Herri Frontetik aurkeztu zen 1936an, sozialista zen, Argentinatik bueltatzerakoan, **Punto y Hora**n idazten hasi zen, HBtik hurbil ibili zen".* **(Biek).**

"Jeltzaleek ere errespetatzen zuten. Agirre Lehendakariak behin esan zuen "A zer mutila utzi genuen joaten!", Larrañaga lehen EAJkoa zelako". **(Biek)**

or.

"Gudan batailoi jeltzale bat altxatuekin nahasi zuten ezkertiarrek. Bertako batek esan zien "deitu Jesusi, nik ezagutzen dut, ni Ordiziakoa naiz!" eta hala libratu zituzten. Jesus alderdi guztietakoek errespetatzen zuten". **(Miren Atxaga Larrañagak)**

"Bere mitinetara euskaldun asko joaten zen, baserritar asko". **(Miren Atxaga Larrañagak)**

"Gudan, Jesus fronte guztietan ibili zenez, oso ezaguna egin zen; Gipuzkoan, Legution, Asturiasen, Otxandion, Cabezonen, etab., azken horretan zauritua izan zen…". **(Biek).**

"Errepublikanoen Armadako Komisarioa izan zen. EAJkoek ez zuten nahi Larrañagak hainbeste ardura izaterik. Baina egia da Agirrek estimua ziola". **(Miren Atxaga Larrañagak)**

"Jesusek Bilbon egin zen desfile batean, "Gora Euskadi Askatuta!" esan zuen". **(Miren Atxaga Larrañagak).**

"Astigarribiak zenbait gauza ez zituen ondo egin eta, antza denez, Larrañagak atentzioa deitu zion". **(Miren Atxaga Larrañagak)**

"Guda bukatu zenean, Alacanten atxilotu eta Albaceteko kontzentrazio-eremuan sartu zuten, baina ihes egin zuen. Faxistek jakin zuten atxilotu zutela, baina ez zekiten nor zen eta espiak bidaltzen zituzten eremu hartara. Nafarroako zonaldea oso ondo ezagutzen zuen Kristobal Errandoneari esker pasatu zuen muga. Bokalen egon zen, han lagun handiak zituen". **(Biek)**

"Gero Santo Domingon eta Kuban egon zen. Handik Espainiako Estatura pasatu zen, Alderdia berrantolatzera. Jende askok ez zuen ulertu erabaki hura, hain ezaguna izanda, nola bidal zezaketen klandestinitatera. Ulertezina zen. Hain azpiegitura eskasarekin-eta… Nire aitak ezetz esan zezakeen, baina baietz esan zuen, berarentzat Alderdiaren aginduak oso garrantzitsuak ziren-eta". **(Rosa Larrañaga Agarristak)**

"Berarekin Imanol Asarta harrapatu zuten, oso laguna zuena". **(Rosa Larrañaga Agarristak)**

"Bai, askoren ustez hiltegi batera bidali zuten Jesus Larrañaga. Amilibiak ere, antza denez, berdin pentsatzen zuen. Grimaurekin eta beste batzuekin ere berdin egin zuten". **(Rosa Larrañaga Agarristak)**

"Ez ginen batera joan SESBera. Ni 1937an joan nintzen, Sestaotik Leningradera (gaurko San Petersburgora)". **(Miren Atxaga Larrañagak)**

"Han oso ondo geunden, oso harreman onak genituen beste umeekin. Munduko Guda hasi zenean egoerak okerrera egin zuen". **(Biek)**

"Beste euskal umeekin harreman handia genuen". **(Miren Atxaga Larrañagak)**

"Han errusieraz hitz egiten genuen batez ere, espainieraz pixka bat. Nik euskaraz banekien hasieran, baina gerora galdu egin nuen". **(Rosa Larrañaga Agarristak)**

"Leningraden (gaurko San Petersburgon) egon ginen, baina naziek guda hasi zutenean, Panukhino deitutako herri batera, Volgaren ondora joan ginen". **(Miren Atxaga Larrañagak)**

"Ni Leningradetik Uzbekistanera, Samarkanda ondora, Afganistandik gertu dagoen Gogan deitutako herri batera eraman ninduten". **(Rosa Larañaga Agarristak)**

"Ni tuberkulosia zela-eta gaixotu egin nintzen". **(Rosa Larrañaga Agarristak)**

"Umeen etxeak lekualdatu egin zituzten eta oso ondo tratatu gintuzten, baina gudan gosea denoi iristen zitzaigun eta, hori bai, guretzat beti atentzioa izaten zuten. Frontean milioika pertsona hil ziren". **(Biek)**

"Genuen informazioa Alderdi Komunistak ematen zigun. Espainiako Alderdi Komunistak ez gintuen ondo tratatu. Bazterrean utzi gintuzten. Jesus hil zutenean jakinarazi egin ziguten, besterik ez". **(Biek)**

"Nik Saratoven bi karrera egin nituen, Medikuntza eta Farmazia". **(Miren Atxaga Larrañagak)**

"Nik Tipografia ikasi nuen. Gero "Pravda" egunkarian egin nuen lan". **(Rosa Larrañaga Agarristak)**

"Hango hezkuntza-sistema oso ona zen". **(Biek)**

"Marxismo-leninismoan eta ateismoan hezi gintuzten. Hona itzuli ginenean, zenbait gauzek atentzioa deitu ziguten, adibidez, hemen zegoen mezatara joan beharrak. Baina hezkuntza askoz ere hobea zen han". **(Rosa Larrañaga Agarristak)**

"1956an Espainiako estatura itzuli ginen. Galdekatu egin gintuen CIAk Madrilen. Castellora iritsi ginen eta handik Soraluzera etorri ginen". **(Biek)**

"Gasteizen Apodaka deitutako polizia bat zegoen. Sekulako jazarpena egiten zigun, galdeketak eta abar". **(Biek)**

"Ni medikua izan nintzen Arabako landagunean. Garai hartan ez zegoen emakumezko medikurik hemen. Hamalau herritan artatu behar nituen herritarrak. Oinez joaten nintzen". **(Miren Atxaga Larrañagak)**

"Nik Dibisio Urdinean ibili ziren batzuk ezagutu nituen. Behe-mailakoak gurekin ez ziren gaizki portatu, eta adarra jotzen nien, Leningraden jipoia eman geniela-eta. Hori bai, goi-mailakoekin ez, horiekin gaizki konpontzen ginen. Mediku batek adibidez, niri (Miren Atxagari) ez zidan sekula lanik ematen. Aurre egiten nien". **(Biek)**

"Hemen ez genuen jarraitu Alderdi Komunistan militatzen. Errusian jada tratu gutxi genuen eurekin. Hori bai, gu komunistak beti". **(Biek)**

"Sekula ez gara Errusiara itzuli. Nostalgia badugu eta familiako batzuk hara joanak dira, baina gu ez gara joan". **(Biek)**

"Francoren garaian euskaraz ezin zen egin Gasteizen. Behin margarita batek amari "amatxo!" esateagatik errieta egin zidan: "¡Aquí no existe eso, aquí es madre!" esan zidan". **(Rosa Larrañaga Agarristak)**

"Behin nire ama-eta, Durangoko eta Arrasateko batzuekin euskaraz ari zirela, denda batetik bota egin zituzten "espainolez ez egiteagatik". Ama egun batzutan etxean egon zen, errepresioa ez jasatearren". **(Rosa Larrañaga Agarristak)**

Larrea Agirre ROSARIO
(Beasain, 1930-10-13)

Pedro Larrea Ormazabal **eraildakoaren alaba.**

Beasainen, 2012ko apirilaren 14an egindako elkarrizketa (gazteleraz).
Alberto Alonso Cacharrok eta Josu Lopez Castañaresek egindako elkarrizketa.

"Nire aitak sagardotegi batera eramaten ninduenaren oroitzapena dut".

"Nafarroa etorbidean (gaur hala deitzen zaio, orduan ez) bizi ginen, ferrobiarioen etxean. Etxera etorri egin ziren, aita eraman eta hil egin zuten. Nire aita ez zegoen inongo alderditan sartuta, ez zen politikan sartzen. Hori esan zidan amak. Agian EAJren aldekoa izango zen, baina politikan ibili gabe. Gu bakarrik ez uztearren etxean gelditu zen. Joan izan balitz…".

"Nire osaba bat ere geltokian hartu zuten eta etxera bidali zuten arma baten bila. Guk ez genuen armarik eta amak etxean esan zion "joan zaitez Zegamara, bestela zu ere hil egingo zaituzte-eta". Horregatik libratu zen. Gero hura amarekin ezkondu zen".

"Soldaduek esan ziguten gure etxea toki txarrean zegoela eta etxetik atera behar genuela. Atera ginenean, eurak sartu eta dena lapurtu ziguten".

"Guda ostean nire amak lan asko egin behar izan zuen guri denoi jaten emateko".

"Gogoan dut errazionamenduarekin batera seboa ematen zigutela. Merkatu beltzean olio pixka bat lortzen bagenuen, harekin nahasten genuen".

"Ematen ziguten ogia ezin zen jan ere egin".

"Umezurtzoi botila bat esne ematen ziguten".

"Jantoki Sozialetara ere joaten ginen, baina han, nire amaren arabera, oso gaizki ematen ziguten. Berriz eman behar izaten zigun jaten".

"Nire amarekin gerora ezkondu zen gizonak, osabak, Nafarroara joan behar izaten zuen patata-bila".

"Baratzea geneukan, eta beno, hortik zer edo zer ateratzen genuen, babarrunak-eta".

or.

Lasa Aranburu XANTI

(Beasain, 1952-01-24)

Familiako testigantza asko bildu dituen persona.

Beasainen, 2014ko abuztuaren 5ean egindako elkarrizketa (euskaraz).

"Gure amaren etxea bonbardatua izan zen eta baserri batera joan behar izan zuten, Antxusieta baserrira".

"Aitona Santiago Aranburu Otamendi zen, EAJkoa".

"Aitona preso egon zen Beasainen. Hala ere, egunero lantegira lanera ateratzen zuten, CAFera. Amonak eramaten zizkion bazkaria eta abar. Denbora dexente egin zuen barruan".

"Gure familian asko aipatzen zen Zesareo Ugarteren aitaren kasua. Nik uste dut lanera zihoala eta gazte bat atxilotzera zihoazela, erreketeei ez atxilotzeko esan eta orduan bera ere fusilatu egin zutela".

"Fusilatuen hobi komuna, hilerrian sartu eta eskuinera zegoen".

"Emakume askori ilea moztu eta errizino-olioa ematen zieten edateko. Ez dakit nortzuk izan ziren ilea moztutakoak, baina bai nor ibiltzen zen ilea mozten. Montejoren ama ibiltzen zen horretan, margaritetakoa zen".

"Aranburu Aranburu familian, lau euskal batailoietan ibili ziren: Luis, Martin, Endrike eta beste bat, orain gogoratzen ez dudana; baina beste batek erreketeekin "bolondres" joan behar izan zuen: Ramon Modesto Aranburuk "Txanbok" alegia".

"Abertzaleekin joan zirenak, langile-batailoietan ibili ziren gero".

"Ramon Modesto Aranburu Aranburu erreketea Ebroko borrokaldian zauritua izan zen".

"Errazionamendua, irabazleen familiek baino gutxiago jasotzen zuten gure amaren familian".

"Gerra ostean, mesprezuak jaso zituen nire aitonak, abertzalea zelako".

"Franco Donostiara etortzen zenean, jendea atxilo eramaten zuten. Gure aitona ez, baina Beasaingo beste batzuk bai, eramaten zituzten".

"Gure familian badago kontakizun bat, oso jende gutxik jakin duena orain arte. Ia ez da hitz egin, eta kontatu zidatenak (Endrio baserriko beste bizitzakoak) denak hilak daude. Gure aitaren ama, karlista zen. Makiak ibili ziren Beasainen eta amonak bi ikusi zituen eta salatu egin zituen. Esaten dute asturiarrak zirela. Makiak harrapatu eta Aratz-Matxinbentan fusilatu zituzten. Hori bai, non zehatz-mehatz ez dakit. Beraz esan beharra dago Aratz-Matxinbentan hildako bi maki daudela".

Lasa Imatz PATXI
(Beasain, 1929-05-15)

1936ko uztailaren 27an tropen Beasaingo sarrera bizi izan zuen.

Beasainen 2014ko ekainaren 25ean egindako elkarrizketa (euskaraz).

"Nik gogoratzen dut 1931n Errepublika ezarri zela eta txangoak antolatzen zituztela mendira eta jantzi bereziekin joaten zirela" (Jeltzaleen mendigoizaleak ote ziren?).

"Gure baserria ez zen gurea, zerbait ateratzen genuen, baina errenta ordaindu behar genuen. Gure aitak (Jose Luis Lasa Telleriak) CAFen forjan egiten zuen lan. 13 urterekin sartu zen han".

"Gure aita (Jose Luis Lasa Telleria) EAJko afiliatua zen, batzokian ibiltzen zen".

"Gogoratzen dut gerra hasi zenean, hemen eskopetekin ibiltzen zirela, nafarrei (erreketei) aurre egiteko. Bodegaren ondoan trintxera bat egin zuten".

"Guda hasi zenean tiroak eta abar izan ziren. Koltxoiak jarri behar izan genituen leihoetan, tiroak etxean ez sartzeko".

"Harrapatzen zituzten guztiak eramaten zituzten frankistek".

"Fusilatutakoak non hil zituzten ez dakit, baina non lurperatu zituzten bai, badakit, hilerriaren barruan lurperatu zituzten, han lurpila bat ikusi nuen, lur-mordo handia, hilerrian sartu eta ezkerretara. Agian batzuk hilerritik kanpo lurperatuko zituzten, hori ez dakit; badakit barruan batzuk lurperatu zituztela".

"Behin, ihes eginda geunden baserrian, batzuk sartu ziren eta "¡Arriba España!" oihukatu zuten. Guk baxu "¡Arriba España!", ez genekien zer esan-eta. Eurek "¿No sabéis decir Arriba España o qué?" Kafea eman behar , eta eurek "¿No tenéis jamón? ¿Y no tenéis aceite?" eta beranduago "¡Pues hemos estado a pounto de echar unos cañonazos a esta casa". Senperen zuten kanoia".

"Egun batean gogoratzen dut, zazpi urte nituela, ganadu-jana biltzen ari nintzela, karretilarekin, tiro egin zidatela, orain Txindoki Institutua dagoen aldetik".

"Gure aitak (Jose Luis Lasa Telleria) Beasaina itzuli zenean, apaiz batekin egin behar izan zuen zerbait, ez dakit zer sinatzera edo joanda. Atxilotua ez zen izan, baina arazo batzuk izan zituen."

"Ez dakit apaizak traba txikiren bat-edo jarri ote zion, uste dut apaiza On Pedro Garaialde zela".

"Gorrientzako ez zegoen lanposturik. Egun batean soroan ari zela, CAFen lan egiten zuten bi, espezialista bi, zinegotziak zirenak, horietako bat Artolain, etorri ziren eta "erabaki dugu, gorriekin ibili zaretenok ez duzuela lanik izango" esan zioten eta nire aitak erantzun "nik lana topatuko dut". Handik zortzi egunera, CAFeko zuzendari edo zuzendariordeak, Antonio Sierrak, esan zuen, fabrika martxan jartzeko lanean zekien jendea hartu behar zuela. "Bihartik aurrera lehen botatakoak hartzera noa eta kitto". Orduan hurrengo egunean hasi zen nire aita lanean. Handik gutxira, beste haiei, bere bila etorri zirenei, esan zien "Ikusten al duzue, nola esan nizuen, nik lana topatuko nuela?".

"Estraperlo-garaian gure aita bizikletan Nafarroara joaten zen gauzen bila. Ni ere hasi nintzen gauzak ekartzen hamalau urte nituela. Asteburuetan joaten zen. Baratzetik ere zer edo zer ateratzen zuen jateko".

"Euskaldunei "casero burro no vale nin un duro" esanez farre egiten ziguten".

"Euskaraz, etxean bakarrik hitz egin genezakeen, guk etxean bakarrik".

or.

Lopez Gallego JESUS
(Beasain, 1928-09-21)

Gudan hildako bi gudariren anaia.

Beasainen 2014ko ekainaren 25ean egindako elkarrizketa (gaztelaniaz).

"Gudaren aurretik 2.000 edo 3.000 pertsonek egiten zuten lan CAFen. Denak Ezkiagako "ate nagusitik" sartzen ziren".

"Nire anaia denak sindikalistak ziren eta denak gudan ibili ziren. Haietako bati "Komunista" deitzen zioten. Haietako bi Lemoako Haitzetan hil ziren, eta "Komunista" Bilbon, gaixotasunez. Lorentzo eta Eutimio ziren".

"Falangistek asko lapurtu zuten, adibidez, fabrikako dendatik (kooperatibatik). Behin nire arrebari, jostuna zenari, josteko makina lapurtu zioten falangistentzako jantziak egiteko. Baina Moriones komandanteak hori moztu egin zuen eta makina itzultzeko agindu zuen".

"Fusilamenduak nik, entzutez ezagutzen ditut. Nik gogoratzen dut ezagun bat, herren bat, auzokide bat, amak esan zidanez etxetik arrastaka jaitsi zutela. Gero bere seme bat hil zuten (Igartua). Nire amak kontatu zidan".

"Emakume bati, Sarasola izeneko bati, nire auzokidea zenari, errizino-olioa edatera eman eta ilea zerora moztu zioten. Esaten dutenez emakume askori egin zieten hori".

"Ni errefuxiatua izan nintzen, anaiak gudan zebiltzalla. Lehenbizi Parisera joan ginen, han senitartekoak baikenituen. Hirurak joan ginen, ama, arreba eta hirurok. Parisen jakin genuen bi anaiak hil zirela. Alderdi Komunistak jakinarazi zigun, antza denez".

"Komunista batzuek lortu zituzten amak Gobernu errepublikanotik pentsioa kobratzeko paperak. Mugan dirua kentzen zuten, baina amak dirua ezkutatzea lortu zuen".

"Nire koinatuaren lehengusina bat politikan oso sartua zegoen eta pistolarekin ibiltzen zen. Berak esan zidan "Jesus, bota pistola hau!". Nik hondartzan enterratu nuen, trapu bat jarrita, niretzat pistola bat izugarria zen. Gero faxistak etorri zirenean, esan zidan "Jesus, zer egin zenuen pistolarekin?" Nik: "hau", eta kontatu egin nion. Eta esan zidan: "Ekar ezazu!". Eta pistola horrekin, kamioi bat errekisatu zuen, eta horrela Frantziako mugara joan ginen bera, ni eta familia osoa (ama eta bi arreba). Portboun bukatu genuen".

"Fabrikan bazegoen irratiaren oso zalea zen maisu bat. Hark irrati klandestinoak entzun eta berriak ematen zituen".

"Estraperloa ahal zuenak egiten zuen, Ni jeneroen bila joaten nintzen bizikletarekin, baina ez saltzeko, etxean jateko baizik. Esne-bila Arriarana joaten nintzen, eta patata-bila Sakanara, Nafarroara. Lizarrustin Guardia Zibila egoten zen eta batzuk harrapatu zituzten eta patatak kendu zizkieten. Niri ez, ni sekula ez ninduten harrapatu".

Lozares Sarasketa MARIA PILAR

(Beasain, 1943-11-25)

Beasainen 1936ko uztailaren 27an eraila izan zen *Marcelo Bergara Lozaresen* senitartekoa.

Beasainen 2014ko uztailaren 3an egindako elkarrizketa (gaztelaniaz).

"Nire gurasoak nazionalistak ziren, baina ezin dut esan afiliatuta zeudenik".

"Frankistak sartu zirenean, nire aita ehizan zegoen, Olaberria eta Lazkao artean. Herrira itzultzean, atxilotu egin zuten, ELAko tokiko lehendakaria zelako. Berak ez zekien ezta lehendakari izendatu zutenik ere".

"Atxilotu eta eraman egin zuten. Nire ama orduan haurdun zegoen (nire anaia Manuel abuztuaren 1ean jaio zen), eta aitak bere semea 28 hilabeterekin ezagutu zuen".

"Martzelo Bergara Lozares, nire aitaren lehengusua zen. Bere amak (Maria Lozares Arin) zion, bere delitu bakarra, frankistak sartu zirenean, Kale Nagusitik ihes egitea izan zela. Agian Norte tabernara, Herriko Etxera joan ziren, agian beste emakume batekin, fusilatua izan zen emakume batekin (Victoria Huergo Toferekin)".

"Martzelo Bergararen arreba Pilar Bergara Lozares, Martzeloren lagun min Saturnino San Martinen emaztegaia zen".

"Martzelo Bergara eta Saturnino San Martin hilerrian fusilatuak izan ziren".

"Martzelo Bergararen amari Martzeloren anaia batek esan zion: "Ama, Martzelo atxilotu dute", eta amak erantzun: "uste dut ez dugula gehiago ikusiko".

"Martzeloren ama Maria Lozares hilerrira joan zen, eta han bi soldadu ikusi zituen. Soldaduek ez zioten pasatzen utzi, eta behin eta berriz jainkoarren eskatu zien pasatzen uzteko. Azkenean, utzi zioten pasatzen, baina hilerrian beste bi pertsona zeuden, eta haiei ere berdin eskatu behar izan zien pasatzen uzteko. Sartu zenean, han gorpu-pila ikusi zuen eta baita Zesareo Ugarte ere bere aitaren (Gillermo Ugarte) gorpuaren bila. Gillermo Ugarteren gorpua han zegoen, baina Zesareok ez zuen ikusten. Maria Lozaresek, gure izebak, esan behar izan zion, hantxe bertan zeukala".

"Maria Lozaresek Martzelori zapia atera eta aurpegi odoldua garbitu zion, Orduan zin egin zuen ez zela Beasaingo hilerrira itzuliko. Eta ez, ez zen itzuli, ezta bere senarra hil zenean ere. Hori bai, emakume hark ez zuen hitz txarrik izan inorekiko".

"Nafarrak (erreketeak) Beasainen sartu zirenean, nire amaren etxean lapurreta egin zuten, eta ama kalera bota zuten. Ama bi semerekin kalean eta aita preso. Ama aitaren familiarengana joan zen, eta niretzat mingarria bada ere, ez ziren behar bezala portatu. Orduan, fusilatu baten, nire aitaren lehengusu Martzelo Bergara Lozaresen familiak hartu zituen".

"Nire aita Iruñean, Burgosen eta bukaeran Gasteizen egon zen preso. Iruñean epaitu zuten. Kartzelako barroteak ere berak egin behar izan zituen, torneroa zen-eta".

"Nire amak zion heriotza-zigorra jarri ziotela, baina gero konmutatu egin ziotela"

"Nire aitaren kartzelako ziega lurzorua baino beherago zegoen, leihoa zegoen lurzoruaren parean".

"Garai hartan, nire ama ere Gasteizera joan zen lanera: erietxe batean egin zuen lan eta gero "La Marina" jatetxean. Jatetxe hartako jabeak preso politikoen emazteak kontratatzen zituen. Soldataz gain, soberan zegoen janaria ere ematen zien".

"Kartzelan, aitarekin batera, Ibarbiatarretako bat ere egon zen (Jesus Ibarbia)"

or.

“Aitak lan egin behar izaten zuen kartzelan zigorraren parte bezala. Egunero bi soldadu etortzen zitzaizkion bila, oso gazteak, Gasteizko Alde Zaharrera eraman eta bueltan kartzelan uzten zuten. Soldadu guztiek nahi zuten bera eskoltatzea, aitak gutxi jaten zuela-eta, sobratzen zitzaiona haiei ematen zielako”.

“Egunero, aitak inoiz ikusi ez zuen pertsona bat pasatzen zen eta leihotik pakete bat botatzen zion. Jeltzaleren bat izango zen, presoak laguntzeko”.

“Antonio Lozares Escolar osaba desagertua izan zen gudan”.

“Nire amaren anaia Viktor Sarasketa Ruiz (andoaindarra) fusilatu egin zuten. Errepublika garaian, nire amonak eskuineko pertsona bat salbatu zuen, ezkerrekoak bere bila zetozela-eta. Gero hark berak salatu zuen Viktor, eta atxilotu ondoren, Derion fusilatu zuten. Viktor torturatu egin zuten fusilatu aurretik, bi aldiz itxurak egin zizkioten, eta hirugarrenean esan zion beste bati: “lasai, berriz ere ekarriko naute hona-eta”. Ez zen itzuli”.

“Sekundino Sarasketa Ruiz osaba ere, gudan ibili zen, eta larriki zauritua izan zen. Santanderren egon zen erietxean. Batzuek “frankistak erietxean sartzen ari direla!” oihukatu zuten, eta gaixo batzuek, beldurrez, leihotik behera salto egin zuten. Nire osabak laugarren leihotik egin zuen salto; baina ez zen hil. Frankistek lurrean errematatu zuten”.

“Antonio Sarasketa Ruiz desagertu egin zen gudakoan. Alarguna eta alaba utzi zituen”.

“Pedro Sarasketa Ruiz kartzela ezberdinetan egon zen. Kartzelan tuberkulosia harrapatu zuen, eta horrek hil zuen, 1964an”.

“Nire amona eta izeba Joana Sarasketa Ruiz Hendaian eta Katalunian egon ziren”.

“Nire aitari Indarreko bazkide izatea eskaini zioten, baina etxean ez geneukan horretarako dirurik”.

“Gerraren ondoren Cara al Sol *abestu behar izaten genuen”.*

“Franco Donostiara zetorren bakoitzean, bi arku jartzen ziren Nafarroa etorbidean”.

“Eskolan “Hezkuntza politikoa” ere ematen ziguten. Ez genekien hori zer zen ere”.

“Oso ohikoa zen ikasleak euskaraz hitz egiteagatik fisikoki zigortzea; baina gehiago nire gurasoen garaian”.

“Nire penarik handiena, nire aitak geroko aldaketa politiko hauek ezin ikusi izana da. Nik ez diot sekula botoa emateari utzi, niretzat botoa ematea oso berezia baita, gure gurasoek halako aukerarik izan ez zutelako. Niretzat botoa ematea aitari omen egitea da. Berdin amarentzat, baita elbarri zegoenean ere”.

“Nire aitaren kartzela-dokumentuak amak etxean gordetzen zituen, gutunazal zuri batean, eta inori ez zizkion erakusten, niri ere ez zidan ukitzen uzten. Aita hil zenean, apurtu egin zuen gutunazala. Egia esan, gutunazal hura puskatu ahal izatea askapen bat izan zen nire amarentzat, baina dokumentu haiek nik ezin izan nituen ikusi”.

Martinez Otaegi LOURDES eta PELLO

(Beasain, 1945-07-06) (Ordizia, 1964-03-09)

Beasainen 1936ko uztailaren 27an eraila izan zen *Joan Andres Otaegi Berasategiren* bilobak.

Ordizian, 2014ko abenduaren 17an egindako elkarrizketa (euskaraz).

"Gure aitonak trenbidean egiten zuen lan. Errepublikanoa zen. Gehienak Zegamakoak ziren". **(Biek)**

"Sartu zirenak militarrak ziren. Apaiz tripa handi batekin sartu zirela zioen amak". **(Lourdesek)**

"Gure aitonaren etxera (Karolaren etxera) zauritu bat sartu zen. Atera arazi egin zuten eta biak hil zituzten, aitona eta zauritua. Agripina Poloren semea zen hura. Gure aitona ferrobiarioen etxean bizi zen." **(Lourdesek)**

"Atea jo,eta amonak esan zuen berak irekiko zuela. Baina aitonak ezetz, berak irekiko zuela. Atea ireki eta tiroa bota zioten. Igartua Polo sukaldean zegoen, koltxoi baten gainean. Berak esan zuen laguna hil zuten bezala bera ere hiltzeko". **(Pellok)**

"Igartuatarren aita eta bi seme hil zituzten. Hiltzaileak gorriak izan zirela esateagatik laguntzak agindu zizkioten Agripinari. Baina berak esan zuen, berak ez zuela ezertaz lotsatu beharrik eta nortzuk hil zituzten argi esango zuela". **(Biek)**

"Eskopetak zituzten guztiek entregatu egin behar zituzten, eta berak ez zuen entregatu. Amonak esaten zuen eskopeta emaztea baino gehiago maite zuela. Gero, hil zutenean, eskopeta eraman egin zuten frankistek". **(Pellok)**

"Nire amona Beasainen gelditu zen. Jende batek lagundu egin zion, hori egia da". **(Lourdesek)**

"Hori bai, tropak pasatzerakoan ez zituela agurtzen-eta, ilea mozteko mehatxua egin zioten, baina ez zioten moztu". (Lourdesek)

"Gerora Igartua familiarekin tratua galdu genuen". **(Biek)**

"Salataria zein izan ote zen zurrumurruak zeuden. Gure osabari esaten zion "yo no tengo nada que ver con tu padre", baina azkenean bere burua trenari bota zion". **(Biek)**

"Gure amak-eta, "Auxilio Social" izenekora joan behar izaten zuten bazkaltzera. Gure ama-eta, berandu joaten ziren ***Cara al Sol*** *ez abesteko. Arduradunek mehatxatu egin zituzten, beren amari (amonari) berandu etortzen zirela esango ziotela-eta, eta eurek erantzun "amak badaki zergatik iristen garen berandu".* **(Lourdesek)**

or.

Mendia Aramendi MILA
(Ordizia, 1950-04-25)

1936ko uztailaren 27an Beasainen eraila izan zen *EBARISTO MENDIAREN* biloba.

Beasainen 2014ko uztailaren 2an egindako elkarrizketa (euskaraz).

"Frankistak Beasainen sartu zirenean, nire familia, Barrendainen bizi zena, mendiko baserrietara (Erauskin auzora) joan zen. Denak nire aitona (Ebaristo Mendia) eta aita (Florentzio Mendia Elizegi) izan ezik. Zergatik? Behi bat ume egiteko zeukatelako. Nire aitonak kandela bat zuen piztuta ukuiluan".

"Erreketeek seinaleak egiten ari zirela uste izan zuten. Nire aitonak eta aitak atea zabaldu zieten. Preso eduki zituzten Matias-enean, eskailerari lotuta eduki zituzten. Nire aitonari galdeketa egin zioten, baina jada kondenatuta zegoen".

"Nire aitari eta Sagarminaga farmaziako langile bati, arma bat eramanez gero, libre geldituko zirela esan zieten. Barrendain baserrira joan ziren arma-bila, eta han armarik ez omen zegoen, baina bat topatu bide zuten, nik ez dakit zernolako arma izango zen".

"Gure aitona karlista zela esaten zuten, baina ez dakit egia zen. Hori bai, lagundu behar bazen edozeini laguntzen zion, edozein ideologiatakoa izanda ere. Ez dugu ulertzen zergatik hil zuten".

"Erreketeak gure baserrian sartu zirenean, Errepublikaren koloreak zituzten katilu batzuk topatu eta txikitu egin zituzten".

"Gure aitona kondenatu zuten gehienak ezezagunak ziren, baina Zegamako bat ere bazegoen tartean, aldeko testigantza eman zezakeena, baina ez zuen eman. Ez dakigu nor izan zen".

"Testu batzuetan gure aita, aitonaren hilobi-zuloa egitera behartu zutela esaten da, baina horretaz etxean halakorik ez didate inoiz esan, beraz, ez nago ziur hala izan zenaz".

"Nire aitak, etxera itzuli zenean, ezin zuen hitz egin ere, dardarka zegoen eta izeba Luziak aurkitu zuenean, besarkatuta lasaitu zuen".

"Nire izeba bat (Luzia Mendia) izan zen aitonaren gorpua ezagutzera joan zena. Hil aurretik ere gestio batzuk egiten saiatu zen".

"Aitona ez zuten hobi komunean lurperatu, nire izebak identifikatu zuenez, familiako panteoian lurperatu ahal izan zuten".

"Horren ondorioz, nire aitak, urteetara ere dardara-atakeak izaten zituen. Agian horregatik izaten zen".

"Nire aita (Florentzio Mendia) behartuta eraman zuten erreketeek eta disgustu handiarekin joan zen"

"Gure gurasoek ez zuten batere konpentsaziorik jaso. Are gehiago, gudaren ondoren, itxurak egin behar izan zituzten aitonaren hiltzaileak izan zirela uste zuten horiekin".

"Epifanio Argiñano asko sartzen zen nire aitaren kontra. Frantzisko Eltzo ez, honek nire aita defendatzen zuen, beste modu batekoa zen".

"Gu gero "Tercio Oriamendi" kalera joan ginen bizitzera. Nik orduan uste nuen izen inozente bat zela, baina ez zen hain inozentea, gero konturatu nintzen zer zen".

"Askatasun-falta berez nabaritzen genuen".

"Demokrazia iritsi zenean berreskuratu zuen gure aitak itxaropen pixka bat".

Peñagarikano Dorrontsoro FRANTZISKA eta ISABEL

(Beasain, 1927-12-18) (Beasain, 1933-09-01)

1936ko uztailaren 27an tropen Beasaingo sarrera bizi izan zuten.

Beasainen 2014ko uztailaren 9an egindako elkarrizketa (euskaraz).

"Guda aurretik gure aitak trenbidean egiten zuen lan". **(Biek)**

"Nahiko gutxi irabazten zuten langileek. Baratzarekin-eta, bizitza aurrera ateratzeko modua egiten zuten". **(Isabelek)**

"Gure etxean ez ziren politikan sartzen. Politika zenbat eta urrunago hobe". **(Biek)**

"Beñaran kapitaina zaldi zuri baten gainean ibiltzen zen". **(Frantziskak)**

"Beñaran Beasainen zegoen eta gero Eibarrera bidali zuten, baina guda hasi zenean itzuli egin zen Beasaina". **(Frantziskak)**

"Behin mezatara joan ginen batean aireplano bat ikusi genuen. Gu hari begira gelditu ginen, eta gizon batek etxera bidali gintuen, arriskuagatik". **(Frantziskak)**

"Dena militarizatu zuten frankistek, trenbideak, fabrikak, dena". **(Isabelek)**

"Tropak hiru zatitan sartu ziren herrira". **(Frantziskak)**

"Amak Matias-enean preso-kuadrilla bat ikusi zuen lotuta, denak ezagunak ziren. Ilaran lotuta zituzten. Arratsaldean izan zen". **(Frantziskak)**

"Gauean tiroak izan ziren, hilerrian izan ziren. 27 tiro kontatu nituen nik". **(Frantziskak)**

"Amak gauean, baserrirako bidean pertsona bat topatu zuen eta hark ("Tistone") eskopeta bat bilatu behar omen zuela kontatu zion, bestela bera ere hilko zutela". **(Frantziskak)**

"Hilerrian barruan enterratu zituzten, sartu eta eskubira, hasieran, han lurperatu zituzten". **(Isabelek).**

"Errekatik hurbil hor jolasean ari ginela, andre bat topatu genuen zanga batean lurperatua". **(Frantziskak)**

"Behin, bidean ogi batekin gindoazela, tiroak entzun genituen gure atzetik". **(Frantziskak)**

"Gure aitari espedientea ireki zioten, baina gero berriz hartu zuten lanean". **(Biek)**

"Lanaren inguruan errepresio handia izan zen. Gero lana bilatzeko, frankismoaren kontra ibili zen jendea, oso gaizki ibili zen. Askotan enpresak subentzionatu egiten zituzten kanpotik langileak hartzeko". **(Isabelek)**

"Guda ondoren ezinikusi handia zegoen Beasainen, erregimenekoek uste zuten eurak onak zirela eta euren kontrakoak gaiztoak". **(Isabelek)**

"Bizenta Gonzalez Gaspar zen bati ilea moztu zioten eta errizino-olioa eman zioten". **(Biek)**

"Hemen garai hartan ez zegoen euskaraz egiterik". **(Frantziskak)**

"Gure osabak esaten zuen, "haiek (erregimenekoak) euskaraz hitz egiten hasten badira, guri zer edo zer eskatzeko izango da". **(Isabelek)**

"Gosea handia izan zen gudaren ostean". **(Biek)**

"Errazionamendu-txartel ezberdinak zeuden, lehenengo mailakoa, bigarrenekoa eta hirugarrenekoa. Aberatsei eta halakoei janari gehiago eta hobea ematen zieten, guri, kategoria baxukoei, txarragoa. Haiei xaboia ere ematen zieten". **(Isabelek)**

"Gure amari behin, Nafarroatik zetorrela eta saskian janaria zekarrela, Beasaingo gizon batek saskia kendu zion". **(Isabelek)**

or.

Perez Onesimo RAMON

(Beasain, 1943-09-03)

1936ko uztailaren 27an Beasainen eraildako *IGNACIO ONESIMO MATUTEREN* iloba.

Beasainen 2014ko uztailaren 30ean egindako elkarrizketa (gaztelaniaz).

"Nire aitona CAFen sartu zen lanean".

"Nire amonak bi negozio izan zituen, bata liburu-denda, Iturriotz kalean, Iraolaren pasteldegiaren ondoan. Lokal hori errentan hartua zuen, nik uste dut Usabiaga batena zela. Bestea, janari-denda bat, hura ere Iturriotz kalean zegoen".

"Nire osaba (Ignazio Onesimo Matute) Usurbe menditik hurbil aritu zen, faxisten kontra borrokan. Nire amonak ez zuen joaterik nahi, baina berak hemeretzi urte zituen-eta…".

"Nire osabak ideia errepublikanoak zituen".

"Erresistentziaren muina guardia zibilez osatua zegoen, Beñaran kapitainaren taldea-eta. Nik uste guardia zibil gehienak Beasainen zeudenak zirela, hori uste dut".

"Osaba hilerri zaharrean fusilatu zuten, nire ustez, horma baten kontra, hori zioen nire amonak".

"Ez dakit Matias-enean egon ziren ala ez".

"Hilerrian, hobi komun batean lurperatu zuten, uste dudanez eskuinaldean".

"Nire amona-eta joan zen nire osabaren gorpua ikustera hilerrira".

"Nire osaba erail ondoren eta nire aitona hil ostean liburu-denda arpilatu egin zuten. Eta uste dut janari-denda ere baietz. Prentsan agertu zen etxea arpilatu zutela, baina nik uste dut denda izan zela arpilatutakoa".

"Horregatik deitzen zioten osabari "Kazeta-saltzailearen semea", dendarengatik".

"Nire aitona Julian Onesimo Ondarretan hil zen, kartzelan. Errepublikanoa zela-eta atxilotu zuten".

"Nire osaba Aurelio Onesimo Matutek, Durangon eta Gernikan egin zuen borroka. Durangon zauritua izan zen eta bere erizainarekin harreman moduko bat hasi zuen, urtero egoten zen hamabost bat egunez berarekin. Atxilotu egin zuten eta Langile Batailoian egon zen".

"Beasainen elementu bat zegoen, jende asko salatu zuena, ez dut izenik esan nahi, baina…"

"Franco zetorren bakoitzean, nire osabetako bat, Aurelio Onesimo Matute, kartzelara eramaten zuten".

"NI soldaduskan egon nintzenean, arazoak izan nituen, nire osabak "gorriak" zirelako. Horregatik postuz aldatu ninduten".

Polo Artze ALIZIA eta Apaolatza Polo MIKEL

(Beasain, 1948-01-25) (Beasain, 1971-07-05)

Fusilatua izan zen *Valerio Polo Carrascalen* senitartekoak.

Beasainen 2014ko uztailaren 30ean egindako elkarrizketa (euskara eta gaztelania tartekatuz).

"Nire gurasoak Villanueva del Puenten (Zamoran) jaio ziren, eta 9 urte-edo zituztela etorri ziren Beasaina". **(Alizia Polok)**

"1930eko zentsuan jada agertzen dira, 8 urte daramatzatela diote, 1922an etorri ziren. Arana kalean bizi ziren". **(Mikel Apaolatzak)**

"Nire aita Rafael Polok eta bere anaia Valerio Polok, biek Ezkiagako saskitegi batean egiten zuten lan". **(Biek)**

"UGTko kideak ziren gure familiakoak. 1931n jada sindikatuko karneta zuten". **(Mikel Apaolatzak)**

"Rafael Polo Udaletxean zegoen, antza denez bilduta. Beasain galduta zegoela korrika ihes egin behar izan zuen, Usurbe aldera". **(Mikel Apaolatzak)**

"Valerio ez omen zegoen Beasainen, jada alistatuta zegoen. Hala ere, bere kontrako akusazioan datu kontraesankorrak ezartzen dira, adibidez toki batzuetan sozialista bai baina kargurik ez zuela, baina fusilatu ostean Gazteria Sozialisten instruktorea zela eta UGTko direktiboa". **(Mikel Apaolatzak)**

"Kontraesan gehiago ere badaude, informe batean Beasainen frankistak sartzea armez eragozten saiatu zela esten du, baina berak aitormenean, dio 22an joan zela Eibarrera eta gero Donostiara eta hango borrokan parte hartu zuela. Han gaixo egon omen zen eta gero Bilbon Rusia batailoian alistatu zen fusilero bezala: Bizkaian, Santanderren eta Asturiasen ibili zen. Apirilaren 4an zauritu zutela esaten du informeak eta abuztuaren 22an, atxilotu". **(Mikel Apaolatzak)**

"1938ko martxoaren 26an fusilatu zuten Valerio Polo. 24an Santoñatik Santanderrera eraman zuten, hori zen ohikoena fusilatuko zituzten kondenatuekin." **(Mikel Apaolatzak)**

"Beste hamahirurekin batera kamioi batean eraman zuten fusilatzera. Hilerriko apaizak "desagertu" bezala apuntatu zuen, ez "fusilatu" bezala. Denekin hala jokatzen zuen. Kamioi horretatik sardinak latan bezala sartzen zituzten zulo batera". **(Mikel Apaolatzak)**

"Antza denez karta bat bidali zion apaizak familiari, baina karta hori nik neuk ez dut ikusi, amak hori kontatu badit ere" **(Alizia Polok)**

"Nire aita (Rafael Polo) kartzelan egon zen. Horrek ekarri zuen nire ahizpa nagusiak nik baino 14 urte gehiago izatea". **(Alizia Polok)**

"Hainbat kartzelatan egon zen nire aita (Rafael Polo)". **(Alizia Polok)**

"Dirurik ere ezin genuen jaso, dokumentu askotan agertzen ez zenez, ezin genuen frogatu bost urte baino gehiago kartzelan egin zituenik. Nire amak sekulako kabreoa hartu zuen". **(Alizia Polok)**

"Guk ez genuen batere harremanik Udalarekin. Orduan ez zen orain bezala Udaletxera etorri eta eskaerak egiteko bide hori. Nire ama mairuen arropa garbitzen erabili zuten". **(Alizia Polok)**

or.

Ruiz Diez ANTSELMO

(Beasain, 1923-03-23)

Beasainen 1936ko uztailaren 27an ordu batzuk geroago hil zituzten pertsona batzuen atxiloketen lekukoa.

Beasainen, 2013ko martxoaren 25ean egindako elkarrizketa (gazteleraz)
Alberto Alonso Cacharrok eta Josu Lopez Castañaresek egindako elkarrizketa.

"Nik ikusi nituen tropak erasotzen. Gu Arana kaleko 2 zenbakian bizi ginen. Leihotik, aurrean, Senpereko futbol-zelaia ikusten genuen. Bezperako borrokak ikusi genituen, Lazkaotik sartzen saiatzen ari zirela".

"Sartu ziren egunean arratsaldeko bostak arte egin zieten aurre, batez ere, Beñaranen zutabeak (…) Hauek eskola berrietan eta geltoki ondoan jarri ziren".

"Hemengo milizianoek ez zuten defendatzeko ezer".

"Batzuk soken bidez, Udaletxetik ihes egitea lortu zuten".

"Tropak Beasainen sartu aurretik, Altsasuko jende asko etorri zen hona. Eskoletan zegoen jende hori. Ehun bat ziren".

"Altsasuko horiek eskerrak alde egin zutela, bestela ziur aski, eurak ere garbituko zituzten".

"Nik ikusi nituen errekete batzuk Begue deitutako gizon bat jotzen".

"Beasaingo batzuk, sartzen ari ziren tropak besarkatzera joan ziren, nik hori ikusi nuen. Tartean, Epifanio Argiñano".

"Antolinen dendan geundela (denda hori zinematik gertu zegoen), Gillermo Ugarte etorri zen, Antolini esatera "autobus bat dago han, eta erre egingo dute, tinta-fabrikaren ondoan, eta etxeak erretzeko arriskua egon daiteke". Antolinek erantzun zion "ba dauden bezala, joateko moduan ez gaude", eta horregatik libratu zen. Orduan gizon hura joan egin zen, eta "Farro" deitutako gizon batekin elkartu zen, gauza bera esan zion, eta biak joan ziren hori tropei esatera. Azkenean, biak sartu zituzten autobusean, eta gorantz, plazarantz edo hilerrirantz eraman zituzten".

"Norte taberna zegoen etxea ere erre egin behar zutela-eta, jaitsi egin ziren denak. San Martin eta Martzelo Bergara eraman egin zituzten, eta Norte tabernako jabea, Pedrotxo, ere bai. Baina azken horrek, erretzen ari ziren etxe batzuen ondotik pasatzerakoan, Katarainen etxea deitzen zioten etxe batetik pasatzerakoan, "Ni suhiltzailea naiz" esan zuen, eta besteak "ba itzali su hori!". Suhiltzaileen parkera etorri zen Pedrotxo, eta sua kontrolatzea lortu zuenean, aske utzi zuten".

"Nik uste dut ez zirela jabetu nora eramango zituztenaz".

"Isidro Igartua izeneko gizon bat, oso ausarta zena, Otaegi batek ikusi zuen nola erori zen, eta etxera eraman zuen. Tropak hara iristerakoan Otaegi hil egin zuten eta Igartua hiltzen utzi zuten".

"Nik ez nuen ikusi, baina esaten dutenez, geltokiko etxe batean ere bi pertsona agertu ziren ohe gainean hilik".

"Beñarani denetarik egin zioten, bibotea erre eta denetarik (…) Guardia zibilak hil egin zituzten, baina baten bat ez, agian lehenago entregatu zelako".

"Tropak sartu zirenean "¡Viva España!" eta "¡Arriba España!" oihu egiten zuten".

"Hil zituztenak, esaten zutenez, hilerrian sartu eta ezkerretara, horma baten ondoan lurperatu zituzten".

"Viktoria Huergo, nik ez nuen ikusi, baina antza denez, hilerriaren atzean agertu zen erdi-lurperatuta. Ziur aski bertan hil zuten".

"Hilario Igartua eta Jenaro Sanchez biak izan ziren zaurituak, mortero-kolpe batez. Sanchezek "etxera eraman nazazue!" esan zuen, eta Igartuak "ni erietxera eraman ezazue!". Sanchez etxean zegoenez, gerora salatzen tardatu zutenez, Ondarretara eraman zuten kartzelara. Igartua, artatu zutenean, Iruñera eraman zuten, entzun dudanez, eta han Gregorio Beguerekin bat egin zuen. Ez zen gehiago jakin haietaz".

"Igartuatarren aita Mutiloara eraman zuten. Esaten dutenez bat baino gehiago hil zituzten han, baina nik hura ez nuen ikusi eta ezin dut baieztatu".

"Frantziarrak oso gaizki portatu ziren gudan. Errepublikaren Gobernuak armaz beteriko tren bat zuen kontratatuta eta frantziarrek ez zieten pasatzen utzi".

"Kalean, gorrien familietakoak, isilik egon behar izaten genuen. Gogoan dut behin, ostegun arratsalde batean, eskolan jai zenez, behin futbol-zelaian geundela, pelaioak etorri zirela inguratzera eta gu jotzera".

"Gero gorrien semeetako batek ere ez zuen izan CAFen ofizioa ikastera sartzerik; asko jota laguntzaile (pintxe) izan ginen".

"Behin, 1941ean edo 1942an Falangearen kuartelera deitu gintuzten, uniformea jartzera. Gazte gehienak, beldurrez, joan egin ginen. Bat, Anjel Sanchez, besteak baino ausartagoa zen, eta ez zen joan. Gero lana topatzeko zailtasunak izan zituen hark".

"Franco Beasaina etorri zenean, behin, ilaran jarri gintuzten, egurrezko fusilekin, Azpeitia anaien tailerraren parean".

"Gure amek oso gaizki pasatu zuten. Horiek bai egin behar izan zituzten zenbakiak eta kontuak gu elikatzeko!"

"Guda ostean, komunismoaren beldurrez, Churchillek-eta Franco mantendu egin zuten. Hori bai, Rooseveltek bizirik iraun balu, Francok ez zukeen iraungo".

"AEBetako armadak Frantzian lur hartu zuenean, ni Bilbon nengoen soldaduskan. Nire soldaduskako lagun batek entzun zuenean, pozarren oihukatzen zuen: "gutxi falta da, gutxi falta da!".

"Gudaren ostean lehen greba egiteko, oso ausartak izan behar genuen".

Ruiz de Apodaka Galartza PAKO
(Ordizia, 1941-12-03)

Beasainen 1936ko uztailaren 27an eraildako *Frantzisko Ruiz de Apodakaren* iloba.

Beasainen 2014ko ekainaren 18an egindako elkarrizketa (gaztelaniaz).

"Nire osabetako bat, Frantzisko Ruiz de Apodaka Fernandez de Okariz, herrian gelditu zen, herria defendatzeko. Bertan hil zuten. Nire amak behin esan zidan osaba Frantzisko Ruiz de Apodaka, etxe batetik eskua bularrean zuela irten zela; litekeena da, bihotzean jo zuten nonbait".

"Nire aita (Anjel Ruiz de Apodaka Fernandez de Okariz) eta nire osaba Luis Ruiz de Apodaka, frontera joan ziren EAE-ANVko **Euzko Indarra** *batailoiarekin. Luis Bizkargin hil zen".*

*"***Euzko Indarrako** *kapitaina, nire osaba Mariano Galartza Berona zen. Heriotzara kondenatua izan zen. Nire beste osaba bat, Frantzisko Galartza Berona ere langile-batailoian ibili zen".*

"Nire izeba bat Bakion zegoen errefuxiatuta. Gorra zen eta frankistak sartu zirenean, eskuin besoa altxatzeko agindu zioten, eta berak, gorra zenez, ez zuen entzun eta ez zuen altxatu. Fusilatzear egon ziren".

"Nire aita, Anjel Ruiz de Apodaka, kartzelan sartu zuten eta langile-batailoian ibili zen, Calamochan, Teruelen. Ez dakit non hartu zuten preso. 1940an ezkondu zen, beraz, urte horren inguruan atera bide zen".

"Nire amonak beldur handia zuen. Espainiako bandera jarri behar izan zuen balkoian".

"Gure etxean, eta oro har galtzaileen etxeetan, irratian Espainiako ereserkia jartzen zutenean, irratia itzali egiten genuen".

"Gudaren ondoren, Ordizian, kalean garbi azaltzen zen, nor zein aldetakoa zen. Bereizketa hori zegoen".

"Etxean ez zen hitz egiten gudari buruz, tabua zen zaharren artean, baina gazteen artean ez".

"Nire amonaren drama aipatu nahi dut. Bi seme hil zitzaizkion gudan, alaba bat gudaren aurretik, beste seme bat preso sartu zioten… Pentsa!".

"Euskaraz ez genuen ezer ematen eskolan. Errepresio handia zegoen. Hori zela-eta, etxean euskararekiko batere harremanik ez genuenok ez genuen euskara ikasterik izan".

San Martin Osinalde JOSE MARIA
(Beasain, 1959-03-11)

Beasainen 1936ko uztailaren 27an eraildako *SATURNINO SAN MARTINEN* iloba.

Beasainen 2014ko uztailaren 30ean egindako elkarrizketa (gaztelaniaz).

"Nire osaba Saturnino San Martin Gibaja zen, fusilatua".

"Iturriotz kalean atxilotu zuten".

"Nire osaba eta Martzelo Bergara atari batean zeuden. Biak oso lagunak ziren eta bakoitzaren arreba bestearen andregaia zen".

"Kamioi bat pasatu zen eta han eraman zituzten".

"Beste bertsio baten arabera, orri batzuk botatzen ari ziren, baina familian ez diogu sekula sinesgarritasun handirik eman horri. Kalean zeuden eta besterik gabe eraman zituzten".

"Bi horiek eramatear zeudela, Ugarte izeneko bat atera zen leihora, esanez, gazte haiek ez eramateko, ez zutela ezer egin-eta. Ugarte ere eraman egin zuten".

"Nire amonak entzun zuen hilerrira eraman zituztela. Lehen egunean ez zuen arrastorik izan, bigarrenean ere ez, hirugarren egunean jakin zuen fusilatu egin zituztela".

"Zurrumurru bat bazen, hiru pistola ekarriz gero aske utziko zituztela. Garcia batek lortu omen zituen eta hura libratu egin zuten".

"Nire beste osaba bat, Faustino San Martin, ihesi joan zen. Zazpi urte egin zituen Beasaindik kanpo".

"Nire aita ez zen sekula mezatara joaten. Nik hamabi urterekin edo galdetu nion, bera zergatik ez zen joaten eta ni joatera zergatik behartzen ninduen. Berak erantzun zidan ez zuela barkatzen bere anaia (Saturnino San Martin) hil izana".

or.

Sarriegi Eskisabel ANDONI
(Beasain, 1946-08-13)

Zezilio Sarriegi Aldanondo
militante abertzalearen semea.

Beasainen 2014ko ekainaren 6an egindako elkarrizketa (euskaraz)

"Aitak (Zezilio Sarriegi Aldanondok) eta osabak (Joxe Sarriegi Aldanondok) Beasaindik alde egin behar izan zuten, baina egun ezberdinetan egin zuten alde. Aitak batzokian ardurak zituen eta batzokia uztailaren 18an inauguratuta, ospakizunak pasatu ondoren, haietako egunen batean egin zuen alde. Osabak aldiz, frankistak uztailaren 27an sartu ostean egin zuen alde eta bitartean Bernedo-enean eta etxeko baserrian ibili zen lanean. Uztailaren 31 goizean, oso goiz, alde egin zuen, Aratz-Matxinbenta aldera".

"Osabak lantokian jakin zuen gure aitaren bila zebiltzala "Zezilioz" galdezka omen zebiltzala-eta. Beraz, egun horietan Ugartemendi auzoko baserri batean (Imatz-enean) lo egin ondoren, alde egin zuen (27an Beasainen matxinatuak sartzean, erreketeek okupatu zuten Txintxurretan familia bizi zen etxebizitza)".

"Matxinoak sartzerako, etxea borroka-lekuaren erdian zegoelako, Aitajauna, Joan Antonio Sarriegi Aldanondo eta, amandrea, Maria Josefa Aldanondo Aranburu, eta bi alabak, nire izebak (Martina eta Romana Sarriegi Aldanondo) Arangoiti ospitalera joan ziren badaezpada. Itzuli zirenerako erreketeak sartuak ziren eta beren etxebizitza (1. ezkerra) okupatua zuten. Beraz, ez zuten beren etxebizitzan bizitzerik izan eta Joxe Joakin Araneta maizterraren etxera (2. eskuina) joan behar izan zuten hainbat hilabetetarako, erreketeek alde egin arte. Etxea arpilatu egin zieten, paperak balkoi eta leihoetatik bota zizkieten, maindireak, etxetresnak eta beste eraman zizkieten eta abar".

"Aita eta osaba gero Bizkaian ibili ziren, Asuako industria militarizatuan lan egin zuten, eta guda-frontean ez zuten parte hartu. Atzeraka, Asturiasera egin zuten eta han atxilotu zituzten".

"Alkateak sinatutako herriko txostenen bitartez akusatu zituzten. Epaileak, abalatzeko, eskuineko bi pertsonen izenak esateko eskatu zien. Haiek entzuna zuten orduan alkate Jose Luis Guridi zegoela, beraz, Jose Luis Guridi eta Joxe Aranburu aipatu zituzten. Epaileak esan zien "Jose Luis Guridi, no puede ser", aitak: "¿Por qué no? Eta epaileak "Guridi es el que firma el atestado". Aitak irteterakoan bi hitz esan zizkion osabari eta hark ere berdin egin zuen eta erantzun berbera jaso zuen."

*"Aita zena akusazio faltsuekin epaitu zuten. Akusazio-txostena sinatu zuen batek (Florentzio Gallegok) geroago Beasaingo Bake Epailearen aurrean egin behar izan zuen aitormen batean zera esan zuen: "beno, ezin zuela ziurtatu" eta hori dugu adibide garbia. Sei urte eta egun bateko kartzela-zigorra ezarri zioten. 30 hilabete Larrinagan egin zituen eta gero **"lanaren bidezko zigor-ordainketa"** egin behar izan zuen zazpi hilabetez Zornotzan (Amorebietan) industriako lanean kobratu gabe".*

*"Batzokia uztailaren 18an inauguratu zuten; ez zen soilik politika-bilgunea, **Goierriko Alkartasuna** izeneko kultura-gunea zen, frontoia ere bazuen, antzerkiak egiten zituzten eta abar. Florentzio Aspe erretoreari deitu zioten bedeinka zezan, eta hark bedeinkatu zuen uztailaren 18an "Ahí os entrego vuestro hogar, habéis hecho una gran cosa para la juventud" eta abar esanez. Uztailaren 27an, matxinatuak herrian sartu zirenean Falangeak hartu zuen etxe hori eta Florentzio Aspe atxilotu egin zuten, euren aldekoa izan arren, eta etxean entzun izan dut Matias-enean edo geltokian bera ere preso eduki zutela. Frankistak, armen bila zebiltzanez, apaizen batek, On Pedro Mokoroa izan zitekeela entzun izan dut, eskopetaren bat-edo lortu eta erretorea salbatu zuela".*

"Aspe, batzokia altxatuek hartu zutenean, berriz ere bedeinkatzera eraman zuten eta haiei ere "Ahí os entrego vuestro hogar, etab." esan zien".

“Senpereko futbol-zelaian (gaurko CAFeko tailerren tokian), erreketeek instrukzio militarra egiten zuten”.

“Apaiz batek hor egindako hitzaldi batean, erreketeei hala esan zien: “hiltzen zaretenean, San Pedrorengana iristerakoan, hark gorriak ala nazionalak zareten galdetuko dizue eta zuek erantzun erreketeak zaretela eta zuzenean zeruan sartuko zaituzte!”. Agian Aspek esan zien, baina nik entzun izan dut hori esan zuena Zaldibiko apaiza izan zela”.

“Osaba (Joxe Sarriegi) etxera itzuli zenean, eskuindar batzuk iritzi zioten goizegi askatu zutela eta “¿a ese le vais a dejar así?” esanez hasi bide ziren beren artean. Bakarren batek esan omen zuen: “No, ya se le hará justicia!” eta akusazio berriak prestatu zizkioten. Akusatu, atxilotu eta Ondarretako kartzelan sei edo zazpi hilabete egin zituen epai-zain, baina epaitegian libre atera zen. Hilabete haietan, haren lanik gabe, oso gaizki ibili ziren etxean gurasoak eta bi arrebak zituzten abereak zaintzen eta lurrak lantzen”.

“Osabaren kontra salaketa prestatu zutenak Eujenio Lasa, Rufo Artolain eta Florentzio Gallego izan ziren. Epaiketara Fermin Perez bidali zuten. Silverio Oriak ere testigantza bat eman zuen”.

“Osabak, epaiketatik libre atera ondoren, kalean, akusazioa prestatu zutenei, aurpegi eman zien “nik zer egin dizuet zuei, zuek niri hau egiteko?” galdetu zien. Eurak, “guk ezer ez, guk ez dugu sinatu ezer!” eta osabak “zuek bai, nik badakit, nork prestatu dituen eta nork jarri duen sinadura!” eta besteek bizkarra eman eta alde egin zioten”. Atxilotzera joan zitzaion Sacristan guardia zibil ezagunak esan bide zion kuartelean bertan.”

“Hori guztia tarteko, gure etxean markatuta zeuden. Herrian edo Gipuzkoan zeozer bazegoen, abertzaleen artean, Jesus Ibarbia, Alfontso Ibaibarriaga eta Zezilio Sarriegi beti deituak izaten ziren Guardia Zibilen kuartelera 1966. urtera arte”.

“Gerora Aspe erretorea erregimenarekin erabat lerratu zen sermoietan, ihes egin zutenengatik “ya se fueron, no volverán!” bezalako esaldiak erabiltzen zituen. Ihes egin zuten mutil guztiak Luistarren kongregaziotik bota egin zituzten. Erregimenaren kontrakoek ezkontzeko ere arazoak izan zituzten. Gure aitak ere izan zituen Asperekin arazoak ezkontzeko, erretoreak derrigorrez berak ezkondu behar zituela-eta. Azkenean Gotzaindegira jo eta handik aukeratzeko eskubidearen bermea eskaini zioten aitari eta berak nahi zuen orduan, nahi zuen tokian eta nahi zuen apaizarekin ezkon zitekeela adierazi zioten idatziz. Asperi ere bai beste idazki baten bidez eta azkenean beste apaiz batek ezkontzea lortu zuen”.

“Behin Maria Josefa Aldanondo amandrea, Pedro Mokoroarengana konfesatzera joan zen, eta apaizak, amaieran, ihes eginda zeuden semeez galdetu zion: “Semeen berririk ba al duzue?” eta amandreak ezetz. Gero apaizak esan zion “Izan ere, haiek ere handia egin zuten gorriekin joatea” eta amandreak erantzun zion: “Gorriekin alde egin, diozu? Haiek pake-pakean bizi ziren hemen egunero lan eginez, baina beste batzuk etorri dira hona kanpotik armekin, denak garbitu asmoz! Jesu Kristok ere Egiptora alde egin behar izan zuen Herodesengandik bizirik irtengo bazen! Ba haiek ere Jesu Kristok bezalaxe alde egin behar izan dute bizirik iraun ahal izateko” Handik aurrera ez omen zion gehiago semeez galderarik egin”.

“Florentzio Asperen inguruko bertsioa bai aitari, Zezilio Sarriegiri, zein osaba Joxe Sarriegiri zein izeba Martina Sarriegiri entzun izan nien. Florentzio Aspe Bustindui erretorea monarkikoa zen, integrista. Errepublika garaian, San Ignazio egun batean, eliza jendez lepo zela, sermoia egiten hasi zen: “Unos me critican porque hablo en vascuence, otros porque hablo en castellano; de todas formas, voy a hablar en mi lengua materna”, eta erdaraz segitu zuen. Bera euskalduna zen, Soraluzeko semea eta jarrera horren kontra, gazteak korutik barra-barra jaitsi eta kanporatzen hasi ziren. Hori ikusi zuenean, hizkuntza aldatu eta euskaraz jarraitu zuen sermoia”.

“Dotrina bai, euskaraz emateko aukera bazegoen Beasaingo parrokian eta baita Lasalletarren ikastetxean ere, baina besterik ezer gutxi. Ni izan nintzen beasaindar bakarra nire urtekoen artean, lehenengo jaunartzea egiteko dotrina euskaraz eman nuena eta handik zazpi urtera arrebak lehen jaunartzea egin zuenean ere, bera izan zen dotrina euskaraz eman zuen bakarra”.

Ugarte Azkarate ARANTZA eta Ugarte Sukia Mª ROSARIO

(Beasain, 1945-02-25) (Donostia, 1946-11-08)

1936ko uztailaren 27an eraildako *GILLERMO UGARTEREN* bilobak.

Beasainen, 2014ko abuztuaren 5ean egindako elkarrizketa (gaztelaniaz).

"Bizitza nahiko normala zen Errepublikakoa, nire aitak (Zesareo Ugarte Peñagarikanok) kontatu zidan bezala". **(ARANTZA UGARTE AZKARATEK)**

"Nire izebek esaten zidaten nahiko normala izan zela Errepublikaren etorrera. Nahiko jai-giroan ospatu zela etorrera". **(MARIA ROSARIO UGARTE SUKIAK)**

"Tropa altxatuak sartu zirenean, aitonari (Gillermo Ugarte Aetari) kalera ez irteteko esan zioten baina kotxe bat erretzen ikusi zuen leihotik. Orduan irten egin zen eta ohartaraztera joan zen eta orduan hartu eta kamioian sartu zuten". **(ARANTZA UGARTE AZKARATEK)**

"Gillermo Ugarte laguntzen saiatu zena, txoferra izan omen zen". **(BIEK)**

"Atxilotu zutenean geltokira eraman zuten eta gero Matias-enera". **(MARIA ROSARIO UGARTE SUKIAK)**

"Nik beti entzun izan dut Gillermo Ugarte hilerrian hil zutela. Aitak hori esaten zuen". **(ARANTZA UGARTE AZKARATEK)**

"Nire aita (Zesareo Ugarte) eskoletan zegoen, hor muntatu zuen erizaindegian. Olabarrietatarrek ikusi zuten Ugarte atxilotzen, baina ez ziren ausartu kalera irteten. Gauean joan ziren, atzeko kaleetatik eta orduan kontatu zuten nola ikusi zuten Ugarte atxilotzen. Zesareo Ugarte hilerrira joan zen, baina jada hilda ikusi zuen bere aita". **(ARANTZA UGARTE AZKARATEK)**

"Beñaran gure senitartekoa zen, nire amaren izeba batekin ezkonduta zegoen. Kuartelean bizi ziren". **(ARANTZA UGARTE AZKARATEK)**

"Zaldi zuri batean ibiltzen zen. Oso polita zen zaldia eta Beñaran oso elegantea. Nire aitak oso ondo hitz egiten zuen hartaz. Ez zuten seme-alabarik, baina umeak asko maite zituen". **(ARANTZA UGARTE AZKARATEK)**

"Bazegoen apaiz nafar bat, erreketeekin etorria pistolarekin ibiltzen zena. Amak esaten zuen nola zen posible apaiz bat pistolarekin ibiltzea". **(ARANTZA UGARTE AZKARATEK)**

"Nire aitonaren jatetxean (Pako Azkarateren fondan) egon ziren militarrak. Oso ondo egon ziren, baina ez ziren guztiz gaizki portatu. Gogoan dut salaketa bat etorri zela nire aitonaren kontra fonda horretan bilera abertzaleak egiten zirela-eta, eta militarrak, Morionesek, aitonari erakutsi zion: "Egia al da?" galdetu zion, eta aitonak, "Ez". Morionesek: "Apurtu egingo dut" eta apurtu egin zuen. Bigarrenez etorri zen gutun hori eta Morionesek apurtu egin zuen, eta esan zuen, "baina hirugarren aldiz etortzen bada, ez dut apurtzerik izango". Eskerrak hirugarren gutunik ez zen iritsi. Salatzailea berdina zen, baina ezin dugu esan nor den". **(ARANTZA UGARTE AZKARATEK)**

"Nire amari behin pertsona batek, 500 pezetako isuna jarri edo ilea moztuko ziola esan zion hileta batean besoa altxatu ez zuelako. Nire amak esan zion 500 pezeta ez zizkiola emango, ilea mozteko nahi bazuen, baina ez zion moztu". **(ARANTZA UGARTE AZKARATEK)**

"Beasaingo batek aitarekin topo egiten zuen bakoitzean, belauniko jarri eta barkamena eskatzen zion. Gero trenari bota zion bere burua". **(ARANTZA UGARTE AZKARATEK)**

"Guda ondoren, jende arruntaren artean ez zegoen ezineraman handirik, baina aitari mediku-plaza kendu zioten". **(ARANTZA UGARTE AZKARATEK)**

"Etxean beti saiatu izan gara arrangurak alde batera uzten". **(MARIA ROSARIO UGARTE SUKIAK)**

"Ni umea nintzenean miseria handia pasatzen zen Beasainen". **(ARANTZA UGARTE AZKARATEK)**

"Bai, Beasainen egin zen estraperloarekin aberastu ere egin zen jende bat". **(ARANTZA UGARTE AZKARATEK)**

Unanua Artolain JOAN
(Beasain, 1958-11-13)

Rufo Artolain **zinegotzi frankista izan zenaren biloba.**

Beasainen 2014ko irailaren 5ean eginidako elkarrizketa (gaztelaniaz).

"Nire aitona (Rufo Artolain Gaztañategi) karlista izan zen guda aurretik eta ondoren".

"Nire aitona hospiziokoa edo umezurtzetxekoa zen. 13 urterekin CAFen hasi zen lanean".

"Nire amona abertzalea zen, EAJkoa, eta ez zuen karlistekin harreman txarrik".

"Nire aitona ez zen Usurbe Elkarteko kidea".

"Karlistak batez ere erlijioagatik jarri ziren altxatuen alde".

"Lehen Udal-taldea Jose Luis Guridirena izan zen. Nire aitona zinegotzi izan zen".

"Nazionalistek-eta, herritik ateratzeko salbokonduktoa behar izaten zuten. Aitonak horiek sinatzeko boterea zuen. Adibidez, Felisa Olano errekadistari berak sinatu zion".

"Joxe Aranburu "Santinekoa" edo "Joxe karlista" ez zen ausartzen bera bakarrik sinatzera, baina aitonak (Rufo Artolain) sinatzen bazuen berak ere bai. Orduan bien artean sinatzen zituzten".

"Orduan aitonari botere hori kendu egin zioten, ezen, jende susmagarriari ere sinatzen omen zizkion. Ez zion Udalak kendu botere hori, kuartelekoek kendu zioten".

"Nire aitona Udalean, apur bat beldurragatik sartu zen, militarrek jende asko akabatu baitzuten, asko eskuindarrak gainera".

"Nire aitonak jende bat CAFen sartzeko bitartekaritza ere egin zuen".

"Garai haietan gure etxean gosea ez, baina estutasunak pasatu ziren".

Unanue Lobeto SARA
(Beasain, 1936-11-11)

1936ko uztailaren 27an Beasaingo mediku izan zen *ROMAN UNANUEREN* alaba.

Donostian 2014ko urriaren 1ean egindako elkarrizketa (euskaraz).

"Aita sendagilea zen, eta aurretik CAFeko sendagilea. Herrian oso integratuta zegoen".

"Aita abertzalea zen".

"Aitak beti esaten zuen Beñaranek Errepublikaren alde zin egin zuela eta hiltzekotan Errepublikaren alde hil behar zuela. Oso pertsona zuzena zela esaten du. Oso lagunak ziren".

"Aitak esaten zuen Beñaranek monumentu bat merezi duela Beasainen".

"Nire aitak ez zuen tiroketetan parte hartu".

"Aitak beldurra zuen gudan; atea jotzen zuten bakoitzean, "Nire bila datoz" esaten zuen beti. Berak uste zuen bere bila zetozela, nire ama nitaz haurdun zegoen orduan".

"Beasainen sartu ziren tropa "nazionalak, Nafarrak" (erreketeak) ziren. Aitak kaxoian zuen ikurrina bat eta aurkitu egin zioten. Orduan aitak esan zuen "hau nire emaztearentzako da" Erreketeak, orduan "ez, ez, ez dugu ukituko". Ikurrina zer zen ere ez zekiten".

"Egunero entzuten genuen "Urlia eta Berendia hil dituzte".

"Uste dut hilerrian hil zituztela".

"Behin gogoratzen dut atea jo zutenean, nire aitak sekulako beldurra izan zuela. Ume bat zen atea jo zuena eta "Ninia jo titi" esaten zuen. Aitak lasaitu handia hartu zuen".

"Aita heriotzara kondenatu zuten, "Por nacionalista separatista y gran propagandista".

"Nire aitak ez zuen gaizki kobratzen, baina garai hartan ez zegoen jateko ezer eta orduan gosea izan zen nagusi".

"Gerra-garaian eta ondoren, ez zegoen azukrerik. Nafar lagun bati, Eugi bati eskatu behar izan zion. Gogoan dut esan zuela "nire seme-alaben azukrea kentzen badidate, tiro bat joko diot norbaiti".

"1942an edo Gabiriara joan ginen bizitzera. Han jateko gehiago zegoen. Jende zoragarria zen. Kontsultara etortzen zirenean, janariz ordaintzen zioten aitari".

"Irratia edukitzeko ere baimena eskatu behar zen".

"Guk Radio España Independiente (Pirenaica) entzuten genuen".

"Gabirian euskaraz ikasi nuen".

"Nire neba jaio zenean "Oskar Aitor" jarri zioten izena. Apaizak esan zion ezetz, ezin ziola "Aitor" jarri. Nire aitak orduan esan zuen "ba orduan etxera goaz umearekin!". Eta orduan apaizak "beno, Roman, ez jarri horrela zuk nahi bezala jarriko diogu". Eta orduan Oskar Aitor jarri zioten, baina lehenengoan apaizak ezetz esan zuen".

Eranskina
Monumentua

4.

1936ko gertakariak azaltzen dituen monumentuaren ondoko panela.
(Argazkia: Andoni Sarriegi Eskisabelek utzia)

Idatzi gabeko HISTORIAREN agerkundea

JOKIN TELLERIA TELLERIA

1936ko uztailaren 27an Beasainen hil zituztenen eta 1942ra arte beste leku batzuetan hil zituzten beasaindarren oroimena gordetzeko monumentu oroigarri bat egiteko ideia proposatu zidatenean, burutazio askoren ondoren, hauxe da proposatzera iritsi nintzena: Idatzi gabeko historia agerrarazi behar nuela, ordura arte lurpean eta ezkutatuta edukiarazitako historia.

Ideia nagusi horrekin hasi nintzen gaia lantzen eta hiru elementurekin irudikatzea bururatu zitzaidan: harkaitzarekin, liburu zuriarekin eta ezkila edo kanpaiarekin. Hala bada, historia hori, urte gehiegi lurpean igaro ondoren, halako batean, 2012an, lurpetik harkaitz bat azaleratzen da Beasainen eta harkaitzean liburu zuri bat, idatzitako ezer ez duena eta harkaitzaren gainean ezkila erraldoi puskatu bat dilindan, 1936an, ezkilak komunikaziorako zuen gaitasuna desegin eta lurpean gelditua.

Ideia hori mamitzen hasi nintzenean, nire gogoeta, ezkila hiru zatitan agertzea edo irudikatzea izan zen, hiru zutabetan sartu baitziren altxamenduko indarrak Beasainen eta kanpaiaren hirugarren adarra edo zatia goi aldera bihurrituta jartzeko asmoa izan nuen, horrek, mugimendua adierazteko, itxura bortitzagoa eta plastika aldetik itxurosoagoa izango zukeelako eta beste ikuspegi bat emango ziokeelako monumentuari, baina bestalde, kostua igo egingo zukeen noski.

Nire baitan pentsatzen nuen herritar gehienak ados egongo zirela historia ahaztua agertzearekin, baina iritzi desberdinak bazeudela eta egonezina sor zezakeela ikusita, kostuarengatik edo ez dakit zergatik, bertan behera utzi nuen hirugarren zatiaren ideia eta pentsatu nuen garrantzitsuena oroigarria jartzea zela eta oroigarriak gertakizunaren ideia orokorra adieraziko zuela. Horregatik egin zen eginda dagoen bezalakoa.

Hala bada, uztaileko eguzkiak arratsaldean goitik oroigarri hori argitzean, ezkila puskatuan idatzita dagoen historia, liburu zurian irakur daiteke ordu batzuez. Historiaren agerkundea da, egia garratzaren agerkundea, 80 urte geroago Beasainen, Euskal Herrian eta munduan bizi garenoi egiten zaigun agerkundea.



(Jokin Telleriaren marrazkiak)



Otsaurtetik etorrita sartu ziren Beasainean 1936-07-27an, Arratsaldeko 4etan. Gau hartan bertan, adin, ideia eta izaera askotako 36 lagun fusilatu zituzten, hemen bertan edo inguruan. Gainera, 1939 arte iraun zuen gerra hartan eta ondorenean, beste 17 beasaindar fusilatu edo hil zituzten Beasainean eta Beasaindik Kanpo.

1936-07-18an, Espainiako militar faszistak armetan altxatu ziren falangistak eta erreketeak lagun zituztela. Iruñean, Emilio Mola jenerala, izan zen altxamenduaren buru. Nafarroan izugarrizko sarraskia egin zuten (3.000 fusilatu baino gehiago). Pablo Cayuela, Teniente Koronelaren agindupean, Lizarrustitik, Etxegaratetik eta

(Jokin Telleriaren marrazkiak eta maketak)

Uztaileko arratsaldeko eguzkiak monumentua argitzen duenean, idatzi gabeko historia liburu zurian irakurgai bihurtzen da.
(Argazkia: Andoni Sarriegi Eskisabelek utzia)

Dantzarien agurra oroigarriaren aurrean, 2014-07-27an. (Argazkia: Andoni Sarriegi Eskisabelek utzia)

Dantzarien ongi-etorri arkua fusilatuen familiartekoei 2012-11-10ean.
(Argazkia: Andoni Sarriegi Eskisabelek utzia)

Eraildakoen familiartekoak lore-eskaintza egiten 2013-07-27an.
(Argazkia:Andoni Sarriegi Eskisabelek utzia)

Eraildakoen familiartekoak 2016-07-27ko ospakizunean.
(Argazkia: Andoni Sarriegi Eskisabelek utzia)

Loreak monumentuan. (Argazkia: Andoni Sarriegi Eskisabelek utzia)

La posguerra en Beasain 1937-1945

Nota. – Una obra bilingüe de estas características, en la que han participado tantas personas, se puede publicar, en teoría, de varias maneras.

La primera es hacerlo en dos volúmenes: el primero con la obra escrita en euskera y el segundo con su correspondiente traducción al castellano. En ellos aparecería el nombre del pueblo de Beasain al que se refiere esta obra, escrito de la misma manera en los dos volúmenes ya que se dice igual en euskara y en castellano. Sin embargo un nombre, elegido al azar, escrito en euskera *Karlos Gonzalez*, en la traducción castellana estaría escrito correctamente *Carlos González*.

Una segunda forma, como es en nuestro caso, es publicarla en 4 tomos donde cada uno tiene una parte de la escrita en euskera con su correspondiente traducción, y su Bibliografía.

Por otra parte, como varias empresas se han encargado de la traducción al castellano de esta obra queremos decir también que:

Si analizamos, como ejemplo, las decenas de referencias que estas empresas hacen en cada tomo al Archivo Municipal de Beasain, en los Pies de Página, comprobaremos que cada una tiene su estilo. Así, en ellos, después de escribir documento, una deja un espacio libre antes de poner el número (documento 12), otra escribe en medio dos puntos (documento: 12), mientras que una tercera pondrá el signo nº (documento nº 12). Nosotros hemos respetado estas formas porque las consideramos correctas sin optar por ninguna de las tres.

Lo mismo ocurre en las traducciones al escribir las fechas de las entrevistas realizadas de los testigos citados en esta obra. Mientras alguna utiliza, por ejemplo, la forma *1 de diciembre de 2014*, otra escribe así la misma fecha *01/12/2014*. En la medida que las dos son también correctas, no las hemos modificado. Lo mismo ocurre con las abreviaturas de página, que se pueden escribir p., pág., que son correctas.

Más problemático es escribir en una obra bilingüe de estas características los nombres y los apellidos de las personas, así como los de los lugares. Aquí, en teoría, tampoco hay ningún problema en escribir un nombre escrito en euskera *Gontzalo Queipo de Llano*, escribirlo en la versión castellana *Gonzalo Queipo de Llano*. El problema surge cuando de las dos formas, hay ya una que está escrita en la Bibliografía. Además se puede dar la paradoja que en ella aparezcan nombres en las fuentes orales nombres como *Joan, Jabier, Frantziska*… y los mismos nombres de otras personas escritos en la Bibliografía como *Juan, Javier, Francisco*. Lo mismo podemos decir de los apellidos. Es decir, escritos de dos formas.

En la misma línea, si una persona entrevistada se llama Alfontso Ibaibarriaga, se escribe así en el texto escrito es euskara, evidentemente también en la Bibliografía, y también cada vez que se le cita en los tomos en los pies de página. Eso sí, ¿cómo se escribe este nombre Alfontso en la traducción castellana? ¿Cómo se escribe el entrevistado Jabier, con –v-? ¿Cómo se escribe también Joan, Frantziska, y todos los demás nombres? Se podrá argumentar sensatamente que en una obra de estas características lo mejor es escribir los nombres en euskara en el texto vasco, y en castellano en la traducción. De acuerdo, ¿pero qué hacemos con los pies de página y sus referencias en la Bibliografía? ¿Las cambiamos también? Hay cientos de nombres y miles de pies de página en total en los 4 tomos.

Por todo ello, y visto que el problema no tiene una clara solución, se ha decidido respetar íntegramente los nombres propios en el texto escrito en euskera sin modificarlos, no se modifican tampoco los nombres que aparecen en las Fuentes ni en la Bibliografía, y obviamente tampoco los que aparecen en los pies de página que son los mismos. En las traducciones se escribirán los nombres correctamente en grafía castellana, aunque a veces también aparezca algún Txomin, o algún apellido euskaldun que por el más elemental respeto no lo hemos cambiado.

Índice

PRESENTACIÓN 213

1. LA POSGUERRA EN BEASAIN (1937-1945) 214

1.1. Introducción 214
1.2. Demografía y economía del municipio de Beasain 215
1.3. Núcleos de poder en la Beasain de posguerra 217
1.3.a) Mandato del alcalde José Luis Guridi. 222
1.3.a.I) Servicios 231
1.3.b) Mandato de Martín Esnaola Elicegui 234
1.3.b.I) Servicios 239

1.4. Actitud de las autoridades hacia las tropas 242
1.4.a) Relación entre militares y autoridades municipales 242
1.4.b) Visita de Franco a Beasain 249

1.5. Represión 249
1.5.a) Fallecimientos 249
1.5.a.I) Fallecidos sin juicio 249
1.5.a.II) Fusilados con juicio previo 252
1.5.a.III) Fallecimiento del guerrillero de Aratz-Matxinbenta 255
1.5.b) Juzgados, encarcelados y trasladados a los batallones de trabajadores 255
1.5.d) Exilio 266
1.5.e) Los huérfanos y la alteración de la memoria de la represión 267
1.5.f) Represión sociopolítica y control social 269
1.5.g) Consecuencias de la represión sociopolítica: relaciones familiares y memoria de las víctimas 274
1.5.h) Represión laboral 283
1.5.i) Hambre, racionamiento y estraperlo 292
1.5.j) Situación del euskera 301

2. ANEXO (Listas) 308

3. ANEXO (Testigos) 349

4. ANEXO (Monumento) 381

5. FUENTES Y BIBLIOGRAFÍA 383

Dos aspectos de mi vida se conjugan al prologar este libro: por una parte, el profesional formado en el estudio de los ámbitos forenses; y por otra parte, el vecino de Beasain. Cuando yo nací hacía 21 años que se había producido la sublevación militar franquista y, sin embargo, sus consecuencias todavía eran muy patentes en la vida de Beasain y el Goierri.

En mi familia se hablaba con temor y prudencia sobre estas cuestiones. Había sido un elemento traumático, todos hablaban de cómo entraron los sublevados en Beasain, cómo se militarizó la CAF, y cómo se rompieron las dinámicas culturales tanto en mi pueblo como en la vecina Ordizia.

Investigaciones como estas se tenían que haber realizado hace muchos años, sobre todo porque se han perdido muchos testimonios valiosos para aclarar sufrimientos y reconocer a las víctimas.

Esta es, sin duda, una gran investigación que nos ayudará a comprender mejor la historia de Beasain y a generar un espíritu crítico para que no se repitan hechos como los aquí narrados.

